

Egunean Eguneko

Ebanjelioa

2024 Urtea

Egutegi liturgikoa
Egunean Eguneko Ebanjelioa
Igande eta Jai-egunetan irakurgai guztiak
Otoitzak eta Debozioak

Egunean eguneko iruzkin laburrak gaztelaniaz:

Francisco José Ruiz, SJ

Testu liturgikoak:
Liturgiarako liburuetatik;
batzuk EABtik;
itzultzailearen ukitu batzuekin.



Mezulari

Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiarik egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldaketak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreprodukzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.

**Liburua eratu eta euskaratu: Dionisio Amundarain OSB, Andoni
Sarriegi, Anizeto Ajuriagogeaskoa eta Jose I. Eguskitza.
Argitalpen honen erantzulea: Koldo Katxo, SJ.**

Azaleko argazkia: Pedro bere etxeko kaperan, São Félix do Araguaia, MT, Brasil (2010)

Egilea, José María Concepción Rodríguez

© Mezulari, 2023
Grupo de Comunicación Loyola
Aita Lojendio kalea, 2
48008 Bilbo
Tel: 94 447 03 58
info@gcloyola.com
www.gcloyola.com

ISBN: 978-84-271-4724-9

Lege gordailua: BI-726-2023

Maketazioa: Marín Creación, S. C. / www.marincreacion.com

Inprimategia: GZ Printek, S.A.L. - Zamudio (Bizkaia) / www.gzprintek.es

Aurkibidea

Egutegia 2024	4
Sarrera	5
Festaburuak eta jai mugikorak 2024an	9
Ospatzeko jai nagusiak 2024an	9
Eguneko ebanjelioa eta irakurgaiak:	
Urtarrila	11
Otsaila / Zezeila	59
Martxoa / Epaila	103
Apirila / Jorraila	181
Maiatza / Orrila	227
Ekaina / Bagila	277
Uztaila / Garagarrila	325
Abuztua / Dagonila	373
Iraila	429
Urria / Urrila	479
Azaroa / Zemendia	527
Abendua / Gabonila	575
Otoitzak eta debozioak	631

URTE LITURGIKOA 2024

B-C URTEKOA

Asteak	Ig	AsI	As2	As3	OsI	Os2	Lar
URTARRILA							
Maria B		1	2	3	4	5	6
Bataio B	7	8	9	10	11	12	13
2. Urt B	14	15	16	17	18	19	20
3. Urt B	21	22	23	24	25	26	27
4. Urt B	28	29	30	31			
OTSAILA							
4. Urt B					1	2	3
5. Urt B	4	5	6	7	8	9	10
6. Urt B	11	12	13	HE	15	16	17
1. Gar B	18	19	20	21	22	23	24
2. Gar B	25	26	27	28	29		
MARTXOA							
2. Gar B					1	2	
3. Gar B	3	4	5	6	7	8	9
4. Gar B	10	11	12	13	14	15	16
5. Gar B	17	18	19	20	21	22	23
Aste S B	24	25	26	27	OS1	OS2	30
Pazk ig B	31						
APIRILA							
Pazk ig B		1	2	3	4	5	6
2. Pazk B	7	8	9	10	11	12	13
3. Pazk B	14	15	16	17	18	19	20
4. Pazk B	21	22	23	24	25	26	27
5. Pazk B	28	29	30				
MAIATZA							
5. Pazk B				1	2	3	4
6. Pazk B	5	6	7	8	9	10	11
Igokun B	12	13	14	15	16	17	18
Mend.	19	20	21	22	23	24	25
HS B	26	27	28	29	30	31	
EKAINA							
8. Urt B						1	
Corp. B	2	3	4	5	6	JB	8
10. Urt B	9	10	11	12	13	14	15
11. Urt B	16	17	18	19	20	21	22
12. Urt B	23	24	25	26	27	28	29
13. Urt B	30						

Asteak	Ig	AsI	As2	As3	OsI	Os2	Lar
UZTAILA							
13. Urt B		1	2	3	4	5	6
14. Urt B	7	8	9	10	11	12	13
15. Urt B	14	15	16	17	18	19	20
16. Urt B	21	22	23	24	25	26	27
17. Urt B	28	29	30	31			
ABUZTUA							
17. Urt B					1	2	3
18. Urt B	4	5	6	7	8	9	10
19. Urt B	11	12	13	14	15	16	17
20. Urt B	18	19	20	21	22	23	24
21. Urt B	25	26	27	28	29	30	31
IRAILA							
22. Urt B	1	2	3	4	5	6	7
23. Urt B	8	9	10	11	12	13	14
24. Urt B	15	16	17	18	19	20	21
25. Urt B	22	23	24	25	26	27	28
26. Urt B	29	30					
URRIA							
26. Urt B			1	2	3	4	5
27. Urt B	6	7	8	9	10	11	12
28. Urt B	13	14	15	16	17	18	19
29. Urt B	20	21	22	23	24	25	26
30. Urt B	27	28	29	30	31		
AZAROA							
30. Urt B						1	2
31. Urt B	3	4	5	6	7	8	9
32. Urt B	10	11	12	13	14	15	16
33. Urt B	17	18	19	20	21	22	23
34. Urt B	24	25	26	27	28	29	30
ABENDUA							
1. Aben C	1	2	3	4	5	6	7
2. Aben C	8	9	10	11	12	13	14
3. Aben C	15	16	17	18	19	20	21
4. Aben C	22	23	24	25	26	27	28
FS	29	30	31				

LABURDURAK: Aben = Abendualdia • Ast S. = Aste Santua • Corp = Corpus Eguna • Egub =Eguberrialdia • FS = Familia Santua • Gar = Garizuma • HE = Hausterre Eguna • HS = Hirutasun Santua • Igokun = Jesusen Igokunde • JB = Jesusen Bihotza • Mend = Mendekoste Igandea • OS1 = Ostegun Santua • OS2 = Ostiral Santua • Pazk = Pazkoaldia • Urt. = Urteko • Bataio = Jaunaren Bataioa.

SARRERA

PEDRO CASALDÁLIGA PLA, CMF

(Balsaren, Catalunya 1928/02/16-São Félix do Araguaia,
Brasil 2020/08/8)

Pedro edo Pereren heriotzaren berri izan bezain laster, burutik pasa zitzaigun berari eskaintzea gure liburutxo honen azala eta sarrera. Noski, 2021ekoan ezin eman, libururen testua inprentan zegoelako, 2022ko Sarrera, ignaziotar urtea zela eta, san Ignaziori eskaini beharrekoa zela uste genuen; eta 2023koan, sinodotasunaren sinodoa aintzakotzat hartuta, sinodorako bideari ekin genion. Azkenean, **Pere Casaldàliga, klaretar misiolari, poeta, mistiko, iraultzaile, gotzain** eta abar luzea... eta, askorentzat kristau fedean bidelagun denari egokitu zaio Egunean Eguneko Ebanjelioan 2024ko azala eta sarrera hartzea.

Garai hartan ohi bezala, 17 urterekin klaretar kongregazioan sartu zen. Klaretar misiolarien ikasketak amaitu eta gero, Montjuïc-en, Bartzelonan, **apaiztu zen 1952an**. 1968. urtea arte ministeritza batzuk burutu zituen Sabadell, Barbastro, Bartzelona eta Madrilén. Urte horretan, Vatikanoko II.a Kontzilioa bukatu berrian, São Félix do Araguaian (Brasilgo Mato Grosso estatuan) klaretar misioa fundatu zuen. Hiru urte han emanik, **1971n, bertako Prelaturako gotzain** izendatu zuen Paulo VI.a aita santuak. Lurralde hartako herria oso zapalduta zegoen, lurjabe eta jauntxo handien mesedetan. Gainera, estatuak ez zuen bermatzen osasun eta hezkuntza sistemarik. Komunikatzeko baliabiderik gabe eta **pobrezia izugarriarekin**.

Casaldàligak eta beraren lagun klaretarrek jende xumearekin bizi nahi dute; gainera, ebanjelioa inkulturatu beharra sentiturik herriko parte dira. Ezin dute jasan egoera bortitza, eta **ahulen defentsan gogor** posizionatzen dira. Errealitatea injustiziaz bete da daukate aurrez

aurre, eta heriotza eta desberdintasuna sortzen duen sistema oso boteretsua da.

Bere gotzain ordenazio egun berean idatzi zuen 80 orriko lehenengo gutun pastoralala, gero sasian, ezkutuan, zabalduko zena Brasil osoan: ***Amazoniako Eliza bat latifundio eta sozial bazterketarekin gatazkan***. Bertan datu estatistikoekin salatzen ditu latifundistak, izen eta guzti; baita hainbat enpresa handi ere. Sentsibiltate eta kezka hori izango da beti Pedoren gotzain ministeritzaren jomuga bat, bere pastoraltzan, olerkigintzan, konpromiso sozialean eta abar.

Bere bizitza luzean temati, gogor eta erradikala izango da, baina umore askorekin. Irribarretsu, utopiko eta mistiko, batez ere bere poesia-lanean emango du bere ametsen berri. Giro bortitz hartan, martiri artean, askotan izan zen mehatxatua, **heriotza-mehatxu ugari** jaso zuen. Gogoratu besterik ez dago, Paulo VI.ak esan omen zuena: «Pedro ukitzen duenak Paulo ukitzen du». Hala eta guztiz, hainbat urtetan zehar beraren lagun eta lankide batzuk martiri hil ziren.

«**Dom Pedro**» bezala ezagutzen zuten, eta Brasilgo eta Latinoamerikako Behartsuen Elizarenordezkari garrantzitsuenetarikotzat hartua izan da.

Askapen Teologiak erasoia jasan izan zuenean, beti ateratzen zen alde. **Indigenen** aldeko plataforma askotan ere esku hartu zuen; batez ere, **Amazoniako** Elizaren kontseilu eta batzordekide izanik, beti izan zen bultzagile behartsuen, nekazarien, indigenen eskubideen eta duintasunaren alde CIMIn eta CPTn.

Liburu andana idatzi zuen, berrogei eta hamar baino gehiago; bat aipatzekotan, hizkuntza askotara itzuli izan delako, urte askoan José María Vigil klaretarrarekin batera argitaratu eta oraindik ere argitaratzen dena, ***Agenda Latinoamericana Mundial*** aipatuko nuke.

Egia esan, hil baino lehen, omenaldi, doktoretzak eta sari pilo bat jaso ditu, bai Brasilen eta Latinoamerikan, bai Europan ere.

Dena dela, Araguaia ibai ertzeko hilerrian lurperatua izan zen, nekazari **behartsuen eta indigenen artean**. Bere bizitza horiekin

partekatu zuen; orobat, euren defendatzaile gartsua izan zen; orain heriotzan euren ondoan datza beraren gorpu txikitua eta ahitua.

Benetan **oso estimatua eta oso baztertua** izan da; beraren hitz eta ekintza guztiak ez ziren zuzenak izango, noski, baina... Dena dela, askok profetatzat daukagu Amazonia zabalean, eliza unibertsalean eta mundu sufrutuan.

Beraren espiritua Jesusen Espirituarekin bakean elkartu da behin betiko. Bake horrek eraman gaitzala gu ere **Jesusen eta Pereren urratsen atzetik**, eta bake horrek ez gaitzala inoiz bakean utz, Jainkoaren Erreinura iritsi arte.

Berak idatzitako liburu piloaz eta berari buruzko liburuez gain, telesail bat ekoiztu zuen TV3 kateak 2013an: *Descalzo sobre la tierra roja* (*Oinutsik lur gorri gainean*). Francisco Escribanok idatzitako izen bereko liburuan oinarritua.

Gatozen gure liburuxkara. Pedrok beti abiapuntutzat eta akuilutzat izan zuen Ebanjelioaren berri ematera. Aurtengoan iruzkin sakonak idatzi ditu **Francisco José Ruiz Pérez, SJ** jesuita kanariarrak (Santa Cruz de La Palma 1961). Filosofian lizentziaduna eta Teologia Dogmatikan doktorea da. Deustuko Unibertsitateko Teologia Fakultateko dekanoa da, egun. Lagundiko bere ibilbidean unibertsitateari eta gobernuari loturik bizi izan da. Lehenago Andaluziako eta gero Espainiako Jesusen Lagundiko probintzia-buru karguak izan ditu.

2024ko ale hau, lehenengo aldiz, euskaratzearen ardura **Jose Ignazio Eguskitza** apaizak bete du. Hemendik har dezala, guztion izenean, gure eskerrik beroena. Esker mila **Dionisio Amundarain** OSB langile nekaezinari ere, aritu delako, itzulpenak zuzentzen eta Jose Ignaziori laguntzen bere ardura berrian. Eskerrik asko **Andoni Sarriegi** eta **Anizeto Zabalgoeaskoari** ere itzulpenetan laguntzeagatik. Ikusten duzuenetz, talde-lana ezinbestekoa izaten da gure liburutxo eder hau argitaratzeko. Orobat, eskerrak eman nahi

dizkiegu **Mezulari** argitaletxeko arduradunei, euren laguntza handi eta eskuzabalagatik. Beti bezala **Deustuko Unibertsitateari** geure esker ona adierazten diogu, liburutxo hau eskegitzeagatik bere webgunean: <https://deusto.eus/ebanjelioa> (aurreko orrietan dagoen egutegira joan eta klikatu nahi duzun egunean).

Amaitzeko, jarraitzen dut partekatzen zuokin azken urteotako berri ona: 2022ko urtarriletik aurrera martxan da **OTOI.eus** webgunea, fedea eta espiritualtasuna gure hitzetan; baita **SALLEBARNE.eus** webgunea ere, fedea gure ahotsean.

Beti bezala, on egin eta adiorik ez!

Koldo Katxo, SJ

FESTABURU

ETA JAI MUGIKORRAK 2024an

Jaunaren Bataioa	urtarrilaren 7
Hausterre	otsailaren 14
Jaunaren Piztuera Igandea	martxoaren 31
Mendekoste igandea	maiatzaren 19
Hirutasun guztiz Santua	maiatzaren 26
Kristoren Gorputz Odol Santuak	ekainaren 2
Jesusen Bihotz guztiz Santua	ekainaren 7
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea	azaroaren 24
Abendualdiko 1. igandea	abenduaren 1
Familia Santua	abenduaren 29

OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2024an

Andre Maria Jainkoaren Ama	urtarrilaren 1a
Jaunaren Epifania	urtarrilaren 6a
San Jose, Andre Mariaren senarra	martxoaren 19a
San Prudentzio Armentiakoa (Araba)	apirilaren 28a
Santiago apostolua	uztailaren 25a
San Ignazio Loiola (Bizkaia eta Gipuzkoa)	uztailaren 31
Andre Mariaren Jasokundea	abuztuaren 15a
Santu Guztiak	arazoaren 1a
Andre Maria Sortzez Garbia	abenduaren 8a
Jaunaren Jaiotza (Eguberri)	abenduaren 25a



URTARRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Elizan / Elizak aniztasunaren dohaina bizi dadin / dezan: Egin diezaiogun otoitz Espiritu Santuari, kristau elkarteen barruan karisma ezberdinen dohaina ezagutzen lagun diezagun eta Eliza Katolikoaren barnean kultu tradizio ezberdinen aberastasuna aurkitzen.

Eguberrialdia

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna

Zenbakiak liburutik 6, 22-27.

Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semeei: Honela bedekatuko dituzue israeldarrak: “Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu. Ager diezazula Jaunak aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa, eta eman bakea”. Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedekatuko dituzte».

Sal 66: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.

San Paulok Galaziarrei 4, 4-7.

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaleztat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren Betleemera, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten haur hartaz esan zitzaiena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriaz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik; dena aingeruak esan bezala gertatu zitzairen. Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, «Jesus» ezarri zioten izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan bezala.

Eguberrialdia
JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA
Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna

Urte Berri baten hasiera: gure asmoen eta gurarien kontuak hutsetik hasiko balira legez kokatzeko saiakera gisa hartzen dugu. Urtarrilaren batean, denbora estreinatzen dugu. Ebanjelioak ere parte hartzen du Urte Berriaren hasieran jai zibilak dakarren ospakizunaren eta bulkada berriaren dinamika horretan: gure eraldaketa-ametsak itxaropenarekin besarkatzen ditu eta hegaldi indartsuago bat egiteko hornitzen. Baina hori betetzeko jai zibilak duen egutegia, liturgiak duenaren desberdina da. Liturgian egun bakoitza da berria, ez urtea bakarrik. Ongiaren benetako desira orok bere ibilbidea jarraitzen du. Denboraren Jainkoak birsortzen eta hazarazten jarraituko du. Oraindik ere bada tarterik, desira horiek sorkuntza berri baten norabidean bide egin dezaten, eta sormen horrek historia pertsonalak zein taldekako oraindik estreinatu gabeak diren aukeretara eraman ditzan. Jesusek emana du baimena, «Bakearen printzeak» hain zuzen ere. Edozein bortxakeriaren gaineko agintea du, hau da, bizitza blokeatzen duen edozeren gainekoa eta etorkizunerantz irekitzekoa. Artzainek hala aitortzen dutenean, badakite jakin beren eguneroko bizimodura itzul daitezkeela, berez urte zaharrik eta berririk ez duen hartara. Ziur daude beren sakon-sakoneko desirek baliozko izaten jarraitzen dutela denbora orotan zehar. Gure urteak sortu zituenak babesten ditu eta, haiekin batera, baita gure ametsak ere!

* * *

Jauna,
Mariaren antzera, urteberri honetan
gure egitasmoa
bizi-emaila
izan dadila!

1 Joan liburutik 2, 22-28: Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen mezua. **Sal 97:** Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 19-28.

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzera bidali zizkiotenean. Joaneke argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?». Joaneke erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?». Eta hark: «Ez». Berriro galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?». Joaneke, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala». Bidalitako haietako batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?». Joaneke erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere». Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiatz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

Joan Bataiatzaileak baieztapen bat egiten du eta baieztapen horrek koloka jarri ditu entzuten diotenak: ametsak betetzen ari dira, etorkizun desiratua orainaldi betearekin batera bizi da. Itxaro dena ez dago etorkizunean, dagoeneko orainaldiaren parte da. Arrazoi horregatik, itxaro den Mesias amestea alboratu egin behar da. Jada hemen dago. Ebanjelioak, etorri behar duenaren eta benetan jada eragiten ari denaren arteko oreka arraro hori maneiatzen du. Horrek, egunez egunekoa eta bizitzen ari garen gorabeherak zeruaren eta infinituaren hurbileko zerbait bihurtzen ditu. Kristautasunaren muina ez da gauzatu ezin den ameskeria bat; izan ere, hemengo eta oraingo jantziak jantzen du eta Mesias hartaz betetzen du..., hain justu, «gure artean» dagoenaz.

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua

Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea*: *Karmeloko Amaren Kongregazioa*

1 Joan liburutik 2, 29-3, 6: Harengan dagoenak ez du bekaturik egiten.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregana etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekaturia kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: “Badator nire ondoren gizon bat, niri aurea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz». Eta aitormen hau egin zuen Joanek: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusiko duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen haxe dela Jainkoaren Semea».

Joanek bataiatzeko Jordan ibaira joatean, Jesus irten egin zen Nazaretetik. Gaur egun ez dugu Maisuaren biografiako aro hartako xehetasunik. Sumatzen dugu, bere burua jokoan jartzeko zirikatua sentitu zela. Igurikimen guztiak hautsi eta bere familiari agur esaten dio. Aurreikusi ezin zitekeen bizimodua onartu du beretzat. Mundua Jainkoaren erruki-gose da. Min gehiegi ari da jasaten. Alde guztietatik zauritua da. Horregatik, Jesus Jordan ibaira doa eta handik begiratzen digu. Bataioa iritsi arte, dena prestakuntza izan da; bataioaren ondoren, hein batean, dena ekintza izango da. Beraren bataioa azaltzen duten bi une horiek zeharkatzera dei egiten digu: lehenbizi, bera bezala, geure baitatik irten egin behar dugu; baina gero, bera bezala halaber, munduan sartu behar dugu bera zerbitzatzeko.

Jesusen Izen guttiz santua**Siraken liburutik 51, 8-25.**

Orduan, zure errukiaz oroitu nintzen, Jauna, eta zuk gure alde betidanik egindakoaz: onik ateratzen dituzula zuregan itxaroten dutenak eta gaiztoen eskuetatik libratzen. Lurretik neure erregua bidali nuen zuganaino eta otoitz egin heriotzatik aske gelditzeko. Honela egin nizun dei: «Jauna, neure aita zaitut! Ez baztertu ni atsekabe-aldian, harroputzak nagusitzean, laguntzarik ez dagoenean. Etengabe goretsiko zaitut, esker onez kantatuko». Zuk entzun egin zenuen nire otoitza, heriotzatik salbatu eta txarraldi honetatik atera. Horregatik eman nahi dizkizut eskerrak, eta zu goretsi eta bedeinkatu, Jauna. Oraindik gazte nintzelarik, bidaiatzen hasi aurretik, bete-betea bilatu nuen jakinduria neure otoitzean. Tenplu aurrean otoitz egin nuen hori lortzeko, eta neure bizitzaren azkeneraino bilatuko dut. Loratu zenean, hartaz poztu zen nire bihotza, heltzen ari den mahats-mordoaz bezala. Bide zuzenetik ibili dira nire oinak, jakinduriaren arrastoari gaztarotik jarraituz.

Sal 8: Jauna, gure Jainkoa, bai miresgarria zure izena lur osoan.

San Paulok Filipoarrei 2, 1-11.

Beraz, egia bada Kristok aholku ematen dizuela eta maitasunak adorez betetzen zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta gupidatsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin deus ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez nork bere onari bakarrik begiratuz, baizik besteena ere bilatuz. Izan itzazue zeuen artean Kristo Jesusek izan zituen sentipen berak. Kristo Jesusek, jainkozko izaerako izanik ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi izateaz eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua,

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua

Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea*: Karmeloko Amaren Kongregazioa

heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez, zeruan, lurrean eta lur azpian, guztien belaunak makur daitezen, eta mihi orok aitor dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 21-24.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, Jesus izena ezarri zioten, sortu aurretik aingeruak esan bezala. Moisesen legean agindutako garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaientean, gurasoek Jesus Jerusalemera eramane zuten Jaunari aurkezteko. Izan ere, hau agintzen du Jaunaren legeak: Lehen- seme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio. Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini zuten: bi usapal edo bi usakume.

San Ignazio eta beraren lehenengo lagunak oso ausartak izan ziren berek sortutako lagundiari jarri zioten izena ipintzean. Ez zituzten ikaratu, ez beren koherentzia ezak, ezta geroago Lagundian sar zitezkeenenak. Lagundiaren sortzaileak beti liluratu izan zituen Jesusek lerro gorri mehea zeharkatzeko azaldu zuen jainkozko gaitasunak: osasunaren eta gaixotasunaren, aberastasunaren eta pobreziaren, ohorearen eta desohorearen eta bizitza luzearen eta laburraren artekoak lerro gorri mehea zeharkatzeko izandako gaitasun jainkotiarrenak. Atalase horiek zeharkatzean, Jesus, maitasunaren eta berrerospenaren beharrak markatutako giza errealitate oroengana hurbildu zen. Norberekeriak inoiz ere ez du ausardiarik izaten horrelako urrats bat emateko, eta nahiago izaten du bakardadera eta abandonura kondenatzen dituzten inguruabarretan itota dabilenez ez oroitu. Hurbiltasun-keinuak, zentzua berreskuratzea, hauskortasunean arintzea, koherentzia-gabeziaren ulermenak, zubiak berreraikitzea, etab., eskatzen dituzten pertsonekin aurrez aurre egoteko ahalegin hori; Jesusi osasunaren, aberastasunaren, ohorearen eta bizitza luzearen beste aldeko bisitan laguntzeko ahalegin hori eta gaixotasuna, pobrezia, desohorea eta bizitza laburra jasaten dituztenekin aurrez aurre topo egite hori; ahalegin hori bizi du Lagundiak..., baina Jesusen ahalegina halakoa izan zelako da.

1 Joan liburutik 3, 7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekaturik egiten. **Sal 97:** Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien Joaneke: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabiltzate?». Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen. Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedoren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

Jesusek, zergatik ezin zuen berak bakarrik egin bere Ebanjelioan proposatzen zuena? Zergatik behar zituen hartarako laguntzaileak? Zergatik sortu behar izan zituen bere inguruan oso gutxi ere izan ez ziren gizon-taldeak eta emakume-taldeak, bere erregetza era berri batean gauzatu nahi zuen Jainkoaren bizia bultzatzeko? Ez al zen bera nahikoa Ebanjelioa aldarrikatzeko? Ez al zuen, bada, nahikoa berme Jainkoaren Seme izatean, azkenean hala aitortu zitzaiena? Zer da laguntzaileak biltzen joate hori? Alabaina, Ebanjelioa deiez lepo dago beterik. Horren aurrean, zorabioaren sentipena saihestezina da. Izan ere, Jainkoa adieraztera datorkigu, beraren alde jartzen ez bagara eta berarekin egotea onartzen ez badugu, gauzak ez dituela mugituko. Ituna nahi du eta horixe eskaintzen digu berak: guztiahalduna da, bai, baina gurekin batera.

Eguberrialdia

San Telesforo, 8. *aita santua*San Joan Neumann, *gotzaina*

1 Joan liburutik 3, 11-21: Heriotzatik bizira aldatu gara senideak maite ditugulako. **Sal 99:** Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 43-51.

Aldi hartan, Jesusek Galilea aldera joan nahi zuen. Felipe aurkitu zuen, eta esan zion: «Jarraitu niri». Felipe Betsaidakoa zen, Andresen eta Pedroren herrikoa. Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserena semea, Nazaretakoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?». Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael bereganatu etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?». Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Aurreiritziekin bizitzea arriskutsua da. Batez ere, egia ala gezurra diren egiaztatzeko, atzera inoiz ere begiratu ez denean. Azkenean, bizi-putzuak alde batera uzten ditugu, aukerei kasurik egin gabe igarotzen gara, behar baino lehenago galdutzat joak genituelako. Iritziri atxikita bizi ohi gara, kontatu dizkiguten ipuinei atxikirik, zein iturritakoak eta nolako asmoz esanak diren oso ondo jakin gabe. Natanaelek Felipek esaten dienean Jesus ezagutzeko gogo handirik ez duela, Galileatik ezer onik ateratzen ez delako, eta, urrezko aukera bat galtzeko zorian egon zen, ziur aski bakarra. Eta dena, bere aurreiritziengatik. Felipek argudio bakarra du hura bere egoeratik ateratzeko: «Zatoz eta ikusiko duzu». Geure azalkeriaren eskorta zeharkatzera ausartu behar dugu: horixe da kontua, baldin eta oraindik gehiago eta hobeto bizi izateko gelditzen zaiguna ezagutu nahi baldin badugu behintzat.

Isaias profetaren liburutik 60, 1-6.

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunak estalia du lurra, gau beltzak estaliak ditu herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko. Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak. Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikus: guztiak elkartu eta zugana datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak. Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirrarez eta zabal-zabal duzula, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.**San Paulok Efesoarrei 3, 2-3a. 5-6.**

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goi-agerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmo hau ez zitzaion iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta haxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinorde-kide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2, 1-12.

Jesus Judeako Betleemen jaio zen Herodes erregearen garaian. Aldi hartan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemara, galdezka: «Non da jaioberria den juduen erregea? Haren izarra ikusi


dugu sortaldean, eta hura gurtzera gatoz». Berri honekin larritu zen Herodes erregea, eta Jerusalem osoa harekin batera. Orduan, apaizburuak eta lege-maisuak bildurik, Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten: «Judeako Betleemen, honela idatzi baitzuen profetak: “Eta zu, Judako Betleem, ez zara, ez, Judako hirietan txikiena; zugandik aterako baita buruzagia, nire herri Israelen errege izango dena”». Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Ondoren, Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkitzean, esadazue, ni ere gurtzera joan nadin». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan ziren.

Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi zutenean, berealdiko poza hartu zuten. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten, Maria bere amarekin, eta, ahuspezturik, gurtu egin zuten. Ondoren, beren kutzak irekita, erregaluak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra. Gero, Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren lurraldera.

Denboraldi luzean, magoak jakintsu izaten saiatu ziren. Gauzen ezkutuko arrazoia ezagutzeko beren buruari galderak egiteko kezka ezin biziagoa sentitu ohi zuten. Ez ziren konformatzen bizitzeagatik bizitzearekin. Betleemera egin zuten bidaia, gauza garrantzitsuak aurkitzeko bizi zuten gogoak sortutako konpromisoaren ondorioa izan zen, eta gurari hark jarrarazi zituen mugimenduan, era guztietako mugak zeharkatzera iritsi zirelarik. Nolabait esateko, ordura arte, Betleemgo izarra beraingandik urrun egona zen, kanpokoa zen eta beraien gainetik hegaldatzen zen. Baina haurra estalpean ikusi zuten zutenez geroztik, izarra beraien barnean egotera pasatu zen. Magoek beren bere egin zuten haurra. Jada ez dute kanpoan haren bila ibili beharrik. Barnez bideraturik daude. Azkenean, ezagutu dute sakontasuna zer den... Gaurko eguna, opari- eta erregali-eguna izaki, ausart gaitezen

bi gauza eskatzera, baina hori bai, Jainkoak berak soilik eman ditzakeenak. Bata da, guregan inoiz ez dadila desagertu funtsezkoa, sustraikoa eta oinarritzkoa dena ikertzeko gogoia; ez gaitezela konforma hutsala eta azalekoa den edozerekin. Bestea da, bizitzan hil ala biziko balioa duena aurkitzen goazen heinean, joan dadila gure barnean txertatzen: hain barnean, non ondo orientatuta gauden ziurtasuna eman diezagun moduan; eta hain barnean, non gida izan dezagun estalpeko haurraren gida izateko.

**JAUNAREN
AGERKUNDEA
Erregeen Eguna**



Isaias Profetaren liburutik 42, 1-4. 6-7.

Honela mintzo da Jauna:

«Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana, nire aukeratua, atsegin dudana. Honengan ipini dut neure espiritua; zuzenbidea ekarriko die herriei. Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du leialki; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte; uharteak haren irakaspenaren zain daude. Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut, eta eskutik heldu; Nik eratu zaitut eta izendatu herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuak espetxetik askatu eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzazun».

Sal 28: Bere herria bedeinkatuko du bakea emanaz Jaunak.

Apostoluen Eginak liburutik 10, 34-38.

Egun haietan honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere. Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez, bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanez hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 7-11.

Aldi hartan, honela hots egiten zuen Joan Bataiatzaileak: «Nire ondoren dator ni baino ahaltsuagoa dena, eta ni ez naiz inor makurtu

JAUNAREN BATAIOA

San Raimundo Peñafortekoa, *apaiza*

eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte». Egun haietan, Galileako Nazaretetik etorri zen Jesus, eta Joaneke Jordanen bataiatu zuen. Eta berehala, uretik ateratzekoan, zerua urratzen ikusi zuen Jesusek, eta Espiritu Santua uso-irudian bere gainera jaisten. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zara nire Semea, nire maitea; Zu zaitut atsegin».

Bada zerbait Joan Bataiatzaileagan gure arreta deitzen duena: konbentzituta dago Jesusi bide eman behar diola, haren aurrean derrigorrez beheratu egin behar duela. Joaneke, bere burua bigarren mailan jarri beharra sentitu du, albora egin beharra, Jainkoak Jesusen bitartez bere herriagatik egin nahi duena errespetatu beharra. Azkenean, ondorio argi eta zehatza ateratu du: «Nire ondoren dator ni baino ahaltsuagoa dena». Joaneke nabaritu zuen, Jesus ezagunago eta aitortuago egiten zuen heinean, bere barnean erdi-erdian egoten uzten zion heinean, askeagoa zela bera. Bere nortasuna Jaunaren aitzindari moduan aitortu du eta hori ez da izan, inondik inora, bere burua besterentzeko. Fedearen eguneroko esperientziak berresten du, geure burua etengabe beheragotzera deituak gaudela. Ebanjelioaren alaitasuna, geure geurekoikeria ukatzetik lortzen da, hartu ohi dituen itxura desberdinei dagokienez. Baina hori, aldi berean Jesus onartzen dugunean da gertagarri. Geure nortasuna ezagutze-bidean egindako erromesaldi arraroa baino ez da hori. Jesusengan, ez bera gabe edota bera gorabehera, aurkituko dugu hobekienik gu nor garenaren erantzuna. Eta aurkitzen dugun erantzunak, beti utziko gaitu geure buruarekin adiskideturik.

1 Samuel liburutik 1, 1-8: Penina arerioak gogor iraintzen zuen Ana eta samintzen, Jaunak haurrik ematen ez ziolako. **Sal 115:** Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona». Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantza egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurrerago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Joan Bataiatzailea bidegabe kartzelatzeak, Jesusen jendaurreko urratsen hasiera dakar. Jaunak gure artera jauzi egingo balu bezala da, gu tentazio honetatik liberatzeko: mundua alde txarrak bakarrik ikustekotik, alde ona kontuan hartu gabe. Etsipenaren larrialdian Mesiasen oihua entzun da: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza». Jainkoak gaina hartu dio bekatuari. Sinestera itzuli gara ezen Ebanjelioa gaizkia baino indartsuago dela. Gaizkia egiaztatzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa gure eraldaketarako. Mundu honek pertsonak behar ditu, beren baitan dituzten dohainez harritzeko gai direnak.

Urteko 1. astea

San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria*

1 Samuel liburutik 1, 9-20: Jauna oroitu zen Anaz, eta honek Samuel izan zuen. **1 Sm 2, 1.4-5.6-7.8abcd:** Jaunagan da nire bihotza pozten, nire salbatzaileagan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 21b-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala. Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzen al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua». Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!». Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen gizonagandik. Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!». Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

Jesusen garaian uste zuten gaiztoa modu eta era askotara agertu ohi zela. «Espiritu likitsak» baziren izan, ukitu egiten zituzten pertsonak eta heriotzara bultzatzen. Espiritu haiengan atzeman zen bizia maldan beheara zihoala eta desagertu egiten zela. Ezerezen mandatari onenak ziren eta ezerez horretan xurgatzen zuten etorkizunerako edozein hari. Maisua berehala kokatu zen ezerez mehatxari hori igarotzen zen marraren ertzean. Ez zen hasi, ordea, berorrek elkarriketan. Soil-soilik, berorren indarra aitortu zuen baina jarraian zilegitasun oro kentzeko. Jainko biziaren eta beronen aurrerako den ororen artean ezin onartu da ñabardurarik. Jesusek bere burua eskaini du ezerez horrek gure artean aurrera egin ez dezan eta, horregatik, bere Ebanjelioa eman digu iluntasun ororentzat itxaropen-gida izan dezagun.

1 Samuel liburutik 3, 1-10.19-20: Mintza, Jauna; zure morroi hau adi dago. Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion. Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruak ez ziren uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen. Goizean goiz, artean ilun zegoela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil». Hark, ordean, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

Kultura garaikidea, munduak bere izatea berak bakarrik egin dezakeenaren ziurtasunean oinarritzen da. Uste izanez jarraitzen dugu ezen gauza guztietan nahikotasuna eta buru-askitasuna lortuko ditugula. Askok Samuel profetaren hitzak erabili eta baieztatuko lukete, gure egunotan, «Jaunaren hitzak arraroak direla eta ikuskariak ez direla sarritan gertatzen»; izan ere, muin-muinean, alferrikakotzat jotzen dira... Baina, nahikoa da eguneroko bizitza apur bat arakatzea, ikusteko, bizirik jarraitzen dutela, Kafarnaumen bezalaxe, irrikak, bilatzeak, hurbiltasun-goseak eta zentzu-egarriak. Horregatik, Jesusentzat ezinezkoa da behin betirako Kafarnaumen gelditzea. Joan beharra du «inguruko auzoetara»: Elizak irten egin behar du, gizakia bere beharrak aurkitzen ari den toki guztietan parte hartzeko.

Urteko 1. astea

San Higinio, 9. *aita santua*Santa Honorata, *birjina*

1 Sm 4, 1-11: Israel menderatu eta Jainkoaren kutxa harrapatu. Sal 43:
Aska gaitzazu, Jauna, zeure maitasunagatik!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Orduan bertan alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen. Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten». Hura, ordea, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditzen zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Mirari honen berezitasuna, legenardunak Jesusi egiten dion eskaera da, erronka-moduan egina: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Maisuagandik gaixo honek, beste hainbatetan gauzatu ohi den sendakuntza ez ezik, beste zerbait ere ikusi nahi lukeela dirudi: Jesusek erregutzen dionarekiko duen estimua eta maitasuna. Harrera ona ahots ozenez esana entzutea espero du, berariazko samurtasuna jasotzea, gaixotasuna dela-eta jasaten ari den bazterkeriaren baitan, arbuioa beste oihartzunik ez baitu entzun izan. Eta Jesusek, bai, miraria gauzatu aurretik bere barnea zabaldu dio: «Nahi dut»; jarraian gehituz: «Izan zaitez garbi». Legenardunak lortu du Jesusen bihotzetik bat-batekotasuna ateratzea eta beraren misterioaren alderik ezkutuenaren bistan jartzea: mugarik gabeko errukia.

Urteko 1. astea

San Arkadio Mauritaniakoa, *martiria*

1 Samuel liburutik 8, 4-7.10-22a: Oihu egingo duzue, zeuek aukeratu duzuen erregea dela eta: baina Jaunak ez dizue erantzungo. Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut beti eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 1-12.

Zenbait egunen ondoren, Jesus Kafarnaumen sartu zen berriro, eta etxean zegoeneko berria zabaldu zen. Bildu zen jendetzarekin ez zegoen inon tokirik, ezta atarian ere. Eta mezua adierazten zien.

Hartan, elbarri bat ekarri zioten lau lagun artean. Baina jendetzagatik ezin zuten eraman Jesusenganaino. Orduan, bera zegoen parean etxe-gaina zulatu eta zulotik behera eraitsi zuten elbarria, etzanik zegoen ohatilan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Seme, barkatuak dituzu bekatuak!».

Baziren han eserita lege-maisu batzuk, eta hau zioten beren baitan: «Zer ari duk hau horrela? Biraoka ari duk. Nork barka zitzakek bekatuak, Jainkoak berak izan ezik?». Baina Jesusek bere barruan haien gogoetei igarri eta esan zien: «Zergatik dituzue gogoeta horiek zeuen baitan? Zer da errazago, elbarriari “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki, hartu ohatila eta zabiltza” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera”».

Berehala jaiki, ohatila hartu eta guztien aurrean atera zen. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu sekula horrelakorik ikusi».

Pasadizo honetako xehetasunik nabarmenenetakoa, elbarriaren lau lagun sormen ausarta da. Markosek miraria deskribatzen duen eran, ezinezkoa zen Jesusengana zuzenean iristea. Baina horrek ez ditu kikiltzen eta egoitzaren sabaian zuloa egin eta handik esekitzea bururatu

Urteko 1. astea

San Arkadio Mauritaniakoa, *martiria*

zaie. Markosek zaintzaile adoretzu haien ezaugarri bat nabarmendu du: «fedea». Hori da eria Jesusen ondoan jartzea lortu duen indarra, arreta eskaini eta sendakuntza osoa, gorputzarena eta arimarena, egin dezan. Elbarriak lehen-lehenik osasuna behar du, baina baita bizitzeko arrazoi bat ere, bere gaixotasunaren eta bekatuaren arteko erlazioa desegingo diona. Jesusek bi dohainak eman dizkio: barkatu eta sendatu egin du. Mirari hura Jainkoaz, bere errukiaz birkreatzen gaituenaz, egindako fede-aitormena izan zen.

«Eta esperantza, dio Jainkoak,
hori bai dela gauza harrigarria,
neu ere harriturik nauka,
hori bai dela zerbait
zinez harrigarria.
Jende gizajo honek ikustea
nola ari diren gauzak gertatzen
eta uste izatea bihar dena hobe izango dela,
hori bai dela txundigarria
eta da, askoz ere,
gure graziaren mirarik handiena.
Neu ere txunditurik nauka horrek»

(*Peguy aipatua in Vida Nueva n° 3062,*
9-15/12/2017, 26. or.)

Urteko 1. astea

San Benigno, *martiria*San Kastor, *apaiza eta ermitaua*

1 Samuel liburutik 9, 1-4.17-19; 10, 1a: Gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukitsu izateko. **Sal 20:** Jauna, zure indarraz pozten da erregea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 13-17.

Aldi hartan, Jesus itsasaldera atera zen berriro. Jende guztia berarengana zihoan, eta irakasten hasi zitzairen. Bidez zihoala, Lebi Alfeorena ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Lebi zutitu eta jarraitu egin zion. Geroago, Jesus mahaian zegoen Lebiren etxean; bazen beste zergalari eta bekatari asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin mahaian; izan ere, asko zihoazkion ondoren. Fariseuen arteko lege-maisu batzuek, bekatari eta zergalariekin jaten ari zela ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zergalari eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoez baizik; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Jendeari etiketak jartzeko ohitura dugu. Ez gara oso trebeak itxuraz direna mako edo kako artean jartzen. Alda daitezkeen ideia bera ere baztertu egiten dugu eta erremediorik gabekotzat ere ematen ditugu. Geuretzat diogu, horrelakoak izan direla beti eta halakoxeak izango direla gero ere. Gauza bertsua gertatzen zaigu gizarteko egoera kristaldukin ere, arazo enkistatuekin eta erresistentzia-jarrerara gogorrekin. Duda egiten dugu aldatuko diren aukeraz. Dena mugiezintzat joz, ez diogu tarterik uzten ezer berririk agertzeari. Mateori egindako deiaren pasadizoan, askok Jainkoagana bihurtzeko eta aldatzeko inolako aukerarik sumatzen ez zioten publikano haren kasuan, gutxieneko gauza Jesusen bat-bateko deia izan zen. Gauzarik handiena da Jauna bakarrik izan zela ikusi zuena Lebi harengan, ez zerga-biltzaile bat soilik, baizik eta ikasle bat, jarraitzaile bat; ez jada behin betiko porrot egindako biografia bat, baizik eta hastear zegoen buru-eskaintza bat.

Urteko 2. astea

San Fulgentzio, *gotzaina*San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*

1 Samuel liburutik 3, 3b-10. 19.

Egun haietan, Samuel lotara joana zen, Jainkoaren kutxa zegoen Jaunaren santutegian. Jaunak dei egin zion Samueli, eta honek erantzun: «Hemen nauzu». Lasterka Elirengana joan eta esan zion Samuelek: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin; itzuli eta egizu lo». Joan eta lotarako etzan zen. Jaunak berriro dei egin zion Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin, seme; itzuli eta egizu lo». Samuelek ez zuen artean Jauna ezagutzen, Jaunak ez baitzion bere hitza inoiz ere adierazi. Hirugarren aldiz dei egin zion Jaunak Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Antzeman zion Elik Jauna ari zitzaiola mutikoari deika, eta esan zion Samueli: «Zoaz lotara eta, norbaitek berriro dei egiten badizu, esan: “Mintza, Jauna; zure morroi hau adi dago”». Itzuli zen Samuel bere tokira eta lotarako etzan zen.

Jaunak, hurbildurik, dei egin zion, besteetan bezala: «Samuel, Samuel!». Eta Samuelek erantzun: «Mintza, zure morroi hau adi dago». Samuel haziz zihoan, eta Jauna berekin zuen. Ez zen Jaunaren hitz bakar bat ere bete gabe gelditu.

Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

San Paulok 1 Korintoarrei 6, 13c-15a. 17-20.

Senideok: Gorputza ez da haragikeriarako, Jaunarentzat baizik, eta Jauna gorputzarentzat. Jainkoak, Jauna piztu zuenak, piztuko gaitu gu ere bere ahalmenaz. Ez al dakizue zuen gorputzak Kristoren atal direla? Jaunarekin elkartzen dena, espiritu bat bera egiten da harekin. Egizue ihes haragikeriatik. Gizon-emakumeek egiten dituzten beste bekatu guztiak gorputzetik kanpora gelditzen dira; baina haragikeriazko bekatura egiten duenak bere gorputzaren aurka egiten du bekatu. Ez

al dakizue zuen gorputza Jainkoak eman dizuen eta zuengan bizi den Espiritu Santuaren tenplu dela? Beraz, ez zarete jadanik zeuenak; garesti ordainduz eskuratu zaituzte Jainkoak. Goretsazue, bada, Jainkoa zeuen gorputzaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabiltzate?». Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen. Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

Pedro da ikasle edo dizipulu eredua. Jesusen taldean ordezkari nagusi moduan jarduten du. Hasieratik ageri da lider giltzarri bezala. Baina Ebanjelioek hainbat seinale eman dizkigute zein hauskorra den ikusteko Maisuak eraikuntzarako hartu duen oinarritzko harri hori. Beraren curriculumak orbanekz beterik ageri da. Handiena, noski, Pedrok, den bezalakoa kontuan harturik, inoiz ere pentsatuko ez zukeena: saldukeria. Jesusen alde bere burua eskaintzen eta ematen lehenengoa izateko jarrera neurrigabe hura ahulduz joan zen eta desagertu egin zen Jesusek, segur aski, gehiena behar zuenean. Damutu ote zen Maisua laguntzaileak bilatzeari eman izanaz, eta itxaropenari

Urteko 2. astea

San Fulgentzio, *gotzaina*San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*

eusteko gurekin kontatzen zuelako printzipioa mantentzeaz? Dakigun moduan, Pedroren jarraipena ez zen saldukerian amaitu. Jesus piztuari jarraitu zion bere baiezko berrituarekin. Bigarren dei horretatik aurrera, Pedro, bere baitan duen gauzarik funtsezkoenaz bizi da: Maisuarekiko duen afektu sakonaz, aspaldi berarekin egoteko eskatu zion deiari erantzunez. Afektu hori da Pedroren gauzarik duinena eta lotura horri lotzen zaio Jesus, baita bere lagunik onen horrek saldu duenean ere. Horra gauzarik zirraragarriena: Jainkoak sinetsiz jarraitzen du, Ebanjelioa historian barna zabaltzeko, erabakitzailea dela gure lankidetzat. Harria akastuna da, baina harri da.

San Paul, *ermitaua* – San Mauro, *beneditarra, abadea*
 San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea*
(Verbo Divino kongregazioa)

1 Samuel liburutik 15, 16-23: Hobe da Jaunaren esana egitea, opariak eskaintzea baino. Baztertu egin zaitu Jaunak erregetzatik. **Sal 49:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 18-22.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten. Jesusengana joan eta esan zioten: «Nolatan egiten dute barau Joanen ikasleek eta fariseuek, eta zure ikasleek ez?».

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituek egin ote dezakete barau, senar berria berekin dutelarik? Senar berria berekin duten bitartean, ez dezakete barau egin. Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau. Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu, eta zarratada handiagoa egiten da. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardoak zahagiak lehertu egingo lituzke eta, orduan, ez ardo eta ez zahagi. Ardo berria zahagi berritan».

Jesus piztuaz duen esperientziak, eskutik bezala darama fededuna aldeztetik menderatu ezin dituen gauza orotara. Antzeko zerbait suma daiteke Loiolako San Ignaziok, Jainkoagana bihurtzeko prozesu betean dagoenean, egindako deiadarrean: «Zer-nolako bizi berri dugu orain hasten ari garen bizi hau?». Ebanjelioak ez du ideologizatzen mundu hau ulertzeko gure modua, baizik eta zabaldu egiten du eta ulermen-marko desberdinez hornitzen. Jesusek horrela soilik aurkeztu nahi izan zuen bere burua, hasikin gisa zeini buruz ez baitzen aurrekaririk. Zahagi berriak ardo guztiz berrientzat. Ebanjelioa ez da zehatz-mehatz sartzen ordura arte ezaguna zenaren barruan. Alde guztietatik gaintitzen du ordura arte ezaguna zena. Eta uste gabeko soberakin ugari horrek, badu behar adina emari bizitza aukera ezezagunez irrigatzeko.

Urteko 2. astea

San Martzelo 1.a, 30. Aita santua, eta martiria

- 1 Samuel liburutik 16, 1-13: Samuelek gantzutu egin zuen David bere anaiei aurrean. Eta Jaunaren espiritua Davidengan sartu zen. Sal 88: David neure zerbitzaria aurkitu dut.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 23-28.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak bidenabar galburuak mozten hasi ziren. Fariseuek esan zioten Jesusi: «Nolatan ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena?». Hark erantzun: «Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharraldi batean, bera eta bere lagunak goseak gertatu zirenean? Nola, Abiatar apaiz nagusi zelarik, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitzaketenak, eta nola bere lagunei ere eman zien?». Eta esan zien: «Larunbata gizakiarentzat egin zuen Jainkoak, ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea larunbataren beraren nagusi da».

Jesusek fariseuekin izandako eztabaida ugarietako bat dugu hemen: printzipioez eta oinarriez dihardu. Ezin baieztatu da fariseuek jarrera protestari eta antisistema zutenik. Ez zuten erlatibismoaren tentazioa. Gustuko zituzten printzipioak eta oinarriak. Alabaina, erdi-bidean gelditzen ziren beraien definizioan. Erlatibo zirenetan trabatzen ziren eta halakoak faltsutzen: arimarik gabeko larunbata zela, espiriturik gabeko ohiturak zirela, gizatasunik gabeko erakundeak zirela. Eta hala, bazter uzten zuten Absolutua. Etengabe aurpegiratzen die Jesusek hori. Erronka jotzen die beti handiagoa den Jainkoa aitortzera: larunbata baino, ohiturak baino, erakundeak baino handiagoa den Jainkoa aitortzera, alegia. Horrela soilik saihesten ahal da bahitzeko tentazioan erortzea, ororen gainetik, jaun goren maitasunez den hura.

1 Samuel liburutik 17, 32-33.37.40-51: David habailaz eta harriz nagusitu filistearrari. **Sal 143:** Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 1-6.

Aldi hartan, Jesus sinagogan sartu zen berriro. Bazen han gizon beso-ihar bat. Zelatan zegozkion larunbatean sendatzen ote zuen, zertan salatuko baitzebiltzan. Jesusek beso-iharrari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona erdira». Eta besteei esan zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala kentzea?». Haiek, ordea, isilik. Jesusek, ingurukoei haserre begiraturik eta beraien setakeriaz mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen, eta sendatu egin zitzaion. Handik atera orduko, fariseuek eta Herodesen alderdikoek elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Markosek kontatzen duen larunbateko sendakuntzak, zapore gazi-gozoa eskaintzen du. Alde batetik, Jesusi agertu dioten ezezko kasketa-jarrerak, mirariaren ondoren ere jarraitu egiten du. Ez dago inolako gogorik interpelatzeko. Ideologiaren tamaina hainbestearainokoa eta hain sakona da, fede gaiztoak lortua baitu beraien barne-muinetan ondo itsatsita gelditzea. Ez du balio egindako ona aipatzeak ere. Pertsona bat sendaturik ikustea ere ez da nahikoa abiapuntuko jarrera birplanteatzeko. Baina, bestalde, Jesusek ezin jasan du giza sentiberatasun-falta izugarritzeko hori. Agerian jartzen du sentiberatasun-falta horrek teologia desaragitu hura, aitortzen duena bere sorkarien zoriaz, ustez, inolako ardurarik ez duen Kreatzailea. Egia esan, sineskera horrek salatzen du teologo horiek porrot egin dutela: jada denbora luzea baitaramate Jainkorik gabe bizitzen.

Urteko 2. astea

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera
Santa Priska eta Santa Margarita, *birjinak*

1 Samuel liburutik 18, 6-9; 19, 1-7: Gure aita Saul zu hiltzeko asmotan dabil. Sal 55: Jainkoagan dut konfiantza, ez naiz ezeren beldur.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasbazterrera joan zen bere ikasleekin. Galileatik etorritako jendetza handiak jarraitu zion. Eta, berak egiten zituenak entzunik, Judea, Jerusalem eta Idumeatik, Jordanez bestaldetik eta Tiro eta Sidon aldetik ere jendetza handia bildu zitzaion. Jesusek txalupa prest edukitzeko agindu zien ikasleei, hainbeste jenderen artean zapal ez zezaten. Izan ere, asko zituen sendatuak, eta gaitzen bat zuten guztiak gainera zetozkion, ukitu nahian. Espiritu gaiztoek, ikusten zuteneko, haren oinetara erori eta oihuka esaten zioten: «Jainkoaren Semea zara Zu». Hark, ordea, zorrotz agintzen zien, ez emateko ezagutzera.

Jesusen presentziak urratu egiten du giza izatea estaltzen duen itxaropen-gabeziaren errezela. Jesus «Jendetza» artean egoteak agerian jartzera eragiten du biziaren zentzuaren aurka doan guztia. Kontraesan etsigarrien horien artekoa da gaixotasuna. Ebanjelioak gainezka eginda daude Maisuaren eta min fisiko eta psikikotan murgilduta dauden pertsonen arteko topaketaz. Aparteko taumaturgotzat hartua da, eta, hori baino gehiago ere bai. Nahikoa da beraren hurbiltasuna, jende asko eta asko kontura dadin, giza eskastasuna ukitzen ari den hori, petrikilo soil bat baino gehiago dela. Jainkoa bera da gure oinazeen artean dabilen hori, gure ondoan bizi den hori, gure iluntasunari aurka egiten dion hori. Argi horrek, gure klaustrofobia gisako sufrimenduaren erdian, ez du preziorik: merezi du gure fedea.

Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongrácz, Meltxor Grodziecki
apaizak, eta Marko Krizevcanin, *Esztergom-eko kalonjea*.
 Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak, *

1 Samuel liburutik 24, 3-21: Ezin dut neure Jaunaren aurka eskurik altxatu, Jaunaren gantzutua baita. Sal 56: Erruki nitaz, ene Jainko, erruki nitaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 13-19.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen, berak nahi izan zuenei dei egin zien, eta haiek hurbildu egin zitzaizkion. Hamabien taldea eratu zuen, berarekin bizitzeko eta Berri Ona hots egitera bidaltzeko; eta deabruak botatzeko ahalmena eman zien. Hamabi hauek aukeratu zituen: Simon –honi Pedro izena ipini zion–, Santiago Zebedeorena eta Joan, Santiagoren anaia –hauei Boanerges izena ipini zien, hau da, «Trumoi-kume»–, Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Jainkoarentzat pertsona bereziak gara. Ez gaitu hartzen pieza errepikatutzat, ezta estandarizatutaz ere. Gure biografian garrantzitsu den ezer ez da inpertsonala, ez anonimoa, ez intemporal, koiuntural hutsa. Beti daramatza berarekin gutako bakoitzaren noiz, zer eta nor garelakoak. Horra zergatik sortzen den gure nortasuna gure izenarekin: ez da izaten izen generikoz, ez testuinguruz kanpoko, ez ezaugarririk gabea. Eta horregatik ere bai, Jesusek ez du murrizten Ebanjelioa halako mezu abstraktu batzuen zerrendara. Ebanjelioa aldarrikatzearekin batera, izen bereziak sortzen dira. Hori gertatu zitzaien ikasleei. Maisuari dei egin diezaien utzi diote ikasleek. Gogoan dute nola gertatu zen, noiz, non eta zertarako. Jainkoarentzat benetan funtsezkoa den ezer ez da gertatutako gu gabe. Horrek argitzen du zergatik ahoskatzen duen Ebanjelioak gure izena.

* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *martiriak*, *jesuitak*
 San Makario Handia, *abadea*
 Martzelo Spinola, *dohatsua*, *fundatzailea* (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)

Urteko 2. astea

San Sebastian, *martiria*San Frukтуoso, *gotzaina* eta San Eulogio eta San Augurio,
haren diakonoak, martiriak

2 Samuel liburutik 1, 1-4.11-12.19.23-27: Nola erori diren gizon handiak gudu! Sal 79: Erakutsi guri, Jauna, aurpegi argia, salba gaitezen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 20-21.

Aldi hartan, Jesus etxera itzuli zen ikasleekin. Berriro ere jendetza handia bildu zen, eta ezin zuten otordurik ere egin Jesusek eta ikasleek. Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramateko asmotan etorri ziren, burutik egina zegoela esaten baitzuten.

«**B**urutik egina zegoela» zioten. Gogorra, oso gogorra, Jesusez bere familiako ahaideek zuten ustea. Babestu egin nahi dute eta ezaguna dutenaren segurtasunera itzularazi: betiko Nazaretera. Ziur aski, guk geuk ere, Jesusen ingurukoak izan bagina, horrela jokatu genukeen. Erronketatik babesteko eta defendatzeko joera izaten dugu, ihes egitea nahiago izaten dugu menderatzen ez dugunaren aurrean, atzera egin ohi dugu ezezagunarekin borrokatzean. Hoberena, onaren oso etsai gaiztoa da. Are okerragoa gurea bezalako munduan, bere bizkarrean hainbat segurtasun-gabezia metatzen dituen honetan. Zertako bultzatu berritasuna, denak aldaketen aurka daudenean? Pentsa dezagun, hausturak proposatzen dituen ez dagoela burutik ondo... Halaz guztiz, Jesusi oso zaila gertatuko zaio beretarrak konbentzitzea, ezen inoiz baino buru sanoago dagoela orain.

Urteko 3. astea
Santa Ines, *birjina eta martiria*

Jonasen Profezia liburutik 3, 1-5.10.

Jaunak Jonasi hitz egin eta esan zion: «Ea, zoaz Ninive hiri handira, eta aldarrika ezazu han Nik ematen dizudan mezua». Ninivera joan zen Jonas, Jaunak agindu bezala. Ninive hiri izugarri handia zen; hiru eguneko bidea zuen alderik alde. Sartu zen Jonas hirian eta egun bateko bidea egin zuen, mezu hau hots eginez: «Berrogei egunen buruan, Ninive xehatua izango da». Sinetsi zioten ninivetarrek Jainkoari eta barau-deia zabaldu zuten eta denak, handi eta txiki, dolu-jantziz estali ziren. Ikusi zuen Jainkoak ninivetarrek egin zutena eta beren bide okerretik itzuli zirela, eta damutu egin zen haiei egindako mehatxuaz, eta ez zuen bete.

Sal 24: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.

San Paulok 1 Korintoarrei 7, 29-31.

Senideok: Epea laburtu egin dela diotsuet. Beraz, gelditzen zaigun denboran, ezkonduak bizi bitez ezkonduzik ez baleude bezala; negar dagitenak, negar egingo ez balute bezala; pozik daudenak, pozik ez baleude bezala; erosten dutenak, ezer ez balute bezala, eta mundu honetako gauzez baliatzen direnak, baliatuko ez balira bezala; izan ere, mundu hau, oraingo bere itxuran, desagertzeaz dago.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona». Jesusek, Galileako itsasbazterretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantza egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu

Urteko 3. astea

Santa Ines, *birjina eta martiria*

egin zioten. Aurreraxeago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

«**E**banjelioa»: hori da Markosek Jesusen ahoan ipintzen duen hitza haren jendarteko bizitza, haren mezuaren eta bizitzaren muina laburbiltzeko. Maisua albistea edo berria da, eta, garbiago esateko, berri baikorra. Gure ongia aireratzen du. Eraiki, batu, sendatu, sendotu, indartu, argitu, lotu, hazarazi, alaitu egiten du. Jainkoa giza errealitateari hegoak emanez izango da errege. Une honetatik aurrera, Jesusek esaten eta egiten duen guztiak mezu bakar baten eta aldi berean bikoitzaren irudia izango du: lehenik, Jainkoa zer izan daitekeen eta gudan, pertsona eta gizarte gisa, zer egin dezakeen ezagutuko dugu; eta, bigarren, izango den eta egingo duen hori, Jainkoagandik etortzeagatik, erabat onuragarri eta mesedegarri da... Gauza harrigarriena da, Ebanjelioa bete ahal izateko ez dela eskatzen aldeztetik betebeharririk. Jesus ez da mintzo aldeztetik baldintza ezohikoak bete behar izateaz Ebanjelio hori sustatu ahal izateko. Beraren Erreinua, ez da giza ekoizkin edo produktua. Esana dago: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza». Hortik aurrera datorrena gonbita da: «Bihotz-berri zaitzete eta sinetsi Berri Ona». Guri dagokiguna, berri on hori sinesmenez onartzea da. Beraz, jakinaren gainean ipini gaitu: eraldatu, lehenik eta behin maitasuna esperimentatzen badugu eraldatuko gara.

2 Samuel liburutik 5, 1-7.10: Zeuk gidatuko duzu nire herri Israel.
Sal 88: Berekin izango ditu nire leialtasuna eta maitasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 22-30.

Aldi hartan, Jerusalemetik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beltzebu dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu deabruak». Jesusek Beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola dezake Satanasek Satanas bota? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor indartsu baten etxean lapurretara sartu, aldez aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak. Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango: errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei eman zien erantzun hau.

Jesusek jendarteko bere bizitza publikoan izan dituen eztabaidak ugari izan dira, eta bere burua defendatu beharrean gertatzen da bereen zein kanpokoen aurrean. Hori, jendeak Maisua gai ireki eta nahastari bezala sumatu edo ulertu duelako izan da, kontrolatu ezineko bezala, espero ez zuen bezalako, alegia. Etengabeko errezeloz hartu dute Maisua, berari aginpide guztia kendu nahiz. Aurka leporatzen dizkioten argudio guztien artean, batekiko da Jesus oso sentibera: beraren misioaren jatorria itxuragabetzen duenarekiko. Ez du jasaten inondik inora jatorri hori «deabruen buruzagiak duen boterearekin» nahasterik. Ebanjelioa gaizkiaren moztututako ekintza dela esanez itxuragabetzeak, erabat blokeatuko luke Jainkoak gizakiagan ari duen bizi-ibilbidea. Ez da fedegabezia Jainkoari errege izatea eragozten diona, baizik eta fede gaiztoa, eta honek, ez dio uzten Jainkoari barka dezan!

Urteko 3. astea

San Ildefonso, *gotzaina*Santa Emerentziana, *birjina*

2 Samuel liburutik 6, 12b-15.17-19: Oihu artean zeramaten Jaunaren Kutxa Davidek eta israeldar guztiek. **Sal 23**: Nor da Errege ospetsu hori? Jauna bera da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 31-35.

Aldi hartan, Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila». Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?». Eta, inguruan eserita zituenei begiratzuz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama».

Jesusi jarraitzeak hausturak egitea eskatzen du. Beraren lorratzaren harira ibiltzeko, behar-beharrezkoa da gure funtsezko edukiak berrantolatzea. Dizipulu izateak geure barru-barruan jartzen ditu gure familia eta lurraldea baino urrunago dauden pertsonak eta lekuak. Ebanjelioak birkalkulatu egiten du geure gizarte, politika eta kultura harremanik naturalenen azken pisua, eta unibertsaltasunera gonbidatzen gaitu, gizateria osoa ohiko molde orotatik kanpo dagoen senidetasun gisa har dezagun. Horrek baztertzea edo erauztea eskatzen du Jainkoak bere mundu sortuaz duen ikuspegia lausotzen duen oro. Ikuspegi horrek guztiok senideturik eta elkarrekiko konprometiturik sentiarazten gaitu. Agertzen digu..., lur berean familia bat izaten jarraitzen dugula, baina pentsa genezakeena baino askoz ere familia handiagoa izanik!

2 Samuel liburutik 7, 4-17: Ondorengoa emango dizut eta sendotu egingo dut haren erregetza. **Sal 88:** Beti gordeko diot neure maitasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 1-20.

Aldi hartan, Jesus berriz ere irakasten hasi zen itsasertzean. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, urean zegoen txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, itsasbatterrean. Gauza asko irakatsi zien parabola bidez hitz eginez. Honela ari zitzairen bere irakastaldian:

«Entzun! Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiek, haztean, ito egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar, hirurogei nahiz ehun». Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!».

Bakarrik gelditu zirenean, Hamabiekin batera berarekin zebiltzanek parabolaren esanahiaz galdetu zioten Jesusi. Eta honek esan zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, ordea, dena parabola bidez ematen zaie, Liburu Santuak dioena bete dadin: “Begiratzen dute, bai, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez; horrela, ez dira Jaunagana bihurtzen eta ez zaie barkatzen”». Eta esan zien gainera: «Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nolatan ulertuko dituzue, orduan, gainerako parabola guztiak?»

Ereileak hitza ereiten du. Hitza ereitean, batzuk «bide-bazterra» bezalakoak dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan

Urteko 3. astea

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

erein den hitza kendu egiten die. Beste batzuk «harri artea» bezalakoak dira: hitza entzutean, berehala pozik hartzen dute; baina sustrairik gabeak eta iraupen txikikoak izanik, hitza dela-eta estutasun nahiz erasoaldiren bat sortu orduko, huts egiten dute. Beste batzuk, berriz, «sasi artea» bezalakoak dira: entzuten dute hitza, baina mundu honetako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta hitza ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren «lur ona» bezalakoak: hitza entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar nahiz hirurogei nahiz ehun».

Inolako irizpiderik gabe. Horixe da Jesusen parabola ezagun honetako ereileak duen ereiteko moduak ematen duen itxura. Alea, hazia, edozein lur motatan jaurtitzen du eta badirudi ez zaiola asko axola lur desberdin horiek eman dezaketen uzta. Beraren helburua toki eta ingurune guztietan hazia ereinda uztea bezain soil da. Fruitua lortu ala ez, lurraren gaitasun desberdin eta aldakorren araberakoa izango da eta ez ereilearen eskuzabaltasunaren araberakoa. Horrela, Jesusek iragarri nahi du, berez, ezerk ez duela eragozten gauden tokian eta gauden moduan dohaina den Ebanjelio eskain diezaguten. Gure bizia goialdetik irekita dago, itxaropena datorren alde horretatik, alegia: itxaropenez bete den ereile batek zabaltzen duena da, hain zuzen ere.

* * *

Nire argi zaran, Jauna,
zuzen nazazu
inguratzen nauten iluntasunetan,
eraman nazazu aurrerantz!

Apostoluen Eginak liburutik 22, 3-16: Bataia zaitez eta garbitu zeure bekatuetatik Jaunaren izenari dei eginez. **Sal 116:** Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaiketi agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

San Paulo aparteko historia bateko protagonista izan da kristautasunaren hasieran. Bere biografian danbateko bat eman balu bezala espermentatu du eta, une jakin hartatik aurrera, hasierako Elizaren pertsegitzaile izan zena Eliza berorren aldeko aparteko eragile izatera pasatu dela. Beraren bizitza goitik behera aldatu zela, alegia, gauetik goizera. Geroztiko gertakariak ondo asko berretsi zuten hori. San Paulori gertatuarekin, kristautasuna giltzarri izan zen aro batean sartu zen, gero izatera iritsi zena izateko. Gizateriaren etorkizunerako garrantzi bereziko gai askotan etika- eta erlijio-hoztasuna bizi duen egungo munduaren aurrean, faltan botatzen dira Jentilen Apostoluarena bezalako ezohiko historiak. Egun agintzen duten modetatik pertsona eta erakunde gehiago aldentzea nahi genuke, ilara horietatik irten eta erdipurdi bizitzetik urruntzea. Oso beharrezkoak dira bihotz ausartak, zekenkeriak gainditzten dituzten pentsamenduak eta beste mundu batzuk egingarri samarrak direla frogatzen duten keinu zehatzak. Hori guztia gauzatu zuen Jesus berpiztuak San Paulogan; baita, ordea, Elizaren historian barna aletzen joan diren beste hainbat eta hainbat pertsonen eta taldeen ibilbideetan ere. Kristautasuna, horrela, bere berritasun-ahotsa intonatuz joan da: ezinezkoa dena topagarri egingo zaigu eta gutako bakoitza gai da, San Paulo bezalaxe, hori bizi izateko.

Urteko 3. astea

San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*

San Paulok 2 Timoteori 1, 1-8.

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik, Kristo Jesusen bidez agindu zaigun bizia iragartzeko Jesu Kristoren apostolu naizen honek, zuri, nire seme maite Timoteori: grazia, errukia eta bakea Jainko Aitagandik eta Kristo Jesus gure Jaunagandik. Eskerrak ematen dizkiot, nire arbasoek bezala bihotz garbiz zerbitzatzen dudan Jainkoari, eta gogoan zaitut etengabe, gau eta egun, neure otoitzetan. Zure malkoez oroitzean, zu ikusteko irrikaz nago, pozez bete nadin. Izan ere, gogoan dut zuk duzun zinezko fedea, lehenik Loide zure amonak eta Eunize zure amak izan zuten fede bera; ziur nago zuk ere baduzula. Gomendatzen dizut indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina, Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta lotsatu ere harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde.

Sal 95: Zabaldur Jaunaren mirariak herri guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!”. Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio

langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

Aldia eta ezkutapena. Jesusen parablek ugari nabarmentzen dituzte bi alde horiek, argitzen saiatzeko Jainkoak historia nola idazten duen. Jainkoaren goi-ardurapean, dena da prozesu. Gure bizitzako gertakari erabakigarriak, beroriek baino askoz ere zabalagoa den zerbaiten atal dira. Berorien esanahia eta eraginak apurka-apurka azaleratzen dira, unean unekoa ez den eta emaitza deigarriarik ere ez duen erritmoan. Esan ohi da, bizitza osoa daukagula Jainkoagana bihurtzeko. Bizitza osoa: beharrezkoa da bizitza hori bere osotasunean bizitzea, Jainkoagan haziz goazela jabetu gaitezen. Jabetze hori lehenago lortzen saiatzea aldiaz aurrekoa da eta uste okerra sortzen ahal digu. Haziaren kasua bezala da: geroago izango den zuhaitz bihurtzeko, sustraiak lasai eta ezkutuan utzi behar zaio, beren sakonera lor dezaten. Baina horretarako, hazi daitezen arte itxaron behar izaten da!

Bihotzaren isiltasunean otoitz egin (1)

Gizaki oro maite duzun, Jainkoa,
isiltasun eta maitasunean
zurekin bat eginik
bizi nahi dugu.

Kontsolamenduaren Jainkoa,
zure presentziaren ezer
sentituko ez bagenu ere,
zu hor zaude.
Zure presentzia ikusezina da,
baina zure Espiritu Santua
beti gurekin da.

Urteko 3. astea

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*

San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*

2 Samuel liburutik 12, 1-7a.10-17: Bekatu egin dut Jaunaren aurka.

Sal 50: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu nigan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 35-41.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen itsasoaz bestaldera». Jendea utzi eta ontzian eraman zuten Jesus, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten. Horretan, haizebolada zakarra atera zuen, eta olatuek ontzia jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berriz, txopan lo zegoen, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak?». Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta itsasoari esan: «Hago isilik! Geldi!». Gelditu zen haizea, eta barealdi handia egin zen. Jesusek esan zien: «Zergatik beldur hori? Ez al duzue oraindik sinesmenik?». Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?».

Ez al zaizu axola gu galtzea?». Jesusi esaten diotena kontuan hartuta, ikasleek ez diote eskatzen ohikoa baino zakarragoa dirudien ekaitzetik salbatzea bakarrik. Lasterrago jakin nahiak estutzen dituen datu batez galdetu diote: ea beraiekin dagoen. Ekaitzak dantzarazten dituen bitartean egin duten oihua bakardadetik dator. Horixe da toki hartan bizi dutena eta talde osoa izu-ikara ipini duena. Azken batean, gure axola al zara? Geure alboan sentituko al zaitugu gehienik behar zaitugunean?... Jakin badakigu gero gertatua: Jesusek baretu egin zuen giroa, ekaitza deseginez. Baina eman dezakegu benetako amaiera ikusezin dugula: ikasleen barne-ekaitza ere baretu egin da. Jesusek ez ditu behin ere utziko. Hori izan zen miraria eta mirari horretatik bizi da Eliza.

Deuteronomioa liburutik 18, 15-20.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak zuen Jainkoak ni bezalako profeta sortuko du zuen artetik, herritarren artetik. Entzun berari! Horixe da, Horeb mendian bildurik zeundetela, Jaunari zeuen Jainkoari eskatu zeniotena: «Ez dugu Jaunaren geure Jainkoaren ahotsa berriro entzun nahi, ezta sute handi hori berriro ikusi nahi ere, hil egingo baikara bestela». Orduan, Jaunak esan zidan: «Ongi deritzot herriak esandakoari. Zu bezalako profeta sorraziziko dut herritarren artetik; neure hitzak ezarriko dizkiot ahoan eta Nik agindutakoa esango die. Profetak nire izenean adieraziko dituen hitzak onartuko ez dituenari Nik eskatuko dizkiot kontuak. Baina Nik agindu gabeko hitza nire izenean adieraztera ausartzen den profeta edota jainko arrotzen izenean hitz egiten duena hil egingo dute».

Sal 94: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

San Paulok 1 Korintoarrei 7, 32-35.

Senideok: Zuek kezkarik gabe bizitzea nahi nuke. Gizaseme ezkongabea Jaunaren gauzez kezkatzen da, Jaunari nola atsegin emango; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da, emazteari nola atsegin emango, eta bere baitan zatitua dago. Emakume ezkongabea eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta gorputz eta arima berari emanak bizi dira; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da, senarrari nola atsegin emango. Hau zeuen onerako diotsuet, ez zuei tranpa jartzeko. Hauxe nahi dut: modu egokienean bizi zaitezte, eragozpenik gabe Jaunari atxikiak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 21b-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenaz,

Urteko 4. astea

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea, domingotarra*
San Julian Cuencakoa, *gotzaina*

nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala. Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua». Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!». Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen gizonagandik. Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!». Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

Gaizkia gai da zu zeure idealei berei uko egitera ere eramateko. Baina ezin gaitezke bizi geure buruan sinetsi gabe. Ezta bizitza bera hartu ere dagoeneko hipotekatua bagenu bezala. Ezin dugu jo ere ez direla sekula beteko dakigun teoretara. Ezin dugu onartu ere, besterik gabe, «espiritu likitsak» mugiezinak izatea. Ezin izan gara hutsaren oihartzun. Hori egiten badugu, jada hiletsiak, etsipenak joak garela esaten ari gara. Horixe gertatzen zitzaien, hain zuen ere, orduko «letratu»ei. Etsirik bizi dira. Tratu gehiegi eginak zituzten fedea kendu zietenekin. Beste garai batean beren bizia hornitu zuen argia, itzalia gertatu zen betiko eta ez zitzaien nabari beren irakaspenetan inolako «aginpiderik»... Baina egun batean, Kafarnaumgo herritarrak konturatu ziren ez zeudela kondenatuak, erremediorik gabe, haiek bezalako izatera. Jesusengan ikusi zuten, sakontasunez ibil zitezkeela bizitzan eta atxikitzen ahal zitzaizkiola sinesten zutenari, benetako bizitzara itzultzeko. Horretarako Maisuak ezarri zien baldintza bakarra, matxinatu zitezela izan zen: ez zezatela jo ezinbestekotzat gaizkia, baizik eta beronen kontrakoa: ongia, hura salatzen duena, hari mugak jartzen dizkiona eta... exorzistatzen duena. Larunbat hartan ikusi zuten sendakuntza, bizitzarekin konpromisoa hartzea eragozten zieten traba eta oztopo guztien sendakuntza izan zen!

Samuel bigarren liburutik 15, 13-14.30; 16, 5-13a: Goazen ihesi Absalomengandik. Madarika nazala Xemeik, Jaunak agindu dionez gero. **Sal 3:** Jaiki zaitetz, Jauna, salba nazazu!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 1-20.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz beste aldera joan ziren, gerasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta katez ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menderatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumaka eta bere burua harriz zauritzen.

Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oihu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goi-goiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek hau agindu baitzion: «Atera hadi gizon honengandik, espiritu gaizto hori!». Orduan, Jesusek galdetu zion: «Nola duk izena?». Hark erantzun: «Taldea, asko gara eta». Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidal.

Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi mila inguru txerri ito zen. Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren. Ikusi zutenek, deabrudunari gertatua eta txerriena kontatu zieten. Orduan, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi.

Urteko 4. astea

San Gelasio, 49. aita santua

Santa Radegunda Trebiñokoa, birjina

Jesus ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion berarekin ibiltzen uzteko; baina Jesusek ez zion utzi, baizik hau esan zion: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesusek egin ziona hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Harriturik gelditzen ziren denak.

Markosek kontatzen duen exorzismoa, guri oso arkano edo sekretu gertatzen zaizkigun sinbologiaz beteta dago. Juduentzat jentilen mundua mehatxatzailea zen. Haien sinesmen-gabeziak gogait eragiten zien. Jesus, ordea, ausartu da jentilen munduan sartzen, Berri Ona eta berau ukatzen duenaren arteko lerroa marrazten han jarraitzeko. Gerasatarraren mirariak irudiz azaltzen du, Ebanjelioa gauzatzen ari dela paganoen eremuetan ere. Gauza guztien gain errege izan nahi duen Jainkoa iragartzen du. Jainkoaren besarkada unibertsala da. Oraingoz, nahikoa du Jesusek hori aditzera ematearekin. Gerasatarrak egin beharrekoa, bere etxera joatea du soilik eta iragartzea errukia jada hemen dagoela. Bere herritarrek, bera ikustean, berehala aterako dituzte ondorioak: ezerk ere ez dio atzera eragingo..., jada mugak igaro dituen maitasun horri.

Bihotzaren isiltasunean otoitz egin (2)

Maitasunaren Jainkoa,
Espiritu Santuaren bidez
zu beti hor zaude.
Zure presentzia ikusezina da,
baina gure arimaren erdian bizi zara,
gu horretaz jabetu ez arren ere.

(*Taizéko Roger anaia*)

Urteko 4. astea

San Lesmes, *beneditarra*Santa Martina, *birjina eta martiria*

Samuel bigarren liburutik 18, 9-10.14b.24-25a.30-19, 4: Ene seme Absalom. Zergatik ez naiz ni hil zure ordeztu? **Sal 85:** Makurtu belarria, Jauna, erantzun!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz beste aldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Oraindik itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Alabatxoa hiltzorian dut; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Jende asko zihoakion ondoren, estutzen. Bazen han emakume bat, hamabi urte haietan odol-jarioz zegoena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, honela baitzioen bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehalak antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?». Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu?». Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza». Oraindik hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertarako eman neke gehiago Maisuari?». Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez izan beldurrik; zuk sinetsi!».

Urteko 4. astea

San Lesmes, *beneditarra*Santa Martina, *birjina eta martiria*

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedro, Santiago eta honen anaia Joani izan ezik. Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskaxa ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten. Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskaxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskaxa, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskaxari jaten emateko esan zien.

Horrela, lehen begiratuan, nahasgarri samarra da Jesusen erreakzioa: inguruan hainbeste jende duela, zer berririk dakar lehenengo sendatu hori nor den jakiteak? Ikasleek, jadanik, irtenbide praktikoen eta misio edo eginkizunaren eraginkortasunaren inguruan ibili nahi dute. Aski da jendea sendatzea. Baina Maisuak baztertu egin du beraien pentsamoldea eta horren kontrako ertzean jarri da bera. Adierazi nahi dio sendatu duen andreari ezen miraria ez dela izan aztikeriaren ondorioa. Jakinarazi nahi dio sendatze hori, harremanak onartzen dituen fedearen fruitu izan dela. Jesusek ikusi egin nahi du odol-jarioa zuen emakumearen aurpegia, ziur egon dadin, Jainkoarentzat garrantzitsua dena, harreman horren barruan gertatzen dela. Horregatik ez du bakerik... berak emakumeari aurrez aurre esan arte.

Urteko 4. astea

San Bosko, apaiza (salesianoen fundatzailea)

Samuel bigarren liburutik 24, 2.9-17: Nik egin dut bekatu, herria zenbatzeko aginduz; baina ardiak bezala diren hauek zer egin dute? **Sal 31:** Barkatu, Jauna, nire bekatuaren errua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitartean eta etxean izan ezik». Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Imajinaezina da Jesusi bere herrikideek beren «fede-gabezia» eragin zioten desengainua. Auskalo zenbat mirari egingo zituzkeen utzi izan baliote! Auskalo zenbat hitz jaulkiko zituzkeen. Auskalo zenbat elkarriketa sendatzaile eta osasungarri egingo ziratekeen... Esperientzia etsigarri harekin konturatu zen, agian, Jesus, Ebanjelioa ez dela begi-bistakoa, ezta besterik gabe eskuratzen dena ere. Beraren misioa eta eginkizuna, beraz, oso urrun gelditu zen Galilean eta Judean barna bidaia arranditsu bat egitetik, ustez kontakizun eta ideia berrien zain-zain zeudenen artean. Ebanjelioak aurreikus ezina den giza askatasunaren atalasetik igaro beharra zuen. Haraino joan beharko zuen, atea jo beharko, eta onartuko... ala uko egingo zioten itxaron beharra. Zalantzarik gabe, Jesusen mezua berri on izatera irits zitekeen, baina ez derrigorrez. «Mirari» batek ere pazientzia izatea eskatzen du.



OTSAILA / ZEZEILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Gaixo terminalen alde: Egin dezagun otoitz gaixo terminal guztiek eta beraien familiek, osasun aldetik bezala giza aldetik ere, behar dituzten zaintzak eta laguntzak jaso ditzaten.

Urteko 4. astea

Santa Brigida, Irlandakoa, *birjina*

San Pionio, *apaiza eta martiria*

1 Erregeak liburutik 2, 1-4.10-12: Ni banoa gizaki guztiak joan ohi diren bidetik. Izan adore, Salomon, eta ager zaitez gizon!
Sal: 1 Kro 29, 10bc.11.12: Jauna zeure menpe duzu dena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela. Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitzatela; baina aldatzeko soinekorik ez. Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat». Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio z gantzutuz.

Jesusek bere ikasleei Erreinuaren berri iragartzeko egiten dizkien ohararazpenek izua eragiten dute. Ez dute jo behar urrea, zilarra, txanponak, zakutoa, tunika, sandaliak edo makila bezalako lagungarri-eta segurantz-baliabideetara. Zertarako hainbeste gauza albora uztea Ebanjelioaren berri emateko? Mateoren arabera, ikasleak jendearen etxeetan sartzten direnerako, Maisuak behin eta berriz diotse, egin behar duten gauza bakarra zera dela, beraian bizi den bakea gainerakoetara iritsaraztea. Bake hori benetakoa baldin bada, beren barne-barnetik irtengo da. Pobreziak lagundu egingo die ulertzen, sobera dituztela jendea konbentzitzeko baliabide materialak. Mezua, mezularien bidez iritsiko da bere hartzaileetara: ez du beste ezeren beharrik.

Malakias Profezia liburutik 3, 1-4.

Hau dio Jainko Jaunak: «Hor bidaltzen dut neure mezularia, nire aurretik bidea prestatzera. Eta berehala etorriko da bere santutegira, zuek bila zabiltzaten nagusia, eta irrikatzen duzuen ituneko mezularia. Horra non datorren, dio Jaun ahalguztidunak. Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura agertzean? Urtzailearen sua bezala izango da, garbitzailearen lixiba bezala. Urtu eta garbitzeko eseriko da; zilarra eta urrea garbitzen diren bezala, halaxe garbituko ditu Lebiren ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskain diezazkieten. Orduan, atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo garaietan bezala».

Sal 23: Jaun ahalguztiduna da Errege ospetsua.

Hebrearrei gutunetik 2, 14-18.

Familia bereko seme-alabek odol eta haragi berak dituzten bezala, Jesusek gizakiaren odol-haragiak hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusia den deabrua ezerezteko, eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bizi zirenak askatzeko; Jesus ez baitzen aingeruei laguntzera etorri, Abrahamen jatorrikoei baizik. Horregatik, gauza guztietan bere senideen antzeko izan behar zuen, apaiz nagusi errukitsu eta Jainkoari dagozkion gauzetan fidagarri izateko, herriaren bekatuak barkatzeko gai. Bera ere nekeetan probatua izan zelako, orain gauza da probaldian daudenei laguntzeko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemera eramán zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren

legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen. Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eramane zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, zeure morroi hau bakean hiltzen, Zeuk hitzeman bezala. Ikusi dute nire begiok zugiandiko salbamena, herri guztien aurrean. Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian gelditu daitezten. Eta zuri ezpata batek alde aldez zulatuko dizu arima».

Bazen profetesia bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa gorensten eta haurraz mintzatzen hasi zitzaizen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriatz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Simeoni dei egin dakioke honela: «Jainkoari bere aukera beti eman ziona». Agure haren jakinduria izan zen hain zuzen ere, ezer amaitutzat ez ematea Jainkoak azken hitza esan aurretik. Hori gertatu arte itxaron egin behar da noski. Itxaropena zera da, Jainkoak gure espazio- eta denbora-kalkulu guztien gainetik jauzi egingo duelako uste osoari eustea. Eta beti horrela jokatuko du gainera. Horregatik, derrigorrez itxaron egin behar diogu. Simeon sufrituak bezala. Bere esperientziari esker, zaharraren zaharrez jada halakorik pentsaezina zuen garaian, azkenean Jesus ikusi ahal izan zuen eta, horrek, Jainkoak bere esku-hartzea inoiz ez duela utziko adierazten du. Simeon nobletu egiten du bere pazientziak. Horrek, aparteko bereizmen-eskola bihurtu zuen. Une erabakigarrian, gai izan zen inolako zalantzarik eta itxaroterik gabe aurrean zeukana Jainkoa bera zela sinesteko. Aurrean erakusten ari zitzaizkion ume nazaretarra, ez zen inolako irudipena, ez eta aldeztu aurretik izandako alarma faltsuen antzekoa ere. Hain itxarona zen Jainkoa hantxe zegoen aurrez aurre. Simeonengan beti bizirik mantendu zen itxaropen bizi haren berrespina izan zen: hain zuzen ere, Jainkoak salbamena kontatzeko markatutako erritmoa errespetatuz, azkenean, hark guri kontatzen nola jarraitu nahi duen entzungo dugu.

* * *

Ez nau izutzen itzalak.
Ez nau gelditzen fedearen
ilunak.
Zure argiak beti argitzen du
garbi begiratzen duena,
zuzen begiratzen duena.

Zure argiaren norabidea,
nire norabide.

(Patxi Loidi)

Urteko 4. astea

San Blas, *gotzaina eta martiria*San Oskar, *gotzaina*Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*

1 Erregeak liburutik 3, 4-13: Emaiozu zeure zerbitzari honi adimen argia, zure herria gobernatzeko. **Sal 118:** Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedeen pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik. Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurea hartuz. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Aldi guztietatik begiratuta ere behartsua den jendetzaurrean, Jesusek onartu egiten du bere erlojua geratu egin behar duela, bere agenda moldatu eta aurrez aurre ikusten dituen arazoek gogortasunari egokitu beharrean dela. Bere buruari denbora ematearen kontua zen, hasiera batean berak aurreikusia zuen denbora baino askoz ere gehiago noski. «Bare-bare eta lasai» irakatsi beharra zuela sentitu zuen. Baretasun horrek, zerua lurrerantz nola hurbildu nahi duen erakusten du. Ez dago presarik. Ez da presarik izan behar. Ezein presiok ere ez du estutu behar errukia, Jainkoak ez du alde egingo gizateriari itxaroten dagoen aurreko toki horretatik. Jada esana duena errepikatuko du, bere garaian adierazi zuena iradokiko du, jarria izan zena ere ostera berrosatuko du. Erabilezina du etsipena. Bere baretasuna, baretasun mugagabea da eta horrekin besarkatzen du gure denbora presatia.

Joben liburutik 7, 1-4. 6-7.

Honela mintzatu zen Job: «Borroka da gizakiaren bizitza lurrean, langilearenak bezalakoak haren egunak. Esklaboak bezala, itzala irrikatzen du, langileak bezala, soldata itxaroten; baina fruiturik gabeko hilabeteak etorri zaizkit, gauak aspergarriak gertatzen dira niretzat. Oheratu orduko, esaten diot neure buruari: «Noiz jaikiko ote naiz?». Amaigabea egiten zait gaua, jirabiraka egunsentia arte. Ehuleen anezka-tresna baino lasterrago doaz nire egunak, amaitu zaizkit ehuleari haria bukatzean bezala. Gogoan izan, ene Jainko, nire bizitza arnasaldi bat dela, nire begiek ez dutela berriro zoriona ikusiko».

Sal 146: Goretsazue Jauna, bihotz-urratuak sendatzen dituen.

San Paulok 1 Korintoarrei 9, 16-19.22-23.

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu! Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe. Guztiz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta

jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaien. Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruai ez zien uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen. Goizean goiz, artean ilun zegoela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil». Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

Jesusek berariaz *bilatutako isilaldiaren* irudi baten aurrean gaude. Isilaldi horietako asko daude Ebanjelioetan. Maiz agertzen dira, Jesusek berak, bere jardunean, otoitzak protagonismoa har zezan eragindako horrelako etenaldiak. *Mesiasen zuzenketak* deitutako Jesusen jardunak etenaldi horien fruitu dira. Hitzak isiltasuna ere behar du. Berri Onak erabat itsatsia du isiltasun hori bere oihuaren bihotzean. Jesusek buru-belarri bilatzen du hori, berarengan birbizitzen baitu berriro Misterioarekin duen harremana. Sakontasuna berreskuratu eta berritzeko isiltzen da. Egunerokotasunaren erdian geratu egiten da. Eta saihestu ere egiten du Jainkoarengan murgiltzeko eta bere misioaz Espiritu Santuaren ikuspegia berrezartzeko. Jesusek bere ikuspegia berregokitu beharra du bere Aitak eskatzen diona hobeto hautemateko. Bere misioa edo eginkizuna arriskuan jartzen da, bere burua ematearen arrazoiak hobeto argitzeko otoitzez betetako barneratze-etenak egiten ez dituen heinean... Guztiontzako ere ohartarazpen ona da. Propio antolatutako isilaldiak, engainatzen gaituzten iruzurak ekiditeko moduetako bat izango lirateke. Edozein alaitasun-promesen atzetik joatea eragotziko ligukete. Nork daki?, agian horrela behin betiko utziko genuke presaka ibiltzea eta denbora gehiagoz hornituko ginateke: hain zuzen ere, bizitzak sakon bizitu ahal izateko behar duenaz.

Urteko 5. astea

Santa Ageda, *birjina eta martiria*

1 Erregeak 8, 1-7.9-13: Ezarri zuten itun-kutxa toki santu-santuan, eta hodeiak bete zuten Jaunaren etxea. **Sal 131:** Jaiki, Jauna, zatoz zure atsedenlekura.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 53-56.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igaro ondoren, Genesaretera iritsi ziren eta bertan lehorreratu. Ontzitik atera orduko ezagutu zuen jendeak Jesus, eta lurralde hartan barna joan ziren; eta Jesus nora, haraxe eramaten zizkioten gaixoak ohatiletan. Jesus joaten zen herri, auzo nahiz baserrietan, gaixoak atarietan ipintzen zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Bitxia da benetan gaur egungo kulturari, gizakiari, urte gutxiren buruan, espezie gisa beregaintasuna lor dezakeelako ametsa arras zabaltzen izana. Alabaina, nahikoa da egunerokotasunaren azala apur bat urratzea, gizateriak beharrian handiak dituela ikusteko. Hala bizi izan zuen bere haragian Jesusek. Pertsonen eta herrien bizitza arruntan zehar igarotzean, berehala nabarmentzen da lurperatuta dagoen beharrez. Egun bakoitzak bere gurutzia du. Ebanjelioak gehitu du gurutze hori ez dela bakarra, ezta arina ere. Mugarik gabe eta modu astunean sufritzen da toki guztietan. Horregatik, Jesusek agerian jartzen du zein premiazkoak diren kontsolamendua eta laguntasuna, sendakuntza eta adiskidantza. Zeharo debekatzen digu giza beharrak ukatzea. Izan ere, horiei alaitasunez aurre egitea baita adiskidantzarako irtenbide bakarra...

Urteko 5. astea

San Martin Igokundekoa (Beasain 1567-Japonia 1597),
frantziskotarra, martiria. Santuak: Paulo Miki, erlijiosoa,
eta lagunak;*

1 Erregeak liburutik 8, 22-23.27-30: Zure bizilekua hau izango dela esan duzu. Entzun zure herri Israelen eskaria. **Sal 83:** Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 1-13.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemdik etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin –hau da, eskuen garbikuntza egin gabe– jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketa. Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokatzeko? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?». Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean: “Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina nigandik urruti du bihotza; alferrik naute gurtzen, hauen irakaspena giza agindu hutsa da”. Zuek Jainkoaren agindua bazterrera utzi eta giza ohiturari eusten diozue». Eta jarraitu zuen: «Bai, lasai zokoratzen duzue Jainkoaren agindua, zeuen usadioak ezartzeko. Esate baterako, Moisesek esan zuen: “Ohoratu aita-amak”, eta “Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du”. Zuek, berriz, beste hau diozue: “Norbaitek aitari edo amari esaten badio: Zuri eman behar nizukeena ‘Korban’ da (hau da, tenplurako opari), halakoak ez du aitari edo amari ezertan lagundu beharrik”. Horrela, Jainkoaren hitza baliogabe uzten duzue zeuen arteko usadioengatik. Eta horrelako asko egiten duzue».

* eta *Dohatsuak*: Karlos Spinola, Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*

San Martin Igokundekoa (Beasain 1567-Japonia 1597),
frantziskotarra, martiria. Santuak: Paulo Miki, erlijiosoa,
*eta lagunak,**

Jesus ez zen legezailea izan, baina beti kezkatu izan zuen Legeak Jainkoaren nahia ondo islatzea. Azken finean, horrekin, Legea betetzea bera baino zerbait gehiago jokatzeko baitzuen. Ispilu baten gisa, Legean Jainkoaren mugarik gabeko borondatea ikusi behar zen, bere errukiaren zuzentasun erosgaitza alegia. Hala ez izanean, desobeditu baino areago, itunaren Jainkoak bere herriari emandako bizia desegiten zen. Mateok jasotzen duen bezala, Legea ulertzean egindako bistako faltsutzeak, ez ziren noski gutxi asko zuzen zitezkeen arau-hutsune soilak. Jainkoaren aurpegia estaltzen zuten benetako astakeriak ziren eta bere herriak ezin zituen horiek alboan utzi bizi ahal izateko.

* eta *Dohatsuak*: Karlos Spinola, Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*

Urteko 5. astea

San Amant, *gotzaina* (Baionako elizbarrutian)

San Rikardo, *erregea*

1 Erregeak liburutik 10, 1-10: Ikusi zuen Sabako erreginak Salomonen jakinduria handia. **Sal 36:** Zintzoaren ahoari jakinduria dario.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 14-23.

Aldi hartan, Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia». Jendea utzi eta etxeratu zenean, hitz horien esanahiaz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Beraz, ez duzue zuek ere ulertzen? Ez al duzue ikusten kanpotik sartzen zaion ezerk ez dezakeela gizakia zikindu? Sartu, ez baitzaio bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik komun-zulora doa». Hitz hauekin, janari guztiak garbiak direla adierazi nahi zuen. Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

Ezarritakoaren eta politikoki zuzena zenaren aurrez aurre jarri zituen Jesusek bere ikasleak. Senidetasun-gabezia adierazten zuten ohiko jokamoldeetatik kanpoko ikuspegia beren gain hartzera bideratu zituen. Ikasleek jakin behar zuten noski Ebanjelioak Jainkoarengana bihurtzen zituela eta horrek hein batean mundu honetan arrotz bihurtuko zituela. Kontraste edo kontrako izatera deituak ziren, horrek zekarren min eta aitormen-gabezia guztiarekin. Jesusek, laguntza ukatzen duen, edo engainatzen duen, edo doilortzen duen, edo lapurtzen duen edo duintzen ez duen jarrera orori uko egitea eskatzen zien. Ez zituzten errotarriak irentsi behar. Barruan zuten profetak libreki ibili behar zuen beren barnean, erabakigarria zen ezer ere beheraka negoziatu gabe. Argi horrekin betea egon behar zuen «gizakiaren bihotzak».

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea (umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria)*

Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*

1 Erregeak liburutik 11, 4-13: Nire ituna gorde ez duzulako, kendu egingo dizut erreinua; baina Davidengatik leinu bat utziko diot zure semeari. **Sal 105:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 24-30.

Aldi hartan, Jesus Tiro aldera joan zen. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen inork jakiterik nahi; baina ezin izan zen ezkutuan egon. Alaba espiritu gaiztoak hartua zeukan emakume bat, Jesusen berri jakin zueneko, etorri eta oinetan ahuspeztu zitzaion. Emakumea jentila zen, feniziarra. Eta alabagandik deabrua botatzeko eskatzen zion Jesusi. Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asetzen; ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte seme-alaben ogi-apurrak mahaipen». Orduan, Jesusek: «Erantzun horrengatik, zoaz; atera da deabrua zure alabagandik». Itzuli zen etxera, eta ohean etzana aurkitu zuen neskata; alde egina zen deabrua.

Sendatze hark jendearen arreta asko piztu zuen. Jesusengan osotasunezkoa den zerbait bazegoela frogatu zuen. Miraria eskatu zion emakumea mesprezagarria zen erlijio-ikuspegitik edozein judurentzat. Kanaan jainko anitzen sinonimoa zen: benetako Israelen arima eratua zuen guztiarekiko desbideratze sakona. Baina emakumeak ama dela dio. Eta amak bere alaba gaixo dagoela dio. Jesusek nahikoa du hori miraria egiteko. Eta miraria egiten duen bitartean, ohikotasun guztiak hautsi egiten dira. Jesusek hegan egiten du haien guztien gainetik, siriar-feniziar emakumeak egin zuen bezalaxe. Biak ere sufrimenduaren esperientzia komunean kokatuta daude. Mirari hark, gizakien arteko hainbat eta hainbat muga erlatibizatu zituen eta fede bakarraren garaipen handia gertatu zen erruki huts den haren bihotz sakratuan.

Urteko 5. astea

Santa Apolonia, *martiria*

San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *salletarra*

1 Erregeak liburutik 11, 29-32; 12, 19: Israel banandu egin zen Daviden errege-etxetik. **Sal 80:** Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 31-37.

Aldi hartan, utzi zuen Jesusek Tiro aldea eta, Sidonen barna, Galileako itsasora itzuli zen berriro, Dekapolisko lurraldean zehar. Gizon gor eta hitz-motela eraman zioten, eta eskua gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jendeagandik aparte harturik, hatzak belarrietan sartu zizkion eta listuz mihia ukitu. Gero, zerurantz begiratzuz, hasperen egin eta esan zion: «Effeta», hau da, «Ireki». Eta une berean, belarriak ireki zitzaizkion, mihia askatu eta garbi hitz egiten hasi zen. Gertatua inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina zenbat eta gehiago agindu, orduan eta areago zabaltzen zuten. Biziki harrituta, hau zioten: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea».

On asko dago egiteko. Gauza asko daude erakusteko giza historian nagusi izan behar duen justiziaz. Gauza anitz daude egiteko eta eragiteko, oraindik ere gizatasun-gabea denak eraldatzen jarrai dezan, Jainkoak bere sorkari garen gizakiontzat duen ametsaren arabera. Oraindik ere askok du konbentzitu beharra gauzak horrela izan daitezkeenaz. Baina beste ezertarako aukerarik ez dagoela gogor sinetsita bizi diren pertsonengan, elkarreengan eta erakundeengan finkatuta dauden gorreriak eta mututasunak desblokeatzea eskatzen du horrek. Horregatik, Jesusen agindu sendatzailea guk ulertzea da, Jainkoarentzat dena *irekita* dagoela; «Effetá» kontsigna bat da, hitz berritzaile baten antzekoa eta bizitza lotzen eta ixten duten gauza guztientzat irtenbideak badaudela berresten du: Sortzaileak edo Kreatzaileak hitz egiteko erabiltzen duen graziaren zirrikitua da, alegia, eta, mirari bidez, entzuna ere izan daiteke.

Urteko 5. astea

Santa Eskolastika, beneditarra, birjina

1 Erregeak liburutik 12, 26-32; 13, 33-34: Jeroboamek urrezko bi zekor-irudi egin zituen. Sal 105: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 1-10.

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer janik ez, Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badaramate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen baditut, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta». Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade honetan hauek asetzeko adina ogi?». Hark galdetu zien: «Zenbat ogi duzue?». Eta haiek erantzun: «Zazpi». Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitzaten. Haiek jendeari banatu zizkioten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zien. Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituzten hondarrekin. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta aldera joan zen.

Hondarrak. Horixe da ogien ugalketan askoren arreta deitzen duena: sobera gelditu zen janariarekin bete ziren zazpi otarrak. Eta bitxia da; izan ere, mirariaren kontakizunaren arabera, apur bat lehentxeago, dena zen garesti. Ogiek ugalketak, Jesusekin bildu zen jendetzari jaten ugari emateko balio izan zuen. Baina ez zen horretara mugatu. Jende-olde hura asebeteta gelditu zen eta Jesus ez zen gutxienekotan ibili. Mirariak gainditu egin zuen itxaro zitekeena. Mirari hura, beti gertatu ohi denaren erakusgarria baino ez zen izan: batek egin ahal izan duen apurraren eta Jainkoa, errukiaren neurria gainditu duen begiratu gabe, bizitzan zehar ematen joan zaigunaren arteko proportzio-gabezia. Eta gauza jakina da: inoiz ez zaio axola izango hondarrak sobera gelditzea.

Urteko 6. astea

Andre Maria Lourdeskoa

San Paskual 1.a, 98. *aita santua*

Lebitarraena liburutik 13, 1-2. 44-46.

Honela mintzatu zitzairen Jauna Moisesi eta Aaroni: «Norbaiti larruazalean handitua, zornadura edota orbaina ateratzen bazaio, legenarena bezalako zauria sortuz, Aaron apaizagana nahiz haren ondorengoetako apaiz batengana eramango dute. Legenarduna da; kutsaturik dago, eta hala aitortuko du apaizak buruan duen gaitzagatik. Legenak jota dagoenak arropak urratuak eramango ditu, ilea harro eta aurpegia erdi estalirik, eta “kutsatua, kutsatua!” oihu egingo du. Gaitzak alde egin arte, kutsatua izango da eta bakarrik biziko, kanpalekutik aparte».

Sal 31: Zu zaitut babesleku, askapen-kantuz inguratzen nauzu.

San Paulok 1 Korintoarrei 10, 31-11, 1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen. Izan zaitetzte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitetz garbi». Orduan bertan alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen. Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten». Hura, ordean, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta

Urteko 6. astea

Andre Maria Lourdeskoa

San Paskual 1.a, 98. *aita santua*

harrezkero ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditzen zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Judu herriak infekziodun gaixotasunen aurrean zuen erreakzionatzeko modua, antzinateko herriek gai horretaz zuten pentsamoldearen arabera: medikuntzaren garapen eskasaren eta gaixotasunen ikuspegi animistaren arteko nahastea. Babesteko zuten senaren zentzuari begiratuta, gaixoak isolatu egin behar zuen bere gaixotasuna herritarren artean zabal ez zedin. Arau horren eragina izugarri gogorra zen, arau horrek giza harremak ia erabateko haustea zekarren. Legenardunak derrigortuta zeuden inkomunikazio zorrotzera; hartara, etsairik gogorrenari egin behar zioten aurre: derrigortutako bakardadeari. Gaurko mirari honetan, gaixoaren sufrimendurik sakonena ez da soilik bere legenarra edo gaitza. Jesusi ez dio sendatzea soilik eskatzen. Legenardunak ziurtasuna nahi du; alegia, bera benetan senda dadin *nahi duena* dela Maisua. Bere isolamenduan antsia izugarria du lagun baten ahotsa entzuteko eta inguratzen duen horma itxia zula daitekeela frogatzeko. Jesusek ongi hartzen du haren mezua eta bere maitasuna ziurtatzen dio: «Nahi dut; izan zaitez garbi». Hortik aurrera, bakardadea jada gaindituta dagoela jakinda, logikoa da legenarduna zenak jada Jesusen esanari kasu handirik ez egitea: bere sendakuntza iragartzen du inolako trabarik gabe; izan ere, eroritako zubiak berreraiki dizkio eta etenak zituen harremanetako bakoitza eta guztiak berrezarri. Berriro ere *maitatua* izatera itzuli da..., pertsona izatera, alegia.

Urteko 6. astea

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*

San Modesto, *martiria*

Santiagoren liburutik 1.1-11: Tentaldiak iraupena dakarkio zuen sinesmenari, on-onak eta beteak izan zaitezten. **Sal 118:** Betorkit zure gupida, Jauna, biziberri nadin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 11-13.

Aldi hartan, fariseuak etorri eta Jesusekin eztabaidan hasi ziren. Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten azpikeriaz. Jesusek, barrutik hasperen eginez, esan zien: «Zer dela-eta ari da gizaldi hau seinale eske? Benetan diotsuet: Gizaldi honi ez zaio seinalerik emango». Eta, haiek utzirik, berriro txalupara igo eta beste aldera abiatu zen.

Fariseuei kostatu egiten zaie onartzea, zeinuek ez dutela fedea ordeztzen. Zeinu diren heinean, erabat ezin atzeman duten errealitatera igortzen dute. Jainkoa ez da kabitzen zeinuen sarean. Gizateria maitatzeko duen askatasunak eta munduan jarduteko duen ahalmenak, aise eta indartsu gainditzen dute zeinuen azken indarra. Ez dira iristen ulertzera eta argitzera, Jainkoak zergatik maitatzen eta jarduten duen edozein neurriren gainetik. Muin-muinean, fariseuek uko egiten diote fedea ondoriozta ezina izateari. Fedearen zorua, konfiantza izatera gonbidatzen duenarengan konfiantza hutsa edo purua izatea da. Eta konfiantza izanez sostengatzen du gauza oro bere baitan. Zu batengan sinesten dugu, eta argitu ezin den bere burua emate horretan bertan ere ez gaitu behartzen hori aitortzera. Doan emateko neurri horixe da beraren zeinua.

Urteko 6. astea

San Benigno, *martiria*San Kastor, *apaiza eta ermitaua*

Santiagoren liburutik 1, 12-18: Jainkoak ez du inor tentatzen. **Sal 93:** Zorionekoa, Jauna, zuk hezten duzuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 14-21.

Aldi hartan, ikasleei ogia hartzea ahaztu zitzairen, eta bat bakarra zeukaten ontzian. Jesusek ohar hau egin zien: «Begira gero! Kontuz ibili fariseuen eta Herodesen legamiarekin». Haiek, berriz, eztabaidan ari ziren elkarrekin, ogirik ez zutelako. Konturatu zen Jesus eta esan zien: «Zer ari zarete ogirik ez duzuela eta? Oraindik ez al duzue ulertzeko adimenik? Hain burugogorrek al zarete? Begiak izan, eta ez al duzue ikusten? Belarriak izan, eta entzuten ez? Ez al duzue gogoan, bost mila gizonen artean bost ogiak banatu nituenean, zenbat saski bete zenuten hondarrekin?». «Hamabi», erantzun zioten. «Eta lau mila gizonen artean zazpi ogiak banatu nituenean, zenbat otarre bete zenuten hondarrekin?». Erantzun zioten: «Zazpi». Orduan, Jesusek: «Eta oraindik ere ez duzue ulertzen?».

Noizik eta behin eta bat-batean, Jesus egiten ari denaz bere ikasle-taldeak duen ulermen maila eskasa azaleratzen da. Haien atzerapena asaldagarria da eta Ebanjelioaren hari nagusiarekiko agertzen duten etenak izua sortzen du. Pedagogoa, gehiena saiatuta ere, ez du lortzen bere ikasleen ikasketa finkatzea. Ikasleek, azaleko gauzekin eta begirada estuekin jarraitzen dute. Xehetasunei lotuta bizi dira, bigarren mailako zailtasunei begira. Giltzarri diren esperientzien esanahirik ez dute berenganatzen eta erabakigarriak diren hitzak ere ez dituzte jasotzen. Maisua, ilusio handirik gabe, saiatzen da bere ikasleak esnarazten. Dagoeneko ulertu beharko lukete: Bera dela helmuga, beragan makaldu eta erlatibizatu egiten dira beharrianak. Bera da ogi berria, bizia betikotasuneraino biderkatzen duena.

Garizuma Hausterre

San Zirilo, *monjea* eta San Metodio, *gotzaina*.
(Europako Zaindariak)

Joel profezia liburutik 2, 12-18.

Hau dio Jaunak:

«Itzul zaitezte nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta doluz. Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua baita, haserregaitza eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dena. Agian atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaituzte ostera, labore- eta isurtze-oparia eskain diezaiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari. Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkontza-gelatik, emaztea ezkontza-ohetik. Negar egin bezate atari eta aldare bitartean apaizek, Jaunaren zerbitzariak. Esan bezate: “Barka, Jauna, barka zeure herriari; ez utzi lotsatan zeure ondarea, ez dezatela mendera atzerritarrek, ez dezatela esan beste herriek: Non dute, bada, beren Jainkoa?”». Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

Sal 50: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 20-6.42.

Senideok: Kristoren mandataria gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamina irits genezan. Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahigaraia, oraintxe salbamen-eguna.

Garizuma Hausterre

San Zirilo, *monjea* eta San Metodio, *gotzaina*.
(*Europako Zaindariak*)

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilan, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Ikur gogorra da errautsarena. Hautsa den heinean, gure amaiera gogorarazten du. Nahikoa da haize-kirri apur bat errautsa barreiatzeko eta desagiteko. Ezinezkoa da berriro hura batzea eta are ezinezkoagoa izan dena berriro berreraikitzea. Errautsak heriotzaren eta gaizkiaren entropiara bidaltzen gaitu eta han gure izaera... mehatxatuta sentitzen da. Baina errautsa ongarria ere bada. Itxuraz bizigabea da, baina badu bizi-zantzu bat. Horregatik, errautsaren ikur-sinbolismoak erreakzionarazi egiten digu. Errautsa kopetan sentitzea eta gaurko liturgiak egiten duen moduan berarekin markatuak izatea, ez izatera bultzatzen gaituen ororen aurkako konjurua da. «Bihotz-berri zaitez eta sinetsi Berri Ona»: bihotz-berritze hori orain agindua da; eta, agindua bada, egingarria da; eta egingarria bada, Jainkoarentzat bizirik gaudelako da!

Garizuma Hausterre ondokoa

Santa Jovita, *martiria*

San Klaudio de la Colombière, *apaiza, jesuita*

Deuteronomio liburutik 30, 15-20: Bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut gaur aurrean. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztu egingo da». Eta esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak salbatu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?».

Jesusek, une jakin batetik aurrera, ez zion utzi heriotzaz hitz egiteari, beraren heriotzaz eta haren jarraipenak zekarrenaz hain zuzen ere. Bere berriak atsegina izan nahi bazuen ere, begi-bistakoa da hasteko oso zail jarri zuela hori sinestea, indarkeriaz eta bortxaz gertatuko zen heriotzaz behin eta berriz hainbeste jardunda. Balio handi zerbait egon behar du, nonbait, heriotza saihestezin horretan, Ebanjelioa, azken finean, alaitasunerako arrazoi izateko. Jesus saiatuko da frogatzen, bere Aitak eta bere Erreinuak askatasuna eskatzen dutela heriotzaren aurrean: faltsukeriatik hil egin behar da egiazkoa dena argitara ateratzeko; gaizkile izatetik hil egin behar da benetan ongira jaiotzeko. Ebanjelioko heriotzak piztueraz zipriztindutakoak dira. Horregatik, ez da arraroa, kristautasunarentzat gurutzea bere ezaugarri-ikurra izatea, bakarra alegia: bizira daramalako!

Garizuma Hausterre ondokoa

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*Santa Juliana, *birjina eta martiria*

Isaias profetaren liburutik 58, 1-9a: Hau da Nik maite dudan baraua.

Sal 50: Zuk ez duzu gutxien, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 14-15.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?». Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau».

Dolua ez da noski etiketarik onena Ebanjelioarekin hasten diren gauza berrientzat. Aurkako zerbaite izan beharko luke: alaitasuna da Erreinuak eraldatutako errealitatea azaltzeko tonu natural eta egokiena. Frantzisko Aita Santuak, bere *Evangelii gaudium* entziklikan bere maisutza-lana gako horren barruan sartzen du: «Ebanjelioaren poza bihotzaren eta bizi osoaren betegarri da Jesusekin topo egiten dutenentzat. Haren salbamena onartzen dutenak askatuak dira bekatutik, tristuratik, barne-hutsetik eta isolamendutik. Jesu Kristorekin beti sortzen eta birsortzen da poza» (1. zenb). Inguruabar horiekin, baraua begirune-gabezia izango litzateke. Jesusen Jainkoa, aurrez aurre gozatzeko presentzia da eta ez minez hartzeko absentzia.

Isaias Profetaren liburutik 58, 9b-14: Gose denari zeure ogitik ematen badiozu, zure argia ilunpean zabalduko da. **Sal 85:** Erakutsiezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 27-32.

Aldi hartan, Jesusek Lebi izeneko zergalari bat ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark, dena utzirik, zutitu eta jarraitu zion. Lebi bazkari handia eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera zergalari eta bestelako jende asko zegoen mahaian. Fariseuak eta haien lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zergalari eta bekatariekin?». Jesusek erantzun zien: «Ez dute osasundunek sendagilea behar, gaixoei baino; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

Ikusezinak dira baina sendoak. Lerro banatzaile asko marrazten ditugu eta horien bitartez baliotsutzat ditugunak bereizten ditugu gure ustez balio ez dutenengandik. Desberdintzen, katalogatzen eta balioa ezartzen duten lerroak dira. Ekidin ezinak dira, baina giza harremanen zoritxarrerako, ez dira beti zuzentasunak eta egiak marraztuak. Beste ikuspegi batetik marraztuak dira, gure gizatasun-gabeziak eraginak dira eta beti, historiaren alderik arrakastatsuenen eta ongi pentsatzailean sartzen saiatzen gara. Arrazoi horregatik, harridura handia sortzen du ikusteak, norbaitek lerro banatzaile horien gainetik jauzi egitea erabaki zuela eta «publikano eta bekatoriengan» begiak jarri zituela. Eta haiekin bat egin zuela gainera. Eta horrek asaldura izugarria eta deigarria eragin zuen: beren bakardade derrigortua jada sentitzen ari ez zirenen poz ikaragarria.

Hasiera liburutik 9, 8-15.

Egun haietan, Jainkoak esan zien Noeri eta honen semeei: «Hara, ituna egiten dut zuekin eta zuen ondorengoein, baita zeuekin dituzuen bizidun guztiekin ere: hegazti, abere eta lurreko piztiekin, ontzitik atera eta lurrean bizi diren guztiekin. Hona, zuekin ituna eginez, ematen dizuedan hitza: ez duela uholdeak berriro bizidunik hondatuko, ez dela aurrerantzean izango lurra suntsituko duen uholderik». Jainkoak esan zuen gainera: «Hau da zuekin eta zuen artean bizi diren bizidun guztiekin belaunez belaun eta betiko egiten dudan itunaren ezaugarria: neure ortzadarra ipiniko dut hodeietan, eta hura izango da lurrarekin egiten dudan itunaren ezaugarria. Nik zerua lainotzean, ortzadarra agertuko da hodeietan, eta oroituko naiz zuekin eta bizidun guztiekin dudan itunaz, eta ez da izango gehiago bizidunak suntsituko dituen uholderik».

Sal 24: Zure bidexka guztiak grazia eta leialtasuna, Jauna, zure ituna gordetzen dutenentzat.

San Pedroren 1 gutunetik 3, 18-22.

Senide maiteok: Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko, «errugabeak errudunengatik», zuek Jainkoagana eramateko. Gizakia zenez, heriotza jasan zuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik. Espirituaren eraginez joan zen bere mezua hots egitera giltzapetuak zeuden espirituei, garai batean sinesgogor izan zirenei; Noeren egunetan, hark ontzia egin bitartean, Jainkoa pazientziaz egon zitzaien zain; baina ontzian banaka batzuk bakarrik, zortzi lagun guztira, izan ziren uraren bidez salbatuak. Ur hura orain zuek salbatzen zaituzten Bataioaren irudi da. Eta Bataioa ez da gorputzeko zikina garbitzea, baizik eta Jainkoari kontzientzia garbia eskatzea, Jesu Kristoren piztueraren bitartez. Jesu Kristo, zerura igo ondoren, Jainkoaren eskuinaldean dago eta menpean ditu aingeruak, aginteak eta indarrak.

Garizumako 1. astea

San Simeon, *Jerusalemgo gotzaina*

Fiesoleko Joan dohatsua (Fra Angelico),

apaiza, domingotarra

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 12-15.

Aldi hartan, Espirituak basamortura bultzatu zuen Jesus. Berrogei egunez egon zen basamortuan, Satanasek tentatzen zuela. Basapiztien artean bizi zen eta aingeruak zituen zerbitzari. Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Bete da epea, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona».

Tentazioak gizakiok beti jarri izan gaituen bidegurutzearen berri izan ez balu, Jainkoaren Semeak inoiz ez zukeen gizakia sakontasunean ezagutuko. Orain, ordea, gure tentaldiak ezagututa, ondo ezagutzen gaitu. Tentazioak gure alderik ahulena agertzen du, gure izaerarik hauskorrena. Eta Jesusek hala bereganatu du. Eta hainbestearaino bereganatu ere, non denen artean ikur den otoitzean, Gure Aitan alegia, sartu baitzuen, bere ikasleei irakasteko, eta, bertan egiten direnen artean, entzuteko ziur aski gogorrena den eskaera moduan sartu ere: «Ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen». Baina basamortuko esperientziatik irten dena, ez da gure hauskortasunaren maila esanezina aurkitu duelako kondenatuko gaituen norbait. Giza ahuleziaren esperientzia sakontzen berrogei egun haiek igarotzetik irten denak, proposamen bat dakar: Ebanjelioa. Gure hauskortasuna izugarria izan arren, tentazioak ez du lortuko gu erortzea. Beraz, Jesusen tentaldien historia, tentazioak baino zerbait goragokorik badagoenaren historia zoragarria da. Jesusek bizi izandako basamortuko bizimodu hura, bizitza beste era batera ikusteko bidea aurkitzeko modua izan zen, benetan. Tentazioa ez da menderaezina, Jainkoaren presentziaren une misterioetsua baizik. Tentaldian handitu, hazi, egiten da gure askatasuna: tentatuak gara, bai..., baina garaituak ez.

Garizumako 1. astea

San Konrado Confalonieri, *ermitaua***Lebitarrena liburutik 19, 1-2.11-18:** Epaitu zuzenbidez zeure herritarra.**Sal 18:** Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 31-46.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezker aldean. Orduan, erregeak esango die eskuinekoiei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”.

Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”. Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”. Gero, esango die ezkerrekoiei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren laguntzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”.

Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”. Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”. Eta haiek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Garizumako 1. astea

San Konrado Confalonieri, *ermitaua*

Zer gertatuko da historiako Azken Auzian? Mateok dio, *omega* une horretarako, Unibertsoaren Erregeak bi ohar egin dituela. Batetik, Jainkoa beti, guk uste izan eta irudikatu duguna baino guregandik askoz ere hurbilago egon izan dela. Ez dela egon inoiz ere besarka ezina izan den misterioan murgildurik eta estalirik, ezta hasiberrientzako teologian ezkutatuta ere. Pertsonengan ikusi ahal izan dela beti. Jainkoak ez duela nahi izan bere baitan ezagutua izatea, gure hurkoarekin zerikusirik izan gabe. Bestalde, Erregeak adieraziko digu, Jainkoa benetan aurkitzeko, senidetasun-beharrizanak antzemateko gai izan behar zuen bihotz batez hornituta egon behar genuela. Jainkoa beti egon izan dela gosea, egarria, lekualdaketak, pobrezia, gaixotasunak eta askatasun-gabezia egon izan den tokietan. Eta hantxe egon zela bistan, hain zuzen ere, han zegoelako gure beharra zuen gizakiren bat.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea.

1. Orduan Jesus gurutzeraz eta gaur ere bai.

Jesus gaeuz atxilotu eta gurutzeraz bidali zuten. Zergatik? Ez zien uko egin bere konpromisoari eta Jainko Aitarekiko leial iraun zuen. Jesusek gurutzerako bidea onartuz bekatutik askatu gintuen.

Baina, gaur egun ere Jainkoaren Semea gurutzeraz eramane zuen munduko bekatuak hor darrai. Hor dago herrien sufrimena, hor zuzentasun egarria, hor gosea. Munduan ditugun egoera horiek ahalbideratzen dituzten egitura ekonomiko eta politikoak. Gaur egungo zapaldu guztietan darrai Jesusen zigorrak.

(Leonardo Boffen gurutze bide egokitua)

Garizumako 1. astea
San Leon, *gotzaina*

Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, anai-arrebak, *santuak*

Isaias profetaren liburutik 55, 10-11: Nire hitzak egingo du Nik nahi dudana. Sal 33: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzun, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: «Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik». Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Harritu egiten gaitu Jesusek halako ziurtasunez baieztatu izanak ezen Jainkoak ezagutzen dituela gure beharrak, eta, horrela, otoitzari zentzu berri bat eman ahal diogula. Falta zaigula uste dugunari lehentasunik eman gabe otoitz egitea proposatzen du. Jainkoa da eta ez gu, eskatu behar duguna zer den dakiena. Aukera izan bagenu, Gure Aita hitz hauekin hasiko genukeen: «Emaguzu gaur, egun honetako ogia». Beharrian materialek edo gauzazkoek lehentasuna izango zuketean noski. Jesusek, berriz, nahiago du lehentasuna beste gai batzuei eman: Erreinuari harrera egin, barkatu, gaizkia saihestu, etab. Gauza guztien gainetik Jainkoa bizileku duen barnekotasuna behar bagenu bezala. Hala izanez gero, orduan, otoitz egitean, benetan garrantzitsuak diren lehentasunez ohartuko gara, *benetakoak* direnez alegia. Gainerakoez jada ari da arduratzen hainbestearaino ezagutzen gaituen Jainkoa.

Garizumako 1. astea

San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Jonas profetaren liburutik 1, 1-10: Ninivetarrak beren bide okerretetik itzuli. **Sal 50:** Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaien: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena. Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Jendeak eskatzen duen seinaleak teologia-eskema estuak dituela salatzen du. Horien arabera, Jainkoak modu jakin batean jokatu beharko luke, zalantzan jarri gabe jadanik berek aurreikusia dutena. Jainkoa ezin izango litzateke berrizalea. Jesusen aurkariei guri beti gertatzen zaiguna gertatzen zitzaien: gure desireri erabat atxikitako Jainkoa sumatzen zutela. Benetan bera den hura izatea debekatu egin nahi izaten diogu; uste horren aurka, Jesus beti ari zaigu iragartzen Jainkoak molde mugiezinak hausten dituela, imajinatu ezinezko bidezidorretan zehar ibiltzen dela, paradoxen arloan itxaroten duela, gerren barnean bakea sinatzen duela eta heriotza dagoen tokian bizia lantzen duela. Jesusengan presente aurkitzen da Jainko menderaezin hori. Hori da arrazoia, hain zuzen ere, esan ahal izateko «hemen bat bada handiagoa dena» Salomon eta Jonas baino, zeinen «zeinua» ezin baitute sumatu Jainkoari bere askatasuna ukatzen dioteneak.

Garizumako 1. astea

San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia

Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*

San Pedroren 1 liburutik 5, 1-4: Haiek bezala arduradun eta Kristoren sufrimenduen testigu naizen honek. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Etorkizuna iragarri nahi izatea ausarkeria da noski. Gertatu baino lehen gauzak nolakoak izango diren esan nahi izateak zentzugabekeria ukitzen du. Baina Jesus ausartu egin da arrisku hori bere gain hartzen. Ziur dago berak sortutako taldea edo komunitatea indar batez hornituta dagoela eta indar horrek lagunduko diola historia igarotzen, eusgarri duen bizitza atzemaezin hori galdu gabe. Halako neurria du indar horrek, Eliza beti mantenduko baitu, azken batean ongiaren aldeko hautua egin ahal izateko. Eliza ez da libre izango «gaizkiaren indarretik» baina azken batean Ebanjelioaren lorratzean iraungo du. Etorkizunaz egindako baieztapen ausart hori da garai guztietako sinestunak elikatzen dituen eta itxaropena sortzen diena eta, hain hauskorrak izan arren, aldi berean hain indartsu egiten dituen.

Garizumako 1. astea

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*.Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900), *dohatsua, fundatzailea*
(*Aingeru Zaindaria*)

Ezekielen profetia liburutik 18, 21-28: Gaiztoaren heriotza nahi ote dut Nik, eta ez jokabidez aldatu eta bizitzea? **Sal 129:** Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da. Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia. Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Arazoak konpontzeko beti «senideekin borroka» egin beharra hautatzea, ez da irtenbide eraginkorra. Mundua ez dute baretzen eta lasaitzen, ez botere zigorgabeek, ez nagusitasun-oihu zalapartatsuek, ez jauntxokeriazko keinu harroek. Gure barnea korazatu egiten da bidegabekeriak eta zuzengabekeriak eraso egiten diotenean, eta gure zauriak berak ere harrigarriro bihur daitezke besteen aurka jaurtitzeko arma. Gauzak horrela, atzo eta gaur ere oso on iruditzen zaigu Jesusek buruzagitza nola ulertzen zuen adierazteko egin zuen bere buruaren erretratua: garrasirik ez; kanabera pitzatua haustea pentsatu ere ez; doi-doi piztutako metxa itzali ez. Bazekien jakin geure baitan bilduta egongo garela, indarkeriak tentaturik, gurekin topo egitera datorrenak benetako bake-besarkada eskaintzeko asmoa soil-soilik duela sentitzen ez dugun bitartean.

Deuteronomio liburutik 26, 16-19: Jaunari zeure Jainkoari sagaraturiko herri izango zara. **Sal 118:** Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Moral-perfektutasunak, beti erlijio-esperientziari lotua dagoela emanik, uste honetara eraman izan gaitu: Jainkoak solaskide bertutetsuak bakarrik dituela pentsatzera. Kristau-bizitza eremu itxi bat izango litzateke: pribilegiatu batzuen eremua, eta segada edo tranpa hilgarri baten itxura izango zuen: era ironikoan, nartzisistak beren baita berresteko balio zuen uste horrek. Jesusek, bere ikasleak «zintzoak» izateko animatzen dituenean, beste zer bait esan nahi du, eta are zailagoa ziur aski: zintzotasunak eta perfekzioak, hain zuzen ere, perfektua ez dena eta akastuna maitatzea eskatzen dute. Eta guri ere dagokigun gauza da hori. Ulertzen eta onartzen ez dugun gure geu horren horren alboan jarri behar dugu senidetsu. Horra Jesusek bere ikasleei eskatzen dien «aparteko gauza». Horixe da «perfektua eta akasgabea»: perfektua ez den eta akastuna den hura besarkatu eta norberaren graziaren historian beharrezkotzat aitortzen duen maitasuna.

Garizumako 2. astea
 San Bitorino, *martiria*
 Santa Valverga, *abadesa*

Hasiera liburutik 22, 1-2. 9a. 10-13. 15-18.

Egun haietan, Jainkoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta dei egin zion: «Abraham!». Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jainkoak: «Hartzazu Isaak zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moriako lurraldera, eta eskaini iezaazu erre-opari, Nik erakutsiko dizudan mendi gainean». Aita-semeak Jainkoak esandako lekura iritsi zirenean, Abrahamek aldarea eraiki zuen eta egurra prestatu. Eskua luzatuz, aiztoa hartu zuen Abrahamek bere semea hiltzeko. Baina Jainkoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!». Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Aingeruak, orduan: «Ez luzatu eskua zeure semearen gainera, ez egin ezer. Ikusi dut Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra bera ere ukatu». Abrahamek begiak jaso eta ahari bat ikusi zuen adarretatik sastraka artean kateatua; hartu eta erre-oparizat eskaini zuen semearen orde. Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hau dio Jaunak: Ala Ni Jainkoa! Horrela jokatu duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedekatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasbazterreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta etsaien hiriez jabetuko dira. Zure ondorengoen bidez lureko herri guztiak bedekatuko ditut, nire esana egin duzulako».

Sal 115: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizidunen lurraldean.

San Paulok Erromatarrei gutunetik 8, 31b-34.

Senideok: Jainkoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semea bera heriotzatik libratu ez, baizik eta gu guztion alde heriotzara eman zuenak, nola ez digu harekin batera dena dohainik emango? Nork salatuko ditu Jainkoak aukeratutakoak, Jainkoak berak zuzentzat onartu baditu? Nork kondenatuko ditu? Jesu Kristok?, hil zenak?, piztu ere egin zenak?, Jainkoaren eskuinaldean dagoen eta gure alde otoitzean ari denak?

Garizumako 2. astea
San Bitorino, *martiria*
Santa Valverga, *abadesa*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 2-10.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eraman zituen haiek bakarrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurak harturik zeuden. Orduan, hodei batek estali zituen, eta ahots bat atera zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez. Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen arteak piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarri galdetzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen arteak pizte» hori.

Askok esan izan dute, guri gauza ikusgarritzat kontatu izan zaigun arren, Antzaldatzearen pasadizoa oso gauza soilak izan zela. Izan ere, azkenean, besterik gabe, itzali egin zen ikuskizuna, bai Jesusengandik jariatzen zen argi distiratsua, bai Elias eta Moisesen agerpen harrigarriaren agerpena, eta zerutik esandako ezkutuko eta behin betiko ahotsa entzun zen. Pedrok, Santiagok eta Joanez, Jesus bakar-bakarrik ikusi zuten, une bat lehenago estaltzen zuen ingurune berezi eta aparteko hura gabe. Hantxe zegoen: Bera soil-soilik eta ez besterik... Edozein modutan ere, soiltasun hori osotasunez beteta zegoen. Ikasleek oraingoan ulertzen zuten, mendiko Jesus harengan, gure errealitatea benetan argitzen duen argia zegoela, munduaren sorreratik etorkizunerainoko denbora zeharkatzen duen salbamenaren historia eta Jainkoak gure bizitzarekiko daukan hurbiltasun zirrargarria zeudela. Gertatu zena ez zen soilik izan Jesus antzaldatu egin zela; orduz gero, Jesusek berak antzaldatu egin zuen ukitzen eta besarkatzen

Garizumako 2. astea

San Bitorino, *martiria*

Santa Valverga, *abadesa*

zuen giza bizitza oro, nobleenetik hauskorreneraino, horrela guztiaren sakontasuna agerian jarritz. Jesusengan, eta Berarengan soilik, ari zen gure antzaldaketa iragartzen: eta antzaldaketa horrek ulertarazten digu azken finean, Jainkoaren «seme-alaba maitatuak» garela.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (2)
(Jarraipena)

2. Orduan Jesusek gurutzea hartu zuen.

Ebazpena eman eta Jesus Soldaduen esku utzi zuten. Ondoren etorri ziren torturak eta burlak. Jesusek gizakion alderdi gaizkileena ezagutu eta jasan zuen. Honela giza historiako zapaldu guztiekin bat egin zuen. Gurutzea, kondenaren sinboloa, maitasunak eraginda hartu zuen eta askapenaren sakramentu bihurtu zuen.

Gaur egun ere gurutzea hor oraindik. Mundu honetan, Jainkoaren Erreinua eraikitzeko, Jainkoak nahi ez dituen eta harreman zuzengabeen ondorio diren egoeren aurka joan behar: berekoikeria, beharra, bekatua, ... Ahaltzuak indarra erabil dezake defenditzeko, baina horrek zenbaitentzat gurutzea dakar: zuzentasuna iragarri eta eskatzen duten profetentzat, behartsuak babesten dituztenentzat. Hauek daramate gaur egun Jesusen gurutzea.

Garizumako 2. astea

San Alexandro, *gotzaina*San Porfirio, *gotzaina*

Danielen Profezia liburutik 9, 4b-10: Guk bekatu egin dugu, gaiztoak izan gara. **Sal 78:** Ez gu erabili, Jauna, gure bekatuek merezi bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Ez epaitzea ezinezkoa da, lehen ekinaldi batean bederen. Pertsonak eta egoerak epaitzea, gure barneko automatismorik lasterrenetakoa da. Jesusek badaki hori, baina erresistentzia jartzen dio aurka. Bere proposamena pedagogikoa da: epai bat eman aurretik, har dezagun denbora bihotz-sotiltasuna izateko; bien bitartean, atzera dezagun ahal dugun guztia besteeikiko dugun gehiegizko iritzi aztertzaileak emandako ebazpena azaltzea. Horrela, errealitateko printzipio batekin topo egiten dugu: *denbora asko* behar dugu sotiltasunez janzteko eta, hori gabe, gure epaiek arrisku handia dute akastunak izateko. Zuhurragoa dirudi gogoratzea, ezein errealitate ere, ez material eta ez espiritual, ez dagoela itxita, irekita baizik: bere Sortzailearen moldeari irekita, alegia, desberdin eta hobe bihurtzeko... Horrela, ez epaitzea ere posible dateke, bigarren ekinaldi batean bederen!

Garizumako 2. astea

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*

Isaias Profetaren liburutik 1, 10.16-20: Ikasi on egiten, bila ezazue zuzenbidea. **Sal 49:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori “aita”, bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Kristo. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Jesusen hitzak ezin dira gozatu. Beraren ikasleek uko egin behar diote beren burua, gainerakoen aldean, halako ustezko nagusitasun-egoera batean sailkatu, kokatu eta jartzera daramatzan dinamika orori. Mateok Jesusen halako bata bestearen segidako bost adierazpen jaso ditu, eta horiekin finkaturik gelditzen da desberdintasun dinamikan jarduteko debekua: beren buruari ez diezaiotela irakasle deitu, beren burua ez dezatela gurasotzat hartu, ez daitezela aholkulari sentitu, zerbitzari izan daitezela eta apal bizi daitezela! Izugarri da jokoan dagoena. Maila eta hierarkien mundu irudikatuek, besteeikiko konparazioz bizitzeko ametsekin, bizia desegiten dute. Benetako hutsuneak dira, diferentzien eta bazterketen gainean eraikiak eta hor ahultzen dira funtsezko gure pertsona-loturak... desagertu arte, eta gu geu ere bat haiekin batera.

Garizumako 2. astea

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*

Jeremias Profetaren liburutik 18, 18-20: Zatozte, jo dezagun Jeremias.
Sal 30: Salba nazazu, Jauna, zeure maitasunaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 17-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemera igotzen ari zela, hamabi ikasleak aparte hartu eta esan zien bidean: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute, heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko, iseka egin diezaioten, zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztuko da».

Orduan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?». Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?». Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!». Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Garizumako 2. astea

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*

Jesusi jada iritsi zaio heriotza-mehatxua. Usoa arriskuan dago. Harrapakin da eskopeta dutenentzat. Bere jatorrizko hegaldi ausarta ez da gehiago ikusiko tiro egin eta ehizatuko dutenean. Ahulen ikuspegia bere gain hartzera bideratzen duen ibilbidea zein arantzatsua den ikusarazten duen aierua, seinalea, da eta aurreikuspen ororen gaindik dagoen errukiarena. Usoa eraitsia denean, indartsuek mila arrazoi aipatuko dituzte beste gertakari berriren batek bere hegoak zabalarazi ez ditzan, hegoei indartsu eragin eta hodeien artean hegan ezohiko ibilbide bat egin ez dezan. Eragotzi egingo dute norbait lurretik gorantz abia dadin... Bai, Jesusi iritsi zaio herio-mehatxua. Usoa arriskuan dago, baina horrek ez du beraren hegaldia geldituko.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (3)
(Jarraipena)

3. Aldi hartan Jesus lehen aldiz erori zen.

Torturak zirela eta odola isurita, egarriak, goseak eta gurutzearen zamak eraginda Jesus balantza egin eta lurrera doa. Nola eror zitekeen munduaren oinarria dena? Aitaren Semeak zoruko hautsa ezagutu zuen. Erorikoa gizakion ahuldadearen ezaugarri da. Gure mugak ditugu eta egoerak gainditu egin du. Ez gara ahalguztidunak. Jesusen handitasuna honetan datza: bere ahuldadea onartu du, erresuminik gabe eta apaltasun osoz Aitagan fidatzen jarraitu du.

Gaur egun ere Jesus lurrera.

Historia garaileek idazten dute. Beraiek egiten dute eraikina garaipenak ez ahaztu eta kontatzeko. Baina nork oroitu erori eta garaituak? Hauek dira betiko ahaztuak. Hauengan Jesus erori egiten da. Erortzen diren guzti hauentzat Jesus itxaropen iturri da. Hauek indarrak berritu, altxa eta aurrera jarrai dezakete. Etsipenean erori gabe jarrai dezakete. Jesus bera, lehen erori alditik altxatu zenetik, denontzat itxaropen handiagoren sorburu da.

Jeremias Profetaren liburutik 17, 5-10: Madarikatua konfiantza gizakiagan duena. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten.

Hontan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eramane zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilene Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra uretan busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere”. Aberatsak berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badiut eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezzen”. Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaietela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirakeke”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzutene ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere”».

Garizumako 2. astea

Lazaroren parabolan deigarria da Epulon aberatsarekin izan zuen hurbiltasuna. Beraren etxeko atarian dago etengabe eskean pobrea. Lazaro izenez ere ezagutzen du aberatsak. Hala ere, ez du inoiz ezer egin. Lurrean pribilegiatua zenak Abrahami Lazaro etxera itzuli dadila eta zain duten etorkizunaz bere bost anaiei berri emateko eskatu dionean, asma genezake zer gertatu behar duen: Lazaro, berriz ere eskale, eskean jarriko zen beraien etxe sarreran; baina, itxura horrekin, ez diote inoiz entzungo. Berpiztu izan balitz ere! Hain hurbil egonik, Lazaro ikusezina izango zen haientzat. Eta alferrik galduko zuten pobreagan Jainkoa ezagutzeko urrezko aukera: beren mundu itxiaren atean gaizki bizi denagan Jainkoa ikusteko aukera, alegia.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (4)
(Jarraipena)

4. Jesusek Amarekin topo egin zuen.

Denak oihuka, denak salaketan. Denak gaizki esaka. Denak egurrean. Maria bakarrik isilik eta ezinean. Bere begirada eta negar malkoak Semea sendotzeko baliagarri. Bat egiten du Semearen sufrimenean.

Eta gaur ere Jesusek topo Mariarekin.

Mariak bat egiten du gizadi osoaren sufrimenarekin. Gaur egun aipatzen dugun Jainko Aita-Ama errukitsuak badu Mariarengandik amatasun alderdia, Kristoren ama eta gizon-emakumeen ama delako. Ama horrek lagundurik, askapena iritsi arte, gure gurutzeari aurre egiteko indarrak gureganatzen ditugu.



MARTXOA / EPAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Martiri berrien alde: Egin dezagun otoitz munduko hainbat bazterretan Ebanjelioagatik beraien bizitza arriskuan jartzen dutenek elizari beraien ausardia eta misio bultzada kutxa diezaien.

Garizumako 2. asteaSan Rosendo, *gotzaina*San Felix III.a, 48. *aita santua*San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*

Hasiera liburutik 37, 3-4.12-13a. 17b-28: Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. **Sal 104:** Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21.33-43.45-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?». Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia». Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”».

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio». Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburu eta fariseuak, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat baitzeukaten.

Judu-agintariek irudimenik ez dute Jainkoaren errukiaren tamaina ulertzeko. Hala dio Jesusek zirikatzaile. Mahastiaz dakarren parabolari, Jainkoaren eta Israelen arteko adostasun-eza kontatzean, molde berriko herri bat sortuko dela iragarri du. Jesusek aurrean du, ez inongo espaziok, ez inoizko denborak zokoratuko duela Jainkoaren maitasuna. Jainkoa dena delako, haren onberatasunak ez du perimetro edo ingurunerik. Edozein arotako gizadira zabalduko du, beti ere edozein itxaropen edo uste gaindituz. Beste batzuek ere, ez juduek soilik, gozatuko dute Jainkoaren borondatearen estiloaren onura. Eta gertatzen da ezen maitasun-promes hau gure gaur honetara iristen dela, zehazki oharpen berarekin: ez da mugatuko gurekin, besteak bazter utziz.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (5)
(Jarraipena)

5. Simon Zirenekoak Jesusi lagundu.

Jesus erabat ahulduta doa. Balantzaka. Oraindik bide luzea geratzen zaio. Sorotik etxera doan ezezagun bat harrapatu zuten lagun diezaion. Berak nahi ez arren Kristoren gurutzea hartu behar du. Nahi gabe benetako solidaritatearen ikur bihurtu zen. Bera izan zen sufrimen bidean zihoan Jesusentzat samariar ona.

Gaur egun ere bada Simon zirenearrik.

Guk zer egiten dugu besteengatik? Gero bizitzaren amaieran maitasuna neurtuko zaigu: zer solidaritate maila bizi izan dut gosegarri zirenekin? Zer solidaritate bilutsik zeudenekin? Eta zapalduta zeudenekin?

Garizumako 2. astea

San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*

Santa Atanasia, *aitorlea*

Mikeasen Profezia liburutik 7, 14-15.18-20: Itsas hondora botako ditugure bekatu guztiak. **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen. Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrixain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen. Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”. Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrena eta jantz iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten.

Garizumako 2. astea

San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*
Santa Atanasia, *aitorlea*

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deituta, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”. Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

Seme gazteago hark uste izan zuen ez zuela berak oinarritzko harremanen premiarik, eta etxetik alde egin zuen, baina ondoren etxera itzuli zen, inolako mendekurik jasan beharrik izan gabe; gezur batetik abiatua zen: loturarik gabe bizi gaitezkeela uste izatetik. Baina beste seme nagusia ere, aurrekoaren anaiak, beste gezur bat baitaratu edo irentsi zuen: dagoeneko baditugun loturak ikustea eragozten diguna. Ezin esan bietan zein den gezurrik okerrera. Biek lausotzen eta ahultzen dituzte gure funtsezko erlazioak, edota ez ikusia egiten diete. Alabaina, familia-istorio hartan, familiari baturik eusten saiatu da aita. Lokarriaren mutur bati atxikirik zegoen bera, seme bietako edozeinek beste lokarri-muturra hartu eta handik tira egitea erabakiko zuenean, jakin zezan gako nagusia ez zela hautsia. Izatez, inoiz ez zen hautsiko, zeren eta haiei loturik jarraituko baitzuen aitak seme-alabak nonahi zeudela ere.

Garizumako 3. astea

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*

Irteera liburutik 20, 1-17.

Egun haietan, Jaunak hitz hauek esan zituen: «Ni naiz Jauna zure Jainkoa, Egiptoko lurraldetik, esklabotzatik, atera zintuena. Ez izan Ni beste jainkorik. Ez egin idolorik, ez irudirik, goiko zeruan, beheko lurrian edota lurpeko uretan direnetatik. Ez ahuspeztu horien aurrean, ez eman gurtzarik ere. Ni, Jauna zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut, hirugarren eta laugarren gizaldiraino; baina milagarren gizaldiraino agertzen diet errukia Ni maite nautenei eta nire aginduak gordetzen dituztenei. Ez erabili alferrik Jaunaren, zeure Jainkoaren, izena, Jaunak ez baitu zigorrik gabe utziko haren izena alferrik erabiltzen duenik. Izan gogoan larunbat eguna, Jaunari sagaratzeko. Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginkizun guztiak burutuko. Baina zazpigarren eguna atsedeen-eguna duzu, Jaunari, zeure Jainkoari, eskainia. Egun horretan ez duzu batere lanik egingo, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak, ezta zure herrian bizi den etorkinak ere. Zeren Jaunak sei egunean egin baitzituen zeru-lurrak, itsasoa eta horietan dagoen guztia, eta zazpigarrenean atsedeen hartu baitzuen. Horregatik, bedeinkatu egin zuen Jaunak larunbata eta egun sakratutzat ezarri. Aintzat hartu aita-amak, luzaro bizi zaitezen Jaunak zeure Jainkoak emango dizun lurraldean. Ez hil inor. Ez egin adulteriorik. Ez ostu. Ez egin gezurrezko testigantzarik lagun hurkoaren kontra. Ez irrikatu lagun hurkoaren etxerik, ez haren emazterik, ez morroirik, ez neskamerik, ez idirik, ez astorik, ezta beste ezertxo ere».

Sal 18: Zuk dauzkazu, Jauna, betiko bizia duten hitzak.

San Paulok 1 Korintoarrei: 1, 22-25.

Senideok: Juduak ezaugarri eske dabilta eta jentilak jakinduria bila; guk, berriz, Jesu Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, juduentzat

Garizumako 3. astea

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*

onartezina eta jentilentzat zorakeria dena; baina deituentzat, judu izan ala ez, Kristo hori Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakinduria da. Zeren Jainkoaren zorakeria omen dena gizakiak baino jakintsuago baita, eta Jainkoaren ahuleria gizakiak baino indartsuago.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2, 13-25.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaiak, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzailak han eserita. Jesusek, lokarriz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiaik irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutuko nau». Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeke, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?». Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen. Hilan artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean. Pazko-jaiak Jerusalemen egon zen bitartean, askok sinetsi zuen Jesusengan, egiten zituen ezaugarriak ikusita. Jesus bera, ordea, ez zen haietaz fidatzen, denak ezagutzen baitzituen; ez zuen hark gizakiaren berri inork eman beharrik, ongi ezagutzen baitzuen gizakiaren barruan dagoena.

Beti jarraitzen du bizirik duda honek: Jesusek urduritasunari behar bezala eutsi ote zion tenpluko merkatariak kanporatu zituen hartan? Gertakari hura ez zegokion Jesusen jokatzeko moduari. Gainera, beharrezkoa al zen hain neurrigabea zen keinu hura errudun nagusi ez ziren haien aurka? Gertatu zenez gero, eman dezagun baiezkotzat: argi eta garbi adierazi behar zen iruzur bat baino larriagoa zela. Jesusek eskatu nahi du Jainkoa ez dela nahasi behar ez den zerbaitekin.

Garizumako 3. astea

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*

Horrela bakarrik, Jainkoa zer eta zein den errespetatuz, saihestu daiteke gauzarik okerrrena: gizakia, bere burua jainkotuz, gainerakoak esklabo bihurtzera iristea, guztiei beren duintasuna ostuz. Sumatu ezin dugun arrazoiaren batengatik, geure burua oilartzera iristen gara eta, horrela, anai-arreba artekotasuna galtzen dugu aldi berean. Jainkoa manipulatzek pertsonak manipulatzeko dakar. Horretan trebeak izaten dira nola botere autoritarioa hala eskrupulurik gabeko dirua. Jainkoaren kalumniantzaile bihurtzen gaituzte. Zerua saretu egiten dute eta lurrarekin nahasten maltzurki. Horregatik, erlijioso sakon izateak zerikusia du gizatar sakon izatearekin. Alde horretatik dakusa Jesusek arazoa. Hori du arrazoa Jainkoaren Semeak, tenpluko pasadizo gogor hartan, ez bakarrik Aita defenditzeko, baita gu salbatzeko ere.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (6)
(Jarraipena)

6. Garai hartan Beronikak aurpegia garbitu zion.

Jesusen aurpegian odola eta izerdia tantaka. Ikusleen artean emakume bat dena arreta handiz begiratur. Emakumeak ditugu une latzetan ausardi handiena dutenak. Bat batean, soldadu artetik, Jesusengana hurbildu zen eta bere aurpegi odoldua garbitu zion. Zapian sufrimenaren, zaurien eta itxuragabetuaren irudia geratu zen. Jesusek ez zigun bere argazki dotorerik utzi, Isaiasen zerbitzari zintzoaren sufrimenarena baizik.

Gaur egun ere Beronika aurpegi garbitzen.

Gizon-emakume jainkozaileak beti izan dute galdera-kezka hau: non aurki genezake Jainkoa? Erlijioek hau erakutsi digute: otoitzean, gure barnean, bizitza apal eta neurritsuan, ... Galdera beste era batera egin behar dugu: Jainkoak non nahi du guk bera aurkitzea? Lehenengo Kristoren aurpegi hauskorrean. Ondoren zapaldu eta baztertuen bizitza eta aurpegian. Beronikak hau erakusten eta gogoratzen digu: bizitzak eragindako sufrimena jasaten ari den edonoren aurpegia garbitzean Jesusen aurpegia garbitzen ari garela.

Garizumako 3. astea
San Kasimiro, *aitorlea*

2 Erregeak 5, 1-15a: Bazen legenardunik asko Israelen; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik. **Sal 41:** Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 24-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen. Eta sinagogan jendeari esan zion: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik». Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruz bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Pertsonen eta gizarteen historia handiak orduan hasi ziren: beren zertzeladak erlatibizatu eta kolonizatu, mantsotua eta betikoa alde batera zokoratu zutenean. Egun batean konbentzitu ziren beren bizitzari bide luzea gelditzen zitzaiola aurrez ezarritako bidezidorrik gabe ibiltzeko. Salbuespen dira horrelakoak. Beste kasu askotan, ezer ez mugitzeko legea ezarri zuten. Inguruan gertatzen zen guztia entzuteko ahalmena moteldu egin zen. Bakea, lasaitasun bihurtu zen; kontzientzia, arimarik gabeko manamendu. Aberri koxkor, ohitura hertsia, aurreiritzi zaharkitu... Baina lortu zuen familia handiago bat. Hura ezagutzeri eman zion, bere bihotzari txikien munduaren frontera gurutzatzera eragiten zion denbora berean, mundurik ez zutenak gehiago eta hobeto maitatzea lortu arte.

Garizumako 3. astea

Santa Oliva, *birjina eta martiria*

San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*

Danielen Profesia liburutik 3, 25.34-43: Bihotz-damuz eta gogo apalez gatozkizu: har gaitzazu onez. **Sal 24:** Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?». Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezaadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte. Beste morroiak, gertatua ikusirik, bizi atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaalako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?”. Eta nagusiak, haserre bizi, borroeroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Garizumako 3. astea

Santa Oliva, *birjina eta martiria*
San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*

Munduak behar duen bakeak ez du esan nahi baliabide gehiagotan inbertitzea, baizik eta *uste izatea* barkazioa gerta daitekeela. Gizarte asko daude nahas-nahasirik indarkeria sistematiko eta etsipenezkoan; izan ere, alde batera utzia dute uste izatea beste biziera bat izan daitekeela. Sakon dezepzionaturik sentitzen dira. Barkazioa urardotu egin dute, probetxu oportunistaren kalkulu huts bihurtuz... Alabaina, Ebanjelioak ohartarazi digu berradiskidetzeko bide dela fedea. Har dezagun gogoan ezen *otoitz* baten ingurumenean eskatu digula Jesusek «iraintzen gaituztenei» barkatzeko. Har dezagun gogoan orobat ezen igandeko eukaristiako *fede-aitorpena* dela-eta aldarrikatzen dugula biribilki «sinesten dut bekatuen barkazioa» delakoa. Barkazioak fedea du ezinbestean bere muinean, ez baita iturburu handiagorik barkazioa imajinatu eta gauzatzeko.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (7)
(Jarraipena)

7. Jesus bigarren aldiz lurrera.

Garai hartan Jesus berriro lurrean. Jasandako zigorkadek erabat ahulduta, gurutzearen zamak nekatuta eta bere barnean ikasle eta lagunak ihesak eraginda Jesusek berriro estropoz egin du eta lurrera erori da. Hemen ageri zaigu behin eta berriz ahuldade fisikoak barne ezina eta borondatearen murrizketa dakartzala. Jesusek bere asmoen porrota (Jainkoaren Erreinua) bizi izan zuen. Horregatik munduko frakasatu guztiekin bat etor daiteke. Erorien eta ezinean ari direnen alboan kokatzen da. Solidaritatea sendotuz jarraitu egiten du.

Eta gaur egun berdin jarraitzen du. Gizakiok badakigu ezin dugula gure ahalmen hutsez erabateko askapena lortu. Esperientziak lortzen dugun zuzentasuna txikia eta ahula dela erakusten digu. Eraikitzen ari garen zuzentasunarekin ez dugu erabateko bakea lortzen. Oraindik gehitu behar ditugu doakotasuna, maitasuna, barkamen ahalmena. Zenbat eroriko ezinak jota!. Eta hor denean aurkitzen gaitu Jesusek eta salbatu egiten gaitu. Hor, lurrean, itxaropena erretzen digu.

Garizumako 3. astea

Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*

San Marziano, *gotzaina*

Deuteronomioa liburutik: 4, 1.5-9: Gorde itzazue eta bete nire aginduak. **Sal 147:** Jerusalem, ospa ezazu Jauna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzeraz etorria naizenik; ez naiz baztertzeraz etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte. Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Jesusek Legean testu juridiko bat, logika hotz eta legezale hutsez idatzia, baino zerbait gehiago ikusten du. Israelentzat, bere herriarentzat, jaulkitako hitzak jartzen dizkio Jainkoaren borondateari Legeak. Legearen bihotzean borondate bat dago, Israelekin eta historian haren alde on izatearen eta ongi jokatzearen gorabeherekin konprometitua. Ez da zehazki kode denboraz kanpoko edo intenporal bat, bere hondoan inolako aurpegirik ez lukeena. Jainkoaren gogoak eta Legearenak ez dute bide egiten era paraleloan. Batak bestea islatzen dute. Hori da arrazoia Legea ezin gutxietsi dela uste izateko edota ezin faltsutu daitekeela arrazoi ezin zurituz. Horrelakorik egitea Jainkoa aintzat ez hartzea izango litzateke propioki; izan ere, bere Legeaz maite dituenen bizia babesten du Jainkoak.

Garizumako 3. astea

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*

Jeremias Profetaren liburutik 7, 23-28: Hona Jaunaren, bere Jainkoaren, mintzoa entzun ez duen herria. **Sal 94:** Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 14-23.

Aldi hartan, gizon bat mututurik zeukan deabrua botatzen ari zen Jesus. Deabrua atera bezain laster, mutua hizketan hasi zen. Jendea harriturik gelditu zen; batzuek, ordea, honela zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenez, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua. Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapaturiko ondasunak. Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du».

Gero eta etsaiagoa duen inguruneak inguratzen du Jesus, era batean edo bestean izen ona kendu nahi dionak. Beraren aurkako argudioak joan-etorri dabiltza, pilatuz, eta fake news bailiran dantzarazten dituzte, Ebanjelioari azpia jan nahiz. Objektiboki

Garizumako 3. astea

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*

burutua den ongia bera ere koloka jartzen dute. Gaizkiak asmatu eta manciatutako trikimailuaren helburutzat hartzen dute Jesusen jokabidea. Izaera zaharreko negazionismo-tankerako honi aurre egin dio Jesussek. Garbi du berak: negazionismo horri atxikitzen zaiona ezin askatzuko sarean nahasirik gelditzen da azkenean. Hartaraino ezen Jesus tente jarri baita eta, beraren Ebanjelioa ez onartzeko eraikitzen ditugun gure inertzien lubakien aurrean, lerro gorri bat marrazten baitu lurrean: «Nirekin ez dagoena nire kontra dago; nirekin biltzen ez duena barreiatzen ari da».

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (8)
(Jarraipena)

8. Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.

Orduan emakumeak Jesusengatik negarrez aritu ziren. Erori eta altxa bigarren aldiz. Gero eta adore handiagoa behar aurrera jarraitzeko. Emakume batzuk beraz errukitu dira eta negarrez hasi. Errukitzea, bestearekin nolabait bat egitea da, bestearen sufrimena sentitzea. Gizakiok beti izan dugu, egoera latzenetan ere, besteen sufrimena sentitzeko ahalmena.

Eta gaur egun ere Jesusen sufrimenaz negar egiten duten emakumeak badira. Gizakiok gaitza eragiteko ahalmena itxura dotorez azal genezake. (Jesus Jainkoari on egiteagatik zigorkatu zuten). Bereizmen jarrerarik ez baldin badugu, gaur egun ere, antzeko ekintzak eragin genitzake. (Gerra santuak, Jainkoaren izenean hil). Gaur egun ere negar egin behar bakardadean geratzen zaizkigun pertsonak, kale gorrian bizi direnak, goseak jotakoak, zapal dutako herrialdeak eta beste hainbeste irudi ikusirik.

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (*San Joan Jainkoaren Anaiak*). San Beremundo Iratxekoa, (Villatuertan [Nafarroa] 1092 edo 1099an jaioa; hil?), *abadea*

Oseasen Profezia liburutik 14, 2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. **Sal 80:** Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?». Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobeia dela esatean ere». Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Ezaguna zen rabinoen arteko eztabaida, juduen legeria konplexuan muina zer ote zenaz. Sailkaturik zeuzkaten 613 agindu. Haietarik 365 debekuak ziren; 248 ezarpenak. Labirinto horretan non zegoen erdigunea? Jesusek bi Lege-aipamen hautatu ditu eta batu; alde batetik, Jainkoa maitatzea; bestetik, lagun hurkoa maitatzea. Jesusentzat batak bestearekin lotura dute bi maitasun horiek. Jainkoa maite dugu, baldin eta lagun hurkoa maitatzera eramaten bagaitu. Lagun hurkoa maite dugu, baldin eta Jainkoa maitatzera eramaten bagaitu. Ez gara fededun, anai-arreba ez bagara. Ez gara anai-arreba, fededun ez bagara. Horra fedearen desafioa: sumatzea Jainkoa dagoela gure lagun hurkoagan eta haren baitan espero duela gurekin topo egitea.

Garizumako 3. astea

Santa Frantziska Erromatarra, *oblata beneditarra*
San Pazio, *gotzaina*

Oseasen Profezia liburutik 6, 1-6: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino. **Sal 50:** Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 1-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren buruak zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulteriogile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”. Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”. Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Bi gizonezko, bi historia: bata arrakastatsua; bestea porrota. Lehenengoa adoretzu sentitzen da eta heldurik. Bigarrena ahultasun da eta oihal gutxiko. Batak bete ohi du araudia; besteak doi-doi praktikatzen du. Lehenak zuzenean begiratzen du gora; bigarrenak ez du begirik jasotzen... Eta horrela jarraitzen ahal genuke bien arteko aldeak adieraziz, biek ordu berean bat egin zutenean otoitz egiteko. Jesusek agerian jarri zuen otoitz bi haien ondorioa. Bigarrena izan zen zerura iritsi zena: tenplu erdi ilunaren atze-atzetik zetorrena, kasik ezin sumatuzkoa. Hona Jesusek eman zuen azalpena: ustez ona zen gizonezkoaren otoitza ez zela entzuna izan sekula, jaulkia izan ez zelako! Bakarrizketa huts bat izan zen, bere buruaz harro zen «ni» batena, bere oihartzun propioa entzutea aski zuen batena.

2 Kronikak 36, 14-16.19-23.

Egun haietan, apaizburu guztiek eta herriak gaiztakeria gaiztakeriaren gain egin zuten, atzerritarren ohitura higuingarriei jarraituz, eta kutsatu egin zuten Jaunak Jerusalemen beretzat sagaratua zuen tenplua. Jaunak, haien arbasoen Jainkoak, oharpenak bidali zizkien etengabe bere mezularien bidez, erruki baitzituen bere herria eta bere egoitza. Baina haiek Jainkoaren mezulariei iseka egin, Jainkoaren hitzak gutxietsi eta haren profetak irriz hartu zituzten. Azkenik, Jaunak bere herriaren aurkako zuen haserreak gainezka egin zuen eta ez zen salbabiderik izan.

Orduan, babiloniarrek Jainkoaren etxea erre, Jerusalemgo harresiak bota eta jauregiei su eman zieten, eta hiriko gauza eder guztiak erabat hondatu zituzten. Ezpatari ihes egin zioten guztiak Babiloniara eraman zituzten gatibu, eta han erregearen eta haren ondorengoen esklabo izan ziren, harik eta pertsiarren erregealdia iritsi zen arte. Horrela bete zuen Jaunak Jeremias profetaren ahoz esandakoa: «Hirurogeita hamar urtez atsedean hartuko du lurralde honek, hondamen-aldiko egun guztietan, Jaunari ukatu zizkieten atsedean-urteak bete arte». Pertsiaiko errege Zioren lehen-urtean, Jaunak Jeremiasen ahoz esana bete zen. Jaunak Pertsiaiko errege Zioren espiritua piztu eta Ziok agindu hau zabaldu zuen, hitzez eta idatziz, erreinu osoan: «Honela dio Pertsiaiko errege Ziok: “Lurreko erreinu guztiak eman dizkit Jaunak, zeruetako Jainkoak, eta Judako Jerusalemen berari tenplua eraikitzeko agindu dit. Beraz, zuen artean haren herriko diren guztiek izan bezate beren Jainkoa lagun eta igo bitez hara”».

Sal 136: Nire mingaina ahosabaian itsats bekik, zutaz oroik ez banendi.

San Paulok Efesoarrei 2, 4-10.

Senideok: Errukian aberatsa den Jainkoak halako maitasun neurrigabeaz maite izan baikaitu, geure bekatuengatik hilda

Garizumako 4. astea

San Alexandro, *martiria*Santa Maria Eugenia Milleret, *fundatzailea*
(*Jasokundeko Erlijiosak*)

geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batean –onginahi hutsez zaudete salbatuak–, eta Kristo Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. Honela, Jesu Kristogan guretzat hain ona izanez agertu nahi izan die datozen gizaldiei, zein ugaria eta eskuzabala den bere onginahia. Izan ere, onginahi hutsez salbatuak zaudete fedearen bidez; eta hori ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren dohaina da; ez dator egiteetatik, inor harrotu ez dadin. Izan ere, Jainkoak eginak gara; hark sortu gaitu Kristo Jesusengan, on egiten saia gaitezen, Jainkoak guretzat alde zurretik erabakia zuen bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 14-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten. Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoiak: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorrotoa dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldi ez daitezen. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Intimitate baten sekretua agertu du Jesusek: alegia, galgarik ez duen grina batez maite duela Jainkoak mundua. Jainkoak ez daki neurria zer den, osorik dago konprometitua. Proba ezin gezurtatua eman digu,

tartean bere Semea jarri izana. Aita hori da Jainkoa: Jesus dagoen lekuan eta Jesus bezala dagoena. Harekin, bere Semearekin, adierazi du ezen gizadiatz duen maitasuna sentitzen duen ororen barruenean dagoela. Emate-borondate horretatik hurbiltzen zaio Jainkoa gizakiari, bere hitzez eta egintzez adierazten duen horretatik. Jadanik ez dute balio mirari historikoei, ezta bitarteko diren profetek ere, ezta aingeru mezulariek ere. Jainkoak alde batera utzi ditu itzulinguru guztiak, eta garbi utzi du berak honela maite duela: bere Semea agertuz, ez gehiago eta ez gutxiago, hura inplikaraziz gizakien historian. Maitasun horretan, Jainkoak ez du gorde beretzat bere baitan duen ezer garrantzizkorik. Oso-osorik eman du bere burua. Horregatik, Jesusk gogorazi digu ezen horrenbestez maiteenak garela. Gurea ez bezalakoa eta gurea baino handiagoa den bihotz baten erdigunean gaudela, eta bihotz horren arreta-foku garela, berorren maitemin. Aita hori ez dago gugandik urrun, baizik eta guztiz hurbil. Are gehiago: gugatik duen intimitate grinatsuari, agertu digun sekretu horri, ematen ahal diogun erantzunaren gainetik egotera iritsi dela Jainkoa.

Garizumako 4. astea
Santa Aurea, *abadesa*
San Eutimio, *gotzaina*

Isaias Profetaren liburutik 65, 17-21: Ez da han gehiago entzungo negar-zotinik, ez garrasirik. Sal 29: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4, 43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak aitortua zuen, profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Hala ere, Galileara iritsi zenean, galilearrek harrera ona egin zioten. Izan ere, Jerusalemen izanak ziren berak ere eta ikusiak zituzten Jesusek Pazko-jaietan egin zituen guztiak. Jesus Galileako Kanara joan zen berriro, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen han errege-funtzionario bat, semea Kafarnaumen gaixorik zeukana. Funtzionarioak, Jesus Judeatik Galileara etorri zela jakitean, harengana joan eta bere semea sendatzera jaisteko eskatu zion, hilzorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Ezaugarriak eta egintza harrigarriak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten». Baina errege-funtzionarioak berriro: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek esan zion: «Zoaz etxera, onik duzu-eta semea». Gizonak sinetsi egin zuen Jesusek esana eta joan egin zen. Etxerakoan, morroiak atera zitzaizkion bidera, semea onik zuela esanez. Orduan galdetu zien zer ordutan hasi zen oneratzen. Eta haiek erantzun: «Atzo eguerdiko ordu batean utzi zion sukarrak». Konturatu zen aita ordu hartan esan ziola Jesusek: «Onik duzu semea». Eta sinetsi egin zuten Jesusengan berak eta etxeko guztiek. Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezaugarri hau.

Noiz iritsi behar dugu aitortzera ezen geure aberrian berean ditugula profetak? Noiz izango dugu jakinduria sumatzeko ezen gauzarik garrantzizkoena, hain luze espero izan duguna, bete daitekeela egun batean? Noiz onartuko dugu ezen ezinezkoa irits daitekeela posible

Garizumako 4. astea
Santa Aurea, *abadesa*
San Eutimio, *gotzaina*

izatera? Gertatzen dena da, ezen beti espero dugula zerbait, baina zinismoaz, uste izanik ez dela gauzatuko sekula. Bien bitartean, hor ageri dira gure begi-bistan pertsonak eta gertaerak, baiesten digutenak on dena gertatzen ari dela. Baina alde batera uzten ditugu: beraiei erreparatu gabe, geure iluna horrela ezin argitu dutela. Betiko geureari loturik jarraitzen dugu: sinetsiz baina egiaz sinetsi gabe, espero izanez baina egiaz espero izan gabe. Bizitzaren edertasunari, unean uneko pozari, dagoeneko garentxoaren eta duguntxoaren duintasunari ihes egiten uzten diogu horrela. Nolanahi den, ezagutzen ditugun profetak aintzat hartzen ikastea izango genuke gauzarik hobena.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (9)
(Jarraipena)

9. Hirugarrenez Jesus lurrera.

Nekeak jota ezin aurrera egin eta berriro lurrera. Ez du kexarik aditzera ematen. Bere bidea Aitaren nahia jarraitzeagatik da eta berari eskaintzen dio gu guztion alde. Bere bidean askatasuna sumatzen da. Aske izanez lagun eta etsaien alde bizia ematen ari da. Jabetu da erabat menderatu dutela. Berak on eginez igaro du bizi osoa, barkamena eskainiz eta orain erabat menderatu dute. Erorita inoiz baino tenteago ageri da.

Eta Jesus beti erori eta menderatua? Badirudi zerbait lortzeko beharrezkoa dela nolabaiteko sufrimena. Sufrimen horrek badu zentzurik. Baina bada besteek eragindako sufrimena. bekatuak eragiten duen sufrimena. Honek ez du ezertarako balio. Gurutzea ez da Jainkoaren ezinaren irudia. Jainkoaren ahalmenaren irudia da, Jainkoak bekatu salbamen bihur dezake. Gizakiok Jainkoaren errukiari gure ateak irekitzen dizkiogunean, etsai izatea gainditzen dugu. Jesusek hirugarren aldiz altxatuz salbatu egiten gaitu.

Garizumako 4. astea

San Nikodemo, *aitorlea*San Maximiliano, *martiria*

Ezeikielen Profezia liburutik 47, 1-9. 12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 45:** Jaun ahalguztiduna geurekin dugu, Jakoben Jainkoa gure gotorleku!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 1-3a. 5-16.

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bada Jerusalemen, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituen. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrian etzanda: itsu, herren eta elbarri. Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?». Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko nauek; ni iristerako, besteren batek aurea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta zabilta». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen. Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauek berak esan dit: “Hartu ohatila eta zabilta”». Orduan, galdegin zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?». Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean. Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begara, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.

Hogeita hemezortzi ilun-urte gehiegi dira. Baina Jesus gai da iluntasun horretan zirika esku hartzeko. Bost axola dio jende guztiak eragotzi nahi izatea, larunbat-aginduak ezartzen dituen mugapenak

Garizumako 4. astea

San Nikodemo, *aitorlea*San Maximiliano, *martiria*

direla eta. Gaurkoarekin gertatzen denez, Ebanjelioan asko dira, liturgialdi desagokietan, sendatze-mirariak, benetako bizi-iluntasun garratzak bizi dituztenen alde gertatuak. Azkenean, ordea, irakaspenak berak argitzen du bere burua: Jainkoak horizonteak irekitzen ditu; hartara, aldi guztiak, larunbata barne, dira salbazio-aukera on-on beraren herriarentzat. Itsuek ikusten dute, gorrek entzuten, mutuek hitz egiten, ezinduak ibiltzen dira. Jesusek den-dena argi-aurkikuntzaz betetzen du: faltsuki etsizat emana genuen guztia, Jainkoak bere larunbatean atsedean hartu zuela uste genuelarik.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (10)
(Jarraipena)

10. Jesusi jantziak kendu dizkiote.

Iritsi da Jesus kalbariora. Bidea bukatu du. Soldaduek heldu eta jantziak kentzen dizkiote. Gurutzerako prestatu dute. Barregarri, lotsatan, ... denen jolas eta gozamenerako. Eta egoera honek barnean du eragina, errespetua galdu du. Ez du duintasunik, gizakion sakratutasuna galdu du. Bere bizi osoa besteentzat-eman-izatea izan da eta orain ez dauka ezer, bera soilik bakarrik, bere burua besterik ezin dezake eman.

Eta gaur egun ere pertsonen duintasuna desagiten jarraitzen dugu. Historian gero eta era aurreratuagoak sortzen ditugu besteengan sufrimena eragiteko. Bai sufrimen fisikoa eragiteko, bai gizakion duintasuna desagiteko. Gaztetatik besteak zapaltzen ari gara: bulling, sareetan zabaltzen diren argazkiak, berri-gezurak. Gizakion eskubideak zapaltzen jarraitzen dugu. Horregatik, Aitaren Erreinua etor dadila eskatzen jarraitzen dugu.

Garizumako 4. astea

Sana Eufrazia, *birjina*Santa Kristina, *birjina*San Silvano, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 49, 8-15: Herriaren itun izateko izendatu zaitut, lurraldea berreraiki dezazun. **Sal 144:** Errukiorra eta bihozbera da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta Ni ere lanean ari naiz».

Esandako honengatik, juduak are gehiago zebiltzan Jesus hil nahian; larunbateko atsedena ez errespetatzeaz gainera, Jainkoa bere Aita zuela baitzioen, bere burua Jainkoaren pareko eginez. Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake ezer ere bere kabuz egin, Aita egiten ikusten duena besterik: Aitak zer egin, huraxe bera egiten du Semeak ere. Izan ere, Aitak maite du Semea eta berak egiten dituen guztiak erakusten dizkio, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, harritu egingo zaituzteten egintzak. Aitak hilak piztu eta bizia ematen dien bezala, Semeak ere bizia ematen die nahi duenei.

Aitak ez du inor epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, denek, Aita ohoratzen duten bezala, Semea ere ohora dezaten; Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen. Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza entzun eta bidali nauenagan sinesten duenak, betiko bizia du; ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igaroa baita dagoeneko. Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua, hobeto esan, iritsia da, hildakoek Jainkoaren Semearen ahotsa entzungo dutena, eta entzuten dutenak biziko dira. Aitak bizia bere baitan duen bezala, Semeari ere bizia bere baitan izatea eman dio. Gainera, epaitzeko ahalmena eman dio, Gizonaren Semea delako. Ez harritu esaten dizuedanaz; badator-eta ordua, hildako guztiek haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: ongia egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaizkia egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko. Nik ez dezaket neurez ezer egin; Aitari entzun bezala epaitzen dut, eta nire epaia zuzena da, ez baitut helburu neure nahia egitea, bidali ninduenarena baizik».

Ez da dena gauza bera, eta ez du denak balio bera. Erreinua ongiarekin konprometituak diren keinuez eraikitzen da soil-soilik, eta ez erlazio anbigueoz eta gaitzarekin lotura duten narraskeriez. Horregatik, gure historiak auzi bat jasango du. Baina auzi hori iragartzeak ez du helburu kondenaren beldurra eragitea, baizik eta konturatzen laguntzea infinituzko zenbat eta zenbat egin dezakegun itxuraz eta lau aldeetatik mugatua eta txikia den egunerokoan. Eguneroko gure bizitzan sor litekeen gauza orok denbora eta espazioa gainditzen dituen eragina eta indarra ditu, Jainkoaren errukizko onespena lortzerainokoa. Maitasuna da behin betikoa eta erabatekoa. Horixe da azken epaia. Auzi baten ondorioa aurreratzeko era bitxia horratik!, oraindanik beretik aldekoa izan dezagun!

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (11)
(Jarraipena)

11. Jesus gurutzean josi zuten.

Jesus gurutze gainean etzan dute eta erabateko gogorkeriaz iltzeak josten dizkiote eskumuturretan eta oinetan. Berarekin batera beste bi josi zituzten. Gurutzean josita egunak iraun zezaketen, ito egin behar baitzuten. Beren oihu sarkorrek entzun zitezkeen. Jesusek egoera honetan ere barkamena eskaintzen du. “Aita, barka iezaezu, ez baitakite zer egiten duten”. Bere bizitza gizon-emakumeen gurutzea ezabatzen ahalegindu dena, orain bere gurutzean zintzilik. Jainkoaren erreinua zabaltzeko ahaleginaren aurkako bekatua.

Eta gaur egun ere Jesus gurutzean josia. Haragi egin zenean gure izaera hartu zuen. Urrats hori emanda giza izaeran geratu da. Gizakia askatzeko eta gizon-emakumeak bekatutik aldentzeko egin zen gizon. Erreinurako salbamen bide horretan goazelarik, gure historian, hainbat dira gurutziltzatuak. Zapaldu, gutxietsi eta erasotu guztiengan sufritzen jarraitzen du Jesusek.

Garizumako 4. astea

Santa Matilde, *erregina*

San Inozentzio, *gotzaina*

Irteera liburutik 32, 7-14: Egizu atzera, Jauna, zeure herriari egin diozun mehatxutik. **Sal 105:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginihiagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 31-47.

Aldi hartan, Jesusek esan zien judu-agintariei: «Nik neure buruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste batek du nire alde aitormen egiten, eta jakin badakit hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela.

Zuek mandatariak bidali zenizkioten Joan Bataiatzaileari, eta hark aitormen egin zion egiari. Ez dut hau esaten inongo gizakiren aitormen-beharrik dudalako, zuek salba zaitezten baizik. Joan Bataiatzailea argi-zuzi piztua eta distiratsua zen, eta zuek, alditxo batez, poz hartu nahi izan zenuten haren argiaz. Baina Nik badut Joanen aitormena baino hoberik: Nik betetzeko Aitak eman dizkidan egintzak; nire egintzek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzorik aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, hark bidaliagan ez sinesteak erakusten duen bezala.

Aztertzen dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan, eta horiek dute, hain zuzen, nire alde aitormen egiten; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko. Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi ezagutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite. Ni neure Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; norbait bere izenean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets dezakezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola? Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada salatuko zaituzten norbait: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen. Izan ere, Moisesi sinetsiko bazeniot, niri ere sinetsiko zenidakete, nitaz idatzi baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sinetsiko duzue nik esana?».

Garizumako 4. astea

Santa Matilde, *erregina*
San Inozentzio, *gotzaina*

Bere nortasunaz egin dioten galdera bizitza guztian izango du Jesusek segika. Etengabe egiten diote. Bere etsaiak setati ditu puntu horretaz galdetzeko aldi egoki eta desegokian. Beren xedea ez dute, ordea, zuzena. Izatez, berehala gezurtatzeko bakarrik hartzen dituzte Jesusen argudioak. Testuinguru hori kontuan harturik, atentzioa deitzen du Jesusek azkenean egin duen aukerak: bera zeinentzat den esango die, bera zein den errepikatzen jardun baino gehiago. Norbaiti erreferentzia egiten ikusten du Jesusek bere burua. Bere barnea Zu batez betea du, bera bete-bete egin zuen Zu batez. Zu horrek zehazten du beraren nondik dator eta beraren nora doa direlakoak, eta Zu horrek argitzen du zergatik den bera erro-errotik pobre, garbi eta esaneko. Berea duen oro bere Aitagandik hartua du. Hori du, eta ez beste ezer, bere nortasuna.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (12)
(Jarraipena)

12. Jesus gurutzean hiltzen da.

Garai hartan Jesus bakarrik, bakardadean hil zen. Gizartetik kanporatua, gure munduan onartu gabea. Gizakion bihotz gogorraren ondorioz hiltzera behartua. Horrela ulertu zuen bere heriotza: “barkamena lortzeko ematen den maitasuna”. Maitasuna gurutziltzatu guztiekiko. Maitasuna gurutziltzaile guztiekiko. Gurutzea ilunpea ere bada: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu”.

Eta gaur ere gurutzeko heriotzak hor jarraitzen du. Jesusen jarraitzaileak bere bizia zerbitzua dela jakin behar du. Jakin behar du zerbitzu horrek bere bizia arriskuan jar dezakeela. Jarraitzaileak izan ditzake une larriak, segurtasunik gabeak, ilunpeak, ... Une horietan gurutzean bakarrik utzitako Jesusen antzeko izaten ari da. Munduan askatasunaren eta zuzentasunaren aldeko borrokak garaipen gutxi izaten du. Martiriez betea dago historia. Gertaera hauen atzean, Jesusen heriotzan bezala, Jainkoaren azken hitza edo garaipena dago.

Garizumako 4. astea

Santa Luisa Marillac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*

Jakinduria liburutik 2, 1a.12-22: Heriotza lotsagarrira kondenatuko dugu. **Sal 33:** Hurbil zaie Jauna bihotz-hautsiei.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7, 1-2.10.25-30.

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten. Hurbil zen Etxola-jaia, juduen jaietariko bat. Jesusen senideak jaietara joan zirenean, Jesus ere joan zen; baina ez agerian, erdi ezkutuan baizik. Jerusalemдар batzuek zioten: «Ez al da hau hil nahi dutena? Lasai asko ari da, bada, hizketan, eta ez diote ezer esaten. Onartu ote dute agintariek hau dela Mesias? Baina hau badakigu nongoa den; Mesias etorriko denean, ordea, ez du inork jakingo nongoa den». Orduan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Ni ezagutzen nauzue eta badakizue nongoa naizen. Baina Ni ez naiz neurez etorri, baizik eta fidagarria denak bidali nau, eta zuek ez duzue hura ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, harengandik bainator eta hark bidalia bainaiz». Orduan, atxilotu egin nahi izan zuten; baina ezin izan zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

Jotzen ari dira jada danborrak. Hartua dute jadanik erabakia Jesusen azkenaz. Dena zertua dute. Gertaerak katean gauzatuko dira: atxilotzea, auzia eta heriotza-zigorra. Ezaguna dugu gidoia. Baina bete bitartean, eskandalagarri gertatzen zaigu. Askok kostatzen da onartzea Jesusen aurka tamaina hartako aurkaritza sortu izana. Adierazten du ezen ongia bateraezina dela gure mundu honekin eta ez zaiola gelditzen kanporatua izatea beste aukerarik... Horrela izan zen eta horrela da. Intolerantzia horrek mendeak zeharkatu ditu, eta modu berean iritsi da guganaino. Proba da ezen zerbait galgarrik murrizten gaituela geure barnetik; zeinen aurrean, ematen duenez, babesgabe baikara. Ebanjelioak, ordea, Jesusengana gonbidatzen gaitu eta beraren ondoan jartzen. Beraren gurutze berpiztuak beste azken bat agertzen digu askotan ukatua dugun geure borondate onarentzat.

Garizumako 4. astea
 San Hilario, *gotzaina*
 Santa Kolunba, *martiria*

Jeremias Profetaren liburutik 11, 18-20: Hiltzera daramaten bildots otzana bezala nintzen ni. **Sal 7:** Zugan babesten naiz, Jauna, ene Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7, 40-53.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzutean, hau zioten: «Hauxe da egiaz etortzekoa den profeta». Beste batzuek esaten zuten: «Hauxe da Mesias». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etor ote daiteke Mesias? Ez al dio Liburu Santuak Mesias Daviden jatorrikoa izango dela eta haren herritik, Betleemdik, etorriko dela?». Iritzi kontrajarriak zeuden, bada, jendearen artean Jesusi buruz. Batzuek atxilotu egin nahi zuten; baina ez zion inork eskurik gainean jarri. Guardiak apaizburu eta fariseuengana itzuli ziren, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?». Guardiek erantzun zieten: «Ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin». Fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Sinetsi ote du harengan agintari edo fariseuetako batek ere? Baina legea ezagutzen ez duen jende hori madarikatua dago». Orduan, Nikodemok, fariseu haietako batek, behinola Jesusengana joan zenak, esan zien: «Zilegi al da gure legearen arabera inor gaitzestea, berari entzun eta zer egin duen jakin gabe?». Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu Liburu Santuak eta ikusiko duzu Galilean ez dela inoiz profetarik sortu». Ondoren, nor bere etxera joan zen.

Jesusen kasua adibide ona da ikusteko nola jokatzten duen gu baitan aurreiritziaren indar itsugarriak. Zehazki, beraren jatorri galilearra izan zen dudarik nagusienetako bat beraren asmoen egiatasunari zegokionean. Jesusengan talka zegiten teologiak eta geografiak. Nazaretarraren aurkako taldeak uste du Jainkoa ezin etorri dela sekula bigarren mailako gizarte- edo erlijio-leku batetik. Beraz, ezin izan da galilearra, nahiz eta ikusten ari direna miresteko ere

Garizumako 4. astea

San Hilario, *gotzaina*Santa Kolunba, *martiria*

arrazoia duten... Horren guztiaren harira, pertsona orok galde dezake zenbat aukera galdu izan duen Jainkoaz nork bere aurreiritzietan gehiago sinesteagatik Jainkoagan baino. Hartaraino gutxiesten dugu Jainkoaren askatasuna, non uko egiten baitiogu esperimentatzeari nola eta non agertu nahi zaigun. Teologia okerra, horratik, gurea eta are okerragoa gure geografia!

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (13)
(Jarraipena)

13. Jesus gurutzetik jaitsia.

Mariak negar egin zuen bere Semeagatik. Arimateako Josek jaitsi zuen gurutzetik. Maindirean bildu zuten. Mariak txikitu duten umea besoetan hartu zuen. Mariak ez ote zuen horrelako zerbait bere barnean ibiliko: “Ene seme, zer egin dizute? Zuk askapena iragarri zenien, zuk sendatu egin zenituen eta beraiek josi egin zaituzte. Zuk on eginez igaro zenuen eta heriotza eragin dizute. Ene seme, Aitaren nahia egin zenuen, leial izan zinen. Har ezazu atsedean”.

Eta gaur egun Mariak negarrez jarraitzen du. Jesusen heriotzan isiltasuna eta misterioa geratzen zaizkigu. Zapalkeriaz heriotza jasandako orok galdera sortzen du, argiaren beharra erakusten. Heriotza ezin daiteke izan azken hitza. Historiak ez ditu hiltzaileak gogoan izaten. Erailak izan zuen ausardia aipatzen da. Hori nahikoa ote? Egingo al du Jainkoak zerbait? Maria hauen guztien alde otoitzean ari da Jainkoaren aurrean.

Garizumako 5. astea
San Patrizio, *gotzaina*

Jeremias Profetaren liburutik 31, 31-34.

Hau dio Jaunak: «Hara, badator Israel herriarekin eta Juda herriarekin itun berria egingo dudan garaia. Ez da izango, Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean haien arbasoekin egin nuena bezalakoa, haiek hautsi egin baitzuten nire ituna, Ni haien nagusia izan arren, dio Jaunak. Hona hemen etorkizunean Israelekin egingo dudan ituna, dio Jaunak: Barruan ezarriko diet neure legea eta bihotzean idatziko. Ni haien Jainko izango naiz, eta haiek nire herri izango dira. Ez dute elkarri irakatsi beharrik izango, “Ezagutu Jauna” esanez, denek, txiki nahiz handi, ezagutuko bainaute, dio Jaunak; barkatu egingo baitiet gaiztakeria, eta haien bekaturik ez baitut gehiago gogoan izango».

Sal 50: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu niregan.

Hebrearrei gutunetik 5, 7-9.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten gutzientzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 20-33.

Aldi hartan, jaietan Jainkoari kultu ematera igo zirenen artean, baziren greziar batzuk ere. Hauek Galileako Betsaidako Felipekana hurbildu eta eskabide hau egin zioten: «Jauna, Jesus ikusi nahi genuke». Andresi esatera joan zen Felipe, eta biek, Andresek eta Felipek, Jesusi esan zioten. Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurrean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu

Garizumako 5. astea
San Patrizio, *gotzaina*

egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxien duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak. Larri dut orain neure barrena, baina zer esan? Ordu honetatik ateratzeko eskatuko al diot Aitari? Baina honetarakoxe etorria naiz, hain zuzen, ordu honetarako! Aita, azaldu zeure izenaren aintza!». Orduan, ahots bat entzun zen zerutik: «Azaldu dut, eta berriz ere azalduko dut». Han zegoen jendeak, ahotsa entzunik, trumoi izan zela zioen; beste batzuek, berriz, aingeru bat mintzatu zitzaiola. Jesusek esan zien: «Ahots horrek ez du niretzat hitz egin, zuentzat baizik. Oraintxe da mundu honen epaiketa, oraintxe botako dute kanpora mundu honetako buruzagia; eta Nik, lurretik jasoko nautenean, neuregana erakarriko ditut guztiak». Hitz hauen bidez, nolako heriotzaz hilko zen eman zuen aditzera.

Dioten Ebanjelioak giza bizitza *labirinto* baten antzeko jotzen duela. Baina ez ohiko labirinto batena. Ebanjelioak ohartarazten digu ez dezagula har geure bizitza erdigune bat balu bezala, geure baitan ainguratua, salbatu ahal izateko landu beharko genukeena. Ebanjelioa ez da zehazki norberaren barrurantz doakeen norabide bakarreko eta bakartia. Geure baitan ez dugu aurkituko geure ahalegin guztientzako ordain edo konpentsaziorik. Hobeto esateko, alderantziz gertatzen da. Ebanjelioak gure bizitza alderantzizko labirinto bezala hartzen du. Jainkoak, hain zuzen, geure autozentrismitik irtetera gonbidatzen gaitu, geure buruaz bakarrik aritzetik irtetera, bizitza jokoan ipintzeko, gainerakoekin eta beraien premiekin topo egitera. Geure labirinto pertsonal, ekonomiko, kultural eta sozialetatik irteteak geure nahikari propioek eragiten diguten norabideen kontrakoa hartzen du. Horregatik, gauza arraroa, unibertso honen lege deigarria, Jainkoaren egintza delako, gari-aleak fruitua emateko bete behar duen baldintza da: lurrera erori eta hil. Bestela esanda, bere burua maite duena bere katramila aseezinean galduko da.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*
 San Raimundo Fiterokoa *abadea, Toledon hil 1163*
(Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan)

Danielen Profezia liburutik 13, 1-9. 15-17. 19-30. 33-62: Errugabe izanik ere, hil beharra dut. **Sal 22:** Ibar beltz ilunean banabil ere, ez naiz gaitzaren beldur, Zu nirekin baitzaude.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 1-11.

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Biharamun-egunsentian, ordea, tenpluan agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus eseri eta irakasten hasi zitzaien. Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten eta, erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zigun legean. Zuk zer diozu?». Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko. Jesus, ordea, makurtu eta atzamarrez lurrean idazten hasi zen. Baina haiek galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zien: «Zuetan bekaturik gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria». Eta, berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. Haiek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela. Jesusek, zutiturik, esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?». Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin berriro bekaturik».

Harik eta Jesusek azken hitzak jaulki arte, eszena klaustrofobikoa da. Ez da etorkizunik. Horrela zehaztua zuen Legeak adulterioan harrapatutako emakumearentzat. Baina emakumea, harriak eskuetan dituztela, inguratzen zutenek beren barnean epai bat bizi zuten, inolaz ere entzun nahi ez zutena. Beraiek ere, akusatzaileek, egina zuten zerbait leporagarririk, akusatzekorik, esperantzarako atea ixten zietenik; hain justu, emakume hari ukatzen ziotena. Jendaurrean erailtzeko azaldu zuten asmoak adierazten zuen ezen jadanik inork ez zuela sinesten Jainkoaren errukiaren ahalmen birkreatzailean. Jesusek, aldiz, horixe eskaini dio lur joa den emakumeari: «Zoaz, eta ez gehiago bekaturik egin». Eszena jadanik ez da klaustrofobikoa; izan ere, bizia, nahi dugun tamainaraino hautsia izanik ere, etorkizunez bete da.

2 Samuel liburutik 7, 4-5a. 12-14a. 16.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoeekin atsedean hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diot tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura. Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

Sal 88: Haren errege-jatorriak betiko iraungo du.**San Paulok Erromatarrei 4, 13. 16-18. 22.**

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zegokion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indarrari baizik. Beraz, agintzaria edo promesa, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balio du, legearen arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera bizi direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziarazten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan.

Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari eutsiz; horrela, herri askoren aita egin zen, Jainkoak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak».

Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 16. 18-21. 24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana. Jesu Kristoren sortzea honela gertatu

zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk «Jesus» ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

San Josek bizitzan bizi edo egoteko era bat haragitzen du, eraldaketak eragiten ditu iraultza-beharrik gabe; eta eragilea da isil-isilik, inolako protagonismo-beharrik izan gabe. Nazaretako arotz honek, bere eguneroko presentzia diskretua eta ezkutukoa dela medio, jaiotza eman dio oinarritzkoari, ezer txundigarritan sostengatu beharrik izan gabe. Hitz batean, aurreratu egin du kristau-konpromisoa, anonimatua onartu eta argi eta garbi gizartean bigarren lerroa nahiago duena. San Jose testigantza etenik gabea da, erresilientzia edo adorearen testigantza, ustekabekoari eta kalkulaezinari harrera egitearen testigantza. Ikasia du hasieratik, ezen idatziko dena ez dela, zehazki, berak imajinatuko zuen historia; baina aitortu du, aldi berean, historia horretan zeregin funtsezkoa egiteko deia jaso duela. Gidoia jakin gabe, hartan esku hartu ez duelako, onartu du kontaeran funtsezko partaide izatea. Onartu ditu Jesusen jatorri eta haurtzaro malkartsuetan biribildu ziren bata bestearen segidako eragile baldintzatzaileak. Errealitateari erantzun dio, ez da eztabaidan hasi jadanik gainean dituen gertaerekin, etorri zaion guztia aintzat hartuz bukatu du... Gure hau bezalako mundu batean, bere burua sumaezin, ziurtasun gabeko eta galkortzat duen batean, San Joseren irudiak espiritualitate-giltzarria dakarkigu, hainbat segurtasun-gabezia artean ibiltzeko.

Garizumako 5. astea

San Eugenio, *martiria*Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena, *fundatzailea**(Jesusen mirabeak)*

Danielen Profesia liburutik 3, 14-20. 91-92. 95: Jainkoak bere aingerua bidali du bere zerbitzariak libratzera. **Sal: Dn 3:** Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte». Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nolatan diozu aske izango garela?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaboa ez da etxean betiko geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretela; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aitagandik ikasi duzuen egiten duzue». Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aita egiten duena egiten duzue». Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite izango nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; Ni ez naiz neure kabuz etorria, hark bidalia baizik».

Egiak libre egingo zaituzte». Hori baieztatu ahal izateko, bidaia luze bat egin behar izan da. Egiak bere lekuan ipintzen ditu gauzak. Zinez on denari distira ematen dio. Zuzentasuna epai-aitortzen da ekitatea lausotua zegoen tokian. Oron funtsezko ingurunea

berreskuratzen du egiak. Itxura agerian ipintzen du eta zarenarekin moldatzen edo irudikatzen zaitu. Egia da balio duen bide bakarra gure nortasunerantz... Baina, horregatik, ibilbide gogor eta arriskutsua eskatzen du. Burutzen dugun bitartean, hobeto ezagutzen dira aldi berean gezurra eta berorren mehatxua. Bizitzak segurua izateari uzten dio eta gatazka-eskenatoki bihurtzen da. Horrela esperimentatu du Jesusék, juduen mundu-zati baten aurka jarri denean. Eta, halere, ez da ezeren beldur izan, egiak libre egin duelako.

* * *

Jesusen orduko gurutze-bidea eta gaurko gurutze-bidea. (14)
(Jarraipena)

14. Jesus hilobiratua

Arimateako Josek eta Nikodemok “Jesusen gorpua oihala zerrendaz lotu zuten eta inor ehortzi gabeko hilobi berri batean ipini zuten” (Mt 27, 60). Bere gorputza hila dago baina bere bizia Jainkoagan ezkutuan dago. Infernuetara jaitsi zela diogu. Hau da: Jesusék heriotzaren eta erabateko bakardadearen esperientzia izan zuen.

Gaur ere Jesus hilobiratua. Bizitzea biziari norabide bat ematea da. Gure asmo, nahi, itxaropen, maitasun eta komunikazio ahalmenak garaitu egiten ditu munduaren mugak, Jainkoarengana irekitzen gaituzte. Heriotzak munduarekiko harremanak eteten ditu. Bai, baina gizakia, bere barnean, Jainko gose-egarri da. Hilobiaren atsedenean Aitarenganako urratsa ematen du. Biziaren zain dago.

Garizumako 5. astea

San Benito, *abadea, fundatzailea (beneditarrak)*San Filemon, *martiria*San Justiniano, *gotzaina*

Hasiera liburutik 17, 3-9: Herri askoren aita izango zara. Sal 104:
Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 51-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko». Juduek esan zioten: «Orain bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai; eta Zuk diozu: “Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko?”. Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, Zu? Hura hil egin zen eta profetak ere bai; nor zarelakoan zaude?». Jesusek erantzun zien: «Nire burua Neuk ohoratuko banu, nire ohore horrek ez luke ezer ere balioko; baina Aitak, zeuen Jainkoa omen duzuenak, ohoratzen nau Ni; zuek, ordea, ez duzue hura ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, gezurti izango nintzateke zuek bezalaxe; baina ezagutzen dut eta gordetzen ere haren hitza. Zuen aita Abraham pozik zen nire eguna ikusiko zuen itxaropenez; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen». Orduan, juduek esan zioten: «Ez dituzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz Ni». Orduan, harriak hartu zituzten hari jaurtitzeko; baina Jesus ezkutatu egin zen eta tenplutik atera.

Jesusek fariseuekin izan dituen eztabaiden saltsa-maltsan benetako teologia-eztabaida baten forma ageri da. Azken batean, zein Jainko sinesten duten da muin-puntua. Defendatu nahi den kredoaren ondorioa da gainerako guztia. Horrek argitzen du liskarra hain latza izatea. Jesusek ezin egin dio ezikusia; hain justu, jokoan dagoenagatik. Bere argudioa du ezen Jainkoa «ezagutzen duela» Seme batek bere Aita ezagutzen duen moduan. Erlazio horretan ez dago jada denborarik, ez hasierarik ez azkenik, baizik eta bataren eta bestearen arteko presentzia eten gabea da. Fariseuek ez dute aski teologiarik delako erlazio hori imajinatzeko. Ezin jakin da, zerk ematen dien larritasun handiagoa: edota Jainkoa gizadiagandik hain hurbil dagoela esateak, edota gizadia Jainkoagandik hain hurbil dagoela esateak.

Garizumako 5. astea
 Santa Basilisa, *martiria*
 Santa Erlinda, *aitorlea*

Jeremias Profetaren liburutik 20, 10-13: Neurekin dut Jauna, gudari indartsu. **Sal 17:** Neure larrialdian dei egin nion Jaunari, eta entzun zuen nire oihua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?». Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, birao egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako». Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: “Nik esan dut: jainko zarete?”. Beraz, Jainkoak “jainko” esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukaezina da. Nola diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, Jainkoaren Seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez baditut, ez sinetsi niri; baina egiten baldin baditut, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan». Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskuetatik. Berriro Jordanez beste aldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura. Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Hau zioten: «Joanek ez zuen ezaugarriarik batere egin, baina hark honetaz esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

Beti gertatu izan da harrigarri muin-arazoa: ikustea ezen bere judu garaikide batzuk Jesusengandik urruntzen dituen, beraren ortodoxia izan dutela, eta ez beraren ortopraxia: Jainkoaz duen kontzeptua, alegia, eta ez gauzatu dituen egintzak. Ez diote ukatu mirariak egin izana bera ere. Jesusek, berriz, argudiatzen du, beraren egintzak onak izateak berak azaltzen duela argi eta garbi Jainkoa ari

Garizumako 5. astea

Santa Basilisa, *martiria*Santa Erlinda, *aitorlea*

dela beraren bizitzan. Ez da beste ezer, Jainkoa baizik errebelatu nahi duena. Azkenean, ordea, etsigarria da Jesusentzat arerioek nahiago dutela gelditu Jainkoaz duten beren ideiarekin. Ez dira aspertzen gizakia kako edo parentesi artean jartzeaz, berau gutxietsiz teologia jakin baten mesedetan. Jesusek beren errespetu falta aurpegiratu die. Nabari zaien gizatasun-falta hori, hondo-hondoan, biraoa da.

* * *

Begiratu zehatza (Frantzisko aita santuak Bahrein-era egin bidaian 3/6-11-2022an)

Aita Santuari zirrara eragin zion ikuskariak [Estadio Nazionala 30.000 eserlekukoa, dena betea egunsentitik] eta pozik egin zuen Batzarburu Mezan, Arabiako Bikarriotzako administratzaile apostolikoa, Paul Hinder suitzar kaputxinoa, mezaburu zela. Bere homilia gaztelaniaz jaulki zuen Aita Santuak, paragrafoz paragrafo ingelesera itzulia. «Jesusen Begiratua –segurtatu zuen– zehatza da; ez du esaten erraza izango denik, eta ez du proposatzen maitasun sentimental eta erromantiko bat, gure giza harremanetan gatazkarik ez balitz bezala, eta herrien artean areriotasun-arrazoirik izaten ez balitz bezala. Jesus ez da irenista [moduz gaineko bakezale; itzultzaileak], baizik eta errealista; berariaz hitz egiten du “gaitz egiten dietenez” eta “areriez”. (...) Are gehiago, ikusi egiten du eta sufritu erreparatuz gure egunotan, munduko hainbat eta hainbat zokotan, botere-moldeak: abusuaz eta indarkeriaz elikatzen direnak, beren eremu propioa hazi nahi dutenak besterena murriztuz, beren nagusiagoa ezarri nahi dutenak oinarritzko askatasunak mugatuz eta ahulak zapalduz». Hitz hauek isiltasun adeitsuz entzun zituzten. Inor ez zen mugitu zeremonia osoan bere lekutik, eta deigarria izan zen seme-alaba askoko familien presentzia, haurretan asko bularrekoak.

Garizumako 5. astea

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*San Jose Oriol, *apaiza*

Ezezielen Profezia liburutik 37, 21-28: Herri bakar bihurtuko ditut.

Sal: Jr 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artalde bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 45-57.

Aldi hartan, Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek Lazarorekin eginga ikustean, harengan sinetsi zuen. Haietako batzuek, ordea, fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena kontatu zieten. Orduan, apaizburuek eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute honengan, etorriko dira erromatarak eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?». Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta herriaren alde ez ezik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten. Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemara igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemara etorriak Jesusen bila zebiltzan eta, tenpluan topo egitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?». Apaizburuek eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala ziezaiela, atxilotu ahal izateko.

Garizumako 5. astea

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*San Jose Oriol, *apaiza*

Gauza bera gertatzen da beti, interes pertsonalak nahiz taldekoak mehatxupearan ikusten direnean; egiak, eta azkenean biziak, ordaindu behar izaten du faktura. Koloka jartzen dituen orori ihes egiteko, interesak dinamika aski errepikatuan ipintzen dira: nahasi egiten dira eta asmo garbi izateari uzten diote: zuzenetspenak asmatzen dira beraien makurkeria aurrera eramateko; azpijokoak biribiltzen dira ongi komuna denaren bila dihardutenen aurka, eta ustel bihurtzen dira ahal duten guztian... Jesusen aurrean, egiaz zein izan litekeen sumatzean, alarmak zorroztu egin dira eta bere estrategiari ekitea erabaki du gaizkiak: ukituak izan diren egoismoak bateratzea, alegia, horrelako inolakorik ez duenaren aurka... Lagun egin diezaiogun Jesusi bere Nekaldirantz. Ezagutuko dugu, berarekin batean, gizatasunik gabeko geure interesek sortu ohi duten infernua. Baina horrela lagun egin ahalko digu berak geure Nekaldian.

* * *

Etsi dut

Etsi dut, ene Jauna, etsi dut.
Argi guztiak itzali zaizkit
eta ilunpean geratu naiz zeharo.

Etsi dut. Ez dut gehiago borrokarik egingo zurekin,
ez dizut esango ere gehiegi eskatzen duzula.
Ez du ezerk iraun, baina argia geratzen da:
zure argi izpi bat, eta argi asko da hori
eta zure maitasun apur bat, eta maitasun ugari da hori.

(*Patxi Loidi*)

Isaias Profetaren liburutik 50, 4-7.

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko. Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan. Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo. Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masailak bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei. Jauna dut laguntzaile; horregatik ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Sal 21: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?

San Paulok Filipinoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belauak makur daitezen, zeruan, lurtean eta lurpean, eta mihi guztiek aitortu dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Markosen liburutik 14, 1-15, 47.

Jesus maltzurkeriaz nola atxilotuko zebiltzan, hiltzeko.

K Handik bi egunera, Pazkoa eta Legamiagabeko Ogien Jaia ospatzen ziren. Apaizburuak eta lege-maisuak Jesus maltzurkeriaz nola atxilotuko zebiltzan, hiltzeko. Baina hau zioten:

S «Ez gero jaiegunean, herrian iskanbilarik izan ez dadin».

Aste Santua: Erramu

San Segundo, martiria

Santa Katalina Suediakoa, abadesa

San Oscar Romero, martiria, San Salvadorreko artzapezpikua

Aldez aurretik gantzutu du nire gorputza hilobirako.

K Jesus Betanian zen, Simon lepradunaren etxean. Mahaian zegoela, emakume bat etorri zen, hartzurizko ontzian nardoizko ukendu usain gozodun eta garestia zekarrela. Ontzia hautsi eta Jesusi burura isuri zion. Batzuek, haserre, hau ziotsoten elkarri:

S «Zergatik horrela alferrik galdu lurrun hori? Hirurehun denarioz goitik sal zitekeen eta dirua behartsuei eman».

K Eta marmarrean ari ziren emakumearen aurka. Baina Jesusek esan zien:

† «Utziozue bakean; zergatik gogaitzen duzue? Egintza ona egin du nirekin. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean, eta nahi duzuenean on egin diezaiekezue; baina Ni ez nauzue betiko izango. Honek ahal zuena egin du: aldez aurretik gantzutu du nire gorputza hilobirako. Benetan diotsuet: Mundu guztian barna, Berri Ona hots egingo den toki guztietan aipatuko da honek egin duena, beraren oroigarri».

Judas Iskarioteri dirua agindu zioten.

K Judas Iskariote, Hamabietako bat, apaizburuengana joan zen, Jesus haiei eskura emateko asmoz. Hori entzutean, poztu egin ziren eta dirua agindu zioten. Eta Jesus haiei eskura emateko egokiera bila hasi zen Judas.

Non da ikasleekin Pazko Bildotsa jateko tokia?

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-eguna zen, Pazko Bildotsa hiltzen zuten eguna. Ikasleek galdetu zioten Jesusi:

S «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?».

K Hark ikasleetako bi bidali zituen, esanez:

† «Zoazte hirira, eta ur-suila daraman gizon bat aurkituko duzue; jarrai iezaziozue, eta sartuko den etxeko nagusiari esan: “Maisuak

galdetzen du non duen ikasleekin Pazko Bildotsa jateko tokia”. Hark gela handi bat erakutsiko dizue goian, jantzirik eta atondua. Prestatu hantxe behar ditugunak».

K Joan ziren ikasleak eta, hirira iristean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Zuetako batek saldu egingo nau, nirekin jaten ari den batek.

Ilunabarrean, joan zen Jesus Hamabiekin eta, mahaian afaltzen ari zirela, esan zien:

† «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau, nirekin jaten ari den batek».

K Haiek goibeltzen hasi ziren eta bata bestearen ondoren galdezka:

S «Nik ote?».

K Jesusek erantzun:

† «Hamabietako batek, nirekin plater beretik jaten ari denak. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz».

Hau nire Gorputza da.

Hau nire Odola da, itunaren Odola.

K Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez:

† «Hartzazue: hau nire Gorputza da».

K Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoitza esanez, eman zien, eta denek edan zuten bertatik. Eta esan zien:

† «Hau nire Odola da, itunaren Odola, askoren alde isuriko dena. Benetan diotsuet: Ez du gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinuan ardo berria edango dudana arte».

Aste Santua: ErramuSan Segundo, *martiria*Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua**Oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu.***K** Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendirantz atera ziren. Jesusek esan zien:

† «Guztion sinesmenak huts egingo du, honela baitago idatzirik Liburu Santuan: “Joko dut artzaina eta ardiak sakabanatu egingo dira”. Baina Ni, piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

K Orduan, Pedrok esan zion:**S** «Beste guztien sinesmenak huts egiten badu ere, nireak ez».**K** Jesusek erantzun zion:

† «Benetan diotsut: Gaur gauean bertan, oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu».

K Baina Pedrok gero eta areago:**S** «Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko».**K** Eta gauza bera esaten zuten guztiek.*Ikara eta larria sentitzen hasi zen.*

Getsemani zeritzan landa batera iritsi ziren, eta Jesusek esan zien ikasleei:

† «Zaudete hemen, Nik otoitz egin bitartean».

K Pedro, Santiago eta Joan eraman zituen berekin. Ikara eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien:

† «Hiltzeko zorian nago tristuraz; gelditu hemen eta zaudete erne».

K Eta aurreraxeago joanik, lurrean eroria, otoizka ari zitzaion Jainkoari, urrun ziezaiola ordu hura, ahal bazen. Honela zioen:

† «Abba! Aita!, Zuk guztia dezakezu; urrun ezazu nigandik edari mingots hau. Baina ez bedi egin Nik nahi dudana, Zuk nahi duzuna baizik».

K Ikasleengana joan eta lo aurkitu zituen. Pedrori esan zion:

† «Simon, lo? Ordubete ere ezin izan zara erne egon? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitezten: gogoz kartsu izan arren, ahula baita gizakia».

K Berriro aldendu eta otoitz egin zuen, lehengo hitz berak esanez. Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten; haiek ez zekiten zer erantzun. Hirugarren aldiz joan zitzaien eta esan zien:

† «Egin lo eta hartu atseden! Nahikoa da! Iritsi da ordua: hona Gizonaren Semea bekatarien esku utzia. Jaiki, goazen, hurbil da salduko nauena».

Atxilotu eta eraman arduraz.

K Artean hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat; jende-taldea zetorren harekin, apaizburuek, lege-maisuek eta herriko zaharrek bidalita, ezpatak eta makilak eskuetan. Saltzaileak seinale hau emana zien:

S «Nik musu emango diodana, huraxe da; atxilotu eta eraman arduraz».

K Iritsi bezain laster, Jesusengana hurbildu eta esan zion:

S «Maisu!».

K Eta musu eman zion. Besteek heldu eta atxilotu egin zuten. Han zegoen batek ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta belarria moztu zion. Jesusek esan zion:

† «Lapur baten bila bezalaxe etorri zarete, ezpata eta makilekin, Ni harrapatzera. Egunero zuen artean nintzen tenpluan irakasten, eta ez ninduzuen atxilotu. Baina hala izan behar du, Liburu Santuetan idatzia bete dadin».

K Ikasleek Jesus utzi eta ihes egin zuten. Gazte bat ondoren zihoakion, soinean izara bat besterik ez zuela, eta eskua erantsi zioten; baina hark, izara utzi eta ihes egin zuen biluzik.

Aste Santua: Erramu

San Segundo, *martiria*Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua**Zu al zara Mesias, Jainko bedeinkatuaren Semea?*

Apaiz nagusiaren etxera eraman zuten Jesus, eta han bildu ziren apaizburuak, herriko zaharrak eta lege-maisuak. Jesusen ondoren joan zen Pedro, urrutitik jarraituz, apaiz nagusiaren jauregi barruraino. Eta morroiekin batera eserita, sutondoan berotzen ari zen.

Apaizburuak eta Batzar Nagusi osoa Jesusen kontrako lekukotasun bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko; baina ez zuten aurkitzen. Asko ziren haren aurka gezurrezko testigantza egiten zutenak; baina lekukotasunak ez zetozen bat. Batzuek jaiki eta gezurrezko testigantza hau egin zuten Jesusen kontra:

S «Guk entzun diogu esaten: “Nik desegin dut giza eskuz egindako santutegi hau eta hiru egunean beste bat eraikiko dut, giza eskuz egin gabea”».

K Baina honetan ere ez zetozen bat haien testigantzak. Orduan, apaiz nagusiak, batzarraren erdian zutik, galdetu zion Jesusi:

S «Ez al duzu ezer erantzun behar? Zer dira zure kontrako salaketa horiek?».

K Baina Jesus isilik zegoen eta ez zuen ezer erantzuten. Apaiz nagusiak berriro galdetu zion:

S «Zu al zara Mesias, Jainko bedeinkatuaren Semea?».

K Jesusek erantzun:

† «Bai, Ni naiz, eta Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean eserita eta zeruko hodei artean etortzen ikusiko duzue».

K Apaiz nagusiak bere soinekoak urratu zituen, esanez:

S «Ba al dugu lekuko beharrik? Zeuek entzun duzue biraoa. Zer deritozue?».

K Denek heriotza merezi zuela erabaki zuten. Batzuk listua botatzen hasi zitzaizkion eta, aurpegia estaliz, ukabilka erabili zuten, esanez:

S «Asma ezak, profeta!».

K Guardiek ere masailekoka zerabilten.

Ez dut ezagutzen zuek diozuen gizon hori!

Pedro beheko patioan zegoela, apaiz nagusiaren neskame bat etorri zen. Pedro berotzen ikusirik, begira-begira jarri eta esan zion:

S «Zu ere Nazareteko Jesusekin ibili ohi zinen».

K Baina hark ukatu egin zuen:

S «Ez dakit zer diozun ere, ez dizut ulertzen!».

K Kanpora, atarira, irten zen, eta oilarrak jo zuen. Ikusi zuen neskameak eta han zeudenei ere esan zion:

S «Hau horietakoa da».

K Pedrok berriro ukatu zuen. Handik laster, han zeudenek ere hala zioten:

S «Bai, zu ere horietakoa zara, galilearra zara eta».

K Pedro biraoka eta madarikazioka hasi zen:

S «Ez dut ezagutzen zuek diozuen gizon hori!».

K Eta berehala oilarrak bigarren aldiz jo zuen. Jesusek esana gogoratu zitzaion Pedrori: «Oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu», eta negarrari eman zion.

Nahi al duzue juduen erregea askatzea?

Eguna argitu bezain laster, apaizburuak, herriko zaharrak eta lege-maisuak bildu ziren, Batzar Nagusi osoa, eta, erabakia hartu ondoren, Jesus loturik hartu eta Pilatori eskura eman zioten. Pilatok galdetu zion:

S «Juduen erregea al zara Zu?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

K Apaizburuak salatu eta salatu ari ziren haren aurka. Pilatok galdetu zion berriro:

S «Ez al duzu ezer erantzun behar? Begira zenbat salakuntza egiten duten zure aurka».

Aste Santua: ErramuSan Segundo, *martiria*Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*

K Baina Jesusek ez zion gehiago erantzun, eta harriturik zegoen Pilato. Pazko-jai guztietan preso bat askatu ohi zuen Pilatok, herriak eskatzen zuena. Bazen espetxean Barrabas izeneko bat, matxinadakoan giza hilketa bat egin zuten beste matxinatuekin batean. Igo zen jendea Pilatoren jauregira eta ohitura zuena emateko eskatzen hasi ziren. Pilatok erantzun zien:

S «Nahi al duzue juduen erregea askatzea?».

K Bai baitzekien apaizburuek bekaitzez emana ziotela Jesus. Baina apaizburuek jendea berotu zuten, Barrabas askatzeko eska zezan. Pilatok berriro galdetu zien:

S «Eta zer egin behar dut juduen errege esaten diozuen horrekin?».

K Haiek, orduan, deiadarka:

S «Josi gurutzean!».

K Eta Pilatok:

S «Zer oker egin du, bada?».

K Haiek, gero eta deiadar handiagoz:

S «Josi gurutzean!».

K Pilatok, orduan, jendeari atsegin emateagatik, Barrabas askatu zien eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haiei eskura eman zien, gurutziltza zezaten.

Arantzaz egindako koroa ipini zioten buruan.

Gudariek Gobernariaren jauregi barrura eraman zuten Jesus eta gudari-talde osoa bildu zuten. Purpurazko jantzia ipini zioten soinean eta arantzaz egindako koroa buruan. Eta agurka hasi zitzaizkion:

S «Agur, juduen errege!».

K Kanaberaz buruan jotzen zuten eta listua botatzen zioten eta, belaunikaturik, aurrean ahuspez jartzen zitzaizkion. Nahiko iseka egin ondoren, purpurazko jantzia kendu eta bere soinekoak jantzi zizkieten. Gero, atera eta gurutzean josteko eraman zuten.

Golgota izeneko lekura eraman zuten Jesus.

Sorotik etxerakoan handik zihoan bat, Simon Zirenekoa, Alexandro eta Ruforen aita, gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota izeneko lekura eraman zuten Jesus (Golgota hitzak «Buru-hezur» esan nahi du).

Gaizkileen kidekotzat jo zuten.

Mirraz nahastutako ardoa eskaini zioten, baina ez zuen hartu. Gurutzean josi zuten, eta gudariak haren jantziak banatu zituzten, zer norentzat zotz eginez. Bederatziak ziren gurutziltzatu zutenean. Honela zioen kondenazioaren arrazoa adierazten zuen idazkunak: JUDUEN ERREGA. Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean eta bestea ezkerrean. Honela bete zen Liburu Santuak dioena: «Gaizkileen kidekotzat jo zuten».

Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin salbatu.

Handik igarotzen zirenek irain egiten zioten Jesusi, buruari eraginez eta esanez:

S «Hara, santutegia desegin eta hiru egunean berriro eraikiko omen zuena! Salba ezak heure burua! Jaits hadi gurutzetik!».

K Era berean, apaizburuek ere, lege-maisuekin batean, burla egiten zioten, esanez:

S «Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin salbatu. Mesias eta Israelgo erregea omen duk; jaits dadila orain gurutzetik, ikusi eta sinets dezagun».

K Harekin gurutzean josiak zeudenek ere irain egiten zioten.

Jesusek, deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

Eguerdian, ilundu egin zuen lurbira osoan hirurak arte. Hiruretan, Jesusek oihu handiz esan zuen:

Aste Santua: Erramu

San Segundo, *martiria*Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*

† «Eloi, Eloi, lema sabaktani»,

K hau da:

† «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu.

K Hau entzutean, han zeuden batzuek esan zuten:**S** «Eliasi deika ari duk».**K** Orduan batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion, esanez:**S** «Egon, ea datorkion Elias, gurutzetik jaistera».**K** Baina Jesusek, deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.**Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.**

Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino. Aurrean zegoen erromatar ehuntariak, nola hil zen ikustean, esan zuen:

S «Benetan, Jainkoaren Semea zen gizon hau».

K Baziren han emakume batzuk ere, urrutitik begira; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joseran ama Maria, eta Salome; hauek Jesusen ondoren eta haren zerbitzuan ibiliak ziren, Galilean zegoela. Baziren beste emakume asko ere, Jesusekin Jerusalemara igo zirenak.

Josek, harri bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen.

Ilunabarrean –larunbat-bezpera zen egun hura, Pazko-jairako prestaketa-eguna–, Arimateako Jose Pilatogana joatera ausartu zen, Jesusen gorpua eskatzera. Jose hau kontseilu-kide ospetsua zen, eta Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zain zegoen. Harritu zen Pilato Jesus ordurako hila izateaz eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hila zen galdetu zion. Ehuntariaren argibideak jaso ondoren, gorpua eramateko baimena eman zion Joseri. Honek izara bat erosi eta, Jesus gurutzetik eraitsirik, izaran bildu zuen eta harkaitzean zulatutako hilobian ipini.

Gero, harri bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen. Maria Magdalena eta Maria, Joserena ama, non jartzen zuten begira zeuden.

Nekaldiak Jainkoaren eta gizadiaren artean dagoen aldea azaldu arren, Jesusen heriotzak ez du uzten etsipen-morturik. Giza bihotzaren zirrizturen batetik sartzen da argia. Nekaldiak hainbat pertsonaia jartzen dizkigu begi-bistan, herio-paisaia batean bizi-taupada mehe bat osatzen dutenak. Zireneko Simonen eta beronen ustekabeko laguntzaren kasua da; ehuntariarena, gurutzearen aurrean bere baitatik zinezko fede-aitorpena atera duena; Maria Magdalenarena, Santiago Txikiagoren ama Mariarena, eta Salomerena: Gurutziltzatua inguruan solidaritate zirkulu bat eratu baitute, eta Jose Arimatekoarena, bere fede berankorra agerian ipini baitu. Labur esateko, Nekaldiak gizakiaren gogorkeria salatu du, baina, aldi berean, agerian ipini du gaitzak ezin dituela hautsi erabat gudan... Erramugande honetan aitortu diezaiozun protagonismoa lekuko-talde hari. Gure historiako unerik izugarrienetako batean agertu ziren. Burutik kendu digute Nekaldia ikustean burura datorkiguna, alegia ez dagoela pena merezi duen ezer maitasuna erailtzen duen gizadi batean. Ezetz ziurtatzen digute: Golgotan berean ere distira dezakeela, mehe, halaz guztiz errukiak

Aste Santua

Jaunaren Gizakundearen adierazpena. (Apirilaren 8an)

San Dimas (*lapur ona*)

Isaias Profetaren liburutik 42, 1-7: Ez du oihu egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta zerbitzatzen ari zen, eta Lazaro Jesusekin mahaian zeudenetariko bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat lurrin-usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen. Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denarioan, eta dirua behartsuei eman?». (Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zuenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako). Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean; baina Ni ez nauzue betiko izango». Juduetariko asko, Jesus Betanian zegoela jakinik, hara joan zen, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela-eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuen eta Jesusengan sinesten.

Zein bestelakoa izan den Judas Iskarioteraren erreakzioa Betaniako Mariak Jesusen heriotzaren aurretik izan duenaren aldean. Biek, nork bere erara, aitortu dute Jesusen ikasle direla. Baina gauza nabaria da nola eten duen Judasek bere Maisuarekiko hede. Ez du jadanik harengan sinesten. Mariaren keinuak, berriz, guztiz hautsi du Jesusengandik urruntzen duen aldea. Judasentzat Jesus ez da izan beste mesianismo baten gidari irmoago, praktikoago eta erabakitzaileago bat, baizik eta porrot egin duena. Aitzitik, Mariaren kasuan, behin betiko Mesias ari da ikusten, zeinen heriotza hurbiltzen ari baita eta zeinetarako juduek praktikatzten zuten errituzko gantzuketa aurreratu baitu. Baina Mariak egin duena, Jesusen hurbileko heriotzan presente dagoen bizi berpiztuaren misterioari antzematen diolako egin du. Bere fedez usaindu du bere Jauna.

Aste Santua

San Braulio, *gotzaina*San Kastulo, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 49, 1-6: Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. **Sal 70:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 21-33. 36-38.

Aldi hartan, ikasleekin mahaian eseria zegoela, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begira jarri ziren, zeinaz ari zen asmatu ezinik. Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, haren ondo-ondoan zegoen mahaian. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarritz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?». Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteran semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanas sartu zitzaion barrura. Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna egizu berehala». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbaite emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala ateratu zen. Gaua zen. Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraitxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera. Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan”». Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?». Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuk ezin didazu jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu». Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zuek». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nikitik? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

Aste Santua

San Braulio, *gotzaina*San Kastulo, *martiria*

Ikasleen taldeak hausturak izan ditu bata bestearen segidan. Txunditu egiten gaitu ihes egiteak nola gertatu diren ikusteak. Golgotarako bideak hankaz gora bota du Jesusen taldetxorik bihotzekoena eratu dutenen leialtasuna. Eskuarki, Nekaldian Jesusek izan zituen oinaze fisikoei erreparatzen diegu. Ezikusia egiten diegu jasan behar izan zituen oinaze moral eta psikologikoei. Irudikatzen duguna, ikasleekin, hasieratik «adiskidetzat» hartutako haiekin, zituen lotura oinarritzkoenak burrustan gainbehera etorri izana izaten da. Denak, ez Judas Iskariote bakarrik, iritsi dira saldukeriaren muturrera. Pedrok berak ere porrot egin du. Eta, halaz guztiz, Jesusek ez du lur jo. Beti bezala, gai izan da guregan esperantza izateko, gure eskergetasuna baino harago, oilarrak kukurruku egiteari utzi dionean.

* * *

... zara

Biziaren eta ilusioaren Jainkoa zara.

Ez da arriskurik gabeko gauza zugana hurbiltzea.

Ez da adeitasun errugabea zuri sartzen uztea, zuri atea irekitzea, etxea erakustea eta aretoan zuri besaulkia eskaintzea.

Arrotz kezkatia eta arriskutsua, samurra eta adar-jotzailea, adimentsua eta eginkorra!

(Ulibarri Fl.)

Aste Santua

Santa Lidia, *martiria*San Ruperto, *gotzaina*

Isaias Profetaren liburutik 50, 4-9a: Ez nien aurpegia saihestu irainei.

Sal 68: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, mesedegaraia duzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26, 14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?». Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas. Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?». Jesusek erantzun zien: «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela haren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten. Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: «Nik ote, Jauna?». Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz». Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion: «Ni al naiz, Maisu?». Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

Judasen historia pertsonalak garratz zulatzen du edonoren bihotza. Beti geratzen da galdera: nolatan ez zuen erreakzionatu ahal izan Jesus atxilotzea eragiteko tentaldian erori aurretik? Gero etorri zen erreakzio hori, baina beranduegi, eta arrapaladan eragin zuen Judasen baitan erruduntasuna, bera erailez bukatu zena. Huts egin duen ikasle hau adibide ona da Jainkoak ematen digunaren eta dohain horiei

Aste Santua

Santa Lidia, *martiria*

San Ruperto, *gotzaina*

erantzunez guk itzultzen dugunaren asimetriak pizten duen eskandalua ikusteko; doan hartzen dugunaren eta probetxu bila itzultzen dugunaren artekoak eragiten duena, alegia. Jesusek Judasengan ezarri zuen konfiantzak ez du inolako konparazio edo zerikusirik ernegatu bihurtu zenaren desatxikipenarekin... Nolanahi den, Judasek astindu ederra ematen dio gure jarraipen zeken eta ziztrinari. Geure esker txarren ibilbidea detektatzen laguntzen digu; baita bereizten ere bere burua erabat dohain eman duen Jesusi jarraitzeari gu baitan kontra egiten dion dinamika.

* * *

Esna gaitzazu, Jauna

Jauna, esna gure bihotzak,
gauza ezerezetan lokartuta daude
eta maite suaren indarra galdu dute.

Jauna, esna gure ilusioa,
ilusio eskasetan itzali da,
eta ez du bilatzen
itxaroten jarraitzeko arrazoirik.

Jauna, esna Zuganako egarria,
ur garratzak edaten ditugu
eta eguneroko gogoak ez dira asebetetzen.

Jauna, esna Zuganako gosea,
goserik uzten gaituen janariak hartzen ditugu
eta ez dugu indarrik aurrera egiteko.

(*Ulibarri Fl.*)

Irteera liburutik 12, 1-8. 11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, suan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik. Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko. Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belaun”».

Sal 115: Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.

San Paulok 1 Korintoarrei 11, 23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker oneko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da,

zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri». Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz zigilatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 1-15.

Pazko-jaia gainean zen. Jesusek, mundu hau utzi eta Aitagana joateko ordua iritsi zitzaiola jakinik, munduan ziren beretarrek maite izanik, azkenean bete-betean maitatu zituen. Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskariotereren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala jakinik, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzairen, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen. Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, Zuk niri oinak garbitu?». Jesusek erantzun zion: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu». Pedrok berriro: «Zuk ez didazu niri sekula oinik garbituko». Jesusek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango». Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez denok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi». Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: «Ulertzen al duzue egin dizuedana? Zuek Maisua eta Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

Afari hura egin dutenerako, beren kezka dituzte ikasleek handiz idatzitako Maitasunak esan nahi lezakeenaz. Eta maitasunaren aurrean neurriak hartzea, batere ez dela onartzea bezala da: ameskeria dela, eragiten duen gauza bakarra kontzientzia txarra dela. Atze-hondo horren gainean, Maisuak esklabo baten keinua egin du eta gainezkako begirunea agertu du ikasle bakoitzarekiko, oinak garbituz. Ahaztu egiten gara esklabo-ekintza haren kadentzia gozo eta mantso hartaz. Astiro-astiro garbitu dizkie oinak Pedrori, Andresi eta Santiago Nagusiari. Oinak garbitu dizkie Joani, Feliperi eta Bartolomeri. Oinak garbitu dizkie Tomasi, Mateori eta Santiago Txikiari. Oinak garbitu dizkie Judas Tadeori, Simon Zeloteri eta Judas Iskarioteri... Ur haren hotsa konketara erortzean sakramentala izan zen. Jesusek ez du presarik. Ikasleei adierazi die bizirik duela beraiekiko adiskidetasuna. Berritu die erabat eman diela bere burua, eta ezer gorde gabe jarraituko duela bere burua beraiei ematen. Ikasleek jakin beharra zuten ezen Jainkoa dela bere burua erabat ematen duena; eta horregatik dela Jainko. Izan daitekeena da, beraz, Maitasun hori. Ez da ideal bat. Ikusten ari dira beren Maisuagan, lurretik begira duten harengan. Maitasun hori gelditzeko etorri da, beraien oinetan.



Jarraibide eman dizuet zuek ere Nik zuekin
bezalaxe joka dezazuen.

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina*

Isaias Profetaren liburutik 52, 13-53, 12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarrik; mesprextatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mesprextatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat.

Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra; haren zauriek sendatu gaituzte. Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabeki eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan. Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da.

Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta ase izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaitzakeriak bere gain hartu baitzituen. Horregatik, jendetza

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*
Santa Gladys, *erregina*

ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Sal 30: Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!

Hebrearrei gutunetik 4, 14-16; 5, 7-9.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, eutsi diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitzezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun. Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Joanen liburutik 18, 1-19. 42.

Getsemanin, Jesus preso hartu eta loturik eraman.

K Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Zedron erreka igaro eta beste aldean zegoen baratze batera sartu ziren. Judasek ere, Jesus salduko zuenak, ezagutzen zuen leku hura, maiz bildua baitzen Jesus han bere ikasleekin.

Judas, beraz, tenpluko gudari-taldea eta apaizburuak eta fariseuen guardiak harturik, hara joan zen. Zuzi, argiontzi eta armez horniturik zihoazen. Jesusek, ondo baitzekien gertatuko zitzaion guztia, bidera atera eta esan zien:

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina*

† «Noren bila zatozte?».

K Haiek erantzun:**S** «Jesus Nazaretarraren bila».**K** Hark orduan:

† «Ni naiz».

K Han zen guardiekin batean Judas saltzailea ere. Jesusek «Ni naiz» esan zienean, atzeraka hasi eta lurrera erori ziren. Berriro galdetu zien:

† «Noren bila zatozte?».

K Haiek erantzun:**S** «Jesus Nazaretarraren bila».**K** Eta Jesusek:

† «Esan dizuet Ni naizela. Nire bila bazatozte, utzi hauei joaten».

K Horrela bete zen Jesusek berak esandakoa: «Eman dizkidazunetatik ez dut bat ere galdu».

Orduan, Simon Pedrok, aldean zeraman ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Morroiak Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori:

† «Itzuli ezpata zorrora. Ez al dut, ba, edan behar Aitak eman didan edaria?».

Jesus Anasen etxera eraman zuten lehenengo.

K Gudari-taldeak bere buruzagiarekin eta judu-agintarien guardiek Jesus preso hartu eta, loturik, Anasen etxera eraman zuen lehenengo; urte hartako apaiz nagusi Kaifasen aitagarreba zen Anas hau (Kaifas zen juduei aholku hau eman ziena: «Hobe da gizon bat herriagatik hiltzea»).

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik joan ziren. Beste ikaslea apaiz nagusiaren ezaguna zen eta, Jesusekin batera, apaiz nagusiaren jauregiko patiora sartu zen; Pedro, berriz, kanpoan gelditu zen, ate ondoan. Atera zen orduan apaiz nagusiaren ezaguna zen

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*
Santa Gladys, *erregina*

ikaslea eta, atezainari hitz egin ondoren, Pedro barrura sarrarazi zuen. Atezain zegoen neskameak esan zion Pedrori:

S «Zu ere ez al zara gizon horren ikasleetakoa?».

K Pedrok erantzun:

S «Ez, ez naiz!».

K Morroiak eta guardiak sua piztu eta berotzen ari ziren, hotz egiten baitzuen. Pedro ere haiekin zegoen, berotzen. Apaiz nagusiak bere ikasleez eta irakatsiaz galdetu zion Jesusi. Jesusek erantzun zion:

† «Ageri-agerian hitz egin izan diot Nik mundu guztiari; sinagogan eta tenpluan irakatsi izan dut beti, judu guztiak biltzen diren lekuan, eta ezer ere ez dut ezkutuan esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galdetu nire entzuleei eta emango dizute esan dudanaren berri».

K Hori esan zueneko, han zegoen guardia batek masaileko bat eman zion, esanez:

S «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Gaizki hitz egin badut, esan zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jo nauzu?».

K Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotua.

Zu ere ez al zara, ba, horren ikasleetakoa? Ez, ez naiz

Bitartean, han zegoen Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

S «Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa?».

K Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

S «Ez, ez naiz!».

K Apaiz nagusiaren morroietako batek, Pedrok belarria moztu zionaren ahaideak, esan zion:

S «Ez ote zaitut, ba, neuk ikusi horrekin baratzean?».

K Ukatu egin zuen Pedrok berriz ere, eta berehala oilarrak jo zuen.

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina**Kantu labur bat:*

Bihotz garbia

gugan sortu

arnas bizkorra

barne muinetan

emaguzu.

Nire erregetza ez da mundu honetakoa.

Kaifasen etxetik Gobernariaren jauregira eraman zuten Jesus. Goizaldea zen. Juduak ez ziren jauregian sartu, beren buruak ez kutsatzeko, bestela ezin izango baitzuten pazko-afarian parte hartu. Pilatok kanpora atera eta galdetu zien:

S «Zertaz salatzen duzue gizon hau?».**K** Haiek erantzun zioten:**S** «Gaizkilea ez balitz, ez genizukeen ekarriko».**K** Pilatok esan zien:**S** «Eraman zeuek eta epaitu zeuen legearen arabera».**K** Juduek orduan:**S** «Guri ez zaigu zilegi inor heriotzara kondenatzea».

K Horrela beteko zen Jesusek esandakoa, zein heriotzaz hilko zen adierazi zuenean. Pilato jauregira sartu zen berriro eta, Jesusi deiturik, galdetu zion:

S «Zu al zara juduen erregea?».**K** Jesusek erantzun:

† «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz?».

K Pilatok esan zion:

S «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?».

K Jesusek erantzun:

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina*

† «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengoa».

K Orduan, Pilatok esan zion:

S «Beraz, errege zara Zu?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

K Pilatok galdetu zion:

S «Zer da egia?».

K Hori esanik, berriz ere juduengana atera eta esan zien:

S «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina baduzue ohitura, nik Pazko-jaietan preso bat askatzekoa: nahi al duzue juduen erregea askatzea?».

K Haiek, berriz, deiadarka:

S «Hori ez! Askatu Barrabas!».

K Barrabas hau bidelapurra zen.

Agur, juduen errege!

Pilatok, orduan, Jesus zigorkatzeko agindu zuen. Gudariak, arantzazko koroa eginik, buruan ezarri zioten eta purpurazko mantua bota zioten gainera. Eta, hurbildurik, esaten zioten:

S «Agur, juduen errege!».

K Eta masailekoka zerabilten. Atera zen berriro ere Pilato eta esan zien juduei:

S «Hara, kanpora dakarkizuet, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen».

K Atera zen, bada, kanpora Jesus, arantzazko koroa eta purpurazko mantua zeramatzala.

Pilatok esan zien:

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina***S** «Hona gizona!».**K** Apaizburuak eta guardiak, hura ikustean, deiadarka hasi ziren:**S** «Gurutzera hori! Josi gurutzean!».**K** Pilatok esan zien:**S** «Eraman zeuek eta gurutziltzatu; nik ez diot errurik aurkitzen».**K** Juduek erantzun zioten:**S** «Guk badugu legea, eta lege horren arabera heriotza-zigorra merezi du, Jainkoaren Seme egin baitu bere burua».**K** Hori entzutean, are gehiago beldurtu zen Pilato eta, berriro jauregira sarturik, galdetu zion Jesusi:**S** «Nongoa zara Zu?».**K** Jesusek, ordea, ez zion erantzun ere egin. Orduan, Pilatok esan zion:**S** «Ez al didazu erantzun behar? Ez al dakizu aginpidea dudala Zu askatzeko nahiz gurutziltzatzeko?».**K** Jesusek erantzun zion:

† «Ez zenuke nire gain inolako aginpidetik izango, Jainkoak eman ez balizu. Horregatik, zure eskura eman nauenak bekatu handiagoa du».

*Ken hori, ken! Josi gurutzean!***K** Ordudanik, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion:**S** «Hori askatzen baduzu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egiten duena enperadorearen aurka ari da».**K** Pilatok, hitz horiek entzutean, kanpora eraman zuen Jesus eta auzitegian eserarazi,

«Harlauzatua» zeritzan lekuan —hebreeraz «Gabbata»—. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eguerdi ingurua. Pilatok esan zien juduei:

S «Hona zuen erregea!».

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*
Santa Gladys, *erregina***K** Orduan, haiek deiadarka:**S** «Ken hori, ken! Josi gurutzean!».**K** Eta Pilatok:**S** «Gurutztatzu egin behar al dut zuen erregea?».**K** Apaizburuek erantzun zioten:**S** «Ez dugu enperadorea beste erregerik».**K** Orduan, Pilatok haien esku utzi zuen, gurutziltza zezaten.*Kantu bat:*

Jesus gure Jaun maite

amodiotsua,

«damu dugu guztiok» (2)

«Zu nahigabetua» (2)

Gurutzean josi zuten, eta harekin batean beste bi.

Hartu zuten, beraz, Jesus, eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezur» –hebreeraz «Golgota»– zeritzan lekurantz atera zen. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta gurutze-buruan ipini zuen; hau zegoen idatzia: JESUS NAZARETARRA, JUDUEN ERREGEA.

Judu askok irakurri zuen kartela, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutziltzatu zuten lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz zegoen idatzia. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori:

S «Ez idatzi “Juduen erregea”, baizik “Juduen erregea dela dioena”».**K** Pilatok erantzun zuen:**S** «Idatzia bego idatzirik!».*Nire jantziak beren artean banatu zituzten.*

K Gudariak, Jesus gurutzean josi ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bat; gero, tunika hartu zuten,

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina*

baina josturarik gabea, goitik behera ehundua, zenez, esan zioten elkarri:

S «Ez dezagun urratu; zotz egin dezagun, ea zeinentzat den».

K Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire tunika zotz egin». Hain zuzen ere, horixe egin zuten gudariek.

Horra hor zeure semea! Horra hor zeure ama!

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari:

† «Emakume, horra hor zeure semea!».

K Gero, ikasleari esan zion:

† «Horra hor zeure ama!».

K Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Bete da dena!

Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen:

† «Egarri naiz!».

K Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen:

† «Bete da dena!».

K Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

Kantu bat:

Gurutze maite

osasungarri

Zu zara bake

Bizi-iturri.

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina*

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Odola eta ura atera ziren.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako biei; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren. Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratuko diote».

*Jesusen gorpua oihal-zerrendaz lotu zuten,
tarteaz lurringaiak ezarriz.*

Gero, Arimateako Josek Jesusen gorpua eramateko baimena eskatu zion Pilatori. Jesusen ikaslea zen Jose, baina isilpean, juduen beldurrez. Pilatok baimena eman zion. Hark, orduan, joan eta Jesusen gorpua eraman egin zuen. Etorri zen Nikodemo ere, behin batean gauzez Jesus ikustera joan zen hura, hogeita hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nahastura zekarrela. Hartu zuten, bada, Jesusen gorpua eta oihal-zerrendaz lotu zuten, tarteaz lurringaiak ezarriz, juduek hobiratzeko duten ohituraren arabera. Jesus gurutziltzatu zuten lekutik hurbil, baratze bat zegoen, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi berria. Hilobia hurbil zegoenez, hantxe ipini zuten Jesus, juduen Pazko-eguna hastear baitzegoen.

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina*

Ukatua izan den Maitasunaren leialtasunaren historia da Golgota. Jesusek sumatu du Ebanjelioa Golgotara eramateko eskatzen diola Jainkoak –eraman dezala bera, beraren Jainko-Aita alegia–. Han, gurutzean, ulertu behar zen Jainkoak ez ziola Jesusi eskura jarriko bere «guardia», Mateok imajinatu zuen «hamabi aingeru-legio haiek baino gehiagoko hura». Gurutzean, Jainkoa Jainko da inoiz baino gehiago: ez da giza amets bat, ez da asmo biko proiektzio bat. Jainkoa ez dago Herodesen jauregian, ezta Pilatorenean ere, ezta Tenpluan ere. Beste leku batean dago, beste era batean. Ordudanik, Bizia aurkitu nahi baduzu, Golgotara joan behar duzu. Baina, zergatik? Ostiral Santuak erantzuten dio galdera horri, Kristoren gurutzea beste gurutze batzuen ondoan altxatuz, Golgotakoen eta gerora historian altxatuz joango direnen ondoan. Inoiz ez gara islatu gizakiok heriotzaren ahaltsunean Nekaldian bezain argi. Golgotan maitasun-ezaren muturreraino iritsi ginen, Ostegun Santukoaren kontrakoa. Justu hortxe, muga-mugan, non ez baitago jadanik ezer, esperantzaren haustura osoa baizik, hortxe dago Jainkoaren Semea... Eta presentzia horixe da geugandik salba gaitzakeen bakarra.



Hona hemen
gurutze habea
munduaren
osasuna zintzilik
eduki zuena.

Pazko Gaubeila

San Joan Klimako, *abadea*Santa Irene, *martiria*

Irteera liburutik 14, 15-15, 1a.

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar». Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren artean jarritz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu. Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoan zabaldutako lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zitutzela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren.

Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrendik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka». Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezen». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek estali egin zituzten israeldarren atzetik itsasoan sartu

Pazko Gaubeila

San Joan Klimako, *abadea*

Santa Irene, *martiria*

ziren gudiak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa.

Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazterrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona. Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantu hau abestu zioten Jaunari:

Sal: Ir 15, 1b-2. 3-4. 5-6. 17-18: Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.

San Paulok Erromatarrei 6, 3-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun. Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, halaxe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua geldiz zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintezen. Izan ere, norbait, hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da. Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Pazko Gaubeila

San Joan Klimako, *abadea*Santa Irene, *martiria*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 1-7.

Larunbata igaro zenean, Maria Magdalenak eta Santiagoren ama Mariak eta Salomek usain gozoko ukenduak erosi zituzten Jesusen gorpua gantzutzeko. Eta asteko lehen-egunean, goizean goiz, eguzkia atera orduko, hilobira joan ziren. Hau ziotsoten elkarri: «Nork irauliko digu hilobi-sarrerako harria?». Begiratu eta harria iraulia ikusi zuten, oso handia zen arren. Hilobian sarturik, gazte bat ikusi zuten eskuinaldean eseria, soineko zuriz jantzia, eta erabat izutu ziren. Hark esan zien: «Ez izutu! Nazareteko Jesus gurutziltzatuaren bila al zabiltzate? Piztu da; ez dago hemen. Hona ezarri zuten lekua. Zoazte orain haren ikasleei, eta bereziki Pedrori, esatera: “Zuen aurretik joango da Galileara. Han ikusiko duzue, berak esan bezala”».

Jainkoaren isiltasunak zeharkatu du Larunbat Santu osoa, gaubeila arte. Denbora astunegia izan da. Airean hegan zebilen galdera: ea, Golgotaren ondoren, berriro jaulkiko ote zen Hitz bat, Hitz hori jadanik esana izan zelarik eta eraila. Baina zer gehiago gelditzen da gizadiari eskaintzeko, zeruertz baikor baterantz ireki ahal dadin? Zer gehiago ematen ahal zaio erregalu? Zer zentzu du irteera bat proposatzeak eman zaiona temati mespretxatu duen bati? Merezi al du pena imajinatzea oraino bigarren aukera bat gelditzen zaiola geu garen mundu krudel honi?... Horregatik da hain nekosoia Larunbat Santuko isiltasun burrunbatsua. Guztiz zuzena da zerua isiltzea. Arrazoizkoa izango zen haserre-sumindu balitz ere. Larunbat Santuan egin daitekeen otoitza berankorra dela ematen du, itxuraz atzerakor dator. Jainkoari eskatu: zer?, eman digun guztiari uko egin badiogu? Soilik, zain egotea dagokigu etsipen osoaren baitan, nolanahi den ere zain daudenen gidaritzapean. Maria Magdalena bezala, oso urduri, egunsentian, igandean, irteteko prest baitago Jaunaren hilobira joateko. Bera izan da lehena imajinaezina esperimentatzen: Larunbat Santuko isiltasuna ez dela izan bukaera!

Apostoluen Eginak liburutik 10, 34a. 37-43.

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanez hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen. Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi. Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeke eta aitortzeke, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiek bekatuen barkamena hartuko dutela, haren izenean».

Sal 117: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.

San Paulok Kolosarrei 3, 1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1-9.

Asteko lehen egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana

itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera abiatu ziren lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela.

Ilunaren bihotzean hasi da Piztuera. Isiltasunak inguratu du Jauna, hila eta hobiratu, hilobiko harria ezarria eta zigilatua delarik. Hilobiko ilunak ezerezaren isiltasun hermetikoan bildu zuen Jesus. Ez zen bat-batean etorritako isiltasuna. Jaio zenetik agertu zitzaion. Pixkana esperimentatuz joan zen, gero eta gogorrago, harengandik ihes egin gabe. Eskandalagarri da Jesusek haren kontra ez erreakzionatu izana: armarik ez erabili izana, segurtasun orori uko egin izana, bere buruan ez pentsatu izana. Uko egin dio indarkeriari eta alde batera utzi ditu ezohiko baliabideak bere burua zuzenesteko. Jesusek, Nekaldikoan, jendaurreko bere bizitzan predikatu ohi zituen zoriontasun guztiak eta bakoitza baitaratu zituen: espirituz pobre ageri da, negar dagiena bezala, otzan, zuzenaren gose eta egarri, bihotz garbi, bake-bilatzaile, gizon zuzen pertsegitu, dena gaizki esan dioten iraindu bezala. Hori guztia gertatzen den bitartean, iluna haziz doa, trinkotuz eta, azkenik, heriotza-zigorra... Halere, Pedrok, Piztuera-goiz hartan, etxera iritsi denean, ziurtasuna du ilunarenak egin duela, iluna galdu dela: Jesusek ez zion utzi ilunari bera besarka zezan.

POBREKIN
bide
eginez
eta
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

APIRILA / JORRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Emakumearen eginkizunaren alde: Egin dezagun otoitz kultura denetan emakumeen duintasuna eta aberastasuna onartua izan dadin eta munduko hainbat bazterretan sufritzen duten bazterketa amaitu dadin.

Pazkoaldia. Zortziurrena
 San Venantzio, *gotzaina*
 Santa Teodora, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14. 22-23: Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. **Sal 15:** Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28, 8-15.

Aldi hartan, emakumeak hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pozik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkieten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko naute». Emakumeak bidean zihoazela, guardiako batzuek hirira joan eta gertatutako guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrekin bildu eta hitzartu ondoren, dirutza handia eman zieten gudariei, aginduz: «Esazue, haren ikasleek gauez etorri eta zuek lo zeundetelarik, gorpua lapurtu dutela. Eta Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geuk hitz egingo diogu eta arriskutik aterako zaituztegu».

Haiek dirua hartu eta agindu bezala egin zuten. Eta gaurdaino zabaldu da kontu hori juduen artean.

Zenbaitek dioenez, Pizkundearen garaia izan zen ustekabeen Jesusentzat zailena. Ebanjelariak beren aurkezpenean bere Bizitza berpiztuaz jabetzen ez direnak konbentzitu nahian azaltzen digute Jesus, gertakarien benetakotasuna desitxuratu ere egiten baitu jende horrek. Inork ez dio inori sinesten, beharbada poza ez delako sinesgarria. Berpiztuak tematu beharra du bere ahaleginean ongi etorria izateko lortzeko; horrela, bere ikasleengan nagusi den tristura ezabatzeko. Jesusek errazagoa izan zuen gurutzea berarentzat eta haren atzetik zetozenentzat beharrezko urratsa zela argi uztea, Ebanjelioaren azken muga kontsolamendua zela sinestaraztea baino. Baina horixe da Piztuera: Jainkoaren poz ezin eutsia eta behin betikoa, gizateriaren poz ezin eutsia eta behin betikoa izatera zuzendua.

Pazkoaldia. Zortziurrena

Bideko Andre Maria

San Frantzisko Paulakoa, ermitaia

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14a.36-41: Bihotz-berri zaitezte eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean. **Sal 32**: Jaunaren graziaz betea dago lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 11-18.

Aldi hartan, Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?». Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?». Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!». Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaeizu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”». Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

San Ignaziok beti du gogoan Jesus Piztuaren «ofizioa» kontsolamendua ematea dela. Berpizkundeak etsipena, bere edozein bertsiotan, poztasunerako igarobide gisa ulertu behar dugula erakusten digu. Ez beste era batera. Berpiztuak bahitura mingarriek eragiten dituzten erorialdietatik askatzen gaitu, hauek Erreinua sustatzeko askatasuna urritu egiten baitute. Horregatik, Jesusek nori bere izenaz dei egiten digu berriro, hasierako bokazio-eszena guztietan egin ohi zuen bezala. Oraingoan, orde, pozaren ziurtasunez egiten digu dei. Bizitzaren sekretua ez da gurutzea, Pazkoa baizik. Eta Pazkoa da galdetzen diguna, negar gehiago egin behar ez dugunean, zergatik negar egiten dugun.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Sixto 1.a., 7. aita santua

Apostoluen Eginak liburutik 3, 1-10: Dudana emango dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki eta ibil zaitez. **Sal 104:** Poztu zaitezte bihotzez Jaunaren bila zabiltzatenok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaien eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?». Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalemen egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!». Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?». Haiek erantzun zioten: «Nazareteko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi».

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?». Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu».

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Sixto 1.a., 7. aita santua

Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien. Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?». Eta berehala altxatu eta Jerusalemara itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio». Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

Ikasleek Emausera egindako ihesak gogorarazten digu geure burua Jesusen heriotzaren eraginetik ezin garela libratu. Gure sufrimendu guztietan, haietako bakoitzari geure barnera sartzen utzi behar diegu, horrela bera haien aurrez aurre ezarriz. Gure minak gurutzearen min berezirantz itzuli behar ditugu, geure barne esparrutik atera ahal izateko. Gurutziltzatua begi aurrean dugula, sufrimenduentzat ez dago itzulingururik. Gehiago ezin sufri zitekeela uste genuen gunetik iragana zen jada Jainkoa bere sufrimenduarekin, mezua utzirik ezen ezaguna duela gure bakardadea eta ipinia duela berea gurearen ondoan. Hori da Emauserako bidearen grazia: Eukaristia ospatzeko edozein giza sufrimenduren barne-muinean egin behar dugula bide nahitaez!

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*

Apostoluen Eginak liburutik 3, 11-26: Biziairen sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean. Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzue». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien. Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?». Arrain erre puska bat eskaini zioten Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela» Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzen. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasak sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Piztueraren berria iristen zaienek sinesteari egiten dioten ukapena etsigarria da. Primeran ulertzen dugu hori: Piztuerak, fidatzeko dugun giza ahalmen handiena eskatzen du. Ezin duzu beste ezer handiagoan sinetsi. Gure fedeak duen indarrrik handiena beretzat eskatzen du Berpiztuak. Zailtasun nagusia bizitza ber-ikastea datza halako neurriak dituen konfiantza batetik. Piztuerak fede ausarta eskatzen du. Honek, giza historiaren zoru ezegonkorra Jesusen maitasun gurutziltzatuak egin zuen bide beretik zapaltzera bultzatzen gaitu. Ñabardura batekin: badakigu, piztu delako, Berak ez diola gure aurrean ibiltzeari utziko.

Pazkoaldia. Zortziurrena
San Bizente Ferrer, *apaiza*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 1-12: Ez dugu beste inor salba gaitzakeenik. **Sal 117:** Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 1-14.

Aldi hartan, berriro agertu zitzaizen Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz geu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?». Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zutenez, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora. Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainea, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman zien, baita arraina ere. Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

Pazkoaldia. Zortziurrena
San Bizente Ferrer, *apaiza*

Inor ez zen ausartu galdetzera... Barruan eta itxita geratzea ez da beti ideia ona izaten. Piztuerak geure babesgunetatik ateratzera eragiten digu. Ahoskatzen ez denari hitz bat jartzen dio bere baitatik ateratzeko. Izenez, adibidez, istorioz eta poesiaz hornitzen du...: gure isiltasunek behar duten guztia, bereziki mingarrienek, bizitza bizi den lekura, kanpora, irteteko. Eta elkarrizketa eta penak partekatzea egiten den lekuan da irribarre egiten, dira korapiloak askatzen, dute sentimenduek itxaropena sumatzen. Jesusek ez zuen beti arrakasta izan bere ikasleekin. Gehiegi isiltzen ziren. Penagarriak beldurrak jotako halako isiluneak. Jesusek eman ziezaiekeen Hitza, Berea, tristura guztiak baretzeko eta malenkoniaren tentazioa saihesteko. Horretantxe saiatu zen aintziraren ertzean.

Apostoluen Eginak liburutik 4, 13-21: Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilean gorde. **Sal 117:** Eskerrak zuri, Jauna, erantzun didazulako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 9-15.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, pizturik, Jesus Maria Magdalenari, zazpi deabru atera zizkionari, agertu zitzaion aurrena. Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, triste eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi. Ondoren, ikasleetako biri agertu zitzaizen, beste itxura batean, auzo batera bidean zihoazela. Hauek ere besteei berri ematera joan ziren; baina hauei ere ez zieten sinetsi. Azkenik, Hamaiketik agertu zitzaizen, mahaian zeudela, eta aurpegira bota zien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, bera pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zietelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei».

Jesusek bere ikasleak berarekin izandako bizikizunak partekatzen bidali zituen. Bere Ebanjelioa ez zen gutxi batzuentzako jakintza. Edozein jatorritako edozein gizakirentzat eskainia zuen. Horregatik, munduarentzat lagungarri gerta zitekeen berri on bakar eta egiazkoaz jabetzea debekatu zien. Muga geografikorik gabe deitu zituen misio horretara. Baina mezua beraiek, mezulariek, bakarrik helarazi ahal izango dute. Itxaropena komunikatzeko, lehenago, askoz lehenago, itxaropena partekatzen duenak berak bizi behar du itxaropena. Gizateriak berri onak behar ditu... pertsonagan haragituak. Oso sinesgarria da, bere Piztueraren lehen uneetan, iragartzen ari zirenen begietako distiran arreta handi eta hobe jarri ez zuten hainbeste fedegaberi Jesusek errieta egin izana. Jada begi aurrean zuten behar zuten frogak.

Apostoluen Eginak liburutik 4, 32-35.

Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ere ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta guztia guztiena zuten. Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Ez zen behartsurik haien artean. Izan ere, lurrik edo etxerik zutenek saldu egiten zuten, eta salmentaren ordaina apostoluen esku jartzen zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion.

Sal 117: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.

Joanen 1 gutunetik 5, 1-6.

Seme-alaba maiteok: Jesus Mesias dela sinesten duen oro Jainkoagandik jaio da, eta bizia ematen duen Jainkoa maite duenak harengandik jaioa ere maite du. Beraz, Jainkoa maite badugu eta haren aginduak betetzen baditugu, badakigu Jainkoaren seme-alabak maite ditugula. Izan ere, Jainkoa maitatzea haren aginduak betetzea da. Eta haren aginduak ez dira astunak, Jainkoagandik jaio den orok garaitu egiten baitu mundua. Eta hau da munduaren gain garaipena ematen diguna: gure sinesmena. Zein da mundua garaitzen duena, Jesus Jainkoaren Semea dela sinesten duena baizik? Hau da bataioko uraz eta heriotzako odolaz etorri zena, Jesu Kristo; ez uraz bakarrik, uraz eta odolaz baizik. Eta Espiritua da honetaz aitormen egiten duena, Espiritua egia baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-31.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean. Jesusek

berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik». Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!». Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak». Beste ezaugarri asko ere egin zuen Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hauek idatzi dira sinets dezazuen Mesias eta Jainkoaren Semea dela Jesus eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Uneren batean beti irekitzen zaigu itxia den ate bat. Lehenago sumatu ez genuen zerbaiten esanahi sakona aurkitzen dugunean gertatzen da hori. Edota bihotzaren korapiloak askatzen dituen giltza agertzen denean. Edota aurkitu ezin izan dugun hitz egokia aurkitzen dugunean. Edota galdutako txanponarekin topo egin genuenean. Edota iragana ulertzen dugunean eta horrela aurrera egitera ausartzen garenean. Edota ezinezkotzat jo eta etsita utzi genuen adiskidetzearen bidea irudikatzen dugunean. Literalki, noizbait argia ikusten dugu urakanaren begian bertan. Orduan Jainkoak zulotik ateratzen gaitu eta atsegin handiz bere Espiritua arnas-puzten digu... Kristautasuna hori gertatzen dela sinetsita dago. Eta uste duguna baino askoz

maizago gertatu ere. Askotan gertatzen da, mundua bere barnean Piztueraren arabera eratua delako. Jesusen piztuera ez zen izan historia kontraesankor baten amaiera zoriontsua, baina ustekabekoa. Jesus Piztua giza aldian txertatu da eta hor jarraitzen du, jendea berpiztuz: fedea itzaltzen den lekuan fedea sortzen du; itxaropena desagertzen den lekuan itxaropena itsasten du; eta konpromisoa zuritzen edo urardotzen den lekuan konpromisoa sinatzen du. Jesus piztu zen, baina pizten ere ari da. Eta gure aurrean dago, itxita zeuden ateak zabaltzen ari zaigu beti.

* * *

Bakea

Emaguzu, Jauna, Bake harrigarri hura,
borroka betean sortu ohi dena,
suzko lore bezala;
gauerdia eteten duena,
ezkutuko kantuak bezala;
heriotza betean iritsi ohi dena,
itxaro zen musua bezala.

Emaguzu Bake hura, beti dabilzanena
abantailaz biluzik:
jantzirik, ezkon-esperantzaren haizeaz.

Bake hura,
jada beldurra gainditu duen pobrearena.

Bake hura,
biziari kateatu zaion librearena.
Bake hura, parean partekatzen dena
ura eta Hostia bezala.

(Pedro Casaldáliga)

Isaias Profetaren liburutik 7, 10-14; 8. 10.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean». Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuen: «Entzun, Daviden etxe: Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari? Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Hebrearrei liburutik 10, 4-10.

Senideok: Zezenen eta akerren odolak ez ditzake bekatuak desegin. Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio: «Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan; baina gorputza eratu zenidan. Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan. Orduan, esan nuen: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; hau dago Liburuan nitaz idatzia». Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko». Lehenengo kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzmana

Pazkoaldia 2. astea

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA

San Dionisio, *gotzaina*

zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta «Jesus» ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Mariaren garaiaren eta gurearen artean, dagozkion zuzenketak eginda, adostasuna dago. Biek partekatzen dute koloka jarri duten itxaropenaren mina. Mariaren munduan zailtasunek poza itotzen zuten. Izan ahal daitekeenarekin konformatu eta ezinezkoa desiratzearen arteko marra fin batean —denaren eta izan daitekeenaren artean—, orduan eta orain, askok aukeratzen dute lehenengoan, ondo kalkulatuta, finkatzea. Ezinezkoa ez da sinesten. Eta okerragoa dena: agian, ez da nahi ere. Egoera horretan, aingeruak Mariari fede berezi baten aitortza proposatzen dio: «Jainkoarentzat ezer ez da ezinezkorik». Jainkoa agertzen da eta agertuko da inongo irtenbideren hasiera inoiz imajinatuko ez gukeen krisi horien guztien artean. Nazaret fede horren hiriburu bihurtu zen. Mundua berriro era oso ezberdin batean biratzen hasiko da Nazaret herritik abiatuta, Erromatar Inperioko edozein hiri ospetsutatik urrun, guztiz ezezagun den emakume gazte batengan. Ez zen momentu soil bat izan. Mariak horrela biziko du Jainkoa handik aurrera. Bere haurraren historia ez da arrazoizko eta aurreikusitako historia bat izango. Ezinezkoen historia bat izango da..

Pazkoaldia 2. astea
San Maximo, aitorlea

Apostoluen Eginak liburutik 4, 32-37: Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. **Sal 92:** Errege da Jauna, ospez jantzia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 7b-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Berriro jaio behar duzue. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin». Nikodemok galdetu zion: «Nola gerta daiteke hori?». Jesusek erantzun: «Zu maisu zara Israelen eta ez dakizu hori? Egi-egiaz diotsut: Guk dakiguna esaten dugu eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure aitormena onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez baduzue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean? Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten».

Beste era bat. Beste ikuspegi bat. Gauzak ikusteko beste zirrikitu ezberdin bat. Ebanjelioak etengabe esaten du salbaziorik badagoela zegoenik inork sinesten ez zuen lekuan. Negar egiten dutenek kontsolamendua aurkituko dute; mespretxatuak kontuan hartuak izango dira; hutsik dagoen itsasoa arrantza miragarriaren aukera izan daiteke. Hau guztia egia izateko, arraroa dirudien arren, beste mundu batekoa izan behar da. Ezin dugu oraingoa berregin. Beste irudimen bat behar dugu, beste sentsibiltate bat, beste politika bat, beste ekonomia bat, beste bake bat... Beren Maisuari jarraituz, beste mundu batean barneratu ziren ikasleak. Jesusek ez zituen bereziak egin nahi. Besterik gabe, berriro jaiotzeko eskatu zien: beste era batean sinestea, beste ikuspegi bat izatea, gauzak ikusteko beste zirrikitu ezberdin bat izatea. Hori da Ebanjelioaren grazia harrigarria.

Pazkoaldia 2. astea

San Ezekiel, *profeta*San Makario, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 5, 17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak tenpluan daude eta herriari irakasten ari dira. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoia: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorroto dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldi ez daitezen. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Teologoa izan zen, ez teknokrata edo politikaria, 2015ean Nazio Batuen Batzarrari itxaropenaz konbentzitzeko zuzendu zitzaiona. Paulo VI.a aipatuz, Frantzisko Aita Santuak gure burua zein bidegurutzetan aurkitzen dugun gogoratu zuen: «Benetako arriskua [gizadiak aurrean duena] lorpen garaienetara bezala hondamendira eramanezaketaren gero eta tresna indartsuagoak dituen gizakian datza». Jainkoak argi du: alanbre hesiz eta hormez betetako mundu baten aukeraren aurrean, Berak kontrakoa sustatzen du. Ez dira alternatiba baliokideak. Argitasun hori nekez iristen da baztertzera eta gaitzestera hain ohitua dagoen giza bihotzaren erdigunera. Jainkoa ez dator epaitzera, salbatzera baizik. Hona hemen «argia». Eta, zalantzarik gabe, itsutu egiten du!

Apostoluen Eginak liburutik 5, 27-33: Geu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena denen gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena denen gainetik dago; ikusi eta entzun duena aitortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia dioela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua. Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

San Joan Bataiatzailea da hitz hauek esaten ari dena. Hitz horietan, Joaneke bere burua nola erlatibizatzen duen ageri da «guztien gainetik» dagoenaren aurrean. Jesusen aurrean, Joaneke bere ekarpena behin betikoa ez dela adierazten du. Goraipamenak baino ez ditu Jesusentzat: «Goitik datorrena» eta «Jainkoak bidali duena» da; dena «beraren esku» dago. Bataiatzaileak, bere eginkizuna zein den azaltzeko, bereizmen-gaitasun aparta erakusten du. Badaki bere eginkizuna mugatua dela, amaitzen ez den kate bateko kate-maila bat besterik ez dela. Jesusek nagusitasuna du eta Joaneke horixe aitortu du: berritasuna «Semeagan» dago. Beragan beheratu garena, paradoxikoki huraxe izango gara... bera izan arte gudan garena.

Pazkoaldia 2. astea
San Zenon, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 5, 34-42. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako. **Sal 26:** Gauza bat eskatzen diot Jaunari: bizi nadila Jaunaren etxean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz beste aldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan. Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko». Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?». Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren. Jesusek ogiak hartu eta, esker oneko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez. Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.

Pazkoaldia 2. astea
San Zenon, gotzaina

«**N**on erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?». Jesusen galderak ezustean harrapatu zituen ikasleak. Galderaren bitxikeria, Maisuak jendea artatzeko eskakizun ezinezkorik edo idealistarik ez adieraztean datza. Besterik gabe, bere ikasleei zer duten, zein den abiapuntua jakiteko eskatu die. Honelako galdera batek adierazten digu, edozein beharri erantzuteko orduan, egin daitekeena gure esku dagoela eta ez besteenean. Ez da ametsik ezerezaren gainean eraikitzen, norberarena jokoan jartzeko borondatean baizik. Jainkoak fruitua emanaraziko du, ogien ugalketan gertatu zen bezala: dena ezberdina izango dela agerian utzi zuen Eukaristia hark... gurea dena utzi dezakegula onartzen badugu.

* * *

Kristo Jauna,
zu piztu ez bazina,
Jainkoaren aurpegiaren
islada aurkitzeko
norengana joan beharko genuke?

Zu piztu ez bazina,
zurekiko batasuna bilatzeko
ez ginen elkarturik egongo,
ez genuke zugar barkamenik izango,
ez genuke iturrien bizitasuna aurkituko.

Zu piztu ez bazina,
guk nola zu aukeratu,
behin eta berriz?
Non aurkitu
zu jarraitzeko indarrak?

(Taizéko Roger anaia)

Pazkoaldia 2. astea

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen artean azken martiria*. San Hermenegildo, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 6, 1-7: Zazpi gizon aukeratu zituzten, Espiritu Santuaz beteak. **Sal 32:** Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zukan baitugu geure uste ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 16-21.

Arratsean, Jesusen ikasleak itsasora jaitsi eta, txalupara igorik, itsasoaz beste aldera abiatu ziren, Kafarnaum aldera. Iluna zen ordurako, eta artean Jesus ez zen haiengana iritsi. Haize zakarra zebilen, eta itsasoa harrotzen hasi zen. Bospasei kilometro arraunean egitean, Jesus ikusi zuten ur gainean oinez eta txalupara hurbiltzen, eta beldurrak hartu zituen. Baina hark esan zien: «Ni naiz; ez beldur izan!». Haiek txalupan hartu nahi izan zuten, baina txalupa berehala iritsi zen zihoazen tokira.

Ziur aski bizi izan dugu geuk ere: momentu zailak jasaten ditugunean, lasaitzen gaituen gauza bakarra hurbileko ahots bat izaten da, guztiok barnean dugun gizatasun unibertsal horren barrenean ahoskatua. Horrelakoetan ez dugu beste aingurarik bota nahi izaten, besteen erraietara iristen dena baizik. Sobera izaten ditugu orduan leloak, ideologia eta hitz polit ugariak. Egoera mingotsetan, haizeari egindako promesak hutsalak izaten dira. Ziurgabetasunaren argi-ilunean behar izaten duguna, anaitasun-keinu bat ikustea izaten da. Ez gara babesgabezia bizitzeko gai diren izakiak. Gure izena entzun eta besteena esan beharra izaten dugu... Horregatik, Jesusek bere ikasleen beldur ekaiztuen artean hitzak ahoskatzen ditu: «Neu naiz; ez izan beldurrik». Beraientzat nahikoa zen han zegoela jakitea.

Pazkoaldia 3. astea

San Tiburtzio, *martiria*Santa Liduvina, *birjina*

Apostoluen Eginak liburutik 3, 13-15. 17-19.

Egun haietan, Pedrok honela hitz egin zion herriari: «Abrahamen, Isaaken eta Jakoben Jainkoak, gure arbasoen Jainkoak, aintzaz bete du Jesus bere zerbitzaria, zuek agintariei eskura eman eta Pilatoren aurrean ukatu zenuten hura, honek askatzea erabaki zuen arren. Santua eta Zuzena ukatu zenuten, eta hiltzailea askatzeko eskatu; biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik; geu gara horren testigu. Badakit, senideok, ezjakinean jokatu zenutela zuek, baita zuen agintariek ere. Baina horrela bete zuen Jainkoak, profeta guztien ahoz aurrez iragarria, hots, haren Mesiasak sufritu egin behar zuela. Bihotz-berri zaitezte, beraz, eta itzuli Jainkoagana, bekatuak ken dakizkizuen».

Sal 4: Argi ezazu, Jauna, zeure aurpegia gugana.

San Joanen 1 gutunetik 2, 1-5a.

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere. Jainkoa ezagutzen dugula honetatik dakigu: haren aginduak betetzetik. «Nik ezagutzen dut Jainkoa» esan eta haren aginduak betetzen ez dituenak gezurtia da, eta horrelakoan ez dago egia. Haren hitza betetzen duenagan, berriz, Jainkoaren maitasuna bere betera iritsi da egiaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten Jauna. Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten.

Pazkoaldia 3. astea

San Tiburtzio, *martiria*Santa Liduvina, *birjina*

Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzuenez». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien. Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?». Arrain erre puska bat eskaini zioten. Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela». Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasak sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Gurutziltzatuaren aurrean, ikasleek zalantzan jarri zuten beren Maisuarekin bizi izan zutena. Beren barnean, elkarrekin izandako iragana ukatu egiten dute. Iruzur ilusiotzat jotzen dute hura guztia. Gurutzeak oroitzapenen oinarria astindu egin die: Jesusekin izandako ia hiru urteko harreman estuak mamitu zituen milaka bizipen daude jokoan. Ikasleek oroitzapena galdera bihurtzera iritsi dira. Aurrean ez dute jadanik nondik norakorik, inora ez daramaten bideak baizik. Taldea, ihesi, barreiatuak desegiteko arriskuan dago. Ametsa itzali da, ez dago norabiderik. Itxaropenaz umezurtz jotzen dute beren burua... Baina Piztua, bere hainbat agerralditan, etengabe arduratzen da ahaztu nahi duten Gurutziltzatu hura bera dela segurtatzen. Bere gorputza, bere zauriak erakusten dizkie, baita bere ikasleekin egoteko zuen modua ere. Bera da, Maisua, orain ikusten dutena. Zen hura bera da orain ikusten dutena. Parabolak, mirariak, deiak eta keinuak merezi izan zuten. Piztua ez da espiritu mamu bat. Hain zuzen, gertatzen da oso zehatza eta konkretua dela: Nazaretar hura bezain zehatza. Horregatik, oroimena berreskuratu eta elkarrekin bizi izan zituzten hiru urteetan emandako xehetasunetara itzuli behar dute. Eta hura guztia, jada, Piztueraz mintzo zena zen!

Pazkoaldia 3. astea

San Kreszente, *martiria*Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*

Apostoluen Eginak liburutik 6, 8-15: Ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. **Sal 118:** Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 22-29.

Bost mila gizonezkoei, ase ziren arte, jaten eman ondoren, ur gainean oinez ikusi zuten Jesus ikasleek. Biharamunean, itsasoaz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratu, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiadestik, Jaunak esker oneko otoitza egin ondoren ogia jan zuten ingurura. Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabiltzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari». Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

Jesusengana joz, gizateriak beti desiratu izan duena bilatzen du jende askok: beren beharrentzako grazia-kolpea, erabat ase arte. Edozein belaunaldiren amets errepikakorra da, gure gabezia-egoera iraunkorraren aurrean gizakiak berezkoa duena. Beraz, Jesusi desira bera zuzentzen zaio: gure prekarietatearen aurrean autonomo egin gaitzala. Bitxia da nahi hori Jesusek ez ukatzea. Ez zaio iruditzen desegokia edo zorakeria. Baina berak bere burua eskaintzen du irtenbide gisa. Eta bere burua eskaintzen du, gu geu eta gure beharrak berarekiko harremanetan egon gaitezen. Harreman horietan hobeto ulertuko dugu benetan zer behar dugun eta zergatik lortuko dugun ustekabeko opari gisa.

Pazkoaldia 3. astea

Toribio Santua Liebanakoa. Santa Bernardita Soubirouskoa
(Lourdeskoa 1844-1879), *birjina*

Apostoluen Eginak liburutik 7, 51-8.1a: Jesus Jauna, hartazu nire bizia. **Sal 30:** Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 30-35.

Aldi hartan, jendeak esan zion Jesusi: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk haiek ikusi eta zugan sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita». Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigan datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Jesus dena agintzera ausartzen da: «Nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango». Bere burua gure zailtasunak, denak eta behin betiko, guztiz baretu ditzakeena bezala aurkezten du. Hala ere, badirudi bere bizitza pobre, garbi eta esanekoa ugaritasunaren proposamen horren kontrapuntua dela. Jesus, oinarritzko beharrak berak ere koloka jartzen dituen erabateko txirotasunaren arabera bizi da. Ibiltaria da, prekarietatera ohituta dagoena. Eta beraren hitzak errepasatuz, egia da Jesusek «biziaren», «zeruko» eta «Jainkoaren» ogiaz soilik hitz egiten duela. Askatasuna elikatzen duen «egiazko» janaria da: jada goserik edo egarririk sentitzen ez duzunez, zeure burua eskaintzeko guztiz desjabetzea errazten duen askatasuna.

Apostoluen Eginak liburutik 8, 1b-8: Alde guztietara joan ziren, Berri Ona hots eginez. **Sal 65:** Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 35-40.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango. Zuek, ordea, lehen ere esan dizuedanez, ez duzue sinesten, ikusi nauzuen arren. Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana etorriko dira, eta nigana etortzen denik ez dut kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenaren nahia baizik. Eta haxe da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez dezadala bat ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. Haxe da nire Aitaren nahia: Semea ikusi eta harengan sinesten duenak izan dezala betiko bizia; eta Nik piztuko dut azken egunean».

Zaila da bizitza eta honek eskatzen duen guztia nork bere gain hartzea, baldin eta mundua hutsik dagoela, beraren zorira utzia, etengabeko kontingentzia gisa irudikatzen badugu; egoera horren aurrean, hoberena nor bere zortean babestea izaten da. Lehen begiradan, mundu horrek ematen du benetakoena. Jesusek, ordea, begirada gehiago zehazteko eskatzen digu, horrela guztiaren hondoan asmo onuragarri bat aurkituko dugulako. Zaintzen eta babesten duen borondate baten menpe dago errealitatea. Jainkoak «ezer ez galtzeko» erabakia du. Hori dela eta, Loiolako San Ignaziok eskatu zien espiritualki ariketa egiten zutenei egiaztatzeko, nola Jainkoak «eman nahi didan bere burua bere antolamendu jainkotiarren arabera eman ahalko didanean». Jainkoak bere burua eskaintzeko duen borondate horrek mundua gure txoko epeel bihurtzen du. Eta mundu hori da benetakoena.

Pazkoaldia 3. astea

Santa Atanasia, *aitorlea*San Eusebio, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 8, 26-40: Hona ura; zerk eragozten du ni bataiatzea? **Sal 65:** Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita. Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudana ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

Ogien ugalketa Jesusen bizitza publikoko une distiratsua izan zitekeen bezala, geroago zeinu hark zer esan nahi zuen argitzeak krisia suposatu zuen. Jende askoren eskandalurako, zorionaren bilaketa iragankorrak urrundu egiten ditu Jesusek Ebanjeliotik. Ogi ugalduen ugaritasunak ez du zerikusirik bilaketa arin haiekin. Jesusek beste maila batean kokatu nahi gaitu. Bizia, berak bakarrik ematen duena, ez da iraungitzen. Elikagai iraunkorra da. Baina Jesusek daraman askatasun berezitik sortzen da: maitasunagatik nork bere irmotasun gogo egozentrikoak erlatibizatzen dituen askatasunetik, alegia. Hori da paradoxa: ematen den bizia betikotu egiten da, Jainkoaren bizi bihurtzen da! Eta bai, bizi horrek kutsatu eta azkenean miraria eragiten du: gizakia «ez hiltzea» eragiten du.

Apostoluen Eginak liburutik 9, 1-20: Neure zerbitzurako aukeratua dut gizon hori, jentilei nire izena adieraz diezaiei. **Sal 116:** Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 52-59.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?». Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan. Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da». Hau guztia Kafarnaumgo sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

Bakardade eta zaurgarritasun guneak sortzea eragiten duten testuinguru lokal eta globalak eraiki ditugunaren adibide asko dago. Antzeko egoera batek inguratu zuen Jesus. Orduan, gaur bezala, guregan eta gure artean egon nahi duen «zu» gisa eskaintzen du bere burua. Gure indibidualismoa hautsiko duten oinarritzko harremanak ezartzeko eskaini du bere burua. Baina berak izan behar du, beraren «haragiak» eta beraren «odolak», eta ez ideologia, botere anker edo energia inpertsonalaren erako beste ordezkotik. Jesusek, irrikatzen dugun eta aldi berean jaramonik egiten ez diogun «zu» hori izan nahi du. Maitatzeko eta bidezko izateko adinako jende askea izateko solaskidetzat jotzen gaitu. Gure historiaren parte izaten saiatzen da, gu berarenean parte izan gaitezen... Hori izan liteke, behingoz, askoz adiskidetuago den mundu baten hasiera sendoa, zeinetan bakardadea eta ezintasuna iraganeko kondairako oroitzapen baino ez bailirateke izango.

Pazkoaldia 3. astea

San Zakeo, *zerga-biltzailea*Santa Ines Montepulciano-koa, *birjina*

Apostoluen Eginak liburutik 9, 31-42: Eraikiz eta ugalduz zihoan Eliza, Espiritu Santuagandiko adoreari esker. **Sal 115:** Nola ordainduko diot Jaunari egin didan on guztia?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuen: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?». Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen». Geroztik, haren ikasleetariko askok atzera egin zuen, eta aurrerantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?». Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

Zuek ere alde egin nahi al duzue?». Ordu arte jarraitu zuen taldeko hainbat kideren ihesaren aurrean Jesusek izan zuen erreakzioa da. Ohikoa dena errepikatu zen: zamadun edozein ekintzak, berekin dituen ondorioengatik, berari eutsi nahi diogun galdetzeraz garamatza. Orain ere bai. Arrisku larrien eta konplexuen gure garaia ertsipena sortzen du eta ihesbidea hartzeraz zirikatzen gaitu, konpromisoa atzeratzeraz, gauzak dauden bezala uzteraz eta bizitzaz zailduko ez zaigun tokira bidaiatzeko mailetak prestatzeraz... Baina Pedro izan zen, noski, nahasmenaren erdian giltzarria aurkitu zuena: ikasleek ez dute alde egingo, Jesusek «betiko bizitzako hitzak» dituelako. Jesusi, gu geure zoriaren baitan lagaz, gu uzteko galdera ez zitzaiola sekula bururatuko onartzea bezala zen... Eta horrek ezetz borobila merezi zuen: ez dugu alde egin nahi.

Apostoluen Eginak liburutik 4, 8-12.

Aldi hartan, Pedrok, Espiritu Santuaz beterik, esan zuen: «Herriko agintari eta zaharrok, gaur, gaixo bati eginiko mesedea dela eta, noren eskuz sendatu den galdetzen diguzue; bego, beraz, argi zuentzat guztiontzat eta Israel herri osoarentzat, zuek gurutziltzatu eta Jainkoak hilen artetik piztu zuen Jesu Kristo Nazaretarraren izenean duzuela gizon hau zeuen aurrean sendaturik. Jesus haxe da zuek, «etxegileok, baztertutako harria, giltzarri gertatua». Honengan bakarrik dugu salbamera, ez baitugu Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor eman eguzkipean, gu salba gaitzakeenik».

Sal 117: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.**San Joanen 1 gutunetik 3, 1-2.**

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 11-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardien alde. Ez, ordea, morroiak, artzain ez denak eta ardiak bereak ez dituenak; honek, otsoa datorrela ikustean, ardiak utzi eta ihes egiten du; eta otsoak ardiak harrapatu eta sakabanatu egiten ditu. Izan ere, morroiari lansaria zaio axola, eta ez ardiak. Ni naiz artzain ona. Ezagutzen ditut neure ardiak, eta neurek ezagutzen naute Ni, Aitak Ni ezagutzen nauen eta Nik Aita ezagutzen dudana bezalaxe. Nik neure bizia ematen dut ardien alde. Baditut artegi

Pazkoaldiko 4. astea

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea*

honetakoak ez diren beste ardi batzuk; hauek ere erakarri egin behar ditut; adituko dute nire ahotsa eta artalde bakarra izango dira, artzain bakarraren gidaritzapean. Horregatik maite nau Aitak: neure bizia ematen dudalako, berriro eskuratzeko. Ez dit bizia inork kentzen, Neuk ematen dut neure kabuz. Neure esku dut ematea eta neure esku berriro eskuratzea. Hori da neure Aitagandik hartu dudana agindua».

Jesus kontrolatua dago. Boterea erabiltzeko bere erak ohikoa zenaren beste ertzean kokatzen duela argitu behar du etengabe. Artzain baten eta bere artaldea zaintzeko bere benetako estiloaren irudia azaldu digu. Batetik, banan-banan ezagutuko ditu bere ardiak. Izena jarri die. Ez ditu, ez zenbatzen, ez katalogatzen, ez ekoizpen-bide besterik ez balira bezala erabiltzen. Artzainak bere ardien ibilera eta trosta edo pausua ere bereizten ditu. Beraien marrakan noiz dauden gaizki eta noiz mehatxupearan suma dezake. Bestalde, artzainak beraren artaldeari eraso egiten saiatzen den edozein otsori egingo dio aurre. Beraren ardiak sarraskitu ditzakeen indar baten aurka zuzenean borroka ez daitezen, beraien artean kokatuko da, bizia galtzeko arriskuan jarritz. Horrekin guztiarekin, Jesus edozein buruzagirentzat giltzarri da. Gidatzen dituenek bere bihotza liluratu al dien galdetzen du. Botere orok argitu behar duen oinarrizko alderdia da: ea errai enpatikoz horniturik dagoen. Zeren, hala balitz, liderrak berehala sumatuko luke lidergoa ez duela jada bere baitakoa. Bere ardurapean daudenekiko duen maitasuna da lidergoa.

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama,
1541-04-22an Lagundia Erromak onartua izana gogoratuz.
San Sotero, 13. aita santua. San Apeles, aitorlea

Apostoluen Eginak liburutik 11, 1-18: Jentilei ere eman die Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. **Sal 41:** Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Egi-egiaz diotsuet: Artegian, atetik ez, baino beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; ardi bakoitzari bere izenaz deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Ardi guztiak atera ondoren, aurretik joaten zaie eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ez baitute ezagutzen», Jesusek adibide hau eman zien, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Orduan, honela azaldu zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Ni naiz ardien atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Ni naiz atea. Ate honetatik sartzen dena onik izango da, lasai sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez doa artaldera ostu, hil eta hondatzera baizik; Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz, bizia ugari izan dezaten».

Artegitik kanpo, lapurrek, otsoek eta interesa duten beste artzain batzuek mehatxu egiten dute. Ardiak ezin dira horrelako arriskuen aurrean, besterik gabe, utzi. Beraien artzaina da larre segurura joateko aukera emango diena. Jesusek bi ñabardurekin ematen du horren lekukotasuna. Lehenik eta behin, artegiak ate bakarra du. Hau da, benetako bizitza ez da irisgarria beste aukera edo alternatiba batzuen bidez. Irteera bakar hori, artzainaren ahots ezagunak adierazia, aurkitzeko bereizmena da gezurrezko amets eta amarru artean egindako betiko gogoeta espirituala. Bigarrenik, artegiaren inguruko

Pazkoaldiko 4. astea

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama,
1541-04-22an Lagundia Erromak onartua izana gogoratzuz.

San Sotero, 13. *aita santua*. San Apeles, *aitorlea*

mehatxua ez da erabatekoa. Bada segurua den bide batera daraman ate bat: bizitzak, bera ukatzen duen ororen aurrean, badu bere aukera.

* * *

Maria, Jesusen Lagundiaren ama

Judit 15, 8-12.14; 16, 2-3: Zu zara Jerusalemen aintza, Israelen harrotasunik handiena, gure herriaren ohore bikaina. **Sal: Judit 16:** Kantu berria kantatuko diot ene Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 20B-23.

Jainkoaren aingerua ametsetan azaldu eta esan zion: «Daviden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk «Jesus» ezarriko diozu izena, horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin: «Begira, birjinak sabelean sortu / eta semea izango du, / eta Emmanuel ezarriko diote izena, / hau da: “Jainkoa gurekin”».

Ebanjelio nagusi denaren ondoan, berarekin kateatuta, bada bere bidea egiten duen beste ebanjelio bat. Bigarren hau Ebanjelio nagusiaren hondoa antzeko zerbait da. Bigarren ebanjelio horrek kontatzen duen kontakizuna ez da lehen planoan ageri dena bezain jarraikia. Sekuentzia edo pasadizo jakin batzuetan soilik bihurtzen da ageriko. Baina azalpen hauetan erraz antzematen dugu bi ebanjelioen artean lotura bat egon dela. Logika sakon baten harira kateatzen dira, Jesusen patuaren logikaren harira. Beste ebanjelio hori Mariaz ari da: beraren bizitzaz, beraren bilakaera giza espiritual propioaz eta bere semeari jarraitzeak beragan hartu duen zehaztasunaz: semea beti handiagoa den Jainko bezala azaltzen baitzaio, Jainkoa bezalako eta

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama,
1541-04-22an Lagundia Erromak onartua izana gogoratuz.
San Sotero, 13. aita santua. San Apeles, aitorlea

berau bezalako bakarrik izan nahi duena bezalako. Maria Jainkoaren eskuetan jarri da eta beragan oinarritzkoena denak haren graziaz blaitua izan behar duela ulertu du. Maria protagonista duen ebanjelioa Jainkoari bihotz-bihotzez eman dion baietzarekin hasi da. Horrela, Mariak Jainkoari bere bizitzan esku hartzeko aukera ematen dio, Jainkoak berak erabakitzen duen norabidea emateko. Bere erdigunea uzten dio Jainkoak bete dezan. Egun batean, «Niregan bizi den Aita da bere salbamen-ekintza burutzen ari dena» (Jn 14, 10) aitortuz, Jainkoarengan guztiz finkatuta dagoela baieztatuko duenaren ama izango da.



Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz,
bizia ugari izan dezaten.

Pazkoaldiko 4. astea
San Jorje, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 11, 19-26: Jentilei ere Jesus Jaunaren Berri Ona iragartzen hasi ziren. **Sal 86:** Goretsazue Jauna, nazio guztiok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 22-30.

Aldi hartan, tenpluaren sagarapen-jaiak ospatzen ziren Jerusalemen. Negua zen. Jesus tenpluan zebilen, Salomonen aterpean. Inguratu zuten juduek eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzu zalantzan? Zu bazara Mesias, esaguzu argi eta garbi». Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik neure Aitaren izenean egiten ditudan egintzek ematen dute nire alde testigantza; zuek, ordea, ez duzue sinesten, nire ardietakoak ez zaretelako. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko. Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

Gobernantza benetan gizatartzaileen beharra duen gaur egungo testuinguruan, Jesusen aginpide kontzeptua adierazten duten hitz zehatz labur batzuk eskaintzen dizkigu gaur liturgiak. “Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate” dio Jesusek; esaldi honekin aginpidearen zerbitzu alderdia azpimarratu du. Ebanjelioak pertsonalizatu eta lotura sortzen du. Eta horrek esan nahi du ezen benetako lidergo badira, beraietan geure izenak entzuten ditugulako direla.

Apostoluen Eginak liburutik 12, 24-13, 5a: Bereizi niretzat Bernabe eta Saulo. Sal 66: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 44-50.

Aldi hartan, Jesusek oihu eginez esan zuen: «Nigan sinesten duenak, nigan ez ezik, Ni bidali nauenagan ere sinesten du. Eta Ni ikusten nauenak Ni bidali nauena ere ikusten du. Ni argi izateko etorri naiz mundura, nigan sinesten duen inor ilunpean geldu ez dadin. Nire hitzak entzun bai, baina betetzen ez dituenak, ez dut Nik gaitzesten, ez baina mundua gaitzestera etorri, mundua salbatzera baizik. Ni ukatu eta nire hitzak onartzen ez dituenak badu nork gaitzetsi; Nik adierazitako hitzak berak gaitzetsiko du azken egunean; Nik ez baitut neure kabuz hitz egin, baizik eta bidali nauen Aitak agindu dit zer esan eta zer irakatsi. Eta badakit haren aginduak betiko bizia ematen duela. Horrela, bada, Nik esaten dudana, Aitak agindu bezala esaten dut».

Arazoa zuzena denean, emandako konpromisoari saldukeria egiteak min handia eragiten du. Jasaten duenarentzat bakardade krudela bihurtzen da. Jesusek Golgota baino askoz lehenago bizi izan zuen. Sostenguak alde batera uztera eta gaiak berak ematen dion argi hutsez ibiltzera eragin dio. Bere baitatik bizitzen, eta ez besteen baitan egoten, ikasi du. Bere urratsak ez ditu egingo txalotzen dituen inongo taldetxoak bultzaturik. Leial izan behar du pentsatzen duenarekiko; askoz gehiago, sentitzen duenarekiko. Baina fideltasun horretan badaki besteen desleialtasuna azaleratu egingo dela, beren absolutuei loturik bizi direla ikusiko da. Agian, Jesusek xede ederren gizon-emakume heroiak ditu gogoan; aurrera egin nahi badute, euren amets gaizki ulertuek ematen dieten baieztapen isilean bizi beharko dute. Horrekin, nahikoa izan beharko lukete.

Pazkoaldiko 4. astea
SAN MARKOS, EBANJELARIA

San Pedroren 1. gutunetik 5, 5b-14.

Senide maiteok: Izan zaitezte denok apalak zeuen harremanetan, Jainkoak harroei aurre egiten baitie; apalei, berriz, onginahia azaltzen. Beheratu zaitezte, beraz, eta jarri Jainko ahaltsuaren eskumenean, bere garaian gora zaitzaten. Utzi Jainkoaren esku zeuen kezka guztiak, bera baita zuetaz arduratzen. Izan zaitezte neurritsu eta egon erne; zuen etsaia, deabrua, zuen inguruan dabil, goseak dagoen lehoia bezala, nor irentsiko. Egiozue aurre, sinesmenean sendo, jakinik mundu zabalean diren beste senideak ere zuenak bezalako sufrimenduak jasaten ari direla. Eta pixka batean sufritu ondoren, dohain guztien emaille den Jainkoak, Kristoren bidez betiko bere aintzara deitu zaituztenak, bizkortuko zaituzte, sendo egingo eta finko ezarriko. Berari dagokio indarra menderen mendetan. Amen. Anaia leialtzat daukadan Silvanoren eskuz idatzi dizuet gutun labur hau, zuei adore eman eta Jainkoaren benetako dohaina zein den adierazteko asmoz. Iraun sendo dohain horretan. Babilonia honetan bizi den eta zuek bezalaxe Jainkoak aukeratua den eliz elkarte honek agurtzen zaituzte, baita nire seme Markosek ere. Agurtu elkar, senideen maitasun-laztanaz. Bakea Kristorenak zareten guztioi.

Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut beti eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoan izan zen eta

Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Igokundea, Kristoren Pazko misterioaren azken unea; Elizaren bizitza historian zehar zehaztuko duen aginduaren abagunea da: «Zoazte mundu guztira...». XXI. mendeko fededunentzat, «mundua» hitzak ahoskatu bezain pronto sortzen diren konnotazio ugari ditu. Horietarik batzuk negatiboak dira. Kofi Annanek, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi ohiak, esan zuen, bere karguan gehien harritu zuena gizakiek elkarri eragiten zioten mina zela. «Mundu» horretara joan egin behar da. Hori da Berri Ona. «Mundua» ez dago ebazpenerako prest. Beraren azken zoria gaitzespen izatetik urrun dago. Jainkoaren eskuinaldean esertzen den Kristok gizadiaren orainarekin konprometitzea eskatzen du. Ebanjelioak ez du gaizkiaren aurrean amore ematen. Berari aurpegia eman eta ongiatz konbentzitzeko bideak proposatzen ditu. Gurutziltzatua dugu anai-arreba arteko solidaritatean sartzeko atea, maitasun-etzak gizaki izatearen poztasuna kendu izan zaienekin. Horrela, bizi-arrasto ikusgarri bat utziko dugu: «deabruek» alde egingo dute, «hizkuntza berriak» erabiliko ditugu komunikatzeko, «pozo hilgarri» guztiekiko babesa izango da, gaixotasunak gainbehera egingo du. «Munduaren» alde gure deklarazioa da: heriotzaren aurkako bizitzarena.

Pazkoaldiko 4. astea

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea

San Paulok 1 Korintoarrei gutunetik 2, 1-10: Zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarri dadin. Sal 118: Argi da zure hitza, Jauna, nire oinentzako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik. Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

Teologia onean, gizaki bakoitzak du bere ekarpenik. Denok gara salbamenaren historian protagonista. Jainkoak nahi duen bizitzaren testuan denok idazten dugu hitz bat. Denok parte hartzen dugu ezerk ordezkatzeko ezin duen zerbaitekin. Fedea da eman behar dugun hori agerian uzten duen bidea. Ez da uniformea, anitza baizik; ez da une batekoa, etengabea baizik. Gure bokazioari dagokion ekarpena da. Ebanjelioa, beraz, lehenik eta behin, geure barnera garamatzan prozesua da; horrela aurkitzen dugu *geure zertarakoa*; ondoren, kanporantz garamatzan prozesua da: horrela biziartzten dugu mundua, «gatz» eta «argi» izanez. Baina geure gaitz eta argi ditugu: Jainkoak guztion onerako gure eskuetan jarri dituenak.

San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*
 Maria Antonia Bandres, *dohatsua (Tolosan 1896-1919), birjina*
 San Pedro Chanel, *apaiza, marista eta martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 13, 44-52: Jentilengana joko dugu. Sal 97:
 Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita?”. Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Benetako maitasunak egun batean barnean pauso bat atzera egitera gonbidatzen du. Orduan gertatzen da hori: jabetu zarenean baduzula zeure baitan besteentzat funtsezkoa den zerbait, eta partekatu beharrekoa duzula. Besteen zoriona dago jokoan, ez zurea. Momentu horrek barrua agerian uzten digu. Une horretan bizi gaituen dohainak zeharka gintzake eta, azkenean, gugandik irten, besteengana heltzeko. Jada ezerk ez dio geldiarazten gure baitan... Desberdintasunak desberdintasun, Jesusen askatasunak, beragan bizi zen Aita islatzeko adinako handia izan behar zuen. Jesusen lanak jada ez ziren berarenak. Beraren Aitarenak ziren, guztiz agerikoak, Semeak ez zituelako estaltzen: benetako maitasunak atzera pauso hori emana zuen.

Pazkoaldiko 5. astea

San Prudentzio, gotzaina

(Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria)

Apostoluen Eginak liburutik 9, 26-31.

Egun haietan, Saulo, Jerusalemera iritsi zenean, ikasleekin elkartu nahian zebilen; baina beldurra zioten denek, ez baitzuten sinesten benetan ikasle zela. Orduan, Bernabek Saulo berekin hartu eta apostoluei aurkeztu zien. Kontatu zien nola ikusi zuen Saulok Damaskora bidean Jauna, nola mintzatu zitzaion Jauna eta nolako ausardiaz hitz egin zuen Damaskon Jesusen izenaz. Ordutik, apostoluekin batera ibili ohi zen Saulo Jerusalemen, Jaunaren izenaz ausardiaz hitz eginez. Greko-hizkuntzako juduekin ere hizketan eta eztabaidan jarduten zuen; baina hauek Saulo hiltzeko asmotan zebiltzan. Senideek, hori jakitean, Zesareara eraman zuten eta handik TartSORa bidali. Eliz elkarteak bakean bizi zen Judea osoan, Galilean eta Samarian; Jaunaganako leialtasunean bizi zen, eta eraikiz eta ugalduz zihoan, Espiritu Santuagandiko adoreari esker

Sal 21: Jauna, zugana nire gorespena batzar nagusian.

San Joanen 1 gutunetik 3, 18-24.

Ene seme-alabok, ez dezagula hitzez eta ahoz maita, egitez eta egiaz baizik. Horrela jakingo dugu egiarenak garelak, eta lasaituko dugu geure barrua Jainkoaren aurrean; gure barruak errudun garelak esaten badigu ere, gure barrua baino handiagoa da Jainkoa, eta dena ezagutzen du. Ene maiteok, barruak errudun garelak esaten ez badigu, uste osoa dugu Jainkoagan. Eskatu ahala guztia hartzen dugu Jainkoagandik, haren aginduak betetzen baititugu eta hari atsegin zaiona egiten. Eta hau da haren agindua: haren Seme Jesu Kristoren izenean sinetsi eta elkar maita dezagula, hark agindu zigun bezala. Haren aginduak betetzen dituen Jainkoagan dago eta Jainkoa harenagan. Honela dakigu gurekin dagoela: eman digun Espirituaren bidez.

Pazkoaldiko 5. astea

San Prudentzio, gotzaina

(Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria)

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete. Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute. Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Jesusek, bere nekaldiaren aurretik, behin eta berriz agertu zuen jarraitzen ziotenekin zuen batasuna. Nigan egon/zuengan egon aditza erabiliz, bera ikasleengan eta ikasleak Beragan irauteko era erradikala adierazten du. Gaudela diogunean, guregan oinarritzkoa ez den hura bigarren maila batean uzten dugula eta garen hura besteen zerbitzuan jartzen dugula esan nahi dugu. Iraun, orduan bakarrik egin dezakegu: garen hartatik eta dugun harekin gaudenean bakarrik. Horregatik, batzuek besteengan irauteko hitza ematen dugula esatean, esan nahi dugu, gu erabat berenak gaituztela. Jesusek guban irauten duela berresten du; hori, bere ikasleekin duen oinarritzko lotura ezerगतik ez dela sekula etengo ziurtatzea da. Mahasti bateko aihenak dira harreman honen irudi bizi. Jesusen hitzek bera joan ondoren sortuko den etsipena baztertu nahi dute. Izan ere gertatu zen, azken batean Nekaldian inork ez zuela ezer egin gurutziltzatua izango zenaren alde. Ezer ez egitea nagusi izan zen. Alderantziz, ikasleak bata bestearengandik ez zirela erabat aldendu sumatzea kontsolagarri izan zen. Nolabait, beraz, egon ziren, iraun zuten. Hori nahikoa zen guk baino askoz lehenago iraute hori egitea erabaki zuenarentzat.

Pazkoaldiko 5. astea

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(Europako Zaindaria)

San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 1, 5-2, 2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argi da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpetan baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argitan bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan. Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitarean aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

Sal 102: Bedeinka beza nire arimak Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik. Zatozte nigana nekatu eta zamatuz guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Pazkoaldiko 5. astea

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(Europako Zaindaria)

Ebanjelioak, xumetasunez begiratzen duenarentzat, mundua ez dela batere iluna ohartarazten du. «Gizon-emakume xumeek» den bezala atzematen dute eta gauzak deskorapilatu egiten ditu. Hori lortzeko, konfiantza izaten dute beren sekretua. Konfiantzan janaritzen denak bakarrik eragiten digu garen bezala azaltzeko beldurra galtzera. Horrela, behar duguna ere adierazten dugu. Otoitza berez jaiotzen da orduan. «Jende xumeak» ez du inolako erreparorik izaten begiak altxatu eta denok zaintzen gaituen Jainkoarekin solasean aritzeko. Ezin izan da bestela: sorkari mugatuen Jauna da bera; hala ere, direna izaten uzten dielako, oso eskerturik daude sorkariak.

* * *

Ez bizi gainzamatuturik

Zugana nator arnasa-premia dudalako
eta konfiantza zure maisu- eta adiskide-hitzean:
Etorri nigana zamatu guztiok,
beharrezko atsedenez gozatzen ez dakizuenok.
Eguneroko bizitzan emadazu, Jauna, bakea,
betiko eskaintza den berpiztu horren bakea.
Eguneroko zalapartan
erakutsi iezadazu bare bizitzen.
Ez nadila larritu, ez nadila estutu,
ez nadila lur joa gelditu, ez nadila erre.
Ez nadila beharturik sentitu eramatera
bizkarra makurtzen duen zama edo uztarria

(Ulibarri Fl.)

Pazkoaldiko 5. astea

San Pio V.a, 225. *aita santua*

Santa Sofia, *birjina eta martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 14, 19-28: Jainkoak beraien bidez egindako guztia azaldu zioten elkarteari. **Sal 144:** Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 27-31a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez beldur izan. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita. Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen. Ez dut jadanik luze hitz egingo zuekin, bai baitator mundu honetako buruzagia. Horrek ez du nire gain ahalmenik; baina munduak jakin behar du Nik maite dudala Aita eta Aitaren agindua bete egiten dudala».

Azken afariaz bere ikuspegia agertzean, Joan oso interesatuta dago Jesusek bere etorkizuneko absentzia nola hitz egiten duen jasotzeaz: laster gertatuko den heriotzak, ikasleen artean ukatuak, ekarriko du absentzia hori. Beraien maisuak badaki beren jarraipenean erronka berri baten aurrean aurkituko direla. Beraren hutsunea gainditzeko, eskatzen die ez dezatela jo beldurrez bizitzera. Ebanjelioaren borroka heriotza-egoeran gertatuko da, baina ez da izango hori azken hitza. «Mundu honetako buruzagiak» gurutze-zigorra erabakiko du eta Golgotan jarriko dio hitzordua Jainkoaren Semeari. Baina hori gertatzen denerako prestatu nahi ditu Jesusek bere ikasleak, «sinesten» jarrai dezaten. Fedean bihurtzen da absentzia hori benetako presentzia: beste «bake» baten zaporea duen presentzia, non heriotza oro azkenean hil egiten baita.



MAIATZA / ORRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Erlijiosa, erlijioso eta apaizgaien heziketaren alde: Egin dezagun otoitz erlijiosa, erlijioso eta apaizgaiak, ebanjelioaren testigu sinesgarriak izatera eramango dituen heziketa gizakoia, pastoral, espirituala eta elkartekoaren bitartez beren bokazio bidean hazi daitezen.

Pazkoaldiko 5. astea

SAN JOSE LANGILEA (Meza berezia, ikus beherago)

Apostoluen Eginak gutunetik 15, 1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzia argitzera.
Sal 121: Goazen pozik Jaunaren etxera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete. Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute. Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Nahitaez, beharrezkoa izaten dugu sostengu-puntu bat, esku adiskide bat, hitz hurbil bat. Eta askotan; han eta hemen; lehen eta gero. Ez gara nahikoa geu bakarrik, eguneroko bizitzaren eragin mingarria jasateko. Titanak kondaira mitikoen parte dira, eta ez gure eguneroko mundukoak. Arrazoi askorengatik, bidez nahiz bidegabe, zauriak eragiten dituen gizateriaren kide zaurgarri gara. Horixe berresten du bizitzak etengabe. Baina hori ere jasangarria dugu, norbaitenak garela eta norbait horrengan irauten dugunaren ziurtasuna baldin badugu. Horrek bakarrik zuzenesten du eta bultzatzen gaitu Ebanjelioa proposatzeko eskaintzen den bizia. Jesusek, mahasti bateko aihenetan izerdia nola zihoan begiratzen zuen bitartean, ikasleak honen jakitun izatea nahi izan zuen.

SAN JOSEREN JAIKO MEZA

Hasiera liburutik 1, 26-2, 3.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak». Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabilzan pitzia guztiak». Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurraren azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabilzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen. Honela, burutuak gelditu ziren zero-lurrak eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen. Jainkoak bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean bere kreazio-lan guztitik.

Sal 89: Sendotu ezazu, Jauna, gure eskuen lana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, eta irakasten hasi zen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, ba, arotzaren semea? Ez al da Maria honen ama, eta Santiago, Jose, Judas eta Simon honen anaiak? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean

Pazkoaldiko 5. astea
SAN JOSE LANGILEA

bizi? Nondik du, beraz, hori guztia?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta ezin izan zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

Jose, arotza

2005eko maiatzaren 1ean, eta lehen aldiz bere aitasantutza-aldian, Vatikanoko leihora atera zen Benedikto XVI.a, Joan Paulo II.aren ohiturari jarraituz. Eta, noski, San Joseri buruz hitz egin zuen: «Gaur maiatza hasten dugu, kristau-herrian ongi errotutako ospakizun liturgiko batekin, San Jose Langilearenarekin. Eta dakizuenez, ni ere Jose deitzen naiz. Pio XII.a Aita Santuak ezarri zuen oroitzapen-egun hau, duela berrogeita hamar urte; lanaren garrantzia nabarmentzeko, hain zuzen, eta baita Kristoren eta Elizaren garrantzia ere langileen munduan. Gaurko gizartean ere beharrezkoa da «lanaren ebanjelioaren» testigantza egitea, Joan Paulo II.ak Laborem exercens bere entziklikan aipatu bezala. Desio dut inoiz lanik ez falta izatea, gazteek batez ere, eta lan-baldintzak izan daitezela gero eta errespetu handiagokoak pertsonentzat». «Joseren bizitza osoa hartzen du “arotza” tituluak. Lana izan zen Nazareteko bere Familiari izan zion maitasuna adierazteko eguneroko bidea. Jesus ere esaneko izan zen, Joseren lanean parte hartuz, eta ezagutu ere «arotzaren semetzat» ezagutzen zuten» (Benedikto XVI.a).

Pazkoaldiko 5. Astea

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*San Felix, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 15, 7-21: Ene iritziz, ez zaie alferreko oztoporik ezarri behar Jainkoagana bihurtzen diren jentilei. **Sal 95:** Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 9-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala. Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin».

Norbait maite dugula esaten dugunean, gure bizitza noraino ematera iritsi gaitezke? Ematen dugun erantzuna, geure biografiaren bidez, batez ere, barneratu ditugun ereduaren arabera izango da. Baina gizon-emakume guztiengan zer den berdina jakitea erraza da: maitatzen ikasi dugun bezala maitatzen dugu... Jesusek bere jatorrira jotzen du bere buruaren eskaintza deskribatzeko eta bermatzeko. Bere Aitagandik bereganatu duen maitasunaren arabera maite du. Maitasun horrek Aitarengan irautera eragiten dio, baina baita, era berean, bere ikasleekin geratzera ere. Elkartasun gero eta handiago batean zabalduz doan maitasuna da; esperientzia dutenen gozamenerako, elkartasun honetan, berau esperimendatzeko dutenen pozerako, bizia dario. Beste guztia ez-aski izango da azken muturreraino maitatzen ez den bitartean. Honela bete izango da poza. Jesusek gehituko du, berak Aitarengan sumatzen duena bezalakoa...

Pazkoaldiko 5. astea

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 1-8.

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten. Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera —horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere—; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei. Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

Sal 18: Lurbira guztira zabaldu da haien hotsa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 6-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita?”. Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet,

Pazkoaldiko 5. astea

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*

Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

«**N**i naiz bidea, egia, eta bizia». Ez genuke arinegi utzi behar alde batera, Jesusek bere ikasleei bere nortasuna adierazteko aukeratu duen bidea. Bidea, egia, bizia: kadentzia hori ez da zerrendatze estandar bat. Gudan pixkanaka emango den aurkikuntza dela gogoratu nahi digu Jesusek. Aurkikuntza horren amaierara iristea, posible izango dugu Ebanjelioaren muina atzematea, hau da, beraren Pazkoak bakarrik eman dezakeen bizia. Berarekiko gure esperientzian gertatzen dena argitzeko Jesusek darabilen ordenan dago gakoa. Egia da bizira daramala, soilik bide baten barruan kokatzen badugu: denboran barna elkarrekin kateatzen diren bata bestearen segidako une jarraikietan, gero eta gehiago irekitzen direnak sakontasun handiago baterantz. Alferrik da aurea hartzea. Ez dugu presaka aritu behar. Etapak erretzen baditugu ez dugu asmatuko. Bizia besarkatzera lagunduko digun egia bide horretan agertzen da, ez hortik kanpo. Ez dugu sekula lortuko Jesus behin betiko eta erabat ezagutzea. Egia eta bizia, erronesak dira biak ere. Honekin guztiarekin, Jesus esaten ari zaigu, beharbada, ez diola utziko maisu ibiltari izateari, guretzat ere, ikasleentzat izan zen bezala.

Pazkoaldiko 5. astea

San Jose Maria Rubio, *apaiza, jesuita*

Apostoluen Eginak liburutik 16, 1-10: Zatoz Mazedoniara eta lagun
iezaguzu. **Sal 99:** Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen niri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako. Gogoratu esan nizuen: morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

Sarriegi gertatzen da liderrak sustatzen duena berak ez betetzea eta beraren jokabidea bat ez etortzea besteentzat defendatzen dituen aukerekin. Megafono mediatikotik igortzen dituen mezuak desafinatu egiten dute: balio sinesgarririk ez dute izaten eta proposatzen dituen asmoen benetako konpromisotik urruti egon ohi dira. Horrela, lidergo faltsu horietan izena ematen dutenei, zentzuari dagokionez zauri sakona eragiten zaie. Horregatik, ez da harritzekoa, Jesusek berari jarraitzearen gogortasunaz kezkatu ohartaraztea bere ikasleak. Euren etorkizuna ez da urrun ibiliko beraien Maisuak lehenago jasan izan duen oinazetik. Sinesten dutena beherapenik gabe haragitu behar dute. Ebanjelioa ez da utopia abstraktu eder bat. Bizi bihurtu behar du...: gure bizi.

Pazkoaldiko 6. astea

Santa Felizisima, *martiria*Santa Irene, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 10, 25-26. 34-35. 44-48.

Egun hartan, Pedro sartzera zihoala, Kornelio bidera atera zitzaion eta oinetan ahuspeztu. Baina Pedrok zutiarazi zuen, esanez: «Altxa zaitez, gizaki hutsa naiz ni ere». Orduan, honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herrikakoa dela ere». Artean Pedro hizketan ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen hitza entzuten ari ziren guztien gainera. Pedrorekin etorritako fededun juduak txunditurik zeuden Espiritu Santuaren dohaina jentilen gainera ere jaisten zela ikustean. Izan ere, hizketa arrotzez hitz egiten eta Jainkoa handiesten entzuten zieten. Orduan, esan zuen Pedrok: «Uka al diezaieke inork Bataioko ura, guk bezala Espiritu Santua hartu duten hauei?». Eta Jesu Kristoren izenean bataia zitzatela agindu zuen. Ondoren, egun batzuetan bertan gelditzeko eskatu zioten Pedrori.

Sal 97: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.

San Joanen 1 gutunetik Jn 4, 7-10.

Seme-alaba maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoagandik baitator, eta maite duen guztia Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna baita. Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Honetan datza maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatean, baizik eta hark gu maite izatean, eta bere Semea gure bekatuen barkamen-oparizat bidali izatean

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean

Pazkoaldiko 6. astea

Santa Felizisima, *martiria*Santa Irene, *martiria*

iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala. Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Jesusek badaki maitasuna anbibalentea dela. Bera baino hoberik ez horren testigantza egiteko. Hala ere, Azken Afaria izan zuen Jesusek, zalantzarik gabe, Erreinuko gakoa maitasuna dela aldarrikatzeko unea. Azken agur-afari hura maitasuna ez beste zerbaitez hitz egiteko aproposagoa izango zen, askoz ere: desleialtasunak eta saldukeriak hartua zuten lekua mahaian. Jesusek, aldiz, ezohiko indarrez eskatu du han maitasuna. Maitasuna da postu-mailak marraztea eragozten duena. Maitasunean ez dago «zerbitzaririk». Eta lortzen badu, honengatik da: giza gatazkak konpontzeko indarkeriara jotzen ez duelako, berau irtenbide eraginkortzat harturik. Gauza jakina da: bortizkeriak, azkenean, menperatu eta apaldu, hautsi eta banandu egiten du. Halako desbideratze hori Jesusek eskatzen duen maitasunak nahi duenaren antipodetan dago. Ebanjelioak anai-arrebatzearen, are gehiago adiskidetzearen, etengabeko dinamika gisa uler daitekeen maitasuna eskatzen du. Jesus, «nire adiskideak zarete» ebatzi duenean, Errebelazioaren muina laburbiltzen ari da ziurrenik: Jainkoa, buru-belarri, giza harremanez osaturiko mundu bat sortu eta birsortzeko ahaleginean ari dela. Beraz, maitatzea ez da aukera bat, agindu bat baizik: Jainkoaren seme-alaben bizimodua da. Eta, jada, hemen ezin da anbibalentziarik eman.

Pazkoaldiko 6. astea

Domingo Savio santua, *aitorlea*
San Luzio, *profeta eta doktorea*

Apostoluen Eginak liburutik 16, 11-15: Jaunak bihotza ireki zion, Pauloren hitzak gogoz onar zitzan. **Sal 149:** Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 6-16, 4a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Laguntzailea, jatorria Aitagan duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitagandik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete. Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute, ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean esana nizuela gogora dezazuen».

Hasierako kristautasunak bizikide izan zuen pertsekuzioa. Zenbait mende igaro ondoren bakarrik lortu zuten kristauek gizarteak aintzat hartu izatea. Beste erronka batzuk iritsiko ziren segidan. Baina Elizaren talde-oroitzapenean, martirioaren estimuak indarrean jarraitu zuen fedea agertzeko era apartekotzat. Jesusek aurre-esana zuen Ebanjelioak, bere lehen urratsetan, gizartean zabaltzeko izango zituen eragozpenak. Hala guztiz, Espirituak datozen zailtasunen aurrean ez du beharpenik negoziatuko. Soil-soilik Jesusen «testigantza emango duen» «Egiaren Espiritua» izango da. Uko egin behar zaio mezua gutxiesteari, faltsutzen duen guztiari amore emateari eta eskaskeria hautatzeari. Eta, hala ere, arrisku gune horretan bizi behar dugun arren, Espiritua geure benetako «Laguntzailea» izango dugu.

Pazkoaldiko 6. astea

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*San Juvenal, *martiria*San Benedikto II.a, *aita santua*

Apostoluen Eginak Liburutik 16, 22-34: Sinetsi Jesus Jaunagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeokak. **Sal 137:** Zeure eskuinez salbatzen nauzu, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali ninduen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galdetzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza. Hala ere, egia diotsuet: hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet. Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua bekatuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nazue gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

«**M**undu honetako Buruzagia jadanik gaitzetsia dago». Batek nahiko luke gaitzespen hau planetako mila lekutan aldarrikatzea, non botere desgizatiartzailleen jabe direnek nahi dutena egiten baitute. Aski izango litzateke aipatu gaitzespen hori munduan nagusi diren sistema egozentrikoen sarrera nagusian zintzilikatzea. Jakina, mezuaren hitz bat ez zen sinetsiko, eta mezu-ekarlea mespretxatua izango litzateke, beraren xalotasunagatik. Mundu honetako Buruzagia konbentziturik dago ez duela bera inork ere auzitara eramango, beraren bekatuak indargabetua duelako zuzentasun-nahi guztia. Hala ere, Jesusek dio jadanik epaia emana dela: gaizkiak ez duela oinarririk finkatzeko. Historiak berretsi egin du esaldi hori: beraien eta beraien jarraitzaileen haridurarako, boteretsuek ezin lortu izan dute berek sortutako zuzengabekeria... eta beraien gaiztakeriaz beraz armaturik agertu diren beste batzuen saldukeriak eraman izan ditu hiltzera.

Pazkoaldiko 6. astea
Antiguako Andre Maria
Santa Dominga, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 17, 15.22-18, 1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik. **Sal 148:** Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egiaren Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu. Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

Joanek, lerro hauetan, Mendekoste zer izango den iragarri du. Espirituaren gertaera hura izan zenetik, ez da fededunik Jesusengandik aldendua sentituko denik: ez beraren hitzei dagokienez, ez beraren ekintzei dagokienez. Mendekoste Berpiztua barneratzeko aukera izan zen. Ez du gehiago alde egingo, gure barnean baitago. Espirituak Ebanjelioa lausoa ez, baizik zehatza izatea dakar; iraganeko historia ez, baizik indarrean den oraingoa: amestuko genukeen adibide huts bat ez, baizik eta norberaren askatasunerako egungo gida; jende gutxi batzuen esperientzia bezala interpretatua ez, baizik eta edozein kulturatan eta hizkuntzatan komunika daitekeen bultzada gisa hartzekoa. Espiritua dela medio, Jesusek denbora eta leku zehatz batekoa izateari utzi dio, misterioski garai guztietakoa eta leku guztietakoa izateko.

Apostoluen Eginak liburutik 18, 1-8: Haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean, eta sinagogan eztabaidan jarduten zuen. **Sal 97:** Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro». Ikasleetako batzuek hau zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”, eta “Aitagana noa”? Zer esan nahi ote du horrako “gutxi barru” horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den». Konturatu zen Jesus galdegin nahi ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”. Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da».

Joan ebanjelariak oparo bete du, edukiari eta formari dagokienez, Jesusen etorkizuneko absentziaren hutsunea. Indar berriko presentzia izango da, non Espirituak gure kontzientziarekin etengabeko elkarriketan jardungo duen, Ebanjelioa eguneratuz. Injustiziaren aurrean errebeldia eragingo du eta gaizkiaren aurrean saldukeriarik eza,aldi berean zerbitzurako irudimena eta anai-arreba artekotasunerako bideak sustatuko dituelarik. Sustapen hori indarrean den bitartean, Espirituak gure zauriak gozaten ditu, geure baitatik ateratzen gaitu eta elkartean txertatzen. Bizitza ahalatasun desberdineko historia bezala irakurtzeko ahalbidea ematen du; izan ere, adiskidetasunerako eta elkartasunerako adimena lorarazten du. Orduan begi-bistako gauza izango da Jesusek bere absentziarako hain zorrotz agindu duena: «Zuen tristura poz bilakatuko da».

Pazkoaldiko 6. astea

San Joan Avilakoa, *apaiza*San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*

Apostoluen Eginak liburutik 18, 9-18: Nire herri izango den jende asko dut Nik hiri honetan. **Sal 46:** Jainkoa da mundu osoaren errege.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 20-23a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da. Emakumea, erditzerakoan, triste egon ohi da, ordua etorri zaiolako; haurra izan ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, munduari gizaki bat jaio zaiolako pozik. Zuek ere triste zaudete orain; baina agertuko natzaizue berriro, eta poztuko zarete, eta zuen poza ez dizue inork kenduko. Egun hartan ez didazue ezer galdetuko».

Egun batean gerta daiteke bihotzak tristurarik gabe hitz egitea. Minik eman gabe egingo dute, defendatu beharrik gabe. Besterik gabe, aurrez aurre eseri eta elkar maitatuz eta elkar maitatzeko egin zituzten bideak kontatuko dizkiote elkarri. Ez dute inolako erreparorik izango elkarri zauriak eta akatsak kontatzeko, eta ondoren maitatzen nola ikasi zuten zehazten joateko. Ez da epaiketarik izango, soilik zergatik maitatu zuten gaizki ulertuko dute eta nola saiatu ziren hobeto maitatzen... Horixe agintzen die Jesusek bere ikasleei agur esatean. Beraien bihotzak besarkatzen dituen maitasun bakarra sentitzearen poza biziko dute: Aitak eta Semeak beti elkarri agertzen diotena; beraiek ere, aurrez aurre eserita, maitatuz eta elkar maitatuz egin zituzten bideak elkarri kontatuz.

Pazkoaldiko 6. astea

San Jeremias, *profeta*. Santa Susana, *martiria*Domingo Iturrate dohatsua (Dima 1901 - Cuenca 1937),
apaiza, trinitarioa

Apostoluen Eginak liburutik 18, 23-28: Liburu Santuen bidez, Jesus zela Mesias frogatu Apolok. Sal 46: Jainkoa da mundu osoaren errege.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitari zerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin. Orain arte irudi bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua irudi bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodala; zeren Aitak berak maite baitzaituzte, zuek Ni maite izan nauzuelako eta Jainkoagandik etorri naizela sinetsi duzuelako. Aitagandik irten eta mundura etorri nintzen; orain mundua utzi eta Aitagana noa berriro».

Harrigarria da Jesusek nolako irmotasunez agintzen duen Jainkoak gure eskaerak entzungo dituela. Eta harrigarria da, kontrastatzen duelako, hasteko, Jesusen amaiera tragikoarekin. Berarena, itxura batean, Jainkoak eskutik lagatu balu bezala gertatu baitzen. Horregatik, otoitzarekiko zuen sinesmen irmo hori iruzurra dirudi askorentzat. Zer zen, ordea, Jesusek Jainkoari hain tinko eskatzen ziona, otoitza, garaiezina dela sinesteraino, bete zela ikusteko? Agian, Jesusek mundua Erreinuaren dinamikan sar dezakeen bizitza bakarrean parte hartzea besterik ez zion eskatu Jainkoari. Eta bere Semeari beti entzuten dion Aitak bere eskaria aditu zion eta eman egin zion... bizitza gurutziltzatua.

JAUNAREN IGOKUNDEA. Santo Domingo Ozkabartekoa
(de la Calzada, Errioxan), *erlijiosoa*. San Nereo eta San
Akileo, *martiriak*. San Pankrazio, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 1, 1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoa izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzairen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko frogara asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez. Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru». Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?». Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

Sal 46: Oihu alaiaren artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.

San Paulok Efesoarrei 1, 17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua

duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena. Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gainetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gainetik. Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gainetik Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

Jesu Kristoren Ebanjelioaren bukaera San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaiketi agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berri, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jaso izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berri, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Jaunaren Igokundeak zeruaren eta lurraren arteko besarkada marrazten du. Lurra eta zerua elkarrengandik bereizita irudikatzea eragozten digun besarkada da. Igokundea Jesus Piztuari gertatzen zaion hori da; horrek berresten digu –beraren bizitza konkretua, beraren hitzak, gizadiarekiko beraren nahiak, horiek lortzeko egin dituen borrokak, maitatzeko, sufritzeko eta hiltzeko beraren erak– hori guztia, ez gehiago ez gutxiago, zeruaren erdian kokatu dela: Jainkoa bera irudikatzen dugun lekuan, hantxe bertan. Jesusen gizatasun oro Jainkoarengan dago. Hau da, zeruan Nazareteko auzokide bat bizi da,

JAUNAREN IGOKUNDEA. Santo Domingo Ozkabartekoa
(de la Calzada, Errioxan), *erlijiosoa*. San Nereo eta San
Akileo, *martiriak*. San Pankrazio, *martiria*

«arotzaren semea», Galileako eta Judeako irakasle ibiltaria. Lurra goian dago. Gizatasun dugun guztia, azkenik, entzuna, ulertua eta onartua da zeruan. Jainkoak ezagutzen du gure hizkuntza... Baina Igokundeak beste hau ere adierazten digu: Jainkoak guretzat ezezagun bat izateari utzi diola. Bere «misterioa» bere Semeagan agertu digu; hain zuzen ere, esku-lanbideetan trebatua den nazaretarragan. Ez dauka beste hitzik. Ez du beste gertaerarik. Jainkoa da, eta ez beste inor, lurrean egon dena. Gizakiak, horrenbestez, ezagutzen du Jainkoaren hizkuntza.

* * *

Piztuera

Giza bizitza heriotzak du
egiten ulergaitzena,
arrazoi oro gutxi da hemen,
baita ere asmamena;
hala (e)ta ere gure begiok
non dakusaten azkena,
hantxe da pizten sinesmenaren
argi ilun ta gardenena.
Zentzu guztien gainetik dago
piztueraren fedea.
Ulerterraza ez bada ere,
ez da sinesgaitz ordea. Jainkoak ahal du indargabetu
heriotzaren legea;
oinarri hortan sostengatzen da
berpiztez dugun ustea.

(B. Gandiaga. *Arantzazu egutegia* 2023-04-09)
(jarraitzen du)

Pazkoaldiko 7. astea

Zeruko Andre Maria Fatiman agertua
San Andres Huberto Fournet, *apaiza*

Apostoluen Eginak liburutik 19, 1-8: Hartu al zenuten Espiritu Santua, sinetsi zenutenean? **Sal 67:** Munduko erreinuok, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egiten duzula, eta ez irudi bidez. Orain badakigu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorri zarela». Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten duzuela? Hara, badator ordua, hobeki esan, etorria da, nor bere aldetik joanez sakabanatu eta Ni bakarrik utziko nauzuen ordua. Baina Ni ez nago bakarrik, neurekin baitut Aita. Hau esan dizuet, nigan bakea izan dezazuen. Izango duzue larrialdirik munduan; baina izan adore, garaitu dut Nik mundua».

Kristautasunak ez du amets egiten existentzia idilikoetan. Jesusek «borrokak» iragarri ditu. Historia ahaleginen eszenatokia da erraztasunena baino gehiago. Gizakiak elkarri mina ematen jarraitzen du. Munduan bada indarrak batu, fede txarrez jokatu, manipulatu, estortsioa egin eta hiltzen duen kaltegilerik. Gehiegizko irrikak, norberekeria eskusiboak, indar desgizatiartzaileak: hauen kopuruak kontaezina izaten jarraitzen du. Golgotak bere garaian agerian utzi zuen «borrokek» gaudituko gaituztela; izan ere asko dira zitalkeria kate jasangaitz baten amaieran dauden atzoko, gaurko eta biharko biktimak. Zalantzarik gabe, kristautasunak ezin amets egin du existentzia idilikoekin, baina ezin da erori ere etsipenean. Jesusek bere buruaz dioenari atxikitzen zaio: «Garaitu dut Nik mundua». Ebanjelioagatik jasandako «borrokek» badute beren emaitza!

Pazkoaldiko 7. astea
San Matias, *apostolua*

Apostoluen Eginak liburutik 1, 15-17. 20-26: Zotz eginik, Matiasi egokitu zitzaion, eta hamaika apostoluekin elkartu zuten. **Sal 112:** Bere herriko handikiekin eserarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala. Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Ebanjelio guztietan bistako ustea da ezen gure barnean badela leku berezi bat anai-arreba artekotasunerako. Hortaz, hura ezagutzeko bertara iristea da gakoa. Dena dela, ez dago geure barnearen erdigunera egiten den bidaia baino zailagorik. Denok dugun eta gure aurpegiaren irudia islatzen digun ispilura iristean, geure nartzisismoan korapilatzeko trikimailuan harrapatuta gera gintezke. Ebanjelioek ispilu hori hankaz gora botatzera gonbidatzen gaituzte. Jainkoa atzean itxaroten dago eta mundurantz eta bere historiarantz oraindik egiteko dagoen beste bide bat erakusten digu: gure anai-arrebak euren erronkei buruz eztabaidan ari diren gunea... Eta frogatua baino gehiago dago: maitasunak, eta Jesusek aipatzen duen maitasunak bakarrik, hautsi ditzake hain bereziak diren ispiluak.

Apostoluen Eginak liburutik 20, 28-38: Jainkoaren eskuetan uzten zaituztet; hark badu ahalmen eraikitzeko eta oinordekotza emateko. **Sal 67:** Munduko erreinuok, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz Zeuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen Gu Geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, Nik zaindu ditut zeure izenean eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu behar zuena baizik; horrela, Liburu Santuek diotena bete da. Orain, ordea, zugana noa. Oraindik munduan nagoela esaten dut hau guztia, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan dezaten. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaratzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egiaren bidez».

«**M**undua», Joanen ebanjelioan, bihotza mugatzen eta berekoi bihurtzen duen edozein dinamika da. Itxaropenari gakoak kentzen dizkio eta gizakiaren maitasun ezari aurre egiteko beharrezkoa den sormena osten dio. Mundutasuna korrosiboa da, doakotasunaren zentzua galtzea eragiten baitu. Bakea lortzeko bideak bilatzea oztopatzen du. Heriotzaren mila eta bat bertsioren aldeko apustua egitera zirikatzen du. Horregatik, Ebanjelioak proposatzen duen eginkizuna, «munduan» biziaren irudimena txertatzea da. Gakoa ez da mundua kondenatzea, baizik eta maitasuna konponbidearen osagaia, osagai garrantzitsuen, delakoaz konbentzitzea. Elizak, azken batean, «munduan» fede-taupada izateko eginkizuna du; Jainkoagan sinesten ez duelako eta, batez ere, beregan sinesten ez duelako, lur jota dagoen «munduan».

San Mikel Garikoitz (1797-1863), *apaiza, fundatzailea*
(Betharramgo Jesusen Bihotzaren Apaizen Elkarte
*[Betharramdarrak])**

Apostoluen Eginak liburutik 22, 30; 23, 6-11: Erroman ere nire testigu izan behar duzu. **Sal 15:** Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu nirekin eta Ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere. Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten. Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

Besteek, begiratzeko eta entzuten gaituztenean, ez dute begiratzeko edo entzuten guk egiten eta esaten duguna. Ez dira jartzen gure xehetasunei begira, baizik eta gure xehetasunek zein jatorri-iturri dutenari begira. Besteei eragiten diena geure barruan duguna da, ez kanpoan duguna: gure benetako asmoen aberria. Nondik esaten eta

* San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita*
 San Ubaldo, *martiria*
 Santa Gema Galgani, *birjina*

Pazkoaldiko 7. astea

San Mikel Garikoitz (1797-1863), *apaiza, fundatzailea*
(Betharramgo Jesusen Bihotzaren Apaizen Elkartea
*[Betharramdarrak])**

egiten dugun hori gure lehen maitasuna da. Jesus asko kezkatzen zen beraren ekintzak eta hitzak berarenak bezala hartuko zirenaz. Beraren ekintzak eta hitzak beraren lehen maitasuna zen leku batetik zetozen: Jainko handiago batengandik, ekintza eta hitzetan izugarri aberatsa zen harengandik, denak beraren errukiari lotuak zirela: erruki ikasgarri eta entzungarria benetan begiratu eta entzun nahi dutenentzat.

* * *

Piztuera (jarraipena)

Zugan sinesten dugunez gero
 baita Zure ahalmenean,
 bizien Jainko Bizia zara
 eman diguzun hitzean.
 Zeure partaide egin gaituzu
 Zeure Bizitza berean,
 ez dezakezu Zeurerik utzi
 heriotzaren menpean.
 Bizitzaz mintzo bai zatzaizkigu
 Berri Onaren Berritan,
 dudaz jotako gure zentzuek
 atsedene dute Zubaitan [sic];
 Zeugan ba dugu itxaropena
 Zeure botere handitan,
 aleluiari zabalik gaude
 Piztu Denaren argitan.

*(B. Gandiaga, Arantzazu egutegia,
 2023-04-10)*

* San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita*
 San Ubaldo, *martiria*
 Santa Gema Galgani, *birjina*

Apostoluen Eginak liburutik 25, 13-21: Hila den eta Paulok bizi dela dioen Jesus. Sal 102: Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 15-19.

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin gosaldu ondoren, esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?». Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak». Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?». Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak». Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?». Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Benebenetan diotsut: gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu». Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

Galileako aintziran Jesus berpiztuak Pedrorekin izandako elkarrizketak agitzen du gaur gu Eliza izatea. Maisuak inork sekula egon nahi ez duen lekuan jarri zuen bere ikaslea: gure nahia zein ahula den kontzientzian. Pedrok, Jesusekiko zuen adiskidetasunaren sendotasunaz behin eta berriz galdetua izan ondoren, bere bihotzaren zorua hauskorra zela onartu zuen. Baina Jesusek ez zion egotzi nahi bere lagunari gaizki eta gutxi maitatzen zuela. Bere Maisuarekin fidatu zitekeela ziurtatu nahi izan zion. Jesus adieraztera etorri zitzaion ezen hunkitu egiten zutela, bera soilik maitasun hauskor eta iraupen txikiko izanik ere, maitatzen jarraitzen zutenek. Maitasun horiei eskaintzen die Jesusek bere fideltasun guztia. Eta fideltasun hori da, hain zuzen, Pedrorengan Eliza osoa sostengatzen duen zutabea.

Pazkoaldiko 7. astea

San Joan I.a, 53. *aita santua eta martiria*Santa M^a Josefa Sancho Guerra (Gasteiz 1842-Bilbo 1912),
birjina eta fundatzailea

Apostoluen Eginak liburutik 28, 16-20. 30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. **Sal 10:** Zuzenek ikusiko dute, Jauna, zure aurpegia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 20-25.

Aldi hartan, Pedrok, itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen, afarikoan, Jesusen bular gainean jarriarik, «Jauna, nor da salduko zaituena?», galdetu ziona. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?». Jesusek erantzun zion: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri». Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumurrua sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?». Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituen, eta badakigu egiazkoa dela haren testigantza. Beste gauza asko ere egin zuen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste, mundu osoan ere ez lirakekeela sartuko idatz litezkeen liburuak.

Liburutegi bat osatzea pentsatzen denean, gertakari onak kontatzen dituzten liburuen bilduma egitea izan liteke asmoa. Baina zailtasunak asko izango ziren. Ongia ez da izaten normalean eleberrietarako gaia. Nahiago izaten dira hilketa-sailak edota inbidiak eta indarkeriak elikatzen dituzten drama amaigabeak. Eguneroko bizitza bultzatzen duten asmo onen istorio xaloak beti izaten dira galtzaile. Gainera, denboraren poderioz, ondo asko ulertzen da ezin dela liburutegi bat antolatu egiten dugun ongiaz ari diren liburuez. Definizioz, ongiak ihes egiten dio argitaratua izateari. Isiltasuna bezain zuhurra da. Joanek barruntatu zuena, alegia [Jesusek egin zituen gauza onei buruzko] «liburuak ezin kabitu izango zirela mundu osoan», hitz egiteko modu bat izan zen: liburu horiek ez ziren idatziko sekula, ongiaren Jainkoak debekatu egingo baitzuen..., gertatu zen bezala.

Apostoluen Eginak liburutik 2, 1-11.

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala. Bazen egun haietan Jerusalem judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrumba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien. Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarrek, mediarrek eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

Sal 103: Zeure arnasa bidal gugana eta lur-azala berritu, Jauna.

San Paulok 1 Korintoarrei 12, 3b-7. 12-13.

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!». Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak. Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak,

MENDEKOSTE

San Konstantino, *enperadorea*San Eutikio, *martiria*. San Timoteo, *martiria*

gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

NEURTITZA

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zeure argi-izpia. Zatoz, gaixoen aita, zatoz, dohain-emaile, zatoz, bihotzen argi. Poz-emaile bikaina, etxelagun atsegin, sargorian haize fin. Lan artean atsedan, nekean aringarri, malkoetan pozgarri. Bete, argi dohatsu, zintzoen bihotzeko zirrikiturik barnena. Zure laguntza gabe, ez du gizakiak ezer, ez du ezer on denik. Garbi zikin dagoena, busti lehor dagoena, zauriak oro senda. Zurrun dena bigundu, makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu. Zugar uste on duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik. Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betierez betiere. Amen. Aleluia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-23.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihesta erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Mendekoste jaiarekin, ikasleengan nortasun-agiri bat lortzeko bidaia moduko bat hasi da. Espirituaren etorreraren lekuko direnek, beren nortasunaz galdu zutena berreskuratzeko, funtsezkoak diren bata bestearen segidako hainbat aurkikuntza egitera iritsiko dira.

Modu batera edo bestera, aurkikuntza hauek bihotzaren ikuspegia zabaltzen dute eta ezinbesteko jauziak eragiten dituzte euren buruaz duten ikuspegian. Alde batetik, ikasleak beren segurtasun gabeziatik irten eta Kristorekin berraurkitu dira, bera benetan nor den are hobeto ulertzeko. Nazaretarra Jainkoaren Semea da; beraz, Galileakoa ez da ereduzko istorio huts bat, orainaldian gertatzen ari den eraldaketaren hitzaurrea baizik. Bestalde, euren buruarekin berraurkitu dira. Beren bizitza misio gisa ulertu dute. Zentzugabekeria atzean geratu da. Horrela, talde ameslari txiki bat izateari utzi diote garai honetako Eliza bihurtzeko. Azkenik, ikasleak elkarte batean berraurkitu dira. Espirituak «gu» kontzeptua gehituz osatzen du nortasuna. Mendekoste, beharbada, ezagutzen dugun anai-arreba artekotasunaren gertakaririk handiena da. Espirituak besteak beren desberdintasunean eta osagarritasunean onartzen laguntzen digu. Alteritate-gaitasuna sortzen du. Asko eta ezberdinak dira deitutakoak; baina ezberdin eta deitu ugari horiek, lotura sakona dute elkarrekin... Bidaiaren amaiera da: dagoeneko badakigu nor garen.

* * *

Nazaretoko Maria

Hiru maitasun ditut, hiru: Ebanjelioa,
Aberri Handia,
eta emakume baten Bihotz ukitu gabea:
Jainkoaz betea,
hain gurea,
Nazaretoko Maria.

(Pedro Casaldáliga)

Urteko 7. astea

MARIA BIRJINA DOHATSUA, ELIZAREN AMA

San Bernardino Sienakoa, *apaiza, frantziskotarra*

Hasiera liburutik 3, 9-15. 20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?». Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?». Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?». Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut». Eta Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Sal 86: Bai mezu handia zuretzat, Jainkoaren Hiria.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 19, 25-34.

Garai hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!». Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!». Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen. Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen: «Egarri naiz!». Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen: «Bete da dena!». Eta, burua makurtuz,

Urteko 7. astea

MARIA BIRJINA DOHATSUA, ELIZAREN AMA

San Bernardino Sienakoa, *apaiza, frantziskotarra*

azken arnasa eman zuen. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutzil-tzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezu-rrak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako biei; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Maria Jesusen une erabakigarrietan beti ageri da. Gurutzeko Jesusen azken arnasaren une zailenean ere han da. Horrela osatu zuen bere Semearenganako etenik gabeko presentziaren bidaia luzea. Mariak Jesus osoa ezagutu du, Haragi egin denetik beraren Pazkora artekoa. Kristoren bizitza osoaren lekukotasuna Mariagan pertsonifikatu da. Hasieratik bukaerara arte errepasa dezake, baina baita alderantziz ere: amaieratik hasierara. Eman genezake Mariak ondo ulertu dituela Golgotaren eta Betleemen arteko erlazioak; eta, ondorioz, bere Semearen existentzia ikusezinaren eta ikusgai zenaren artekoak ere bai. Horregatik, horra hor Elizaren ama: Mariak denok sinetsi beharko genukeen bezala sinetsi du, eta bitarteko dugu hala izan dadin.

Urteko 7. astea

San Konstantino, *enperadorea*San Eutikio, *martiria*San Timoteo, *martiria*

Santiagoren liburutik 4, 1-10: Eskatu eta hartzen ez baduzue, gaizki eskatzen duzuelako da. **Sal 54:** Jar zaitez jaunaren eskuetan, zure Ongileak dizu eutsiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ika irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hil eta hiru egunera; piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien. Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien eztabaida izan duzue bidean?». Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean. Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria». Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

Noiz ulertuko ote zuten? Jesusek bere buruari galdera hori egin beharra izango zuen, noski; arrakasta eskasa izan baitzuen haiei bere burua ezagutzea emateko ahaleginean. Ogiak eta arrainak ugaltzeak ere ez zion lagundu horretan. Ikasteko moteltasun hori ez zen izan hasiera bateko kontua, baizik eta errepikakorra. Jesusek ez du sumatzen maiz ikasleen laguntzarik. Frustrazioa apurka-apurka areagotzen joango zen. Iritsi ote ziren zeren bila zebilen sumatzera? Galdera era bertsuan planteatzen da gure eguneroko fede-bizitzan: noiz iritsiko ote da garrantzitsua dena argi geratuko zaigun unea? Esperientziak baieztatzen du, denbora luze baten ondoren bakarrik iristen garela ulertzera. Oinarrizkoa aurkitzeko denbora behar izaten da. Albiste txarra da, oso luze jotzen duela horrek. Albiste ona, berriz, oinarrizkoak ez duela presarik eta guk ezagutu zain itxarongo duela. Jesusek bezala: ez zuen sekula jakin noiz ulertuko zuten beraren lagunek, baina hala gertatu arte beraiekin egon zen.

Santiagoren liburutik 4, 13-17: Ez dakizue zuen bizitza zer izango den. Beste hau esan behar zenukete: «Jaunak nahi badu». **Sal 48:** Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 38-40.

Aldi hartan, Joanek esan zion Jesusi: gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa». Baina Jesusek erantzun: «Ez galarazi, ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero Nitaz gaizki esaka jardungo duenik. Zeren gure aurka ez dagoena gure alde baitago».

Ikasleek Ebanjelioaz jabetu nahi luketen zantzuak ematen dituzte. Berri Onaren bitartekari beharrezko eta eraginkor izatea beren buruari egozten-edo hasi dira. Jesusek, berriz, iruzur horretatik irteten lagundu nahi die; adieraziz, espirituzkoa eta mundutarra dela iruzurra, berari jarraitzeko grina sakona eta aitortu gabeko botere-nahia nahasian dituen iruzurra dela. Esklusibarik ez dutela esaten die. Jainkoak modu harrigarrietan sustatzen duela bizia, berek uste dituztenak ez bestelakoetan, berek kalkulatzten dituztenetan baino gehiago guztiz ezustekoetan. Ebanjelioa non, Jainkoa han. Eta hori uste baino egunerokoagoa da, uste baino nabariagoa. Hau da, Jainkoak bizi garen mundu hau mugarik gabe berritzen jarraitzen duela esaten die Jesusek; behingoz sinets dezatela eskatzen die ikasleei.

Urteko 7. astea

JESU KRISTO GURE JAUNA,
BETIEREKO APAIZ NAGUSIASan Desiderio, *gotzaina*. Santa Almerinda, *martiria*

Jeremias Profetaren liburutik 31, 31-34.

«HARA badator—dio Jaunak—Israel herriarekin eta Juda herriarekin itun berria egingo dudan garaia. Ez da izango, Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean haien arbasoekin egin nuena bezalakoa, haiek hautsi egin baitzuten nire ituna, Ni haien nagusia izan arren, dio Jaunak. Hona hemen etorkizunean Israelekin egingo dudan ituna, dio Jaunak: Barruan ezarriko diet neure legea eta bihotzean idatziko. Ni haien Jainko izango naiz, eta haiek nire herri izango dira. Ez dute elkarri irakatsi beharrik izango, “Ezagutu Jauna” esanez, denek, txiki nahiz handi, ezagutuko bainaute, dio Jaunak; barkatu egingo baitiet gaiztakeria, eta haien bekaturik ez baitut gehiago gogoan izango».

Sal 109: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 14, 22-25

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-eguna zen, Pazko Bildotsa hiltzen zuten eguna, Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hartzazue: hau nire Gorputza da». Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoitza esanez, eman zien, eta denek edan zuten bertatik. Eta esan zien: «Hau nire Odola da, itunaren Odola, askoren alde isuriko dena. Benetan diotsuet: Ez dut gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinuan ardo berria edango dudan eguna arte».

Mesedeak zor izateak gogaitu egiten gaitu. Nahiago izaten dugu geure zorrak kitatu eta inoren menpe ez egon. Baina denborak zuzendu egiten digu ustea, besteen laguntza behar dugula agerian jarritz. Konturatzen gara sustraiak ditugula, opari eman zigutenetik garela garena eta bizitza, gure zainetatik badoa, besteek elikatzen eta sostengatzen dutelako dela. Hori gertatzen denean, onartzen dugu identitatea ematen diguna ez dela norberaren nahikotasuna,

kidetasuna baizik. Jesusek esan zigun beraren bizia guretzat bakarrik izateko pentsatua zegoela. Ez zen ari guk inoiz hartu nahi ez genukeen zor batekin uzteaz. Gure oinak zapaltzen duten zorura begira jarri nahi gintuen: emana den maitasunak eraikitako zorua baita, bertan ibili ahal gaitezen.



Larraitz-eko Ama

Urteko 7. astea

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:
Gesù elizan Erroman.

Santiagoren liburutik 5, 9-12: Ate atean da epailea. **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 1-12.

Aldi hartan, Jesus Judeako mugetan sartu eta Jordan ibaiatz beste aldera igaro zen. Berririo jendetza handia bildu zitzaion eta bera, ohi zuen bezala, irakasten hasi zitzairen. Hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk eta, Jesus zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?». Hark erantzun zien: agindu zizuen horretaz Moisesek?». Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun». Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriatatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak haragi bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, haragi bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banandu». Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du era berean».

Entzun dezagun fariseuen eta Jesusen arteko eztabaida, dibortzioaz, bertatik funtsezkoena hartuz. Eztabaida juridiko bat baino gehiago dago jokoan. Jesusek gure oinarritzko harremanak norantz bideratu behar genituzkeen agertu nahi digu. Harreman horiek gabe, ezinezkoa izaten dugu elkar ulertzea. Jesusek begirada-maila igo egin du eta guk besteekin batzeko ditugun erak berrikusteko eskatzen digu. Beraren oharpena da ezen, Jainkoak kreatu, buruan komunitatea duela kreatu ohi duela. Ez du beste eredurik. Dena harremanetan eta harremanetarako modelatzen du. Horregatik, gure desberdintasunak osagarri bezala ulertu behar ditugu, eta ez lehia bezala edo parasito bezala. Zeregin handi bat dago hor, jakina da beti ez dela arrakastatsua izaten. Nolanahi ere beti dugu geurekin dohaina.

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña
(Kaskante 1847-Burgos 1890), *birjina, fundatzailea*
(*Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak*) *

Santiagoren liburutik 5, 13-20: Indar handia du zintzoaren otoitz suitsuak. **Sal 140:** Nire otoitza izan bedi, Jauna, zure aurrean intsentsua bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 13-16.

Aldi hartan haurrak eramán zizkieten Jesusi, uki zitzaizkien; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, haserretu zen Jesus eta esan zien: «Utzi haurrei Nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena da eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

Jesusek haurrak adinekoen artean jartzen ditu. Eredua gisa aipatzen ditu, Jainkoaren Erreinuaren erraiak ulertzeko irizpide gisa. Ez dira enbarazu. Jainkoak gizateria adoretzeko erabili nahi duen estiloaz eta moduaz jabetzeko, haiek bezalakoa izan behar da. Jende heldua harritzeko ahalmena murriztera eta, oroimena galduz, esker txarrean lokaztera iristen da. Zaurgarritasuna besarkatzeko ukoan galtzen da jende hori. Horregatik, izan ginen haur hari begira jartzea ekintza profetikoa da. Haurrek, inguratzen gaituzten mugak gogoratzen dizkigute. Eta baita helduengan sortzen dutena ere: doako zerbitzugo bat muga horietatik babesteko. Hondo-hondoan, doakotasun hori Kreazioaren joko sakratua da. Eta jolasaz eta jokoez asko dakite haurrek.

* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra*.
San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*.
Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*

Urteko 8. astea

HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*

Deuteronomioa liburutik 4, 32-34. 39-40.

Honela mintzatu zitzaien Moises herriari: «Galdetu antzinako garaiei, zu baino lehenago izandakoei, Jaunak gizakia munduan sortu zuenetik hasita; galdetu ea inoiz horrelakorik gertatu edota entzun izan den munduaren ertz batetik besteraino. Ba ote da herririk, zuk bezala Jainkoa suaren erditik mintzatzen entzun eta bizirik gelditu denik? Izan al da inoiz jainkorik, herri bat beste herri baten menpetik atera eta beretzat hartzen saiatu denik? Ba, horixe egin zuen Jaunak, zuen Jainkoak, zuen begi-bistan Egipton; ezaugarri, mirari eta egintza harrigarri, borrokaren bidez, ahalmen handiz, esku indartsuz eta izua zabalduz askatu zintuzten. Aitortu, beraz, gaur, eta izan beti gogoan Jauna dela Jainkoa, goian zeruan eta behean lurrian; ez da besterik. Bete gaur ematen dizkizudan legeak eta aginduak, zoriotsu izan zaitezten zeu eta zure ondorengo seme-alabak, eta luzaro bizi, Jaunak, zeure Jainkoak, betiko emango dizun lurraldean».

Sal 32: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

San Paulok Erromatarrei 8, 14-17.

Senideok: Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak, horiexek dira Jainkoaren seme-alaba. Zuek ez duzue hartu esklabo egiten zaituzten espiritua, berriz ere beldurrez bizitzera eramango zaituztena; zuek seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!», hots egiten diogu Jainkoari. Espiritu honek berak, gure espirituarekin bat eginez, Jainkoaren seme-alaba garela aitortzen du; eta, seme-alaba bagara, baita oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide; zeren, nekeetan Kristoren kideko baldin bagara, aintzan ere haren kideko izango baikara.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28, 16-20.

Aldi hartan, Hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden. Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: «Aginpide osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz, eta Nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta Ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte».

Izan dira zerua etxe batekin alderatu dutenak. Sarrera nagusia zabalik dago. Altueran ditu leihoak, horietatik argia parrastaka sartzen da. Etxeak maiz bisitatua izan denaren itxura du. Oso abegikorra da. Berehala nabaritzen da ez garela inoiz garaiz kanpo iritsiko. Berandu eta abisatu gabe agertu arren, mahaian beti dago prestatutako lekurik. Sumatzen da, zeure burua engainatu gabe, zure etorrera espero eta nahi zutela, eta erraz egin dezakezula bat zure gonbidatzaileen erritmoarekin. Hirutasun baten egoitza baita. Bertan gure izenak entzuten dira, gure pozak ospatzen eta gure zailtasunak partekatzen dira. Nahiko konfiantza nabari da funtsezkoa denaz hitz egiteko. Aski denbora ematen dizute Jainkoari egiten diozun deiaren oihartzun hirukoitza sentitzeko: antzemateko nola birkreatzen gaituen Aitak; esperimentatzeko nola berreskuratzen gaituen Semeak gudan eta besteengan duen errukiaren indarraz gudan eta besteengan duen errukia dela medio; nabaritzeko nola birmarratzen dituen Espirituak munduaz ditugun ametsak berau eraldatzeko. Zalantzarik gabe, Jainko hirukoitz baten etxea da, bera den bezalakoa izanik, bera den horretan partaide izateko aukera ematen digu: elkarte bedeinkatu bat, non gizadia benetako seme edo alaba sentitzen baita.

Urteko 8. astea

Astelehena

San Agustin Canterburykoa, *gotzaina*

1 Pedroren liburutik 1, 3-9: Maite duzue Jesu Kristo, ikusi ez baduzue ere; eta, harengan sinesten duzuela, esan ezin ahaleko pozez alaitzen zarete. **Sal 110:** Gogoan du beti Jaunak bere ituna.

Jesus Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 17-27.

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?». Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-amak». Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia». Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu Niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahigabez joan, ondasun handien jabe baitzen. Orduan, Jesusek, ingurura begiratzuz, esan zien ikasleei: «Bai nekez direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!». Harriturik utzi zituen honek. Baina Jesusek berriro ere: Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea! Jostorrazaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Ikasleek, gero eta harrituago, elkarri ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?». Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak».

Jesusek adierazi zuen, bere asmoak agerian jarritz: diruak diruagatik, eta soilik diruagatik, neurrigabe nahasten gaitu. Gure barnetasunaren despota da dirua, gure ontasunaren bahitzailea. Eskuzabaltasuna bidegabeki xahutzen du. Gure asmo onenak zapuzten ditu. Harreman leialak zikintzen ditu. Pertsonak tresna bihurtzen

ditu. Jesusek ez zuen mozorrotu nahi izan diru jainkotuak dakartzan arriskuak: Jainkoaren erabateko etsaia dela eta benetako edozein giza maitasunen erabateko etsaia dela uste zuen. Jainkoa eta aberastasuna argi eta garbi bereiziz, bere hatz santuaz marra gorri bat trazatu zuen bihotzaren barnean. Marra gorri horrek gizateria babestu nahi du. Zeharkatzen dugun bakoitzean, bihotza da gogorarazten diguna: Jaun bat bakarrik maite dugu, kreatu gaituena eta inoiz ere gu saldu nahi izango ez gaituena.

* * *

Ezer gutxi dakit zutaz, badakizu.
 Ezer gutxi zure barneaz,
 ezer gutxi zure mozorroez,
 ezer gutxi zure erreakzioez,
 ezer gutxi zure misterio atzeman ezinekoaz
 Egunez egun zu maitatzeko,
 zeu izaten utziko dizut,
 ez diot zure ausardiari trabarik ipiniko
 eta mozkortuko naiz
 zure bizi-iturrietan. Aita / Ama zarenez,
 eutsi bizirik gure bizitzari.
 Seme zarenez,
 eman galdua dugun haurridetasuna.
 Espiritu –urakan eta haizekirri– zarenez,
 bota iezaguzu zeure azken promesa.
 Ezer gutxi dakit zutaz, badakizu.
 Ezer gutxi dakit zutaz,
 besarka nazazu.

(Ulibarri, Fl.)

Urteko 8. astea

San Justo, *gotzaina*San Viktor, *martiria*

1 Pedroren liburutik 1, 10-16: Jainkoak zuentzat prestaturiko dohainaz hitz egin zuten profetek; izan neurritsu eta itxaropentsu. **Sal 97:** Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 28-31.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko». Jesusak erantzun: «Benetan diotsuet: Nigmatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurak uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Jesuentzat ez dago gutxieneko buru-eskaintzarik. Ez du nahi ikasle maneatu edo atondurik. Ebanjelioek aho batez baztertzen dute eskakeria. Baina ez dute ezartzen hori kode etiko inpertsonal batean oinarriturik, baizik eta gizadiari eskainitako bere buru-eskaintzan beherapenik onartzen ez duen Jainkoagan oinarriturik. Lukas da eskaintza honi hitzak jarri dizkiona. Anaia gazteena berreskuratzeak zer esan nahi zuen ez zekien seme nagusiaren aitari esanarazten dizkion hitzak dira. Aitak une horretan familiarekiko eta semearekiko berarekiko harremanak nola ulertzen zituen azaldu zion. Ezerk ez zuen auto-mugatu. Hainbestearino, non aitortzen baitio: «Nirea dudan guztia zeurea duzu» (Lk 15, 31)... Horregatik, Pedrok eta beronen lagunek, «dena» uzten dutenean, aitortu beharra dute Jainkoak egina zuela hori bera lehenago.

1 **Pedroren liburutik 1, 18-25:** Bildots garbi eta akats gabe den Kristoren odol baliotsuaz izan zarete askatuak. **Sal 147:** Jerusalem, ospa ezazu Jauna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 32-45.

Aldi hartan, Jerusalemera bidean gora zihoazen ikasleak, eta Jesus aurretik. Ikasleak txunditurik zeuden, eta jarraitzen ziotenak beldurrez zihoazen. Jesusek Hamabiak berriro beregana bildu, eta zer gertatuko zitzaion adierazten hasi zitzaion: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara, eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute; heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko; hauek iseka egingo diote eta listua botako, zigorkatu eta hil egingo dute; baina handik hiru egunera piztuko da».

Santiagok eta Joane, Zebedeoren semeek, Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna Zuk guri egitea nahi genuke». Jesusek galdetu zien: «Zer nahi duzue, bada, Nik zuei egitea?». Eta haiek: «Eser gaitezela bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean, Zu zeure aintzara iristean». Jesusek esan zien: «Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kaliza mingotsa edateko, edo Nik murgildu behar dudan uretan murgiltzeko?». «Bai, gauza gara!», erantzun zioten. Jesusek, orduan: «Nik edan behar dudan kaliza mingotsa, bai, edango duzue, baita Nik murgildu behar dudan uretan murgilduko ere; baina nire eskuinezkerretan esertze hori ez dago nire esku inori ematea; Jainkoak norentzat duen prestatua, hari emango zaio». Beste hamarrak, hori entzutean, haserre jarri ziren Santiagoren eta Joanen aurka. Jesusek dei egin eta esan zien: «Dakizuenez, herrien buruzagiek mendearen hartzen dituzte herriak eta handikiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar zuen artean. Zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi denen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita zerbitzatua

izatera etorri, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia denen alde ordainsari ematera».

Luzaroan ugazaba indartsuekin amestu izan dugu. Hori gertatzen zitzaion zirko-emanalditik ateratzen ari zen haur hari. Izutu egin zen ikustean ezen berehala bidera irten zitzaion izozki-saltzailea, minutu batzuk lehenago antzezlekuan txalotu zuen mago itzel hura bera zela. Aitari oihu egin zion ezinekoa zela hura. Baina aita gizon hura zirkoaren jabea zela xuxurlatu zion eta, ziur aski, denetik egin beharko zuela bere familiaren negozio eskasa aurrera ateratzeko... Jesusek boterearen gaia ukitzen zuenean, zerbitzuarekin lotu ohi zuen beti. Zerbitzatuz bakarrik izan zintezke gidari. Ez dago beste biderik. Baina hori onartzea ez da gauza erraza. Kontua da, gaur egun baliodun diren gidariren eskasia pairatzen dugula: haur bati izozki kukurutxo bat eskaintzeko eragozpenik ez duten prestidigitadore izugarri horien eskasia.

* * *

Aldea «Gustukoa zaitut-en eta maite zaitut»en artean

Zein da aldea «Gustukoa zaitut eta maite zaitut»en artean? Budak erantzun zuen: «Lore bat gustukoa duzunean, atera egiten duzu soilik, baina lore bat maite duzunean, zaindu egiten duzu eta ureztatu egunero.

Hau ulertzen duenak, ulertzen du bizia».

Urteko 8. astea

San Fernando III.a, *erregea*
Santa Joana Arc-ekoa, *martiria*

1 **Pedroren liburutik 2, 2-5. 9-12:** Errege eta apaiz zarete, nazio santua, deitu zaituzten Jainkoaren egintza bikainak iragar ditzazuen.
Sal 99: Sar zaitezte oihu alaiz Jaunaren aurrera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 46-52.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin eta jendetza handiarekin Jerikotik ateratzean, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazaretarra zela jakitean, deiadarka hasi zen: «Daviden Seme, Jesus, erruki zakizkit!». Askok gogor egiten zion isilarazteko; baina hark areago egiten zuen oihu: «Daviden Seme, erruki zakizkit!». Jesusek gelditu eta itsuari dei egiteko agindu zuen. Deitu zioten, esanez izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik». Bere soingainekoa jaurtiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?». Itsuak erantzun: dezadala, Maisu!». Jesusek esan zion: «Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu». Une berean ikusmena berreskuratu zuen, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

Jerikoko mirariak etsia ez den, lur joa ez den Bartimeo batez hitz egiten digu. Bera dagoen tokitik Jesus pasatzen dela entzutean, «Jainkoaren Semea» oihukatzea bururatzen zaio, Maisuaren identitaterik sakonena asmatuz. Bartimeok hori egitea posible izan bazen, aspalditik hausnartzen ari zelako jende guztiak aipatzen zuen hura. Ezin ikusi zuen arren, ezagutzen zuen! Itsuak barrua argitasunez bete du, eta ez itsutasunaren ilunaz. Azkenean gertatu dena da, Bartimeo ez dela bere sendakuntzaz asebetterik geldo gelditu, baizik eta Jesusen ondoren «bidean» doala. Izan ere, ikusmena berreskuratzeko gogoaren hondon, beste nahi indartsuago bat bizi zuen: ikasle izan nahia.

Urteko 8. astea

Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti. Santa Gertrudis, aitorlea. San Noe Mawaggali, martiria. San Eduardo Cestak (1801-1868), Baiona, apaiza eta fundatzailea

Sofoniasen Profezia liburutik 3, 14-18.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri!

Egin oihu alai, Israel!

Poztu zaitez bihotz-bihotzez,
alaitu, Jerusalem!

Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak.
Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango.

Egun hartan, honela esango diote Jerusalem:

«Ez beldur izan, Sion!

Ez bitez eror zure eskuak!

Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu.

Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala».

Honela dio Jaunak:

Nik bilduko ditut, Jerusalem,

zuregandik urruti, jairik gabe, triste, zeudenak. Bai astuna zure lotsa!

Salmoa: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6: Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.

San Paulok Erromatarrei 12, 9-16b.

Senideok: Zuen maitasuna izan bedi itxurakeriarik gabea. Gorrotatu gaizkia eta eutsi ongiari. Maita ezazue elkar senide onak bezala, ohoratu elkar zeinek gehiago. Izan saiatuak eta ez nagi; izan gogoz gartsu, Jauna zerbitzatzeko beti prest; izan itxaropenean alai, ezbeharrean eraman handiko, otoitzean lehiatsu; lagundu fededunei beren beharretan eta eman gogoz ostatu arrotzei. Bedeinka itzazue erasotzen dizuetenak; bedeinkatu, ez madarikatu. Poztu, pozez daudenekin; egin negar, negarrez daudenekin. Bizi zaitezte elkar ongi hartuz; ez izan handinahi, apalen mailako baizik.

Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti. Santa Gertrudis, aitorlea. San Noe Mawaggali, martiria. San Eduardo Cestak (1801-1868), Baiona, apaiza eta fundatzailea

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!». Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzeman, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Euren amatasuna bitarteko, Mariak eta Elisabetek jada badakite Jainko arduradunak historian esku hartu nahi duela, baina badakite ere, esku-hartze horrek beraien fedea beharko duela beti. Mariak eta Elisabetek Jainkoaren adierazpen zehatz eta berariazkoak eragindako amatasuna bizi izan dute. Joan Bataiatzaileak eta Jesusk baieztatu eta bermatzen dituzten aurrekari sendo eta ezohikoak dituzte. Baina, geroago egiaztatuko dutenez, Joan Bataiatzailea eta Jesus guztiz ezusteko bideetatik daramatzen Jainkoaren askatasuna onartzen ikasi egin beharko dute. Ama izanik, ez diote fededun izateari uzten.

Urteko 8. astea

Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti. Santa Gertrudis, aitorlea. San Noe Mawaggali, martiria. San Eduardo Cestak (1801-1868), Baiona, apaiza eta fundatzailea


Jainkoak aukeratuak izanik, ez dira inoiz beraren jabe izango. Amatasunaren grazia beti izango da fedearen grazia. Hainbeste agindu dien Jainkoak fedeak bakarrik ematen duen argitasunean oinarritzen du bere agintzaria, bere promesa. Hona hemen bi lehengusu maitagarri eta haurdun haien arteko ikustaldiaren oihartzunak dakarkigun mezu paradoxikoa. Gure bizitza, daramagun istorio zehatz eta zirkunstantziaz betea, Jainkoak mundu honetan lehenesten duen aparteko gunea da, bera den bezalakoak izateko. Halere, Jainkoa gure bizitza zehatzetik harago doa. Bertatik abiaturik, gure izatera mugatzen ez diren, baizik eta gu baino handiagoa den Jainkoaganako fedeak irekitako aukeretara garamatza.

* * *

Aita, Aita, Aita

Zure eskuetan jartzen dut ene bizia.
Egin ezazu nitaz nahi duzuna.
Denetarako nago prest.
Eskerrak ematen dizkizut
Dena onartzen dut,
gizadian eta nigan
zure nahia aurrera joanez geroz.
Ez dut beste gogorik, Aita,
ez dut beste nahirik.
Zugan jartzen dut neure bizia.
Eman ematen dizut.
Zure eskuetan jartzen naiz,
Konfiantza guztiz eta neurri gabe
Jartzen naiz zure eskuetan.
Zu baitzara NIRE AITA

(Charles de Foucauld)



Guztion ETXEAREN Zaintzan partaide

EKAINA / BAGILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Euren herritik ihes egiten dutenen alde: Egin dezagun otoitz gerra edo gosetetik ihes egiten duten migratzaileek, arrisku eta gogorkeriaz betetako bidaia egitera behartuek, harrera herrietan onarpena eta bizitzarako aukera berriak aurki ditzaten.

Urteko 8. astea

San Justino, *martiria*

San Judas apostolua liburutik 17, 20b-25: Jainkoak gorde zaitzakete bekatuan erortzetik, eta bere presentzia aintzatsuan akatsik gabe agerrarazi. **Sal 62:** Zure egarriz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11, 27-33.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Jerusalemara etorri ziren berriro. Jesus tenpluan zebilela, apaizburuak, lege-maisuak eta zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez jokatzten duzu horrela? Zeinek eman dizu horretarako aginpidea?». Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuidazue, eta nik ere esango dizuet zein aginpidez jokatzten dudan horrela. Joan Bataiatzaileak Jainkoaren aginduz ala giza aginduz bataiatzen zuen? Erantzun!». Haiek hau zioten beren artean: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badiogu, zergatik ez genion sinetsi esango digu. Baina nola esan giza aginduz ari zela?». Honetarako, jendearen beldur ziren, guztiek egiazko profetatzat baitzuten Joan. Beraz, erantzun zioten: «Ez dakigu». Jesusek, orduan: «Ba, Nik ere ez dizuet esango zein aginpidez jokatzten dudan horrela».

Arrazoiaren enkistatze bihur daiteke ideologia. Hori gertatzen denean, errealitatea ukitzeko azalera galtzen dugu. Ondorioz, pentsamendu ideologiatuari hutsal gertatzen zaio gertaerek diotena; eta ukatu egiten ditu beraren jarrerei eusten dieten premisekin kontraesanean daudenean. Jesusek agerian uzten du aurkariaren norabide faltsu hori, eta ikusarazten die irteerarik gabeko zein barne zulotan dauden. Denbora asko du, gehiegi, Jainkoaren bila ez dabiltzala. Arrazoi osoa dute: «Ez dakigu». Ideologizazioaren hondoan bihotz bat dago bil-bil egina, gezurreranzko bide kaltegarria jotzen duelarik. Eta Maisua gelditu egin da bat-batean jarrera horren aurrean. Jarrera toxikoa da egia erosi ezinari, hots, Ebanjeliori darion maitasun sakonarentzat.

Irteera liburutik 24, 3-8.

Egun haietan, Moisesek Jaunaren hitz eta erabaki guztiak jakinarazi zizkion herriari, eta herri osoak, aho batez, erantzun zion: «Jaunak esandako guztia egingo dugu». Jaunak esandako guztia idatzi zien Moisesek. Biharamunean, goizean goiz jaikirik, aldarea eraiki zuen mendi-oinean, eta hamabi zutarri ipini zituen Israelgo hamabi leinuen izenean. Ondoren, zekorrek hil eta Jaunari erre-oparizat eta elkartasun-oparizat eskaintzeko agindu zien israeldar gazte batzuei. Odolaren erdia hartu eta ontzietan ipini zuen Moisesek, eta beste erdia aldare gainean isuri. Gero, itun-liburua hartu eta herriari irakurri zion. Herriak erantzun zuen: «Obedituko dugu eta beteko Jaunak esandako guztia». Odola hartu eta herriaren gain zirtatu zuen Moisesek, esanez: «Xedapen hauen guztien arabera Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezaugarria da odol hau».

Sal 115: Salbamen-edontzia dut hartuko eta Jaunaren izenari dei egingo.

Hebrearrei egindako gutunetik 9, 11-15.

Senideok: Kristo datozen ondasunen apaiz nagusi bezala agertu da. Bera sartu den santutegia lehengoa baino handiagoa eta bikainagoa da, ez giza eskuz egina, hau da, ez mundu honetakoa. Kristo behin betiko sartu da santutegian, ez akerren eta zezenen odola eskainiz, berea baizik, horrela betiko askatasuna lortu digularik. Beraz, akerren eta zezenen odolak eta erretako behi baten errautsek, kutsaturik daudenen gain zirtatuz, pertsona horiek sagaratzeko indarra baldin badute, kanpotik garbi eginez, zenbatez gehiago Kristoren odolak –betiko Espirituaren bidez bere burua Jainkoari opari garbi eskaini zion harenak– ez du garbituko gure barrua heriotzara daramaten egintzetatik, guk Jainko bizia gurtzeko! Horregatik, Kristo itun berri baten bitarteko da, heriotza dela medio, lehengo itunaren garaian

Urteko 9. astea

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK

San Martzelino, apaiza, eta San Pedro, exorzista, martiriak

egindako hutsegiteak barkatzeko; horrela, agindutako betiko ondarea jaso dezakete Jainkoak deitutakoek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 14, 12-16. 22-26.

Legamiagabeko lehen-eguna zen, pazko-bildotsa hiltzen zuten eguna. Ikasleek galdetu zioten Jesusi: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?». Hark ikasleetako bi bidali zituen, esanez: «Zoazte hirira, eta ur-suila daraman gizon bat aurkituko duzue; jarrai iezaziozue, eta sartuko den etxeko nagusiari esan: «Maisuak galdetzen du non duen ikasleekin pazko-bildotsa jateko tokia». Hark gela handi bat erakutsiko dizue goian, jantzirik eta atondua. Prestatu hantxe behar ditugunak». Joan ziren ikasleak eta, hirira iristean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena, eta pazko-afaria prestatu zuten. Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hartzazue: hau nire Gorputza da». Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoitza esanez, eman zien, eta denek edan zuten bertatik. Eta esan zien: «Hau nire Odola da, itunaren Odola, askoren alde isuriko dena. Benetan diotsuet: Ez dut gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinuan ardo berria edango dudana eguna arte». Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendirantz atera ziren.

Jesusek muga bat zeharkatzen du bere ikasleekin afari berezi honetan. Dударik gabe, azken afaria izan zen. Horrelako gehiagorik ez zen izango. Baina inoiz etengo ez zen presentzia baten hasiera izan zen. Jaunak beraiekin jarraituko zuen. Bere agurrean, denboraren denboran gorde beharreko abentura bat baino gehiago eskaintzen die bere ikasleei, proiektu on edo ideario altruista bat baino zerbait gehiago. Jesusek bere burua eskaintzen die: beraiegan geratuko den zu bezala. Une horretatik aurrera, elkarren artean egotearen gure kontzeptua aldatzen du, gaituz. Jada ez da batzuen, guztion

Urteko 9. astea

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK

San Martzelino, apaiza, eta San Pedro, exorzista, martiriak

baizik. Jada ez dago hemen bakarrik, edonon baizik. Jada ez dago orain bakarrik, baizik eta lehen egon zen eta gero ere egongo da. Ez dago kanpoan, barruan baizik. Dagoeneko ezin izango da berari buruz hitz egin, baizik eta posible izango da berarekin hitz egitea... Azken batean, jada ez da heriotza, bizitza baizik. Jesus bere horretan dirauen zu hori da. Geure buruarekin harremanak ditugun maila berean dago gurekin harremanetan. Deitu egiten digu, lagundu, entzun, indartu, orientatu eta barkatu. Elizak, Corpus Christi-rekin, funtsezko lotura ospatzen du, berarengan bizi baikara eta beragatik baikara!

* * *

Oso garbi dago Elizak ekologiaren errealitate honetan sartu behar ez duela uste dutenak, ez direla Jainkoak gizakiei emandako Sorkuntzaren benetako zentzua ezagutzera iritsi, etorkizuneko belaunaldietan pentsatuz nola ez dugun jokatu behar jakin dezagun.

Etorkizuneko belaunaldiek, etorkizunaz kezkatuta bizi ez bagara, epaitu ahal izango gaituzte. Elizak etorkizuneko belaunaldiei itxaropena sortzeko eginkizuna du, eta hori gure Planetaren etorkizuna ekologia integralean bilatzea duen errealitate honekin egiten da. *(Rafael Cob Mons. Eliz Sare Panamazoniako presidentea).*

Urteko 9. astea

Lwngako San Karlos eta lagunak, *martiriak*

San Pedoren 2. gutunaren hasiera 1, 2-7: Agindutako ondasun baliotsu eta bikainak eman dizkigu, horien bidez Jainkoaren izaieran parte izan dezagun. **Sal 90:** Ene Jainko, zukan dut konfiantza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 1-12.

Aldi hartan, Jesus parabola bidez hitz egiten hasi zitzairen apaizburuei, lege-maisuei eta herriko zaharrei: «Gizon batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu, bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Bere garaian, morroi bat bidali zien nekazariei, mahastiko fruitutik zegokion partea jasotzera; baina haiek morroiari heldu, jo eta esku hutsik bidali zuten. Berrero beste morroi bat bidali zien; hau ere buruan jo eta irainez bete zuten. Beste bat ere bidali zien geroago, eta hil egin zuten. Ondoren, beste asko bidali zizkien, eta batzuk jo eta besteak hil egin zituzten. Bazuen oraindik beste norbait, bere seme maitea, eta huraxe bidali zien azkenik, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk! Hil dezagun eta mahastiaren jabe izango gaituk”. Hartu, hil eta mahastitik kanpora bota zuten. Zer egingo ote du mahasti-jabeak? Joan eta garbitu egingo ditu nekazari horiek, eta mahastia beste batzuen esku utziko. Ez al duzue Liburu Santuetako hura irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri”?». Apaizburu eta herriko zaharrak Jesus atxilotu nahian zebiltzan, ongi jabetu baitziren beraientatik esan zuela parabola hura. Baina jendearen beldurrez, utzi eta alde egin zuten.

Jaunak salbamenaren historia laburbiltzen du parabola polemiko honekin, Jaungoikoaren estilo salbatzaileari buruzko katekesi zaporez. Mahastiaren jabeak bigarren aukerak ematen ditu etengabe. Bestelakoa

Urteko 9. astea

Lwngako San Karlos eta lagunak, *martiriak*

da egiten zaion gaitzaren aurreko berarem erreakzioa. Nahiago du denbora prozesu gisa erabili. Etapak itxiztat ematea saihestu egiten du. Beraren jokabide salbatzailea irekia da. Sintesi honi beste bat gehitzen dio, gaur egun ere, hitzaren liturgiak, San Pedroren bigarren gutunera joz. Jainkoak sakoneko partitura honekin salbatzen du: fedeari bertutea eranstean dio; bertuteari ezagutza; ezagutzari neurritasuna; neurritasunari tinkotasuna; tinkotasunari errukia; errukiari senide-maitasuna; senide-maitasunari karitatea... Berdin da bi sintesietatik zein hobesten den: azken batean, erruki hutsak askatzen gaitu.

* * *

Ene gorputza, ene odola

Hau da ene gorputza.

Ene gorputza, garailea zuen gorputz aintzatsuan.

Ene gorputza, tratu txarrak jasana den zuen gorputz torturatuan.

Ene gorputza, indartsua sasoiko zuen gorputzean.

Ene gorputza, higatua zuen gorputz ajeatuan.

Hau da ene gorputza.

Hau da ene odola.

Ene odola, dirdaitsua zuen odol bizian.

Ene odola, isuria zuen odol isurian.

Ene odola, bizigarria zuen odol berrituan.

En odola, iraindua zuen odol mesprextatuan.

Ene gorputza ogi da: ogi-puska bedeinkatua.

Beste hari bateko irin-gorputza.

Ene odola ardo da: odol eskainia

ardo gozoa bezala. Erreserba berezia.

Hau da ene gorputza. Hau da ene odola.

(Joaquín Suárez)

Urteko 9. astea

San Frantzisko Caracciolo, *fundatzailea*
(Arauzko Klerigo Txikienak)

2 San Pedrok 3, 12-15a. 17-18: Zeru berriak eta lur berria itxaroten ditugu. Sal 89: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 13-17.

Aldi hartan, fariseuen eta Herodesen alderdiko batzuk bidali zizkiten Jesusi, hitzen batean harrapatzeko asmoz. Etorri eta esan zioten: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta ez dizula axolarik inoren zeresanak; Zuk ez diozu gizakiaren itxurari begiratzeko, baizik eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzu. Zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez? Ordaindu behar diogu ala ez?». Baina Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien: «Zergatik zatozkidate zirika? Ekarri txanpon bat, ikusteko». Ekarri zioten, eta Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?». Haiek erantzun: «Zesarrenak». Jesusek, orduan: «Emaiozue Zesarri Zesarrena eta Jainkoari Jainkoarena». Eta txunditurik gelditu ziren.

Fariseuek eta herodestarrek ez diote galdetzen Jesusi, Erromatar Inperioarekin bizitzeko modua aldatzeko duen asmoaz. Erantzun konprometitu baten bila dabilta, dilindan jarri nahi dute Jesus. Horrelakoa izan zen haien azpikeria-prozesua ere Pilatoren aurrean. Gurutzean zintzilikatuko duten salaketa ere «juduen Erregea» zela esaten zuela izan zen, hau da, Erromaren traidorea zela. Baina Jesusek ez du konpromisorik hartu nahi izan bere aurkariak nahi duten bidetik. Beren fedearen aurrean jartzen ditu eta horren araberako ondorioak ateratzeko eskatzen die. Fede horrek Jainkoa bere lekuan jartzea eskatzen du; edozein botere-egituraren gainetik jarritz eta giza bihotzaren erdigunean kokatuz. Hortik aurrera, errazagoa izango da bereiztea zer ezin diogun eman mundu honetako Zesarri, hura guri kentzen saiatu baino lehen.

Urteko 9. astea

San Bonifazio, *beneditarra, gotzaina eta martiria*

San Paulok 2 Timoteori 1, 1-3. 6-12: Indarberri ezazu nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina. Sal 122: Zugana jasotzen ditut, Jauna, begiak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 18-27.

Aldi hartan, saduzear batzuk etorri zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla). Eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia hiltzen bazaio, emaztea seme-alabarik gabe utziz, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Behin batean, baziren zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena alargunarekin ezkondu zen, eta seme-alabarik gabe hil zen; berdin hirugarrena ere. Horrela, zazpiak ondorengorik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, hildakoak piztuko omen direnean, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?». Jesusek erantzun zien: «Ez ote zabiltzate oker, Liburu Santuek dioten hori eta Jainkoaren ahalmena ezagutzen ez dituzuelako? Izan ere, hildakoak piztean, ez da inor ezkonduko; zeruko aingeruak bezala izango dira denak. Gainera, hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Moisesen liburuan, sasia sutan zegoeneko pasartean, Jainkoak berak nola esaten dion: “Ni Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa naiz?”. Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik. Oker zaudete oso».

Zein ona izango litzatekeen dekretatzea gauzak noiz diren benetan iraganak, noiz ez den haiengana itzuli behar, noiz eman daitekeen amaitutzat egin genuena zuzena izan zen ala ez eztabaidatzea. Zein ona izango litzatekeen behingoz orainean sartzea. Izan ere, egin zen guztia eginda dago, baina egiteko dagoena gure zain dago. Zein ona izango litzatekeen gure buruaren arkeologo izateari uztea; existitzen ez denaren edo bestela izan zitekeenaren nostalgiko izateari uztea. Jainkoa ez da hildakoen Jainkoa, biziena baizik. Horrela ezarri zuen Jesusek, bere garaian, guk aldatu ezin dugunak bahitu gaitzan ukatzea. Horregatik, zein ona izango litzatekeen, azken batean, gure oraina bizitzea.

Urteko 9. astea

San Norberto, *gotzaina*San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*

San Paulok 2 Timoteori 2, 8-15: Jaunaren hitza ez dago katez lotua. Harekin hiltzen bagara, harekin biziko gara. **Sal 24:** Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion «Zein da agindu guztietan nagusiena?». Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna, gure Jainkoa, Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa, zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere». Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Ebanjelioaren esanetan, bizitzaren sekretuak ez dauka zerikusirik kosta ahala kosta eta edozein preziotan geure baitan ardazu gaitzan bidetzat hartzeak, Jainkoagandik eta besteengandik urrun den plano batean koka gaitzan bidetzat, alegia. Benetako bizitza goian dago, Jainkoaren ondoan; eta baita behean ere, lagun hurkoaren ondoan. Bien arteko lotura ondo interpretatzen duen bakarra maitasuna da, eta beronek egiten gaitu fededun eta anai-arreba. Jainkoaganako maitasun sakonak zerbitzura bideratzen gaitu; hurkoaganako maitasunaren erradikaltasunak fedearekin erlazionatzen gaitu. Sinetsiz bakarrik zerbitzatzen da egiaz; zerbitzatuz bakarrik sinesten da benetan. Hala dio Jainko haragituak.

Oseasen Profezia liburutik 11, 1.3-4. 8c-9.

Honela mintzo da Jauna: «Israel haurra zela, maite izan nuen; eta Egiptotik dei egin nion neure semeari. Nik erakutsi nion oinez ibiltzen Efraimi, besoetan eraman nuen; hala ere, ez ziren ohartu Nik nituela zaintzen. Amodio-lokarriz erakartzen nituen, maitasun-loturaz: haurtxoa aurpegiraino jasotzen duena bezala nintzen haientzat; makurtu eta jaten ematen nien. Ikaraz jartzen zait bihotza, dardaraz erraiak. Ez diot haserreari pizten utziko; ez dut Efraim berriro hondatuko, Jainkoa bainaiz Ni, ez gizakia, santua Ni zuen artean, eta ez nator haserre-suminez».

Sal: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6: Aterako duzue ura pozik salbamenaren iturrietatik.

San Paulok Efesoarrei 3, 8-12. 14-19.

Senideok: Niri, fededun guztien artean txikiena naizen honi, dohain hau eman dit Jainkoak: Kristoren neurrigabeko aberastasuna jentilei hots egitea, eta guztiei argi adieraztea nola ari den betetzen, Jainkoagan, gauza guztien egileagan, betidanik gordea zegoen asmo ezkutua. Horrela, agerian jartzen zaie orain, Elizaren bitartez, zeruetako aginte eta botereei Jainkoaren era askotako jakinduria, Berak betidanik zuen, eta Kristo Jesus gure Jaunagan burutu duen asmoaren jakinduria. Kristori esker eta beronengan dugun sinesmenaren bitartez ausartzen gara konfiantza osoz Jainkoagana hurbiltzera. Horregatik, belauniko jartzen naiz Aitaren aurrean, bai zeruan eta bai lurrian familia ororen sorburu denaren aurrean, eta hau eskatzen diot: bere aintzaren aberastasunari dagokionez, sendotu zaitzatela bere Espirituaren indarrez, barrutik bizi zaitezten; bizi dadila Kristo zuen bihotzean sinesmenagatik eta izan dadila maitasuna zuen bizitzaren erro eta oinarri. Horrela ulertu ahal izango duzue, fededun guztiekin batera, zein zabal eta luze, zein garai eta sakon den Kristoren maitasuna; ezagutuko duzue jakintza ororen gainetik dagoen maitasun hori, eta, horrela, Jainkoaren betetasunaz beteko zarete.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19, 31-37.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako biei; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren. Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioena, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratuko diote».

Onar dezagun asmatu egin zutela Jesusen Bihotz Sakratuaren debozio kristozentrikoa sustatzean aurrekari izan genituenek. Atentzioa ematen jarraitzen du Jesusenganako debozio honek gehienik nabarmentzen duen gorputz-atala bihotza izateak. Ez da ohikoa historian nabarmentzen diren pertsonaia handiak horrela irudikatzea. Beste agiri batzuekin apaindu ohi dira. Jesus, ordea, ezaugarritzen duen mozorrotu gabeko bihotz horrekin irudikatzen da. Azkeneraino maite du, grina sentitzen du gizadiatz. Jesusen Bihotz Sakratuaren debozioak gogorarazten du, berak ematen digun lehen eta funtsezko inpresioa maitatzeko gaitasuna dela. Ez dago beraren bihotza bezain ezaugarri iradokitzailearik. Hain zuzen ere, beraren bihotza aipatzea nahikoa da Jesus bere osotasunean ulertzeko, bihotz horretatik kanpo gehiagorik ez balego bezala; baina ñabardura batekin: ez gaude soilik bihotz handi baten aurrean. Bihotz Sakratua da, guretzat Jainkoaren misterioa islatzen duena. Jainkoa Jesusek erakusten duen bihotza bezalakoa da: agortezina gudanako bere konpromisoan, bere pazientzia historikoan, erresilientzia-ahalmenean eta azken enpatian. Ezin imajinatu maitasun handiagorik. Horregatik, handia izateaz gain, jainkotiarra da.

Maria Birjina dohatsuaren Bihotz Guztiz Garbia
 San Santiago Berthieu, *apaiza, martiria, jesuita*
 San Maximo, *gotzaina*. San Heraklio, *gotzaina*

San Paulok 2 Timoteo 4, 1-8: Hots egin Berri Ona. Gainean dut mundu honetatik abiatzeko ordua, eta Jaunak garaipenaren koroa emango dit. **Sal 70:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 41-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatutik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!». Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?». Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Babes eske joan ohi gara Mariagana. Hala ere, Jesusek berari uzteko eskatzen dio bere misioa jarraitzen. Askatasun hori bere semeak bizi eta garatu dezan onartzean datza Mariaren handitasuna. Mariaren historia ez da Jesusen bizi-bidea etengabe geldiaraziko lukeen ama batena. Mariak argi du bere semeak familiaren borondateari baino helburu handiago bati erantzun behar diola, eta hazkunde-prozesu hori amaieraraino laguntzen jakin zuen. Beraz, Mariari eskatu beharko genioke gu babesteko, baina, aldi berean, gure bokazioa adoretzeko. Funtsean, Jesus haurra, Jerusalemen, gurasoei esaten ari da bizitza Jainkoaren borondatea bilatzean eta aurkitzean datzala. Eta horretan ez zen inoiz galdu, bete-betean asmatu baitzuen jada.

Urteko 10. asteaSan Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea*San Jose Antxietakoa, *apaiza**(Brasilen apostolu), martiria, jesuita***Hasiera liburutik 3, 9-15.**

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?». Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?». Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: egin duzu?». Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut». Eta Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Sal 129: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.**San Paulok 2 Korintoarrei 4, 13-5, 1.**

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta honen ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere askorengan ugal dadin, Jainkoaren aintzarako. Horregatik, ez dugu kemena galtzen Gure gorputza hondatzen ari bada ere, barrutik indarberritzen ari gara egunetik egunera. Izan ere, oraingo gure nekeek, une batekoak eta arinak izanik, betikoa den aintza paregabea prestatzen digute. Geure begiak ez ditugu ipintzen ikusten diren gauzetan, ikusten ez direnetan baizik; ikusten direnak behin-behinekoak baitira; ikusten ez direnak,

berriz, behin betikoak. Jakin badakigu, mundu honetan bizileku dugun oihal-etxola hau hondatzen bazaigu ere, badugula zeruan betiko bizilekua, Jainkoak prestatua, ez giza eskuz egina.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 20-35.

Aldi hartan, Jesus etxera itzuli zen bere ikasleekin. Berriro ere jendetza handia bildu zen, eta ezin zuten otordurik ere egin Jesusek eta ikasleek. Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramateko asmotan etorri ziren, burutik egina zegoela esaten baitzuten. Jerusalemdik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beeltzebul dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak». Jesusek beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola bota dezake Satanasek Satanas? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik baldin badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor sartu indartsu baten etxean lapurretara, aldez aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak. Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango; errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei erantzun zien hau. Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila». Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?». Eta, inguruan eserita zituenei begiratu, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama»

Urteko 10. astea

San Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea*San Jose Antxietakoa, *apaiza**(Brasilen apostolu), martiria, jesuita*

Egun batean ulertzen duzu itxuraz bereizten gaituen gauza bakarra, horixe dela: asmo txarreko fikzioa. Egun batean ulertzen duzu gauza berdintsua dela eskatzea gauza espezifikoa, historia propioa, familia-klana, tribua, lagun-talde eksklusiboa, ideologia partekatua eta gu ez garelako besteak delako hori. Egun batean ulertzen duzu horrek guztiak ez duela sostengurik, eta horma eta muga iraganezinak dituen paisaia batetik beste batera pasa daitekeela, non bideak posible diren, ibaiek ezker-eskuin ureztatzen duten destajuan, eta alanbre-hesiek ez duten haizea geldiarazten. Egun batean ulertzen duzu hori benetakoa eta agerikoa dela, den-denok benetan gizaki garelako esaten duzun unetik, lur bera zapalduz, lur berean biziz, aire bera arnastuz... Horrelako zerbait bizitzen denean, erraz ateratzen zaizkizu Jesusen hitzak: «Hauek dira nire ama eta nire neba-arrebak. Jainkoaren nahia betetzen dutenak dira nire haurrideak eta nire ama». Egun horretan harrituta geratzen zara zenbat gauzak batzen gaituen ikusita. Hainbeste dira, ezen, azkenean, gizateria osoa zure familia dela iruditzen baitzaizu.



Lore eta erleak, bedeinka ezazue Jauna.

Urteko 10. astea
San Alexandro, *gotzaina*

Erregeak 1 liburutik 17, 1-6: Zerbitzari du Elias Israelen Jainkoak.
Sal 120: Gure laguntza Jaunaren izena, zeru-lurren egilearena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten: «Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko. Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan. Zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten».

Dohatsuek beren burua izaki gisa aitortzen dute. Indarkeria merezi duen edozein helburu lortzeko bide okerra dela ulertzen dute. Ez ditu inolako ezpata eskutan hartzeko tentaldiak gainditzen. Pobreak eta umilak, bake-langileak eta zuzentasunagatik pertsegituak direlako, Jainkoak ez du haientzat sekreturik. Harekin bizi dira beraren Erreinuaren jabekide gisa. Zauriek ez diete minik ematen eta, horregatik, ez dute mendekurik edo duelurik eskatzen. Barkamenak gidatzen du haien denbora: konpondu gabeko iraganetik aske, oraina bizitzeko aukera ematen die horrek. Gatazketan justizia dute aholku-iturri maitasun-eza apaltzeko. Beraien giza harremanetan errukiak berekoikeriari aurre hartzen dio. Eta zailtasunik gabe onartzen dute doakotasunak gidatuak izatea. Laburbilduz, dohatsuek hain asmo zuzena dute, non beti aurkitzen baitute Jainkoa... ezkututzen duela dirudien guztiaren atzean.

Urteko 10. astea
SAN BERNABE APOSTOLUA

Apostoluen Eginak liburutik 11, 21b-26; 13, 1-3.

Egun haietan, asko bihurtu ziren Jaunagana eta fededun egin. Jerusalemgo eliz elkarteak honen guztiaren berri jakin zuelarik, Bernabe bidali zuen Antiokiara. Poztu zen hara iritsi eta Jainkoak bere onginahiaz haien artean egina ikusi zuenean, eta bihotz-bihotzez Jaunarekiko leial irauteko adore ematen zien guztiei; Bernabe gizon ona baitzen, eta Espiritu Santuaz eta sinesmenez betea, jendetza handia elkartu zitzaion Jaunari. Handik Tarsora joan zen Bernabe Sauloren bila eta, aurkitu zuenean, Antiokiara eraman zuen. Urtebete osoa eman zuten elkarrekin lanean eliz elkarte hartan, jende askori irakasten. Hain zuzen, Antiokian eman zieten ikasleei lehenengoz «kristau» izena. Bazen Antiokiako eliz elkartearen zenbait profeta eta irakasle: hala nola, Bernabe, Simeon –izengoitiz Beltza–, Luzio zirenaikarra, Manaen –umetan Herodes erregearekin batera hazia– eta Saulo. Behin, barau egunez, Jaunaren kultu-ospakizun batean zeudela, Espiritu Santuak esan zien: «Bereizi nireztat Bernabe eta Saulo, Nik dei egin diedan egitekorako». Orduan, barau eta otoitz egin ondoren, haiei eskuak buruan ezarri eta bidali egin zituzten.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 7-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa. Edozein herritan nahiz auzotan sartzen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeakoak duin badira,

hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira».

Bernabe gogoratzen dugu gaur eta, horrekin batera, apostoluen bizimodua jartzen dugu berriro geure begi aurrean. Tradizioak esan zuen Bernabek bere ondasunak entregatu zituela, bizimodu hori bere gain hartzeko. Lehen ikasleak bezala, Bernabe desbabestu egiten da, Jainkoaren babesean bakarrik elikatutako existentzia pertsonala bizitzeko. Kontrol hori galtzea bizimodu apostolikorako baldintza da. Segurtasunik eza bidelagun izango da eta, batez ere, espirituaren erakusgarri. Mateoren ikuspegitik, segurtasun-falta horrek ez du interpretaziorik onartzen. Diru-apur bat ere ezin da izan apostoluaren ekipamenduaren parte. Ebanjelioa, beste behin ere, paradoxaz beterik ageri da: gure bizitza eskaintzeak eskatzen duen maitasunak emango digu segurtasuna.

* * *

Jaun bizia,
gure otoitza xumea izanik ere,
uste osoz zure bila gabiltza.
Eta zure maitasunak,
gure ezbai eta zalantza guztien artean,
bide bat zabaltzen digu.

(Roger Anaia, Taizé-koa)

Urteko 10. astea

San Joan Sahagungoa, *apaiza*. Santa Paula Frassinetti,
fundatzailea (Santa Dorotearen ahizpak).
San Onofre, *ermitaua*

Erregeak 1 liburutik 18, 20-39: Ikus dezala herri honek, Jauna, Zuzarela Jainkoa, eta Zuk itzularaziko diozula bihotza Zeuregana.

Sal 15: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator Zugana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letzarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte. Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Berriro ere, Legea Jesusen aurkako eztabaidagaia da. Beraren ikuspegitik, Legeak ez du errealitatea mugatzen; soilik, zertarako sortua izan den, hura izateko eskatzen dio. Ez du zuzendu bakarrik egiten, aurrerantz bultzatu ere bultzatzen du eta haztera eragiten du. Legea muga da, baina mugagabe dena eskuratzea errazteko. Legearen helmuga osotasuna da. Jesusen ustez, kreaioa garatzen ari da, Jaungoikoak izatea nahi duen norabidean. Hori posible da, Jainkoa errukia delako: barkamenaren bidez, gaizkiak hautsitako etorkizunerako bidea desblokeatu egiten du beti. Legeak borondate hori adierazten du. Hor dago Jesusek duen desadostasun erradikala fariseuen teologiarekiko: honek, funtsean, Legearen oinarrian dagoen Jainko errukitsua itzali egiten du.

Erregeak 1 liburutik 18, 41-46: Eliasek otoitz egin, eta zeruak euria egin zuen. **Sal 64:** Oi Jainko, gorespena zor zaizu Sionen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 20-26.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da. Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia. Konpon zaitetz lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Iritzi arrunta da munduak urteak daramatzala haustura sakonean. Joan zen globalizazioaren erromantizismoa. Orain ez dugu hainbeste sinesten horretan. Ugari dira gaur egun nahiago duten gizarteak: autodefentsa, ezaguna den hura eta norberarena kontrolatzea. Horregatik, oso egoki datorkigu Jesusek adiskidetzea azpimarratzeko duen modua. Ez da gutxieneke direnekin konformatzen, ezta politikoki zuzena denaren epelkeriarekin ere. Barkamena bizitzaren magma da. Erlazioak berregiten eta berlotzen ditu, eta etendako historiak berrezartzen. Barkamena giza balentria espiritual handia da. Jesusek uste du gainera, garrantzitsuagoa dela hori «zure eskaintza aldarearen gainean jartzea» baino. Berradiskidetzean, Jainkoa goretsi eta guztiz adoratu egiten dugu, bere kreaturak berriz elkartzen ari direlako.

Urteko 10. astea
San Eliseo, *profeta*

Erregeak 1 liburutik 19, 9a. 11-16: Zauze zutik mendian, Jaunaren aurrean. Sal 26: Zure aurpegi bila nabil, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 27-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begiratzen dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean. Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino. Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat– adulteriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egiten du».

Mendiko Sermoiak Jesusen funtsezko irakaspen asko biltzen ditu. Horieta ez gutxitan, gure bizikidetzari ezarri nahi dion berritasunaren erradikaltasuna antzematen da. Gure desioen jatorrira hurbilduz egiten du. Geure buruarekiko zintzotasuna eskatzen du, eta bereziki gardenak izatea gure asmoekin eta horiek gauzatzeko moduarekin. Hantxe, ernatzen hasten diren une beretik egon beharko lukete maitasunarekin lerrokatuta. Horrela ez balitz, beraietara itzuli beharko genuke, berriro modelatzeko eta Ebanjelioak adierazten duen benetako senidetasuna emateko. Gizakoitasunaren eta gizakoitasun-ezaren arteko eguneroko gudu zatarraren hasiera erabakigarria, gure barruko isiltasun ikaragarrian gertatzen da.

Erregeak 1 liburutik 19, 19-21: Eliseok jaiki eta Eliasi jarraitu zion.

Sal 15: Zu zara, Jauna, nire ondarea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurragatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihurtu. Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoagandik dator».

Zuek nahikoa duzue bai edo ez esatea. Jesusek iruzur-usteei eta gogo handiustekoei hegoak mozten dizkien mundua aldarrikatzen du. Baiezko eta ezezko nabariak daude mundu horretan. Bertan zeure egia propio eta bakarraren bidean ibil daiteke. Hain engainurik gabeko mundua izango litzateke, ezen berehala nabarmenduko baitzinateke gehiegikeriarik egin badituzu, gezurrik esaten baduzu eta egia ez den horren gainean negoziatzen hasten bazara. Baietz edo ezetz esateaz poztea, zintotasunezko programa pertsonala eta soziala da; horrek lagunduko liguke geure idealen altuera zehatza aurkitzen. Amets horren gauzarik politena hau izango litzateke: berez ez dela aparteko pertsonentzakoa. Zeuk ikus zenezake gauzatua, egiaz zaren hura egiaz izatea erabakitzen duzun unetik.

Urteko 11. astea

Santa Justina, *martiria*San Bernabe, *monjea*

Ezekielen Profezia liburutik 17, 22-24.

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Zedro garaiazen adaburutik hartuko dut Nik ere, kimu bat hartuko dut haren adar-puntatik, eta mendi garai eta bikain batean landatuko. Israelgo mendi garaian landatuko dut; adarrak zabalduko ditu eta fruitua emango, zedro bikain bihurtuko. Mota guztietako hegaztiak biziko dira bertan eta habia egingo haren itzalpean. Basoko zuhaitz guztiek jakingo dute Nik, Jaunak, zuhaitz garaia beheratu eta txikia goratu egiten dudala, zuhaitz hezea ihartu eta iharra heze-berritu. Nik, Jaunak, esandakoa bete egingo dut».

Sal 91: Bai ederra, Jauna, Zu gorestea!

San Paulok 2 Korintoarrei 5 6-10.

Senideok: Uste onez beteak gaude beti, jakinik, gorputz honetan bizi garen bitartean, Jaunagandik erbesteratuak gaudela. Sinesmenaren argiak gidatzen gaitu, eta ez ikusten dugunak. Uste onez gaude, bai, baina nahiago genuke gorputz honetatik erbesteratuak izan, Jaunarekin bizitzera joateko. Nolanahi ere, gorputzean nahiz gorputzetik kanpo, Jaunari atsegingarri izaten ahalegintzen gara; guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, nork bere ordaina hartzeko, gorputzean bizi zelarik egindako ongiaren ala gaizkiaren arabera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua gizonak lurrean hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura lo nahiz iratzarriarik egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten da, hark nola ez dakiela. Lurrak berez ematen du fruitua: lehenengo landarea, gero galburua eta, azkenik, alea galburua betean. Eta garaia heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uztaroa da eta». Beste hau ere esan

Urteko 11. astea

Santa Justina, *martiria*San Bernabe, *monjea*

zien: «Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurrean ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak, txoriek habia egiten baitute haren itzalpean». Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zien Jesusek mezua, haiek ulertzeko eran. Ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik; baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zien.

Txikia denarekin adiskidetzera gonbidatzen gaitu Nazareten luzaro bizi eta gero Jerusalemgo murru artean sartu zen Kristogan sinesteak.. Ziape edo mostaza haziaren irudia irmoegia da gaizki interpretatu ahal izateko. Jesusek konformismoan eror ez gaitzen darabil irudi hori. Ondo ez doanaren eta okerrago joan daitekeenaren dimentsioak etsigarriak dira. Oso erraza da hori egiaztatzea kalte egin dezakeen guztia arineketan zabaltzen duen mundu globalizatu batean. Baina, hala eta guztiz ere, Jesusek maitasun bereziz begiratzen dio txikitasunaren potentzialtasunari: hazirik txikiena barazkirik handiena izatera iristen da. Ebanjelioaren eraldaketa behetik gorakoa da. Txikienaren esparru estuan gehienerako edo handienerako aukera dago. Beraz, gauero kontatu beharko genituzke izarrak, loak hartzen gaituen arte. Ez genuke jakingo zenbat ditugun erregistraturik. Kopuruak galdu egingo genituzke. Baina ez genuke saiatu gabe utzi beharko, lortzea ezinezkoa den arren. Eta, hain zuzen ere, bakea eragingo liguke bere sekretua adierazten digun gu baino askoz handiagorik badagoela xuxurlatzeak: bere infinitua ez da kalkulaezina. Gurea bezalako mundu finituez egina dago, non txikia handi bihur daitekeen.

Urteko 11. astea

Santa Valeriana, *martiria*

San Inozentzio, *martiria*

Erregeak 1 liburutik 21, 1-16: Nabot harrikatu egin zuten hil arte.

Sal 5: Egin jaramon, Jauna, nire intziriari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 538-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailan jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

Maitatzea eta asko zerbitzatzea baino zerbait gehiago eskatzera dator Ebanjelioa. Jesusek bultzatzen duen eraldaketak kuantitatiboa bakarrik ez den beste bide batetik egiten du aurrera. Beste era batera maitatu eta zerbitzatu behar da. Beste modu berri hori, egiten eta esaten digutenaren ordaina edo korrespondentzia huts izatearen aurka doa. Beste maila batean kokatzen da gure erantzuna, hau da, doakotasunean. Doakotasunez jokatzeko talioaren legetik aske jokatzeko mundua agertzea ahalbidetzen dugu orduan, non errebantxa baztertu egiten den, eskuzabaltasunak gobernatzen duen eta mugarik gabeko elkartasuna praktikatzeko den. Ebanjelioak iragartzen digu ezen bizia emanez bakarrik bizi gintezkeela, eta ez asko emanez, baizik eta dena emanez.

Urteko 11. astea

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*
San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*

Erregeak 1 liburutik 21, 17-29: Israel bekatura eraman duzu. Sal 50:
Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Zenbat erratu izan dugun hainbat urtetan perfektuak izatearenaren inguruan. Zenbat min jasanak!, pentsatuz, perfekzio horren azpian zegoena bere baitan ezintasuna zuen ideal bat zela; ahuleziak, errakuntzak, ahultasun moralak eta hausturak gaindiezineko gune bat zela. Azken batean zenbat aldiz egin izan dugun irribarre, Jesusi sinetsi ezinik, perfektuak izatera gonbidatu gaituenean, Jainkoa perfektua den bezala! Agindu zorrotz hori entzutea bera ere galarazi egin digu perfekzioaz genuen ideiak, gure hauskortasun pertsonal eta kolektiboaren historiarekin kirrinka egiten zuenak. Hala ere, Jesusek ez du atzera egin bere hitzean. Geure perfekzioaren ideia aldatu dezagula eskatzen du eta ez du muga apaltzen: izan gaitezen Jainkoa bezain perfektuak! Eta Jainkoa perfektua da, ez baitu inoiz ere atzera egiten maitasunean inperfektuei dagokienez.

Urteko 11. astea

San Romualdo, *abadea, fundatzailea (kamaldulitarrak)*

Santa Juliana Falconieri, *birjina*

Erregeak 2 liburutik 2, 1. 6-14: Suzko gurdi batek bereizi egin zituen bata besteagandik, eta Elias zerura igo zen. **Sal 30:** Izan bihotz, Jaunagan itxaroten duzuen guztiok!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 1-6. 16-18:

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Horrelako egun bat iritsiko da. Itxurakeriarik gabeko harremanak izango ditugun eguna izango da. Itzulinguruak soberan egongo dira. Geure asmoen berri eman ahal izango diogu elkarri. Gure akatsen atzean nahi gabe zeuden mugak erakutsiko ditugu. Festa-eguna izango

Urteko 11. astea

San Romualdo, *abadea, fundatzailea (kamaldulitarak)*
 Santa Juliana Falconieri, *birjina*

da. Azkenean, denok ulertuko dugu zer esan nahi genuen, zein zen gure asmo onenen ontasuna eta zergatik jo behar izan genuen gezurrera, nahi gabe. Egun horretan lortuko dugu elkarri begietara begiratzea. Hainbeste argi egongo da, non benetan garena bakarrik ikusiko dugun, deformaziorik gabe; eta jakingo dugu, uste genuen baino elkarren antz handiagoa dugula... Jesusek egun hori agindu zien bere ikasleei. Eta esan zien, orduan berek ikusiko zutela berak, Jesusek, barnean zuena: Aita, «ezkutuan ikusten duena», gure egiairen ondoan lasai eserita.

* * *

Alzheimerren poema

Ez eskatu gogora dezadan.
 Ez saiatu ulertaraz diezadazun.
 Utzi atsedean har dezadan.
 Jakinaraz diezadazu nirekin zaudela.
 Hel diezadazu lepotik eta har eskutik.
 Goibel nago, gaixo eta galdurik.
 Dakidan guztia da
 behar zaitudala.
 Ez galdu pazientziarik nirekin.
 Ez bota maldiziorik, ez egin oihurik, ez negarrik.
 Ezin egin dut ezer gainean dudanarekin.
 Desberdin izaten saiatzen naizen arren,
 ezin dut lortu.
 Izan gogoan behar zaitudala.
 Nirerik hoberena joana da jadanik.
 Ez nazazu utz eskutik, zaude nire ondoan.
 Maita nazazu, neure bizitzaren azkena arte.

(Anonimoa)

Urteko 11. astea

Santa Florentina, *birjina*San Silverio, *58. aita santua*

Siraken liburutik 48, 1-15 (gr. 1-14): Elias zurrumbiloan desagertu zenean, haren espirituaz bete zen Eliseo. **Sal 96**: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: “Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, geuk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik”. Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

«**G**ure Aita» otoitzetik hiru albiste bikain ateratzen dira. Lehenengoa, Jainkoari hitz egitea ez dela hain zaila. Harengana jotzea erraza da. Hortxe dago, esan nahi dioguna entzuteko erabat prest. Bigarrena, Jainkoarekin tratatzeko gure eguneroko bizitza motibo duina eta egokia dela da. Gure egunerokoa kontatzen duten txikikerien eta handitasunen amalgama hori gai aproposa da otoitzerako. Gizakundearen Jainkoak oso serio hartzen du gure egunerokoa. Eta hau da hirugarrena: Jainkoa hor egoteaz eta gure eguneroko bizitza otoitz egiteko arrazoi izateaz gain, Jesusek otoitza posible dela ohartarazten die bere ikasleei, Jainkoak bere burua agertu egin nahi duelako! Kontua ez da geure hitzekin gu Jainkoagana joatea, baizik eta Jainkoa bere Hitzarekin gugana etorri datorrela.

Urteko 11. astea

San Luis Gonzaga, *jesuita*San Ramon Rodakoa, *gotzaina*

Erregeak 2 liburutik 11, 1-4. 9-18. 20: Joax gantzutu zuen, eta denek oihu egin zuten: « Gora erregea!». **Sal 131:** Jaunak Sion aukeratu du bere bizileku.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 19-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez pilatu mundu honetan zeuen ondasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen. Pilatu zeruan zeuen ondasunak, han ez baititu sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han. Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argitan ibiliko da. Baina begia gaixo baduzu, zure gorputz osoa ere ilunpetan ibiliko da. Beraz, zure barruan argi izan behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea!».

Aberastasuna aberastasunagatik nahi izatea gizakiaren dinamika gaiztoenen ernamuina da. Edukitzearen desira eragabeak dena agintzen du: edozein ustekaberen aurkako segurtasun materialetik, gizarte-zirkulu hautatuenetan automatikoki sartzeraino. Baina, paradoxikoki, aberastasuna aberastasunagatik nahi izateak fikziozko segurtasun-faltak baretu behar larrian eta isolamenduan sartzea dakar. Jesusek etengabe ohartarazten du horrek eragiten duen gizatasun gabetzeaz. Bizitza ez dago altxorrek pilatzeko pentsatua: laburregia eta hauskorregia ere bada haiek zaintzeko. Baina bada nahikoa luzea, «bihotzak» edukitze irrika erlatibizatu dezan eta Kreazioaren barnelegea errespeta: dena partekatzen duen pobreziaaren doakotasuna.

Urteko 11. astea

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua,*aita familiakoa, martiriak*

Kronikak 2 liburutik 24, 17-25: Zakarias tenplutik aldarera bitartean hil zenuten. **Sal 88:** Beti gordeko diot neure maitasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maiteko, edota bati leial izango zaio eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete Jainkoaren eta diruaren morroi izan. Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio? Askok kezkatuta ere, zuetako nork luza lezake apurtxo bat bizitza? Eta jantziaz, zergatik kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean nekatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen janzten horietako bat bezain apain.

Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar suan erreko den belarra Jainkoak horrela janzten badu, zenbatez gehiago zuek, sinesmen txikikook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Jentilak arduratu ohi dira horiez guztiez. Zeruko zuen Aitak badaki horien guztien beharra duzuela. Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta gainerako guztia gehigarri emango dizue Jainkoak. Ez kezkatu, bada, biharko egunaz, biharko egunak ere ekarriko baitu bere kezka. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhaustek».

Bati baino gehiagori gustatuko litzaioke Jesusek aipatu zituen bi ziurtasunen artean bizitzea, estualdi guztien aurka borrokatu ahal izateko: lehenengoak dio, Jaungoikoak ondo baino hobeto ezagutzen duela

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*
 San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua,
aita familiakoa, martiriak

behar duguna; bigarrenak, berriz, egun bakoitzak nahikoa duela bere ahaleginarekin. Lehen ziurtasuna zeruaren gainazalean dago margotuta: izen jakinez eta aurpegi partikularrez osatutako lekua. Bigarrena lurraren gainazalean dago margotuta: eguneroko borroken agertokia. Jesusek azalera biak hurreratzen ditu bata bestea islatzeraino: zeruan lurra eta honetako beharrak estimatzen dira; lurrean Jainkoak giza zorigaitzari mugak jartzen dizkiola ikusten da. Batak bestea hain ongi islatzen dute, ezen ez dakizun benetan zein den zerua eta zein lurra. Eta orduan desagertzen dira estutasunak, Jesusek nahi zuen bezala.

* * *

Gure ordua

Berandu da
 baina gure garaia da.

Berandu da baina
 etorkizuna eraikitzeko
 eskura eman zaigun
 epe osoa da.

Berandu da
 baina geu gara
 ordu berantiar hau.

Berandu da
 baina zerbait saiatzen bagara
 goiz argia da.

(*Pedro Casaldáliga*)

Urteko 12. astea

Santa Agripina, *martiria*San Urbano, *martiria*

Joben liburutik 38, 1. 8-11.

Jaunak ekaitzaren erditik erantzun zion Jobi: «Nork itxi zuen itsasoaz atez, amaren sabeletik indarka atera zenean? Nik eman nizkion hodeiak soinekotzat eta behe-lainoa haur-zapitzat. Nik ezarri nizkion mugak, ateak eta morroiloak ipiniz, eta esan nion: “Honaino iritsiko zara, ez aurrerago; hemen lehertuko da zure olatuen harrokeria”».

Sal 106: Eskerrak Jaunari, haren maitasuna betikoa baita.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 14-17.

Senideok: Kristoren maitasunak behartzen gaitu, jakinik bat denengatik hil dela eta, ondorioz, denak hil direla. Kristo denengatik hil da, bizi direnak ez daitezen berentzat bizi, beraiengatik hil eta piztu den harentzat baizik.

Beraz, hemendik aurrera guk ez dugu inor giza ikuspegi hutsez balioztatuko; eta noizbait Kristo giza ikuspegi hutsez balioztatu izan badugu ere, orain ez dugu hala egiten. Beraz, Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 35-40.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen itsasoaz beste aldera ». Jendea utzi eta ontzian eraman zuten Jesus, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten. Horretan, haizebolada zakarra atera zuen, eta olatuek ontzia jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berri, txopan lo zegoen, buruko baten gainean. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak?». Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta itsasoari esan: «Hago isilik! Geldi!». Gelditu zen haizea, eta barealdi handia egin zen. Jesusek esan zien: «Zergatik beldur hori? Ez al duzue oraindik sinesmenik?». Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?».

Urteko 12. astea

San Luis Gonzaga, *jesuita*San Ramon Rodakoa, *gotzaina*

Jesusen galderak itzulinguruak aurrezten ditu: «Zergatik zarete hain koldarrak?». Ez du bere harridura ezkutatzen arrantzu-lanean ustez trebatuak diren gizon batzuen aurrean, itsasoaren zakar aldiei aurre egin beharrean gertatu izan direnen aurrean. Badirudi dakiten ezerk ez dituela lasaitzen. Astintzen dituen ekaitza indartsua da, eta txaluparen kontra hausten diren olatuak dituzte gainean, hainbestearaino non hondoratzea aurreikusten hasiak baitira. Maisuak, egoeraz jabetzeaz, aldendu egiten du mirakuluz ekaitza, bareturik, pasadizo huts bat balitz bezala; eta gainezka egin dien beldurra aurpegiratzen die. Beldur horrek are ekaitz handiagoa eragina zien. Urakanaren benetako begia zen eta haiek hondoratzen ziharduen. Beldurrak benetako bizitza desagerrarazten du. Horregatik, Jesusek beren susmoaren diktaduraren itsaso txarretik salbatzen ditu ikasleak. Beti presente dagoen Jainkoaganako konfiantza berreskuratzen laguntzen die. Ez die gizakiaz gaingarri ahaleginik eskatzen; fedea bakarrik. Fedeak ahalbidetu ahal izango zituen ikusten, ekaitzaren erdian, bera lo baino ez zegoela, eta, beraiek bezala, bizitzako olatu gogorrek kulunkaturik, baina edozein haize baino goragoko norbait sostengu zuela. Presentzia horrek beldur guztia baretzen du, gure baitan harrotzen dena, geure burua bakardadeak mehatxaturik ikusten dugunean.

* * *

40 Gaiztotzen hasten zarenean, beste guztiak ere gaiztoak direla sinestarazi nahi diozu zeure buruari. Adiskide, ez sinetsi! Alferrikako aitzakia duzu hori. (*San Agustin*)

Urteko 12. astea

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZASan Orentzio, *martiria***Isaias Profetaren liburutik 49, 1-6.**

Entzun, uharteok! Aditu, urrutiko herriok! Jaio aurretik deitu ninduen Jaunak, amaren sabelean nengoela gogoratu zen nitaz. Ezpata zorrotz bihurtu zidan ahoa, bere eskupean babestu ninduen; gezi zorrotz bihurtu ninduen eta gezi-ontzian gorde. Eta esan zidan: «Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea». Nik, berriz, hau nioen: «Alferrik nekatu naiz; alferrik eta hutsean akitu ditut neure indarrak». Baina Jaunaren baitan zegoen nire eskubidea, Jainkoaren eskuetan nire lansaria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduen beraren zerbitzari izateko, Jakoben leinuak berarengana bihurtarazteko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar. Jaunak esan dit: «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak berreraikitzeke eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin»».

Sal 138: Eskerrak zuri, harrigarriro egin nauzulako.**Apostoluen Eginak liburutik 13, 22-26.**

Egun haietan, honela mintzatu zen Paulo: «Jainkoak David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: “Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi guztia beteko duena”. Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek: “Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere”». Senideok, Abrahamen ondorengo zaretenok, eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzenok, geuri bidali zaigu salbamen-hitz hau».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 57-66. 80.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten. Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik». Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن. Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiek beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?». Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen. Haurra gorputzez hazten ari zen, eta espirituaz sendotzen; basamortuan bizi izan zen, Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte.

Harrigarria da jendearen erreakzioa jaioberriarentzat Joan izena jartzeko aukeraren aurrean. «Zure ahaide batek ere ez du izen hori». Ba, bai: oraingo hau izango da tradizioa hautsiko duen lehena. Horrela izan behar du, historiak bira erabakigarri eta atzeraezina egin dezan. Berrikuntzak aldaketa eskatzen du. Beraz, hain zuzen ere, «Joan da beraren izena», nahiz eta familian aurrekari bat ere ez egon erregistratuta izen horrekin. Jainkoak mundua berritasunera bultzatzen du, iraganak nahitaez aurreikusi edo finkatu ezin duen puntu baterantz. Berri Onaren aitzindaria da Joan, ustekabeko gauzak kontatuko dituena. Jainkoak gizateriari aurrea hartzen dio berriro. Lehen urratsak berrabiaraziko ditu: doako urratsak, apurtzaileak, eraldatzaileak. Sorpresaz sorpresa joango gara. Berriro konfiantzaz espero dezakegu Jainkoak edozein ekintza berri eragingo duela, aurreikusi gabe zegoena sortuko duela giza bihotzetik. Joanen ondoren datorrenak baietsiko du. Jesus da hau, Espirituaz betea, Joanez bataiatuko duena egun batean, hainbeste itxarondako berritasuna estreinatzeko. Baina, lehenengo, beharrezkoa da Joan deritzonak iragar dezan eta seinlatu, eta ez bestela!

Urteko 12. astea

San Felix, *ermitaua*Santa Orosia, *birjina*San Adalberto, *diakonoa eta abadea*

Erregeak 2 liburutik 19, 9b-11. 14-21. 31-35a. 36: Nik babestuko dut hiri hau eta salbatuko, neuregatik eta Davidengatik. **Sal 47:** Sendo ezarri du Jainkoak bere hiria betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 6. 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei gauza sakratuak, ez bota zerriei zeuen harri bitxiak, hankapean erabil ez ditzaten eta, zuen kontra itzulirik, zatika ez zaitzateten. Besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena. Sar zaitezte ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta asko dira hortik doazenak. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak!».

Kristautasunak ez du ezkututzen Ebanjelioak kostu handiak dakartzala. Grazia ez da bat ere merkea eta ez du utziko inoiz ere manipula dezaten, eta ez da ustela ere. Atea, hain zuzen ere, «estua» da. Ezin da bestela izan, Erreinuak gauzak eraldatzeko darabilen erradikaltasun hain zorrotza kontuan hartzen bada. Beraz, kanpora bidezidorrak eta interpretazio erosoak! Ebanjelioak ez ditu marrazten erronka zorrotzez betetako bideak baizik. Ez da onargarria iruzur egitea benetan emana ez den maitasunarekin. Horixe baieztatzen dute munduan gertatutako kristauen heriotza gordinen kronika tragikoek. Eliza etengabe egon da jazarpenez inguratua, eta deserosoa izaten jarraituko du dagoen tokian. Horrelako bideak bakarrik «darama bizitzara», eta horrek badu bere prezioa.

Urteko 12. astea

San Pelaio, *martiria*San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*

Erregeak 2 liburutik 22, 8-13; 23, 1-3: Erregeak irakurri zuen tenpluan aurkitutako itun-liburuko testu osoa. Ondoren ituna berritu zuen Jaunaren aurrean. **Sal 118:** Irakatsi niri, Jauna, zeure arauen bidea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Kontuz sasiprofetekin! Ardi-larruz jantzita datozkizue, baina barrutik otso harrapariak dira. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik, edota laharretatik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik. Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sura botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei».

Zuhaitz baten kalitatea fruituari dagokion kalitatearen arabera neurtzen da. Zuhaitz bat benetan da ona beraren fruituak nahikoa onuragarriak direnean, inguruko faunari eta lurrari mantenugaiak emateko. Fruitua ez da zuhaitzarentzat, eta ez luke adarretan usteldu behar. Horrela balitz, bizitza biologikoaren zirkulartasuna gelditu egingo litzateke, eta dena hondatuko litzateke. Jesusek erabilitako irudiaren arabera, literalki «kaltetutako zuhaitzaren» aurrean egongo ginateke, non funtsezkoena zirkulartasun ezean geratuko litzatekeen... Hona, Ebanjelioaren arabera hazten joan gaitezen, abisu simple, baina sendoa. Hustasun hutsez elikatuko genuke geure ingurua, garen eta dugun ontasuna geldiaraziko bagenu eta besteengana iritsiko ez balitz. Kontua ez da fruitu-egile izatea, frutu-emaila izatea baizik.

Urteko 12. astea

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*San Zoilo, *martiria*

Erregeak 2 liburutik 24, 8-17: Joiakin erregea Babiloniara erbesteratu zuen Babiloniako erregeak, herriko handikiekin batera. **Sal 78:** Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoreagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 21-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Epai-egunean askok esango dit: “Jauna, Jauna, ez al genuen zure izenean hitz egin eta zure izenean deabruak bota eta zure izenean mirari asko egin?». Baina Nik erantzungo diet: “Ez zaituztet inoiz ezagutu; alde nigandik, gaizkileok!”. Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen. Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu». Jesusek hitzaldi hau bukatu zuenean, txunditurik zegoen jendetza haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Zein jakintsua den, noizean behin zimenduetara jaistea eta beraien indarra miatzea, jakiteko ea jarri ditugun lekuan jarraitzen duten, ea finkatu diren eta ea pitzadurarik duten. Ausartu gaitzen, noizean behin bada ere, gure oinarrietara jaistera, beraien egoera hobetzeko. Garbitu egin behar dira, soilago bihurtu eta sendotu. Bizitzak eskatzen digu geure sоторa joan eta pilare nagusiak haztatzea. Eguraldiak kaltetu egin ditu haizeteen eta euri-jasen eraginez. Horregatik, habeen heldulekuari begiratu behar zaio; hain zuzen ere, arroka gainean jarritako habe horiek eusten digute. Elkarrekiko lotura eta helduleku hori Jainkoaren fideltasunaren irudia da; hark gure etxea babesleku posible bihurtzen du mundu babesgabe honetan, babesleku gozo non guztiok bizitza zaindu eta partekatzen ahal dugun.

Urteko 12. astea

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*

Erregeak 2 liburutik 25, 1-12: Juda erbestera eramán zuten. Sal 136: Nire mingaina ahosabaian itsats bekit, zutaz oroít ez banendi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 1-4.

Jesus menditik jaitsi zen eta jende askok jarraitu zion. Legenardun bat hurbildu zitzaion eta, aurrean ahuspezturik, esan zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek eskua luzatu eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Eta berehala garbitu zitzaion legenarra. Jesusek agindu zion: «Kontuz gero! Ez esan ezer inori! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini Moisesek agindutako oparia, ezaugarri izan dezaten».

Deismoak defendatzen du, Jainkoak Kreazioarekin egin zuela gauzarik garrantzitsuen gurekiko. Ordudanik, zain dugu bera azken auzirako, orduan erabakiko baita historiaren kalitate ebanjelikoa. Une batetik bestera bitartean, deistak uste du Jainkoa erretiratuta dagoela, gure gorabeheretatik kanpo. Berak bete du bere egitekoa; guk geurea bete zain dago. Gaur egun liturgiak aukeratzen duen mirari ezagunaren protagonista ez da Jainko hori, baizik eta erabat inplikaturik dago bere izakiak sendatzen, eta sozialki osatzen. Deismoak aldatu egin beharko luke Jainkoa ahalguztidun bezala ulertzeko modua. Agian, horrela gizaki ororen ondoan ikusiko luke Jainkoa, bere bultzada sortzaileaz bukaeraraino jarraitzeko prest: auzi horretaraino, zinetan beti maite izan gaituela aitortuko baitigu.

Urteko 12. astea

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK

Santa Maria, *San Markosen ama*

Apostoluen Eginak liburutik 12, 1-11.

Aldi hartan, Herodes erregea eliz elkarteko batzuei gogor erasotzen hasi zen. Joanen anaia Santiago ezpataz hilarazi zuen eta, hori juduei atsegin zitzaieiela ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko-astea zen. Pedro atxilotu eta kartzelan sartu zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen zainpean jarri, Pazko ondoren herriaren aurrean agerrarazteko asmoz. Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkartea otoitzean ari zitzaion haren alde Jainkoari etengabe.

Herodesek hura kartzelatik atera behar zuen aurreko gauean, Pedro lo zegoen bi gudariren artean, bi katez loturik, eta guardiak atean kartzela zaintzen zeudelarik. Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu eta gela guztia argiz bete zen. Aingeruak, saihetsean ukituz, Pedro esnarazi eta esan zion: «Jaiki azkar». Erori egin zitzaizkion kateak eskuetatik. Gero, aingeruak esan zion: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen; eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa eta jarraitu niri».

Haren ondoren atera zen Pedro; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez; ametsa iruditzen zitzaion. Lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldean ondotik igarota, kalera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Atea berez zabaldutik zitzaien eta kanpora irteten ziren. Kale bat igaro ondoren, bakarrik utzi zuen aingeruak Pedro. Gertatuaz jabeturik, Pedrok esan zuen: «Orain badakit Jaunak bere aingerua bidali duela, ni Herodesen eskuetatik eta judu-herriak niretzat zituen asmoetatik askatzera».

Sal 33: Beldur guztietatik ninduen libratu Jaunak.

San Paulok 2 Timoteori 4, 6-8. 17-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipenaren

Urteko 12. astea
 SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK
 Santa Maria, *San Markosen ama*

koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Noiz ezagutzen dugu pertsona bat? Beharbada inoiz ez erabat. Ezin atzemanak gara. Eskuetatik ihes egiten digu geu garen misterioak. Hala ere, egia da ahalik eta gehien ezagutu behar dugula elkar, merezi duen zerbait komun eraikitzeko, gainerakoeekin batera. Horretarako, gure maitasuna azken batean eta benetan zer den eta zenbat gauza egitera bultzatzen gaituen aurkitzea da bidea. Kontzientzia hori lortzen ez dugun bitartean, ez gara gai izango konpromiso garrantzitsuetarako. Jesusen ikasleak etengabe dabilta beren Maisua nor edo zer den galdetzen. Norekin konprometitzen ari diren jakin nahi dute. Horretan

Urteko 12. astea

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK

Santa Maria, *San Markosen ama*

Jesus berak laguntzen die, bihotzean daraman bere Aitari erreferentzia eginez, eta Aita horri errukiz beteriko obrekin nola erantzuten dion adieraziz. Ez dauka bere burua ezagutarazteko argumentu hoberik, ez baitago beste Jesusik beragan bizi den Aita baino. Maisuak hitz egin ondoren, ikasleen galdera beraien aurka itzuliko zela suposatzen dugu: nortzuk ziren azken batean?, hau da, nori onartzen zioten hain maitatuak izatea? Ikasleak, Pedro buru zela, konturatu ziren fededuna izatea, Jesusek erreferentzetzat duen Aita dela baliozko erantzun bakarra jakitean datzala. Hor dago oinarria. Hori da benetako harria, horren gainean eraikitzen da guztia.

* * *

Kontenplazioa

Poliki-poliki begiratzen zaitudan bakoitzean,
mutu geratzen naiz, arnasarik gabe.
Ze kolore zeukan zure odolak?
Ze zurez zeunden egina?,
galdetzen dut nire artean, erantzunik ez dudala.
Eta isiltasunak inguratzen nau.
Ahoa zabaldu ezinda eta guzti geratzen naiz.

Berriro begiratzen eta kontenplatzen dut
eroria, baina atzera zutitua, indarberriturik,
beste zerbait prestatzen,
ikasle baldar haiekin
inoiz heldu ez zion misio bat antolatzen.

Baldarrak diozu, ene bihotz honek?
Ez al dakizu ahulak, babesgabeak,
Jainkoaren armadaren aurrealdeko indarrak direla?

(Patxi Loidi)

Jakinduria liburutik 1, 13-15; 2, 23-24.

Ez zuen Jainkoak egin heriotza, ez du atsegin bizidunak galtzea; izan ere, irauteko egin zituen hark gauza guztiak; munduko izakiak osasungarri dira, ez dute beren baitan pozoiz hilgarririk, eta Heriok ez du lurtean aginterik, hilezkorra baita zuzentasuna. Hilezkor izateko egin zuen Jainkoak gizakia, bere izatearen irudi egin zuen; baina deabruaren inbidiaz sartu zen heriotza munduan eta harenak direnek jasango dute.

Sal 29: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.

San Paulok 2 Korintoarrei 8, 7. 9. 13-15.

Senideok: Gauza guztietan aberats zarete: sinesmenean, hitz egiteko gaitasunean, jakintzan, denerako arduran eta guganako maitasunean; izan zaitezte aberats eskuzabaltasunean ere. Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabaltasuna: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko. Arazoa ez da besteak lasai egoteko zuek larri gertatzea, guztien berdintasuna bilatzea baizik.

Une honetan, zuen ugaritasunak haien eskasia konponduko du, eta egun batean haien ugaritasunak zuen eskasia konponduko du; honela, parekotasuna izango da nagusi, Liburu Santuak dioen bezala: «Asko bildu zuenak ez zuen sobera, ezta gutxi bildu zuenak ere urri».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz beste aldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Hilzorian dut alabatxoa; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Urteko 13. astea

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak

Jende asko zihoakion ondoren, estutuz. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioa zuena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, hau baitzioen bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean. Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?». Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen al duzu?». Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Artean hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehiago Maisuari?». Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez beldur izan; zuk sinetsi!». Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedrori, Santiagori eta honen anaia Joani izan ezik. Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskata ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskataren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskata, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskataxi jaten emateko esan zien.

«**A**laba, zeure fedeak sendatu zaitu». «Ez izan beldurrik; nahikoa da fedea izatea». Jesusek Markosek kontatzen dituen bi sendaketak ziurtatzen ditu, eskariak egin dizkiotenen sendaketetan fedeak duen eragina nabarmenduz. Bi mirakulu horiek, hain zuzen ere, Jesusengana hurbiltzen diren pertsonengan jadanik existitzen den fede horren baitan gertatu dira. Jesusek nahita seinalatzen du beraien fedea. Hori egitean, kontzientzia-jauzi bat eragiten du, bai odoljariodunagan, bai Jairorengan. Fede horrek iragan bat eta gero bat markatzen ditu, Jainkoaren ekintza agerian jartzean. Konfiantzazko sarea ehuntzea lortzen du, eta harreman berria irekitzen du besteekin eta munduarekin. Jesus parafraseatuz, hildakoa soilik lo dagoela baieztatzeraz ausartzen da fedea, horrela ikusten baitu. Bertan uler dezakegu, dena eta denok ari garela hazten. Beraz, jakina sendatu gaitezkeela, berpiztera iritsi arte, nahiz eta geure burua etsirik sentitu!... Beharbada, gaur egungo ustezko sinesgabetasuna, zeina hainbestearino ukatzen dugun, ez da fede falta izatea, baizik eta fede horrek guregan egin dezakeen guztia debaluatzea da. Gaur egun, Jairoren neskatoaren eta emakume gaixoaren kasuan bezalaxe, Jesusek gure bila jarraitzen du; bakoitzari bihotzera esateko, geugan taupadaka dugun fedeak emango digula hartaraino desiratzen dugun bizia.



UZTAILA / GARAGARRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Ebanjelizazioaren alde: Beren lan pastoralean nekaturik eta bakar sentitzen diren apaizak kemenez bete daitezen, Jaunaren eta senideen adiskidetasunaren laguntza sumaturik.

Urteko 13. astea

San Aaron (*Moisesen anaia*)Santa Regina, *aitorlea*Santa Ester, *erregina*

Amosen Profezia liburutik 2, 6-10. 13-16: Jende xehea lurreko hautsaren kontra zapaltzen dute Sal 49: Aditu ongi, Jainkoaz ahaztuok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 18-22.

Aldi hartan, Jesusek, bere inguruan jendetza handia ikusirik, beste itsasertzera igarotzeko agindu zuen. Orduan, lege-maisu bat hurreratu zitzaion, esanez: «Maisu, noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri». Beste batek, ikasleetakoa zenak, esan zion: «Jauna, uztazu lehenik nire aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Zuk jarraitu niri, eta utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen».

Saia gaitezen Jesusek bere segimendurako aurkezten digun erradikaltasuna aplikatzen. Ez dago beste batzuentzat pentsatuta. Onar dezagun gure bizitzako Jaunak jakinarazten digula ezen, maitatzeko eta benetan zerbitzatzeko, kaltegarriak direla jarrera hauek: gure entregaren beheranzko kalkuluak, gure baiezkiko konpromisoetan erdizka ibiltzeak eta erabaki garrantzitsuak etengabe atzeratzeak. Ebanjelioaren proposamena erabatekoa da eta guztiz kategorikoa, gaur egun hau bera izan dadin gizateria gauzatzen edo garatzen joateko bidea. Ongia egitea ezin da bihar arte atzeratu. Orain eta hemen agertu behar dira hitz zuzenak eta keinu egokiak. Jesusek behin betikoz berari jarraitzeko eskatzen digu; hau da, jokoan sar gaitezela eta ez gaitezela izan ziztrinak... geure buruarekin.

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis eta Francisco de Gerónimo; Dohatsuak: Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak**

Amosen Profezia liburutik 3, 1-8; 4, 11-12: Jaunak hitz egitean, nork ez zabaldu haren mezua? **Sal 5:** Gida nazazu, Jauna, zeure zuzentasunaren bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 23-27.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu zioten. Bat-batean, ekaitz handia sortu zen itsasoan, eta olatuek txalupa estali egiten zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. Ikasleek hurbildu eta esnatu zuten, esanez: «Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!». Hark esan zien: «Zergatik zarete hain beldurti, sineste txikikook?». Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta itsasoari, eta barealdi handia egin zen. Ikasleek, harriturik, hau zioten: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?».

Izutu egiten gaitu dizipuluek lakuko beren ibilbide asalduan jasandako larrialdiak. «Hain denborale gogorak» olatuak eragiten ditu, zeintzuek ia hondoratu egiten dituzten ikasleak. Horregatik, bitxia da Jesusen erreakzioa. Beldurra eta fede eza aurpegiratzen dizkie bere ikasleei. Errieta hura salbuespenezko jendeak bakarrik gairi zezakeen exijentzia irudituko zitzaion. Ez zen beraien kasua. Baina egia da: bitartean, funtsezko datu bat saihesten dute. Zalantzarik gabe, itsasoa trataezina zen; zalantzarik gabe, okerreza gerta zitekeen; zalantzarik gabe...; baina han zegoen Jesus. Nahikoa izango zitzaion beraren presentziaz jabetzea, ekaitza beste era batean bizitzeko. Haize zakar batek ere ez du hautsiko Jesusek eurekin duen konpromisoa. Fedea, sinpleki, hauke da: jakitea, Jainkoak, bera ere astindurik gu geure bizitzan astintzen gaituenak, gurekin jarraitzen duela. Eta, beharbada, fede horixe da edozein haizeteren erdian ere lo egiten uzten diguna.

* San Juvenal, *martiria*
San Odon, *gotzaina*

Urteko 13. astea

SANTO TOMAS, APOSTOLUA

San Heliodoro, gotzaina

San Paulok Efesoarrei 2, 19-22.

Senideok: Ez zarete arrotz, ez atzeritar, Jainkoaren herriko kide baizik eta Jainkoaren familiako, apostoluen eta profeten oinarri gainean eraikiak, Kristo Jesus bera giltzarri delarik. Honengan ongi finkaturik eraikin osoa gora doa, tenplu santu bihurtzeraino Jaunarengan. Honengan eraikinarene parte zarete zuek ere besteekin batera, Espirituagan Jainkoaren bizileku bihurtzeraino.

Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 24-29.

Tomas, hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituz, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituz, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik». Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!». Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Tomasentzat guztiz garrantzitsua da argiaren Kristo eta gurutzeko Kristo bat datozela jakitea. Gurutzea ezin da baztertu. Ebanjelioaren parte da. Dizipulu hark oso ongi gogoratzen zuen bere Maisuak ez ziola inoiz uko egin Jerusalemera joate arriskuarengatik. Dena Galilean hasi zenetik hirirako bidetara eutsi zion. Jerusalem ate erabakigarria zen giza historiaren gogortasuna zeharkatzeko. Horregatik, Jesusek

Urteko 13. astea
 SANTO TOMAS, APOSTOLUA
 San Heliodoro, gotzaina

zauriak mantentzen dituela eta horiekin berpiztu dela ziurtatzen badu bakarrik sinetsiko du Tomasek! Golgotan, gurutzea Jaunaz kanpoko bezala gelditu zen. Berpizkundean, aldiz, gurutzea beraren barruan islaturik ageri zen. Gaizkiak itzala eta ustezko amaiera proposatu zituen lekuan, Jainkoak Jesusen argi gurutziltzatua eta behin betiko abiapuntua eskaintzen zituen.

* * *

Zu Berpiztua,
 zu gure giza izaeraren
 sakoneraino jaisten zara,
 astuna zaiguna zureganatzeko.
 Gehiago oraindik:
 zu ezagutzeko aukerarik gabe
 hil zirenei ere
 ikustaldia egitera iristen zara.

Gure barruan zure oihartzun
 nabaririk ez egon arren,
 zu hor zaude.
 Zure Espiritu Santuaz
 gugan zaitugu.

(Roger Anaia. Taizé)

Urteko 13. astea

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827-Vietnam 1861),
domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak

Amosen Profezia liburutik 7, 10-17: Jaunak bidali ninduen bere herriari profetizatzeraz. **Sal 18:** Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak bidezko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 1-8.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo, itsasoaz beste aldera igaro eta bere herrira etorri zen. Hortan, elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Izan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak». Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten beren baitan: «Biraoka ari duk hau». Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zergatik dituzue burutapen gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago, “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki eta zabiltza” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Orduan, esan zion elbarriari: “Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera!”». Hura jaiki eta etxera joan zen. Hau ikustean, izuturik gelditu zen jendea eta Jainkoa goستن zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

Bekatuaren eta gaixotasunaren arteko lotura tradizio erlijioso guztietan dago presente, ez soilik Israelekoan. Heriotzarekiko beldurrak eta heriotzari ihes egin nahiak erruduntasun mekanismoetan sartzea zekarten, oinazeak suposatzen zuen segurtasun-eza arintzeko. Gaixorik bazaude, zeu zara erantzule, zuzenean edo zeharka, eta erantzukizun da jasaten ari zaren gaitzaren arrazoia. Pentsamolde horri kontrajarritako jokabide harrigarria du Jesusek. Paralitikoa, lehenik eta behin, errutik askatzen du. Ondoren sendatuko du fisikoki. Beraz, gaixotasunak ez du jada zerikusirik errudun izatearekin. Kreazioaren prekariedade-misterioaren parte da gaixotasuna... Baina misterio horretan ez gaude saihestezinezko minaren aurrean abandonaturik, baizik eta haren aurka borroka ari den Kreatzailea dugu lagun.

Amosen profezia liburutik 8, 4-6. 9-12: Gosea bidaliko dut lurrera, ez ogi-gosea, Jaunaren hitza entzutekoa baizik. **Sal 118:** Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion. Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekadari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoeak baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Gure egoismoaren inertziak gaindi ote daitezkeen zalantza izaten dugu beti. Ba al dugu erremediorik, azken batean? Historiak edozein garaitako gizakiengan berresten ditu joera zaharkituak, hau da, norabide itxaropentsuak eta desberdinak hartzeko jarrera asko kostatzen zaienak. Askok dira, desengainaturik, beren bizitza, sortu zen unetik ezinbestean porrota balitz bezala, kudeatzen dutenak. Jesusekin jaten duten publikanoak eta bekadariak, ordea, ez dira iritzi horretakoak. Zaurituta egon arren, uko egiten diote beren burua bertan behera uzteari, eta bigarren aukera bat arakatzen dute. Eta Jesusek eskaini die hori, baldintza bakarra jarritz: sinets dezatela euren bekatua amaieraren hasiera dela. Eta froga bat eskaini die: mahai partekatua, justuen eta bekatarien artean oraindik ere posible den elkartean oinarritua.

Urteko 13. astea

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*

Amosen Profezia liburutik 9, 11-15: Nire herri Israelen zoria aldatuko dut eta beren lurraldean landatuko ditut. **Sal 84:** Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 14-17.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?». Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau. Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, jantzia behartu egingo bailuke adabakiak, eta zarratada handiagoa egingo. Ez da ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak hondatu. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta horrela biek irauten dute».

Ebanjelioak ez dira dizipuluen inolako hagiografia. Jesusek ez du inolako erreparorik ikusarazteko nolako espazioa duen berekoikeriak euren baitan: asmo anbiguoak, grina hezigabeak, ikusmira-falta biribila, ulertzeari aurre egitea. Baina ez ditu horretan uzten. Bere dizipuluak beren auto-zentratzearen mugaraino eramán ditu, beren nartzisismoaren ertzetik oraindik esploratu gabe duten eremua erakusteko: nork bere buruaren jabetza uztea eta benetako dizipulu izatea. Jabetza uzte horrek nortasun guztiz berria emango die. Desjabetze hori eginez, Kreatzailearen menpeko sentituko dira, gainerako gizakiekin harremanetan eta Jainkoak gizateriarentzat nahi duen historian etengabeko entzule. Eraldaketa hori «ardo berriari» dagokiona da, zeina jadanik «zahagi berrietatik» bakarrik edan ahal baita.

Urteko 14. astea

San Fermin (Iruñea 3. mendean?-Amiens?), *gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria*

Ezekielen Profezia liburutik 2, 2-5.

Egun haietan, Jaunaren espiritua sartu zen niregan eta zutik jarri ninduen, eta hitz egiten zidanari entzun nion esaten: «Gizaseme, israeldarregana bidaltzen zaitut, jende bihurri horregana; horiek eta horien arbasoak nire aurka altxatu dira gaurdaino. Seme-alaba burugogor eta setatsu horiengana bidaltzen zaitut nire mezua adieraztera. Horrela, entzun ala ez, jakingo du herri bihurri horrek baduela profeta bat bere artean».

Sal 122: Gure begiak Jaunagana daude, gutaz erruki dadin arte.

San Paulok 2 Korintoarrei 12, 7-10.

Senideok: Neure burua den baino handiagotzat jo ez dezadan, haragian sartua dudana eztena eman zait, jo eta jo ari zaidan Satanasen ordezkaria, harrotu ez nadin. Hiru aldiz eskatu diot Jaunari, ken diezadala, baina hark esan dit: «Nahikoa duzu nire laguntza, nire indarra ahulezian gauzatzen baita bete-betea». Pozik harrotuko naiz, beraz, neure ahuleziaz, Kristoren indarra bizi dadin nigan. Pozik nabil, beraz, Kristogatik jasaten ditudan ahulezia, laido, beharrian, erasoaldi eta estualdietan. Ahul naizenean, orduan bainaiz indartsu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arabak ere ez al dira hemen gure artean bizi?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitartean eta etxean izan

Urteko 14. astea

San Fermin (Iruñea 3. mendean?-Amiens?), *gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria*

ezik». Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Gure familiak izaten dira erreferentzia-gunerik erabakigarrienak. Bizitza, funtsezko aldeei dagokienez behintzat, geure familia-loturen bidez ezagutzen dugu. Gure etapa biografiko askotan familia izan ohi dugu geure orientabide erabakigarri bakarra. Baina egia da, era berean, familia gure ibilbidearen zati bakar baten tutore eta lekuko izan ohi dela, azken batean; eta, beraz, bizi izan dugunaren pasarte solteak baino ez dituela gordetzen. Gure irudiak erabiltzen ditu, zeintzuk jadanik iraganeakoak baitira kasu askotan. Gure familia-inguruneak kristaldu egin dezake gutaz duen pertzepzioa, oso zaharkitu bilakatuz. Horrela, mundu itogarriegi bihurtzen da, bere ikuspegietan estu eta aldaketaren ukatzaile. Familia horrek ahaztu egiten du beraren kideak prozesu irekiak direla, eta norberaren mugak gainditu nahi dituen maitasun unibertsalera deituak. Jesusi horixe gertatu zaio bere jendearekin. Nazaretek ez dio uzten, Jainkoa eta beronen borondatea ulertzeko beste modu bat egon daitekeela pentsatzen. Nazaretarrek ezagutzen zuten Jesusekin iragan komunean izandako argazki finko haiek atera dituzte argitara. Eta ez dira konturatzen garai bateko haur eta gazte hura ez dela jada existitzen: Jainkoak hazarazi egin du.

Urteko 14. astea
 Santa Priszila, *martiria*
 San Prokopio, *martiria*

Oseasen Profezia liburutik 2, 16. 17b-18. 21-22: Neure emazte egingo zaitut betiko. **Sal 144:** Errukiorra eta bihozbera da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 18-26.

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin. Hontan, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, hau baitzioen bere baitan: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatua gelditu zen. Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, esan zien: «Alde hemendik! Neskaxa ez dago hila, lo dago». Haiek barre egin zioten. Jendea bidali zutenean, sartu zen Jesus eta eskutik heldu zion neskaxari, eta neskaxa jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

Jesusen profil publikoaren arabera, taumaturgo ospetsu bat zen. Beraren mirariak heriotzaren mugak zapaltzera iritsi dira. Muturreko eremuak gurutzatzen dituzte, non giza prekarietatea edo eskastasuna nagusi baita. Eta jendea sendatu ahala doa Jesus bere mezua uzten. Mateok kontatzen duen sendaketa bikoitz ezagunean, zeina Markosena baino askoz ere soilagoa baita, berririo azpimarratu da miraririk ez dela federik ez badago. Maisuarentzat ez dago balioudun taumaturgiarik federik gabe. Gauza guztien Kreatzailearekin bizi izandako harremana besterik ez da fedea. Horrela ulertzen da Jesusek uko egitea goraipatua izateari, ospea emango liokeen taumaturgo arrakastatsu gisa. Izan ere, mirakuluek ez dute besterik nahi: Kreatzailea bere sorkariei buru-belarri emanik dagoela agertu: bera bakarrik da sendatzen duena.

Urteko 14. astea

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*. Santuak: Leon Ignazio Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*

Oseasen Profezia liburutik 8, 4-7.11-13: Haizea erein dute, eta ekaitza jasoko. **Sal 113B:** Israeldarrok, izan konfiantza Jaunagan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 32-38.

Aldi hartan, deabruaren menpe zegoen mutu bat ekarri zioten Jesusi. Honek deabrua bota zuen, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, zioen: «Ez da Israelen egundaino horrelakorik ikusi». Fariseuek, berriz, hau zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak». Herriz herri eta auzorik auzo ibili ohi zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara».

Jesusek egiaz «jasan zituen gure sufrimenduak eta leporatu gure oinazeak» (Is 53, 4). Hala ere, ez zituen betiko desagerraraziko, mirakulu asko egin arren. Atsekabeak hartu eta bere gain eraman zituen. Askok galdetzen dute ea horrekin nahikoa ote den... Onartu behar da, geure inguruan ditugun benetako gizatasunaren zeinuen artean, badirela zeinu batzuk, zeintzuen bidez gure kargak norbait gomendatzen baitizkiogu eta beraren eskuetan uzten. Horrela, deskontsolamenduak jasangarriago bihurtzen dira, eta bizitza gozoago gertatzen. Ordudanik ez da norbera eta bakarrik haiek jasaten dituen, baizik eta hainbat lagun gara. Hori bai dela nahikoa, sufrimenduak eta oinazeak zentzuz eraldatzen hasteko. Horregatik arrazoizkoa da Jainkoari «bidal ditzala langileak» eskatzea, hori baitu bere modua atsekabetzen gaituen guztia bere sorbaldan eramateko!

Urteko 14. astea
Santa Rufina, *martiria*
San Felix, *martiria*

Oseasen Profezia liburutik 10, 1-3. 7-8. 12: Jaunagana jotzeko garaia duzue. Sal 104: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 1-7.

Aldi hartan, Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hona hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samariako herrialdean ere, baizik eta zoazte Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua».

Dizipuluen duintasuna ez da mugatzen Jesusek aukeratuak izatera. «Espiritu gaizkileak kanporatzeko» eta «gaixotasun eta gaitz guztiak sendatzeko» jasotzen duten «aginpidea» ere duintasuna da. Zirraragarria da gomendioa. Karmeldar elkarte hura dakarkigu horrek gogora, Auschwitz-eko sarraski-eremu naziaren, non milioi bat eta erdi judu baino gehiago erail baitzituzten, ondoan komentu bat eraiki zuena. Aipatu elkarteak nahi zuen gauza bakarra gutxieneko presentziaren testigantza eskaintzea zen, holokaustoaren oinaze etsigarri eta itogarri haren aurrean, «espiritu gaizkileek» sortua eta «gaixotasun eta oinaze sortzailea» zenaren aurrean. Ebanjelioaren esentziaren distira zen hura: minarekin zerikusia duen ororekiko hurbiltasuna. Izan ere, Jesusek giza sufrimendura hurbiltzen gaitu. Ez da hori besterik benetako «aginpidearen» jatorria: aginpide honetaz gelditzen da kristau karguturik.

Urteko 14. astea

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*

Esaera Zaharrak liburutik 2, 1-9.

Ene seme, nire esanak onartu eta nire aginduak gogoan gordetzen badituzu, jakinduriari kasu eta zuhurtziari jaramon egiten badiezu; adimenari dei eta zuhurtziari oihu egiten badiezu, horiek dirua eta altxorrek bezala bilatzen badituzu, orduan ulertuko duzu Jaunaganako begirunea, eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara. Jauna baita jakinduria ematen duena, beragandik datoz ezaguera eta zuhurtzia. Berak ematen die arrakasta zintzoei eta babesa jokabide zuzenekoei; zuzenbidea babesten du eta zintzoen jokabidea zaintzen. Orduan ulertuko duzu zer den justizia eta zuzenbidea, jatortasuna eta jokabide on oro.

Sal 33: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 27-29.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?». Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta negatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare».

Beti xuxurlatzen digu gauza batek berak: besteengatik geure burua gastatzen ari garen bitartean, nola eta noiz aitortuko digute hori guztia? Gure ahaleginak aseko dituen konpentsazioa eskatzen dugu. Geure burua leihatila baten aurrean ikusten dugu: uste izaten dugu han ordainduko dizkigula norbaitek geure sakrifizioak. Uste hori zuten dizipuluek, zer egokituko zitzaien galdezka, Jesusengana joan zirenean. Inbertitua baino «ehun aldiz gehiago», iradoki zien

Urteko 14. astea

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*

Jesusek. Ziurtzat eman zuen, doakotasunaren saria kalkulazina dela... Alabaina, Jesusek modulatu zuen etorkizunean izango zela hori: betiko bizia geroago jasoko da. Doakotasunak ez du saririk izango hemen eta orain. Hau da, eskaintza-keinu bakoitzak balio nabarmena du, baina inoiz ordainduko ez den zor baten hartzekodun egiten gaitu. Horixe da bizitzaren edertasun sakonaren sekretua, Jainkoak kreazioari hornigarri eman zionarena.

* * *

Latifundio aitortza

Igaro naizen lekuetan
 beti landatu dut
 alanbre hesia.
 Igaro naizen lekuetan
 beti landatu dut
 heriotza erahila.
 Igaro naizen lekuetan
 beti landatu dut
 elkarte isildua,
 ereintza izerditua,
 lur amestua.
 Igaro naizen lekuetan
 beti landatu dut
 ezereza, ezereza, ezereza.

(*Pedro Casaldáliga*)

Urteko 14. astea

San Joan Gualberto, *abadea*San Hilario, *martiria*

Oseasen Profezia liburutik 14, 2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. **Sal 50:** Nire ahoak iragarriko du zure gorespena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 16-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo. Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez. Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua. Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko».

Zoriontasuna ez da zehazki une bat, ez da esperientzia berezien kontua ere. Beraren estiloa ez da unea. Bakarrik, denbora joan ahala jakingo dugu zoriontsu garela. Izan ere, zoriona oharkabea gertatzen zaigu askotan. Halabeharrez, oso garai ilunetatik igarotzen da eta hari eta lasterka aldatzen ez diren koiunturetatik. Zoriontsu izateak zerikusi handia du iraupenarekin: etsipenari amore ematen ez dion denboraren bizikide izate horrekin. Jende iraupentsua ez da fidatzen ez arrakastez, ez porrotez. Badaki gauzarik funtsezkoena bi horiez harago dagoela. Jesusek iraupena eskatu zuen Ebanjelioaren benetako fruituak eman ahal izateko. Bera eman ahal duen harengandik, «zuen Aitaren Espirituagandik», datorren iraupena da. Beti sostengatzen gaitu Espiritu horrek. Zorionaren beraren bertsioa da: ez dela zehazki une bat, ez dela esperientzia berezien kontua ere.

Urteko 14. astea

San Enrique, *enperadorea*
San Silas, *San Pauloren laguna*

Isaias profetaren liburutik 6, 1-8: Ezpain kutsatuak ditut. Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi dut neure begiz! **Sal 92:** Errege da Jauna, ospez jantzia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 24-33.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehiago. Nahikoa du ikasleak irakaslea adinako izatea, eta morroiak nagusia adinako. Etxeko jaunari Beeltzebul deitu badiote, zer ez ote diete deituko haren etxekoei? Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarrira entzuten duzuen hots egin etxe-gainetatik. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernuan gal dezakeenari. Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiek baino gehiago balio duzue zuek. Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

Zenbat gauza diren geure barrua azpikeriaz erailtzen digutenak! Jesusek bere dizipuluei oso serio aholkatu zien bereizi zitzatela beren heriotzak, era askotan eta jarraian gertatuko zitzaizkienak. Denak ez dira berdinak. Arreta berezia jarri zion «arimaren heriotza» deitu zuenari. Edozein mehatxu fisikok ez bezala, «suarekin arima eta gorputza suntsi ditzakeen» guztiak eragiten dio Jesusi aurre-erreparorik handiena. «Ariman» dugu gizateria zerbitzatu nahi duen Jainkoari erantzuteko geure gaitasuna. Maitasunaren eta askatasunaren egoitza

Urteko 14. astea

San Enrique, *enperadorea*San Silas, *San Pauloren laguna*

da arima, etengabe birkreatzen aritzeko Jainkoak erabiltzen dituen bi horien egoitza, alegia. Giza arimak ontzen du mundua. Hain gizatiar eta jainkotiar den barnekotasun horren aurkako atentatu dira: kontzientzia iraintzea, pentsamendua behartzea, fedea isilaraztea. Horregatik, barnetasun hori hiltzea, bizi garen mundua argitzeari uko egitea da.



Txori guztiek baino
gehiago balio duzue.

Zudaireko Esteban eta Maiorgako Joan *dohatsuak*,
eta lagunak, *martiriak*

San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*

Amosen Profezia liburutik 7, 12-15.

Egun haietan, Amatziasak, Betelgo apaizak, esan zion Amosi: «Ikusle, zoaz, alde hemendik Judako lurraldera. Egin han profetarena eta irabazi zeure ogia. Baina ez jardun gehiago profetagintzan Betelen, hau errege-santutegia baita eta erreinuko jauretxea». Amosek erantzun zion Amatziasi: «Ni ez naiz ogibidez profeta, abeltzaina naiz eta basapiku-biltzailea. Abeltzain nenbilela hartu ninduen Jaunak eta bere herri Israeli profetizatzeraz bidali».

Sal 84: Jauna, zeure onginahia erakutsiezaguzu, zeure salbamena emaguzu.

San Paulok Efesoarrei 1, 3-14.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Seme honen heriotzaz dugu askapena, bekatuen barkamena, Jainkoaren onginahi eskuzabalar eskere; oparo isuri du bere onginahiaren dohaina, jakinduria eta ezaguera osoa guri emanez. Bere asmo ezkutua ezagutarazi digu, bere onginahiak erabakia zuen asmoa: historia bere betera eramateko, zeruko nahiz lurreko gauza guztiak Kristogan biltzea, berau buru dela. Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

Eta zuek ere egiazen mezua, salbatzen zaituzten Berri Ona, entzun eta Mesiasengan sinetsi duzenok, agindutako Espiritu Santuaz zigiluz bezala markatuak izan zarete. Espiritua da hartuko dugun ondarearen

Urteko 15. astea

Zudaireko Esteban eta Maiorgako Joan *dohatsuak*,
eta lagunak, *martiriak*
San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*

bermea, Jainkoak bere egin duen herria askapen osora iritsiko denaren bermea, Jainkoaren aintzaren gorespen-kantu izateko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela. Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitzatela; baina aldatzeko soinekorik ez. Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat». Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio z gantzutuz.

Apostolu-eran bizitzeko, baldintza zorrotzak ezarri ditu Jesusek: dizipuluak desjabetu daitezela eta uko egin diezaiotela etorkizuna kontrolatzeari. Biderako funtsezko denaz bakarrik hornitu behar dute. Alferrikako sostengarriak oztopo izaten dira, segurtasunak sobera gertatzen dira eta hornikuntzak debekaturik daude. Jesusek berak ere ez die ematen, aldez aurretik, bere ikasleei misioan arrakasta izango duten ziurtasunik. Izan ere, berria denak, benetan halakotzat hartua izango bada, mezulari izango direnak beren buruaz hustu daitezzen eskatzen du. Berezihi hustu daitezela beren bizitza dominatu nahi izatetik eta beren iraganaren, beren lorpenen eta auto baiespen-espektatiben arabera antolatu nahi izatetik. Bihar eguna erabat Jainkoaren jabetza bezala irudikatua izatera pasatzen den heinean, gure egoismoa beraren ekintzarekin nahastu gabe esku hartu ahal izango du. Orduan, berria dena bere indar guztiaz sartuko da... Beraz, ez diezagula beldurrik eman geure buruagandik eta hainbeste babes eman digun guztitik askatzeak. Uzten badiogu, Jainkoa lagun izango dugu berak eskatu digun misioan. Bete beharreko baldintza geure plangintzak erlatibizatzea da eta haien bidez kontrolatu nahi genukeen hura, geroa, Jaungoikoaren esku errukitsueta jartzea.

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*
Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 - Brasileria bidean
kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*

Isaias Profetaren liburutik 1, 10-17: Garbi zaitezte, garbitu; kendu nire begien aurretik zeuen egintza gaiztoak. **Sal 49:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 34-11, 1.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baizik banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxekoak izango ditu etsai. Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko». Hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

Kristauen Jainkoaren esperientzia kezagarria da. Lehenago edo geroago, krisi bat onar dezagula eskatzen du. Askotan, Jainkoak benetan eman nahi ez digun bizitza amesten dugu. Beste bat eskaini nahi digu. Gertatzen dena da, Jainkoa guk imajinatzen dugun ez bezalakoa dela. Sarritan geure kontzientzia pertsonalaren eta kolektiboaren droga sorgarri gisa-edo ematen diogun identitateari uko egiten dio, eta liberatu egiten da berari buruz ditugun proiektioetatik. Beraren

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 - Brasileria bidean

kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*

Erresumak munduaz forma berri-berri bat sustatzen du. Jesusek, bere irakaspenetan, aldera batera eta bestera errepikatzen die hori Ebanjelioa hots egiteko konpromisoa hartzen dutenei. Horiek horrela, ezinbestekoak dira krisiak, Jainkoaren iritziak eta gureak ezberdinak baitira. Berarekin topo egiteko puntua gugandik eta gure ametsetatik kanpo dago: «gurutzean», hain zuzen ere; Jesusek berak espresuki aipatzen du hori, eta gurutzean dugu bera gure zain, ... gurutziltzatuta.

* * *

Gau argi izpiak

Baina bada ezkutuan entzuten dizunik,
zenbait auzo eta klaustrotan,
zure ebanjelioa ikur hartu dutenak,
non maitasuna nagusi den eta gorrotoak ihes egin duen,
bizia partekatzen den eta odola banatu,
gosearen aurka ekiten den eta armak txikitzen diren
ardi galduak gartsuki bilatzen diren.

Badira argi intsumisoak, solidaritate kandelak,
han, hemen eta bazter guztietan,
beraien argia zure gurutze eta pazkoan pizten dute
argi ezkutuek, arriskua
birsortzera doanean dizdiz egiten dutenek.
Beraiek indartzen dituzte ilusioak,
zure asmoetara biziak erakartzen
eta atzeratzeari ateak ixten.
Beraiekin zaude zu.

(Patxi Loidi)

Urteko 15. astea

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama). Larreako
Andra Maria, Karmengo Ama

Karmengo Amaren Meza: Zakarias 2, 14-17: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! **Sal: Lk 1, 46-55:** Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena. **Mt 12, 46-50:** Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesussek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».

Isaias Profetaren liburutik 7, 1-9: Sendo sinesten ez baduzue, ez duzue sendo iraungo. **Sal 47:** Sendo ezarri du Jainkoak bere hiria betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 20-24.

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolujantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango dute Tirok eta Sidonek, zuek baino. Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko zarela? Lurraren barreneraino eroriko zara! Izan ere, zuregan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodoman, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango du Sodoma, zuk baino».

Korozainek eta Betsaidak sakonki zauritu dute Jesus. Honen misiolari ekintza biziaren aurrean haien erantzun ebanjelikoaren eskasia etsigarria da. Jasotako dohainen eta hauen ordain itzulitakoaren arteko desfasea da Jesus sumintzen duena, benetan posible denaren eta azkenean egiaz izan denaren arteko desfasea. Elizak ez-egitezko bekatutzat aitortzen duena adierazten da hondo-hondoan. Ez gaitu juzkatu egin dugun gaizkiagatik, baizik eta egin ez dugun onagatik baizik; izan ere, on horren tamaina askoz handiagoa da gure bizitzan egiten dugun gaizkiarena baino. Ez-egitezko bekatuak iradokitzen du ontasun-ahaltasun handiko osotasuna garela. Eta ontasun-ahaltasun bagara, edozein denbora da aukera ona Ebanjelioarentzat, ... aprobeitza dezagula aldarrikatzen digu berorrek.

Urteko 15. astea

Santa Segunda, *martiria*San Leon IV.a, *103. aita santua*

Isaias Profetaren liburutik 10, 5-7. 13-16: Harrotzen ote da aizkora aizkolariaren aurka? **Sal 93:** Jaunak ez du bere herria zapuztuko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatu Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Jainkoaren ikusezintasuna, teologiak hainbeste aipatzen duena, berak aukeratu dituenen eta gogokoen dituenen ikusezintasuna da. Jesusi harrigarriro ageriko gauza egin zaio bere Aitak «jende xumeaz» agertu duen lehentasuna. Jainkoa oso hurbil du jende xume horrek. Guztiz txikiak diren horiekin ezkutatu egin du bere misterio infinitua. Jesusek miresmena sentitu du beraren Aitak errebelatzeko duen modu horretaz. Izan ere, erabat baztertu du garai guztietako boteretsuen ikuspegia, munduaren historia marraztean erabili izan dutena. Ikuspegi horren aurka, ahulenak dira Jainkoak darabilen orpoa, salbazio-sarreraren atea jirarazteko. Hauskortasunaren zapiz estali du bere burua eta berorren azpian ezkutatu da. Baina ez jada ikusezin geratzeko, baizik eta bera argi eta garbi ikus dezagun, hain justu, besarkatu duen eta inoiz ere zapuztuko ez duen eskastasun horrexetan.

Urteko 15. astea
San Federico, *gotzaina*

Isaias Profetaren liburutik 26, 7-9. 12. 16-19: Lurpean etzanak esnatuko dira eta pozez oihuka ekingo diote. **Sal 101**: Zerutik lurrera begiratu du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Betidanik eta oinarri sendoz, etiketatu izan da erlijioa sakrifizio eta gizatasuna deuseztatzeko gune gisa. Inpresio hori berresten du, kultura askotan, erlijio-esperientzia ulertzeko eta erakundetzeko moduak. Jainkoa eta gizakia harreman toxiko baten barruan kokatu izan dira: lehenak, benetan izateko, bigarrena desohoratu beharra zuen nahitaez. Teologia oker horiei uko egin die Jesusek, eta iragarri du beraren «uztarria» jasangarria dela eta beraren «zama» arina. Ezin leporatu diogu Jainkoari gizakiaren heriotza. Ebanjelioa transzendentziaren eta immanentziaren arteko elkargunea da. Lehenengoa bestearengan haragitu da «atsedenean» sartzeko; horrenbestez, zenbat eta Jainkoagan sakonkiago izan, orduan eta gizatiarrago gara.

Urteko 15. astea

Kordobako Santa Aurea, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 38, 1-6. 21-22. 7-8: Entzun dut zure eskaria, eta ikusi ditut zure malkoak. **Sal Is 38:** Zuk gorde duzu, Jauna, nire bizia hondamen-leizetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 1-8.

Aldi hartan, larunbatean gari-soroetan barrena zihoan Jesus. Ikasleak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren. Hori ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak». Hark erantzun: «Ez al duzue irakurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak gertatu ziren batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, lege ez berak ez beraren lagunak, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaizketenak? Edota ez al duzue irakurri Moisesen legean apaizek larunbatero hausten dutela tenpluan atsedeen-legea, horregatik errudun izan gabe? Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Ulertu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

Jesusen eskaria bera «larunbataren Jauntzat» har dezaten, ez da kendu dioten titulu baten errebindikazioa. Baizik era bere nortasun sakonenaren adierazpena da, berari hain lotua bere misioan: askatasunaren aldeko oihu biribila da, eraikitzen ditugun mundu zapaltzaileen, non giltzapetzen baikara, iraungipena edo galkortasuna deklaritzen duena. Zenbatetan entzun behar ote dugu giza produktu bakar bat ere ez dela izango gure bizitzaren jaun murriztaile! Bakar bat ere ez: ez botere-egitura, ez sistema sozio-politikoa, ez koiuntura ekonomikoa, ez kultura-ideologia. Jende asko poztuko litzateke kondena publiko hori entzuteaz irteerarik gabeko kalezuloetan, hain ugari ugari direnetan gure mundu garaikidean. Gertatzen da badela Norbait gu geu baino handiagoa dena eta, jakina, gu baino hobea, «larunbata» sortu zuena, esandako hori guztia gogoratu ahal dezagun.

Urteko 15. astea

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*
San Elias, *profeta*

Mikeasen Profezia liburutik 2, 1-5: Lurrak gutiziatzen dituzte, eta etxeetan lapurreta egiten. **Sal 9 B:** Ez ahaztu errukarriez, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 14-21.

Aldi hartan, fariseuek, sinagogatik atera zirenean, elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko. Jakin zuen hori Jesusek eta alde egin zuen handik. Jende askok jarraitu zion, eta Jesusek denak sendatu zituen, eta agindu zien ez zezatela ezagutzero eman. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen: «Hona hemen nire zerbitzaria, Nik aukeratua, nire maitea, atsegin dudana. Honengan ipiniko dut neure espiritua; zuzenbidea iragarriko die herriei. Ez du haserterik sortuko, ez oihurik egingo, ez da kaleetan haren mintzoa entzungo. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko, zuzenbidea nagusiarazi arte. Hura izango dute itxaropen nazioek».

Lidergo erabakitzaileak, kolpe lehorreko eta keinu gogorrekoak, eraginkorrak izateko argudiorik hoberena indarra dutenak gehiegi estimatzen dituen mundu honetan, zein iraultzea den Jesus, kanabera arrakalatua hausten ez duen eta argi-metxa ahula itzaltzen ez duen lider hura bezala! Jaunak oihuka jardun gabe konbentzitzen du. Beraren aginpidea aitortua den ahultasunetik dator. Beraren botere-erakustaldiaren parte da isiltasuna. Bere otzantasuna izango du bere aldaketa-estrategia. Honetan datza Ebanjelioaren handitasuna: soilik, askatasuna sortzean, orduan bakarrik egingo du aurrera; askatasun hori inoiz ez da jaioko beldurrak erresumintzen duen tokian. Gaitzak sinetsarazi nahi izaten du indarkeria duela gizadiak maniobrarako bitarteko bakarra. Jesusek, Jaun gorenak, esanez jarraitzen du ez dela hori egia, eta hain emeki esaten du... ez baitaio ia entzun ere egiten.

Urteko 16. astea

San Lorenzo Brindiskoa, apaiza eta eliz irakaslea

Jeremias Profetaren liburutik 23, 1-6.

Hau dio Jaunak: «Zoritzarrekoak nire larreko artaldeak sakabanatzen eta galtzen uzten duten artzainak». Beraz, honela mintzo zaie Jauna, Israelen Jainkoa, herria gidatzen duten artzainei: «Zuek sakabanatu eta jaurti dituzue nire ardiak eta ez zarete haietaz arduratu. Ba, kontuak eskatuko dizkizuet zeuen jokabide txarragatik –dio Jaunak–. Nik bilduko ditut bizirik geldituriko neure ardiak, sakabanatu nituen lurralde guztietatik; beren larreetara ekarriko ditut berriro, eta hazi eta ugaritu egingo dira. Ongi zainduko dituzten artzainak sortuko dizkiet; ez dira inoiz beldurtuko, ez izutuko, eta ez da bat ere galduko –dio Jaunak–». Hau dio Jaunak: «Badatoz egunak, eta egun horietan legezko muskila sortuko diot Davidi. Errege zentzudun bezala gobernatuko du eta zuzenbidea eta justizia ezarriko du lurrean. Haren egunetan Juda salbatuko da eta Israel seguru biziko. Eta izen hau emango diote: “Jauna gure justizia”».

Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

San Paulok Efesoarrei 2, 13-18.

Senideok: Orain, Kristo Jesusengan zaudete. Garai batean urruti zinetenok, hurbildu egin zarete Kristoren heriotzari esker. Izan ere, Kristo da gure bakea. Bat egin ditu berak bi herriak, bereizten zituen hesia, etsaigoa, deseginez. Bere gorputzean baliogabetu du legea bere agindu eta arauekin, eta bi herriekin beregan gizadi berri bakarra sortu du, bakeak eginez. Bi herriak Jainkoarekin adiskidetu ditu eta gurutzeko heriotzaren bidez gorputz bakar batean elkartu, haien arteko etsaigoa beregan suntsituz. Bere etorreraz bakearen Berri Ona ekarri zuen: bakea zuei, urruti zinetenoi, eta bakea hurbil zirenei; izan ere, bai batzuk eta bai besteok beraren bidez hurbil gaitzezke Aitagana, Espiritu berarengan elkarturik.

Urteko 16. astea

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedena pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik. Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurea hartuz. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Ikasle izateko moduaz argi indartsua ematen digu eszena honek. Barne-tirandurak markatua izango da Jesusen jarraitzailea. Alde batetik, ekintzaz gainezka bizi den pertsona izango da. Dizipuluak eskastasun askorekin egingo du topo; horiei erantzunez, lan eskerga eta geldiezina egitera joko du. Egia esan, ez du «jateko astirik ere». Baina, bestetik, Jesusek jakinarazten die ikasleei, aktibismo horrek higitu egiten duela pertsona. Horregatik, atsedena proposatzen die. Ez da gelditze huts bat: «leku bakarti batean» funtsezkoa dena berreskuratzeko atsedena da. Pentsa dezakegu, Jesusek sarritan egin zuela hori berak ere ibilera bizi-biziko esparruan, eszena bera errepikatzen zuelarik: Jesusen eta beronen taldearen bila dabiltzanak «korrika joan ziren leku hartara lurrez eta aurea hartu zioten». Ekintzaren eta kontenplazioaren arteko tirandurak modulatu du Jesusi jarraitzea. Oso gurutziltzatuta dagoen eta berehalako arreta eskatzen duen munduaren aurrean, etengabeko bereizmena egin beharra dakar horrek guztiak. Tirandura horrek, ordea, babestu egiten du. Dizipuluen atsedena eta elkar zaintzaren beharizanak eragotzi egiten dute edozein arrazoirengatik jardutea, eta edozein egoera pertsonal eta komunitariotan. Segimendua desitxuratu egin daiteke, eta nork bere buruari saldukeria egiteko dinamika bihurtu. Beraz, esan daiteke, kasu honetan ere ez duela denak balio.

Urteko 16. astea

Santa Maria Magdalena

Kantarik Ederrena liburutik 3, 1-4a.

Honela mintzo da emaztea: «Neure bihotzeko kuttunaren bila ibili nintzen gauetz, ohean; bila ibili, bai, baina aurkitu ez! Jaiki eta herrian barna abiatu nintzen, kale eta plazetan zehar, neure bihotzeko kuttunaren bila; bila ibili, bai, baina aurkitu ez. Herrian zebiltzan zaindarien aurkitu ninduten. “Ikusi al duzue nire bihotzeko kuttuna?”, galdetu nien. Haiengandik aldendu nintzeneko, aurkitu nuen neure bihotzeko kuttuna».

Sal 62: Zure egarritz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1-2. 11-18.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zion: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan, negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?». Hark erantzun zion: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?». Hark, baratze zaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!». Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”». Joan zen

Urteko 16. astea
Santa Maria Magdalena

Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Berpizkunderako protokolo moduko bat asmatuko bagenu, San Ignazioren hau otuko litzaioke norbaiti: Berpiztua bere amari agertuko zitzaion beste inori baino lehen. Ondoren, dizipuluekin jardungo zuen eta Maisuaren inguruan eratu ziren beste taldetxo desberdinekin. Baina Berpiztuak ez du horrela jokatu. Aukeratu duen lehen protokolo-urratsa Maria Magdalenari agertzea izan da. Hasiera hartako kristau-komunitateak argi izan zuen hori: Magdalena izan zen, eta ez beste inor, lehen lekukoa. Zerbait bada duintasun horretan, Maria Magdalena fededunaren prototipo bihurtzen duen horretan. Izan ere, hilobira joatea erabaki du, dizipuluetako beste inork egin ez duen bezala. Deliberatuki hartutako erabakia da, «goizaldean», «artean ilun zela». Keinu horretan Maria Magdalenak Jesusi dion maitasuna ikusi nahi izan da eta dolua adierazteko modua. Baina sumatu izan da fedearen dinamika propioa ere: sinesteak atsekabearen aurka jotzera bultzatzen gaitu. Maria Magdalena minaren muinean murgildu da eta poza itxura ezkutatu zaion hartan sartu da. Aringarririk gabe egiten dio aurre tristurari. Fedeak berretsi dio mugatua dela sufrimendua eta beronetatik sortuko dela sufrimendu hau bera neutralizatuko duena.

* * *

Desberdin izatea ez da, ez on, ez txar; soil-soilik esan nahi du aski kementsu zarela zu zeu izateko (*Albert Camus*).

Urteko 16. astea

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europako Zaindaria)**

Mikeasen Profesia liburutik 7, 14-15. 18-20: Itsas hondora botako ditugure bekatu guztiak. **Sal 84:** Erakutsi guri, Jauna, zeure maitasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 46-50.

Aldi hartan, Jesus jendeari hitz egiten ari zela, haren ama eta anai-arrebak azaldu ziren kanpoan, berarekin hitz egin nahian. Batek esan zion: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zurekin hitz egin nahian». Jesusek, berriz, erantzun zion: «Nor da nire ama eta nor nire anai-arreba?». Eta, bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Izan ere, zeruko nire Aitaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia eta arreba eta ama».

Oso barnetik irteten den ahotsa da; gure barnekoitasuna den eremu errepikaezin horretan bakarrik dagoena; sakonki neurea dudan horretatik sortzen dena; xumetasunak bide egiten ahal duen hartan bakarrik aurkitzen dena. Gure niak zailtasunik gabe entzun dezakeen ahotsa da. Gurekin batera Espirituak ere ahoskatzen duen ahotsa da. Berak eta guk aldi berean eta erritmo berean kantatzen dugun partitura beraren aurrean bageunde bezala. Gure egia da, besterik gabe, eta, orobat, gure askatasuna, traba gehiagorik gabe. Jesusek, hain egia aske horretan eta hain askatasun egiazko horretan, Jainkoari sakonki loturik dagoen zerbait ikusi du, eta beragan iraun dezakeena, berak gudan irauten duen bitartean. Nahikoa da hitza jartzea, eta entzuten denak zuzeneko zerikusia du garenarekin eta espero dugunarekin. Oso ahots baketsua da. Otzan-otzana da. Eta, hala ere, gai da egitura kolektibo gaiztoetan eta asmo pertsonal okerretan barneratu eta desegiteko, berenez aginpiderik gabe geldituko diren arte. Horrelakoa, jas horretakoa, da Espiritua eta gudan duen bere iraupena; horrelakoa, jas horretakoa, da gure apaltasuna eta honen iraupena Espirituagan.

* Zakarias Fernandez, *dohatsua*

Joan Pedro Bengoa eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak*

Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934)

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890-Carrion de Calatrava 1936*) eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak, martiriak 1936**

Jeremias profetaren liburutik 1, 1. 4-10: Profeta izendatu zintudan nire mezua herriei iragartzeko. **Sal 70:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 1-9.

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen. Gauza asko esan zien, parabola bidez hitz eginez: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait ale harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, lur axala izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuen hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarririk duenak entzun beza».

Gauza bat da aukerak mugatzen dizkizuten eta kontuan jendemota bat bakarrik hartzen duten mundu batean bizitzea, eta beste bat, oso desberdina, aukerak ugari dituzun eta erraz aurkitzen ahal dituzun munduan bizitzea. Bi munduak oso desberdin esperimentatzen ditugu. Batean larritasuna eta etsipena dira nagusi, ikusirik bizitza luxu bat dela pribilegiatuentzat. Bestean, berriz, bizitza guztiontzat aukera da. Jesusek bigarren mundu hau du amets; ereile batek gobernatzen du, hazia han eta hemen ereinez, beti ernetzen ez bada ere. Gehiago zaio axola hazia lurraren edozein zirrikitutara iristea, argi gera dadin, berez dena dagoela bizitzera bideratua. Zentzu emankor eta bikain horrek bustitzen du Jainkoak kreatu duen mundua, garen hau eta guztiona. Eta ona da hori jakitea, hazi-izpirik ere gal ez dadin alferrik.

* Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917-Ciudad Real 1936*), *dohatsu, pasiotarra*, eta lagunak, *martiriak*
Margarita Maria Lopez de Maturana, *birjina*
Santa Kristina, *martiria*. San Arnulfo, *martiria*

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 33; 5, 12. 27-33; 12, 2.

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz. Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue». Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua». Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

Sal 66: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.

San Paulok 2 Korintoarrei 4, 7-15.

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere gugan ager dadin. Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, gugan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?». Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?». Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!». Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzaturik izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Zergatik da zerbitzatzeari Jesusen Jainkoari dagokion gauzarik propioenaren adierazpena, hainbestearaino ezen «gizakiaren Semeak bere bizia ematea» beste zerumugarik ez baitu? Zein da Jainkoa bere burua lagun-hurkoaren lagun aitortzen eta egiten duenaren alde erabat

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

egoteko arrazoia? Nondik sortzen zaio Jainkoari gizakia goratzeko eta haren oinetan begirunez jartzeko gogoa? Erantzunak Jesusek bere bizitzan txertatu dituen eratan araka daitezke. Ebanjelioak hasieratik bukaerara deskribatu ditu. Jesusek praktikatu duen zerbitzua, guztion onerako gauza baliagarriak egitea baino gehiago da. Egia esan, zerbitzatzea horrelako gauzak besteen alde egitea da; baina, halako moduan non hauek, egin zaien zerbitzua nabaritzean, beren nortasuna ezagutu eta ulertu egiten baitute. Zerbitzatzea “izan” aditza jokatzeko modua da: zerbitzu bat eskaintzen digutenean, izan bagarela esaten digute eta zer garen adierazten. Zerbitzu bat eskaintzen digutenean geure duintasuna aitortzen digute. Horixe da Kreatzaileak bere kultura guztiekin eta bakoitzarekin etengabe praktikatzeko duena: zerbitzatzeko kultura eta... kulturean zerbitzatzeko.

Urteko 16. astea

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak

Jeremias Profetaren liburutik 3, 14-17: Neure gogoko buruzagiak emango dizkizuet, eta herri guztiak bilduko dira Jerusalemen.
Sal Jr 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 18-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolaren esanahia: erreinuaren mezua entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean ereindakoa. Hori da bide-bazterrean ereindakoa. Harri artean ereindakoa haxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen txikikoa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du. Sasi artean ereindakoa haxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru-goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz. Lur onean ereindakoa, berriz, haxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek ematen du fruitua: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

Bizi, honela bakarrik egin daiteke: onartuz, lehenago edo geroago, gaizkiaren dinamika «datorrela». Ez gaude hartaz libre. Horrek esan nahi du, sinestun izatea nuklearra dena zainduz erne bizitzearen pareko dela. Inozokeria izango litzateke uste izatea gaitza guk ertzeko gauza izango dugula eta ez digula inoiz ere erronka joko. Uste hori, funtsean, sakonerari uko egitea da. Ereilearen parabolak gogorarazten digu etorkizuna sakoneko direnena dela, eta ez azaleko direnena. Laburbilduz, erne egon behar badugu ere (agur erabateko lasaitasunari!), gatazkak korapilatuko bagaitu ere (agur arazorik gabeko bizitzari!), irtenbide errazek tentatuko bagaituzte ere (agur politikoki zuzena denarekin bat egiteari!), Jesusek dio, Jainkoagandik jasotakoak iraun egiten duela eta, batez ere, fruitua ematen duela geure buruari eman izango diogun sakontasunaren arabera.

Urteko 16. astea

San Galaktario, *gotzaina eta martiria (Baionako elizbarrutian)*Maria Pilar Izquierdo Albero *dohatsua, birjina*

Jeremias Profetaren liburutik 7, 1-11: Lapur-zulotzat al duzue Niri sagaratua dagoen tenplu hau? **Sal 83:** Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 24-30.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin, gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean iraka erein eta alde egin zuen. Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen iraka ere. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?». Nagusiak erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek, orduan: “Joango al gara iraka biltzera?». Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, iraka biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehendabizi iraka, lotu eta erre; garia, berri, jaso nire mandiora”».

Dena perfektua izango litzateke, bestelakoa izango bazina. Dena perfektua izango litzateke, arazo hori ez balego. Dena perfektua izango litzateke, egoera hori gertatu ez balitz... Hondoko kanta horren logika, beste errealitate bat asmatzera garamatzan ameskeria da: beste pertsona batzuekin, beste gaitasun batzuekin, beste gorabehera batzuetan. Garia iraka gaiztotik bereizi nahi izatearen fantasia da, baliagarri dugunarekin bakarrik geratzeko. Ebanjelioak ez du pentsaera bera. Jesusek sega alde batean uztera eragin die dizipuluei eta burutik kentzera belar txarra atera nahi hori. Erronka, propioki, haziz joatea da, garia eta iraka garela onartuz, eta ezinezkoa dela biak zehatz banatzea. Jakituriak erakutsiko digu nahasketa hori edozein tokitan dagoela. Eta are probokatzaileagoa dena: nahastura dela, hau da, ez dela dena belar txarra.

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), *dohatsuak, eta lagunak, erlijiosoak eta martiriak (1936)**

Erregeak bigarren liburutik 4, 42-44.

Egun haietan, Baal-Xalixako gizon bat etorri zen, Eliseori, Jainkoaren gizonari, lehen-fruituak ekarriz: hogeit eta gari berria bere zakutoan. Eliseok esan zuen: «Eman jendeari, jan dezan». Morroiak erantzun zion: «Zer da hau, ordea, ehun gizonentzat». Baina Eliseok berriro: «Eman jendeari, jan dezan, hau baitio Jaunak: “Jango dute, eta soberakinak izango dira”». Banatu zuen, beraz, morroiak ogia jendearen artean, jan zuten eta soberakinak gelditu ziren, Jaunak esan bezala.

Sal 144: Zabaltzen duzu eskua, Jauna, eta asea ematen diguzu.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei 4, 1-6.

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitezela hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitezte Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lokarritz Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gainetik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz beste aldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan. Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion:

* San Joan Jainkoaren ordenakoak
Pedro Poveda, *fundatzailea (Teresatar Institutzioa) eta martiria*

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), *dohatsuak, eta lagunak, erlijiosoak eta martiriak (1936)**

«Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko».

Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?». Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei, Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren, Jesusek ogiak hartu eta, esker onezko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost jan zutenek utzitako hondarrez. Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.

Ogien ugalketa honetako eszenan, bada pertsonaia bat ia guztiz oharkabean gertatzen dena, banaketa-aktore bat balitz bezala. Baina istorioaren gidoiak adierazten du funtsezkoa dela miraria gertatzeko. Dena dela arrazoia, «bost garagar ogi eta arrain pare bat» zituen «mutiko» hura da. Kasik anekdota hutsa bailitzan, adibide txar bat bailitzan, erreparatu dio Andresek mutiko horri; jendetza gosetu hark planteatzen duen egoera konpontzeko dizipulu-taldeak tresnarik ez izatearen frogaz bezala jarri du. Txikikeria handiegia da neurrigabeko den arazoaren erdian: bost mila gizon eta egundoko baliabide-gabezia, «berrehun denariotan» baloratua. Batzuek diote, mutiko hark Israelen Jainkoa irudika lezakeela, bere herriaz beti arduratu zena. Orain Jesusengan presente egina, bere nortasun-ezaugarri nagusiaz: txiki den oroz duen maitaminaren logika bitxiar. Txiki izate hori da mirariaren oinarria. Txiki den horrekin gauzatu du Jesusek Eukaristia eta partekatu du. Txikiena den hori, hutsala izanik ere, unibertsal bihurtu du Jesusek. Gizadia ez zen hartua izan horrela inoiz ere: hain mugatua eta, aldi berean, hain mugagabea, gai dena Jainkoagan urritasuna ugaritasun bihurtzeko.

* San Joan Jainkoaren ordenakoak
Pedro Poveda, *fundatzailea (Teresatar Institutzioa) eta martiria*

Urteko 17. astea

Santa Marta, Lazaroren arreba eta Mariaren ahizpa

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik: Elkar maite badugu, Jainkoa gudan dago. **Sal 33:**..Dasta ezazue eta ikusi zein ona den Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 19-27.

Aldi hartan, judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, anaiarengatik doluminak ematera. Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko diozun guztia emango dizula Jainkoak». Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure anaia». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan». Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; Nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, Nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?». Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarela, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

Joanek leku bereziki garrantzitsuan ipini du Marta Jesusi jarraitzen dioten artean. Jaunaren nortasunaren eta misioaren ulermen maximoetara iritsi da Martagan. Honek, nolabait esateko, Hamabiek duten dizipulu izaeraren duintasun bera lortu du, baina ezohiko bidetik, gainerako dizipuluek ez bezalakotik. Hauek ez bezala, Martaren jarraipenak ez ditu bizi izan pasadizo deigarri eta publiko asko, bat eta hura luzea izan ezik: berak eta beraren familiak Jesusekin duten adiskidetasuna. Betania leku biziki afektiboa izan da Maisuarentzat; baina, era berean, hori baino gehiago ere bai. Lazarogatik negar egiten duen bitartean, Martak Jesusi adierazi dion fedea argi agertu du Betania segimendu-eskola ere izan zela. Martagan, adiskidetasuna eta dizipulu izatea gauza bera izan ziren.

Urteko 17. astea

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*Braulio Corres *dohatsua eta lagunak, martiriak*San Vicente, *dohatsua, martiria* (Araba)

Jeremias Profetaren liburutik 14, 17-22: Gogora ezazu eta ez hautsi gurekin egina duzun ituna. **Sal 78:** Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoreagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 36-43.

Aldi hartan, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko irakaren parabola». Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; iraka, berriz, gaiztoarenak; iraka erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak. Iraka bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango da negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira beren Aitaren erreinuan. Belarririk duenak entzun beza».

Gutako bakoitza gari eta iraka da. Gauzarik onena hain ona ez denarekin nahastuta dago. Argiek itzal gunek dituzte; itzalek argi gunek. Pertsona bakoitzarengan borroka-zelai bat dago nobleenaren eta plebeioenaren artean; herri bakoitzean, heroi goraipagarriak eta ahaztea baino merezi ez duten gertaerak daude. Errealitatea alde guztietatik da anibalentea. Ezin galbahetu dira zehatz-mehatz ezohiko dena eta arbuigarri dena. Nahastura horixe gara. Orduan dugu zailenaren alde egin beharra: onartu geure soroan belar txarra badugula, baina baita tartean burutzen ari den gari indartsu eta distiratsua ere. Belar txar ugari egon arren, gari horrek merezi du bere uzta. Elikagaia izango da eta, gainera, hazia... hurrengo ereintzarako.

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria)

Jeremias Profetaren liburutik 15, 10. 16-21: Zergatik azkenik gabeko oinaze hau? Nigana itzultzen bazara, neure zerbitzura hartuko zaitut berriro. **Sal 58:** Zu izan zaitut, oi Jainko, ihesleku larrialdian.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 44-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du. Era berean, zeruetako erreinuarekin, harri bitxi bila dabilen merkatariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du».

Aitzurra hartu eta ezkutatu ditugun talentuak lurretik ateratzea asko gustatuko litzaidake. Ugari izango lirateke aurkituko nituzkeenak. Hainbeste, non norbaitek imajinatuko bailuke beste bat izango zela gizadiaren historia, talentu horiek ustiari izan balira. Beste koadro batzuk margotuko genituen, edo beste poesia batzuk idatziko, edo betiko arazoak beste modu batean bideratuko. Eta horrela hainbat eta hainbat berritasun, inoiz ere gauzatuko ez direnak; zeren eta sortu ahal izango zituzten talentuak itoak izan baitziren: beldurragatik, etsipenagatik eta norberarekiko mesfidantzagatik; eta lurperatuak, argirik inoiz ikus ez zezaten. Zein ona den jakitea talentu horien Kreatzailea erreklamatzeko ari zaigula; eta hor dagoela, gure barruan, ezkutuko altxorak kanpora ateratzen, gureak izateari utz diezaioten eta, azkenean, guztionak izan daitezen.

* * *

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria)*

Loiolako San Ignazio: Meza berezia

Jeremias profetaren liburutik 20, 7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menderatu. Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo». Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!

Sal 1: Bai dohatsu gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen duena!

Paulo santuak 1 Korintoarrei 10, 31-11, 1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen. Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle. Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria)

ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”. Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde aurretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hogeï milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz. Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Loiolako San Ignaziok apurka-apurka ulertu zuen nola zerbitzatu Eliza, 1521az geroztik. Hastapenetan beraren ametsak ez du profil edo itxura argirik. Bakarrik du bide badaezpadako baten forma, Jerusalemara eramango duena, Bartzelonara, Alcalá de Henaresera, Salamancara eta Parisera. Azkenean, urte batzuk geroago, amets hura gotortu egingo da munduko edozein tokitan «arimen laguntzarako» eliz proiektu bezala. Ordurako, San Ignaziok beste era batera bidaiatzen du. Erroman egonkortutako errones da, bulego estu eta mugatu batean; handik gidatzen du jaio berria den Jesusen Lagundia. Hasiera hartako planak mahaiaren eta tintaren forma du orain, kudeaketan gutunen eta arazoen forma. Ibiltaria bulego batean ibilgetu da. Kontinente osoan zeharreko erromesaldiaren eszenatoki aldakorra Erromako areto batzuetara mugatu da. Haietan bizi da taupadaka hasierako beraren amets neurrigabe hura. Jainkoarekin topo gauza konkretuen eta xeheen unibertsoan egiten ahal da, administrazio-gaien sarean, halako sarean murgildu behar izan baitzuen ordena berriak. Horrek Jainkoaganako fede berezia adierazten du; fede horrek ahalbidetzen du Jainkoa aurkitzea bizitza arruntan, non jainkotiar geometriak ez baitu ukatzen lurtar geometria ere izatea.

* * *

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria)*

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/. Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1. Iruñean zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun. R/.

2. Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendira igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun. R/.

Sainkoagana
bide 
eginez
Gogo
Jardunen
 bidez

ABUZZTUA / DAGONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Buruzagi politikoan alde: Egin dezagun otoitz buruzagi politikoak beren herriaren zerbitzura egon daitezen, gizakien garapen integralaren eta ondasun komunaren alde lan eginez, lana galdu dutenak artatuz eta txiroenei lehentasuna emanaz.

Urteko 17. astea

San Alfontso Maria Ligorio, gotzaina eta eliz irakaslea,
fundatzailea (erredentoristak)

Jeremias Profetaren liburutik 18, 1-6: Nola buztina eltzegilearen eskuetan, hala zarete zuek nire eskuetan. **Sal 145:** Zorionekoa Jakobena Jainkoa lagun duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 47-53.

Aldi hartan, esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterrera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artean bereiziko dituzte eta su-labera botako. Han izango da negarra eta hortz-karraska!». Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?». «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da». Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

Erlatibismoari sinpatia dion kultura batean, historiaren azkenaz Jesusek marraztu dituen eszenek kirrinka dagite beren gunean. Bahetu ahal daitezke ongia eta gaizkia, gure bizitzaren azkenean bata eta bestea begi-bistako izateko moduan? Ez al da ausardia zer den ona eta zer den txarra aurre-jakindakotzat ematea, gure motibazio pertsonalak eta taldekoak zein nahasiak eta konplexuak diren kontuan harturik? Objektzio horien pisua onarturik ere, bistakoa da Jesusek ez duela esan bide biografiko guztiak direla gizatasuna agertzeari uko egiten diotenak. Beraz, garrantzizkoa da nola bizi garen. Gure biziera ez da ez-kaltegarri, ezta neutro ere. Gaitasuna du anai-arreba arteko bizitza eragiteko. Eta munduak guregan presente dagoen aukera hori galtzen uzten badu, ez da galtzen aukera hori bakarrik, baita geu ere berorrekina batean.

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*
 San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea (Sakramentu*
Santuaren Apaizak). San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*

Jeremias Profetaren liburutik 26, 1-9: Jende guztia Jeremiasen inguruan pilatu zen Jaunaren tenpluan. **Sal 68:** Erantzun, Jauna, zeure maitasun handiaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari zitzairen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotzaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arrebak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta, haien sinesgogorkeriagatik, ez zuen han mirari askorik egin.

Aroztegi bat usainen kosmos bat da: ohol, oholtzar, habe, txirbil, ebakitzetiko, kola, berniz eta pinturetatik datozen usainena; zerratze, mailukada, lixatze eta jateek eragindako zaratatik datozen usainena; eta lanabesek eragindakotik datozen usainena, hala nola eskuaira, mazo-mailu, ezten, esku-zerra, arraspa, lima, arrabota, «guillame», trintxa eta «desarmador». Lurrari bereziki itsatsitako eremu da, oinarritzko giza premien maila ondo-ondoko eta zehatzari hurbila, non materia puskatu eta modelatu egiten baitu gizakiak. Hori da Jesusek bizi izan zuen unibertsoa; horretan hazi zen. Ematen du aski izan zuela hori, barnean zeraman misterioa bizi ahal izateko: horretan haragitu nahi izan zuen Jainkoak behin betiko. Eta hartarainoko mailan, ez baitzen orduz gero dudarik izango; bai, bera da, «arotzaren semea».

Urteko 17. astea

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*

Jeremias Profetaren liburutik 26, 11-16: Jaunak bidali nau, hitz hauek guztiak hots egitera. **Sal 68:** Mesede-garaia duzu, Jauna; erantzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 1-12.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariei: «Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joaneke esan ohi zion Herodesi: «Ez duzu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, profetatza baitzuten denek. Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzari egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatutako guztia emango ziola agindu zion neskatzari, zin eginez. Neskatzak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatzari eman zioten, eta neskatzak amari. Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

Historia laua da: erregeorde despotiko batek, izaera epelekoa bera, miresmena sentitzen du bere koherentzia-eza aurpegiratzen dion profeta kritiko batez. Gorteko jai bat ari dira ospatzen. Dantzari batek sorgortu egin du zentzu komuna. Promes zoro bat egin diote, profetari bizia kenduko diona. Historiak dio kontzientzia-apurtxo bat esnatu zitzaiola erregeordeari, krimena ez burutzeko, baina indargabe gertatu zen. Dena orduan egia mespretxatzen dutenen probetxurako aireratu

Urteko 17. astea

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*

zuten... Historiaren alde ona azkena da: lepoa moztutako profetaren ikasleek beren adiskiderik hobenari eman diote albistea. Adiskide hori izan zen kontzientzia-apurtxo hura, behin ere kontuan hartu gabea, berreskuratu zuena, behin ere izan ez zedin alde batera utzia. Egia ezin galdu zen lurrean. Eta lepoa moztutakoaren adiskidea profeta handiago bihurtu zen. Horrela hasi zen Ebanjelioa.

* * *

Emakume miresgarrientzat soilik

Izan beti kontuan, azala zimurtu egiten dela. Ilea urdin bihurtzen dela, egunak urte... Baina garrantzizkoa dena ez da aldatzen; zure indarrak eta konbentzimenduak ez dute adinik. Zure espiritua edozein armiarmaren luma-ontzi da. Iristearen edozein urratsen atzean, abiatzearen urrats bat dago. Lorpen ororen atzean, erronkaren beste bat dago..

Bizi zaren bitartean, senti zaitez bizidun. Egiten zenuena faltan botatzen baduzu, egizu berriro. Ez zaitez bizi argazki horiz...

Zuk jarraitu, denek zuk amore emango duzula uste badute ere. Ez utzi herdoiltzen zeugan duzun burdina. Egizu, pena ordeztu begirunea izan diezazuten. Urteak direla-eta ezin duzunean korri egin, egizu trostan. Ezin duzunean trostan egin, ibili zaitez. Ezin ibili zarenean, hartu makila bat. Gelditu, sekula ere ez!

(Kalkutako Teresa santua).

Urteko 18. astea

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza***Irteera liburutik 16, 2-4. 12-15.**

Egun haietan, basamortuan, israeldarren elkarte osoa marmarrean hasi zen Moisesen eta Aaronen aurka, esanez: «Hobe genuen Jaunak Egipton hilarazi izan bagintu, haragi-eltze aurrean eseri eta ogia asetzearaino jaten genuenean! Zuek, orde, goseak hiltzeko ekarri duzue gure elkarte osoa basamortu honetara!».

Orduan, Jaunak esan zion Moisesi: «Euria bezala jaitsaraziko dizuet zerutik janaria. Herria egunean egunekoa biltzera aterako da. Proba egin nahi dut, ea nire legearen arabera dabilen ala ez. Entzun ditut israeldarren marmarrak. Esaiezu: “Arratsaldean haragia jango duzue, eta bihar goizean ogiz aseko zarete, eta jakingo duzue Ni naizela Jauna, zuen Jainkoa”».

Arratsaldean, galeperak etorri ziren eta kanpaleku osoa estali zuten, eta biharamun-goizean ihintz-geruza azaldu zen kanpaleku-inguruan. Ihintza desagertu zenean, antzigarraren itxurako zerbait, xehea eta garautsua, azaldu zen lurrean. Hura ikustean, elkarri galdezka hasi ziren israeldarrak: «Zer da hau?». Ez baitzekiten zer zen. Moisesek esan zien: «Jaunak janaritzat ematen dizuen ogia da hau». Jaunak esana.

Sal 77: Zeruko ogia eman zien Jaunak.**San Paulok Efesoarrei 4, 17. 20-24.**

Senideok: Hona zer esaten eta zinez eskatzen dizuedan Jaunaren izenean: ez zaitezela jadanik bizi sinesgabeak bizi diren bezala, burua hutsalkeriatan baitute. Ez da hori Kristo ezagutzean zuek ikasi duzuen, baldin eta egia bada hartaz hitz egiten entzun duzuela. Jesusi dagokion egiazko irakaspenaren arabera, honako hau ikasi duzue: batetik, zuen lehengo bizierari uko egin eta giza izaera zaharra, grina engainagarrien eraginez hondatua, erantzi behar duzuela; bestetik, zeuen gogo-bihotzak berri eta giza izaera berria, Jainkoaren irudira

sortua, jantzi behar duzuela, Jesusen egiaren arabera, biziera zuzena eta santua eramateko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 24-35.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabiltzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzearaino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari». Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea». Galdetu zioten, orduan: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk ikusi eta zuek sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita». Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigan datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Jesusek sarritan aipatu izan du «Egiazko ogiaren» irudia, beraren biziak guran duen benetako indarra argitzeko. Irudi horrek, ordea, gogor kolpatzen du gaur egungo kultura; baita giza premia erabakitzaileenei erantzuteko, kultura honek duen moldea ere. Ez du ematen aipatu molde horrek arrakasta handirik duenik; begiratu bat bota besterik ez gaur egungo gizarte aberatsetako bizitzan ageri diren neke-zantzuak eta

Urteko 18. astea

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*

pertsona askorengan nagusi diren asetasun-faltaren maila subjektiboei. Azakeria da plaza, zeinetan ibiltzen baikara gu bila askotan. Jakina, «ogia» da erosi nahi izaten duguna, baina onuragarriena dela iruditzen zaigun eskaintzari erreparatzen diogu, eta ez elikatzeke duen balioari. Jesusen bila «ogi» bezala bakarrik harturik ibili ohi ziren haiek bezala, epe laburreko erantzunak erakartzen gaitu gu geu ere. Garrantzirik gabeko denaren diktadurak harrapatzen gaitu azkenean, eta oker interpretatzen ditugu geure beharrak, eta, asetzeko, ordezkagarri eta faltsu edo sasiko direnetara jotzen. Ez da arraroa gizarte garaikidea gehiegikerietan murgildurik ikustea: lan-gehiegikeriak, hitzordu-gehiegikeriak, mugimendu-gehiegikeriak, informazio-gehiegikeriak, kontsumo-gehiegikeriak... Buruan sartu digute ezen arazoa «ogiak» eskura izatea dela, zenbat eta gehiago hobe, bereizi gabe haietarik batzuk zinez elikagarri ditugun eta egiaz «benetakoak» diren. Baina hor dago Jesus, behin eta berriz sakonera jotzeko eskatuz.

* * *



Nigan sinisten duena ez da behin ere egarri izango.

Urteko 18. astea

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman
Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

Jeremias Profetaren liburutik 28, 1-17: Hananias, ez zara Jaunak bidalia, eta gezurrezko konfiantza ematen diozu herri honi. **Sal 118:** Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 13-21.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakitean, Jesus leku bakarti batera joan zen bera bakarrik txalupaz. Baina ohartu zen jendea eta oinez jarraitu zion herrietatik. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen eta gaixoak sendatu zizkien. Ilunabarrean, ikasleek hurbildu eta esan zioten: «Leku bakartia da hau eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan». Jesusek esan zien: «Ez dute zertan joan; emaezue zeuok jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona». Jendeari belar gainean esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak, eta, begiak zerurantz jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten guztiek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete bildu zuten. Bost mila gizon inguru ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

Gauza harrigarria da ogien ugalketan ageri den zehaztasun-falta. Jesusek kalkulu oker bat egin du; azkenean, izan ere, sobera da jatekoa. Jende guztia aserik gelditu den arren, hondarrak gelditu dira. Gauza bitxia dela ematen du Jesusek kantitate zehatza ez lortu izana. Dendena ezagutzen duenak, ezin al zuen mirari zehatzago bat egin, alferrik galtzekorik gabea? Gainez egindako ugaritasun honek, ordea, lotura ona du Jainkoak gure premiak nola ikusten eta halakoen aurrean nola erreakzionatzen duenarekin. Geratu diren ogi ugariak maitasunaren gehiegizko borondatea adierazten dute, demaseko arreta. Neurri-falta hori Jainkoak bere-berea du bere herria maitatzeari ematen dionean.

Urteko 18. astea

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

Jainkoa onginahi bezala ageri da, kalkulaezineko onginahi bezala. Horrek argitzen du ogien ugalketa hura eragiketa matematiko okerra izana.

* * *

Elurretako Andre Maria

Zakarias 2, 1-13: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta!

Apokalipsia 21, 1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaindutako andregaia bezala. **Sal Judit 13:** Zugar du gure herriak bere edertasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

Ikasleek baztertu egin nahi dute bere alabaren osasuna oihuka eskatuz inguruan duten emakume nahastailea. Nekagarri da Maisuarentzat, baina, egia esateko, berek dute hura nekagarriago. Azkenean haren alde erregutu diote Jesusi, baina ez gupidaz, baizik eta eragiten ari den iskanbilagatik. Azkenean, lortu du emakumeak Jesusekin hitz egitea. Gai da ama hori bere burua txakurkume batekin konparatzeko, alabaren osasuna lortzekotan. Otoitz jarraiki eta apal horrek, fedez gainezka, sendatuko duen esperantza eta ama baten maitasun den horrek, harridura eragin dio Jesusi: bete dadila horrenbeste opa duzuna!

Daniel Profetaren liburutik 7, 9-10. 13-14.

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Sal 96: Errege da Jauna, Goi-goikoa, lur guztiaren gainetik.

San Pedroren 2. gutunetik 1, 16-19.

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenez etorriko den egunaz hitz egin genizuenean, ez ginen oinarritu irudipenezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna. Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, hau esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maitea, honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, berarekin mendi santuan ginela. Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzean jaiki arte.

Urteko 18. astea

JAUNAREN ANTZALDATZEA

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 2-10.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eraman zituen haiek bakarrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurak harturik zeuden. Orduan, hodei batek estali zituen, eta ahots bat atera zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez. Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarri galdetzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen artetik pizte» hori

Pedro, Santiago eta Joan beste pertsona batzuk dira Antzaldaketaren ondoren. Norabidea galdurik geratu ziren Jesusek aldeztu aurretik iragarri zirenean Jerusalem hil-herri gertatuko zitzaiola. Alabaina, orain menditik heriotzaren zori-leku izango zuen lekura jaistean, kontsolamendu bat dute. Antzaldaketak urrats bat eginarazi die Jesusen nortasunaren barnea ezagutzeko. Mendiko esperientziak hartaraino baietsi du beraien ikasle-izaera, non Maisuak egin beharra zuen bidean ipini baititu berriro... Guk ere, zein mesedegarri izango genukeen geure oroimenari galdetzea bizitzaren zentzua *ukitu* ahal izan genuen une haietaz, geure buruarekin, gainerakoekin eta Jainkoarekin berarekin berriro topo egin ahal izan genuen une haietaz, galduek genuen alaitasuna berreskuratu genuelarik. Hitz batean: zein egokia izango genukeen aitortzea ezen jadanik bizi izan ditugula geuk ere antzaldaketa batzuk. Eta ez iragandako gauzen nostalgiko izateko, baizik eta ulertzeko, beraiei esker, esperantzaz begiratzen al diegula

geure gaurrari eta beronen premiei. Antzaldaketak esaten dio munduari bere baitan baduela argi bat sekula itzaliko ez dena. Jesusengan ageri den Jainkoaren argia da, historiako ilunaldi bakoitzera hurbiltzeko bide egiten diguna, hartan aurkitu ahal izateko existitzen dela hainbeste kostatzen zaiguna sinestea: oraino barruan dugun geroa.

* * *

«Ez da eragiten dizuten kaltea egiaz min ematen dizuna, baizik eta nork eragin dizun. Erraz gaindi ditzakezu zoriak ematen dizkizun zartakoak, baina malkoak eragin dizkizuna maite duzun bat bada, kasik ezina izaten da minik gabe irtetea». (*Gian Franco Huacache, "Cinco secretos"*)

Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845-Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak)*.

San Sixto II.a, aita santua eta lagunak, *martiriak**

Jeremias Profetaren liburutik 31, 1-7: Maite zaitut, betidanik maite.

Sal Jr 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 21-28.

Aldi hartan, Tiroko eta Sidongo lurraldera aldendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka baitatorkigu atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak». Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezadazu, Jauna!». Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak». Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

Bete da miraria. Mateoren kontatera berrirakurriz, ulertzen duzu Jesusen hizkera zorrotza, emakume kananearra bazter utzi nahiz. Jesusen «soilik bidali naute» esaera baztertzaile hori, beraren misioa juduengana bakarrik mugatzen duena, interferentzia zaratsatu hutsa da, bateraezina Ebanjelioaren alderik jatorrenarekin, muinarekin. Alaba gaixo duen ama horrek badaki sintonia berrezartzen. Konbentziturik dago ezen Jainkoaren errukia banaketa erlijioso guztiak baino indartsuagoa dela. Jesus bezalako judu batek lagundu diezaioke bera bezalako pagano bati ere. Txairotasun hori duen kredo batek bete-betean atzematen ditu Jainkoaren maitasunaren maila infinituak. Jesusek onartu du miraria egitea, fede hori kontuan harturik. Horrela lausotzen edo urtzen da Jesusen lehen hitz haien irmotasuna; jadanik inor ez da gogoratzen beraiez.

* San Kaetano, *apaiza (teatinoen fundatzailea)*

Urteko 18. astea

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza, fundatzailea*
(domingotarrak)

Jeremias Profetaren liburutik 31, 31-34: Itun berria egingo dut eta haien bekaturik ez dut gehiago gogoan izango. **Sal 50:** Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu niregan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-23.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei. Une hartatik hasi zen Jesus ikasleei azaltzen beharrezko zela bera Jerusalemera igotzea, eta han asko sufritu beharra zuela apaizburuen eta lege-maisuen aldetik; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztuko zela. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Inola ere ez, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko!». Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo zara niretzat, zure asmoak ez baitira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Urteko 18. astea

Domingo santua, Guzmangoa, apaiza, fundatzailea
(domingotarrak)

Jesusen eta ikasleen arteko eszena honek beti du bere baitan galdetzaile den kontraste bat. Alde batetik, handikiro hartu du Pedrok Jesusengandik gomendioa, eraikiko den elkarte berriaz. Zentzu batean bakarrik eman dio, ordea: misio bati lotua den duintasuna da. Eszena, alde horretatik, oso instituzionala da: erantzukizun eta lidergo kolektiboa ematearen aurrean egongo ginateke. Alabaina, beste aldetik, emate horretaz baliatu da Jesus, segidan, Jerusalemara ezinbestean eramango duen bidea aurreratzeko. Hor dago paradoxa: Jesusek debekatu egin du duintasun gorenena buru-eskaintza handienari erreferentziarik gabe hartzea. Modu bitxia, noski, alde garaia, gorena, alde behekoarekin lotzeko, boterea zerbitzuarekin, bizia heriotzarekin. Baina, hain justu, horixe da Berri Ona.

Oseas profetaren liburutik 2, 16b. 17b. 21-22.

Honela mintzo da Jauna: «Basamortura eramango dut Nik neure herria, eta bihotzera hitz egingo diot. Han bere gaztaroan bezala erantzungo dit, Egiptotik igo zenean bezala. Neure emazte egingo zaitut betiko; neure emazte egingo justiziaz eta zuzenbidez, maitasunez eta errukiz. Leialtasunez egingo zaitut neure emazte, eta zuk ezagutuko duzu Jauna».

Sal 44: Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatzekin bezala gertatzen da. Neskatzetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen. Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!”. Jaiki ziren neskata guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”. Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!”. Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”. Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Urteko 18. astea

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria.*

Ez dezagun eman ezer ere jakindakotzat, egindakotzat, hor dagoelakotzat. Ez dezagun eman hor, gure aurrean, dagoen hori beti hor egon dela. Ez da begi-bistakoa eguzkia. Ezta ilargia ere. Ezta itsasoa ere. Ezta artea (arbola) ere. Ezta kaioa ere. Zu ere, nire aurrean zauden hori, ez zara begi-bistakoa. Ez dezagun eman ezer ere badelakotzat, une batean agertu eta jadanik betiko delakotzat. Bizi gaitzen begiak erne. Den-dena dago berritasunez josia: gauzak berriro zure aurrean egotera itzultzen direlako berritasunez, zure arreta bila, zure begirunea oihuka eskatuz, kontenpla ditzazun gonbidatuz. Esna bizi zaitezen eske dago mundua: sakonkiago begira dezazun begiez, entzun dezazun belarriez, ibil zaitezen oinez. Munduak eskatzen dizu: bizia kontuan har dezazun eta historia idatz dezazun inoiz idatzi ez balitz bezala. Soil-soilik zutik, aurrera begira, sumatuko dugu baretzen gaituen egia eta berrerosten gaituen maitasuna. Soil-soilik «esna» bagaude: aske, noizbait ere, gauzen izatea eta bihotzaren ontasuna desitxuratzen duenetik, engainuz iradokitzen dizunetik ezen guztia beti hor egon dela eta badela ordua halakotzat eman dezagun... nahiz ez den izan horrela. Esna zaitez eta egiaztatuko duzu!

* * *

Ez du sekula inork bere egoera hobetzen, aldatzen bada soilik tokiz, eta ez bizieraz eta ohiturez. (*Francisco de Quevedo*).

Urteko 18. astea

San Lorenzo, *diakonoa eta martiria*

San Paulok 2 Korintoarrei 9, 6-10: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 111: Ongi doakio errukitu eta ematen duenari.

Jesus Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 24-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurtean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak».

Bizi egin nahi dugu, horixe bakarrik, baina inolako nekerik eskatzen ez duelarik. Heriotza eta urripena, edota antzeko oro, ez dira sartzen gure egitasmoan, ez zaizkigu burutik pasatzen, Eta horrela da... harik eta benetan nahi dugun arte. Orduan bai, orduan bikain ulertzen dugu ezen bizia eman egin behar dugula maite ditugunentzat eta emate horretan, era misterioitsu batean, geure burua aurkitzen dugula. Ez da teoria hutsa. Aski da arakatzea eguneroko gauza askoren artean, konturatzeko, Jesusek proposatutako paradoxa ez dela faltsua. Amaberriaren kasua da, haur jaioberria heztearen gogortasuna hasi duenarena, hartaz erdi izanaz damutu gabe. Aitaren kasua da orohar, seme-alaba nerabeen heldutasun-eza jasaten dakiena, horrek sufrimendurik badakarkion arren. Azkenik, familiaren kasua da, atal ahulenaren inguruan triku bihurtzen denaren familia osoarena, haren premietara egokitzen saiatuz, gainerakoen premien bizkar bada ere. Horiengan guztiengan bistakoa da galera, bai osasunari dagokionez, bai ondareari, bai bizi-molde propioari. Halaz guztiz, ez zaie irteten ahotik sakrifizio hitza, ez dute eskatzen inolako ordainik. Hondo-hondoko soinu bezala entzuten zaien gauza bakarra buru-eskaintza egiteak dakarren poz bitxia da...higaduran!

Urteko 19. astea
Santa Klara, *birjina*

1 Erregeak liburutik 19, 4-8.

Egun haietan, Eliasek egun bateko bidea egin zuen basamortuan barna. Azkenean, ipuru baten azpian eseri zen eta heriotza opa izan zion bere buruari, esanez: «Aski dut, Jauna! Ken iezadazu bizia, ez bainaiz neure gurasoak baino hobea». Ondoren, ipuruaren itzalean etzan eta loak hartu zuen. Horretan, aingeru batek ukitu eta esan zion: «Jaiki eta jan». Begiratu zuen Eliasek eta sutopil erre berria eta ontzi bat ur ikusi zituen bere buru ondoan. Jan eta edan ondoren, etzan egin zen berriro. Etorri zitzaion bigarrenenez Jaunaren aingerua, ukitu eta esan zion. «Jaiki eta jan, bide luzea baituzu oraindik». Jaiki zen Elias, jan eta edan zuen, eta janari haren indarrez berrogei egun eta berrogei gau ibili zen Horeberaino, Jainkoaren mendiraino.

Sal 33: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.

San Paulok Efesoarrei 4, 30-5, 2.

Senideok: Ez nahigabetu Jainkoaren Espiritu Santua, horrekin markatu baitzaituzte Jainkoak, askapen-egunean zuek bereizteko. Ken zeuen artetik garrazkeria, haserrea, gorrotoa, garrasiak, irainak eta bestelako gaiztakeria oro. Izan zaitezte elkarrentzat on eta bihozbera, elkarri barkatuz, Jainkoak zuei Kristoren bitartez barkatu zizuen bezala. Izan zaitezte, beraz, Jainkoaren antzeko, haren seme-alaba maite zaretenez gero. Bizi zaitezte maitasunean, Kristoren antzera, berak maite izan baikintuen eta bere burua gure alde eman zuen, Jainkoak atseginez onartzen duen oparitzat eskainiz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 41-51.

Aldi hartan, Jesusen kontra marmarka hasi ziren entzuleak, «Ni naiz zerutik jaitsitako ogia» esan zuelako, eta hau zioten: «Ez al da, ba, hau Jesus, Joserren semea? Ez al ditugu, ba, ezagutzen honen aita-amak?

Urteko 19. astea
Santa Klara, *birjina*

Nolatan dio, orain, zerutik jaitsia dela?». Jesusek erantzun zien: «Ez ari marmarka zeuen artean. Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita. Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, hala ere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudana ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

«**E**mango dudana ogia neure haragia da munduak bizia izan dezan». Ezin adierazi zuen Jesusek era hobean bere buru-eskaintza, konprometitu zuena. Bere burua barreiatzen duen Jesus horren aurrean, ezinezkoa dugu guk geure baitan bere hartan irautea. Ez gara geure bide propioaren azken geltokia. Aitzitik, sentituko dugu Jesusek hau ohartarazten digula: bakean biziko gara guran den-dena emana den bitartean. Eta besteengana eramango gaitu... Horixe da gertatzen Kreazioan. Ez du ematen ezer kreatua denik nor bere baitan eta norberarentzat irauteko, baizik eta den-denak eragina sentitzen du kanpora irteteko eta desberdin denagana hurbiltzeko. Bizitzaren sekretu hori, heriotzarene ere den sekretu hori, garratz jarri du agerian gurutzeak. Garraztasun horretan ezinezkoa da jadanik interpretazioak eginez jardutea: bizitza ez da buru-eskaintza baizik, nork bere burua ematea baizik, eta buru-eskaintza eginez zaigu bizia bete-betean agertuko. Ez da gertatuko hori, ez lehenago, ezta beste era batean ere. Tamaina horretako misterioa argitzeko, begiak Kreatzaileagan biltzen dira, Gurutziltzatuaren Aitagana. Kreatzaile hori sorkarien mesederako bizi da, hau da, «munduak bizia izan dezan». Eta halako indarrez, non gurekin topo egiten baitu gizadiaganako bere etengabeko bidean, «zerutik datorren ogia» delako forma horretan.

Urteko 19. astea

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea*
Salesko Frantziskorekin batean (Ahizpa Bisitarien Ordena)

Ezekielen Profezia liburutik 1, 2-5. 24-28c: Jaunaren aintzaren agerpena zen hura guztia. **Sal 148:** Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 22-27.

Aldi hartan, Galilean zehar zebiltzala, esan zien Jesusek ikasleei: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hirugarren egunean piztuko da». Ikasleak oso nahigabeturik gelditu ziren. Kafarnaumera iritsi zirenean, tenplurako zerga biltzen zutenek Pedrorengana joan eta esan zioten: «Zuen maisuak ez al du tenplurako zerga ordaintzen?». «Bai», erantzun zien. Pedro etxeratu zenean, Jesusek aurrean jarri eta esan zion: «Zer deritzozu, Simon? Munduko erregeek zeinengandik hartzen dituzte zergak edo kontribuzioak, etxekeengandik ala arrotzengandik?». Pedrok erantzun zion: «Arrotzengandik». Jesusek, orduan: «Etxekoak libre daude, beraz. Halaz guztiz ere, inori zeresanik ez emateko, zoaz itsasora, bota amua eta hartu lehenengo aterako duzun arraina; ireki iezaiozu ahoa, eta biren zerga ordaintzeko dirua aurkituko duzu. Hartu eta ordaindu zuri eta bioi dagokiguna».

Pedroren eta Jesusen arteko deliberazioak, nola erantzungo hobekienik tenpluari urteroko zerga ordaintzeko obligazioari delakoaz, guztioi zuzenean dagokigun hondoko egia bat azaldu du. Pedrok uste du ez dela ikusi behar inolako arazorik zerga-ordainketan partaide izatean. Jesusek, berriz, ez dio oztoporik agertu, baina ñabardura bat egiteko baliatu da. Jainkoaren «seme-alabek», halakoak direlako, edozein ezarpenetatik jare uzten dituen askatasun-estatutuaz gozatzen dute. Jainkoaren begietarako, beren etxean bizi dira seme-alabak. Beraz, erlatibizatu egin beharko litzateke duintasun hori koloka jarriko edota beheratuko lukeen edozein bitartekaritza... Ordudanik gaur arte, pertsona orok egin lezake gogoeta hau: bai desberdina izango litzatekeela mundua, Jesusek bere Erreinuan, zerga orotatik jare, eskaini digun hiritar gutun hori baitaratuko bagenu!

San Pontziano, 18. aita Santua, eta San Hipolito, apaiza, martiriak. Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875-Barbastro 1936, klaretarra, dohatsua, eta lagunak, martiriak

Ezekielen Profezia liburutik 2, 8-3, 4: Liburua janarazi zidan eta ezia bezain gozo gertatu zitzaidan. **Sal 118:** Bai gozoa niretzat, Jauna, Zuk hitzeman!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 1-5. 10. 12-14.

Une hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?». Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien: «Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau. Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan. Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino. Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Historiak baiesten du, gizadiak zor bat duela airean haurtzaroarekiko. Haurtzaroko urteak erabakitzaileak izaten dira bizi-bide luzea garen horretarako. Aldi horretan sortzen da egoitza, bai oinarrizko premientzat bai imajinaezineko ahalbideentzat. Horixe du bere paradoxa; adineko jendea egoera honetan jartzen du: aldi berean begirale edo tutore eta pedagogo izateko egoeran, bizitzako lehen urratsak egitea bermatzeko. Etorkizun jaio berri horri lagun egitea, gure karitate gizatiartzaileari dagokiona da. Horregatik, barnea larriarazten du ardura hori makurtzen duenak. Jesus ez da ari aho bero hurrekiko ardura bereziaz mintzo denean, Jainkoaren «aurpegia» ikusten ari diren «aingeruen» irudia aipatuz. Dударik gabe, gauzatu dugun gaur egungo mundua ez da inolaz ere haur-jolas bat. Baina izan behar duena izango bada, hurrek bertan jolas egiteko modua izan beharko dute.

Urteko 19. astea

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria*,
kaputxinoa

Ezekielen Profezia liburutik 9, 1-7; 10, 18-22: Egin gurutze-itxurako ikur bana, Jerusalem ari dituzten higuinarrakeria guztiengatik negar egiten dutenen bekokian. **Sal 112**: Jaunaren ospea zerua baino gorago.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitortpenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko. Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua. Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

Gaitza, gauzak bereizteko eta eteteko duen eraginean azaltzen da eskuarki. Dramatikoak izan ohi dira ondorioak: hondatu egiten ditu egitasmo komunak, isolatu pertsonak eta elkarteak, aldenitu eta neutralizatu anai-arreba arteko jarrera eragiteko asmoak. Mateok jaso dituen Jesusen adierazpenek, elkarte-biziera sustatzeko, galga ezartzen diote gaitzaren dinamika horri, Jainkoa bera ere seriozki konprometitu baitago gaitzaren aurka. Jesusek, Jainkoa berarentzat zen den agertzen duenean, aita deitzea aukeratu du: aita bat, buruan harreman-sare bat duela jarduten duena, mimatua, beraren seme-alabak batuko dituen. Kristautasunak ez du zalantzarik elkarte-kontzientzia eragin beharraz eta lehentasuna «guri» eman beharraz «niri»ren gainetik. Geure harremanak zer diren, hura gara. Horregatik, bata bestea zuzendu edo zentzaraztea eta adiskidetzea, Jesusek eskatu bezala, da modu bat, hoberena, geure buruarekin topo egiteko.

Apokalipsi liburutik 11, 19a; 12, 1. 3-6a. 10ab.

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdiminez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen. Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituen, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko. Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eramane zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak. Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

Sal 44: Zure eskuinean dago erregina, urre finez apaindua.

Paulo apostoluak 1 Korintoarrei 15, 20-27a.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!». Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzeman, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Bi emakume haur egin zain. Lehengusu dira. Intuizio bera dute biek: beren bizitza erabat aldatzeko zorian daude. Bientzat izan da aldaketa hori egiazko ezustekoa. Seme bat, alaba bat, beti izan ohi da ezustekoa. Egia da, ordea, haur baten hondoan beti egon ohi dela amets bat, luze garatua: jaiotako bizi bakoitzaren hondoan bada zerbait, agertuko dena, lehen ez zena eta opa, desiratu izan dena. Haur baten jaiotzaz berriro jaio ohi da mundua. Elisabetek ipini dizkio hitzak Mariak izan duen ametsari, berarekin bete-betean partekatuz. Badaki Elisabetek, Mariak beti sinetsi izan duela. Beronek bere barruaren

barruenean du fedea. Elisabetek diotso Mariari sineste horretan garatu dela espero duen semea. Eta munduak etorkizuna duela fede hori dela medio, gai izan baita gauza guztiak historia gida dezakeen haren esku uzteko. Mariari fedeak munduak behar duen berritasunean murgiltzea eragingo dio, mundua orain esperimentatzen duguna ez bezalakoa izan dadin... Horregatik, Elisabetek diotso bere lehengusuari, ezen, ororen gainetik, pozik bizi behar duela, ez ama delako bakarrik, baizik eta ama izatea egin dionarengatik: sinestedun izateagatik.

Urteko 19. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*San Roke, *martiria*

Ezekielen Profesia liburutik 16, 1-15. 60. 63: Erabatekoa zen zure edertasuna, Nik eman nizekizun apaingarriei esker, eta prostituzioan hasi zinen. **Sal Is 12:** Baretu da zure haserre eta kontsolatu nauzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 3-12.

Aldi hartan, fariseu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea edozein arrazoiengatik uztea?». Hark erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena? Hasieratik Egileak gizaseme eta emakume egin zituela, alegia, eta esan zuela: “Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira”. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu». Haiek galdetu zioten: «Zergatik eman zuen, bada, Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena?». Jesusek erantzun zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena; baina hasieran ez zen horrela. Hau diotsuet: bere emaztea utzi –legearen kontra elkartuak ez badira behintzat– eta beste batekin ezkontzen denak, adulterioa egiten du». Ikasleek esan zioten orduan: «Baldin horrelakoa bada senar-emazteen arteko lotura, ez du merezi ezkontzea». Jesusek erantzun zien: «Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gai egiten dituenak baizik. Batzuk ez dira ezkontzen, jaiotzaz ezin dutelako; beste batzuk giza eskuz ezinduak izan direlako; beste batzuk, berriz, zeruetako erreinuagatik hala erabaki dutelako. Onar dezakeenak onar beza».

Ebanjelioan bedekatu egiten da hausturak jostera emanak diren prozesuetan parte hartzen duen jendea. Jainkoa ziur aurkituko dugu berradiskidetzen saiatzen garen lekuan. Geure lehen helburua elkarte da. Jesus bat dator uste horrekin eta ez dio ezeri amore ematen

Urteko 19. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*San Roke, *martiria*

horretan... Baina gauza jakina da giza harremanak hauskor izan direla beti. Hainbat bikoteren gaur egungo krisia inoiz ere ikusi ez den hauskortasun larriaren adibide bat da. Geure ingurumena inork bilatu ez dituen bakardadez betetzen ari zaigu. Kasik gauza berezkozat ematen ari gara giza harremanak ezin sinetsiak direla. Jesusen deia, «hasieran ez zen horrela» delako hura, ez ahal zaigu gertatuko, ez galdua den ideal, ez moralismo zorrotz. Gogorazteko balio digu ezen giza harreman sakon oro bizitzarako dohain bat dugula eta pena merezi duela, ahal den neurrian, beraren alde borroka egitea.

Urteko 19. astea

Santa Beatriz Silvakoa, *fundatzailea*

(Kontzepzionista Frantziskotarrak)

San Eusebio, *aita santua*

Ezekielen Profezia liburutik 18, 1-10. 13b, 30-32: Nor bere jokabidearen arabera epaituko dut Nik. Sal 50: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu niregan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 13-15.

Aldi hartan, haurrak eramán zizkioten Jesusi, haien gainean eskuak ezarri eta otoitz egin zezan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Jesusek esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena baita zeruetako erreinua». Eta, haurrei eskuak gainean ezarri ondoren, joan egin zen handik.

Besarkadaren eta bedekinkazioaren beharra dugu. Besarkada, besteentzat norbait garelá sentitzeko; bedekinkazioa, bestea den horrentzat norbait garelako ziurtasuna izateko. Beharrezkoak ditugu lurra eta zerua. Izatez, besarkada hori eta bedekinkazio hori, biak batera, geure oinpean ibili dabilztan iturburu ditugu, gure bizitzako mamirik mamiena elikatuz eta sustraiz hornituz betiko. Jesus inguratzen duen umetaria hark, ikasleek haizatu nahi duten hark, Maisuaren besarkada eta bedekinkazioa hartu ditu. Ez du Jesusek erreparorik halakorik agerian agertzeko. Argi eta garbi, Jesusen asmoa bertako jende heldua jabetu dadin da, ezen beraiek ere, heldutasuna eta guzti, besarkada eta bedekinkazio-beharra dutela, ezin uko egin dietela. Berez jo behar dute Jainkoagana dohain biak lortzeko, haurrek egiten duten bezala: zuzenean beragana joanez.

Esaera Zaharrak liburutik 9, 1-6.

Jakinduriak bere etxea eraiki du, zazpi zutabe landu ditu; abereak hil ditu, ardoa nahastu eta mahaia prestatu du Neskameak bidali ditu hiriko goialdeetatik hau aldarrikatzera: «Ikasi gabea betor hona!». Zentzugabeei esaten die: «Zatozte, jan nire ogia eta edan nik nahasturiko ardoa Utzi txorakeriak eta biziko zarete, jarraitu zentzuzko bideari».

Sal 33: Dasta ezazue eta ikusi zein ona den Jauna.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei 5, 15-20.

Senideok: Begira arretaz nola zabiltzaten; ez jokatu ergel, zentzuz baizik, egokieraz baliatuz, garai txarrak ditugu eta. Ez izan, bada, burugabe; baizik eta saiatu Jaunaren nahia zein den ulertzen. Ez mozkortu, ardotik nasaieria baitator; aitzitik, bete zaitezte Espirituaz, zeuen artean salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak abestuz. Kantatu eta egin gorazarre Jaunari bihotz-bihotzez, gauza guztiengatik Jainko Aitari etengabe eskerrak emanez, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 51-58.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da, Eta Nik emango dudana ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana». Juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?». Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia

Urteko 20. astea

San Agapito, *martiria*.Santa Juliana, *martiria*San Alberto Hurtado Cruchaga, *apaiza, jesuita*

jaten eta nire odola edaten duena Nigan dago eta Ni harengan. Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena, Niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Jesusek ez du nahi bera jomuga labur eta promes errazen mezulari batekin nahas dezaten. Beste era batera nahi du jendea elikatu. Beste era batera nahi gaitu adoretu bihurtu. Sostengutzat beste trinkotasun bat izan dezagun nahi du. Horretarako guztirako, berak izan nahi du ogi. Dakarrena, ordea, ez da ogi materiala. Bere burua da dakarrena: bere bizia bera –berea, eta ez beste batzuen–; bizi horren oinarria beraren Aitaren maitasuna da; bizi horren molde bere bizitza hartzeko duen era da; bizi horren zeruertza bere Aitaren borondate salbagarriari jarraituz bizitzeko eta hiltzeko agertu dituen arrazoiak dira. Horietan ezerk ez du zerikusirik beren lidergoa eskari iragankor eta funsgabeak betez lortzen dutenen lausenguzko sostenguarekin. Jesusek elikatzen gaitu, bai, baina gure barnekoitasuna du elikatzen, «barnerantz». Gure motibazioen sorburua elikatu nahi du: sakon, garbi, gizatiartzaile bihurtuz. Eta Jesusek elikatzen gaitu, bai, baina gure kanporakoitasuna ere elikatzen du, «kanporantz». Ogi eukaristikoak ogi konkretu izan behar du, elikatzen duena, gaitza galtzen duena eta esperantza-etorkizun batekin amets egiten uzten duena... Ogi barneko eta kanpoko horretaz bizi da Eliza, eta horrekin ibil daiteke errones historian.

Ezezielen Profezia liburutik 24, 15-24: Ezeziel seinale izango da zuentzat: hark egin duen guztia egingo duzue. **Sal: Dt 32:** Sortu zintuen Jainkoa zenuen baztertu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut betiko bizia eskuratzeko?». Jesusek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak». Hark, berriz: «Zein agindu?». Eta Jesusek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?». Jesusek erantzun zion: «Gutziz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

Gazte aberatsak bakean bizitzeko modua emango dion askatasuna antsiatzen du: oraino gauza handiagoak egiteko askatasuna, legeak agintzen dituenak baino gehiago egiteko askatasuna, segurtasun-premia oro kenduko duen eskuzabaltasunaren arabera. Alabaina, desira horrek hondoa jo du gaztearengan. Gaztea esklabo bihurtu du gogo guztia edukitze hutsean jartzeak sortu duen premiak. Handia da alienazio horrek ekarri dion kaltea. Ebanjelioak porrot egin du alienazio hori gainditzeko laguntza eman nahi izan dionean. Gazteak entzun du, mota guztietako aginduek eskatzen dituzten gutxienekoak, minimoak, gainditzera deitua dagoela bera; horrek, ordea ez du konbentzitu. Badu, berez, legea gainditzeko ontasuna. Baina alferrik. Gazte aberatsa «triste» doan bitartean, Jesusek, bera ere triste, seguru galdegingo zion bere buruari: noiz sinetsiko dugu, behingoz, askatasuna, zeinetara baikaude deituak... egiaz garena izateko?

Urteko 20. astea

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea*San Samuel, *Israelen epailea eta profeta*

Ezekielen Profezia liburutik 28, 1-10: Zu gizaki huts zara eta ez jainko, nahiz eta Jainkoaren pareko zarela uste duzun. **Sal: Dt 32:** Nik dut heriotza eta bizia ematen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berririo diotsuet: jostorrazaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?». Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake». Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?». Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Geure baitan dugun gauzarik sakonena den hori ezin eman dugu kasu gehiegitan. Gure aurrean maitasun bat dagoela sumatzen dugunean agertzen eta eskaintzen dugu geure barneko gauza sakon hori. Delako maitasun hori sumatzen ez dugun bitartean, garenaren zati bat bakarrik agertuko dugu eta erdizka egingo dugu geure buru-eskaintza. Eta hori, azken batean, erdizka gelditzea da, geure burua inolako kalitaterik gabe ematea da, urruntzea da... Behin betiko maitasun hori bezala aurkeztu da Jesus, geure eskaintza betea argiro eta biziki eskatzen digularik: edota Jainkoa edota dirua. Izatez, zinezko maitasunak zu zeu egotea eskatzen baitu, eta ez zure zati ezdeus bat, zure orde. Horrela, eta horrela bakarrik, bete-bete maitatua zarela sumatuz, sentituko duzu ez duzula beste maitasun batzuen beharrik. Inor eta ezer ez da ausartuko zure bizitzaren jaun izaten. Zure bizitzak bai baitu bere Jauna.

Ezekielen Profezia liburutik 34, 1-11: Horien hortz artetik aterako ditut ardiak eta ez dituzte berriro elikagai izango. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Egunekeo lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak. Goizeko bederatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte ita sazuak ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldirik aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?”. Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”.

Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaitza bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaizenean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoko nekea eta beroa jasan dugunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriari egin. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala

Urteko 20. astea

San Pio X.a, 257. *aita santua*San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*

inbidia duzu, ni ona naizelako?”. Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

Parabolako nagusiak logika hertsiaz jokatu du, aldaezinaz: guztiz deliberatua du bere herriko langileak langabezian ez uztea. Ondorioz, bata bestearen segidako hitzarmenak egin ditu, beharrezko diren adina, arrazoizko soldata-taula guztiei iskin eginez. Parabolak azaldu nahi digu, hartarainoko neurrigabetasunaren argibide bakarra Jainkoaren onberatasun misteriotsua dela. Barra-barra du Jainkoak errukia, mugarik gabe, gurea ez bezalakoa guztiz, eta usadiozko gure zuzenbide-kontzeptuaren antzik ere ez duena. Izatez, Jesusek galdera dagigu ea benetan sinesten dugun tamaina horretako maitasunik badela. Izan ere, badela sinesten badugu, ez dugu emango, erremediorik galdua dela gudan eta munduan irtenbiderik ez dagoelako ustea. Dena onbera denak beti aurkituko du unea behar duguna emateko, arras berandutzen ari bada ere.

Urteko 20. astea

Andre Maria Birjina Erregina

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*

Andre Mariaren MEZA: Isaias 9, 2-4. 6-7. Sal 112, 1-2. 3-4. 5-6. 7-8.
Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukasen liburutik 1, 26-38.

Ezekielen Profezia liburutik 36, 23-28: Bihotz berria emango dizuet eta barnean espiritu berria ezarriko. Sal 50: Ur garbiz ziprztinduko zaituztet, eta garbi geldituko zarete zeuen kutsadura guztietatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 1-14.

Aldi hartan, Jesusek berriro parabola bidez hitz egin zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Zeruetako erreinuarekin bere semearen ezteiak ospatu zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera, baina haiek ez zuten etorri nahi izan. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen mandatu honekin: “Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, prest dago dena. Zatozte ezteietara”. Baina gonbidatuek ez zioten jaramonik egin: bata bere lurretara joan zen, bestea bere negozioetara eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten. Haserretu zen erregea eta, bere soldaduak bidaliz, hil egin zituen hiltzaile haiek, eta su eman haien herriari.

Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkitutako guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen. Erregeak, bazkaltiarrek ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi eta esan zion: “Adiskide, nolatan sartu zara hona eztei-jantzirik gabe?”. Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariei esan zien, orduan: “Esku-oinak lotu eta bota ezazue kanpora, ilunpera; han izango da negarra eta hortz-karraska!”. Zeren gehiago baitira deituak, aukeratuak baino».

Urteko 20. astea

Andre Maria Birjina Erregina

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*

Parabola hau Jesusen benetako asmo-adierazpen bat da, «apaiz nagusien» eta «zaharren» aurrean. Jainkoaren bihotzaren hiru taupada agertu ditu, bata bestearen segidan azalduz. Alde batetik, bere herriaz maitemindurik dagoen errege bat bezala da Jainkoa: bere semearen ezteien arrandia erregalatu nahi baitio bere herriari. Berarena den orok menpekoena ere izateko deia jaso baitu. Bestetik, herriaren esker gaiztoa eskandalagarria da. Erregearekiko bere harremana lurrundu egin du eta sakon zauritu haren bihotza. Azkenik, halaz guztiz, erregeak horri guztiari buru egin dio, eta handiagotu egin du bere jaia, neurririk gabe zabalduz jende «gaiztoaren eta onaren» faboretan... Horra Jainkoaren historia, ez dio utzi nahi izan bera, hasieratik dena, izateari, eta azkeneraino jarraituko du horretan: berorren eskuzabaltasuna da epaituko gaituena.

Ezekielen Profezia liburutik 37, 1-14: Hezur iharrok, entzun Jaunaren hitza. Israel etxe, ateraraziko zaituztet hilobitik. **Sal 106:** Eskerrak Jaunari, haren maitasuna betikoa baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko lege-gizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?». Jesusek erantzun: «“Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz”. Hau da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

Bi agindu, hiru maitasun; formula horrekin, gure barnekoitasuna zirriboratu du Jesusek. Sostengatzen gaituzten hiru maitasunek dinamizaturik imajinatu du gure barnekoitasuna: Jainkoarekiko maitasuna, lagun hurkoarekikoa eta norberarekikoa, hirurak antolatzen dituzten bi aginduen arabera. Gure oinarritzko maitasunek altuera desberdinetan dagite hegan, baina sakon uztarturik daude. Jainkoarekiko maitasuna, «nagusiena eta lehena», ez dabil «bigarrena», hurkoa maitatzearena, baino gorago, baizik eta beroni eskua emanik dabil eta bere antzeko egin duelarik. Bada norberarekiko maitasuna ere. Jesusek ez du hau gutxietsi. Nahiz ez den lehen mailakoa, beste bien mailakoa alegia, haragitzen beste biei laguntzen dien maitasuna da. Izan ere, hurkoarekiko maitasunak, Jainkoa maitatzearen antzekoa den hark, geure burua maitatzea «bezalakoa» izan behar du. Maitasun oro objektibatzen edo haragi bihurtzen duen neurri horrek geure burua erro-errotik onartzera gonbidatzen gaitu. Horixe eskatzen digute gainerakoek... horixe Jainkoak berak ere!

Urteko 20. astea
SAN BARTOLOME, APOSTOLUA.

Apokalipsi liburutik 21, 9b-14.

Aingeru batek esan zidan: «Zatoz, emaztegaia erakutsi behar dizut, Bildotsaren emaztea». Hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eraman ninduen espirituaz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain gardena. Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israelarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak.

Sal 144: Zure fededunek ager deztela, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joseran semea, Nazaretekoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?». Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?». Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Urteko 20. astea
SAN BARTOLOME, APOSTOLUA.

Bartolome denbora luzean bizi izan zen, gaur ezagutzen dugun santua izan gabe. Denbora hori, arimarik gabeko tradizioek idatzitako ustezko legeak hala arauturik bizi izan zen; uste izan zuten, ezin zela sortu ezer garrantzizkorik giza begientzat ezdeus-edo zen zerbaitetik. Bartolomek ere bete-betean bizi zuen konbentzimendu hori, harik eta egun batean esan zioten arte Nazaretetara zela Jesus. Aldi horretan, espero zenez, Bartolomek, artean ez baitzen santua, leku bazterrak edo ertzeak mespretxatu egiten zituen, partikularki botere-egituren erdigunetik urrun ziren bazterrak. Alde horretatik, adibide ona zen Nazaret, Jerusalemekin edo Erromarekin konparaturik zuen egundoko kontrasteaz. Ez zen leku egokiagoa aldaketa sinesgarriak eta iraunkorrak eragiteko, hain beharrezko zituenak Bartolome bizi zen herriak. Jesus nazaretarra izatea, beraz, zantzu txarra zen. Alabaina, Bartolomek onartu beharko zuen, halako batean, ezen, mundua ohiko bidez kanpo mugituko bazen, beste lege bati atxiki beharko zitzaioala: garrantzizko gauza sortu ahalko zela, alegia, Galileako herrixka bateko kalezulo bihurrietan. Ezen gauzarik handiena gauzarik txikienean hasten eta garatzen dela, eta ez alderantziz. Behetik gora birmoldatzen du Jainkoak bizia... Fede horretara iristean, bai, ezagutzen dugun santua izan zen Bartolome.

Urteko 21. astea

San Luis Frantziakoa, erregea.

San Jose Calasanz, apaiza, fundatzailea (eskolapioak)

Josue liburutik 24, 1-2a. 15-17. 18b.

Egun haietan, Israelgo leinu guztiak bildu zituen Josuek Sikemen. Dei egin zien Israelgo arduradun, buruzagi, epaile eta funtzionarioei ere, eta Jaunaren aurrera agertu ziren. Orduan, honela mintzatu zitzaion Josue herri osoari: «Jauna zerbitzatzea gaizki iruditzen bazaizue, aukera ezazue gaur zein zerbitzatu: zuen arbasoek Eufrates ibaiatz bestaldean zerbitzatu zituzten jainkoak ala amortarren jainkoak, orain bizi zareten herrialdeko jendearenak, alegia. Nik eta nire etxekoek Jauna zerbitzatuko dugu». Herriak erantzun zuen: «Urrun gugandik Jauna uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu geure Jainkoa; berak atera gaitu gu eta gure arbasoak Egiptotik, esklabotzatik; geure begiz ikusi ditugu berak egindako mirari handiak; berak zaindu gaitu egin dugun bide guztian zehar, eta igaro ditugun herri guztietan babestu gaitu. Beraz, guk ere Jauna zerbitzatuko dugu, bera baitugu geure Jainkoa».

Sal 33: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.

San Paulok Efesoarrei 5, 21-32.

Senideok: Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen begiruneagatik. Emazteak izan daitezela beren senarraren menpeko, Jaunaren menpeko bezala, senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala, bere gorputza duen Elizaren salbatzaile delarik. Eliza Kristoren menpeko den bezala, izan bitez emazteak denetan senarraren menpeko. Senarrok, maita ezazue zeuen emaztea, Kristok Eliza maitatu eta beraren alde bere burua eman zuen bezala. Bere burua eskainiz, sagaratu egin zuen Eliza, Bataioko urez eta hitzaren indarrez garbituz. Horrela prestatu zuen beretzat Eliza distiratsua, zikinik eta zimurrik edo horrelako ezer gabea, santua eta kutsugabea. Era berean, senarrek ere beren gorputza bezala maitatu behar dute beren emaztea. Emaztea maite duenak bere burua maite

Urteko 21. astea

San Luis Frantziakoa, erregea.

San Jose Calasanz, apaiza, fundatzailea (eskolapioak)

baitu. Ez du inork bere gorputza gorrotatzen, baizik eta jaten eman eta zaindu egiten du, Kristok Elizarekin egiten duten bezala. Gu guztiok gorputz horren atal gara. «Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira». Handia da misterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuen: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?». Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen». Geroztik, haren ikasleatariko askok atzera egin zuen, eta aurrerantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?». Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

Trinkotasun pertsonala ematen diguten oinarrizko harremanak denborak lantzen ditu. Honek errementariak bezala jokatu ohi du; honek mailuz jo eta mailuka eratzen du metala; horrela eratzen dira gure funtsezko loturak ere. Batzuetan, urean hozten du metala egiaztatzeko egokituz ote doan imajinatzen eta landu nahi duen emaitza. Ez da metala modelatzeko beste biderik. Era berean, beste biderik ez da gure leialtasuna zor gatzazkion jendeari egokitzeko. Berarekiko

Urteko 21. astea

San Luis Frantziakoa, *erregea*.San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (eskolapioak)*

gure loturak zuzeneko galderak eskatzen ditu, azpian dagoen benetako balioa gainera ateratzeko gai izango direnak. Mota honetako galderak behin baino gehiagotan topatzen ditugu. Halakoen gainean eraikitzen ditugu geure loturak edota berraztertzen ditugu desegiteko... Jesusen eta ikasleen artean ere ageri dira horrelako galderak noizik behin. Jesusek, orduan, errementariarena egiten du ikasleekin, eta sakontzen du beraien harremanen hondoa. Haienezat guztientzat, bistakoa da ezen Ebanjelioa zailtasun-bertsio bat azaltzen ari zaiela, konfiantza eta animoa koloka jartzen diena. Ebanjelioa ez zen horrelakoa hasierako beraien egitasmoetan. Eta, oran, hasiak dira alde egiteak. Orduan da sortzen errementariaren galdera, metalaren kalitatea egiaztatu nahi duen galdera: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?». Pedro izango da, nola ez, baiestera lehiatzen dena ezen lanketa zuzena dela.

* * *

Zure argian dut ikasi maitatzen.
Zure ederrean, poemak idazten.
Dantzan ari zara ene bihotzean,
inork ikusten ez zaituen horretan,
baina inoiz nik ikusten zaitudala,
eta ikuste hori da ene arte bihurtu.

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina (Adin handikoen Zaindaria)*. Santa Joana Elisabet Bichier des Ages, *birjina, fundatzailea (Gurutzearen Alabak)*

San Paulok 2 Tesalonikarrei 1, 1-5. 11b-12: Jesus gure Jaunaren izena goretsia izango da zuengan, eta zuek harengan. **Sal 95:** Zabaldur Jaunaren mirariak herri guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 13-22.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Jendeari zeruetako erreinuko sarrera ixten diozuenok! Zeuek ez zarete sartzen eta sartu nahi dutenei ez diezue uzten. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Baten bat judu berri egiteagatik itsaso eta lehor zabiltzate eta, egin duzuenan, zeuek baino bi aldiz gaiago bihurtzen duzue infernura. Ai zuek, gidariitsuok! Honela irakasten duzue: “Tenpluagatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko erreagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Zoro itsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaratzen duen tenplua? Beste hau ere irakasten duzue: “Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Itsuok halakook! Zer da handiago, oparia ala oparia sagaratzen duen aldarea? Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiagatik egiten du zin; tenpluagatik zin egiten duenak, tenpluagatik eta bertan bizi den Jainkoagatik egiten du zin; zeruagatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuagatik eta bertan eserita dagoenagatik egiten du zin».

Aski bide daude nahita moztuak. Jendeak eta erakundeak, tradizioak eta modak, ideologiek eta burubideak itxi izan dituzte: inora joan nahi ez dutenek. Itxi eta kito. Beren lehen sena ez dute bide egitea. Ez dute aurrera egiten, ezta atzera ere. Ez dute ezkerrean jotzen, ezta eskuinera ere. Ez dute hautabiderik bilatzen, ezta uzten ere beste irtenbide batzuk bilatzen. Besterik gabe, igarotzea eragotzi. Seko galga emanda uzten dute bizitza. Eta, jadanik, berak ez bizitzeaz gain, besteri ere ez diote uzten bizitzen... Horrelako oztopo bat

Urteko 21. astea

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina* (*Adin handikoen Zaindaria*). Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea* (*Gurutzearen Alabak*)

zeharkatu nahi izatea arriskutsua izan ohi da, asko izaten baitira asmatzen dituzten tranpak, esperantza oro galarazteko. Jesusek, eskandalizaturik, horixe ikusi du bere garaian Jainkoaren ustezko bitartekariengan. Horra zergatik ipini duen bere ahalegin guztia bideak berrirekitzen: bideak berrirekitzen, gugana etorri nahi duela behin eta berriz azaldu duen Jainkoari.

* * *

Jesus, berpiztu ezazu Aitaganako gure fedea!

Ez dezagun inoiz galdu, heriotzaz haratago, geure piztueran sinesteko itzaropena. Orduan bakarrik ikusiko dugu ez direla hutsean galdu mundu gizatiarrago eta zoriontsuago baten aldeko gure ahaleginak. Orduan bakarrik biziko dugu hemen erdizka gelditu dena, izan ezin izan dena, gure hutsegite eta akatsekin hondatu duguna, pozez edo negarrez eraiki duguna, guztia eraldatua geratuko da. Orduan entzungo ditugu Jainkoaren Ontasun hondogabetik hitz miresgarri hauek: “Neu naiz Alfa eta Omega, hasiera eta bukaera. Egarri denari neuk emango diot doan biziaren iturburutik” (Ap 21, 6). Doan!, merezi izan gabe, horrela aseko du Jainkoak gizaki guztiok barruan sentitzen dugun betiereko biziaren egarria.

(Jose Antonio Pagola)

Urteko 21. astea
 Santa Monika, *aitorlea*
 San Lizerio, *gotzaina*

San Paulok 2 Tesalonikarrei 2, 1-3a. 14-17: Eutsi tinko hartu dituzuen irakatsiei. **Sal 95:** Badator Jauna lurra epaitzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 23-26.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue; legeko gauzarik garrantzizkoenak, berriz, zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, bazterrera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe. Gidariitsuok! Eltxoa iragazten duzue, eta gamelua irensten! Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta gutiziaz beterik dauden bitartean. Fariseuitsu hori! Garbi ezazu lehenik edalontzia barrutik, kanpotik ere garbi geldidadin».

Jainkoaz ustezko aditu direnek iruzur bikoitza egiten dute, Jesusek etengabe salatua. Batetik, uste dute Jainkoaren eta gure arteko harremanen muinean daudela beraiek. Harreman horien interprete beraiek direla uste dute, eta berek dituztela giltzak jakintza horretarako. Bestetik, ondorioz, uste dute juzga dezaketela zer esaten dien Jainkoak bere seme-alabei eta zer nahi duen Jainkoak berorien bizitzan... Jesusi hori guztia jasanezina iruditua zaio, Kreatzailearen eta sorkariaren arteko intimitatea zauritzen duelako. Jainkoak deliberatu du pertsona bakoitzarekiko zer-nolako hurbiltasuna izan: zer, noiz eta nola. Eta Kreatzailea denez, aski aditua da lortu ahal izateko sorkaria jabetu dadin, zuzenean eta libre, beraren maitasunaz.

Urteko 21. astea

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*
 Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*

San Paulok 2 Tesalonikarrei 3, 6-10. 16-18: Lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan. **Sal 127:** Zorionekoa Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 27-32.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak! Zuek ere honelakoak zarete: kanpotik zintzoak jendearen aurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: “Gure arbasoen egunetan bizi izan bagina, ez genukeen parterik hartuko haiekin profeten hilketan”. Horrela, zeuek aitortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengoak zaretela. Bete, bada, zeuek ere zuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!».

«... izan bagina» delako hipotesia, Jesusek lege-maisuengan eta fariseuengan bizirik dagoela uste duena, ez da inoiz ere galtzen. Gertatzen da, beraiek bezala, geuk ere geure burua hornituago sentitzen dugula irizteko eta asmatzeko gaitasunez, iraganean bereizi eta erabaki beharrean gertatu zirenak baino. Gaizki hartzen dugu norbaitek esatea, orainari aurre egiteko dugun moduaz, horrelako uste hori susmagarri edo galdegarri dela. Proba horixe egin die Jesusek kontra jarri zaizkionei. Aurpegiratu die ez daudela ez gaiaren ez inguruabarren mailan. Berriro huts egin dute, Jainkoa igarotzeari antzeman ezinez. Alde egin diete berritasuna baiesten duten datuek. Horrenbestez, lege-maisuei eta fariseuei ere beraien arbasoei gertatu zitzaien gauza bera diagnostika dakieke: mespretxatu egin dute Jainkoak gaur eskainitako kontsolamendua; horregatik, oraingoan ere ez dira bihotz-berrituko.

San Paulok 1 Korintoarrei 1, 1-9: Kristogan aberastu zaituzte gauza guztietan. **Sal 144:** Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea». Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudaiburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzari egin zuen, eta atsegin izan zitzairen Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?». Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpolean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion,

* San Adelfo, *martiria*
Santa Sabina, *martiria*

Urteko 21. astea

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN MARTIRITZA

Pedro Asua eta Mendia (Balmaseda 1890-Cantabria 1936),
*apaiza, dohatsua, martiria**

eta azpilean ekarri zuen burua; neskaxari eman zion, eta neskaxak amari. Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

Joan Bataiatzailearen historia, denbora luzea pasaturik ere, oroimenean erraz gordetzen diren historia horietakoa da. Bera bezalako pertsona karismatiko batek garaikideen arreta erakartzen du. Baita gaitzespena ere. Joanen salaketa, Herodesek Herodiasekin dituen harremanak, zuhurtasun politikoaren gainetik dago. Tetrarkaren bizitza pertsonalak badu zeresanik beste interes batzuekin; halakoak ere koloka ipini ditu Joane. Azkenik, horiengatik guztiengatik lepo egin dute, festa zoro baten okasioaz eta despota baten krudeltasunaz baliaturik. Ez da dudarik: Herodes Joanen erailketaren errudun da. Baina, aldi berean, erailketa hark botere-egitura gupidagabe eta ankerren kultura kreatzaile asko juzgatzen ditu. Gizadiak bere buruarekiko duen etengabeko inkongruentzia agerian ipini du Joan Bataiatzaileak. Baina hilketa ez zen alferrik galdu. Gogora dezagun Joanen historiaren bukaera: Jesusen historiaren hasiera izan zen.

* San Adelfo, *martiria*
Santa Sabina, *martiria*

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*

San Paulok 1 Korintoarrei 1, 17-25: Guk Jesu Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, gizakientzat onartezina dena, baina deituentzat Jainkoaren jakinduria da. **Sal 32:** Jaunaren graziaz beterik dago lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatzekin bezala gertatzen da. Neskatzetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olio ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen. Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!”. Jaiki ziren neskata guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”. Baina, erostera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!”. Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”. Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Jainkoak galdetzen digu zein leku duen berak gudan. Ez-ezinbesteko ala ezinbesteko ote den. Erreferentzia nagusi ala halabeharrezko inguruabar huts ote den. Beragatik eta berarekin bizi duguna fedea ote den ala, alderantziz, sineskeria hutsal bat, zeinetan ez baita ikusten jadanik konpromiso-izpirik. Beraren baitan bizi dugun askatasuna ote den ala berarekiko beldurra. Eta horretaz guztiaz galdera egiteko

Urteko 21. astea

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa
(Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak,
dohatsuak, martiriak, jesuitak

eskatzen digu, bera ez dagoelako prest gurekin edozein harreman izateko. Berarentzat ez gara ez-ezinbesteko. Horregatik, ordu-orduz iristen da gure premietara. Beste inork ez bezala, jai bihurtuko ditu gure ospakizunak. Ez du galduko gure bizitzako funtsezko uneko bakar bat ere. Hitz gutxitan esateko, neskatxa zentzugabeen parabolarekin jarraituz: hor egongo da bera beti.

* * *

Esna gaitzazu, Jauna

Esnatu, Jauna, gure bihotza,
ezdeusetan lokartua,
biziki maitatzeko jada indarrrik gabe dena.
Esnatu, Jauna, zurekiko gure egarria,
zapora garratzeko ura baitugu edaten,
ezin duena ase eguneroko gure antsia.
Esnatu, Jauna, zu ikusteko gure antsia,
harrapaturik baikauzka hainbat kezka
eta nahiago baitugu atseden hartu adi egon baino.
Esnatu, Jauna, gure fede lokartua,
amesgaiztoak izateari utzi
eta jai bezala bizi ahal ditzagun egunak oro.
Esnatu, Jauna, gure espiritua,
zeren bide batzuk, zu ezagutzeko,
begiak irekirik baitira egiten.
Esnatu, Jauna, zure su bizia.
Garbi gaitzazu azal eta barne,
eta irakatsi esna egoten.

(Ulibarri Fl.)

Urteko 21. astea

San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala*San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*

San Paulok 1 Korintoarrei 1, 26-31: Munduak baliogabetzat duena aukeratu du Jainkoak. **Sal 32:** Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituen haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurpean zuloa egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua. Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaien. Hurbildu zen bost talentu hartu zituenak, eta beste bost eraman zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut”.

Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”. Hurbildu zen bi talentu hartu zituenak, eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”. Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: “Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun tokian igitatzen, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hemen duzu zeurea!”. Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alfer hori! Bahekien, beraz, erein ez dudan tokian igitatzen dudala nik, eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Horregatik, nire dirua diru-trukatzaileei utzi behar hien, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentu hori, eta eman hamar dituenari.

Urteko 21. astea

San Ramon Nonnato, apaiza, kardinala

San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*

Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”».

Mateoren ebanjelioaren 25eko beste parablek bezala, talentuen honek ere argi egin nahi digu ebanjelio-tiranduraz, honi baitago lotua gure oraina, eta ez gure iragana eta ez gure geroa. Murgildurik bizi garen salbamen-historiaren aldi honetaz ari da parabola: Elizaren aldia deituaz. Aldi hau ere salbatzailea da, ez da neutrala, ez da pasadizo huts bat. Apostolutar konpromiso hartu behar du hori Elizak. Ezin egin dio ezikusiarrena. Hondo-hondoan, hau dago jokoan: kristaua jabetzen ote den oraina aukera bat dela Jainkoarentzat edozein gorabeheratan. Orain horren eszenatoki zehatzean —eta ez lehenarenean eta ez geroarenean, eta ez izan denarenean eta ez izatekoa denarenean— gertatu ohi da Ebanjelioak proposatzen duen eraldaketa. Orain horretan egiten digu dei Jaunak, iragana eta geroa bereizten dituen eta era batekoak edo besteakoak izatea determinatzen duen tarte hertsia eta mugatu horretan. Beste modu batean esanik, ekintza ebanjelikoa modu indikatiboan dago jokatua. Eta esan daiteke, era paradoxikoan, modu indikatibo horretan dagoela Jainkoaren aldia une oro guretzat, bere trinkotasun esanahitsuan.



IRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Lurraren garrasiaren aurrean: Egin dezagun otoitz gutako bakoitzak entzun dezan bihotzez lurraren, eta naturaren katastrofeen eta eraldaketa klimatikoaren biktimen garrasia, norberak bizi garen lurra zaintzeko hitza emanez.

Urteko 22. astea

San Josue, *patriarka*San Gil (Egidio), *ermitaia*

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)

Deuteronomioa liburutik 4, 1-2. 6-8.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Orain, Israel, entzun irakasten dizkizuedan legeak eta erabakiak, eta bete. Horrela, biziko zarete eta Jaunak zeuen arbasoen Jainkoak emango dizuen lurraldean sartuko zarete eta haren jabe egingo. Ez erantsi, ez kendu, nik agintzen dizuedanetik ezer; aitzitik, bete nik ematen dizkizuedan Jaunaren, zeuen Jainkoaren, aginduak. Gorde itzazue eta bete, horrek jakintsu eta buruargi egingo baitzaituzte herrien aurrean. Lege hauen berri izatean, esango dute: “Bai herri jakintsua eta buruargia nazio handi hau!”. Izan ere, ba ote da nazio handirik, bere jainkoak, guk Jauna geure Jainkoa bezain hurbil dituenik, dei egiten diogun bakoitzean? Ba ote da nazio handirik, gaur nik adierazten dizuedan irakaspen hau bezain lege eta erabaki zuzenak dituenik?».

Sal 14: Nor bizi, Jauna, zure etxean?

Santiago Apostoluaren gutunetik 1, 17-18. 21b-22. 27.

Ene senide maiteok: Emaizta on eta dohain bikain oro goitik dator, Aitagandik, aldaketarik eta ilunaldirik ez duen argien Egileagandik. Berak, hala nahita, bizia eman digu egiaren mezuaz, sorkari guztien artean lehenengoak izan gaitezen. Onar ezazue otzan-otzan zuengan erein den eta zuek salbatzeko indartsu den mezua. Bete ezazue mezua, eta ez entzun bakarrik, zeuen burua engainatuz. Jainko Aitaren aurrean benetan garbi eta akatsik gabeko erlijioa haxe da: umezurtzei eta alargunei beren premietan laguntzea, eta munduko gaiztakeriarekin nor bere burua ez kutsatzea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 1-8. 14-15. 21-23.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemdik etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku

kutsatuekin –hau da, eskuen garbikuntza egin gabe– jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketak.

Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokutzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?». Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean: “Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina nigandik urruti du bihotza; alferrik naute gurtzen, hauen irakaspena giza agindu hutsa da”. Zuek, Jainkoaren agindua bazterrera utzi eta giza ohiturari eusten diozue». Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia». Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaieria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

Jende asko, munduaren konplexutasunari aurre egin eta ausardiaz hasten dira bereizmena egiten; arrazoia dute bizitzako zailtasunen erronka jaso eta beren ahamenetik kanpo zein arazo diren ikusteko arreta jartzen dutenean. Bereizmena analisi eta diagnostiko onak eginez zehazten dute, eta konponbide bideragarrietara daramaten estrategiak marraztuz. Eta zenbat eta lehenago, hobe. Ekintzari lehentasuna ematea izango lukete beren leloa... Baina hori arrazoiaren zati bat baino ez

da. Munduaren konplexutasunak gu geu ere geure konplexutasunean sartzea eskatzen du, delako konplexutasuna eragiten duen hartara hurbiltzeko. Jesusek zorroztasunez zehaztu dituen konplexutasunaren eragile horiei, Loiolako Ignazio santuak «eraspen edo grina eragabe» deitu zien. Arazoak ez daude guregandik at bakarrik: lotura zuzena dute geure barnean ditugunekin. Konplexutasunaren bereizmena egiteak nor bere barnera begira jartzea esan nahi du: norberaren interesak, motibazio pertsonalak, aitortu gabe nork bere burua erdigune egiteak bereizteko. Halakoekin, sinplea zena zail bihurtzen da, bitarteko huts zirenak helburu bihurtzen dira. Jesusek zirriborratzen duen «gizakiaren bihotzaren» barne-paisaia ez da etsipenari atea irekitzea, argiari baizik: bizia nahasten duten grina eragabeak saltzen dizkigun trebeenaren aurrean begiak ixtea eragotziko digun Espirituaren argiari irekitzea, alegia.

* * *

Borroka eta errukia

Beldurrik eta konplexurik gabe eraso zenien
 arrazoiketa indartsua erabiliz.
 Zerk eraman zintuen, Jauna,
 maisu harroputz haien aurrean
 hain argi eta indartsu jokatzera,
 horretarako non eta noiz prestatu zinen ez dakigunez?
 Haien alferreko jakintzaren gainetik jarri zinen
 eta gain horretatik aurpegiratu zenien
 herria nahasten zuen eta galbidera zeraman
 barnea usteltzen zien zurikeria zantarra.
 “Jaunaren aginduak zanpatzen dituzue
 eta zuek asmatutako ohiturak aldarrikatzen dituzue harro-harro”.

(Patxi Loidi)

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 - Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak* (*Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan*)*

San Paulok 1 Korintoarrei 2, 1-5: Jesu Kristo gurutziltzatua hotz egin nizuen. **Sal 118:** Bai maite dudala, Jauna, zure legea!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen: «Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko, gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapalduen askatasuna ematera, Jaunaren onginahi-urtea hots egitera». Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik. Baina zioten: «Ez al da, ba, hau Joserren semea?».

Orduan, Jesusek esan zien: «Harako esaera hura gogorazariko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen, egin omen dituzun gauzak”». Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*

Urteko 22. astea

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 - Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua*, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak* (*Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan*)*

Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Ortega y Gasset-ek, *Meditaciones del Quijote* (1914) idatzian, ezaguna dugun pentsamendu hau jaulki zuen: «Ni, ni naiz eta nire zirkunstantziak, eta berau salbatzen ez badut ez dut neure burua salbatuko». Zirkunstantzia hori nire historia txikia da: zer naizen, zenbat daukadan, nire zauriak, nire jendea, nire ahalegina, nire bidegurutzea. Jesusek beraren Ebanjelioak gure historia txikiekin zerikusia duela errepikatzen du. Agindu digun salbamina burutzeko, beharrezko dituen atal gisa hartzen ditu. Jainkoaren Herria ez da izenik gabeko, ezerezean kokatutako multzo bat. Aitzitik, berezitasunez bete dago, guztiak testuinguru zehatzetan kokatuak. Jainkoa zirkunstantzia horietako bakoitzera doa, beraietan izatea asmo duelako. Nazaretek, horregatik, mugagabetasunaren gaitasuna du.

* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*

Urteko 22. astea

San Gregorio Handia, 64. aita santua eta eliz irakaslea

San Paulok 1 Korintoarrei 2, 10b-16: Giza maila hutsez, gizakiak ez du onartzen Jainkoaren Espirituari dagokiona; Espiritua duenak dena juzkatzen du. **Sal 144:** Zintzoa da Jauna bere bide guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenaz, nagusitasunez hitz egiten baitzuen. Bazen sinagogan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihu bizian zioen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua». Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!». Deabruak jendartean lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik. Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espiritu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira». Jesusen entzutea herrialde hartako bazter guztietara zabaldu zen.

Gaitzak argitasun bikaina du. Ongia non eta nola ari den nabaritzeko gai da. Egia errukitsua argi eta garbi antzemateko gaizkiak duen objektibotasun hori harrigarria da benetan. Baina gaizkia etsai indartsu bihurtzen du: aurrean duen eta akatsik gabe bereizten duen ongiari aurre egingo dio argi eta garbi. Izan ere, horregatik, Jainkoaren bizitza lausotzen duen gaitz fisiko eta moralari Jesusek sarritan aurre egin beharko dio. Borroka izugarria da. Amaierak, aldiz, espiritua altxatzen du: gaitzak, azkenean, ezin du «Jainkoaren Santuaren» indar berriztatzailea gainditu eta alde egin behar du. Ebanjelioak bukaera hori beti errepikatuko dela gogorarazten digu!

Urteko 22. astea

San Moises, *profeta*

San Paulok 1 Korintoarrei 31-9: Gu Jainkoaren lankideak gara; zuek, berriz, Jainkoak lantzen duen soroa, Jainkoak eraikitzen duen etxea. **Sal 32:** Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbait egiteko eskatu zioten. Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaien amaginarreba. Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkieten, eta hark, bakoitzari eskuak ezarri, sendatu egiten zituen. Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!». Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela. Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Baina Jesusek esan zien: «Gainerako herrietan ere adierazi beharra dut Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretara bidali bainau Jainkoak». Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten.

«**G**oazen beste norabait [...], horretarako atera bainaiz». Zergatik estrategia aldaketa hau? Jendeak ez al zuen ondo erreakzionatzen, Jesusen itxaropen guztiak gaindituz? Zergatik ez ezarri Kafarnaumen Jesus ezagutu nahi duen edonor joan zitekeen erdigune erako zerbait? Horren orde, Maisuak ez bera eta ez beraren taldea toki jakin batean ez kokatzea proposatu du, jendea etorri zain egon eta harrera egiteko. Goiz hartan, otoitz egin ondoren, Jesusek abiatzea erabaki zuen. Denekin topo egitera joan nahi du. Berak agertu nahi duen Jainkoa aurki daitekeena da. Ez dugu beragana joan beharrik, bera da gugana datorrena. Jainko hori ibiltaria da. Eta, hain zuzen, gauden tokian berean egingo dugu berarekin topo.

San Paulok 1 Korintoarrei 3, 18-23: Guztia zuena da. Zuek, ordea, Kristorenak zarete, eta Kristo Jainkoarena. **Sal 23:** Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldia; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendeari irakasten jardun zuen. Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino. Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaizen Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesussek esan zion Simoni: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara». Haiek txalupak lehorreara atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Gidoi harrigarria: *lehen* arrantzale zirenak, «dena utzirik», arrantzu miragarria ere bai, *ondoren* ikasle bihurtu ziren. Gizakiok imajina al genezake desatxikitzeko horrelako keinurik?, ez al da ausarta gutxi batzuentzat gordea? Onartzen ez dugun artean, Ebanjelioaren

argiak guztiz itzalita jarraituko du. Jesusek beren mundutik atera ditu ikasleak, Jainkoaren borondate handiagoko beste batean sartzeko. Beste edozein errealitatek ez bezala, senidetasan berri batek poztuko du giza bihotza. Poz horrek argitzen digu, ikasleek, gau guztia ezer harrapatu gabe eman ondoren, goizean txalupak eta sareak utzi izana. Poz hori hainbestekoa eta behin betikoa izanik, munduko gauzarik normalena arrain-harrapatze miragarriak ere uztea zela sentitu bide zuten. Azken batean, aurkitua zuten dagoeneko den-dena!

* * *

Agustindar

Maite nazazu gehiago, Jauna, zu maita ahal izateko.

Bila nazazu gehiago, zu hobeto aurkitzeko.

Urduri nazazu, bilatzen ez zaitudalako.

Urduri nazazu, atxiki zaitudalako.

Inausi nazazu gehiago, gehiago loratzeko.

Biluztu nazazu, zu ez mozorrotzeko.

Erakutsiezadazu abegikor izaten, zure zain egoteko.

Denengan begiraiezadazu, nik denengan zu ikusteko.

Zutaz susmorik izan ez dutenengatik,

zu aurkitzeko beldur direnengatik,

galdu zaituztela uste dutenengatik,

heriotzako orduan itxaron dituzun guztiengatik,

abestu egin nahi dizut, Maitasun hori,

esker onez,

beti zeu garaitzea lortzen baitugu!

(Pedro Casaldáliga)

Urteko 22. astea
San Eleuterio, *abadea*

San Paulok 1 Korintoarrei 4, 1-5: Jaunak agertuko ditu bihotzeko asmoak. Sal 36: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 33-39.

Aldi hartan, fariseuek eta lege-maisuek esan zioten Jesusi: «Joanen ikasleek sarri egiten dute barau eta otoitz, baita fariseuen ikasleek ere; zureak, ordea, jan eta edan ari dira». Jesusek erantzun zien: «Nola nahi duzue ezteietara deituek barau egitea, senar berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau». Parabola hau ere esan zien: «Inork ez du jantzi berririk urratzen, zaharrari adabakia ipintzeko; bestela, jantzi berria hondatu egingo litzateke, eta zaharrari ez litzaioke berriaren adabakia egoki etorriko. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardo berriak zahagiak lehertu egingo lituzke; ardoa isuri egingo litzateke eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartu behar da. Ardo zaharrarekin ohitua dagoenak ez du berririk nahi, “zaharra hobe da” esaten baitu».

Jesusek ausardia eskatzen du. Eskaskeria eta zekenkeria desegokiak dira berak imajinatzen duen ikasle batengan. Urardotu egiten dute, kolore biziak eta aurrekaririk gabeak bizitasun gabeko bihurtzen dituzte. Kohelet-en «deus ez berririk eguzkipean» delako esaldiaren aurrean, Jesusek azpimarratzen du Ebanjelioak ezusteko erradikalismo batera garamatzala; eraldaketan sinesteko jarrera maitagarria eskatzen duen «ardo berri» baterantz, hau da, «zahagi berriei dagokien» jarrerarantz. Ebanjelioak zerbitzatu nahi duen giza historia ez da amaigabeko gurpil biratzaile bat; izan ere, bizi ditugun gorabeherak, eskatzen dituzten harremanak eta dakartzaten arazoak etengabe ari dira aldatzen. Egia da galdera handiak hor daudela oraindik, baina erantzun desberdinak behar dituzte. Jesusek sustatu egiten ditu, baina inoiz espero ez genukeen lekuan egoten da gure zain: eguzkitan. Izan ere, dena berri da beraren azpian, Kohelet-ek pentsatzen zuena gorabehera.

Urteko 22. astea

Santa Regina, *martiria*

San Paulok 1 Korintoarrei 4, 6b-15: Goseak, egarriak eta biluzik ibili gara. Sal 144: Hurbil dago Jauna dei egiten diotenengandik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 1-5.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak galburuak moztu, eskuetan aletu eta jaten ari ziren. Fariseu batzuek esan zieten: «Nolatan ari zarete larunbatez zilegi ez dena egiten?». Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zuena, bera eta beraren lagunak goseak gertatu zirenean? Jainkoaren etxean sartu eta, Jaunari eskainiriko ogiak hartuz, jan egin zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaketen ogiak izanik». Eta esan zien: «Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

Bide bazterrean jateko garia aletzea eta horrela gosea baretzea, ez dirudi aski arrazoizkoa denik Jainkoari hori egiteko debeku garbi bat egozteko. Baina Jesusek horrelako zorrozkeria eskatzen zuen jende batekin egin zuen topo. Sekula esan ez zituen aginduak egozten zizkieten Jainkoari. Keinu hutsalak, zeinen gainean eztabaidatu baitu Jesusek fariseuekin, sinbolizatu besterik ez du egiten jende horren zentzugabekeria. Teologia oso bat garatu dute, besterik gabe eta era arrunt-arruntean onartu zezaketen puntu batez. Bizia bera irteten da horrela galtzen, Jainkoak gure gozamenerako funtsean on-ona kreatu zuena. Hala ere, giza espiritua segurtasunik gabea da, eta, askotan, bere beldurra ekaitz-hodei balira bezala imajinatzen ditu. Jesusek azpimarratzen du, orde, zeruak ez duela ekaitz-mehatxurik egiten; aitzitik, argi urdin distiratsu batek argitzen du zeru hori, zeinetan txoriek aske hegan egiten duten.

Isaias Profetaren liburutik 35, 4-7a.

Esan bihotz-beldurtiei: «Eutsi gogor! Ez beldur izan! Horra zuen Jainkoa! Hura bera dator zuek salbatzera eta merezia duten zigorra etsaiei ematera». Orduan, itsuen begiak irekiko dira eta gorren belarriak zabalduko; herrenak basahuntzak bezala jauzi egingo du eta mutuaren mihiak oihu egingo pozez. Urak sortuko dira basamortuan eta errekek eremuan; lur idorra aintzira bihurtuko da eta lur agorra iturri.

Sal 145: Goretsazu Jauna, ene barrena.

Santiago Apostoluaren gutunetik 2, 1-5.

Ene senideok: Ezin elkartuak dira Jesu Kristo gure Jaun aintzatsuagan duzuen sinesmena eta pertsonen artean bereizketa egitea. Eman dezagun zuen batzarrean bi gizon sartzen direla, bata aberatsa, urrezko eraztunez eta dotore jantzia, eta bestea pobrea, zarpail jantzia; eta dotore jantzitakoari sekulako begiramenez esaten diozuela: «Eseri zu hemen, ohorezko tokian»; pobreaki, berriz: «Hago hi hor zutik» edota «jar adi lurrean, nire oinazpikoaren ondoan». Horrela jokatzuz, ez al zarete zeuen artean bereizketa egiten ari, eta ez al duzue irizpide okerreaz epaitzen? Entzun, ene senide maiteok: Ez al ditu aukeratu Jainkoak munduaren begietan pobre direnak, sinesmenez aberats izateko eta bera maite dutenei agindutako erreinua ondaretzat jasotzeko?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 31-37.

Aldi hartan, utzi zuen Jesusek Tiro aldea eta, Sidonen barna, Galileako itsasora itzuli zen berriro, Dekapolisko lurraldean zehar. Gizon gor eta hitz-motela eraman zioten, eta eskua gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jendeagandik aparte harturik, hatzak belarrietan sartu

zizkion eta listuz mihia ukitu. Gero, zerurantz begiratu, hasperen egin eta esan zion: «Effeta», hau da, «ireki». Eta une berean, belarriak ireki zitzaizkion, mihia askatu eta garbi hitz egiten hasi zen. Gertatua inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina zenbat eta gehiago agindu, orduan eta areago zabaltzen zuten. Biziki harrituta, hau zioten: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea».

Gaur egungo teologian, zaintzaren gaiak lehentasun berezia hartu du. Gaur egungoak bezalako gizarte-testuinguru gero eta gizatasun hondatzaileagoetan, beharrezkoa da zaintzaz hausnartzea, sinesmen ikuspegitik, aipatutakoei kontrako ordaina eskaintzeko. Zaintza, senidetatsun-ekintza da: konponbidea, lagun-egitea, elkartasuna eta solidaritatea biltzen dituen, Jainkoaren etengabeko kreazio-jarduera eta den-denean duen presentzia-estiloa sintetizatzen dituen. Zaintza horretan, galdua zuen bizitasuna berreskuratu egiten du bizitzak eta hondoratua zuen guztia berriro gaineratu. Giza egoeren lotura eta katramilak askatu egiten dira eta bizitzaren hats ahuldua berrindartu... Horrelako zerbait gertatzen da Markosek kontatzen duen sendaketan. Gaixo baten gorrieriak sinbolizatzen du bizitzaren aurka doan orok nolako menpekotasunez inguratzen gaituen. Ingurune horretan, babesgabetasun sentipen latzak harrapatuta, dena isiltasun, paralisi eta eragozpen da. Ebanjelioak, berriz, zaintza eskaintzen du, hau da, askatu, suspertu eta erraztu egiten du. Horrela, ez da harritzekoa Jesusek igarotzean eragiten duen zirrara orokorra: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea». Badirudi gaitzak bere ondoren utzitako lur idorrean ura dakarren ildo bat irekitzen duela. Izan ere Jainkoa da, bere zaintzan sekula amore ematen ez duena.

Urteko 23. astea

Arantzazuko Andre Maria

San Pedro Claver, apaiza, misiolaria, jesuita

San Paulok 1 Korintoarrei 5, 1-8: Bazter ezazue legamia zaharra, Kristo, gure Pazko Bildotsa, opari eskainia izan denez gero. **Sal 5:** Gida nazazu, Jauna, zeure zuzentasunaren bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa elbarria zuen gizon bat. Lege-maisuak eta fariseuak zelatan zegozkion, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek, haien gogoetei igarririk, beso-elbarriari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona, erdira». Hura jaiki eta zutik gelditu zen. Jesusek esan zien orduan: «Galdera bat: larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?». Eta, inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen eta sendatu egin zitzaion. Lege-maisuak eta fariseuak beren onetik atera ziren eta Jesusi zer egingo ari ziren beren artean.

Jesulentzat galdera erretorikoa da lege-maisu eta fariseuei egin diena: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?». Mundua biziaren premisatik egina dago. Ez du beste azken norabiderik. Gauza guztien egiaztapen-irizpidea da, beren erlijio-tradizio jatorrizkoenen uestezko oinordeko diren judu-erakundeak barne. Tradizio horretatik at dagoen sakrifizio-dinamika batean erori zirela salatzen du Jesusek. Jainkoa eta gizakia bietako lehenengo aukeraren alde jarriak zituzten. Bazirudien horrek zekarren kalteaz ez zirela jabetzen; kaltea ez bakarrik beso elbarridunarentzat, baita hura sendatu nahi zuen Jainkoarentzat ere!

* * *

Urteko 23. astea

Arantzazuko Andre Maria

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita*

Arantzazuko Andre Mariaren Meza.

Judit liburutik 15, 8-10; 16, 13-14. Sal: Lk 1, 46-54.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!». Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

Arantzazuko Ama

Gaur Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako Zaindariaren, eguna ospatzen ari gara. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok (Baltzategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela. «Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa-egun honetako ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekik zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betea ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

San Paulok 1 Korintoarrei 61-11: Senidea senidearekin auzitan zabilatzate, eta epaile jentilen aurrean, gainera. **Sal 149:** Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izango zena. Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituen.

Ebanjelioek salbamena kontatzen dutenez, berehala esan beharko genuke kontakizun hori pertsonengandik hasten dela. Bera bezalako ibiltariak eginez, Maisuak misio ekintzara gehitzeko lagunak hautatu ditu. Ikasleen izenen zerrenda ezagunak, Jesusek proposatzen duen Erreinua goiburu bat edo proiektu abstraktu bat baino askoz gehiago dela gogoratzen digu. Bokaziodun askeak behar ditu funtzionatzeko: jarraitzeko gogoia beren baitan sumatzeko Jaunak kezka sortu dien pertsonak. Ikasleen izen propioen oroimenak beraiek pertsona berezi eta trukezinak direla azpimarratzen du, eta horietako bakoitzaren giza askatasuna Ebanjelioarentzat zein oinarritzakoa den islatzen. Azken batean, salbamenaren historia, funtsean, ahoskatzen diren izenen etenik gabeko sekuentzia da... eta horien artean dago gurea.

Urteko 23. astea

Tomas Zumarragako (Gasteiz 1577 -Japonia 1622),
dohatsua, domingotarra, apaiza, eta lagunak, martiriak
(Gasteizko elizbarrutian)

San Paulok 1 Korintoarrei 7, 25-31: Ezkondua zaudela? Ez ibili banandu nahian. Ezkongabea zarela? Ez hasi emazte bila. **Sal 44:** Entzun, alaba, eta ikus, makur ezazu belarrria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek, ikasleei begira, esan zien: «Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua. Zorionekoak orain gose zarenok, aseko baitzaituzte Jainkoak. Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue. Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaituztetenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitezte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek. Baina ai zuek, aberatsok, hartu baituzue zeuen poza! Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete! Ai zuek, orain barre egiten duzuenok, aiene eta negar egingo baituzue! Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!».

Zoriontasunekin, Jesusek argi uzten die bere ikasleei, inguruan duen jendea ez duela mirakuluak erabiliz askatuko, oraintxe bertan jasaten ari diren egoeratik. Ezta narkotizatuko ere agintzari edo promes hutsalekin. Maisuak pertsona bakoitza bere gorabeherai begira jarri nahi du. Horietan zoriontasun misterioitsu bat aurki daiteke, berez agerikoa ez dena. Berari entzuten ari direnek gogoan izan behar dituzte bere gorabeherak: pobrezia, gosea, mina, gorroto egoera; oraindik are nork bereago egin ditzaten. Lautadan Jesus topatu ostean agur egiten ari diren erromesek eskuak errealitate gurutziltzatuaz beteak dituzte. Hala ere, «zorionekoak» dira. Jainkoagan eta Jainkoagandik egindako bideak ondo amaituko dira: halakoak onartuz salbatzen gara. Espero zitekeena zen: haragi egin den Jainko baten bihotzean bakarrik sor zitezkeen zoriontasun hauek.

Urteko 23. astea
Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*)

San Paulok 1 Korintoarrei 8, 1b-7. 11-13: Senideen kontzientzia hezigabea kaltetuz, Kristoren kontra egiten duzue bekatu. **Sal 138:** Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 27-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteei zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala.

Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Behin, Jesusek, ezinezkoa dirudien hau oihukatu zuen: «Maita itzazue zeuen etsaiak!». Bihotza hartu, 180 gradu biratu eta egon nahi

Urteko 23. astea

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*)

ez duen tokira eramatea bezala da: maitasun ezean inolako erantzunik jasotzen ez den lur gogor latza. Horrelako basamortu batera ez da inor joaten. Baina, gure bihotzari kalte egin arren, Jaunarentzat hori zen lekua, gorroto-gunea. Hau da gakoa «egin on gorroto dizuetenei», «egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde», gizadi osoa erori zen tokian ahal den bezain gizatiar izatea. Horrela islatuko genuke muga ezagunik gabeko errukia bizi duen Jainkoa. Berari, erruki horrek gainezka egiten dio, ezin dio ez neurrian eutsi ez mugarik ezarri, imajinatzen ez genuen jendeagana ere iristen delarik: gure etsaiengana.

* * *

Estibalizko Andre Mariaren Meza

Sirak 24, 1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia. Sal:
1 Samuel: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!».

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat neure barrua,
Jainkoa baita nire salbamina,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Urteko 23. astea
Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*)

Estibalizko Andre Maria Birjina

Estibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren lehen ospatu ohi zuten– eta iraileko igande batean, ziur aski Estibalizko Andre Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrek beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenez geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*).

Urteko 23. astea

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*

San Paulok 1 Korintoarrei 9, 16-19. 22-27: Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko.
Sal 83: Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 39-42.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote daiteke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinakoa izango da. Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula? Itxurazalea halakoa! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Monasterio bateko abadeak anaietako bati pazientziaz entzun zion komunitateko kide bati egindako kritika, berak hainbatetan adierazi nahi izan ziona. Anaiak bukatu zuenean, abadeak zorrotz begiratu eta ebatzi zuen: «Lagun maitea, nire ustez benetan bihotz-berritu beharra duen munduko pertsona bakarra neu naiz. Nirekin bat etorriko zarela uste dut». Umore handiz, geure baitan arazo latza dugula ohartarazi digu Jesusek. Ez da txikikeria bat: «habe» baten tamaina hartzen du eta besteengan suma daitezkeen hutsalkeriak baino askoz handiagoa da. Ebanjelioak, gainerakoekin hobeto sintonizatu ahal izateko, geure interferentziak desegiteko operazio bat egitera deitzen digu. Eta hori gertatzen denerako, ziurrenik, gainerakoengan ikusten genituen «orbantxoek» ez gaituzte jadanik hainbeste gogaituko.

Urteko 23. astea
GURUTZE SANTUAREN GORAPENA
Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*

Zenbakiak liburutik 21, 4b-9.

Egun haietan, herria, bideaz gogaituta, gaizki esaka hasi zen Jainkoaren eta Moisesen aurka: «Zertako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperturik gaude mana delako janari kaskar honekin». Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkion herriari, eta haien ziztadaz israeldar asko hil zen. Orduan, Moisesengana joan eta esan zioten: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra gaizki esaka jardunez. Erregutu Jaunari sugeak gugandik urruntzeko». Erregutu zuen Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu brontzezko sugea eta ipini haga baten muturrean. Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira». Egin zuen Moisesek brontzezko sugea eta hagaren muturrean ipini zuen. Eta sugeren batek norbaiti zizta egiten zionean, brontzezkoari begiratzean sendatu egiten zen.

Sal 77: Ez ahaztu Jaunaren egintza handiez.

San Paulok Filipinoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurrian eta lurpean, eta mihi guztiek aitortzen Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan

Urteko 23. astea

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*

brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten. Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik».

Jesusek Israelgo tradizio erlijiosoa ezagutzen duen bati, halakoa baita Nikodemo, ñabardura bat egin dio: Jainkoak nahiago du ahalbidetu eragotzi baino, nahiago du itxaron epaitu baino. Hau da, aurrez eta ustekabeen, soilik gure ongia bilatzen duen ekimen batekin jarduten du Jainkoak. Gizakiekiko harremanetan, hurbiltasunaren eta adiskidetzearen lehen urratsa beti berak ematea beste jarrerarik ez du. Errealitatea, aurrea hartzen digun ekimen horrekin bakarrik argitzen ahal da. Ez dago maitasun horren neurrien estimazio fidagarriarik. Txundigarriak dira. «Hain maite zuen Jainkoak mundua» esaldia, goitik jota ere, kalkulatzera ausartzea debekatzeko modu bat da. Oraindik harridura handiagoa sortzen du jokabide horrek justifikaziorik ere ez izateak. Maitasun horrek mundua eraikitzeke erabiltzen dugun logika eten egin du: oso zail gertatzen zaigu ematea aurretik ezer jaso gabe; egundoko moduan korapilatsua gertatzen zaigu barkatzea aurretik, nolabait, mendeku saiakera bat egin gabe. San Paulo izan zen inguratzen gaituen doakotasun misterioitsu horri testua jarri ziona: «Goretsia izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita [...] Kristorengan aukeratu baikintuen mundua mundu izan baino lehen, beraren aurrean santu eta akasgabe izan gaitezen maitasunez; gu aldeztu aurretik aukeratuz Jesu Kristoren bitartez seme alabatzen hartzeko» (Ef 1,3-5).

Isaias Profetaren liburutik 50, 5-9a.

Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo. Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masaila bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei. Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko. Ondoan dut defendatzailea: nork eraman ni auzitara? Aurkez gaitezen elkarrekin! Nork du nirekin auzirik? Datorrela! Hara, Jainko Jauna dut laguntzaile: nork kondenatuko nau?

Sal 114: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizidunen lurraldean.

Santiago Apostoluaren gutunetik 2, 14-18.

Ene senideok: Zertako du batek «nik badut fedea» esatea, egintzetan ez badu azaltzen? Horrelako fedea salba ote dezake? Anaiaren nahiz arrebaren batek zer jantzirik edota eguneroko janik ez badu, eta zuetako batek esaten badio: «Zoaz bakean, bero zaitez eta ase», baina behar duen laguntza ematen ez, zertako balio du horrek? Halaxe fedea ere: bera bakarrik, egintzarik gabe, hilik dago. Norbaitek esan dezake: «Zuk fedea duzu; nik, berriz, egintzak». Bada, nik esaten dizut: Erakustazu egintzarik gabeko zeure fedea, eta nik egintzen bidez erakutsiko dizut neure fedea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 27-35.

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzoetara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?». Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek profetaren bat». Jesusek berriro galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara». Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Orduan,

Urteko 24. astea

DOLORETAKO ANDRE MARIA

irakasten hasi zitzairen, Gizonaren Semeak asko sufritu beharra zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztuko zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzairen honetaz. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesusek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanas! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik». Jesusek jendeari eta ikasleei dei egin eta esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigitik eta Berri Onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du».

Mariaren doloreek beraren jarraipen ibilbidea birsortzen dute. Horietako bakoitzarekin, bere semearengan Jainkoaren borondatea onartzeko beste urrats bat burutu zuen; gainera, ama bezala onartzera deitua zegoen ikasle-izaera eratu zuen. Jesusek jadanik komunikatuak zituen dolore etengabe eta gero eta biziagoak ziren: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat». «Gurutze» hark agerian jarri zituen Ebanjelioak berekin dakarren dolorea eta berau onartu ahal izateko beharrezko den isiltasuna. Gurutziltzatuaren heriotza, iragarri zenetik harik eta gertatu zen arte, samin isilaren iturburu izango da. Isiltasuna da atsekabe-doloreak egokitzeo lekua. Hartan dira baretzen eta leuntzen. Badakite ezinezkoa dela berehalako kontsolamendurik, eta erregutzeari uzten diote. Isiltasunak ditu orduan besarkatzen, berak dakien bezala. Horrela egin zuen Mariak, Doloretako Andre Mariak. Bere bihotzak isilik egoten ikas zezan utzi zuen, Jainkoari eta gizadiarekiko beronen misterioari bakarrik entzun ahal izateko. Erlazio horren historian gurutze bat eraiki beharra gertatu zen, non Hitza isildua izan zen. Hala ere, ez zen bakarrik geratu: dolorez betea eta erabat leiala zen beste isiltasun bat zuen lagun, Mariarena.

Urteko 24. astea

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano,
gotzaina, martiriak

San Paulok 1 Korintoarrei 11, 17-26 .33: Alderdikeriak baldin badira zuen artean, hori ez da Jaunaren afaria jatea. **Sal 39:** Iragarri Jaunaren heriotza, bera etorri arte.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 1-10.

Aldi hartan, Jesus, herriari egindako hitzaldia amaiturik, Kafarnaumen sartu zen. Bazen han erromatar ehuntari bat, eta honek morroi bat zuen, oso maitea; morroia gaizki zegoen, hiltzorian. Ehuntariak, Jesusen berri entzunik, judu buruzagi batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko erreguaz. Haiek, Jesusengana joanik, arren eta arren eskatu zioten: «Merezi du Zuk hori egitea, maite baitu gure herria eta berak egin digu sinagoga ere». Jesus haiekin joan zen. Etxera hurbilduxea zela, lagun batzuk bidali zizkion ehuntariak, esatera: «Ez hartu nekerik, Jauna, ni ez bainaiz inor Zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez naiz ausartu neu zugana joaten; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zer bait egiteko esan, eta hala egiten du». Hau entzutean, Jesus harritu egin zen hartaz eta, ondoren zetorkion jendeagana itzulirik, esan zuen: «Egia esan, Israelen bertan ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik». Mandatariak etxera itzuli zirenean, sendatua aurkitu zuten morroia.

Ehuntariak lotsarik gabe aitortu du: beraren munduan gauzak horretarako beharrezko ahalmenaz hornitua zauden neurrian egiten dira. Horrela egiten dute aurrera, eta ezinezkorik ez dago. Beraren mundua agindu eta obediencia arautu eta aurreikusiek osatzen dute. Hala ere, maite duen pertsona baten gaixotasun larriak irudikatzen duen errealitate gogorak bere ikuspegia berrikustera darama ehuntaria: ustez eraginkorrak diren boterez hornitua egon arren, konturatu da

Urteko 24. astea

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano,
gotzaina, martiriak

mugatua duela bere mundua. Konturatu da beraren ahalmenak ez direla nahikoa denetarako, askoz gutxiago bizia bermatzeko. Jesus da aginpide handiagoaz gantzutua dena, biziaren iturrira ingura daitekeena. Hori dela eta, ehuntariaren fedea goraipatzekoa da: bera, militarra izanik, obeditu behar duen agintaritza berri bat aitortzera eramán du. Bere fedea beste armada baten soldadu bihurtu du.



Harengan sinisten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

Urteko 24. astea

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita*

San Paulok 1 Korintoarrei 12, 12-14. 27-31a: Zuek Kristoren gorputza zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. **Sal 99:** Jaunaren herri gara eta haren larreko artalde.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 11-17.

Aldi hartan, Nain izeneko herrira joan zen Jesus, bere ikasleak eta jende asko lagun zituela. Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama alargun baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Herriko jende asko zihoan amarekin. Hau ikustean, errukitu egin zitzaion Jauna eta esan zion: «Ez egin negarrik!». Hurbildurik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramatenak gelditu egin ziren. Orduan, esan zuen: «Gazte, zuri diotsut: jaiki!». Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari eman zion. Beldurrak hartu zituen denak eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Profeta handia sortu da gure artean». Eta beste hau ere bazioten: «Bere herria salbatzera etorri da Jainkoa». Judean eta inguruko lurralde guztian zabaldu zen gertaera honen berria.

Sufrimendu kontzentratu gehiegi: hiri bat doluminez, seme-bakar baten heriotza, non babestu ez dakien ama alarguna. Naim herriak zorigaitzak argia irentsi dion gunea dirudi. Saminak alde guztietan eragin zuen eta luto luze eta itogarri baten arrastoa utzi zuen... Zirrara handia eragiten du zoritxarreko ekaitz bete-bete horretara Jesus, berak duen ahala bakarrik duela, nola abiatzen den ikusteak. «Ez negarrik egin» bakarrik da tristurari uko egiten duen leloa. Naim albiste on baten beharrean da eta Jesusek eman egin nahi dio. Haurra bizirik dago, amak berreskuratu du eta fedea sumatzen hasi da herria. Orduz geroztik Elizak, bere eukaristia-otoitz batean, Jesusekin «inor ez da tristeia izango, inork ez du negarrik egingo» errepikatzen du.

Urteko 24. astea

Karlos Eraña (Arexabaleta 1884 - Ciudad Real 1936),
marianista, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, *dohatsuak, erlijioso*
eta martiriak. San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*

San Paulok 1 Korintoarrei 12, 31-13, 3: Sinesmenak, itxaropenak eta maitasunak diraute orain; baina hiruretan handiena maitasuna da.

Sal 32: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zeinekin konparatuko nuke gizaldi honetako jendea? Zeinen antzekoa da? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da, honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek negarrik ez”. Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ogirik jaten eta ardorik edaten ez duela, eta deabruak hartua dagoela diozue. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta hau diozue: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea!”. Baina hura onartu dutenek arrazoi eman diote Jainkoaren jakinduriari».

Zenbat azpimarratu zuen Jesusek gurekin zerikusia zuen zerbait bazela «publikano eta bekatarientzat». Gaizkia ez datza beti kanpoan eta beste batzuegan. Ongiak era berean gudan luze egin behar du bide eta lan. Horrek onartzea esan nahi du ezen ezin dugula jakin eta ez dakigula den-dena, eta ahultasun horrek entzuna izan behar duena, ezagutua eta azkenean besarkatua. Geure mugapenaz jabetzea berebiziko mesedea da gure itxaropenarentzat. Egia esan, errealitatean, itxaropenaren hasiera da, geure mugapena onarturik, besteen aurrean beste modu batera jartzen baikara. Hasteko, zailagoa da besteak epaitzen hastea; aitzitik, errazago gertatzen zaigu beraien laguntza eta hurbiltasuna onartzea. Elkarrekin jateko eta edateko ere aitzakia bihurtzen da, Jesusek bere «lagun» zituenekin egiten zuen bezala, «publikano eta bekatariekin».

Urteko 24. astea

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 1-11: Horixe da hots egiten dugun mezua, eta horixe zuek sinetsi duzuen. **Sal 117:** Eskerrak Jaunari, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 36-50.

Aldi hartan, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaian jarri zen. Honetan, emakume bat, herrian bekatari bezala ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. Jesusen atzean, oinen ondoan, jarri zen negarrez, eta haren oinak malkoz bustitzen hasi zen; gero, ileaz xukatu eta musukatu ondoren, ukenduz gantzutu zizkion. Hau ikusirik, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: «Gizon honek, benetan profeta balitz, jakin behar luke zer-nolakoa den bera ukitzen ari den emakumea, bekataria baita». Jesusek esan zion: «Simon, badut zerbait zuri esateko». Hark erantzun: «Esazu, Maisu». «Mailegu-emaile batek bi zordun zituen: bata bostehun denario zor zizkion, eta besteak berrogeita hamar. Nondik ordaindu ez zutelarik, barkatu egin zien bie. Bietako zeinek izango ote du maiteen?».

Simonek erantzun zion: «Gehien barkatu zaionak, nik uste». Jesusek esan zion: «Zuzen diozu». Eta, emakumeagana itzulirik, Simoni esan zion: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naizenean, zuk ez didazu oinak garbitzeko urik eman; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak eta bere ileaz xukatu. Zuk ez nauzu musu emanez agurtu; hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu nire oinei musuka. Zuk ez didazu burua olio gantzutu; honek, berriz, oinak ukenduz gantzutu dizkit. Hau diotsut, beraz: hainbesteko maitasuna agertzen duenean, bekatu asko barkatu zaion seinale da; gutxi barkatu zaionak maitasun txikia agertzen du». Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu bekatuak». Beste bazkaltiarak beren artean esaten hasi ziren: «Nor ote dugu bekatuak barkatu ere egiten dituen hau?».

Urteko 24. astea

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*

Baina Jesusek esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

Ebanjelioak lehenesten duen maitasuna, beragan dena neurritz gainekoa duena da. Bere gehiegi izate horretan, maitasun hori gure nitasun zorrotz eta autorreferentzialaren gainetik salto egitera ere ausartzen da. Nitasun hori gainditzea lortzen dugu; orduan, askatasuna iritsiz, geure buruari eskaintzen ahal dioguna baino maitasun handiagoa ezagutzea lortzen dugu. Jesusek hasieratik ezagutu zuen gainditze hori eta bedeinkatu egin zuen berehala. Horrek esan nahi zuen, tartean zebilela Jainkoa; izan ere tamaina horretakoa da gizadiari dion maitasuna. Horrelako maitasun hori aski indartsua da erabakitzeke ezen iraganeko ezerk ezin duela baldintzatu geroa behin betiko. Benetan jainkozko maitasuna da eta barkamenerako irisgarritasuna ahalbidetzen du, eta, horrela, neurririk gabe maitatzen den bakoitzean mundua berriro birsortzen da.

* * *

Itsasorik ederrena
nabigatzeko aukerarik
izan ez dugun hura da.
Seme-alabarik ederrena
oraino jaio ez den
hura da.
Gure egunik ederrena
ez dugu oraino
ikusi.
Eta esan nahi nizun
gauzarik ederrena,
ez dizut oraino esan.

(Nazim Hikmet, *aipatua*
In Vida Nueva n° 3.282. 28. or.)

Urteko 24. astea

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak* (Koreako martiriak)

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 12-20: Kristo piztu ez bada, zentzurik gabea da zuen sinesmena. Sal 16: Esnatzean zure presentziaz naiz aseko, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 1-3.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren Berri Ona hots egiten. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatua zuen zenbait emakume ere: Maria Magdalena –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen etxezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko; hauek beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

Elizaren aldi batean, bizitzen ari garena bezalakoa, Jesusen jendaurreko bizitza, gizon-emakumeak ikasle dituela, berreskuratzeak oroitzapena freskatzen digu eta geure aurreiritziak lausotzen. Jesusek proposatzen duen jarraipena denek onartzen dute eta konpromiso maila handian. Hori erakusten dute Maisuaren inguruneko emakume esanguratsuenetarikoz batzuek Lukasek ematen dituen ohar biografiko laburrek. Maria Magdalena nabarmentzen da, ebanjelioek eskaini dioten argazkiaren arabera. Beraren bilakaera pertsonala konplexua izan da, bizia eta oso eraldatzailea. Maria Magdalenak ez du gehiago atzerapausorik emango Jesusen jarraipeneko urratsetan. Inoiz ez du lagako; behar bada, aurretik espermentatua zuelako Maisuak ez zuela bera utzi, pertsona bezala baliogabetu zuten «zazpi deabru» haietako denekin eta bakoitzarekin izan zuen borrokan.

Urteko 24. astea

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA

San Jonas, *profeta*

San Paulok Efesoarrei 4, 1-7. 11-13.

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitezela hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitezte Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lokarriz. Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gainetik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena. Gutako bakoitzak Kristok eman nahi izan dion neurrian hartu du dohaina. Berak apostolu egin zituen batzuk, beste batzuk profeta, beste batzuk Berri Onaren hotsegile, beste batzuk artzain eta irakasle; horrela gai egiten ditu fededunak beren zerbitzu-lanerako eta Kristoren gorputza eraikitzeko, harik eta guztiok Jainkoaren Semearen sinesmen eta ezagutza berberak izatera iritsi arte, heldutasun beteko pertsona, Kristoren betetasunaren neurriko pertsona, izatera iritsi arte.

Sal 18: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu zion. Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatar asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Urteko 24. astea
 SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA
 San Jonas, profeta

Lebiren bokazioak ezusteko aukeraren itxura du. Ematen du kasualitatez gertatu dela. Jesusek, «bidez zihola», norbait ikusi zuen, ez zuen antolatua aurrez haren topo egitea. Baina Jainkoa, beti bezala, topo egin zale ageri da. Erabakigarria dena, aurreikusita ez egon arren, gauzarazi egingo du. Beraren presentzia ideia onena bezalakoa da: iragankorrak izan arren, gauzen beste aldera, normalean ez gauden tokira, eramateko gai izaten dira. Bat-bateko bidaiak izaten dira, une batekoak eta noizbehinkakoak. Ustekabekoak ere bai. Ez da ohikoa geure eguneroko burbuila zeharkatzea geure burua beste askatasun esparru batean sartzeko. Dena den, tarteka, gertatzen da bat-bateko argi batek argi egiten digula harrapaturik gauzkaten tranpak agerian jarritz. Horixe dira: ustekabeko argi distirak, pentsatu gabeko sormen baten ulermen. Besterik gabe gertatzen dira. Baina gertatzen dira, behar ditugulako. Bidez goazela geure burua ulertzen laguntzen digute eta etorkizunera eragiten... Horixe gertatu zitzaion ustekabeko une hartan Lebiri, Jesusek bere zerga bilketako mahaiaren bestaldetik deitu zionean. Eta ez: ez zuen aukera alferrik galdu. Bizi bihurtu zuen, bere bizi propio.

* * *

«Bat-batean, zirrara eragin dit egiaztatzeak balio duen gauza bakarra maitasuna dela, eta maitasuna eta askatasuna irekitzea ez den bakardade bat ez dela ezer. Maitasuna eta bakardadea dira benetako heldutasunaren eta askatasunaren oinarria. Soilik bakardade (hau da, bakardade ez den beste guztia bazter uzten duena) izatera mugatzen den bakardadeak ez du pena merezi. Benetako bakardadeak gauza oro biltzen du, maitasun baten betearen betea baita, ezer ere eta inor ere bazter uzten ez duena, gauza orotan gauza orori irekia dena» (*Thomas Merton, Vida Nueva n° 3.282. 28. or.*)

Urteko 25. astea

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893),*

Jakinduria liburutik 2, 12a. 17-20.

Hau zioten gaiztoek: «Jar diezazkiogun sareak zintzoari; ikus dezagun esaten duena egia den ala ez, azter dezagun nolako amaiera duen ikusteko. Benetan Jainkoaren seme bada, etorriko zaio hura zintzoari laguntzera eta libratuko du etsaien eskuetatik. Irainak eta oinazeak jasanaraziko dizkiogu, haren lasaitasuna ezagutu eta eroapena probatzeko. Heriotza lotsagarriara kondenatuko dugu, bere esanetan, Jainkoa alde aterako baitzaio».

Sal 53: Jauna da nire biziaren babesle.

Santiago Apostoluaren gutunetik 3, 16-4, 3.

Senide maiteok: Bekaizkeria eta norgehiagokeria diren tokian, han dira nahasmendua eta era guztietako gaiztakeriak. Goitik datorren jakinduria, berriz, garbia da lehenik; gainera, baketsua, bihozbera, amore-emailea, errukitsua eta fruitu onak dakartzana, alderdikieriarik eta itxurazalekeriarik gabea. Bakegileek bakean ereiten dute eta fruitutzat zuzentasuna biltzen. Nondik sortzen dira zeuen artean dituzuen haserreak eta borroak? Ez ote zuen barruan borrokan dabiltzan grina txarretatik? Zerbait irrikatu eta eskuratu ezin duzuenean, hilketak egiten dituzue; zerbait gutiziatu eta lortu ezin duzuenean, liskarra sortu eta borroka egiten duzue. Ez badaukazue, eskatzen ez duzuelako da; eskatu eta hartzen ez baduzue, gaizki eskatzen duzuelako da, zeuen grina txarrak asetzeko eskatzen duzuelako.

* Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1870), Daria Campillo (Gasteiz 1870) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak*, 1936

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893),*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien. Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?». Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean. Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria». Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

Jesusek bere ikasleen prestaketa biziago egin du. Nahita, jendaurreko bere presentzia murriztu egin du, jokoan dagoen misioaren alderdi funtsezkoenak haiekin sakontzeko. Zehazki, gurutzearen gaiak ez du ingurubira gehiago onartzen eta zuzenean heldu egin behar zaio. Erreinuak berekin du jasan beharra, bai berak eragiten duen erresistentzia, bai liskar honek sortzen duen samina. Horiek dira Jesusek bere ikasleei zehatz-mehatz azaldu nahi dizkien hitzak. Baina Markosek, testuinguru honetan, agerian utzi digu taldearen barnean dagoen batasun falta sakona. Etsigarria da ikasleen erreakzio isila. Jesus beldurrez edo iguripen faltsuz betetako mututasun baten aurrean dago. Geure burua isiltasun-mota horretan ixtea aukeratzen dugunean, galgarik gabe hondoratzen gara. Hermetismo edo isiltasun horretan

* Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1870), Daria Campillo (Gasteiz 1870) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak*, 1936

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893),*

sartzea sasi irteera bat da. Izan ere, aukera horren kontrako muturrean, elkarrizketan eta partekatzean, argitzen dira zalantzak, antzematen zaie iruzurrei eta berreskuratzen dute sentimendu nahasiek hegan egiteko esperantza. Jesus saiatu da bere ikasleekin, nahiz ez duen erabat lortu. Beraren lagunek nahiago izan dute galderak alde batera utzi eta dituzten zalantzak euren artean argitu. Jesus, pazientzia mugagabeaz, beharrezkoa dena azpimarratzen ahaleginduko da. Eta ez du inolaz ere etsi: ez dio amore eman Maisu izaten jarraitzeari.

* * *

Maitasuna ez da zerbait berezkoa

Maitasuna ez da zerbait berezkoa. Egia esateko, diziplina behar du, barne-biltzea, pazientzia, fedea eta nartzisismoa gainditzea. Ez da sentimendu bat, jarduera bat da (*Erich Fromm*).

* Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1870), Daria Campillo (Gasteiz 1870) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak, 1936*

Urteko 25. astea

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa***Esaera Zaharrak liburutik 3, 27-34:** Gorroto dio Jaunak maltzurri.**Sal 14:** Zintzoa zure mendi santuan biziko da, Jauna.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 16-18.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Inork ez du argia pizten eta ontzipean gordetzen edota ohepean ipintzen, baizik eta argimutilaren gainean ipintzen du, sartzen direnek argia ikus dezaten. Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik. Kontu izan, beraz, nola entzuten duzuen! Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, eduki uste duena ere kendu egingo zaio».

Jesusek amesten duen mundua ez da eraikitzen «gauza onak egin behar dira» sendo eta hotz oihukatuz, baizik eta gauza on horiei ekiten dieten pertsona jakin batzuen bitartez. Lekuz kanpo daude justiziaren eta berdintasunaren printzipio haragitu gabeak eta gizakien artean ulertu beharraz aireratutako adierazpen itzelak. Pertsona jakin batzuk behar dira, justizia, parekotasuna eta ulermena bizi bihurtzen duten pertsonak. Egiturak bidearen erdi bat dira beste mundu bat lortzeko; beste erdia egiturak antolatzen dituen jendeak urratzen du. Lurralde honetako «argizaria» bertako jendea da. Barruan dugun argi hori ez hiltzeko esaten digu Jesusek. Jainkoak, argi hori, bere ilunpeak garbitu behar dituen mundu bat argitzeko erabili nahi du.

Urteko 25. astea

Mesedeetako Andre Maria

Esaera Zaharrak liburutik 21, 1-6. 10-13: Nahiago du Jaunak gizakiak justiziaz eta zuzenbidez jokatzea, sakrifizioak eskaintzea baino.

Sal 118: Gida nazazu, Jauna, zeure aginduen bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 19-21.

Aldi hartan, ama eta anai-arrebak joan zitzaizkion Jesusi, baina jendearen jendeaz ezin iritsi ziren beragana. Eta jakinarazi zioten Jesusi: «Hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, Zu ikusi nahian». Jesusek erantzun zien: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak».

Zenbaterainokoa izan behar du gure bihotzak? Noraino esan dezakegu benetan errukitsuak izan behar dugula? Non dago muga? Ebanjelioak gure bihotza eskuzabala izatea proposatzen du. Begira dezatela gure begiek ingurunea eta eremu ezaguna baino askoz harago. Gure oinak ez daitezela konforma jada zapaldua den eremuan ibiltzearekin. Jesusek bizia eskaintzeko askatasuna kentzen dien ingurunea uztera gonbidatzen ditu ikasleak. Horrela bizi izan zituen berak bere familiarekiko harremanak, ezin izan zuen lortu hura bere asmoaz erabat konbentzitzea. Bere senideek burutik jota zegoela uste izan zuten. Eta, hain zuzen ere, jota zegoen, bai: Jesus aurrean zitezkeen iguripen askotatik, mendetako tradizioetatik, errotutako ohituretatik eta aurreikus zitezkeen roletatik kanpo zegoen. Beraren bihotzak ez baitzuen beste ezer izan nahi... handia baizik.

Urteko 25. astea

San Kleofas, *Jaunaren ikaslea*

Esaera Zaharrak liburutik 30, 5-9: Ez nazazu egin ez txiro, ez aberats; eman soilik bizitzeko behar dudana. **Sal 118:** Kriseilu da zure hitza, Jauna, nire oinentzako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu han herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaitzute, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat». Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots eginez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

Maisuak bere ikasleak Erreinua predikatzeko aparteko dohain batez hornitu ditu: «deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra» eman dizkie. Imajina dezagun ikasleen bat-bateko erreakzioa halako dohain horren aurrean. Ondoren, Jesusek baliabide egokiez, emandako dohainen neurrikoez, hornituko zituela espero izango zuten. Hala ere, nolabait esateko, horren kontrakoa egin du Jesusek, eta armagabetu eta eskasian utzi ditu: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere». Beren buruaz eta jadanik beraien baitan haragitu den Ebanjelioaz bakarrik baliatu behar dute. Testigantza eman behar dute: jaso duten maitasunetik bizi soil-soilik eta erakutsi maitasun hori nola den gai gaizkia garaitzeko: horra bizia itzaltzen duen ororen aurkako indar eraginkor bakarra; Jesusek ez du inolako eragozpenik bere lagunak, eskuzabal, indar horretaz hornitzeko.

Urteko 25. astea

San Kosme eta San Damian, *martiriak*

Kohelet liburutik 1, 2-11: Ezer ez berririk eguzkipean. **Sal 89:** Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen zen guztia, eta zer pentsatu ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela. Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut honi buruz?». Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

Garai hartan, Joan Bataiatzailearen heriotza odoltsua akuilugarri izan zen Jesusentzat. Gertaera horren ostean, Herodes Antipas berriro ageri da, baina oraingoan Jesusengana zuzendurik. Historiak errepikatzeko mehatxua zekarren. Tetrarkak Nazaretarrarengana hurbiltzeko gogoia publikoki adierazi izana agertu du Lukas ebanjelariak. Baina nahikunde hori elikatzeko Herodes Antipasek egin duen analisia etsigarria da. Tetrarkak sakonera jotzeko bokaziorik ez duen jakin-mina pertsonifikatzen jarraitzen du. Despotak jakin nahi duen egiak prestidigitadore batek eskaintzen duen ikuskizunaren antz handiagoa du: solaserako gogoia asetzeko ikuskizun bat antolatzea, alegia. Herodes Antipasengan, funtsezkoaz ageri duen axolagabekeriak zorabioa eragiten du. Zorabio hori are handiagoa da, hipotetikoki, funtsezkoa den hori egia bihurtu ahal izateko eskuan nahiko aukera dituela pentsatuz gero.

Urteko 25. astea

San Bizente Paul, *fundatzailea*
(*Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak*)**Kohelet liburutik 3, 1-11:** Gauza bakoitzak bere garaia du eguzkipean.**Sal 143:** Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 18-22.**

Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?». Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias». Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Eta esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

Jesusek eszena hau bizi izan zuenerako, gauza asko gertatu ziren beraren eta ikasleen artean. Ordura arte dena zen aurkikuntza –inoiz ez zutelako Jesus bezalakorik ikusi–, harridura –inoiz ez zutelako hainbeste berritasun ikusi– eta amets –etorkizuna, Maisu arrakastatsu harekin, garaile ageri zitzaielako–. Jesus zuten zain lehen inpresio haren ostean, artean taldearekin zuen harremana markatzen zuena. Beraien zain zegoen, eta ez heroitasun faltsuen zain, ikasleak konbentzitzen zituztenak azken hauek baziren ere, sinestaraziz gauzen eraldaketa sakonaren protagonista izango zirela. Jesusek berriro dei egin behar izan die, Galileako aintziran gertatutakoaren errepikapena balitz bezala, han proposatu baitzien lehen aldiz berari jarraitzea. Ikasle egin nahi ditu, baina oraingo honetan, benetako ikasle.

Urteko 25. astea

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apaizak*, San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonian 1637)

Kohelet liburutik 11, 9-12, 8: Oroitu zeure Egileaz gazte zaren bitartean, hautsa lurrera eta arnasa Jainkoagana itzuli baino lehen.

Sal 89: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 43b-45.

Aldi hartan, Jesusek egiten zituenengatik txundituta zeuden guztiak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: “Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute”». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaizen; ilun gertatzen zitzaizen, eta ez ziren esanahiaz jabetzen; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Ez da ezer garrantzitsurik gertatzen buru-eskaintzarik gabe. Ezin da batuketarik egin kenketarik gabe. Zerbait jaiotzeak zerbait hiltzea eskatzen du. Zerbait haztea, zerbait gutxitzen delako gertatzen da. Eta abar. Hala esan zien Jesusek bere ikasleei behin eta berriz. Bizia dohain eta doan ematera zihoan bera. Ebanjelioak dohain emate bat eskatzen zuen. Jesusek bere gurutzea jarri zuen Jainkoaren biziaren aldeko apustu gisa. Ez zen sakrifizio bat. Adierazteko modu bat zen ezen bizitzan partekatu egiten dela. Eta nirea izateari uzten ez dion bitartean, ez da egiaz gurea izango. Horrela eraikitzen dugu merezi duen guztia: familia, adiskidetasuna, komunitatea, bakea eta baita justizia ere. Beti abesti beraren errepika berarekin: Ez da ezer garrantzitsurik gertatzen buru-eskaintzarik gabe.

Urteko 26. astea
GOIAINGERU SANTUAK: MIKEL,
GABRIEL ETA RAFAEL

Zenbakiak liburutik 11, 25-29.

Egun haietan, Jauna lainoan jaitsi eta Moisesekin mintzatu zen; gero, Moisesek zuen espiritutik hartu eta hirurogeita hamar herri-arduradunei isuri zien. Espiritua haiengan kokatu orduko, profeta gisa hasi ziren mintzatzen; baina ez zuten jarraitu. Bi gizaseme, bata Eldad eta bestea Medad zeritzenak, hirurogeita hamarren taldekoak izan arren, ez ziren elkarketa-etxolara joan, baizik eta kanpalekuan gelditu ziren. Baina kokatu zen espiritua haiengan ere eta profeta gisa mintzatzen hasi ziren.

Orduan, mutiko batek Moisesengana lasterka joan eta esan zion: «Eldad eta Medad profeta bezala mintzatzen ari dira kanpalekuan». Nunen seme Josuek, gaztetandik Moisesen laguntzaile zenak, esan zuen: «Moises, ene jauna, debeka iezaiezu». Baina Moisesek erantzun zion: «Nigatik jeloskor? Nahiago nuke herri osoa profeta balitz eta Jaunak bere espiritua denei emango balie!».

Sal 18: Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.

Santiago Apostoluaren gutunetik 5, 1-6.

Entzun orain, zuek, aberatsok! Egizue negar eta aiene, gainera datozkizuen zoritxarreatatik. Ustelak jota daude zuen aberastasunak, eta sitsak janda zuen jantziak. Herdoilak jota daude zuen urre-zilarrak, eta herdoil hori izango duzue testigu zeuen kontra, eta suak bezala jango du zuen haragia. Auzi aurreko azkenak diren egun hauetan pilatu duzue aberastasuna. Zuen soroetan uzta bildu zuten langileei ordaindu ez zenieten soldata deiadarka ari da, eta igitarien deiadarra Jaun ahalguztidunaren belarrietara iritsi da. Bapo bizi izan zarete zuek hemen lurrean eta atseginetara emanak; horrela, abereak bezala gizendu zarete hilketa-egunerako. Errugabea kondenatu duzue eta hil, eta inork ezin izan dizue aurre egin.

Urteko 26. astea
GOIINGERU SANTUAK: MIKEL,
GABRIEL ETA RAFAEL

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 38-43. 45. 47-48.

Aldi hartan, Joaneke esan zion Jesusi: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa». Baina Jesusek erantzun: «Ez galarazi, ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki esaka jardungo duenik. Zeren gure aurka ez dagoena gure alde baitago.

Mesiasen jarraitzaile zaretelako, baso bat ur bada ere ematen dizuena, benetan diotsuet, ez da saririk gabe geldituko. Nigan sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute. Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizian sartu, bi eskuak dituzula infernura, itzalezineko sura, joan baino. Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hanka-motz betiko bizian sartu, bi oinak dituzula infernura jaurtia izan baino. Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atara; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiak dituzula infernura jaurtia izan baino; han ez da hiltzen barruko harra, ezta itzaltzen ere sua».

Jesusek ez du fundamentalismorik proposatzen, nahiz eta Elizaren historiaren une batzuetan horrela interpretatu izan den gaurko testua dela eta. Beraren hitzak, exegesi gehiagorik gabe, erradikaltasun setatia eta, azken batean, gizatasun-eza berari leporatzeko erabili izan dira. Egia da Jesusek ez duela gehiegi amore ematen berarentzat oinarritzkoa den puntu batean: Jainkoa ez da haragi egin eskaskeriaz; bere aldetik erabatekoa den buru-eskaintzaz mugiarazi du historia, bestea den gizadiaren alde. Erabatekoa den erlazio-unibertso honetan, oso zaila da gure presentzia ñimiñotuz eta hainbesteko doakotasunari erantzun giza ematen ahal dioguna gordez bizitzea. Eskaskeria ez dator bat Erreinuarekin. Ezta konpromiso kalkulatuak edo itxurak

Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK:
MIKEL, GABRIEL ETA RAFAEL

politikoki zuzenak ere. Jainkoak gehiago eskatzen du. Baina gehiago hori ez da Jesusengan moralismo puritano bihurtzen. Jesusek sufrituko duen Jainko batean sinesten du, beraren sorkariak maitatuak izan diren hartarako urratsik eman nahi ez dutelako. Eta gure zaintzaz arduratzen den Kreatzaile bati ahotsa ematen dio; etsipenak ukitutako barruaz dihardu, bizitzatik zenbat galduko dugun ikusirik, baldin eta garenaren alderik jatorrena zapuzten badugu.

* * *

Ez naiz etorri zintzoei dei egitera. Gaiztoei baizik.

Zintzoek aski dute beren zintzotasunarekin.

Bertuteak, balioak, merezimenduak, konpromiso-soka luzea, opari-bilduma dute: harro gordetzen eta sarri erakusten dituztenak, badaezpada...

Kontzientzia perfektua dute eta akatsik gabeko arma-babesgarria.

Beren bizitzaren helmuga argi, beren premiak ondo aserik, eta Erreinuagatik ordaindu beharrekoa ondo zehaztua, aurrez, nik sinatutako akordioa kontuan izan gabe.

Gaiztoentzat bakarrik izan naiteke ni zerbait, berenez egin ez dezaketentzat, hutsik bizi direnentzat, gizon eta emakume on izango direla hamaika bider agindu ondoren bekatu egiten jarraitzen dutenentzat,

Erreinitutik urrun daudela uste dutenentzat...

Eta Jesusek, marmarioa isiltzean, argi eta ozenki esan du:

“Entzun nahi duenak entzun dezala: Errukia nahi dut, aski dut oparietarik, aski beti nirea izan zena zuek niri itzuli nahi izatetik”

(Ulibarri FI)

Urteko 26. astea

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*

Job liburutik 1, 6-22: Jaunak eman dit, Jaunak kendu. Bedeinkatua Jaunaren izena! **Sal 16:** Itzul nigana belarria, entzun nire mintzoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 46-50.

Aldi hartan, eztabaida sortu zen ikasleen artean, zein ote zen haietan handiena. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak, eta, haurtxo bat hartu, beren ondoan jarri eta esan zien: «Haur hau nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauen hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena». Orduan, Joanez esan zion: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa». Baina Jesusek erantzun zion: «Ez galarazi, zeren zuen aurka ez dagoena zuen alde baitago».

Irrika kezagarri bat bizi dugu geure baitan: gora nahia. Giza asmo eta gurari askoren hondoan asegabetasun bat dugu dagokigun izate-kuotaren aurrean. Eta *plus* baten gose gara beti. Geure gora nahiak eraginda, besaulkiak amesten ditugu, gizarte-maila bat lortu arte ohoreak, tituluek, tratamenduek, aipamenek, aitorten konbentzionalek eta goraipamenek zigilatuko luketena. Geure mailarekin konformatzea deseroso gertatzen zaigu. Gizakia bere sorkari izaera onartu ezinik dabil. Alderantziz, Jainkoak beherantz egiteko joera du. Jesu Kristoren Aita jaitsi egin da eta behetik errebelatzen edo agertzen da, bere buruaz husten delarik. Jesusek haragitzen du mugimendu hori. Laguntzat hartzen gaitu, inoiz ez esklabotzat. Besaulkien oinetan doa erromes..., haurrak korrika dabiltzan plazan, bataz besteari dei egiteko soil-soilik izena erabiltzen dutelarik.

POBREKIN
bide
eginez
eta
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

URRIA / URRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Misio partekatuaren alde: Egin dezagun otoitz, Elizak, ardurakidetzaren ezaugarritz sinodo erako bizi estiloa bitarteko guztien bidez lagundu dezan, parte hartzea, elkartasuna eta apaiz, erlijioso eta laikoen arteko misioa sustatuz.

Urteko 26. astea

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea*

Job liburutik 3, 1-3. 11-17. 20-23: Zergatik eman argia dohakabeari?

Sal 87: Hel bekizu, Jauna, nire otoitza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 51-56.

Jesusek, mundu honetatik eramana izateko garaia zetorkiolarik, Jerusalemera joateko erabakia hartu zuen. Mandatariak bidali zituen aurretik, eta Samariako herri batean sartu ziren, Jesusi ostatua prestatzera. Baina herrikoek ez zuten hartu nahi izan, Jerusalemera zihoalako. Hori ikusirik, Santiago eta Joan ikasleek esan zioten: «Jauna, aginduko al dugu zerutik sua jaitsi eta kiskal ditzala?». Baina Jesusek, haiengana itzulirik, haserre egin zien. Eta beste herri batera joan ziren.

Jesus ez zen hasiberria bortizkeriak eragindako gatazketan. Bazekien jakin zerbait, zapalkuntzez eta haiekiko erresistentziez. Baina saihestu egin du bere garaiko batzuek egiten zutena, muturreko mesianismoekin bat egitea. Jesusek ez du gordetzen erresumin-sentimendurik, ezta miazten ere oraindik minberak diren zauriak. Egun batez aurkikuntza soil-soila egin zuen: alegia, mundua maitasunaren bitartez soilik alda daitekeela. Maitasun horrek baliogabetu egiten duela indarraren erabilera eta beste aukera batzuen bila aritzea eskatzen duela, prozesu geldoak eta iraupen luzekoak hastera bultzatuz, eta gauzak noiz gertatu behar duten erabakitzeke erabiltzen dugun kronometroa balaztatuz. Ez du ematen Santiagok eta Joane artean hori ulertu dutenik. Beren Maisuak errieta egin die, samariar batzuek ostatua ukatu dietela-eta, beste herri batera doazen bitartean: zerua, gizakien gainera sua bidali eta guztiak kiskaltzeko baino zerbait jatorragorako dago.

Job liburutik 9, 1-12. 14-16: Gizakiak ez du arrazoi Jainkoaren kontra.
 Sal 87: Hel bekizu, Jauna, nire otoitza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 1-5.10.

Une hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?». Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien: «Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau. Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

Haurtzaroak, helduaroak ez bezala, badu berekin gauza guztiei beren neurri zehatza eta dagokien tokia izendatzeko trebetasun harrigarri bat. Zentzu batean, haurtzaroa umildadearen berezko egoera da. Umeek alde batera uzten dituzte inguru-minguru ibiltzeak eta ikusten dutena ahobizarrrik gabe baieztatzen dute. Inguruan dituzten helduek beren jokamoldea gaitzetsi egingo diete, baina zuzentzat ematen esaten dutena. Umeek, denboran barna galdu duten askatasuna gogorarazten diete helduei eta hura berreskuratzeko ordua atzeratzen ari direla esaten. Horregatik dio Jesusek: «Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan». Erreinu hori egia maitagarritz beteak dago eta, hein batean, ume izaten jarraitzen dugunoi... esanarazita, garen guztiarekin bakeak eginda geldituko ginateke.

Urteko 26. astea

San Frantzisko Borja-koa, *apaiza, jesuita*San Birila Leirekoa, *abadea**(Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*

Job liburutik 19, 21-27: Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela. **Sal 26:** Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-12.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!”. Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”. Baina herriren batean sartu eta onartzen ez bazaituztete, irten plazara eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun zuen herriko hautsa ere hor astintzen dizuegu. Dena dela, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua”. Begira: auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du, herri hark baino».

Frantzisko Aita Santuak, printzipio bat aipatu ohi du Elizak gaur egun erabili behar duen ebanjelizatze mota azaltzeko: «Denbora espazioa baino handiagoa da». Kontua ez da geografia-, gizarte-edo kultura-eremuak menderatzea. Gaur egungo Elizak, zenbaki soiletatik haragoko neurri desberdinetan eragin behar dio gizarteari. Ebanjelizatzea, pertsonengan eta egiturengan eraldaketa-prozesu sakonak abiaraztea da; baina horien zabalkuntzak eta emaitzak ez

dira neurgarri eta egiaztagarri berehalako lorpenetan. Eta lehentasuna ematen zaienak benetan prozesuak badira, ondorioa zera da: Elizak, hein batean, etengabeko ibiltaritzak praktikatu behar duela, Jesusek bere misioa azaltzean ikasleei eskatzen dienaren antzekoa. Horrela, ikasleek, beren Maisu ibiltariaren antzera ibili behar dute, estalpetzat zerua soilik dutela...

* * *

Bilduma irekia

Esanen jarraitzen natzaio:

Zuzentasuna.

Lege eta Ohiturak arren,

Diru eta Limosnak arren,

Zuzentasuna.

Apaltasuna,

benetako neu jatorra izan nadin;

Askatasuna, gizaki jatorra izan nadin;

eta Pobretasuna,

askea izan nadin.

Sinesmena,

Kristau Sinesmena,

ibili ahal izateko gauez,

eta baita ere goizez,

goizez batez ere.

Eta dena den, senideok,

esanean jarraitzen natzaio:

Esperantza!

(Pedro Casaldáliga)

Urteko 26. astea

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*)

Job liburutik 38, 1. 12-21; 40, 3-5: Egun batean ere agindu al diozu goizari? Iritsi ote zara itsasoaren iturburuetaraino? **Sal 138:** Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 13-16.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zu, Korozaín! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan hainbat mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihotz-berrituak ziratekeen, dolujantziz estali eta hautsean eserita. Horregatik, Tiro eta Sidonek zigor bigunagoa izango dute auzian zuek baino. Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barrenearaino eroriko zara! Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek onartzen ez zaituztenak Ni ez nau onartzen; Ni onartzen ez nauenak, berriz, bidali nauen hura ez du onartzen».

Jesus gainditu egin zuen misiolaritzako beraren ahaleginari eman zioten erantzun txarrak. Korozaín eta Betsaida izan ziren horren bi adibide nabarmen. Jesus adoregabaturik sentitzen da ikustean, hiri horietako bakar batean ere ez dela hartzen esker ona bizitza ulertzeko abiapuntutzat. Beraren egintza taumaturgikoak, mirarizkoak, ikusi dituen askok ez ditu hartu berarentzaketatzat, ez da sentitu interpelaturik. Beren zoriaren autore sentitzen dira, eta ez Jainkoaren arduraren edo probidentziaren beharra duten migratzaile. Eta bost axola zaie Jesus. Hitz gutxitan esanda: korozaíndarrek eta betsaidarrek ez dakite dohaina zer den eta oso jarrera txarra dute dohain hori begiz jotzeko. Horregatik diraitsu, Jesusek, beraien kaleetan, modu irekian gauzatzen dituen mirariak ikusteko. Miraria, definizioz, doakotasuntxinparta misterioitsua da..., eta hartzea zer den dakienarentzat bakarrik da ikusgarri.

Urteko 26. astea

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA

San Froilan Leon-goia, ermitaia eta gotzaina

Deuteronomio liburutik 8, 7-18.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak, zure Jainkoak, lurralde ederrera eramango zaitu: lurralde oparoa da, erreka, iturri eta ibarretan eta mendietan sorturiko iturburuz hornitua; gari, garagar, mahasti, pikondo, granadondo, olibondo, olio eta eztiz hornitua. Ogia neurrigabe jan ahal izango duzu eta ez zaizu ezer ere faltako. Hango harriek burdina dute eta mendietatik kobrea aterako duzu. Ase arte jango duzu, beraz, eta Jauna zeure Jainkoa bedekatu duzu, eman dizun lurralde ederragatik.

Baina, kontuz! Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa, gaur ematen dizkizudan haren agindu, lege eta erabakiak bazterrerara utziz. Ez dadila gerta, ase arte jatean, zeuk eraikitako etxe ederretan bizitzean eta zeure behiak eta ardiak, zilarra eta urrea eta era guztietako ondasunak gehitzean, zeu harrotu eta Jauna zeure Jainkoa ahazturik uztea. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eramane zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena, berak atera du sukarririk ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana. Atsekabetu eta probatu zaitu, bai, baina azkenean zure onerako izan da. Ez esan zeure buruari: “Neure indarrez eta trebezia lortu ditut ondasun hauek guztiak”; gogora ezazu Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizula ondasun horiek lortzeko indarra; horrela, leial eusten dio gaur ere zure gurasoei zin eginez hitzemandakoari».

Sal: 1 Kronikak 29: Zeurea duzu, Jauna, handitasuna eta indarra.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman digu. Izan ere, Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen

Urteko 26. astea

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA

San Froilan Leon-goia, ermitaia eta gotzaina

ari zena, gizon-emakumeei bekaturen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua.

Senideok: Kristoren mandataria gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskide zaitzte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 7-11.

Aldi hartan, Jesusen esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!».

Gure eskaerak, sarritan, sinesgabetasunak eragindakoak izaten dira. Behin eta berriz egiten ditugu, baina azpi-azpian gure otoitzaren eraginkortasuna nolabaitekoa ote den susmoa bizi ohi dugu. Eta horren proba da, arazoak ez ditugula konpontzen geuk nahi bezala. Urteak joan ahala, ordea, ulertzen dugu, eskaerak oker egin izan ditugula. Oso gutxi bereizitako gure beharrezanek, ito egiten dute Jainkoa. Berarekiko ditugun harremanak geure interesen arabera oinarritzen ditugu, eta ez beraren graziaren objektu izan behar lukeenaren arabera. Harrigarria da, ordea, Jainkoa bitartean behar duguna oparitzen ari zaigula. Halako batean konturatu gara guran egin duenaz. Konturatzen gara orduan ez dagoela proportziorik jaso dugunaren eta gure otoitz kaskarraren artean. Eta konklusio txalogarri honetara iristen gara: gauza guztien gainetik, Jainkoari axola zaiona, guk eskatzeari ez uztea dela, hau da, guk beti hor jarraitzea beraren aurrean, geure probetxurako ariko bagara ere. Bera bezalako Aita batentzat, beraren seme-alabak hor egotearen eta ez egotearen arteko aldea, neurrigabea da, infinitua.

Hasiera liburutik 2, 18-24.

Jainko Jaunak esan zuen: «Ez da on gizona bakarrik egotea; eman diezaiodan berari dagokion laguntza». Jainko Jaunak landako abere eta zeruko hegazti guztiak moldatu zituen lurretik eta gizonari eraman zizkion, zein izen ematen zien ikusteko; honela, bada, bizidun orok gizonak ezarritako izena darama. Beraz, gizonak izena ezarri zien abere guztiei, zeruko hegazti guztiei eta piztia guztiei; baina ez zuen aurkitu berari zegokion laguntzarik. Orduan, Jainko Jaunak lozorroan murgilarazi zuen gizona. Loak hartu zuenean, saiheits-hezur bat kendu zion eta hutsunea haragiz bete. Gizonari kendutako saiheits-hezurraz emakumea moldatu zuen Jainko Jaunak, eta gizonari eraman zion. Honek esan zuen: «Hau bai dela ene hezurretik datorren hezur, ene haragitik datorren haragi. Emakume izango da deitua, gizakumeagandik izan baita hartua». Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira.

Sal 127: Jaunak bedeinka gaitzala geure bizitzako egun guztietan.

Hebrearrei egindako gutunetik 2, 9-11.

Senideok: Aingeruen pareko egina izan den Jesus hura aintzaz eta ohorez koroatua ikusten dugu, jasan zuen heriotzagatik; zeren, Jainkoaren onginahiaz, guztien onerako jasan baitzuen heriotza. Jainkoak, gauza guztien sorburu eta helburu denak, seme-alaba asko aintzara eraman nahi zuen. Egoki zen, beraz, haiek salbamenera gidatuko zituen burua, Jesus, oinazeen bidez bete-beteko egitea. Izan ere, bai santutzaile den Jesusek, bai honek santu egiten dituenek, jatorri bera dute denek. Horregatik, Jainkoaren Semeari ez dio lotsarik ematen hauei senide deitzeak.

Urteko 27. astea

San Bruno, *fundatzailea* (Kartusiarrak)

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 2-16.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk Jesusi eta, hura zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?». Hark erantzun zien: «Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?». Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun». Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu». Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du era berean». Beste batean, haurrak eramane zizkieten Jesusi, uki zitzaizkien; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, haserretu zen Jesus eta esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena da-eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

Jesus bere inguruan korrika eta jolasean dabiltzan mutiko eta neskato pila batez inguratua dago, hauek guztiak Maisuaren arreta zailtzen dutelarik... Baina ez ditu urrundu nahi. Umeteria hark gure hasiera guztiak eta bakoitza oroitarazten dizkigu, gure ametsak garatu ziren garaikoak eta lehenengo zauriak egin zizkigutenekoak, gerora gure malkoetako askoren arrazoiak azalduko dizkigutenak. Jesusek oso hurbil eduki nahi ditu hasiera horiek. Bertan den helduari esaten dio, oso garrantzitsua dela ume bihurri haiengandik hurbil egotea, gu izan ginena eta izaten jarraitzen duguna islatzen digutelako. Behar-beharrezkoa dugu geure ametsen jatorria hurbil edukitzea, gure aurrera

Urteko 27. astea

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*

agertu ziren une hura eta gure kontzientziaren funtsezko zati bihurtu zireneko hura. Era berean behar-beharrezkoa dugu geure hausturen eta zaurien hasiera hura hurbil izatea, gertatu zireneko une hura eta gure oroimenean txertatuta gelditu zirenekoa. Beharrezkoa dugu pertsona gisa eratu gaituzten gauza oro geure auzoko izatea. Horrek guztiak laguntzen digu ulertzen zergatik ez garen nahi genukeen bezalako; gure lotura nagusien hauskortasuna ere azaltzen digu. Baina, era berean, geure burua berregiteko bideak iradokitzen dizkigu. Nork daki? Agian, Jesusen inguruan zebiltzan neskato eta mutiko haiek, gure ahuleziaren eta hazteko dugun berreskuratze-gaitasunaren oroigarri izan daitezke. Bai metafora bikaina, inguruko helduek hizketa-gai nagusi dibortzioa dutenean eta atzetik uzten duen amets egiteko ezintasunaz mintzo zaizkigunean.

* * *

Jauna, mundura emakume batek ekarri zintuen, ni ere bai.

Emakume batek bularra eman zizun, nire ere bai.
Oinez ibiltzen hasi zinenean
amaren besoetara biltzen zinen, ni ere bai.
Bedeinkatua izan bedi emakumea, Jauna

Bere lerro kurbatuak,
ama Lurrean ereindakoak,
giza bizitza goxatzen dute
lerro zuzenaren zurruntasun zorrotzaren aurrean.

Haur nintzenean,
nire amaren aurpegi lasaian eguzkia ikusten nuen,
ilargia bere begi-ninian.
Nire unibertsoa eguzki distiratsua zen
eta ilargi argitsua nire apetetan kide.

(Patxi Loidi)

Urteko 27. astea

Arrosarioko Andre Maria Birjina

Santana Justina, *birjina eta martiria*

San Paulok Galaziarrei 1, 6-12: Berri Ona ez dut inongo gizakiarengandik hartu edota ikasi; Jesu Kristok agertu zidan.

Sal 110: Gogoan du beti Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?». Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?». Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta zein da nire lagun hurkoa?».

Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zuenean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zaindu ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”.

Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?». Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Urteko 27. astea

Arrosarioko Andre Maria Birjina
Santana Justina, *birjina eta martiria*

Ez dago alde handirik parabolak deskribatutako munduaren eta gure garaikoaren artean. Mundu hura ohituta dago bide-ertzean jendea lapurtzen duten bidelapurrez hitz egitera. Gure munduan ere badaude bide-ertzean pertsonak, hurkoarengatik oihu egiten dutenak. Halakoak izateko, badirudi Jesusen parabolak hau esaten digula: samariarrak bizi duenak ez duela zerikusirik bihozkada pasakor batekin edota eskuzabaltasun-kolpe batekin edota keinu politikoki oso txalotu batekin. Samariarra zaurituaz duen arreta bizi eta apartarekin esaten ari zaigu, *bere burua zaintza hartara emana duela*. Oso ondo ulertu du, zaurituak osatzeko baliabideak behar izateaz gainera, bere norabidean oso hurbilekoa izango duen norbaiten beharra duela. Azken baten, samariar ona aholkatzen ari zaigu: ez gaitezela eror sentitzen duguna ahazteko tentaldian: geure bihotz errukitsuaren oihua da.



Urteko 27. astea

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*

San Paulok Galaziarrei 1, 13-24: Bere Semea agertu zidan, haren Berri Ona jentilei iragartzeko. **Sal 138:** Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen. Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al dizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabiltza kezkatua eta larri; baina bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

Gertakari honen eleberri tankerako kontakizun batek dio, Jesusek alde egin ondoren, Martak eta Mariak luzaro hitz egin zutela bisitaz. Martak, ahizparekin haserre jarraitzen zuen arren, atseginez entzuten zion Mariari. Maria ia hitzez hitz errepikatzen ari zen Jesusi entzun ziona. Aldi berean, Maisuaren ahots-tonuera ere gorde zuen, baita beraren begiradaren zorrozatasuna ere, baita otoitz egiteko gonbitean nabari zitzaion sakontasuna eta beraren aurpegiaren larritasuna ere, eta Jerusalemek hitz egitean ikusi zion dirdaia... Marta, arreta galtzen hasi zen, Mariaren arabera Jesusek zehazki esan zuenaz. Baina konturatu zen, bere ahizpa, *Jesus berbera!* deskribatzen ari zela eta berarekin izandako aurrez aurrekoak berariaz biziara ziola agertzen, hain zuzen ere, berarekin egoteagatik. Horixe zen Maria gogo berotzen zuena. Eta horixe zen Martak galdua zuena!

Urteko 27. astea

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*
San Joan Leonardi, *apaiza*

San Paulok Galaziarrei 2, 1-2. 7-14: Jainkoak niri emandako dohaina aintzat hartu zuten. Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala». Jesusek esan zien: «Otoitz egitean, esazue: “Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, eta ez utzi gutentaldian erortzen”».

Beti sortzen digu harra ondo otoitz egiten ote dugun galderak. Zenbat aldiz otoitz egin izan dugun halako gertakari batzuk gerta daitezen edota hainbat gauza eman diezaguten! Baina beste gertakari batzuk gertatu zaizkigu eta gauza desberdinak eman. Beraz, ez da batere arraroa sinestedun askok, urte luzeetan fededun izan ondoren, oraindik ere ondo erreztatzen ez dakitela aitortzea... Jesusek bere ikasleei espresuki irakatsi dien Gure Aita otoitzarekin, bi argibide agertzen dira zalantza horiek uxatzeko. Lehenik, Kreatzaileak gauza guztietan bere borondatea edo nahia eragin dezan erreztatzen dugu baina borondate edo nahi hori gurearekiko desberdina da. Eta bigarren, bizitzan gizaki bakoitza bere Kreatzaileak sostenga dezan erreztatzen dugu, eta ez geuk sostenga dezagun. Dena, misteriotzuki, maitatzeari uzten ez dion Maitasun handi horrengandik datorkigu eta Jesusek Aita deitzen dion eta gure aita ere dela baieztatzen duen horrengandik.

Urteko 27. astea

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*

San Paulok Galaziarrei 3, 1-5: Legea betetzeagatik ala mezuari sinesmenez erantzuteagatik hartu duzue Espiritua? **Sal: Lk 1:** Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 5-13.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zegok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena». Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei!».

Lukasek otoitzaz idatzitako testu are gehiago zabaltzeko, Jesusek erregutzeko Getsemanin erabili zuen moduaz balia gaitzeko. Hilzoriko une hartan, gurutziltzatze aurre-aurrekoan alegia, otoitz egiteak molde propioa hartu zuen. Jesusek, bere borondatea eta guraria baino goragokoa den beste bat bilatu eta aurkitzeko errezatu zuen. Otoitz egitea, Jesusentzat, borondate edo gurari horri lehentasuna ematea izan da eta gainerako guztia horren aldean erlatibotzat hartzea, baita

Urteko 27. astea

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*

heriotza bera ere. Beraz, Getsemanin, otoitz egitea Jainkoaren sakoneko nahia edo guraria, ororen erdigunean iltzatua den hori, onartzea baino ez da. Lukasek xehetasun bat soilik gehitu du: aldeztu aurretik, Jesusen Aita horrek, ororen edo guztiaren erdigune izanik, bere alabak eta semeak jada bere erraien erdigunean jarriak dituela.

* * *

Gurutzean da bizia

Gurutzean da bizia
eta poz bete,
bera da *soilik zerura*
daraman bidea.

Gurutzean dago "Jauna,
zeru-lurrekoa",
eta gerra bada ere,
bake gozokoa.
Gaitz guztitik gordetzen du
gure lurraldea;
bera da *soilik zerura*
daraman bidea.

Emazteak Senarrari
esaten dio, ba,
gurutzea palmondo lerdena dela,
berbera igo dena;
jainkozkua duela hark
bere zaporea;
bera da *soilik zerura*
daraman bidea.

(*Santa Teresa Jesusena*)

Urteko 27. astea

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria)

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea* (Mariaren Mirabeak)San Joan XXIII.a, 261. *aia santua*

San Paulok Galaziarrei 37-14: Fedetik bizi direnek hartzen dute bedeinkazioa Abraham sinestedunarekin batera. **Sal 110:** Gogoan du beti Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, jendarteko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenez, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapaturiko ondasunak. Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du. Espiritu gaiztoa, norbaitengandik atera ondoren, leku idorretan barrena ibili ohi da atsedean bila; baina aurkitzen ez duelarik, bere buruari esaten dio: “Itzul nadin atera nintzen neure etxera”. Iristean, etxea garbitua eta apaindua aurkitzen du. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen. Horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da».

Jesus, jendaurreko bere bizitzan, eztabaida garratzetan sartu beharrean gertatu da bere aurkarietako askorekin. Bada sarri samar aipatzen den argudio bat, planteatzen den asmo txarra tarteko, bera koloka jarrazten duena; gaurko testuan ageri dena da exorzismoak direla-eta. Jesusi ez diote zalantzan jartzen egiten dituen sendakuntzen asmo edo borondate objektiboa. Zalantzan jartzen diotena borondate edo asmo horren azpian dagoen sustraia da. Beraren izana belzten saiatzan dira sustrai hori urre gorria ez dela zabalduz. Horrek Jesusi dakarkion zailtasuna are handiagoa da. Ontasunak, hain zuzen horixe izateagatik, ezin defendatu du bere burua indarra erabiliz! Inor zapaltzen ez duen doakotasunean antzematen ahal zaio soilik. Ahulezia-puntu hori alde zaurgarri gertatzen zaio, iraindua izateko. Baina... ez du osoro blokeatzen eta itotzen: Jesusek sendatzen jarraituko du.

* * *

Begoñako Andre Mariaren Meza

Ben Sirak 24, 17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. **Sal: Lk 1:** Handiesten du nire arimak Jauna. **San Paulok Galaziarrei 4, 4-7:** Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 43-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatutik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden

Urteko 27. astea

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria)

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea* (Mariaren Mirabeak)San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*

erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!». Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?». Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen.

Begoñako Andre Maria

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurraren gertakariaz, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu. Lukas ebanjelariak esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriarik sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Maria Deikunde edo Iragarkunde egunetik beretik; eta zeruratua izan zenean, hara eramán zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!

*Begoñako
Andre Maria*



Urteko 27. astea

Pilare-ko Andre Maria

San Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita*

1 Kronikak liburutik 15, 3-4.15-16; 16, 1-2: Ekarri zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikia zuen oihal-etxolaren erdian ipini zuten. Edo Apostoluen Eginak liburutik 1, 12-14: Jesusen ama Mariarekin otoitzari emanak bizi ziren. Sal 26: Jaunak koroatu nau eta zutabe gainean goratu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

Gaurko egunez Pilareko Ama Birjinaren izenpean gogoratzen da Andre Maria, eta beraren irudiak Elizak Ebanjelioa zabaltzeko duen testuinguruari lotzeko aukera ematen du. Kultura-arloan, sakontzeko dugun gaitasunean galera nabarmena ari gara jasaten. Gabezia nabarmena nabari da gai sakonak eta ongi bereizita tratatzekoak direnak jendaurrera ateratzeko. Horren ondorioa da, pilareak urri direla. Gure jardunak erosokeriazkoak eta oportunistak dira eta ez dute denboran zehar irauten. Horrela gertatzen dira hainbeste akitze: hasi pertsonaletatik, igaro familiakoetatik eta iritsi azkenik gizartekoetara. Iraganetik askatzeko gurariarekin, nagusi den kulturak zimenduak eta kontrahormak ere leherrarazi egiten ditu. Arazoa oraindik are larriagoa da mezu indartsu baina hutsalez betetako giroan bizitzean. Ez dira koherenteak beren artean eta bistako kontraesan nabarmenetara eramaten gaituzte... Maria, Elizak goraipatua da bere bizitzan zehar Jainkoaren nahia entzun eta bete zuen pertsona gisa. Ganorazko emakumea da. Eta hori gertagarria izan zen bere garaian, Mariak bere sakontasuna ondo kudeatu zuelako. Lukasek dioen moduan, harako hura guztia bere bihotzean gordetzen zuelako hura, Mariak, bere galderak, fruitua eman zezaketen lekuraino eraman zituela esateko modua da: Jainkoaganaino alegia. Eta Jainkoarengan, erantzunak pilare bihurtu zitzaizkion.

Urteko 28. astea

San Romulo, *gotzaina*San Fausto, *martiria*Santa Zeledonia, birjina, *beneditarra**

Jakinduria liburutik 7, 7-11.

Otoitz egin nuen, eta zuhurtzia eman zidan Jainkoak, dei egin nion, eta jakinduriaren espiritua iritsi zitzaidan; errege-aulkia eta agintemakila baino nahiago izan nuen; haren aldean aberastasuna ezereztzat jo nuen; harribitxirik preziatuenarekin ere ez nuen parekatu, urre guztia, haren aldean, hondar-apur bat besterik ez da, eta zilarrak, haren aurrean, lokatza dirudi. Osasuna eta edertasuna baino maiteago izan nuen eta neure argitzat aukeratu, haren distira ez baita inoiz itzaltzen. Eta jakinduriarekin ondasun guztiak batera etorri zitzaizkidan, eta ezin konta ahala aberastasun haren eskutik.

Sal 89: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zugar.

Hebrearrei egindako gutunetik 4, 12-13.

Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eraginkorra, aho biko ezpata baino sarkorragoa; arimaren eta espirituaren sakoneraino sartzen da, pertsonaren zokorik ezkutueneraino, eta barneko pentsamenduak eta asmoak aztertzen ditu. Ez da harentzat munduan ezer ikusezinik; dena dago biluzik eta agerian, kontuak eman beharko dizkiogun haren begien aurrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11, 17-30.

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondaretzat jasotzeko?». Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-amak».

* Eugenio Mari Erauskin (Lazkao 1902-Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*

Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia». Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahigabez joan, ondasun handien jabe baitzen. Orduan, Jesusek, ingurura begiratzuz, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!». Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere: «Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea! Orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Ikasleek, gero eta harrituago, elkarri ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?». Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak». Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko». Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurak uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia.

Jesusek aberastasunaz hitz egitean, ikasleek zalantzak dituzte zein salba ote daitekeen galdezka. Beren baitan onartu egiten dute ez dela batere erraza, ezinezkoa ez esateagatik, nor bere interes-gunetik irtetea. Guk ez dugu halako nobleziarik. Gizatiarra den oro oso anbigua da. Badugu barnean halako beirazko sabai bat eta sabai horrek ez die uzten gure asmorik onenei ere benetako askatasunaren eremuan barneratzen. Hala erakusten digu bere ondasunekin kezka dituen eta irtenbidea Jesusi eskatzen dion aberatsak. Maisuak aurrea hartu dio berak aberatsari emandako erantzunak ikasleengan sortu duen estutasunari.

* Eugenio Mari Erauskin (Lazkao 1902-Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*

Onartzen du noski benetakoa dela antzeman duten eragozpena: hainbesterainokoak dira gure bitasun edo anbiguotasunaren neurriak, «gizakientzat beste zerbait desberdinik izan litekeenik pentsatzeak ere...» ezinezkoa baitirudi. Baina Jesusek berehala atera du etsipen hori arintzen duen kontrapisua: «Jainkoak dena dezake». Jainkoak bera gu ez bezalakoa dela ikusaraztea lortzen du, gure egoismoz kanpoko norbait dela, alegia. Gure alteritaterik hobena da; are gehiago, gure alteritate bakarra. Jainkoarekin harremanetan ipintzen garenean, hainbesterainokoa izaten da gu geure baitatik irtetea, non egitera iristen baikara geure baitatik irtengo zitzaigula sekula imajinatuko ez genuena. Jesusek gutxi gorabeherako kalkulua egiten du, nitasun horretatik irteteak lortu duenaz: behetik jota, geurea bera baino «ehun aldiz» handiagoa den bizia sortuko du; eta goitik jota, «betiko bizia» izatera iritsiko da.

* * *

Itxaropenaren Ama

Bizitza sortarazi zenuelako
Itxaropenaren Ama.

Heriotza bizi zenuelako
Itxaropenaren Ama.

Bazkoa sinetsi zenuelako,
Bazkoa haztatu zenuelako,
Bazkoa jan zenuelako,
Bazkoa hil zenuelako,
Bazkoan Bazkoa zarelako,
Itxaropenaren Ama.

* Eugenio Mari Erauskin (Lazkao 1902-Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*

Urteko 28. astea

San Romulo, *gotzaina*San Kalisto I.a, *16. aita santua eta martiria*

San Paulok Galaziarrei 4, 22-24.26-27.31-5,1: Ez gara mirabearen seme-alaba librearenak baizik. **Sal 112:** Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena, orain eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaien: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriazko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena. Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Jesusi zeinuak edo ezaugarriak eskatzen dizkiote aurka egiten diotenak konbentzitzeko eta berak zein den esaten duena baietsi dezaten. Seinale garbiak, zalantza oro baztertuko dutenak eta fedea aitormena egiteko zuzeneko bidea eta oztoporik gabea eskainiko dutenak. Orduan, ordea, askatasunak ez luke jada lekurik izango; izan ere, neurri horretako ezaugarriekin, zalantzak eta aukerak lekuz kanpo egongo lirатеke... Baina Jesusek errefusatu eta baztertu egin du gisa horretako erakusketekin bere burua ezagutzera ematea. Horrelako ezaugarrien hondoan fede-neurri oso eskasa nabari da. Armatzat soilik hitza duen Jonas profeta eta hegoaldeko erregina, azken hau jakinduriagose den fedegabea, aipatzen ditu Jesusek sustatzen ari den fedearen eredu moduan. Bien kasuan ere, mirariak ez ziren beharrezkoak izan beste batzuk bi haiek bezala sinestera gonbidatuak senti zitezen.

Urteko 28. astea

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea*

Ben Sirak 15, 1-6: Jakinduria eta adimen-espirituz beteko du eta soinekorik ederrenaz jantziko. **Sal 88:** Iragarriko diet zure izena neure senideei, goretsiko zaitut batzarraren erdian.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik. Zatozte nigana nekatu eta zamatuz guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Jesusen aurkikuntza izan zen «jende xumea» Ebanjelioa onartzeko oso prest agertzen zela! Egiaztatu zuen pertsona xumeei aparteko trebetasuna azaltzen zutela Jainkoak errege izateko eta errealitatea antolatzeke orduan mamiaz eta formaz duen ikuspegiaz. Berehala atzematen dute Jaunak bere Aitagan behin eta berriz ikusten duena. «Jende xumeari» ez zaio arrotz egiten Jesusen eta Aitaren arteko etorkortasun hori. Txalogarritzat jotzen du, baita giza errukiaren gabeziak eragindako zaurien artean ere. Azkenean, Jesusek ikusi du, jende xumea dela Jainkoaren ardura inoiz ez dela itzaltzen erabat sinestera iristen dena. Jarrera horren hondoan ideia jator hau dago: jende xumea jabetzen dela bai berez eta bai, inguruabarrek ezarririk, berekin dituen mugak. Jende xumeari posible zaio bere hauskortasunekin bizitzea. Ez dio bere buruari iruzur egiten. Ia senez bereizten du, zuzentasuna non dagoen eta non falta den, zerbitzua zer den eta zer ez den. Horrek guztiak ulertarazten dio Jesusek bazuela zerbait onik eta jatorrik esateko. Intuizio horretan aurrea hartzen die beste batzuei. Horixe zuten beren jakinduria, Jesusek benetan hainbeste goraipatzen zuena: jakinduria horrek laguntzen zien benetan balio duen, gauza oroz gainetik, Ebanjelioak eskaintzen duen «atsedena» dela atzematuko.

San Paulok Galaziarrei 5, 18-25: Kristorenak direnek gurutzean erail dute bekatuzko beren giza izaera, beronen grinekin. **Sal 1:** Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 42-46.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, fariseuok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta zuzenbidea eta Jainkoaren maitasuna, berriz, alde batera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe. Ai zuek, fariseuok! Sinagogetan aurreneko aulkiak eta plazetan jendearen agurrak maite dituzue! Ai zuek! Ikusten ez diren hilobiak bezalakoak zarete, jendea oharkabean haien gainetik baitabil». Orduan, lege-maisu batek esan zion: «Maisu, horrela hitz eginez, gu ere iraindu egiten gaituzu». Jesusek erantzun zion: «Ai zuek ere, lege-maisuok! Eraman ezineko zamak leporatzen dizkiezue besteei, eta zeuek atzamar batez ere ukitu ez».

Oso ezagunak ditugu Jesusek bere garaian erlijio- eta moral-agintaritza maila bat zutenei egindako kritikak. Ez genituzke irakurri behar kritika horiek garai hartakoak balira bezala bakarrik, Jesusek ezagutu zituen fariseu-taldeekin zituen gatazkei lotuak bakarrik bailiran. Orduko kritika haiek gaur geu ere harrapatzen gaituen dinamika gaiztoa argitzen dute: gure subjektibizazioa Jainkoak bere Herriarekiko duen borondatea esplizitatzeko arauak interpretatzeko orduan. Fariseu batzuek legea beren alde hartzen dute eta beren burua aske uzten beraien eskakizunetik. Haiek, guk bezalaxe, besteek egin behar dutena soilik dakite... Okerrena da, araua gertatzen dela izen ona galdurik, defendatua izan ordez. Hain zuzen ere, eragotzi egiten duelako norbaitek bere gain hartu nahi izatea nolakoa izan behar duen erabakitzea!

Urteko 28. astea

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*

San Paulok Efesoarrei 1, 1-10: Kristogan aukeratu gintuen mundua sortu baino lehen. **Sal 97:** Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 47-54.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, zuen arbasoek hildako profetei hilarriak eraikitzen dizkiezuenok! Horrela, arbasoek egindakoarekin ados zaudetela aitortzen duzue; zeren haiek hil egin baitzituzten profetak, eta zuek hilarriak eraikitzen baitizkiezue. Zerbaitegatik esan zuen Jainkoaren jakinduriak: “Profetak eta apostoluak bidaliko dizkiet eta batzuk hil eta beste batzuk erasoka erabiliko dituzte”. Baina munduaren hasieratik isuri den profeta guztien odolaren kontuak eskatuko dizkio Jainkoak gizaldi honi: hasi Abelen odoletik eta aldaretik santutegira bitartean hil zuten Zakariasen odolerraino. Bai, Nik diotsuet gizaldi honi eskatuko dizkiola kontuak. Ai zuek, lege-maisuok, jakintzaren ateko giltzaren jabe egin zaretenok! Zuek ez zarete sartu, eta sartu nahi zutenei ez diezue utzi». Jesus handik atera zenean, fariseuek eta lege-maisuek gupidarik gabe eraso zioten, galderak egin eta egin, ea erantzun okerrean batean harrapatzen zuten.

Sarjentua indartu zen, bi soldadu aukeratu eta intendentziara joan zen. Lixibaz eta zoru-garbigailuz zamaturik itzuli ziren. Konpainiako komunak nazkagarri zeuden. Baina sarjentua izan zen, hartaz oharturik, garbitzeari ekin ziona. Orduz geroztik, beti obeditu zioten. **Gure** sarjentua zen... Jesusen garaiko erlijio-buruzagiei aginpidea falta zitzairen. Fariseuek eta idazlariak erlijioa idealizatu egin zuten, hura haragitzeari iskin eginez. Bitartekari ilun eta alferrikako bihurtu ziren, besteengan Jainkoaren berezko esperientzia galaraziz. Erlijiotasunaren hartarainoko manipulazioa aurrez aurre zihoan Ebanjelioaren aurka. Jesusek jendea Jainkoagana beragana eramango zuen hitz eta egintza izan nahi zuen. Bitartekaririk gabe esperientatua izango zen mezuaren mezulari izan nahi zuen. Eta horrek aginpide osoa ematen zion..., sarjentuak bere soldaduen aldetik jaso zuena bezalakoxea, zerbitzua zer den harengan beragan ikusita.

2 Timoteoren liburutik 4, 10-17b.

Anaia maitea: Dimasek utzi egin nau; nahiago izan ditu mundu honetako gauzak, eta Tesalonikara joan da; Kreszente, berriz, Galaziara joan da eta Tito Dalmaziara. Lukas beste inor ez dago nirekin. Hartzazu Markos eta ekarri zeurekin, oso ona baitut lanerako. Tikiko Efesora bidali dut. Hona etortzean, ekar ezazu Troaden, Karporen etxean, utzi nuen soingainekoa, baita liburuak ere, batez ere pergaminoak. Alexandro errementariak kalte handia egin dit; Jaunak ordainduko dio bere jokabidearen arabera. Kontu izan zeuk ere horrekin, gogor jarri baitzen gure irakatsien kontra. Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten.

Sal 144: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!”. Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo

Urteko 28. astea
SAN LUKAS, EBANJELARIA
San Justo, *haurra*

hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

Dena desberdina izango litzateke xumetasunak berekin duen eraldaketa-ahalmen handian gehiago sinetsiko bagenu. Geure buruari mesede handia egingo genioke xumetasun horri erantsi ohi dizkiogun xumetasun-karikaturatetik garbituko bagenu. Xumetasuna, den hura bakarrik da eta ez du inondik inora beste ezer gehiago izan nahi. Ez du bere baitan asmo maltzur edo interesaturik. Beraren marraz garbiak eta egiari zuzenean emanak dira, egiazaletasunari lotuak. Xumetasuna doakotasunaz konbentzitua baino konbentzituago dago... Itxura batean, horrek guztiak oso hauskor bihurtzen du, gizakiaren edozein egoismotak jo eta hausteko moduko. Nahiz eta itxura batean, Jesusek bere ikasleak xumetasunaren ezkutuaz bakarrik horniturik bidali zituen beren misiora. Ez zien proposatu estrategia desberdinik edo konplexuagorik. Ezarri zien baldintza bakarra, xumetasun horrekiko fidelak izatea izan zen: xumetasun horrek doan ematera behartzen zituen doan jaso zutena. Doakotasun errotiko hori gabe, Ebanjelioak ez zukeen inondik inora aurrera egingo. Eta egia esan, gisa horretako xumetasuna, gauzarik handienak egiteko gai da, buru-eskaintzak imajinatzeko gai da, amaieraraino itxarotea lortzen du. Horrelakorik ezer ez dakite doako izaten ez dakitenek. Beren bidaiak laburrak dituzte, beren egoak edo nitasunak bezalaxe. Eta egoek ez dute ezer eraldatzen: ezta beren burua ere.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*
 San Pedro Alkantarakoa, *apaiza*, *frantziskotarra**

San Paulok Efesoarrei 1, 15-23: Kristo ezarri du Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza. **Sal 8:** Zeure eskulan guztien buru ipini duzu zeure Semea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 8-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko du Gizonaren Semeak ere Jainkoaren aingeruen aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten duenari barkatuko dio Jainkoak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez dio barkatuko. Sinagogetara, buruzagien eta agintarien aurrera, eramango zaituztetenean, ez ibili kezkatan nola egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitizue une hartan bertan zer esan behar duzuen».

Oso artelan zaila da hitz zuzena eta egokia esatearena: ulergaitza dena ere argitzen duena, irtenbidea eskaintzen diona trabaturik zegoenari, eta adiskidetzen duena. Hitz zuzen eta egokiak isiltasuna behar du aurkituko bada: «Ez ibili kezkatan nola egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitizue une hartan bertan zer esan behar duzuen», esan zuen Jesusek. Jainkoa da bere Hitza esaten diguna eta, hura esatearekin, haren antzeko egiten gaituena. Orduan izango da gure bizitza, Hitz horren antzirudiko egina, gure mintzaldirik hobena munduko edozein auzitegitan.

* San Paulo Gurutzekoa, *apaiza*, *fundatzailea* (pasiotarrak)
 San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*

Urteko 29. astea

Santa Aurora, *aitorlea*San Kornelio, *ehuntaria*

Isaias Profetaren liburutik 53, 10-11.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta aseaz izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure ueste ona.

Hebrearrei egindako gutunetik 4, 14-16.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiozun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahulerriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 35-45.

Aldi hartan, Santiagok eta Joanek, Zebedeoren semeek, Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna Zuk guri egitea nahi genuke». Jesusek galdetu zien: «Zer nahi duzue, bada, Nik zuei egitea?». Eta haiek: «Eser gaitezela bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean, Zu zeure aintzara iristean». Jesusek esan zien: «Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete Nik edan behar dudana kaliza mingotsa edateko, edo Nik murgildu behar dudana uretan murgiltzeko?». «Bai, gauza gara!», erantzun zioten. Jesusek, orduan: «Nik edan behar dudana kaliza mingotsa, bai, edango duzue, baita

Urteko 29. astea

Santa Aurora, *aitorlea*
San Kornelio, *ehuntaria*

Nik murgildu behar dudan uretan murgilduko ere; baina nire eskuin-
ezkerretan esertze hori ez dago nire esku inori ematea; Jainkoak
norentzat duen prestatua, hari emango zaio». Beste hamarrak, hori
entzutean, haserre jarri ziren Santiagoren eta Joanen aurka. Jesusek
dei egin eta esan zien: «Dakizuenez, herrien buruzagiek mende
hartzentzat dituzte herriak eta handikiek beren agintea ezartzen diete. Ez
du horrela izan behar zuen artean. Zuen artean handi izan nahi duena
izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena
izan bedi denen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita zerbitzaria
izatera etorri, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia denen alde
ordainsari ematera».

Jesusek, Santiago eta Joanekin izandako gertakari horren harira,
zeharo politikoa den irizpidea bota du agintaritza erabiltzeko moduz.
Ez du inolako sekreturik agertu. Maisuak, zerbait azpimarratzeko,
bere ikasleei bistakoa den zerbait gogorarazi nahi balie bezala da.
Izan ere, bistakoa da botereaz gaizki baliatzen direnen nagusikeriazko
bilakaera, mendeko diren kaltea dakarrena azkenean. Bilakaera hori
ez da ezustekoa, baizik eta aski ohikoa eta giza historian etengabeko
gizarte-zauri bezala ageri da. Jesusek kontraproposamen bat
egiten du: «zerbitzariaren» zeregina onartzea eta zapalkuntzaren
dinamikaz beste muturrean jartzea. Jende askok, tesi horren diskurtso
landuagoa itxarongo zuen; adieraztea, alegia, zerbitzu hori betetzea
mundua sozialki hain estratifikatua zegoen garai hartan, zeinetan
esklabotza eguneroko bizitzan erabat sartua baitzegoen. Baina Jesusek
eskaini duen gauza bakarra zerbitzu horren errolikotasunaren
ñabardura ematea izan da. Ez da inolako zalantzarik izan behar zein
muturretaraino heldu behar den: azkeneko tokia hartu behar dugu
eta barneratu beharra dugu ezen gainerakoak, metaforarik gabeko
zentzuan, geu baino goragokoak direla eta merezi dutenak guk bizia
beraien alde ematea... Jesusi begira jarraitzen dugu arazoa hobeto
argitu diezagun, baina hura isilik... zerbitzatzen gaituen bitartean.

Urteko 29. astea

Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*Diego Luis de San Vitores, *dohatsua, apaiza*, eta San PedroCalungsod, *martiriak, jesuitak*

San Paulok Efesoarrei 2, 1-10: Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. **Sal 99:** Jaunak egin gaitu, harenak gara.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko». Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edota ondasun-banatzailer?». Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde zeuen burua dirugosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere». Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko ditut garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi ongi!”. Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”». Eta honela amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

Gaurko irakurgaiak egia garrantza jartzen digu esku artean: geure eskastasuna. Baina aldi berean gozoa: geure eskastasunean aurkituko dugu geure askatasunaren prozesua. Ezin dugu kontrolatu ez geure bizitzaren hasiera, ez amaiera. Zentzugabekeria handia da geure sorkari-izaera ukatzea. Aldiz, asko lagunduko liguke izaera hori onartzeak geure bizitzako gero eta azalpen handiagoetan. Horrela, distantzia sanoa gordeko genuke barruan daramagun Prometeorekiko. Izan ere, sorkari izatea ez da etsipenezko pobrezia, esker onezkoa baizik; mendekotasun eragilea da, eta ez gerarazlea. Jesusek aipatzen duen sorkari izate horrek, bitartekoen eta helburuen arteko nahasmendua ezabatzen du eta giza jarduera askatzen du bere segadetatik, bere tranpetatik: edukitzea administrazio bihurtzen da; nagusitasuna lankidetzat; eta ustiapena mundua lagunkoi erabiltzea...

San Paulok Efesoarrei 2, 12-22: Kristo da gure bakea. Bat egin ditu berak bi herriak. Sal 84: Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitezte nagusia ezteietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak. Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!».

Gertakari garrantzitsuak bizi ahal izatea, halabeharraren ondorio soil dela izaten dugu. Gauza asko eta suertatu behar dute pare-parean halako gertakari harrigarriak ikusi ahal izateko. Eta inbidia diegu halako bat kontatzen digutenei: hain zuzen ere, une jakin hartan, leku egokian zeudela ikustea hainbeste balio izan zuen gertakari hura gertatu zenean... Jesusek gutxieneko balioa ematen dio zoriari horrelako gauza batean guztian. Jainkoa gudan esperientzia erabakitzailea izateko, ez dute zertan konbinatu ezusteko faktorek. Ezustekoak... prestakuntza eskatzen du. Graziak zure prestutasuna eta aurretiazko jarrera behar du. Beraz, beilan egotea, ez da gerta litekeenaren aurrean etengabeko zaintza-egoeran egotea, baizik eta etengabeko arreta-egoeran bizitzea. Horrela da gertatzen behin betikoa. Horregatik, espiritu prestatu batentzat, den-dena da topatzeko aukera.

Urteko 29. astea

San Joan Kapistrano-koa, *apaiza, frantziskotarra*

San Paulok Efesoarrei 3, 2-12: Kristoren misterioa orain agertu du Jainkoak: jentilak Kristo Jesusekin oinordekide direla, alegia.
Sal: Is 12: Aterako duzue ura pozik salbamenaren iturrietatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 39-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea». Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?». Jaunak erantzun: «Izan zaitezte etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroi buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozorkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio. Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Askok eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

Gauza asko eman digula Jainkoak eta areago gehiago gomendatu digula jabetuko bagina, parabolako «morroiak» egiten duen bizimoduaz oso desberdina den jokamoldea biziko genuke. Nagusiaren urruntasunak, solidaritaterik eza eragiten dio hari. Besteen giza mailatik irten eta besteekiko despota bihurtu da. Desbideratze hori saihestuz hazten joateko gomendatzen digu Jesusek. Bide hori izango genuke modurik onena Jainkoak historiari emango dion amaierarako geure burua hobekien prestatzeko. Ezein alaitasun sakonek eduki

Urteko 29. astea

San Joan Kapistrano-koa, *apaiza*

beharko luke gure izena arrazoi bakartzat. Ezta ezein beharrek ere. Besteen premiak eta larritasunak geure izan beharko genituzke. Eta horrek oraintxetik beretik mugiaraziko gintuzke. Asko jaso izanak eta askoz gehiago guri gomendatu izanak ahots bat eragingo ligukete geure barnean garrasi eginez: besteentzako zara! Orduan emango du Jainkoak bere epaia, eta ez du inolako zailtasunik izango gu «bere ondasun guztien arduradun» jartzeko.

* * *

Oodgerooren harrotasuna

Beltza naiz azalez zurien artean
 eta harro nago.
 Harro arrazaz, harro azalaz.
 Pobre naiz eta hautsia.
 Jantzia trapuz
 gizon zuriari erortzen zaionez.
 Baina ez naiz lotsa.
 Lantza ezin lehiatuko da
 pistolarekin,
 eta gu dominatu egin gintuzten.
 Baina badira gauzak
 ezin arpilatu ez suntsitu ahal
 izango dituztenak.
 Konkistatu gintuzten, inoiz ez menderatu.
 Derrigortu gintuzten, inoiz ez jopu izatera.
 Ez uste izan makurtzen naizela,
 zuriak makurtzen diren bezala zurien aurrean.
 Ni harro nago,
 apal, pobre eta etxerik gabe...
 Kristo bezala.

(Oodgeroo. *Vida Nueva*)

Urteko 29. astea

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*
(Klaretarrak)

San Paulok Efesoarrei 3, 14-21: Izan dadila maitasuna zuen bizitzaren erro eta oinarri; horrela, Jainkoaren betetasunaz beteko zarete.
Sal 32: Jaunaren graziaz dago lurra betea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-urean murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte! Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

Testu gogorra da gaurko liturgiak aukeratua. Hain justu, oso arraroa da Jesusek behin eta berriz esatea ez dela etorri bakea ekartzera. Hasteko, «sua» eta «zatiketa» ez dira bateragarriak Erreinuarekin. Badirudi, Jesus, fedeak uzten digun askatasun-ildoaz ari dela. Sinesteak, askatasunez abiatzera garamatza, pixkana are handiagoa bihurtzen den askatasunez. Alde batetik, erabaki-kate baten bidez argitzen dugu geure burua, zeinen bidez joan baita grazia garena zizelkatzen. Fedearen askatasunak izatea ematen digu. Baina, bestetik, aukera eginez agertzen dugu zer nahi dugun geure fedez, eta horrela agertzen gara gainerakoen aurrean. Fedearen askatasunak arriskuan jartzen du gure izatea. Orduan bai: Jesus bezala askeak izateagatik, fedeari jartzen zaizkion segada hilgarriak erre eta hautsi egin beharko ditugu, fedeak izan ere aske nahi gaitu!

Urteko 29. astea

San Krispin eta Krispiniano,
martiriak (Zapatarien Zaindariak)

San Paulok Efesoarrei 4, 1-6: Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa. **Sal 23:** Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, “euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, “sargori dago” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok!, badakizue zero-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz bereizten zuzena zer den? Zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitez bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epaileagana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

Jainkoa denboraren Jauna da. Ez du hura zatitzen eta deuseztatzen, baizik eta barne lotura ematen dio: iragana, orainaldia eta etorkizuna bata besteari mintzo zaizkio, azkenean bizitza kontatzen dutelarik beren aurrean. Jainkoak prozesu egiten gaitu. Baina prozesu izateko, krisia jasan beharra dugu. Denborak bata bestearen segidako krisiak hariltzen ditu: *lehenaldia* eta *geroaldia* duten uneak, batetik *horrela* dutenak eta bestetik *beste era bat* dutenak. Etorkizunera garamatzaten etenak dira, Jainkoa bizi den hartara. Jainkoa da bizi beharreko denboraren Jauna, Jaunak dio zentzua eman, misioaz eta elkarte betetzen. Horregatik, Jainkoa beti aurrean ikusten dugu. Eta horixe da Jesusek entzuten dioten guztiei eskatzen diena: bereiztea. Hau esango balie bezala: Jakin dezatela beren eskuetan duten denbora Jainkoagan irakurtzen.

Urteko 29. astea

San Evaristo, 5. *aita santua*

San Paulok Efesoarrei 4, 7-16: Kristo da burua eta berak ematen dizkio gorputz osoari barne-lotura eta batasuna. **Sal 121:** Goazen pozik Jaunaren etxera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 1-9.

Aldi hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertatuaren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren oparien odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien: «Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekategoriago zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete». Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?”. Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurtu eta ongaria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

Aipamena urteroko eta betiko garaitsuko jakina. Lurjabe jauna kexatu egin zen berriro ere, goitik behera begiratu eta pikondoaren antzutasuna ikustean. Bere langileak hamaika aldiz esana berresanez eskatu zion beste urtebete uzteko bota aurretik. Jada pentsatua zuen zuhaitzari bizia emateko modu berri bat, beste leku batzuetan baliokoa izan zela zirudiena. Jaunak bere marmarra errepikatzen zuen, baina amore ematen zuen proposamenaren aurrean. Baina benetan, biek ere, nola jaunak hala langileak, bazekiten alde z aurretik gauza bera errepikatuko zela. Neurri batean jarduten ari ziren. Arrazoia erraza zen asmatzeko: ez zuten inork konbentzitu beharrik zer-nolako pazientziaz, infinituaz, ziharduen Kreatzaileak bere sorkariekin, baita bere pikondo lehor agorrarekin ere.

Urteko 30. astea

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak***Jeremias Profetaren liburutik 31, 7-9.**

Honela mintzo da Jauna: «Egin oihu pozaren pozez Jakoben herriagatik, egin irrintzi herrien buru denagatik. Egin oihu, goretsi Jauna, esanez: “Salbatu du Jaunak bere herria, Israelen bizirik geldituak”. Begira, iparraldetik ekarriko ditut, lurreko azken mugetatik bilduko. Jendetza izugarria itzuliko da: horien arteanitsuak eta herrenak, haurdunak eta haurra izan berriak batean. Negar eta otoitz artean ekarriko ditut. Ongi ureztaturiko ibarretan zehar eramango ditut, estropezurik egingo ez duten bide zelaian barna, Aita izango naiz Israelentzat, nire lehen- seme izango da bera».

Sal 125: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak; hau da poza daukaguna!**Hebrearrei egindako gutunetik 5, 1-6.**

Apaiz nagusia gizonen artetik hartua eta Jainkoaren aurrean gizon-emakumeen ordezkari izateko jarria izaten da, bekatuengatik emaitzak eta opariak eskaintzeko. Badaki ezjakinez eta okerbideratuez gupidatzen, bera ere giza ahuleriaz inguratua dagoenez gero. Horregatik, bere bekatuengatik ere opariak eskaini behar ditu, herriaren bekatuengatik bezala. Eta ezin du inork apaiz nagusigoaren ohorea beretzat hartu, Jainkoak deiturik ez bada, Aaron bezala. Horrela, Kristok ere ez zion berak eman bere buruari apaiz nagusigoaren ospea, Jainkoak baizik, honela hitz egin baitzion: «Nire Seme zara Zu, Nik zaitut gaur sortu». Beste salmo batean ere hau esaten dio: «Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 46-52.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin eta jendetza handiarekin Jerikotik ateratzean, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazaretarra zela jakitean, deiadarka hasi zen:

Urteko 30. astea

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*

«Daviden Seme, Jesus, erruki zakizkit!». Askok gogor egiten zion isilarazteko; baina hark areago egiten zuen oihu: «Daviden Seme, erruki zakizkit!». Jesusek gelditu eta itsuari dei egiteko agindu zuen. Deitu zioten, esanez: «Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik». Bere soingainekoa jaurtiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?». Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Maisu!». Jesusek esan zion: «Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu». Une berean ikusmena berreskuratu zuen, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

Itsutasunak antzinako Israelen isolamendura eta ekonomia-eskasiara zigortzen zuen jendea. Osasun txarra, erlijio eta moral-balio gutxikoa izatearen baliokidea zen, norberak edo familiakoren batek lehenago egindako bekaturen baten ondorioa. Itsu baldin bazaude, muin-muinean *merezi* duzulako da. Pentsamolde horren barruan sartuta, Bartimeok ez du bide-ertzean jartzea beste bizi-irtenbiderik. Gosea jasaten du, ez osasunarena bakarrik. Jesusi egin dion erregua ez da senda dezan bakarrik. Bartimeok jakin nahi du, nori esan diezaiokeen bere gaixotasuna ezin dela argitu errua berari edo beraren inguruko beste batzuei leporatuz, minez betez, erantzunezinak diren galderak eginez eta bakardadean bizitzera baztertuz. Bartimeok ikusi nahi du nor den birmolda diezaiokeena berak duen Jainkoaren irudia, gaizkiaren epaile eta erregistratzaile ez dena, baizik eta berak sortutako izaki eta gizakien Egile eta Jaun dena eta gauzarik preziatuenen moduan zaintzen dituen. Ikusi nahi du nork esan diezaiokeen *etorkizun* hitza. Ikusi nahi du nork zirrimarra diezaiokeen gauzen zentzua. Funtsean, ikusi nahi du nork esan diezaiokeen, behingoz, beraren bizitza irekita dagoela bizitza handiago baterantz... Eta hona non, ikusmena berriro eskuratuta, Jesusekin topo egiten duen.

Urteko 30. astea
San Simon eta San Judas, *apostoluak*

San Paulok Efesoarrei 2, 19-22:

Senideok: Ez zarete arrotz, ez atzeritar, Jainkoaren herriko kide baizik eta Jainkoaren familiako, apostoluen eta profeten oinarri gainean eraikiak, Kristo Jesus bera giltzarri delarik. Honengan ongi finkaturik, eraikin osoa gora doa, tenplu santu bihurtzeraino Jaunarengan. Honengan eraikinaren parte zarete zuek ere besteekin batera, Espirituagan Jainkoaren bizileku bihurtzeraino.

Sal 18: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena. Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituen.

Jesusek bere hurbileneko ikasleetako batzuk aukeratuta egindako «izendapenak» irakurketa-modu asko ditu. Alabaina, beste esanahi batzuen artean, zalantzarik gabe hau azpimarra daiteke: Maisuak elkarrekiko kidetasun berezi bat ezarri nahi zuela haiekin. Ebanjelioa eta Erreinuza zabaltzeko konpromisoarekin baietsi ditu, beti ere berari loturik. Jesusek ez zuen inoiz ulertu «izendapenaren» keinua

Urteko 30. astea

San Simon eta San Judas, *apostoluak*

bere ikasleek gizartetik apartatu eta benetako bizitzatik ateraraziz. Lehenengo kristau-elkarteen hasieran hain nabarmenak eta hain aitortuak izan ziren «izen» haiek, oso urrun daude duintasunarekin eta ohorearekin parekatzetik. Hamabiak *apostolu* dira, beren misioak euskarri izango duen bizitza predikatzeko. Bizitza horrek Jesusena berregin behar du. Eta horrela izan behar duelako, apostoluetako bakoitza zerbitzari izatera deitua dago. Une horretatik aurrera egingo duten guztia, Ebanjeliotik jariatzen diren betebeharrak anitz eta ugariak izango da. Funtsean, «apostolu» izatea, Jesus bezala, «menditik jaitea» da, berehala, hau ere Jesus bezala, «lautadan» gelditzeko, non jende askok ezagutu nahi baitu «indar» hori, Jaunarena, heriotza menderatzen duena.

Urteko 30. astea

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*

San Paulok Efesoarrei 5, 21-33: Handia da misterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut. **Sal 127:** Zorionekoa Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 18-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeren irudikoa da Jainkoaren erreinua? Zeren antzekoa dela esango nuke? Gizon batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dute habia». Esan zuen gainera: «Zeren antzekoa dela esango nuke Jainkoaren erreinua? Legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

Badirudi Jesus txundituta gelditu zela bere bizitza nazaretarra izan zena bezalakoa izan zelako. Bere buruaren garatze-aldi hark ulertarazi zion ziur aski, salbamenaren historiarako Jainkoaren erlojua nolakoa zen. Mostaza-haziaren eta legamiaren irudia aski sarritakoa da Erreinuaren dinamikaz hitz egitean. Jesusek, ematen duenez, ondorio hau atera zuen Nazareteko pasadizoaren ondoren: Jainkoaren jokatzeko modua, hazi txiki-txiki bat hazten den modukoa dela, edota ogia hartitzen den modukoa. Prozesu-izaera honek lagunduko digu onartzen zergatik ezin izaten dugu ulertu Jainkoa une oro: ezin dizkiogu mugak jarri beraren jarduerari. Era berean lagunduko digu onartzen zergatik ezin dugun ulertu gu geu: etengabeko konbertsioan gaude. Mundua irekita dago eta hartara irekita gaude gu, mostaza bezala hazten ari denean eta legamia bezala hartitzen ari denean.

Urteko 30. astea

San Martzelo, *martiria*Domingo Collins, *dohatsua, jesuita*

San Paulok Efesoarrei 6, 1-9: Ez gizakiei atsegin izateko bakarrik, Kristoren esklabo bezala baizik. **Sal 144:** Fidagarria da Jauna bere hitz guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 22-30.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara bidean zihoala, igarotzen zituen herri eta auzoetan irakasten zuen. Batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?». Jesusek erantzun zien: «Saia zaitetzte ate estutik sartzen. Egiaz esan, askok sartu nahi izango du, baina ezin izango da sartu. Etxeko jaunak jaiki eta atea itxiz gero, kanpoan geldituok ate joka hasiko zarete: “Ireki, Jauna!”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten”. Zuek, orduan, honela hasiko zatzaizkiote: “Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure plazetan irakatsi izan duzu”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten. Alde nigandik, gaizkileok!”. Orduan, negarra eta hortz-karraska izango da, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jainkoaren erreinuan ikustean, zeuen burua, berriz, jaurtia. Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaian eseriko dira. Begira: orain azkeneko den zenbait jende lehenengo izango da, eta lehenengo den zenbait azkeneko».

Erreinua paradoxa-eremua da. Ezagutzen dugun mundua irauli egiten du eta «zentzu komunaren» aurka ari diren irizpide eta logiken arabera ordenatzen du. Horregatik, Ebanjelioa ez da begi-bistakoa edo agerikoa berez. Bere berritasuna ez da bat-batean ondorioztatzen. Hasteko, azkenekoak lehenengo izatea ez da oso onargarria. Horixe egiaztatu zen erretore gogoangarri haren hileta sonatu hartan. Ez zen harritzekoa izan hartaz negar egiteko bildu zen jendetza. Harridura handiagoa sortu zuten elizaren atzeko aldean pilatu ziren haiek, baldar liturgia ohikunetan eta mutu errezoetan. Parrokiatik hurbil zegoen bazter-auzo batekoak ziren, ez ziren parrokiakoak. Erretoreak haietako askori lagundu izan zion... inork txintik ere jakin gabe. Azkeneko haiek izan ziren beraren *lehenak*.

Urteko 30. astea

San Alonso Rodriguez, *jesuita*

San Paulok Efesoarrei 6, 10-20: Har itzazue Jainkoaren armak, zailtasun guztiak gainditurik, sendo iraun dezazuen. **Sal 143:** Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 31-35.

Aldi hartan, fariseu batzuk joan zitzaizkion Jesusi eta esan zioten: «Zoaz, alde egizu hemendik, Herodes Zu hil nahian baitabil». Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan azeri horri: “Hara, gaur eta bihar deabruak botatzen eta sendatzen jarraitu behar dut, eta hirugarren egunean nire azkena izango da”. Baina gaur, bihar eta etzi bideari jarraitu behar diot, profeta ez baitaiteke Jerusalemdik kanpora hil. Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta Jainkoak zuri bidaliak harrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz ez ote ditut bildu nahi izan zure seme-alabak, oiloak bere txitaldia hegalpean bezala, eta zuek ez duzue nahi izan! Horra, bada, hutsik geldituko zaizue etxea! Eta esaten dizuet ez nauzuela ikusiko, hau esango duzuen eguna iritsi arte: “Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena”».

Jesusek bere frustrazio handia azaltzen du. Eta Jerusalemek irudikatzen du. Atzea eman dio eta zorrotz egin dio uko, amore eman gabe. Guztiak merezi gabeko maitasun-eza ematen du, gehien maite izan duenak eragina. Israelen eta Yahveren arteko harremanak, judu herriaren eta Jesusen Aitaren artekoak, etengabeko bat ezin etorriak zauriturik daude; Jainkoak, halere, ez du inondik inora animorik galtzen. Deigarria da harreman horiei eusteko bizi duen erabakia. Gizadiaren historia, fedearen ikuspegitik ikusita, Jainkoaren ahalegin aldaezin horren baitan dago, nahiz eta bere herriak oso erantzun eskasa eman. Jesusek bere garaikideei «ez duzue nahi izan» aurpegiratu die. Baina Jainkoak maitatzen jarraitzen du, eta horregatik jasaten du Jesusengan Jerusalemen mespretxua.



AZAROA / ZEMENDIA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Seme-alaba galdu dutenen alde: Egin dezagun otoitz seme edo alabaren heriotzagatik negarrez ari diren gurasoek elkartean babesa aurki dezaten eta Espiritu kontsolatzaileak bihotzeko bakea eman diezaien.

Urteko 30. astea

SANTU GUZTIEN OROIPENA

Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890-Liendo [Kantabria] 1936),
dohatsua, apaiza, martiria

Apokalipsi liburutik 7, 2-4. 9-14.

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzairen lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak. Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamen». Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean, eta Jainkoa adoratu zuten, esanez: «Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?». Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

Sal 23: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3, 1-3.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren

antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu. Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten: «Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko. Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

Jesusi beti eragin ohi zion zirrara beragana jotzen zuen «jendetzak», premiarik estuenetik etorriak. Problema etortzen zitzaizkion eta ez zien eragozpenik jartzen. Beti irekirik utzi ohi zuen atea, zailtasunei irekia uzten zien bidea. Gaitasun harrigarria azaldu zuen beti inoren estuasuni sarbiderik ez ixteko; baizik eta beti uzten zion edozeini mina zerk eragiten zion adierazteko, garai on eta ez-garai on. Konbentziturik zegoen Jesus gehiegi zirela munduan presako kasuak; asko eta asko zirela premia zutenak. Ez da aldirik, ez lekurik samintasunik gabe. Eta etorkizuna izan, halakoak airtortzen ditugun neurrian izango dugu, lepoan hartzen eta neurri batean edo bestean geure bihurtzen ditugun heinean... Alferrik izango dugu halakoei antzemateko itzulika ibiltzea.

Urteko 30. astea

SANTU GUZTIEN OROIPENAPedro Asuakoa (Balmaseda 1890-Liendo [Kantabria] 1936),
dohatsua, apaiza, martiria

Gutako bakoitzak du berea: bere zauri atergabeetatik hasi, iraganeko zoriongabetasun-zurrutadetik pasa eta egungo sufrimenduetara. Beste nonbait gerta daitezen nahi izango genuke, beste batzuek bizi ditzaten. Baina hor dugu, geure ondoan, «jendetza» gogaikarria eta tematia, Jesusek ondoan izan ohi zuen hura bezalakoa, eta esaten digu, kasik, inoiz ere ez garela aske izango zauri, zurrutada eta sufrimendu horietatik. Geure bizitzako zati ditugu, zati hura, beste ezek ez bezala, gure presentziaren beharra duena. Eta horixe esaten digu jendetza horrek: ez dezagula bertan behera utzi, ez dezagula alde egin geure burua den horretatik.

Joben liburutik 19, 1. 23-27a.

Jobek esan zuen: Ai nire hitzak idatzia geldituko balira, liburuan ezarriak! Edota burdinazko eztenaz eta berunaz betiko grabatuak haitzean! Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela eta, azkenean, hautsaren gainetik jaikiko dela. Nire larruazal hau hondatu ondoren, gorputzik gabe, Jainkoa ikusiko dut. Nik neuk ikusiko dut, eta ez bestek; neure begiez ikusiko dut. Bihotza sutan dut neure barruan!».

Sal 24: Jauna, zugana jasotzen dut gogo.**San Paulok Filipoarrei 3, 20-21.**

Senideok: Gu zeruko hiritar gara eta handik itxaron dugu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldatu du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15, 33-39; 16, 1-6.

Eguerdian lurrean hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani» –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»–. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko eman zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santiago

Urteko 30. astea

HILDAKO GUZTIEN OROIPENA

gaztearen eta Joseren ama Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Jesusekin batean Jerusalemera igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaroten zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joseren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

Orain gurekin bizi ez direnak, herioak bere orduan besarkatu dituelako, gurekin bizi dira orain, une oro, Biziak besarkatu dituelako. Gure aurrean duten presentzia liberatu egin da iraganean zituzten ezaugarrietatik. Ez daude ez preso ez bahiturik, familia-oroitzapenez josirik dagoen egoitza batean. Aitzitik, falta zaizkigun horien presentzia gure gaur egunekoari freskotasuna eta argia ematen dizkion etengabeko airea da. Geure jatorria kontatzen digute geure hildakoek, baita gaur ere. Beraiek argitzen digute zergatik hartu izan dugun bide bat, eta ez beste bat. Lagun ditugu geure erabakiak hartzeko unean. Horrela hautsi egiten dute bakardadea, beraiek joatean alditxo batez bere hatzaparretan harrapatu gintuena. Han goian daude bai, baina hemen behean ere bai aldi berean. Bizilagun ditugu geure historian. Beraien presentzia nabaritzean, jadanik joanak badira ere, guri arnasa ematen jarraitzen dutela sentitzen dugu. Beraien bizitasuna gudan luzatzen da. Horregatik, hildakoak geure gogora ekartzeko ariketa egin behar dugu. Eta egiaztatu, horrela, beraiek eman nahi zigutena bezalako garela, eraldi nahi izan zutena bezalako, gu izan gintezen beraiek izaten utzi zutena bezalako. Hau guztia, onartzeraz iristeko ezen, horrela jokatu zutenean, ez zekitela zenbateraino sartuko ziren gure ariman... gugandik inoiz ere ez bereizteko.

Urteko 31. astea

San Martin Porres, *domingotarra*Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*

Deuteronomioa liburutik 6, 2-6.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzaion Moises Israel herriari: «Begirune izango diozu Jaunari, zeure Jainkoari, eta bai zuk eta bai zure ondorengoei nik ematen dizkizudan Jaunaren lege eta agindu guztiak beteko dituzue zeuen bizitza osoan, luzaro bizi zaitezten. Entzun itzazu, beraz, Israel, eta saiatu betetzen, zoriontsu izan zaitezen eta biziki ugaritu, esnea eta ezia darizkion lurraldean, Jaunak, zuen arbasoen Jainkoak, hitzeman bezala. Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz. Izan beti gogoan gaur esaten dizkizudan hitz hauek».

Sal 17: Maite zaitut, Jauna, nire indar!

Hebrearrei egindako gutunetik 7, 23-28.

Senideok: Lehengo ituneko apaizak asko ziren, ezin baitzuten iraun, hil egiten zirelako. Jesusek, ordea, beti irauten duenez, inoiz amaituko ez den apaizgoa du. Jesusek betiko salba ditzake beraren bidez Jainkoagana hurbiltzen direnak, bizirik baitago haien alde beti erregutzeko. Benetan, Jesus bezalako apaiz nagusia behar genuen guk: santua, errugabea eta kutsugabea, bekariengandik bereizia eta zeruak baino gorago jaso. Honek ez du, beste apaizek bezala, lehenengo bere bekatuengatik eta gero herriarenengatik egunero opariak eskaini beharrik, behin betiko egin baitzuen hori, bere burua opari eskaini zuenean. Legeak, izan ere, gizon ahulak izendatzen ditu apaiz nagusi; legea baino geroagokoa den Jainkoaren zinak, ordea, Semea izendatu du apaiz nagusi, betieran bete-beteko dena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena? Jesusek erantzun: «Hau

Urteko 31. astea

San Martin Porres, *domingotarra*Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*

da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere». Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Non ardazten duzu bizitza, non ainguratzen bihotza? Sobera ondo dakigu zer erantzuten dion Jesusek lege-maisuari. Lehenik eta behin, bizitzaren zentzuak zerikusia du, aldi berean, Jainkoarekin eta gure lagun hurkoarekin. Seme-alaba gara, eta anai-arreba gara. Existentziaren giltza aurkitu nahi badugu, zerura begira jarri behar dugu, baina baita lurrera begira ere. Bigarren, mundua ezin bereizi dugu Jainkoagandik, ezta Jainkoa ere mundutik. Otoitza zerura igo, zerbitzuarekin igotzen da; zerbitzua lurrean errotu, otoitzarekin errotzen da. Eta, hirugarren, ez Jainkoa eta ez hurkoa dira ikusgarri, gure baitan erromesaldi bat gertatzen ez bada, geure baitatik errotik irtetera garamatzan erromesaldi bat. Jainkoa aurkitu, gure bizitzako alor hesitu bat baino zerbaite gehiago bihurtzen bada aurkituko dugu. Lagun hurkoa aurkitu, gutxienez, geure buruari eman diogun adeitasuna ematen badiogu aurkituko dugu. Jesusek zehaztu du erronka. Jainkoa, geure geutasun osoaz maite badugu bakarrik konformatzen da: «... zeure bihotz osoaz, zeure arima osoaz, zeure gogo osoaz, zeure izate osoaz». Eta lagun hurkoa, osotasun horretaz maitatua denean bakarrik konformatzen da: «... zeure burua bezala».

Urteko 31. astea

San Karlos Borromeo, *gotzaina*

San Paulok Filipoarrei 2, 1-4: Bete nazazue pozez, denok sentiera bereko izanez. Sal 130: Zaindu ezazu nire bizia bakean zure baitan, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion gonbidatu zuen fariseu-buruetakolari: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senideak, ahaideak edota auzoko aberatsak ere; zeren haiek ere gonbidatu egingo baitzintuzkete, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordua ematean, gonbidatu behartsuak, elbarriak, herrenak eta itsuak. Zorionekoa zu, orduan, ezin izango baitizute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

Jesusek ez dio uzten bere burua arriskuan jartzeari. Errealitatea ezagutzera ausartzen da, beronen erronka gotorrenei eta gogorrenei iskin egin gabe. Bere buruari pasaldi zorrotza ezartzen dio berehalako aterabideei kontra egiten dieten egoeratan barna. Den bezala begiratzen dio errealitateari. Bizitzak inolako hobari-deskonturik eskaintzen ez dien haiekin egon nahi izaten du. «Ezin ordaindu dizuten» haien alde jotzen du. Ebanjelioan teodizea berandu etorri da: lehenago egona da Jesus, errealitatea zapalduz; berau aldatu gabe, ordea, neurri haietan zeinetatik bota baititu galdera irmoak. Jesusek ez du airean hegaldaka egiten, baizik eta, hain gogorra delako, guk iskin egiten diogun giza errealitate bizi eta zuzenekoaren eszenatokian sartzen eta ibiltzen da. Kristautasuna, horrela, etengabeko errealitate-eskari bihurtzen da, eta ez ihesbide.

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*

San Paulok Filipotarrei 2, 5-11: Apaldu egin zuen bere burua; horregatik goratu zuen Jainkoak. **Sal 21:** Zugana nire gorespena, Jauna, batzar nagusian.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 15-24.

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena». Orduan, Jesusek esan zion: «Gizon batek afari handi bat eman zuen eta jende asko gonbidatu zuen. Afarirako ordua iritsi zenean, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: “Zatozte, prest dago dena”. Baina bata bestearen ondoren aitzakiak jartzen hasi ziren denak. Lehenengoak esan zion: “Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren”. Beste batek, berriz: “Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren”. Eta hurrengoak: “Ezkondu berria naiz, eta ez naiteke joan”. Itzuli zen morroia eta guztiaren berri eman zion nagusiari. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta esan zion morroiari: “Hoa bizkor herriko plazara eta kaleetara, eta ekarri behartsuak, elbarriak,itsuak eta herrenak”. Geroago, morroiak esan zion: “Jauna, egin dut agindu duzuna, eta oraindik bada lekuri”. Orduan, nagusiak esan zion: “Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan”. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dastatuko».

Banaka-banaka, oso arrazoizkoak dira iragarritako jai-otordua huts egiteko aipatu diren zuribideak. Eskandalagarri izango litzateke beste erantzun bat. Erantzukizunak, lana, familia: denak batera harturik, eguneroko argudioen sare hori eratzen dute; gure energiak eta eskura dugun denbora erretzen dituzte. Gertatzen da ezen hainbesteraino hartzen dutela gure egunez egunekoa non ez baitu lekuri izaten beste ezerk. Askoz gutxiago jai-gertaera batean doan parte hartzeak; antolatu gabeko jai-gertaeraz ari gara, inolako eskakizunik gabe antolatzen denaz, gutzia etorriko direnen pozerako

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*

bakarrrik antolatzen denaz. Gutxi axola gonbit pertsonalizatuak izatea. Bada gauza garrantzizkoagorik. Jesusek, ordea, kritikatu egin du ustezko zentzutasun hori, jaia eta dohaina mespretxatzen dituen hori. Azkenean, jai-otordua antolatu, bizitza zentzuzko eta egonkorren eremuan bizi direnentzat antolatuko da, grazia zer den zailtasunik gabe ulertzen dutenentzat.

* * *

JESUSEN LAGUNDIKO SANTU ETA DOHATSU GUZTIAK

Deuteronomio liburutik 30, 11-14.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Obedituko diozu Jaunari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren aginduak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana. Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskurazina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz beste aldera, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Zeren esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

Sal 15: Zu zaitut, Jauna, neure ondarea.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 23-26.

Aldi hartan, Jesusek erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*

galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Jesusek, Nekaldia baino lehen, onartu du ezen hiltzea Jainkoarekin egiten ari garen historiaren zati bat dela. Beste zatiak bizitzearekin du zerikusia, hau da, «fruitu asko» ematearekin. Bizitzeko hiltzea (edota bizi-araztea, eta asko) da Berri Onaren giharra. Baina bizitzeko hiltze hori, agindu bat al da, moralari atxikitako manamendu bat? Hala deskripzio huts bat da, nolakoak garen esateko: hilez benetan bizi ahal izateko? Bigarren hau dela zuzena esan beharko genuke. Jesusek, Kristo Berpiztuak, haragitu du Bizia, barnean duguna sorkari izateagatik. Ebanjelioa deskripzio bat da, eta ez Jesusen agindu bat. Horrelako Bizitza horrek berarekin eskuzabal izatera garamatza: bera etengabe ematera, Jesusek bezala, sorkari izaten jarraitu ahal izateko!

Urteko 31. astea
 Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak
 San Severo, *martiria**

San Paulok Filipotarrei 2, 12-18: Saia zaitezte zeuen salbamena burutzen. Jainkoa da, bai nahi izateko eta bai burutzeko gai egiten zaituztena. **Sal 26:** Jauna dut argi eta salbamen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle. Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”. Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zuretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz. Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

«**O**ndasun guztiei uko egiten diete» delako horrek ematen du, arazoa hutsunera jauzi egitea dela. Berari jarraitzeko baldintzatzat

* Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*
 Joakin Esnaola (Idiazabal 1898-Madril 1936), *apaiza*, *agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896-Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak

San Severo, *martiria**

jarri du hori Jesusek. Zorabioa sortu du horrek berehala. Jauzi horrek lehen urratsa egitearen antza du, gatazka baitaratzearen, segurtasun ezari aurre egitearen antza. Jainkoak honela bizi du bere erregetza: guri eraginez; oinak leku ezezagunean jartzera eraginez, ez dagoen lekuan ildoa irekitzera eraginez, heldulekurik gabe eta zerupe hutsean garelarik. Horren guztiaren oso jakitun izan gaitezen eskatzen digu Jesusek. Zuhur izateko ere aholkatzen digu, jokoan zer dagoen sumatu ahal izateko. Baina, nolanahi dela ere, ez du beheititzen eskakizunaren maila: inoiz ez gara izango beraren ikasle geure ondasunei erabat uko egin gabe... Zorabioa ez da ezkutatu.

* Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*

Joakin Esnaola (Idiazabal 1898-Madril 1936), *apaiza*, *agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896-Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*

Urteko 31. astea

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*

San Paulok Filipotarrei 3, 3-8a: Baliotsutzat nituen gauzak baliogabetzat jo ditut Kristogatik. **Sal 104:** Poztu bihotzez Jaunaren bila zabiltzatenok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 1-10.

Aldi hartan, zergalariak eta bekadariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekadariak, eta jan ere egiten du haiekin». Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila joaten aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pozik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”. Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekadari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino. Eta zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta ardura guztiz bilatzen aurkitu arte? Eta aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako txanpona”. Hara Nik esan: Berdin pozten da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekadari batengatik».

Artzainaren eta emakumearen irudietan bistakoa da antzeko osagai baten presentzia; ardiaren eta monetaren galeraren aurrean ere antzeko erreakzioa eragiten diena. Ez dute aski eskuarki egin ohi denarekin: ez dute aski artaldeko gehien-gehienak eta dirurik gehien-gehiena eskura izatearekin eta arazorik sortzen ez dutelarik. Ez ditu lasaitzen, azken batean, gehienak eskura izateak. Bestela, uko egingo liokete bientzat giltzarri denari. Unibertsala dute beren ikuspegia; horregatik behar dute, lasai bizitzeko, guztiek, ardi edo moneta, parte har dezaten garrantzizkoa den hartan. Uko egiten diote gutxi batzuk behin betiko zokoraturik gelditzea onartzeari. Jite horretakoa da Jainkoaren bihotza, jarrera horretakoa: berarentzat beti gelditzen dira lekuak galdua denaren bila jarduteko.

Urteko 31. astea

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*

San Paulok Filipotarrei 3, 17-4, 1: Kristok bere gorputz aintzatsuaren irudiko egingo gaitu. **Sal 121:** Goazen pozik Jaunaren etxera!

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten. Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudana hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”. Etxezainak, orduan, hau zioen bere baitan: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”. Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiei deitu eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiari?”. Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?”. Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”. Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino».

Beti bitxia da Jesusek zuzendu digun parabola hau. Atentzioa ematen du nola irekitzen duen Ebanjelioak bere bidea edozein testuingurutan. Inongo kulturak ez du hartuko aintzat Jesus hori, baldin eta «gizon on» bat bezala, xalo huts bezala, aurkezten badugu. Fede buru-argia proposatu du Jesusek, pentsatzen eta egiten dugunaren zirrikituak, ez beti asmo onez beteak, argitaratzen dituenak. Sinesten duenak aztia izan behar du. Bestela esanda, ebanjelizazioak beharrezkoak ditu bere estrategiak, bere baliabideen kalkuluak eta beraien aukera, beharrezko du berak eragingo duen kontraktasunaren analisia... Beraz, datua, «mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino» delakoa, indarrean izango den bitartean, zinezko maitasunak problema bat izango du.

Urteko 31. astea
Letrango Eliza Sagaratzea

Ezekiel profetaren liburutik 47, 1-2. 8-9. 12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 45:** Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2, 13-22.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaiak, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarriz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maitekinak sutu nau». Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?». Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen. Hilan artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

Jesusek lur jo du tenpluan sartu denean. Funtsezko harreman bizien leku izateari utzia dio tenpluak. Prezio bat ezarri diote Jainkoarekin lotura izateari. Protokolo huts bihurtu dituzte lotura horiek. Jainkoa ez da «zu» bat, zeinengana besterik gabe iristen baitzara. Sakrifizio-eskakizunak ezarri dira, ez zehazki berdinak guztientzat. Zerura jotzeko otoitz posibletzat, GUREAITA azpimarratu zuen Jesusek, Jainkoarekiko zuzeneko harremanak aitortu ahal izatea oztopatzen zuen guztia garbitzen saiatu zen hark... ezin sinetsi zuen bere Aitaren etxean bartan gertatzen ari zena. Jainkoaren lehen ametsa bidegabeki erabili zuten. Tenplua gizarte-aldeak, desberdintasunak, gogoraztera

Urteko 31. astea
Letrango Eliza Sagaratzea

itzulia zuten, diru bihurtu zituzten bihotza eta hondoko desiren balioak, bortxatua zuen Jainkoaren indarra, bortxatua zuen Jainkoaren ontasuna, ontasun horrek eskainiko zitzaizkion errituen heinekoa, proportzionala, behar zuela izan uste baitzuten. Hitz batean esateko, Tenpluak puska-puska eginak zituen lotura haiek, gizakia Kreatzaile eskuzabal eta errukitsuaren sorkari dela ulertarazten zituztenak; ahaztua zuten ezen aske hazten ari bazen, Kreatzaile harekin zuen berezko erlazioari esker zela. Jesusek suminki erreakzionatu zuen, eta ez etsipen-puntutxo bat gabe. Tenplu hark berreskuratu beharra baitzuen bere zentzua. Haren barnean, batzuek eta besteek seme-alaben gizaditzat hartu behar zuten beren burua.

Urteko 32. astea

San Leon Handia, 45. *aita santua eta eliz irakaslea*
San Andres Avelino, *apaiza*

Erregeak Lehen liburutik 17, 10-16.

Egun haietan, jaiki zen Elias profeta eta Sareptara joan zen. Hiriko ateetara iritsi zenean, emakume alargun bat ikusi zuen zotzak biltzen. Eliasek deitu eta esan zion: «Ekardazu ontzian ur-pixka bat edateko». Bila zihoala, Eliasek atzetik oihu egin eta esan zion: «Ekardazu, arren, ogi-zati bat ere». Emakumeak erantzun zion: «Ala Jauna, zure Jainkoa! Ez dut batere ogirik; eskutada bat irin besterik ez dut katiluan, eta olio-pixka bat pitxerrear; zotzak biltzen ari nintzen, neure semearentzat eta biontzat opil bat egin, jan eta gero hil gaitezen». Eliasek esan zion: «Ez beldur izan. Zoaz eta egin esan duzuna; baina egidazu lehenbizi niri sutopiltxo bat eta ekardazu. Gero, egingo duzu semearentzat eta zeuretzat. Hau baitio Jaunak, Israelen Jainkoak: “Irin-katilua ez da ahituko, ezta oliontzia agortuko ere, Jaunak lurrera euria bidaliko duen eguna arte”». Joan zen, bada, emakumea eta egin zuen Eliasek esana, eta luzaroan jan zuten Eliasek eta ama-semeek. Irin-katilua ez zen ahitu, ezta oliontzia agortu ere, Jaunak Eliasek ahoz esana zuen bezala.

Sal 145 Goretsazu Jauna, ene barrena.

Hebrearrei egindako gutunetik 9, 24-28.

Senideok: Kristo ez zen sartu giza eskuz egindako santutegian —egiazkoaren irudi besterik ez zen santutegian—, zeruan bertan baizik, orain Jainkoaren aurrean gure alde agertzeko; eta ez zen sartu bere burua behin eta berriz opari eskaintzeko, apaiz nagusia berea ez duen odolarekin santutegian urtero sartu ohi den bezala; bestela, hil ere askotan hil behar izango zuen, munduaren hasieratik. Baina ez, Kristo behin bakarrik agertu da orain, azkenak diren garai hauetan, bere buruaren opariak bekatua ezerezteko. Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakia dagoen bezala, halaxe Kristo ere: behin bakarrik izan zen opari

Urteko 32. astea

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea
San Andres Avelino, apaiza

eskainia guztien bekatuak kentzeko, eta gero bigarrenez agertuko da, bekatuarekin zerikusirik gabe, beraren zain daudenak salbatzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 38-44.

Aldi hartan, Jesusek, bere irakastaldian, esan zion jendeari: «Zabiltzate kontuz lege-maisuekin! Gogoko dute harro-harro jantzita ibiltzea eta plazetan jendearen agurrak hartzea; gogoko dituzte sinagogetan aurreneko aulkiak eta jai-otorduetan mahaiburuak. Eta, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasunak irensten dituzte. Horrelakoek epairik zorrotzena izango dute». Jesus tenpluko diru-kutxaren aurrean eseria zegoen, jendeak kutxara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuen. Etorri zen emakume alargun behartsu bat ere, eta bi txanpon bota zituen, huskeria bat. Jesusek, ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Eman dezagun, jadanik oso gutxi sinesten dugu eskuzabaltasuna gauza arrunta dela munduan. Nahiago izaten dugu errealtatea irakurri interesen ikuspegitik, egoismo indibidual, tribuari eta korporazioari darizkion hainbat eta hainbat interesen ikuspegitik. Jainkoarekiko fedea falta baino gehiago, piloka eskas dena, gizakiagan ustea izatea da, eskas dena, gizakiak buru-eskaintzarako gaitasunik baduela uste izatea da... Agian, oker gabilta. Pertsona bakoitzak du zoko bat bere baitan, oraino ukitu gabea, handitasun berezikoa, bere baitatik irtenarazi eta ingurunea gizatiar bihurtzera eragiten diona. Arazoa ikustea da sinesteko. Jesusek ez zuen galdu aukera ikusten ari zena ikasleei adierazteko. Bat-batean Jerusalemgo Tenpluan gertatu zen. Emakume alargun batek bere eskaintza egin du: dohain hutsala eta, halaz guztiz, neurriz gainekoa, emakumearen bistako pobretasuna kontuan hartzen bada. Deigarriena da, emakume hura, dena eman zuena, Tenpluan pilatua zegoen jendetza artean galdu zela. Ez zen jakin hartaz beste

Urteko 32. astea

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea
 San Andres Avelino, apaiza

ezer, Jesusek nabarmendu zuena salbu: haren esker on harrigarria, egunerokotasunean eta anonimotasunean murgildua, inoiz ere aintzat hartuko ez den ongia egin ondoren. Maisuak agerian ipini zuen horrela mundu hau beterik dagoela alargun behartsu hura bezalako jendez. Beraz, aski arrazoi dugu gizakiagan uste izaten jarraitzeko eta, horregatik beragatik, baita Jainkoagan ere.

* * *

Samurtasunetik Zorabiora

Uste genuen Jainkoa samurtasun zela.
 Orain ikusi dugu zorabio dela.
 Uste genuen Jainkoa subiranotasun zela.
 Orain ikusarazi digute horditasun dela.
 Uste genuen Jainkoa lasaitasun zela.
 Eta Norbait kontatzera etorri zaigu Jainkoa zorakeria dela.
 Horregatik genuen oihu egiten,
 ginen igotzen eta ginen arimatik jaisten,
 garrak harturik, zur eta lur.
 Horregatik erori zen eskastasuna gure lepotik
 kapa bat bezala galdu ohi dena karreran,
 eta arrantzale hitz-totel izan ziren lekuan
 jaio ziren sugarrak eta pistolak eta martiritza.
 Jesusekin geundenean ez genuen fede beharrik sinesteko ikusten ari
 ginena.
 Jesus joan zenean, fedeak alde egin zigun urak hatz artetik bezala.
 Baina Uso handiak tira egin zuen geure arimatik, zorrotik ateraz
 eta lehen aldiz konturatu ginen gizaki ginela,
 nolatan ulertzen ahal genion edukirik geure bihotza hain txikia?
 Baina orain –etorri delarik Espiritua–,
 jadanik ezin dugu jarraitu Jainkoa erabiliz
 hondartza bat erabili ohi den bezala.

(José Luis Martín Descalzo)

Urteko 32. astea

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*Toribio santua, *monjea*

San Paulok Titori 1, 1-9: Ezarri elkarte-arduradunak, eman dizkizudan argibideen arabera. **Sal 23:** Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezinbestekoa da munduan galbideak gertatzea, baina dohakabea inoren sinesmena galbidean jartzen duena! Hobe luke errotarria lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino. Ibili kontuz! Zure senideak bekatu egiten badu, egiozu haserre, eta, damutzen bada, barkatu. Eta egunean zazpi aldiz zure kontra bekatu egiten badu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barkatu». Apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gudan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zeniokete, eta obeditu egingo lizueke».

Barkatzea da gizakiaren erronka handienetako bat. Besteek eragindako zauriekin lehiatzeak egundoko birsortze-zeregina irudikatzen du. Sakon ezagutzen ditugu geugan gauzatutako minaren arrastoak, beraren sakadura garratza eta beraren oihartzun amairik gabea oroimenean. Geure zauriekin bizitzeak erraz galarazten ditu barkazio-bideak. Pedrok demaigu zailtasun horretako geure argazkia, Jesusi galdetu dionean ea posible ote den muga bat barkatzeko jokabide horretan. Baina Jesusek ez du amore eman. Adiskidetzeari dagokionez, geure buruari ematen diogun ustezko muga hori geure egiazko erruki-gaitasunaren kontra doa. Barkatzea da irtenbide bakarra, historia libre eta garbi uzteko; barkatzea da sustagarri ordezkazezina, hautsia den kreaioa berrantolatzeke. Ez izan dudarik: barkazioa ez da unetxo bat, baizik eta infinituan galtzen den lerro jarraitua.

Urteko 32. astea

San Josafat, *gotzaina eta martiria*San Millan [Emiliano], Donemiliaga Kukulakoa, *apaiza*

San Paulok Titori 2, 1-8. 11-14: Jainkozaletasunez bizi gaitezen, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. **Sal 36:** Jaunagandik dator zintzoen salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 7-10.

Aldi hartan, Jaunak esan zien apostoluei: «Emazue, zuetako batek morroia duela soro-lanean edota artzaintzan. Morroia etxeratzean, “hator berehala mahaira” esango ote dio? Ez ote dio beste hau esango: “Presta iezadak afaria, jantzi aurreko mantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?”. Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako? Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esan: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”».

Jesus gai da gure desioen unibertsoan sartzeko, beraiekin elkarrizketa askatzaile bat sortu nahiz. Gauza eta jende askok eragiten digu iruzur eta faltsu diren premietara jotzera: egiten duguna gizarteak aitortu dezan saiatzeko jarrera da, egiten dugun guztiari eta lortu dugun nabarmen izateari esker ona berehala eman diezaioten. Artifizialki puztua den gure «ni»aren aparra husteak eta hertsiki dagokion neurria erabiltzeak ebanjelizazio-ariketa ederra suposatzen dute gure baitan. Egiazko bizitza ez da merezimendukratikoa, ez da merezimenduak aireratzen ibiltzea. Burubide hau izan behar du oinarri: «zerbitzari pobre batzuk gara, egin behar genuena egin dugu». Geure izateak berak elikatzen gaitu. Horrelako mundu batean, ez da zorrik eragiten. Soilik, zerbitzua gauzatzen da; egia esateko, zertan eskertua izanik ez duena!

Urteko 32. astea

San Estanislao Kostka, *jesuita*San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*

San Paulok Titori 3, 1-7: Noizbait bidegaldu izanak gara, baina bere errukiagatik salbatu egin gaitu. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 11-19.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!». Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez. Samariarra zen bera. Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzeritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?». Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

Kristau-tradizioan otoitzari dagokionean, eskerrak emateari oso faborezko lekua eman izan zaio. Jainkoagana jotzeko modua da, baina ez nolanahikoa. Otoitzik behinena ordezkutzen du, lehen otoitza. Beste zerk ez bezala adierazten du zertaraino garen duin Kreatzaileari dagokionez. Harekiko, jaiotzetiko hizkuntza bezala, ikasi gabea bezala da eskerrak ematea. Ematen du, horixe gogarazi nahi digula Jesusek hamar lepradunak batera sendatzean. Gauza arraroa samariarra da, behar bezala erreakzionatu duena. Gainerako bederatzi sendatuek gauza handiagotzat hartu dute agindua bera; batetik, Tenpluaren ziurtagiririk gabe ezin bermatuko zutelako sendatuak zeudela; bestetik, eta agian, araua dutelako, beren ustez, erarik onena Jainkoarekin harremanak izateko. Jesusek, ordea, gogarazi digu aski dugula «eskerrak» soil eta oinarrizko bat esatea, zeruan eta lurrian dena beterik gerta dadin...

Urteko 32. astea

San Jose Pignatelli, *apaiza, jesuita*
(*Jesusen Lagundia berrezarri zuena*)

San Paulok Filemoni 7-20: Hartzazu, ez esklabo bezala, anaia maitea bezala baizik. **Sal 145:** Zorionekoa Jakobena Jainkoa lagun duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 20-25.

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: “Hona hemen” edota “hara han”; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik». Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, “hona hemen”, “hara han” esango dizuete. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximistak une batean zeru-alde batetik besteraino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina aurretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

Gau ilun bat, ekaitz bat, tximista baten «distira». Jesusek hautatu duen irudiak atentzioa ematen du, eta irudi zehatz bat ezarri dio Jainkoak historian errege izateko duen moduari. Tximista bat kontrolaezina da, baina beraren argiak aski potentzia du ilun beltz-beltzena argitzeko. Halako gau batean galdurik dabilen bidaiari batentzat, albiste ona izan ohi da tximistak, noizean behin eta ezin aurrezanezko moduan, bere presentzia egitea. Jesus era alegorikoan mintzo da koadroaz; errepikatu nahi du Jainkoaren Erreinua ez dela atxikigarri, baina gertagarri dela. Behin betiko gauza ez da bihar entregatzekoa den produktu bat: gure ondoan gertatzen ari dena da: tximista baten distirak salatu du gure baitan.

Urteko 32. astea

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra*

San Joan Apostoluaren bigarren gutunetik 4-9: Irakaspenean irauten duenak berekin ditu Aita eta Semea. Sal 118: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 26-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen. Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen. Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituenak ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzuli. Oroitu Loten emazteaz. Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galtzen duenak, berriz, onik aterako du. Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartuko dute eta bestea utzi; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartuko dute eta bestea utzi». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?». Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

Ez ditugu jakiten aldez aurretik geure biografiako gertaera funtsezko batzuek dituzten denboraren koordinatu zehatzak: jaiotegunetik hil artekoak, mutur-muturreko adibidea jartzeko. Gauza bera esaten ahal da Jainkoak gudan izango duen erabateko presentziaren une misterioitsu horretaz ere, zeinetan egongo garela sinesten baitugu, etenik izango ez duen topo egite batean. Jesusek errepikatzen die ikasleei utzi diezaiotela pronostikoak egiteari, une hori noiz eta nola izango denaz. Ezinezkoa da, definizioz, horiek zehaztea;

Urteko 32. astea

San Alberto Handia, gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra

izan ere, Jainkoarekiko harremanetan erabakitzaileak dira une bakoitza eta era bakoitza. Egiatzko eta funtsezko gauza, erlazio horretan, ez da atzeratzen. Besterik gabe, gertatu egiten da. Ez da ordulariari begiratu beharrik izango, ezta egutegia orrialdez aldatzen ibili beharrik ere: beti gauza ona izango baita Jainkoa gertatzea nahi duenean eta nahi izango duen bezala.

* * *

Samurtasunetik Zorabiora (2 jarraipena)

Sinetsi genezakeen ala ez,
baina sinetsi ezin lo geundela.
Jainkoa ez dabil bizi-pusken bila. Bera
urakana da, etxea kolpatzen duena,
leihoak setiatzen dituena, ateari eta murruari palanka botatzen diena,
jabe dena maitale bat bezala.
Ezin da Jainkoagan sinetsi eta birjina izan.
Ezpata bat bezala da sartzen bera
edo seme-alaba bat bezala errailetan.
Jainkoa du izena, emankortasuna du bere egitekoa eta deitura.
Horregatik ginen bizi eta emankor bihurtu Espiritua zenean iritsi.
Arrats hartan ikusi gintuztenek, segurtatzen zuten
hordi geundela.
Baina ezin sumatu ahal izan zuen inork zein ardo asaldagarri eta
bikain zen
burura igo zitzaigun hura.
Jainkoaren bihotz-berotasunaren ardoa bera baitzen.

(José Luis Martín Descalzo)

Urteko 32. astea

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra*. Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*. Santuak: Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo, *apaizak, martiriak, jesuitak*

San Joan Apostoluaren hirugarren gutunetik 5-8: Lagundu egin behar diegu senideei, egiaren zerbitzuan horien lankide bihur gaitezen.
Sal 111: Zorionekoa Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela otoitz eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusék parabola hau esan zien: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”». Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?».

Jesusek ikasleei otoitz egiteko agindu dienean, agindu horretan bada zehetasun bat oharkabe gelditzen dena. «Bihozgabetu gabe» egin behar dute otoitz. Otoitza Jesusentzat bihotz taupadatsu baten arazoa da: giza egoera larrietan leihoak irekita ikusteko gai den horrena da, konbentziturik dagoenarena ezen desjabetzea, munduaz hitz egitean, ez dela azken hitza. Beti behar da otoitz egin, ezerk adierazten ez badu ere haizearen norabidea aldatzera doala. Argia da Jesusen eskaria: otoitzean jarraitu behar da hartarainoko haize-kontrako egoeratan ere. Baina horrela otoitz egiteko, bihotzak prest egon behar du. Azken batean, bihotz hori da Jainkoak berak ere duena. Ez du galtzen inoiz ere eta, Jesusek adierazten duenez, ez du sekula galduko.

Danielen Profezia liburutik 12, 1-3.

Garai hartan, aingeruen buruzagia eta zure herriaren zaindaria den Mikel agertuko da. Larrialdi-garaia izango da, herriak izaten hasi zirenetik berdinik gabea. Baina aldi hartan salbatuko da zure herria, biziaren liburuan beren izena idatzia duten guztiak, alegia. Itzarri egingo da hilobietan lo dagoen asko: batzuk betiko bizirako, besteak betiko lotsarako. Ortziaren distiraz distiratuko dute jakintsuek, eta besteei bide zuzenean ibiltzen irakatsi dietenek izarrek bezala betieran.

Sal 15: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.

Hebrearrei egindako gutunetik 10, 11-14. 18.

Senideok: Apaiza egunero ari ohi da bere kultu-zerbitzuan, bekatua inola ere kendu ezin duten opari berberak behin eta berriz eskaintzen. Kristo, ordea, bekatuengatik opari bat bakarra eskaini ondoren, Jainkoaren eskuinaldean eseri zen behin betiko. Eta, orain, Jainkoak etsaiak oin-aulkitzat noiz jarriko dizkion itxaroten dago. Izan ere, opari bakar baten bidez beren betera eraman ditu Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak. Horrela bada, bekatuak barkaturik daudenean, ez dago bekatuen barkamenerako opari beharrik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 13, 24-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egun haietan, larrialdi handiaren ondoren, eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argirik emango, izarrak zerutik amiltzen hasiko dira eta ortziak dar-dar egingo du. Orduan, Gizonaren Semea ikusiko dute hodei artean ahalmenez eta aintzaz beterik etortzen; aingeruak bidaliko ditu eta bere aukeratuak bilduko lau haizeetatik, lur-muga batetik besteraino. Ikasi pikondoaren irudi honetatik: kimua berritzen eta hostoa zabaltzen zaioneko, badakizue uda hurbil dela. Era berean, gauza horiek

Urteko 33. astea

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*

gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela, ateetan, Gizonaren Semea. Benetan diotsuet: Gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza hauek guztiak. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko. Zein egun eta ordutan gertatuko den, ordea, ez daki inork, ez zeruko aingeruek, ez Semeak, Aitak baizik».

Gurea bezalako kultura batek, den-denean eskua sartu nahi duenak, denboraren dimentsiotzat hartzen du etorkizuna: bere misterio guztia kendu nahi dio honi eta, are gehiago, segurtasun-ezaren egundoko poltsa delakoaren itxura ere kendu nahi dio. Jesus sarritan jardun zen beraren belaunaldiak etorkizunarekin erlazionatzeko bizi ohi zuen moduaz. Guri ere balio digu Jesusek adierazten duen horrek. Irauli egin du denboraz dugun kontzeptua. Eskatzen digu, onartzeko etorkizuna ez dugula zehazki geurea, ez dela sartuko ere gure jabetza-eremuetan. Debekaturik dugu: «Eguna eta ordua inork ez dakizki». Hori dugu buruan sartu beharrekoa. Gezurra da harro uste izatea, denbora hori, oraino izan ez den hori, aurrean dezakegula eta gertatzen ari balitz bezala konta dezakegula. Etorkizunak nagusi bakar bat du: Jainkoa bera. «...ez zeruko aingeruek, ez Semeak, baizik eta Aitak bakarrik» du pribilegio hori. Eta gure etorkizunaren nagusia Jainkoa bada, orduan etorkizuna ezin izan da berez mehatxagarria. Kontrakoa baizik: Jainkoaren arduraren denbora edo aldia da, eta ez bertan behera utzia izatearena; lagunartearen denbora da, eta ez bakardadearena. Justu, denborarik ez genuen hartan, gure hasieraren nagusi izan zen hura izango da gure azkenaren nagusi, dena beraren baitako denbora izango denean.

Urteko 33. astea

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea
San Odon, *abadea, beneditarra**

Apokalipsia liburuaren hasiera 1, 1-4; 2, 1-5a: Hartu gogoan nondik erori zaren, eta bihotz-berri zaitez. **Sal 1:** Garaileari biziaren arbolako fruituetatik emango diot jaten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zelarik, itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eseria. Jendea igarotzen sumaturik, zer zen hura galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinarazi zioten. Orduan, deiadarka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!». Aurrean zihoazenean gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagoz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!». Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?». Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Jauna!». Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu». Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goretsiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

Jerikoko itsuari esan diote, «Jesus Nazaretarra» dela pasatzen ari dena. Itsuak, ordea, nahiago du Jesusi beste izen bat eman: «Jesus, Daviden Semea» eta «Jauna». Itsu hura da, gezurra badirudi ere, eszenako pertsonarik buruargiena. Jasaten ari den iluna eta guzti, bere baitan argi sarkorra du, funtsezkoa hautemateko. Garbiro dakusa bera eskean ari den lekutik pasatzen ari dena. Jesusek sendatuko dio bere itsutasuna, baina, hori egiteko moduagatik, esan liteke miraria gertatzen ari dela jadanik, aldeztu aurretik, itsuak ulertu zuen unetik ezen Maisua Nazareteko herritar bat baino zerbait gehiago zela. Jesusen «izan ikusle, zeure fedeak sendatu zaitu» hitzak, beste hau baiestea bezala ziren: jarraitu ikusten sinesten duzuna!

* M^a Anjeles Odriozola (Azpeitia), M^a Engrazia Lekuona (Oiartzun), M^a Zezilia (Azpeitia), M^a Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*

Urteko 33. astea

San Abdias, *profeta*San Agapito, *martiria*

Apokalipsia liburutik 3, 1-6. 14-22: Norbaitek atea irekitzen badit, harenean sartuko naiz eta elkarrekin afalduko dugu. **Sal 14:** Garailea neurekin eseraraziko dut neure tronuan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatzuz». Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot». Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

Zakeoren eszena ezagun hau loturik dago gai izar batekin, bekatuarenarekin; gurea bezalako gaur egungo sekularizazio-aldietan epelaldia jasaten ari bada ere. Halaz guztiz, kontuan hartu beharrekoa da, Jesusek berorrek akabatu zuenez gero... bekatua. Ebanjelariak gaurko hau bezalako kontaerak eskaintzen dizkigute, bekatuaz kristau-esperientziak dituen zoko-moko asko irekitzen dizkigutenak. Gertatzen da, nork bere bekatuarekin topo egitea egundoko kontsolamendu-arrazoi izaten dela, eta ez gaitzespen-arrazoi! Hori da Zakeok azaldu duena guztien harridurarako. Sumatzen da gozamena sentitu duela bere moraltasun-eza jendaurrean aitortu eta, azkenik, pobreago bihurtu denean. Beste inork aurkitu ez zuena ikusi zuen Zakeok: poza zain-zain zuela bere bekatuaren azpian.

Urteko 33. astea
San Edmundo, *martiria*

Apokalipsia liburutik 4, 1-11: Santua Jauna, Jainko ahalguztiduna, bazen, baden eta etortzekoa den hura. **Sal 150:** Santu, santu, santua Jauna, Jainko ahalguztiduna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 11-28.

Aldi hartan, Jesusek parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalemdik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta ontzako urre bana eman zien, esanez: “Saiatu etekina ateratzen, ni itzuli bitartean”. Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”.

Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko. Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”. Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”. Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Heure esanetik kondenatzen haut, morroi gaizto hori! Bahekien gizon gogorra naizela, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. Nolatan ez duk, bada, nire dirua bankuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nian”.

Eta han zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoak, eta eman hamar dituenari”. Haiek erantzun zioten: “Jauna, lehen ere baditu hamar ontzako”. Eta nagusiak: “Hara nik esan: Duenari eman egingo zaio; ez duenari, berriz, daukan apurra ere kenduko. Eta errege nahi ez

Urteko 33. astea

San Edmundo, *martiria*

ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”». Hitz hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

Hona zeure ontzakoa». Hori da Jesusek, bere parabolan, zerbitzariaren ahoan ipini duen kontu ematea; nagusiak, bera urrun izango zenean, kudeatzeko utzi zion diruaren kontu ematea. Nagusiaren erreakzioak moduz gainekoa dela ematen du. Dirua galtzeko tarte benetan mugatua zen. Baina ezer gutxi axola zion nagusiar bere «ontzakoa» osorik gelditu izana. Inoiz ere ez zituen hartu bere ondasunak jabetza hutsean hesitutako edukitze huts bezala. Partekatu egin nahi izan zituen, galtzen irtengo bazen ere... Eta ematen du, Jainkoak munduari proposatzen dion bizitza kudeatze-kontzeptu eskuzabal horren ildo horretan dabilela. Bizirik den ontzako bakoitza inbertitu beharrekoa da elkartasunaren ingurumenean. Guztiak. Azken batean, zeure ontzakotzat hartzen dituzunak eta neure ontzakotzat hartzen ditudanak, egia esan behar badugu,... gureak baitira.

* * *

«Santua da historiaren benetako jabea; bera da, izan ere, historia egiten dutenen bihotza aldatzen duena» (*Marie Agnès Kernel, aipatua in Vida Nueva n° 3.282. 28. or.*)

Urteko 33. astea

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua
San Gelasio 1.a, *aita santua*

Apokalipsia liburutik 5, 1-10: Hila izan da Bildotsa, eta, bere heriotzaz, Jainkoarentzat irabazi ditu nazio guztietako gizon-emakumeak. **Sal 149:** Errege eta apaiz den herri egin gaituzu geure Jainkoarentzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara hori ikusteko gauza. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

Jesusek eta beraren negarrak Ebanjelioko beste gutxi batzuek bezalako dolorezko eszena eratzen dute. Oso aspalditik eta oso sakonetik datorren kutsua jariatzen duten malko dira. Jainkoaren lehen egitasmoan partaide zen Israel. Berari eman zitzaion Jesus buru-belarri, bere garaikideen historian aldaketa bat eragin ahalko zuelakoan, Jainkoa era berri batean hartuz. Gertaerek, ordea, ez zioten jarraitu desio haren letrari, eta judaismoak beste ildo bat aukeratuko zuen. Jesusek negar dagi bereek galdu duten aukera horrengatik, ulertu ezineko bidegabekeria horrengatik, ahalegin horri uko egiteagatik. Malko hauek, isuri ziren baino askoz beranduago ezagutu ditugunak dira. Gaur egun, Jainkoagan kontenplatzen ditugu, bere buruari egunero galdetzen dion Jesus berri bat den pertsona harengan: nola, beste behin, saia ninteke gizadiak utz diezadan bera maitatzen?

Urteko 33. astea

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*

Apokalipsia liburutik 10, 8-11: Hartu nuen liburuxka eta irentsi nuen.

Sal 118: Bai gozoa niretzat, Jauna, Zuk hitzeman!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 45-48.

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”. Zuek, ordea, “lapur-zulo” bihurtu duzue». Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-maisuak eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

Hona Jesusen keinurik eztabaidagarrienetako bat: indarkeriara jo du Tenplua dagokion bezain garbi gordetzeko. Ez zen izan arazo ezdeus bat. Beste gorabehera batzuen artean, Jesusen azken zoritxarrekoa eragin zuen kontu honek. Galdera asko harrotu ditu gertaera honek, ez baitator bat Jesusen estiloarekin. Jesus ez da Tenpluaren erakundeaz itsuturik dagoen fundamentalista bat, ez da purista erlijioso bat ere, intolerantea, liturgiari dagokionez. Jesusek hankaz bota du bere garaiko judaismoak Jainkoaren inguruan eraikia zuen murrua, Jainkoa atzemanezineko bihurtuz. Saltzaileak baztertuz, Jainkoagana benetan hurbildu nahian dabiltzanak barneratu nahi ditu. Posible da Jainkoa atzematea, eta ez ezin atzemana izatea. Beraren errukiak eta munduaz bizi duen aitatasun-ekimenak ez dute salneurririk. Horretan egia da ezen Jesusek saihestu egiten dituela gaizki ulertzeak... eta temati bihurtu dela.

Apokalipsia liburutik 11, 4-12: Bi profeta horiek samin larria sortzen zieten lurreko bizilagunei. **Sal 143:** Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20, 27-40.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia ezkondua seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme- alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?». Jesussek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalako baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoberen Jainko” deitzen diorean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat». Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan duzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

Askok duda-muda izan ohi dute zeruak berregingo ote duen, lurrean hondatu izan duguna. Jesusi galdera bihurri hau egin zioten: zazpi senarren, beren artean anaiak, alarguna gai izango ote zen bere familia berregiteko, guztiak berpiztuko zirenean. Jesus aukeraz baliatu zen infinituaz hitz egiteko: magma horretaz, zeinetan Jainkoak fundiarazten eta birmoldatzen baititu gure tranpa mentalak eta

Urteko 33. astea

San Klemente I.a, 4. aita santua eta martiria

San Kolunbano, abadea eta misiolaria

Migel Agustin Pro, dohatsua, apaiza, martiria, jesuita

zeruertz hertsia. Infinitu horretan, bide eman ohi diogu geure burua berrirudikatzeko. Emakume alargunak ez du erabaki beharrik izango bere zazpi senarren artean; zeruan, izan ere, gure oinarritzko harremanek beste altuera batean egingo dute hegan, beste sakontasun bat izango dute. Den-dena topo egiteko aukera izango da. Ezerk ez du izango jendea bereizteko indarrik; aitzitik, komunio edo elkartasun-bide izango da guztia: komunioa edo elkartasuna, alegia, azkenean pertsona izango garenon artean.

* * *

Itxaropenaren Ama

Aurrena izan bedi ogia,
gero askatasuna.
(Askatasuna gosearekin
gorpuaren gaineko lorea bezala da).
Ogia dagoen lekuan,
han dago Jainkoa.
“Arroza zerua da”,
dio Asiako poeta batek;
lurra arroz plater erraldoi bat da,
ogi eskerga bat, gurea,
guztien gosearentzat.
“Jainkoa ogi egiten da
lana behartsuarentzat”,
dio Gandhi profetak.
Biblia senide arteko ogi-menua da.
Jesus da Ogi bizia.
Unibertsoa gure mahaia, senideok».

(Pedro Casaldáliga,
Arantzazu egutegia 2023-04-16)

Danielen Profezia liburutik 7, 13-14.

Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Sal 92: Errege da Jauna, ospez jantzia.

Apokalipsia liburutik 1, 5-8.

Grazia zuei eta bakea Jesu Kristoren partetik, testigu leiala, hilen arteko lehenengo piztua eta munduko erregeen buruzagia denaren partetik. Maite gaituenari eta bere odolaz geure bekatuetatik askatu gaituenari, Jainko bere Aitarentzat errege eta apaiz den herri egin gaituenari, aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Amen. Hara, hodei artean dator! Denek ikusiko dute, baita zulatu zutenek ere, eta lurreko leinu guztiek hileta-negarra egingo dute harengatik. Bai. Amen. Hau dio Jainko Jaunak: «Ni naiz Alfa eta Omega, baden, bazen eta etortzekoa den hura, Ahalguztiduna».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 18, 33b-37.

Aldi hartan, Pilatok esan zion Jesusi: «Zu al zara juduen erregea?». Jesusek erantzun: «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteez esan dizute hori nitaz?». Pilatok esan zion: «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?». Jesusek erantzun: «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengo». Orduan, Pilatok esan zion: «Beraz, errege zara Zu?».

Jesusek erantzun zion: «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

Jesusek ez du utzi nahi Pilato nahasturik. Jakina, Errege da Jesus! Ez du zertan izan dudarik txikiena ere erromatar gobernariak. Indar trinkoa ordezkatzeko duen baten aurrean dago Pilato: egiaren indarra, gizadiari dion maitasun sakonak gidatua. Errege horrek, Pilatoren aurrean zutik, boterearen etiketa-falta du. Jesusek, errege-etiketatzat, erdi-biluzik egotea eta ahuldadea ditu. Tratu txarrak eta zauriak jasaten ari den atxilotu hark adierazten dio ezen bere Erreinuko nortasun-agiria bere izatea duela: bere izate soila, soilik Jainkoaren begiradapean aurki daitekeela eta Jesusengan beragan jarritako konfiantzan bakarrik sostengatua, eta ez inolako giza botere batean. Izatea da beraren botere guztia. Jesusek, eskuak loturik eta odoletan, ikusarazten dio Pilatori ezen bere inperioa, Pilatorena, ezin kendu izan diola bera azkeneraino maite duen Aita haren seme izateak. Horrelako egia bat pertsona bakoitzaren kontzientziaraino sartzen da eta han, nora inongo gobernaririk ezin baita sartu, askatasuna aldarrikatzen du, Jainkoaren seme-alaba garela jakitearena. Askatasun horretaz ez du hitz egitea entzun nahi inongo inperiok, norberaren oinarriak suntsi ditzakeelako. Horregatik, Pilatok benetako arerio bat du bere aurrean.

Urteko 34. astea

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*

Apokalipsia liburutik 14, 1-3.4b-5: Kristoren eta honen Aitaren izena bekokian idatzia zeramaten. **Sal 23:** Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 1-4.

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusen tenpluko diru-kutxara limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Sobera duzunik ematen badidazu, bihotzez eskertuko dizut. Hartzen dudak horrek laguntzen dit neure premien aurka borroka egiten. Askok dira eta ezin egin diet kasu guztiei. Bizitzeko gutxienekoak asko izaten dira beti. Beraz, eskerrak... Baina aukeraz baliatuz, adierazi nahi nizuke ez nazazula har premia osagabeen multzo bezala bakarrik. Ez naiz soilik gose, edo egarri, edo langabezian, edo zokoratu bat, edo lurralde gatazkatsu bat, edo hainbat gauza zeini ez baitatorkie batere gaizki sobera duzuna partekatzea. Premia horiek baino gehiago naiz. Soberakinak ematen dizkidanaren begiei begiratzen diet. Begi horietan zu zeu bilatzen zaitut esperantzarekin ezen esango didatela zeure burua ere ematen ari zarela zu, eta zu beste ezer ez. Horixe egin zuen Jainkoak emakume alargun behartsu harekin duela asko.

Urteko 34. astea

San Konrado, *gotzaina*San Joan Berchmans, *jesuita*

Apokalipsia liburutik 14, 14-19: Ekin uzta-biltzeari, heldua baitago lurreko uzta. Sal 95: Badator Jauna lurra epaitzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 5-11.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia: dena suntsituko dute». Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?». Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork engaina! Askok etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena». Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinuaren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

Jesusek geure mundua gatazkaz josiriko eszenatoki bezala ikusarazten digu. Iragartzen du Ebanjelioak eszenatoki horretan egingo duela bide, babesik aurkitu ezinda. Aldien balizko «azkena» etengabeko gatazka-bide batean barna gertatuko da. Nolabait esateko, Jesusen hitzetan atzeman beharra dugu ohar edo abisu bat, ezen Erreinua garatzeko geure esku hartzean biziko dugun esperientziaren zati saihestezin bat dela gatazka. Ohar hori oso egokia dugu jende askok apokaliptikotzat kalifikatu dituen aldietarako. Bide egitea gatazka izendatzea izango da eta argia posible dela ulertzea. Horrek ausartzea eskatzen du: hau bezalako gure mundu atsekabetu bateko problemak bereizten ausartzea, alegia; izan ere, gure bereizmenaren ekintza behar da behin betikoa non dagoen adierazi ahal izateko.

Apokalipsia liburutik 15, 1-4: Moisesen eta Bildotsaren abestia kantatzen zuten. **Sal 97:** Bai handiak eta harrigarriak Zuk eginak, oi Jauna, Jainko ahalguztiduna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko dizuete eta erasoko, sinagogetara eta karteletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigitik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatzen ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango. Zeuen gurasoek eta senideek berek, ahaideek eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiek gorroto izango dizuete nigitik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

Jesusek beti eskatu izan zien ikasleei beldurrik ez izateko. Beren ondoan sumatuko zuten Espirituaren presentzia baldintza gabea. Aski zuten ziur egotea norekin eta noren alde zeuden. Horrek aski bide emango zien beren burua hornitzeko, mota guztietako jendeak eta elkartek eta historiako edozein unetan kontra egingo zieten aurkaritzari aurre egiteko. Ebanjelioa zoru gotor izango zuten, artifizialtasunik gabeko. Beren segurtasuna egia ulergarri, bihotz-hondokoaz, jantzirik egotetik etorriko zitzairen. Korapilo gabetu egiten du Ebanjelioak gizakia, nahasgarritasunik gabe uzten beraren defentsak, askatu beraren engainuak, inor bortxatu, oihu egin edo behartu beharrik izan gabe. Bere defentsa propioa du Ebanjelioak. Hor du bere adorea: beldurra kentzen duena geure egian garena izateko.

Urteko 34. astea

Santa Teodora, *abadesa*, *San Basilioren ordenakoa*
 San Honesto Nimeskoa, *apaiza*

Apokalipsia liburutik 18, 1-2. 21-23; 19, 1-3.9a: Erori da, erori, Babilonia handia! **Sal 99:** Zorionekoak Bildotsaren eztei-otordura deituak!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 20-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jerusalem gudarostez inguratua ikustean, jakizue gainean duela bere hondamendia. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; Jerusalem barruan daudenek alde egin bezate, eta soroan direnak ez bitez hirian sartu. Zigor-egunak izango dira, orduan beteko baita Liburu Santuan idatzirik dagoen guztia. Dohakabeak egun haietan haurdun direnak edota bularreko haurrak dituztenak! Estualdi handia izango baita lur honetan, eta haserre-zigorra herri honentzat. Ezpatapean eroriko dira eta nazio guztietara eramango dituzte gatibu; jentilek zapalduko dute Jerusalem, nazioentzat Jainkoak erabakitako epea erabat bete arte. Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurtean herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorkionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita. Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz hodeian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena».

Historiaren azkenaren aurrean, Jesusek diotse: «Jaiki zaitzte». Zutik behar dugu egon. Zutik egin behar diogu harrera guregana datorrenari, «gizonaren Semeari». Etorkizunetik dator eta gure esperantzaren muinaren muintetik, gure orainerantz ari da pausoak egiten. Aldien azkena topo egite bat izango da, jakin zutenentzat, bera zela zinez gauza ororen Jauna. Eta topo egite horretarako zutik behar dugu egon. Horrela besarkatu ahal izango dugu. Beldurrak ez du sekula inor ere zutik jartzen, baizik eta makurtu egiten zaitu eta ezkutatu. Konfiantza da jaikitza eragiten dizun gauza bakarra. Konklusioa da, ezen debekaturik dugula beldur izatea. Etorkizunak aurkitu egin nahi gaitu! Bera, Jauna, delako, eta ez beste inor, gure oraina bihurtu nahi duena.

San Zernin Tolosakoa (Frantzia) (Sazernin), *gotzaina eta martiria, Iruñeko zaindaria.*

Bernardo de Hoyos, *dohatsua, apaiza, jesuita*

Apokalipsia liburutik 20, 1-4. 11-21, 2: Hildakoak nor bere egintzen arabera epaitu zituzten. Jerusalem berria ikusi nuen, zerutik jaisten. **Sal 83:** Hona Jainkoaren bizilekua gizakien artean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 29-33.

Aldi hartan, Jesusek adibide bat jarri zien ikasleei: «Begira pikondoari edota beste edozein zuhaitzi: kimu-berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue hurbil dela uda. Era berean, gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erregetza. Benetan diotsuet: gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok. Zeru-lurak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko».

Urte Liturgikoa aste honetan amaituko dugu. Datorren igandean gogoratzera itzuliko gara, hasieratik, salbamen-historia; abendualdia hasiko dugu, eta Liturgiaren azken urrats hauetan, Hitzaren mezuak bereiztearen gomendioa jarriko digu erdigunean. Behin eta berriz eskatu du hori Jesusek. Eguneroko errealitatean Erreinuarekin zerikusirik ez duten gertaerak pilatzen dira; halere, haren presentziaren zantzu begibistakoekin nahasten dira. Alabaina, zantzu haiek bereizi beharrekoak izaten dira beti. Ez genituzke nahasi behar geure pozak, zinez behin betikoak direnekin. Honek sakon apal izatera behartzen gaitu geure lorpenekin, eta geure helburuak erlatibizatzen. Jainkoa espero dugun guztia baino handiago da eta gure igurikimenean gainetik dago.

Urteko 34. astea
SAN ANDRES, APOSTOLUA

San Paulok Erromatarrei 10, 9-18.


Zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko». Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren izenari dei egiten diona salbatuko da». Nola, ordea, dei egin, harengan sinesten ez badute? Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nork hots eginik ez bada? Nola hots egin, hartarako bidalirik ez bada? Liburu Santuak dioen bezala: «Bai ederrak berri onak ekartzen dituztenen oinak!». Ez diote, ordea, denek harrera ona egin Berri Onari. Isaiasek dio: «Jauna, nork sinetsi du gure mezua?». Beraz, mezutik dator sinestea, eta Kristoren berri ematea da mezua. Eta nik galdetzen dut: «Ez al dute entzun?». Bai, noski: «Lurbira guztira zabaldu da haien hotsa, munduaren bazterteraino haien mezua».

Sal 18: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 18-22.

Aldi hartan, Jesusek, Galileako itsasbaterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Beti izan da gauza bitxia Jesusek bere hurbileneko ikasleei eman ohi zien izena: «giza arrantzale» deitu ohi zien. Esapide horrek keinu linguistiko eta atsegin bat egin zion ikasle haietako askoren lanbideari, baina askoz harago zihoazen konnotazioak zituen bere baitan. Giza arrantzale izateak ez du inolako zerikusirik gizakiak engainatzearekin, gizakiari gaitasuna kentzearekin, beraien askatasuna lurrinduz guztiak lanbide jakin batera biltzearen aitzakiaz, zuzenena izanik ere lanbidea. Giza arrantzale izatea manipulatzaren antipodatan dago. Giza barnekoitasuna biziago egitean datza, nor bere baitatik irtetera eragitean, norberaren maitasun-gaitasuna sustatzean. Jesusek ikasleei proposatu dien egitekoa pertsona batzuekin topo egitean datza, topo egite horietan beraierengan dagoen sakontasuna hedatu dadin. Ebanjelioa ez da ari egitasmo abstraktuez: gizaki konkretuez ari da, halakoak «arrantzatzeko», Jainkoagandik onartuz joan daitezen hark beraientzat nahi duen eraldaketa. Eraldatze horretan ari da taupaka beraien etorkizuna. Hori da arrazoia «gizakiak arrantzatzen» jarduteko: gauzarik garrantzizkoena, azken batean, ez dira gauzak, baizik eta pertsonak eta berauen baietza Jainkoak gizadiari eskaintzen dion Biziari.



Guztion ETXEAREN Zaintzan partaide

ABENDUA / GABONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Itxaropenaren erromesen alde: Egin dezagun otoitz Jubileu honek fedean sendo gaitzan, gure biziaren erdian Kristo piztua sumatzen lagun diezagun, eta kristau itxaropenaren erromes eralda gaitzan.

Abendualdiko 1. astea. C urtea

San Leontzio, *gotzaina*Santuak: Edmundo Campion, Roberto Southwell,
apaizak, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak****Jeremias Profetaren liburutik 33, 14-16.**

Hau dio Jaunak: «Begira, badatoz nik Israelgo herriari eta Judako herriari emandako hitz onak beteko ditudan egunak. Egun haietan eta garai hartan, legezko muskila sorraraziko diot Davidi, eta zuzenbidea eta justizia ezarriko ditu lurrean. Egun haietan Juda salbatuko da eta Jerusalem lasai biziko. Hona hiriari emango dioten izena: “Jauna gure zuzentasun”».

Sal 24: Jauna, Zugana jasotzen dut gogoa.**San Paulok 1 Tesalonikarrei 3, 2-4, 2.**

Senideok: Egin dezala Jaunak gero eta handiago zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna, handia den bezala guk zuentzat dugun maitasuna. Horrela, sendo dezala zuen bihotza, Jesus gure Jauna bere santuekin etortzean, santu eta esankizunik gabe aurkez zaitezten gure Aita Jainkoaren aurrean. Gainerakoan, senideok, eskari hau egiten dizuet, arren eta arren, Jesus Jaunaren izenean: Jainkoari atsegina emateko nola bizi gugandik ikasi zenutenez, saia zaitezte gero eta gehiago horrela bizitzen. Badakizue nolako irakaspenak eman genizkizuen Jesus Jaunaren izenean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 25-28. 34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurrean herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorkionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita. Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta

* San Karlos de Foucauld (1858-1916-12-01ean frantsesen kontrako talde batek hila)

aintza handiz hodeian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena. Zabiltzate, bada, kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hordikeriaz, mozkorkeriaz eta bizitza honetako kezkaz, egun hura ustekabeen gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

Aabendualdia hasi dugu. Aro honek besotik helduta dakar bere itxaropen-mezu sendoa. Orainaldia ez da dena. Orainaldia etorkizun izatera deitua dago eta etorkizun desberdina gainera. Abendualdiaren mezuak, ezerosotasuna dakarkio gure garaiari, eraldatu beharra txertatzen baitio. Unean unekoari gehiegi itsasten gatzazkio. Etorkizunerako ezer prestatu behar ez balitz bezala bizi gara. Dena orainaldi bihurtzen dugu: edozer gauza probatu nahi izaten dugu, ez dugu ezer galdu nahi, aukeratzea saihestu egiten dugu eta harremanak eta proiektuak hausten ditugu, oraindik ere arakatu gabeko aukerak badaudela harro esanez. Ia-ia zera diogu, hurrena datozen belaunaldiek berek konpondu beharko dituztela beren arazoak. Abendualdiak jada ohartarazten gaitu «zeinuak izango direla eguzkian, ilargian eta izarretan». Gauzak beti berdinak ez direla izango baieztatzeko modu bat da. Berririk txarrena da zigorgabetasunean iraun nahi dutenentzat eta giza hausturak luzatzea nahi dutenentzat, baina berririk onena da alderantzizkoaren zain daudenentzat. Zuzengabekeria ez da betirako izango eta mina ez da iraunkor bihurtuko. Eukaristiako otoitzetako batek esaten duen moduan, iritsiko da unea «inor goibel egongo ez dena eta inork negarrik egin beharko ez duena». Ongiak, badu noski etorkizuna! Eta horregatik entzuten dugu gustura Jaunaren agindua: «Iraun zutik». Horrela altxatu ahal izango ditugu beren itxaropen-gabezieta lurrean etzanda daudenak.

* San Karlos de Foucauld (1858-1916-12-01ean frantsesen kontrako talde batek hila)

Abendualdiko 1. astea

Santa Bibiana, *birjina eta martiria*San Viktorino, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 2, 1-5: Jaunak herri guztiak bildu Jainkoaren erreinuan, betiko bakea goza dezaten. **Sal 121:** Goazen pozik Jaunaren etxera!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 5-11.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut». Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbaitegiteko esan, eta hala egiten du». Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin».

Gertakari honetako alderik zirraragarrienetako bat, ehuntariak, boteretsua denak, onartzen duena da: ez du bere burua duin sentitzen Maisua etxean hartzeko. Ez da itxarotekoa halako jarrerarik, emana zaion halako agintaritzaren jaun eta jabe dela sentitzen duen baten aldetik. Ehuntariak irudikatzen du, hain zuzen ere, une hartan Jesus inguratzen duten guztien artean, bere duintasunaz zalantzarik izan behar ez lukeen pertsonaia bakarra. Hasteko, bertakoentzat zein arrotzentzat, zalantzan ezin jarria da. Baina bestalde, bakarra da halaber, Jesus bere etxean hartzeko duintasun hori behar adinakotzat jotzen ez duena. Ehuntari harengan kristau-fedearen berezitasuna islatzen da. Jesusen Jainkoagan sinestea honetan datza: gure begibistako txikitasuna eta txikitasun horretan... sortu gintuenaren handitasuna, biak batera eta elkar ukatu gabe, ikustean.

Isaias profetaren liburutik 11, 1-10: Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da. **Sal 71:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 21-24.

Aldi hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik». Eta ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun».

Espirituak leherrarazi egin du Jesusengan esker ona, oharkabea pasatzen ez den erreakzio batekin. Bere pozean, Jesusi, bere Aita eskertzea atera zaio honek duen jende xumeari agertzeko moduagatik eta beragan egin duenagatik hori ulertzeko. Ebanjelioa blai eginik dago horrelako esker-emateez. Horrela ulertzen da Jesus behartsuengandik hain hurbil agertzea. Berri Onaren hondoko melodia bezala da. Beldurgarria izango litzateke melodia hori gabeko mundua. Hori gabe, inoiz ere ez genuke urratsik emango onurarik ekarriko ez baligu. Besteengatik kezkatzea saihestuko genuke. Bihotzari hatsa kenduko genioke eta geure hauskortasunean elkar maitatzeari utzi egingo genioke. Eta goibeltasunagatik antzemango genuke hori: Jesus hain kontsolatua egotearen arrazoia zehazki zergatik den asmatzen ez duten «jakintsuak» eta «adituak» bezain goibel egongo ginatke.

Abendualdiko 1. astea

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren
1508-Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*

Xabierko Frantziskoren Meza

Sofonias profetaren liburutik 3, 9-10. 14-20.

Honela mintzo da Jauna: Egun hartan, herrien ezpainak garbi bihurtuko ditut, guztiek Jaunaren izenari dei egin diezaioten eta guztiek bat eginik zerbitza nazaten. Nire gurtzaileek, sakabanatu nituenek, eskaintzak ekarriko dizkidate Etiopiako ibaiak bestaldetik. Egin poz-irrintzi, Sion hiri! Egin oihu alai, Israel! Poztu zaitetz bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem! Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago: ez zara gehiago ezeren beldur izango. Egun hartan, honela esango diote Jerusalemi: «Ez beldur izan, Sion! Ez bitez erori zure eskuak! Jauna, zure Jainkoa, zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu. Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala». Nik bilduko ditut, Jerusalem, zugandik urruti eta jairik gabe triste zeudenak. Bai astuna zure lotsa! Aldi hartan, zapaltzen zaituzten guztiak suntsituko ditut, ezinduak salbatuko, sakabanatuak bilduko, eta gorapenez eta ospez beteko lotsaz bizi izan diren toki guztietan. Aldi hartan, herrira ekarriko zaituztet eta bilduko; orduan, ospetsu eta goragarri egingo zaituztet lurreko herri guztien artean; zeuen begi aurrean aldatuko baitut zuen zoria» –hau dio Jaunak–.

Sal 95: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikéi agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berri, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan

Abendualdiko 1. astea

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren
1508-Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*

hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoan izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Agerpen honetan, beste batzuetan bezalaxe, Jesus piztua bere ikasleen aurrean jarri da. Eta aurrean jarrita, mugitzera eragin die, bakoitza jarria zegoen lekutik mugitzera. Piztueraren aurretik denbora, geldi egoteari emana dago. Ostiral Santu izugarriaren ondoren, beldurrak ito egin du bizitza. Baina Jesus piztua agertu da... eta aurrean jarri da. Berritako ere bidea markatu du, norabide zuzena adieraziz. Ez gaizkiaren gaur egungo egundokotasunak, ez guk geuk: ezerk ez gintuzke gerarazi behar Jesus piztuak eskatzen diguna entzuteko. «Hots egin Berri Ona alde guztietan», hori da ikurra, Jesus guri gertatu zaigun aparteko berria baita eta beste pertsona askori ere gerta dakiekeena. Hala izan dadin, gure aurrean jarri da. Beti bezala, berari jarraitzea soilik falta zaigu.



Xabierko San Frantzisko,
apaiza, jesuita (Misiolarien Zaindaria)

Abendualdiko 1. astea

San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*
Santa Barbara, *birjina eta martiria**

Isaias 25, 6-10a: Jai-otordua emango die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak. **Sal 22:** Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 29-37.

Aldi hartan, Galileako itsasbazterrera joan zen Jesus; mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkieten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harrিতua gelditu zen ikusten zuenaz: mutuak hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goستن hasi ziren. Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezen». Ikasleek esan zioten: «Nondik atera guk basamortu honetan horrenbeste jende asetzeko lain ogi?». Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue?». Haiek erantzun: «Zazpi, eta arraintxo bakar batzuk». Lurrean esertzeko agindu zion jendeari; gero, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker-otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Denek jan zuten ase arte, eta gelditutako hondarrekina zazpi saski bete bildu zituzten.

Jesusek ogi izan nahi du. Dakarrena ez da lehen mailan ogi materiala. Bere burua dakar: bere bizitza –bere-berea–, bizitza horren funtsa –bere Ebanjelioa–, bizitza horren bizimodua –Nazaretetik Jerusalemerako bidea–, bizitza horren ortzi-muga –erregetzan diharduen bere Aita–: Jesusek horretaz guztiaz elikatzen gaitu. Gure zioen iturria hornitu nahi du, sakon eta gizatiar egin, gure beharrak

* Pio Heredia (1875 Larrea [Araba]-1936 Santander) eta lagunak, *Cobrezesko zistertarrak, dohatsu eta martiri*

«ase arte» baretzeko behar den errealtatearen pilare izan daitezten. Elizak leku edo espazio izateko eginkizuna jaso du, bertan eukaristia-eta senidetasun-ogia itxaropen- eta elikadura-gosea jasaten dutenei banatua izan dadin, baina jakinda, ogi batzuez eta arrain gutxi batzuez gainera, Biziaren Ogia ere baduela.

* * *

Jesus, Kristo,
Ebanjelioa zertxobait ezagutzen badugu,
gure artean argi egiten du.
Zure presentzia,
gutxi ulertu arren
bera guretzat argi da.

Jesus, Kristo, zure bila gabiltza,
noizbehinka ilunpetan,
zu beti hor zaudela jakin dugu.
Zuk argitzen dituzu gure beldurrak.
Badakizu,
ez genuke ilunpea
inoiz aukeratu nahi,
beti zure barne argia nahi genuke.

(Roger Anaia, Taizé)

* Pio Heredia (1875 Larrea [Araba]-1936 Santander) eta lagunak, *Cobrezeko zistertarrak, dohatsu eta martiri*

Abendualdiko 1. astea

Santa Krispina, *martiria*San Sabas, *abadea*San Mauro, *martiria*

Isaias 21, 1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala. Sal 117: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7. 21 .24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen. Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

Ongiak ez du teoriekin hitz egiten: adibideekin baizik. Nahiago izaten ditu orain eta hemen gauzatutako gertakari zehatzak. Hala ez balitz, jada ez litzateke izango propioki ongia, zuzena edo egiazkoa, beste zerbaiz baizik. Moduren batean, konbentzitu egin behar dugu, ontasunik, zuzentasunik eta egiarik ez dagoela. Direnak pertsonak dira, aldarrikatzen dutena zehazki praktikan jartzen dutenak. Idealak aurpegiak behar ditu; horizonteak urrats zehatzak. Bizitza da gure hitzaldirik onena. Beraz, ez da harritzekoa, Jesusek, hori dela-eta, ohartarazi izana, berari «Jauna» deitzea, bidearen erdia egitea dela soilik. Beste erdia, Ebanjelioa benetan gauzatzea da: «praktikan jartzean» antzeman eta ikusten dugun hori sentitzea, harik eta, betirako bizi ahal izateko, «harkaitz gainean egindako etxearen» eitea hartzen duen arte.

Abendualdiko 1. astea
San Nikolas, *gotzaina*

Isaias profetaren liburutik 29, 17-34: Egun hartan ikusiko dute itsuen begiek. Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 27-31.

Aldi hartan, Jesus handik ateratzean, bi itsuk jarraitu zioten, oihuka: «Erruki zakizkigu, Daviden Seme!». Etxera heltzean, itsuak hurbildu zitzaizkion eta Jesusek esan zien: «Sinesten al duzue hori egin dezakedala?». Haiek erantzun: «Bai, Jauna». Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez: «Gerta bekizue sinesten duzuen bezala». Eta ireki egin zitzaizkien begiak. Jesusek zorrotz agindu zien: «Begira, gero, ez dezala inork ere jakin». Baina haiek, atera orduko, eskualde guztian eman zuten Jesusen berri.

«**G**erta bekizue sinesten duzuen bezala». Gure garaikide askok utziko lioke hortik aurrera irakurtzeari. Fedea, beren esparru subjektibora murrizten dute, ate-barrukora. Ez dute onartzen espazio horren muga zeharkatzerik. Sinestea, gauza erreala dena inguratzen duten urruneko mugetan gelditzen da, eta beraien bizitzan ez du inolako eraginik. Ukiezin dena ez da munduaren funtsezko zati. Aldiz, Jesusentzat, eriak sendatzean lehenik kezkatzen duena eta axola zaiona, fedea bertan presente dagoela egiaztatzea da. Sinestea, ukiezin dena aitortzea da: gurekin harremanak dituen Jainkoa aitortzea. Harreman horien markoan gertatzen da garrantzitsuena. Jesusek fede deitzen duen harreman ikusezin horren bidez iritsi dira bi itsuak ikustera. Eta lekukotza emango dute, ez soilik ikusten dutela, baita norengatik ikusten duten ere: «Eskualde guztian eman zuten Jesusen berri». Eta bigarren hori da lehenengoa lortzen lagundu diena.

Abendualdiko 1. astea

San Anbrosio Milangoa, gotzaina eta eliz irakaslea

Isaias profetaren liburutik 30, 19-21.23-26: Errukituko zaizu Jauna zeure deiaren hotsera. **Sal 146:** Zorionekoak Jaunagan itxaro dutenak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 35-10, 1. 5a. 6-8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara». Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabiltzan Israel herriko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

Ba al dago behar adina errukirik munduko sufrimendua deuseztatzeko? Nork egingo du oihu senidetasun-gabeziaren aurka? Hori galdetzen du Jesusek ikusten duena ikusita: jende «akitua eta abandonatua». Eta orduan irrikatzen ditu min zabal eta sakon horren alboan egongo diren «artzainak». Halako tamainakoa da alboan edo ondoan egote hori, Jesusek uste baitu, mina sentitzeari inoiz uzten ez dion errai mugagabeko Jainkoak goiargitua eta eutsia izan behar duela. Errai horietan datza errukiaren eta konpromisoaren iturria. Jesusek, Jainkoa bere baitan ukituta dagoela jakin dadin zabaltzeko aginduarekin bidaltzen ditu bere ikasleak. Eta esan dezatela hori Jainko horrek daukan errukia praktikatuz: mugarik eta balaztarik gabea, alegia.

Hasiera liburutik 3, 9-15. 20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?». Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?». Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?». Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi heu eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok». Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Sal 97: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.

San Paulok Filipinoarrei 1, 4-6. 8-11.

Senideok: Pozik egiten diot beti otoitz Jainkoari zuen guztion alde, lankide izan baitzaituztet Ebanjelioa zabaltzeko eginkizunean, lehenengo egunetik orain arte. Ziur nago eginbide on hau zuengan hasi duenak burutu ere burutuko duela Kristo Jesus etorriko den eguna arte. Testigu dut Jainkoa, zein maite zaituztedan guztiok Kristo Jesusen maitasun bihotzekoaz. Eta hau da nire otoitza: zuen maitasuna zabalduz joan dadila jakintzan eta sentiberatasunean gero eta biziago, egokien dena bereizten jakin dezazuen. Horrela, garbi eta esankizunik gabe iritsiko zarete Kristo etorriko den egunera, Kristo Jesusen bitartez dugun zuzentasunaren emaitzez beterik, Jainkoaren aintza eta gorespenerako.

Abendualdiko 2. astea

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Gaur, Mariak bazuela zerbait ospatzen dugu, bera salbamenaren historian berezi bihurtzen zuena. Berak Jesus ikusi egin zuen: susmatu egin zuen nor izan zitekeen, asmatu egin zuen harengana bere herriarentzat lehenaldi bat eta geroaldi bat gauzatuko zirela, eta onartu egin zuen, Jainkoak baietsi egingo zuela, haren bitartez, gu eta gure iguripenak baino handiagoa dela. Ikuspegi hori ezin zuen izan edozein batek. Mariak askatasun izugarria zuen bere esku, ordu arte ezezaguna, geurekoikeriak gugan zabaldu ohi dituen mila ikuspegik ezin behartu eta gainditu zuen modukoa. Gure aurreko belaunaldiek salbuespen gisa

Abendualdiko 2. astea
ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

hartu izan dute askatasun hori. Mariak saihestu egin zituen nonahikoa den eta denok harrapatzen gaituen gaitz horrek eragindako nagikeriak. Hain da sendoa gaizkiaren presentzia, gizateria benetan harrapatuta dagoela itxuraz garaiezina den sare horren jardunean. Sare horri jatorrizko bekatu izena eman zitzaion. Baina fedean gure arbaso izandakoek esan zuten Mariarengan ohikoa ez den zerbait gertatu zela: gaizkiak ezin izan zuen estali, hautsi egin zen haren aurrean eta erabateko lege izateari utzi zion. Horregatik, gaur ez dugu ospatzen Mariaren pribilegio bat. Denentzako jaieguna da: izan ere, gaizkiak, ez baitu munduaren historia osoro eta erabat erabakitzen.

Abendualdiko 2. asteaSanta Leokadia Toledokoa, *martiria*.

San Joan Diego Cuauhtlatotzin

*(Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea)***Isaias profetaren liburutik 35, 1-10:** Jainkoa bera dator zuek salbatzera.**Sal 84:** Horra gure Jainkoa; berbera dator gu salbatzera!**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 17-26.**

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseriak Galileako eta Judeako auzo guztietatik eta Jerusalemdik etorritako fariseu eta lege-maisu batzuk. Eta Jaunaren indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion. Hartan, etorri ziren gizon batzuk elbarri bat ohatilan zekartela eta barrura sartu nahi zuten, Jesusen aurrean ipintzeko. Baina jendetzagatik ez baitzuten aurkitzen nondik sartu, etxe gainera igo eta, teilak kendurik, ohatila eta guzti eraitsi zuten erdira, Jesusen aurrera. Haien sinesmena ikusirik, Jesusek esan zuen: «Gizona, barkatuak dituzu bekatuak!».

Lege-maisu eta fariseuek zioten beren baitan: «Nor dugu biraoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?». Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zer burutapen darabilzue zeuen baitan? Zer da errazago esaten: “Barkatuak dituzu bekatuak” ala “Jaiki eta zabiltza?”». Hara, bada, orain ikusiko duzue Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki zaitez, hartu ohatila eta zoaz etxera”». Jaiki zen hura berehala denen aurrean, hartu zuen etzanik zegoen ohatila eta etxera joan zen, Jainkoa goretsiz. Guztiak harriturik gelditu ziren eta Jainkoa goستن zuten. Eta, beldurrez beterik, honela zioten: «Harritzekoak ikusi ditugu gaur».

Aabenduen ildoan, Hitzaren liturgiak Lukasen araberrakozko kontakizuna eskaintzen digu gaur sendakuntza ezagun horretaz. Jesus egokieraz baliatu da bere nortasunaz azkoinari bira bat gehiago emateko. Barkatzeko Jainkoaren boterea ematen dio bere buruari, eta perlesia duena bat-batean osatuta nabarmentzen du botere hori. Barkatzea, Kreazioa berregiteko bide bat da. Barkamena, etengabe

birsortzeko modu bat da. Izan ere, gainerakoekin eta Jainkoarekin hautsita dauden harremanak berrezartzeak, berriro berradiskidetzeak, sortua izan dena bere onera ekartzen du. Barkatuz itzultzen da bizia. Adiskidetasun-etak gerarazi eta ahulduta uzten gaitu. Horregatik, perlesiadunak, zutik jarri eta «etzanda zegoen ohatila hartu zuenean», denei agerian jarri zien bizitzari gertatzen zaion miraria barkamenaren bulkada sentitzean.

Abendualdiko 2. astea

Andre Maria Loretokoa (Italia)

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*

Isaias profetaren liburutik 40, 1-11: Jainkoak bere herria kontsolatu.

Sal 95: Hara, indarrez jantzia etorriko du gure Jainkoa!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino. Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Gure gizartea irabazirik handienak lortzeko irizpideen mendeko da eta bost axola zaizkio «galdutako ardiak». Ez dira ardi horiek batere emankor; gainera, beraiek zaintzeak kostu handiko konpromisoa dakar pertsonentzat eta erakundeentzat. Beste behin, parabolak begibistan jartzen digu Jesusek gauzak ikusteko zuen modua. Beharrian puntualak atzematen ditu, eta ez generikoak, eta haiei indar osoz erantzuten die. Jendarteko beraren bizitza arreta partikularrez eta keinu zehatzez beteta dago. Berak arlo kualitatiboa du gidari eta ez kuantitatiboa. Horrela, berriro berresten du Jainkoak gure eskemekiko desberdinak direnekin pentsatzen eta jokatzeko duela. Baita beste bihotz-jarrera batekin ere: edozein tristura-zantzu alde batera uztea eragozten dionarekin, tristura horrek azaltzen du-eta ardi asko galdu egiten direla.

Abendualdiko 2. astea
San Damaso, 37. aita santua

Isaias profetaren liburutik 40, 25-31: Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adorea. **Sal 102:** Bedeinka beza nire arimak Jauna!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Gaur egun bizi ditugun sasi-erlijioen merkatuan, ongizatea da izarretako bat. Jainkozkoa egoera atsegin eta arazo gabeko batekin bateratzen da, eta hori da egoera bikaina gaurko gure gizarteetako bizi-erritmo estresagarriekin bizi direnentzat. Jesusek ere ez dio uko egin atsedena agintzeari. Beraren Ebanjelioak baketze pertsonal eta kolektiborantz gidatzen du jendea, fariseuen legalismo itogarriak «nekatu eta jota» bizi zen hainbatek sentitzen zuena baino askoz ere soilago eta eskuragarriago baterantz. Alabaina, Maisuak ez du ukatzen bere atsedeen-eskaintzak alde gogor eta saihestezina ere baduenik. Ez dio uko egiten maitasunari aurre egiten dionak sortzen duen «uztarriari» ere. Lepoan hartzen jarraitu behar, oso eramangarria eta arina izanik ere. Horrekin, aurreikus zitekeena gertatzen da: espiritualtasun lasaigarrien hornitzaileek, Ebanjelioa kendu egin dute beren eskaintzatik.

Abendualdiko 2. astea

San Justino, *martiria*Santa Amalia, *martiria*

Andre Maria Guadalupekoa, Mexikon

Isaias profetaren liburutik 41, 13-20: Ni Neu nauzu lagun, Israelgo Santua. **Sal 144:** Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 11-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino handiago da. Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatu da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu. Belarririk duenak entzun beza».

Jesusek errieta egin zien arazo seriosa sufritzen zutela aurpegiratu ziotenei, benetan esanguratsua zena ez zenaren kontra aitortzean. Hala gertatua zitzaion Israeli ere. Jainkoagan sinesteko berak izandako aukera errefusatuen historia oso luzea zen. Joan Bataiatzailea bera ere ez zen zorte handirik izaten ari bere garaikideekin. Eta betiko galdera ere itzulinguruka zebilen Jesusen beraren kasuan: zer falta da behin betikoa dena bereizteko? Jesusek seinalatzen du arrastoa Joanez esatean «hau da etortzekoa zena, onartu nahi baduzue...». Ontasunak bere fintasuna du ezaugarri: inor ez behartzekoa. Inoiz ere ez du beldurra argudiotzat erabiliko. Aske denarentzat soilik da garbia; izan ere, askatasunean nahi du Jainkoak bere burua agertu, eta ez askatasun-gabezian.

Abendualdiko 2. astea

Santa Luzia, *birjina eta martiria*San Eugenio, *martiria*

Isaias profetaren liburutik 48, 17-19: Nire aginduak aintzakotzat hartuko bazenitu! **Sal 1:** Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 16-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeinen antzekoa dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek aienerik ez”. Izan ere, etorri zen Joan Bataiatzailea, ez jan ez edan egiten ez zuela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoia».

Egiak alde zureko zerbait behar du: onartua izateko borondatea. Borondate hori ez badago, begi-bistakoa dena bera ere ukatu egingo da. Eskarmentuak erakusten duenez, gure adimena gidatzen duena, bere barnean duen bihotza da. Buruak zuzen arrazoituko du, arima benetakoa denarekin topo egiteko egarritz baldin badago. Beste horrenbeste gertatzen da espiritu-bizitzan ere. Bereiztea ezinezkoa da, inora heltzeko asmorik ez denean. Hori deitoratzen du Jesusek ere: beraren aurkari izan zirenek bila ibiltzeko zuten gogo hotza. Funtsean, hostasun horrek salatu egiten zuen Jainkoa tokiren batean jarria zutela, baina, egia esateko, ez beren aurrean, Jainkoak berak topaketa berri baterako dei egin ziezaiekeen lekuan. Topatzeko gurari hori, Jainkoarena izango zen noski... baina ez beraiena.

Abendualdiko 2. astea

Gurutzeko San Joan, apaiza eta eliz irakaslea, karmeldarra

Siraken liburutik 48, 1-4, 9-11: Berriz etorriko da Elias. Sal 79: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nola diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?». Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara zer diotsuedan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiela.

Jakintsuena da noski ulertzea, norberaren bizitza kontakizun handiago baten zati dela, zentzua eman dionarena hain justu. Eta alderantziz: hondoko kontakizun horri ezikusiarena egiteak, kontatzeko historiarik ez balego bezala, gure nortasuna haizearen esku uzten du. Horregatik da, bada, hil ala bizikoa, zein den jakitea guk laguntzen dugun historia, kontatuz jarraituko duena. Joan Bataiatzaileari etengabe leporatzen zioten beraren zertarako galdera. Liberazio bat aipatuz erantzuten zien, zeinetan berak kapitulu bat baitzuen, bakarra soilik baina funtsezkoa. Bera ez zen historia hartako izar nagusia. Beste bat izango zen Mesias. Baina horixe zen Joanen nortasun-alaitasuna: han zegoen bera historiak jarrai zezan eta hurrengo kapitulura, erabakigarriara, pasa zedin.

Abendualdiko 3. astea
Santa Silvia, *aitorlea*
San Valeriano, *gotzaina*

Sofoniasen Profezia liburutik 3, 14-18a.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri! Egin oihi alai, Israel! Poztu zaitez bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem! Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango. Egun hartan, honela esango diote Jerusalemi: «Ez beldur izan, Sion! Ez bitez erori zure eskuak! Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu. Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala».

Sal: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6 : Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.

San Paulok Filipinoarrei 4, 4-7.

Senideok: Zaudete beti pozik Jaunagan; berriro diotsuet, zaudete pozik. Ezaguna izan bedi gizaki guztientzat zuen bihotz ona. Hurbil da Jauna. Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanek. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3, 10-18.

Aldi hartan, honela galdetzen zion jendeak Joan Bataiatzaileari: «Zer egin behar dugu?». Eta hark erantzuten zien: «Bi soineko dituenak eman biezaio bat ez duenari, eta jatekorik duenak egin beza gauza bera». Etorri zitzaizkion zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten: «Maisu, zer egin behar dugu?». Eta hark esan zien: «Ez eskatu erabakia dagoena baino gehiago». Gudariek ere galdetu zioten: «Eta guk zer egin behar dugu?». Hark erantzun: «Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salaketaz ere; baizik eta konforma

Abendualdiko 3. astea

Santa Silvia, *aitorlea*San Valeriano, *gotzaina*

zaitezte duzuen soldatarekin». Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen ez ote zen Joan Bataiatzailea Mesias izango. Joanez guztiei adierazi zien: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baina badator ni baino ahaltsuago dena eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Hark Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea, larraina garbitu eta garia mandiora biltzeko; lastoa, berriz, itzal ez daitekeen suan erreko du». Hauen eta beste aholku askoren bidez, Berri Ona iragartzen zion herriari.

Aabendualdiak goiargiz betetzen jarraitzen du Joan Bataiatzaileak ematen dizkion bulkadekin. Beraren aldarria da, berria ez dela etorriko guretzat magiaren fruitu den kanpoko gertakari bat balitz bezala. Ez da etorriko ere mesianismo erraz baten irtenbide aurreprestatu baten moduan ere. Benetan, Mesias bat etorri da, baina haren etorrerak gure onarpen-jarrera eskatzen du aldeztu aurretik. Joan Bataiatzaileak uste du, Jainkoagana bihurtzea, konbertsioa, gurekin bizi nahi duenarekiko keinu egoki bat dela. Hori izango litzateke behar bezalako prestakuntza egokia, datorrenarekin behin betiko topaketa betea egin ahal izateko. Joanez konbertziarazi nahi du jendea, ezen prestakuntza hori edonork egin dezakeela. Baztertu dezagun nahi du ideia hau: gertatu behar duen berritasuna ez dela beste mundu bateko pertsonentzat, halakorik ez dagoela-eta. «Jendeak», «publikano batzuek» eta baita «militar batzuek» ere galdetu diote aldaketa hori nola gertatuko den. Bataiatzaileak betiko berean tematurik erantzuten du: nahikoa dugu garen errealitatea eta dezakeguna zaintzea, eta dugun argia horretara bidaltzea. Beraz, berria nola iristen den ikusten dugun bitartean, aitortu beharra dugu geure biziak eskaintzen digun balio mugagabeko maniobra-muga estu hori. Joan Bataiatzaileak eskatzen digu saia gaitezela maniobra-muga edo esparru hori amesten dugun gauza berri horren antzeko egiten. Eta horixe da... Abendualdia.

Abendualdiko 3. astea

San Agrikola, *martiria*Santa Adelaida, *enperadorea*

Zenbakiak liburutik 24, 2-7. 15-17: Izar bat aterako da Jakoben herritik. Sal 24: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 23-27.

Aldi hartan, Jesus tenplura etorri eta, irakasten ari zela, apaizburuak eta herriko zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez egiten duzu hori? Nork eman dizu aginpide hori?». Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuten badidazue, Nik ere esango dizuet zein aginpidez egiten dudan hori. Joanez aginduz bataiatzen zuen: Jainkoaren aginduz ala gizakien aginduz?». Haiek beren baitan zioten: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badugu, zergatik sinetsi ez genion esango digu. Eta gizakien aginduz ari zela esaten badiogu, berriz, jendearen beldur gara, guztiek profetatzat baitaukate Joan». Beraz, hau erantzun zioten Jesusi: «Ez dakigu». Jesusek, orduan, esan zien: «Nik ere es dizuet, bada, esango zein aginpidez egiten ditudan gauza hauek».

Jesusek apaizburuekin eta herriko zaharrekin izandako enegarren eztabaida formal honetan, oso interesgarria da egiaztatzea, nola errepikatzen den egiaren bilatze zintzoaren ordez interesen jukutria gaiztoa. Jar dezagun arreta ikusteko nola, azkenean, jakin gabe gelditzen garen Joan Bataiatzaileak agintari juduentzat izan zuen esanahia. Haiek mugitzen dituen, joko politikoko taktika soilak eta Joan Bataiatzaileak haientzat xake-partida konplexu batean mugitu beharreko fitxa bat bezala jokatzeko. *Benetako mundua* deitzen dugun horrek horrela jokatzeko du: unean uneko gaiei erantzuteko elkartzeko edo banatzeko diren interesen arabera eta lor litezkeen abantailen edo desabantailen kalkuluen arabera. Baina egia mespretxatuta gelditzen da, uste baita ez dela existitzen. Orduan, noski, ulertzen da, zergatik den alferrikakoa argitzea «zer-nolako aginpidearekin egiten dudana» delakoa.

Hasiera liburutik 49, 1-2. 8-10: Errege-makila ez da Judagandik aldentuko. **Sal 71:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 1-17.

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua. Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonek Salmon; Salmonen Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea. Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias; Josiasen Babiloniako erbetealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta Babiloniako erbetealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana. Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Davidenganaino, hamalau gizaldi Davidengandik Babiloniako erbetealdiraino, eta hamalau gizaldi Babiloniako erbetealдитik Kristoganaino.

* San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*
 San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de*
*Valoisekin batean (trinitarioak)**

Kristau-usadioan beti atxiki izan zaio Espiritu Santuari ohiko moldeetatik kanpoko sorkuntza. Adimen-eskemak urratzen ditu, ezinezko diruditen espazio eta denboren ildoan ezagutu gabeko lerroak marrazten ditu eta aldaezintzat emandako gauzak birkontsideratzeko duen moduak harridura sortzen du. Espirituarekin, gizakien eta erakundeen biografiek antolatu gabeko bidaia egiten dituzte eta uste gabeko erritmoez zabaltzen dira. Espirituak nahastu egiten ditu gauzak, inoiz pentsatu gabeko irtenbideak planteatzen ditu eta argia jartzen du halakorik egongo zenik ere inoiz pentsatuko ez genuen lekuetan. Historia berriro osatzen du, solteak zirela eta itxuraz etenak zirela uste genuen gure bizitzako zatiekin, eta, horrela, kontakizun berri bat idazten du. Horretaz guztiaz asko dakite Jesusen genealogia luzean agertzen direnek; adibide on dira Jainkoaren sormenaz mundua Betleemeraino nola eramán duen ikusteko.

* * *

Kantak

Gau ilun batez barnea
 maitasunetan sutan zegoela,
 oi zorion unea!
 inork ez nakusela
 irten naiz nire etxea bakez zela.

Ilunik eta segur,
 mailadi gordetik mozorroturik,
 zorioneko adur!
 ilunik eta estalirik,
 nire etxea bakean geraturik.

(*San Joan Gurutzekoa*)

* San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*

Abendualdiko 3. astea

Itxaropenaren Andre Maria

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea*

Jeremias profetaren liburutik 23, 5-8: Legezko muskila sortuko diot Davidi. **Sal 71:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanen zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emmanuel ipiniko diote izena (izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Emanuel da Ebanjelioa ekarriko digunarentzat aukeratutako izena. «Jainkoa gurekin»: harreman bat, erlazio bat, adierazten du, Jainkoarekin lotzen gaituena. Harreman horretan aurkituko dute zentzua gauza guztiek. Bera jadanik ez da mugituko hurbiltasun horretatik. Gure errealitateari itsatsita egongo da, dena delakoa izanik ere. Emmanuel izenak eta denak eragotzi egiten digu Jainkoari gure porroten gaitzizenak ezartzea, oraindik ere ase gabeko eta premiazkotzat jotzen ditugun hainbat beharrianena. Beste bat da beraren izena: «Jainkoa gurekin»; horrek esan nahi du, funtsezkoa izango dela Jainkoa gertu egotea giza edozein beharrian salbamen-aukera edo posibilitate batera gidatua izateko... Beraz, eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari bere izenarengatik. Zalantzarik gabe, bere-berea du izan hori. Baina, Emmanuel izateagatik, harenean geurea ere ezagutuko dugu.

Epaileak liburutik 13, 2-7. 24-25a: Aingeruak Samsonen jaiotza iragarri. Sal 70: Zure gorespenaz betea nuen ahoa zure ospea kantatzeko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 5-25.

Judeako errege Herodesen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren apaiz-sailekoa; haren emaztea Aaronen ondorengoa zen eta Elisabet zuen izena. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean, eta Jaunaren agindu eta lege guztiak huts egin gabe betez bizi ziren. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet eta biak urteetan aurreratuak. Behin batean, Zakarias bere sailekoekin Jainkoaren aurrean apaiz-zerbitzua egiten ari zelarik, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaizen ohituren arabera, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintzen ari zen bitartean, herri osoa otoitzean ari zen atarian. Hartan, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Zakarias, intsentsu-aldarearen eskuinaldean zutik. Hura ikustean, izutu zen Zakarias eta beldurrak hartu zuen. Aingeruak, ordea, esan zion: «Ez beldur izan, Zakarias, entzun baitu Jainkoak zure eskaria. Zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk “Joan” ipiniko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean. Ez du edango ardorik, ez edari bixigarririk. Espiritu Santuaz beteko da amaren sabelean bertan. Israeldar asko bihurtuko du Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik etorriko da, Eliasen espirituaz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskidetzeko, bihurriei zintzoen sena emateko eta Jaunarentzat herri egokia prestatzeko».

Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratu». Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; hark bidali nau zuri hitz egitera, berri on hau emateko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitz egin ezinik,

Abendualdiko 3. astea

San Dario, *martiria*. Santa Protasia, *birjina*San Urbano V.a, 200. *aita santua*San Anastasio I.a, *aita santua*

hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian beteko diren hitzak». Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen, harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zien hitz egin, eta ohartu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaien, mutu jarraitzen baitzuen.

Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

Joan Bataiatzaileak eta Jesusek bikote bikaina osatzen dute, eta biak ala biak elkar osatuz bizi dute garai berriak bakoitzari jarritako ibilbidea. Batari, desberdina izango denaren jaiotzari sarrera egitea dagokio; besteari, desberdin hori erabateko heldutasunera eramatea. Partitura horretan, Joan Bataiatzaileari Jesusen harrerarako atariko eskaintzea dagokio. Ez dago sobera halako atariko hori. Gu gu murgildurik gauden misioak fruitu eman aurretik bete edo kontsumitu beharko ditugun hainbat denboraren edo aldiren antza du. Lurra laiatu edo goldatzearen eta hazia patxadatsu ereitearen tarte isilak dira. Egin, egin beharrekoak dira, baina artean ezer kontsolagarririk sumatu gabe. Zenbat laguntzen duen jakiteak, oraindik ere zirriborrotsu diren amets horietan eta ondorio garbirik gabeko lehen urrats horietan itxaropena ernetzen ari dela jadanik. Hala jakin zuen Jesusek ere Joan Bataiatzailearen bitartez.

Abendualdiko 3. astea

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*

Isaias profetaren liburutik 7, 10-14: Begira, birjina haurdun dago.

Sal 23: Badator Jauna: bera da errege ospetsua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Handik sei hilabetera, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzeman zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Gizakundea gizarte eta politika arloko konplexutasun-maila handiko ingurune historikoan gertatu da. Mariaren garaia eta gurearen artean, beharrezko egokitzapenak eginda, ez dago alderik jasaten diren krisien tamainari dagokionean. Ezkutuan den itxaropenaren min komuna partekatzen dute. Denaren eta izan behar lukeenaren arteko muga finean, Mariaren garaikide askok lehenengoarekin konformatzeko hautua egin zuten zoritxarrez.

Abendualdiko 3. astea

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*

Alabaina, Gizakundeak errotiko fede baten aitorpena aldarrikatzen du: «Jainkoarentzat ez da ezer ezinezkorik». Eta Nazareteko borda batean gertatu da eta erabat ezezaguna zen pertsona batengan: hau da, sinesgaitzak diren koordinatuetan. Horrela hasi zen Mariaren semearen historia, Jainkoaren Semearen ezinezko historia.

* * *

Eskuak

Otoitzean eta dohainean elkartutako esku
izan gaitezela, Jauna!
Zeure eskuei lotutako esku Aitarenetan,
Espirituaren hego biziei lotuta,
behartsuen eskuei lotuta.

Berri Onaren esku, Bizi-ereile,
itxaropenaren kriseilu, Bake-hegazkada.

Zure Esku solidarioei lotuta,
guztien ogia zatituz.
Munduko gurutzeetan zulatutako
zure Eskuei lotuta.
Pazko aldiko zure Esku aintzatsuei lotuta.

Esku irekiak, muga gabekoak,
eskuak dauden arte iristen direnak.
Hirugarren Munduari, Erreinuari leial,
Mundu osoa besarkatzeko gauza direnak.

Gogorrrak Zuzentasunaren aldeko grinan,
samurrrak Maitasunean.

Jasotzen dutena biderkatutako doakotasunean
ematen duten eskuak,
benetako eskuak, gero eta estuago lotutako eskuak.

(Pedro Casaldáliga)

Abendualdiko 3. astea

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*

Kantarik Ederrena liburutik 2, 8-14: Hara non datorren, mendiz mendi lasterka, nire maitea. **Sal 32:** Egin poz-oihu, zintzook, Jaunari, kanta iezaiozue kantu berria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!».

Elisabeten eta Mariaren artean aparteko empatia eta sentimendukidetasuna nabari da; horregatik, biak ama haurdun izateak batak bestearen sentimenduak ulertzeko aukera berezia eskaintzen die. Ez zen inoiz halako elkarrizketa espiritualik izan ere, Espirituak bultzatzen baitu Elisabet bere lehengusina Mariari berrestera itxaron duen semea, Jesus, Jainkoagandik datorrela eta Jainkoarena dela. Esan diezaioke, bai; izan ere, berak ere, Elisabetek, ulertua baitu datorkion semeak, Joanez, egin dion gonbita: alegia, berritasuna aitortzekoa, Jesusekin munduan ezustean sartzera doana. Hitz batean esateko, ama biak sentitu dira bokaziodun beren semeek eraginda eta, badakite jakin, bi haiekin beraiek ere emakume sinestun eraldatuko direla. Zalantzarik gabe, berek egin edo erdi dituzte bi semeak, baina seme horiek izango dira bi amak bizi berri batera erdiko dituztenak.

Abendualdiko 4. astea

San Honorato Tolosakoa (Okzitania), *gotzaina*Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea**(Jesusen Bihotzaren misiolariak)***Mikeasen Profezia liburutik 5, 1-4a.**

Honela mintzo da Jauna: «Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zugandik aterako da Israelen buruzagia. Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte. Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira. Sendo eutsiko dio eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez, Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz. Lasai biziko dira herritarrak; handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino, eta bakea ekarriko du».

Sal 79: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.

Hebrearrei egindako gutunetik 10, 5-10.

Senideok: Kristok, munduan sartzean, dio: «Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan; baina gorputza eratu zenidan. Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan. Orduan, esan nuen: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; hau dago Liburuan nitaz idatzia». Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko». Lehenengo kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion

San Honorato Tolosakoa (Okzitania), *gotzaina*
 Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea*
(Jesusen Bihotzaren misiolariak)

Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!».

Elisabetek eta Mariak topaketa hau dela-eta elkarrekin partekatu duten alaitasuna ez da mugatu biak haurdun daudela jakitera. Beren semeen ernaltzea aparteko zerbeit bezala bakarrik uler dezakete, inguruabar bereziren giroan gertatu bezala. Beraien amatasunak, berandukoa batarena eta ezustekoa bestearena, ez du jarraitu ohiko ibilbide ezaguna. Baina Elisabet eta Maria jabetuak dira ezohiko amatasun horiek oraindik ere ezkutuan gordetzen den mezua bat dutela, baina laster argitara irtengo dena. Badakite jakin, beren semeengan Jainkoak gizateriarentzat duen salbamen-borondatea zehaztuko duela. Lehenago inoiz egin ez zuen bezala. Ama berri izango direnak zoriontsu sentitu dira, gizon-emakume guztientzat behin betiko ona den zerbeit gertatuko delako. Beraien amatasunak aldarrikatzen du Jainkoak esku hartu duela eta beraien semeek, oso maila desberdinetan, zehaztuko dutela Jainkoak guganantz egingo duen urrats erabakigarri hori. Dendena berehala gertatuko da. Agortu da zain egoteko denbora. Arrazoi horregatik, Elisabetek eta Mariak, ama gisa bizia berengandik jaioko dela ospatzeaz gainera, beren semeengan munduaren bikaintasuna indartsu sortzen ari dela ospatzen dute. Noizbait ere! Bi lehengusinek orduan, elkar zoriontzen dute indartsu, Ebanjelioaren etorreraren lekuko direlako.

Abendualdiko 4. astea

San Joan Kety-koa, *apaiza*

Malakias profetaren liburutik 3, 1-4. 23-24: Elias profeta bidaliko dizuet, Jaunaren eguna etorri baino lehen. **Sal 24:** Izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkieten. Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik». Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن. Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?». Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Zer izen jarriko genioke giza zoriontasunari, guri izena jartzea proposatuko baligute? Zer izen aukeratuko genuke denon alde gertatzea nahi dugunarentzat? Asko izango lirakeke gaur egun salbamenari «ekologia-akordioa», edo «lan duina», edo «genero-parekotasuna», edo «ustelkeria pertsegitzea», edo «pribilegio gabeko hezkuntza»... izena emango lioketenak. Asko izango lirakeke halaber buruzagi eta alderdi politikoen izen nagusiak aukeratuko lituzketenak. Modu batean edo bestean, izenen proposamenak geure artean ditugun giza errealizatze moduak adina izango lirakeke. Zakariasek halako egoera baten aurrean zer erabaki zuen pentsatzen jarrita, berak gehien maite zuenari izena jartzean, bere aukera «Joan» izan zuen, hots, «Jainkoa errukitsua da». Zakarias zahar jakintsuak, guk baino gehiago pentsatu zuen eta gure ametsik onenen iturri komunarentzat izenik egokiena bilatu zuen.

Abendualdiko 4. astea
Eguberri-bezpera

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob, David...

2 Samuelen liburutik 7, 1-5. 8b-12. 141.16: Daviden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean. Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko beti eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 67-79.

Aldi hartan, Zakarias, Joan haurraren aita, Espiritu Santuaz beterik, profeta bezala mintzatu zen, esanez: «Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena! Salbamen-indarra digu eman bere morroi Daviden etxean. Hala hitzemanen zuen antzinatek bere profeta santuen ahoz: salbatuko gintuela geure etsaien menpetik, gorroto gaituzten guztien eskutik. Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia eta oroitu da bere itun santuaz, gure guraso Abrahami egindako zinaz: berak emango zigula, etsaien eskutik askaturik, beldur gabe bera zerbitzatzea, santu eta zuzen izanez haren aurrean geure bizitza guztian. Zuri, berriz, haurtxo horri, Goi-goikoaren profeta deituko dizute, Jaunaren aurretik joango baitzara hari bidea prestatuz, erakustearren haren herriari salbamena, beren bekaturen barkamena. Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertuko zaigu goiz-eguzkia zeru goitik, ilunpean eta Herio-itzalean daudenei argi egitera, gure oinok bake-bidean zuzentzera».

Nire begirada beti itsasargi zahar abandonatuan pausatzen zen. Teknologia erabaki zuen, urte batean, hobe zen beste itsasargi bat uharteko beste lurmutur batean kokatzea. Baina jakin nuen, arrantzale batek, itsaso txarra zegoen arrats ilun batean, inguruan arrantzuan ari zela, itsasargi zaharraren soslaia atzeman zuela une egokian gertatu zen tximistari esker. Uretan hondoratzetik salbatu zuen horrek. Anekdotak horrek, Zakarias judu zahar hura gogorarazi zidan, egun batean jakin zuena seme berantiar bat jaioko zitzaiola. Historiaren orrialdea pasatzera zihoan. Gainera, dena, Zakariasek, zuen adinarekin, uste osoa zuenean ezer berezirik ez zela gertatuko... Zakariasi olatuen gainean zutik zegoen erdi-erailsitako itsasargi haren irudia erakutsiko niokeen, artean gai zena itsasoko jendearentzat laguntza-seinale eta bizi-salbatzaile izateko.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Gauerdiko Meza (*ikus segidan Eguneko Meza*)
Betleemeko Andre Maria

Isaias Profetaren liburutik 9, 1-6.

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozetan dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe. Suak erreko ditu eta erraustuko lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak. Haurra jaio zaigu, semea eman zaigu; hari eman zaio aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri, Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emaile. Handia izango da haren aginpidea, amairik gabekoa bakea Daviden tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zuzenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino. Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

Sal 95: Salbatzailea jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.

San Paulok Titori gutunetik 2, 11-14.

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurriz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zoriotsua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehenengo errolda hau Siriako gobernadore

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
 Gauerdiko Meza (*ikus segidan Eguneko Meza*)
 Betleemeko Andre Maria

Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira. Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaret herritik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, bere emazte Mariarekin erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Betleemen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen-semea izan zuen. Oihaletan bildu eta askan etzan zuen, ez baitzen ostatuan haientzako lekurik. Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez beren artaldea txandaka zaintzen. Honetan Jaunaren aingerua agertu zitzairen, eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek, beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez beldur izan! Begira, poz handia sortuko duen berri ona iragartzen dizuet, herri guztiarentzat izango dena: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hau izango duzue seinale: haur bat aurkituko duzue, oihaletan bildua eta askan etzana». Eta bat-batean zerutar talde handia bildu zitzaion aingeruari, Jainkoa goresten zuela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

Betleemen ez da ezkutatzen inolako ahuleziarik. Sortaldeko izarrak distira bizia egin du estalpe baten gainean. Artzainak bertara joango dira zalantza ipsis gabe. Magoek beren gurtza egingo dute minimoen toki murriz eta estu hartan, Jerusalem albora utzita, honek, teoriarik bederen, errege jaioberrientzako egokiagoa zirudien arren. Betleem estalpe bat da, ez dago pentsatua ostatu edota sehaska izateko. Baina agertoki horretan kulunkatuko dute Jainkoaz betea den haur bat, eskastasunean bildua eta derrigorrez lekualdatua izan den eta nahasmena bizi duen familia batean. Zeruak ez du ezkutatu nahi ezein unetan ere kontrastea: horrela jaio da gure Jainkoa. Aska batean jaio da, gizateria osoaren eskasiaren kopia den horretan. Misteriotsuki aukeratua du kokaleku hori, zalantzarik gabe guk geure beharra gehienik sentitzen dugun tokia... Errepara diezaigun nola begiratzen digun haur horrek. Begirada hori deitatzat hartzen dugu: bera bezalaxe,

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Eguberri Egunekeo Meza
Betleemeko Andre Maria

joan gaitezen gure munduaren ifrentzu hautsira eta jar dezagun han geuk dugunik onena. Berak ipinia du bere ganbela. Artzainek, Betleemgo bizilagun batzuek eta magoek onartu egin zuten gonbita. Hori da, hain zuzen ere, arrazoia, haiek, denak batera, Betleemgo estalpean topo egin izanarena, Jainko haurraren jaiotza ospatzera, beren barnean jaiotzen ari zenarena.

* * *

EGUBERRI EGUNEKO MEZA

Isaias Profetaren liburutik 52, 7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan albistariaren oinak! Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen eta salbamena iragartzen! Sioni diotso: «Zure Jainkoa errege da!». Entzun zeure zaintzaileen oihua! Oihuka ari dira, poz-irrintzika, guztiak batera, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen. Ekin poz-oihuka guztiok batera, Jerusalemgo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu eta askatu du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta munduko bazter guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren salbamena.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Hebrearrei gutunetik 1, 1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei; azkenak diren egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, egin ere honen bidez egin baitzuen mundua. Seme hau da Jainkoaren aintzaren distira eta Jainkoaren izatearen irudia. Honek eusten die gauza guztiei bere hitz indartsuaz. Eta, bekatuen

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Eguberri Eguneke Meza
 Betleemeko Andre Maria

garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri zen zeru-goienetan, aingeruak baino gorago jarria, ondareztat jaso zuen izena ere haiena baino goragokoa denez gero. Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz: «Nire Seme zara Zu; Nik zaitut gaur sortu?». Eta beste behin: «Aita izango nau hark Ni eta Seme izango dut Nik hura?». Eta berriro, Lehen-semea munduan sarraraztean, hau dio: «Gurtu bezate hura Jainkoaren aingeru guztiek».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin. Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen egiazko argia, mundura etorriz gizaki guztiak argitzen dituen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina den arren, munduak ez zuen ezagutu. Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Joaneke hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”». Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Eguberri Eguneko Meza
Betleemeko Andre Maria

Joanek, beraren ebanjelioan hasieratik bukaerara luzatuko den paradoxa bat kontenplatzen du Jesusengan: berau, Hitza izanik, isilarazten saiatuko dira mutututa utzi arte: «Argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu». Ondorioa oso etsigarria da: benetako biziari uko eginez amaitzen den zerbait gertatzen da gudan. Arazo bihurtzen dugu bizi hori, trinkotu egiten dugu eta errefusatu egiten dugu. Jainkoak, agertzean, berarekin topo egitean traba gertatzen zaigun geure alde ilun hori ere agertzen du. Alabaina, Eguberri egun honetan, Betleemek hautsi egiten ditu ezin topatu hori betirako izango zela adierazten zuten iragarpenak. Jaio zaiguna, «benetako argia» da, «gizaki oro argitzen duena». Eta bere argitasunaren izpitik kanpo gelditzeak, ziur egon, ez du ezer onera eramaten. Jesusek, bere jaiotzaren ondoren, askoz beranduago adierazi zuen hori bera. Bere Nekaldiaren ateetan zegoenean, hau da, Jainkoak eta gizateriak ezin topo egina erabateko haustura-puntura iristear zegoela eman zezakeen unean, esan zien ikasleei: «mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoela» (Jn 16, 11). Joanek arrazoi zuen: Hitza haragi egin zen eta gure artean jarri zuen bizilekua... orduz geroztik atzera-jotzerik ez izateko.

GABON ZORIONTSUAK



Gure Erriaren erdian
gaitezela, bake ororen
gorde gaitzala fedean
alai eta maitasunean

bakegille izan
iturri den Jaunak
sendo, ixaropenean
eginkor.

Apostoluen Eginak liburutik 6, 8-10; 7, 54-60.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herrian. Hartan, zirenear eta alexandriarrez osatua zegoen eta «Askatuena» zeritzan sinagogako batzuk, ziliziar eta asiar batzuekin batera, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. Estebanen hitzak entzutean, barrua lehertzen jarri zitzairen amorruez eta hortzak karraska haren kontra. Baina hark, Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jainkoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jainkoaren eskuinaldean. Eta esan zuen: «Horra, zerua zabalik ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean». Orduan, haiek, garrasika, belarriak itxi zituzten eta denak batean gainera oldartu zitzaizkion; hiritik atera zuten eta harrika hasi zitzaizkion. Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten testiguen beren jantziak. Harrika ari zitzaizkion bitartean, Estebanek honela egiten zuen otoitz: «Jesus Jauna, hartzazu nire bizia». Gero, belauniko jarrita, ahots handiz esan zuen: «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau». Eta, hau esanik, hil egin zen.

Sal 30: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 17-22.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz jendearekin! Auzitegietaera eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatari: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez. Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango

San Esteban, lehen-martiria

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa]

1847-Madril 1890), *fundatzailea*

(Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak)

dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua».

Estebanen martiritzaren oroitzapenak Jesusen jaiotzak dakarren itxaropenari lagun egiteko balio du, baina itxaropen horrek berekin duelarik bere arriskua. Ez gaude soilik kristautasunaren lehen urratsetako gertakari baten aurrean. Martiritzak Elizaren historia osoan zehar egin ditu bere agerpenak. Hau da, Kristori jarraitzeak, beraren zehaztapenak edozein direlarik ere, ez gaitu libratzen benetako bizitzari uko egin dion hainbat gauzari aurre egiteak dakartzan ondorioetatik. Askotarikoa izan daiteke ondorio horiek irits lezaketen maila. Kristau-bizitzaren martiritza-mailak askotariko bertsioak ditu baina bere-berezkoa du martiritza hori gurutziltzatu eta berpiztutako Kristogan sinesteak. Esklusio-erlazio bat, batak bestea ukatzearen erlazio bat, dago Jainkoaren eta Jainkoa ez denaren artean. Bitxia da ikustea, nola Bataioko ohikunean, lehenik bekatuari uko egitea aitortzen den, eta, ondoren, uko egite horren jakinaren gainean, egiten den fede-aitormena. Era berean, interesgarria da egiaztatzea nola Loiolako San Ignaziok gaizkia «giza naturaren etsai» izendatu zuen. Denak gauza bera esan nahi du: kontraesana da gure sorkari-izaera mehatxatzen duen edozerekin tratua egitea. Horrela, Esteban lehen martiriak begi-bistakoa dena adierazten du: Elizari, bere sortzaileari gertatu zitzaionaren antzeko zerbait gertatuko zaio leku marduletan bizi den bitartean eta kreazioaren aurkako joerak hitza hartu nahi duen tokian.

1 Joanen gutunetik 1, 1-4.

Seme-alaba maiteok: Hasieratik zen biziaren Hitza, entzun eta geure begiz ikusia, begiratu eta geure eskuz ukitua, iragartzen dizuegu. Izan ere, bizia agertu zen, ikusi dugu eta beraren lekuko gara; Aitarekin zegoen eta guri agertu zitzaigun betiko bizia iragartzen dizuegu. Ikusi eta entzun duguna iragartzen dizuegu, zuek ere gurekin elkartasunean bizi zaitezten. Eta gure elkartasuna Aitarekin eta honen Seme Jesu Kristorekin da. Eta gauzok idatzi, gure poza bete-betea izan dadin idazten dizkizuegu.

Sal 96: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1a. 2-8.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen.

Betleemdik hutsik den hilobira, Estebanen martiritzaren lekukotzatik igarota. Eguberrialdiko azken hiru egun hauetako liturgia, bide ekaizsu baten arlo desberdinen bilduma lasterra da, Jesus den berri onaren azken koadroa izango denaren lehen zirriborro baten

San Joan *apostolua eta ebanjelaria*

modukoa. Eguberrialdiak ez du utzi nahi ezer ere kontuan hartu gabe eta laster Emmanuelen jaiotzarekin lotura izango duten oinarrizko datuak bildu ditu presaka. Gaur, Joan apostolu eta ebanjelariari gertatzen zaionari suertatu zaio txanda. Fedea sortu da harengan hutsik dagoen hilobiaren aurrean. Joanez gogoratu du fede hori gabe ez dagoela artean jarraipenik. Piztueraz kanpo, aurretiko guztia ez-aski da. Jesusekiko atxikimenduari dagokionez, ezin gara gelditu beraren jaiotzan, ez beraren jendaurreko bizitzan, ezta beraren heriotzan ere. Gehiago barneratu behar dugu beraren misterioan: Joanez beragan esperimentatu duen misterioan eta hilobia hutsik ikustean «ikusi eta sinetsi egin zuen» esanez formulatu duen hartan. Betleemgo gaua luzatu egin zen gurutzean josia izatearen ilunpean, hilobi baten belztasunera iritsi arte. Baina itzalen hustasun horretatik irteten da, hain zuzen ere, Piztua: fedeak soilik uzten du hainbesteko argia ikusten.

* * *

«Emadazu beharrezko dudan itsutasun hori, Jauna,
Ikusteko neure barnean suaren argia.
Sentitzen dut, paisaia trinkoak bezala, argi-gosea:
Igo nahi dut, beti, neugandik alde egiteko».

Aldiak biziaren kartzela dela ematen du, den-dena baitu higatzen eta inork ezin duelako geldiarazi.
Baina ez da egia; graziaren kutxa da aldia, esperantzarena, eta aukera bat da zerbait berri erne dadin gu baitan eta dei egin diezagun jai egitera. Aldiari esker bizi gintezke eta maitatu, bilatu eta aurkitu bilatzen dugun hura.

(*Alfonso Albalá*)

San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 1, 5-2, 2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argia da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkertasunean bizi garela esan eta ilunpean baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argian bagabiltza, elkertasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan.

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitarenean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuaren barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

Sal 123: Txoria ehiztarien saretik bezala gara libratu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2, 13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita». Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari». Orduan, Herodes erregea, Magoek engainatu egin zutela oharturik, biziki haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez azpiko haur guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoek adierazitako denbora kontuan harturik. Honela bete zen Jeremias profetak esana:

«Oihua entzun da Raman, negar eta aiene ugari: Rakel ari da, bere haurrengatik negarrez; ez du kontsolatu nahi, ez baitira bizi».

Askotan ahazten dugu munduaren Salbatzailea deitzen diogunaren jaiotza, arriskuan jarri zuten hainbat gertakariz beterik egon zela, Herodesen jokabideak eta Jesusi dagokionez hartaz ezagutzen dugunak laburtzen dutenez. Betleemdik zerion itxaropenak, lehen unetik beretik izan zuen aurka mundu honetako boteretsuen zangoztraba. *Haur errugabe santu* deituak, ez-gizatiar dena onartu nahi ez denean beti sortzen diren biktimen moduan ageri dira. Betleemek iragarri du, garai guztietako Herodestarrak inoiz ere ez direla pozik egongo, eta «haserre bizian» eta galdu nahi ez duten beren boterea mehatxatua duten sentipenekin jokatu dutela. Horregatik, Eguberrialdia iraultzailea da, matxino sakona, guk gozamen-iturri bezala eta gozoki-kolorez agertzen saiatu arren. Eguberrialdiaren iraultzak, mundua beren mendean duten boteretsu errukigabeek hartaz pentsatzen dutena baino gehiago delako zurrumurrua jartzen du abian. Eta zurrumurru hori nahikoa da gaizkia urduri jarrarazteko eta aurrerantzean jada lasai ezin bizia ezartzeko berari. Hori da, hain zuzen ere, arrazoia, elkar engainatu gabe, elkarri Eguberri zoriontsuak opa ahal izateko.

Ben Siraken liburutik 3, 3-7. 14-16. 17b (gr. 2-6. 12-14).

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita, eta amaren aginpidea ezartzen bere umeen gain. Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama goersten duenak ondasunak pilatzen. Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak. Aita ohoratzen duena luzaro biziko da, eta Jaunari obeditzen dionak atsegin ematen dio amari. Ene seme, zaindu aita zahartzaroan eta ez eman nahigaberik bizi den artean; burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera eta ez gutxietsi bizi den bitartean; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekatuen ordain izango duzu. Atsekabe-aldian gogoan izango zaitu Jaunak.

Sal 127: Zorionekoa Jaunari begirune diona, eta haren bideetan dabilena!

San Paulok Kolosarrei 3, 12-21.

Senideok: Jantzi zaitezte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, eroapenez, Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu bata besteari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker oneko. Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz. Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen gurasoen esana gauza

guztietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 41-52.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemara igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromeskideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eseria, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!». Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?». Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak. Jesus, berriz, aurrera zihoan jakindurian, gorpuzkeran eta grazian, Jainkoaren eta gizakien begietan.

Non egon daiteke galdutako ume bat Jerusalem bezalako hiri batean? Jesus hamabi urterekin galdu izanaren kontakizuna, teologiaz hain kargatua, hitzez hitz entzunda, interesgarria izango litzateke imajinatzea zenbat itzulinguru eman behar izango zituzten Mariak eta Josek umea aurkitu arte. Ez zuten asmatu aurre-nerabe batek aurki zitzakeen balizko mila eta piko ezkutaleku eta mentura-leku susmatzen. Nagusia falta zitzaien: Tenplua. Eta oso litekeena da, azkenean Jesus

zegoen tokira hurbildu zirenean, konturatu izana, agian handik hasi behar izango zutela bila. Beraien seme hura, egia esateko, ez zen inoiz galdu. Egon behar zuen lekuan zegoen, Jesus jada «nire Aitaren etxea» deitzera ausartzen den lekuan. Mariak eta Josek onartu beharra zuten hori. Egia zen, bai: Jesusek bere sentimendu sakonenetik hitz egiten zuen. Eta batek sakonenetik hitz egiten duenean, ez da galduta egoten. Alderantziz baizik: erabat orientatuta egoten da, lurzoru sendoa zapaltzen du eta hainbesterainoko askatasuna sentitzen du, denboraren eta espazioaren zentzua ere galdu egiten baitu: ume goiztiar bati gertatu zitzaion bezala, nor zen ziurtasuna baitzuen eta ziurtasun horretatik ulertuko baitzuen bere bizitza.

Eguberri ondoko 6. eguna
San Felix 1.a, 26. *aia santua*

San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 2, 12-17: Jainkoaren nahia egiten duenak betiko irauten du. **Sal 95:** Poztu bedi zerua, alaitu lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 36-40.

Aldi hartan, bazen profetesatzen bat Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goستن eta haurraz mintzatzen hasi zitzairen Jerusalemen askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Jesusen Eguberrietako irudiak, izateko hazi eta sendotu beharra baitu, Jainkoa irudikatzen dugun moduan du bere eragin-kolpea. Nazaretek adierazten digu Jainkoa denbora pausatuz eta apurkakoaz baliatzen dela eta beti ere egunerokotasunaren ukitua duenaz. Jesusengan, bizitzak Jainkoaz irakaspenak ematen ditu: askotan bata besteagandik berezirik, eta ez batera, jauzi egin eta alde batera utzi behar ez den egitarauaren arabera. Eskola horretan, gurea ere baden horretan, inoiz ere ez genuke hartu behar geure burua ibilgetuta bageunde bezala. «Jakinduria» apurka-apurka norberegantzen da. Ez du beste aukerarik gudan bera den bezalako kristaltzeko: Jainkoarekin dugun harremana. Jesusek ulertzen laguntzen digu noraino iritsi nahi duen harreman etengabe handituz doan horrek: Jainkoa Jesusengana zabaltzen da eta Jesus Jainkoagana, biak hurbildu eta bata bestearen ondoan bukatu arte: Jesusen ziurtasuna da, «Jainkoaren grazia lagun zuela».

Eguberri ondoko 7. eguna

San Silvestre I.a, *aita santua*Santa Columba, *birjina eta martiria*

1 Joan 2, 18-21: Zuek Jainkoagandik datorren Espiritu Santua duzue eta guztiok ezagutzen duzue egia. **Sal 95:** Poztu bedi zerua, alaitu lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin. Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina den arren, munduak ez zuen ezagutu. Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”». Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Eguberri ondoko 7. eguna

San Silvestre I.a, *aita santua*

Santa Columba, *birjina eta martiria*

Hitzaren liturgiak urte naturala, denboraren gontza bailitzan irakur daitekeen txatal batekin agurtzen du: «Jainkoa inork ez du inoiz ikusi: Jainko Seme bakarra, Aitaren altzoan dagoena, da ezagutzera eman duena». Jainkoa ezkutatzeko hori, berarekin topo egiteko gogo bihurtu da. Beraren misterio hori ez da gizateriaren zati batentzat gordea. Jesusek erakutsi du Aitak bide bat estreinatu duela, berarekin topo egitera iritsi ahal izateko. Eta mila arrazoi eman dizkigu bide hori desiratu eta probatzen saiatzeko. Agian, arrazoi nagusiena da, Jainkoak hi edo zu izan nahi duela gutako bakoitza eta, azkenean, bere aurrean jakingo dugula nor garen... edozein garaitan!

Urte berri on!

* * *

Gure egunotako erlijiosa batek idatzi du:


«Espero izatea, uztea da borroka egiteko gogoak hartu zaitzan, bizitzeko eta amets egiteko gogoak.

Espero izatea, ereitea da ildo bakoitzean betikotasunaren hazia, eta jakitea, uzta norbaitek jasoko duela.

Espero izatea, har zaitzan uztea da, hemen, betikotasunak».

Espero dezagun Elizarekin datorren Jauna, etorri datorrena egunero Hitzean, Eukaristian, anai-arreba artekotasunean. Espero dezagun, baina ez besoak tolestaturik, baizik eta pizturik geure sumina, prest geure baitan hazteko, landuz geure burua espirituaz, Eguberriak harrapa ez gaitzan ustekabeen edo zabarturik hainbat eta hainbat erosketa, eguberri-kanta eta kolorezko argitan, eta azkenean, ahaztu garelarik Eguberriak direla, bera datorrela, etorri datorrela bera.

OTOITZAK ETA DEBOZIOAK



Otoitzak eta Debozioak

EGUNERO

GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinaleagatik,
gure etsaiengandik
zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa.
Aitaren, eta Semearen
eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur
egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei
barkatzen diegunez gero;
ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen,
baina atera gaitzazu gaitzetik.

AGUR MARIA

Agur, Maria, graziaz betea:
Jauna da zurekin:
bedeinkatua zara zu
andre guztien artean,
eta bedeinkatua da
zure sabeleko fruitua Jesus.
Santa Maria,

Jaungoikoaren ama,
erregutu ezazu
gu bekatarion alde
orain eta
gure heriotzako orduan. Amen.

AINZA AITARI

–Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.
–Hasieran zen bezala, orain eta beti,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

- Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
- Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.
Agur, Maria, graziaz betea...
- Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
- Gerta bekit zuk diozun bezala.
Agur, Maria, graziaz betea...
- Eta Jainkoren Semea gizon egin zen.
- Eta gure artean bizi izan zen.
Agur, Maria, graziaz betea...
- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

Egin dezagun otoitz: Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zeure grazia, eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok, egizu, haren nekaldi eta gurutzearen bidez eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitezela piztueraren ospera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

- Zeruko erregina, poztu zaitez, aleluia.
 - Sabelean ekarri zenuena, aleluia.
 - Piztu baita berak esan bezala, aleluia.
 - Otoitz Jainkoari gure alde, aleluia.
-
- Egizu pozaz gainez, Andre Maria, aleluia.
 - Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna, zeure Semea, piztuz, mundua pozez bete duzun Jainkoa; egizu, arren, Andre Maria haren eta gure Amaren otoitzari esker, irits gaitezela betiko pozak gozatzerara. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ARRATSEAN

ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera dugulako, / zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia / alaitasun betean / eta zurekiko elkartasunean bizi izan ditugulako; / fedea, maitasuna, esperantza / eta gure loa, / gorespen apal bihurtzeko, / zure graziaren ontasun hau / bizi izan dugulako.

ESPIRITU SANTUARI

VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia)

(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zure argi izpia.
Zatoz, gaixoen Aita; zatoz, dohain emaille; zatoz, bihotzen argi.
Poz-emaille bikain, etxelagin atsegin, sargorian haize fin.

Lan artean atsedean, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.
Zure laguntza gabe ez du pertsonak ezer, ez du ezer on denik.
Garbi, zikin dagona; busti, lehor dagoena; zauriak oro senda.
Zurrun dena bigundu; makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.
Zugan usteon duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik.
Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betieran.
Amen.

VENI CREATOR SPIRITUS

Zatoz Zintzoen Barnera
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,
Gogo Guren sortarazle;
bete graziaz bihotz hauek, zu baitzaituzte egile.
Poz-emaile deritzozu,
Goiko Jaunaren dohain, ur bizi, su, maitasun, eta gantzu zerukoia.
Zazpi dohainen isurle,
Aitaren eskuin hatza, apostoluei hitzemana, haien ahoetan hitza.
Argi iezaguzu zentzua, suaz sutu bihotza,
indar horretaz sendatu argal daukagun gorputza.
Haiza gugandik etsaia, eman berehala bakea,
zu aurretik zaitugula, urrun iezaguzu kaltea.
Erakuts iezaguzu Aita, harekin Semea ere;
bien Arnasa duguna sinets dezagun beti ere.
Aitari, eta hilengandik berpiztu zen Semeari eta Gogo Gurenari
edertasun orain eta beti. Amen.

MENDEKOSTE

Espirituaz bizitza aukera!
(<https://youtu.be/VwW5YZqSUwU>)

Espiritu santua
maitasun sorrera,
hamaika koloredun
gizarte bat bera,
baztertua senide,
arrotza etxera,
otoitzaren indarraz
bizitza aukera.

Zabal espiritua
bete zure hitza:
gure bihotz barruak
garbitzeko giltza,
txikiaren babesa,
haizete bortitza,
Zugaz gura genduke
aukera bizitza.

Zure jakituria
eta pentsaera
Elizaren bideak
eroan hobera,
josi esku bihotzak
guztiok batera
abestuz guk dagigun
bizitza aukera.

(Bideo egilea eta kantaria:
Ana Berrizbeitia.
Hitzak: Jose Mari Kortazar)

EUKARISTIA

BEDEINKATUA JAINKOA

(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.

Bedeinkatua haren izen santua.

Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.

Bedeinkatua Jesusen izena.

Bedeinkatua haren bihotz txit santua.

Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.

Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.

Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.

Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.

Bedeinkatua Mariaren sortze santu eta garbia.

Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.

Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.

Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.

Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

Egin dezagun otoitz.

Jesu Kristo gure Jauna,

sakramentu miresgarri honetan

zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu;

arren erregutzen dizugu:

beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak,

zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan.

Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

GURUTZE BIDEA

HASIERA

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

V/. - **Egin dezagun otoitz.**

Jesu Kristo gure Jauna!

Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,

eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz;

emazkiguzu zeure argia eta grazia:

Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,
izan gaitezela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.

Nazareteko Andre Maria,

Doloretako Ama izan zinen;

inspiratu guri,

Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean
zeuk izan zenituen maitasun-sentimenduak.

R/. - Amen.

GELDIALDIAK

1. Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.

*(geldialdi bakoitzaren ondoren
segidako hau errepikatzen da)*

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

2. Bigarren geldialdia: Jesus gurutzea daramala.
3. Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
4. Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
5. Bosgarren geldialdia: Zirenarrak Jesusi lagundu.
6. Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
7. Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.
8. Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.

9. Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
10. Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
11. Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
12. Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
13. Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
14. Hamalauugarren geldialdia: Jesus hilobian.
15. Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.

V/. - Egin dezagun otoitz.

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba hauei;
Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,
gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;
egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,
parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,
Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.

R/. - Amen.

ANDRE MARIARI

SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra, gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!
Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok; zuri aiezka, antsiaz eta
negarrez negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana zeure begi errukitsu horiek, eta erbeste
honen ondoren erakutsiezaguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu
hori.

O bihozbera! O errukiorra!

O Maria Birjina gozoa!

- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitezen.

ZURE BABESERA GATOZ

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatoz ihesi, Jainkoaren Ama;
gure otoitzei ez eman esker txarrik behar ordu estuan;
arrisku guztietatik onez atera gaitzazu,
Birjina eder eta bedeinkatua.

ARROSARIO SANTUA

POZEZKO MISTERIOAK

(astelehena eta larunbata)

1. Jainkoaren Semea gizon egina.
2. Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
3. Jainkoaren Semea jaio.
4. Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
5. Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

DOLORETAKO MISTERIOAK

(asteartea eta ostirala)

1. Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
2. Jesus zigortua.
3. Jesusen arantzazko koroia.
4. Jesus gurutzea lepoan duela.
5. Jauna gurutzean hil.

AINTZAZKO MISTERIOAK

(asteazkena eta igandea)

1. Jesus Jauna piztu.
2. Jesus Jauna zerura igo.
3. Espiritu Santua jaitsi.
4. Andre Maria zeruratu.
5. Andre Maria koroatu.

MISTERIO ARGITSUAK

(osteguna)

1. Jesus bataiatua Jordan ibaian.
2. Jesus agertu Kanako ezteietan.
3. Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.
4. Jesus antzaldatu.
5. Jesusek Eukaristia eratu.

OTOITZA (misterio bakoitzaren ondoren)

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera, zaindu gu geure etsaietatik,
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.

Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.
Ama Jainkoari eskaintzearen eredua. Otoitz gure alde.
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.
Maria, Jainkoaren herriko lagun alaia. Otoitz gure alde.
Maria, gizadi berriaren eredua. Otoitz gure alde.
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.
Maria, eztei-lagun aztia. Otoitz gure alde.

Jainkoaren Bildotsa

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Barkatu, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Entzun, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Erruki, Jauna.
- Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.

Egin dezagun otoitz.

Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,

libra gaitzazu mundu honetako tristuratik
eta emaguzu zeruko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

IGNAZIOTAR ESPIRITUALITATEA

INAZIO,

gure patroï handia, / Jesusen konpainia / fundatu eta dezu armatu, / ez
da ez etsairik / jarriko zaizunik inolaz aurrean / gaurko egunean,
nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.
Zure soldaduak / dirade aingeruak, zure gidaria / da Jesus handia.
Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.
Ez dauka fedeak, / ez kristau nireak, ez dauka beldurrik / inongo aldetik.
Inazio hor dago, / beti ernai dago, armetan jarria / dauka konpainia,
txispaz armaturik / bandera zabalik, gau ta egun / guk guztiok / bakea
dezagun, beti gau eta egun.

Loiolako Ignazioaren Otoitza

Hartu, Jauna, eta onartu
nire askatasun guztia, nire oroimena,
nire adimena eta nire gogo osoa,
dudan eta daukadan guztia.

Zeuk eman zenidan,
zeuri, Jauna, itzultzen dizut, Jauna.
Zurea da dena.

Egin erabat nahi duzuna.
Emadazu zeure maitasuna eta onginahia,
aski dut hori. (Gogo Jardunak 234)

BANDERA BIEN SOLASA

(Gogo Jardunak 147)

(Nik neuk Kristoren arima izateko eskari-otoitza)

Eskatu nahi diot Andre Mariari
irits diezadala grazia bere Seme eta Jaunagandik
bere banderapean har nazan.
Lehenik eta behin, pobretasun espiritual handiengan
eta, jainkozko bere Maiestateari hala baderitzo
eta hautatu eta onartu nahi banau,
baita txikiagoa datekeen pobretasun errealean ere;
bigarren, laidoak eta irainak jasaten,
haietan bera gehiago imitatzeke,
baina jasan ahal ditzadala inoren bekaturik gabe
eta beraren jainkozko Maiestatea atsekabetu gabe.
*Eta, horrenbestez, **Agur Maria** bat.*

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Semeari,
irits diezadan Aitagandik;
eta, horrenbestez, Kristoren Arima.

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Aitari,
berak eman diezadan.
*Eta errezatu **Gure Aita**.*

GAUZA GUZTIEN BETIKO JAUNA

(Gogo Jardunak 98)

*(Neure buru eskaintza egin nahi dut;
horretarako, laguntza eskatzen diot
Jainko Jaunari)*

Gauza guztien betiko Jauna,
neure eskaintza noa egitera,
zure mesede eta laguntzarekin,
mugagabeko zure onberatasunaren
eta zeruko gorteko
santu guztien aurrean,
nahi dudala eta opa
eta nire erabaki deliberatua dela
—soilik izan dadila zure zerbitzu eta gorespenik handiena—
zu imitatzea, jasanez
bai irain eta laido oro,
bai pobretasun oro nola erreal ala espiritual.
Nahi izango ahal du zure Maiestate guztiz santuak
ni hautatzea eta onartzea
biziera eta izaera horretan.

EGUNEROKO AZTERKETA

(Gogo Jardunetan [43] inspiratua)

1. Argia eskatu nahi diot Jaunari, bizi dudan eguneko gorabeherak ikusteko, haren begiez eta ez neureez.
2. Eskerrak eman nahi dizkiot Jainkoari, gaur gertatu zaidan guztiagatik.
3. Begiratu bat eman nahi diot bizi izan dudan egun honi; saiatu nahi dut ikusten nola egin zaidan Jainkoa presente eta nola erantzun diedan nik haren deiei.
4. Barkazioa eskatu nahi diot Jaunari, eta damutzen naiz halako maitasunari eman diodan erantzun eskasaz.
5. Eskuzabalago izateko erabakia hartzen dut, hark eskatzen didana emateko orduan.

PRESTATZEKO OTOITZA

(Gogo Jardunak 46)

*(Neure bizitzan barne begiak
garbi gorde ahal izateko,
neure burua engainatu nahi gabe gordetzeko,
laguntza eske)*

Laguntza eskatu Jainko geure Jaunari,
nire asmo, egintza
eta eragiketa guztiak
garbi norabidetuak izan daitezen
jainkozko bere Maiestatearen
zerbitzu eta aintzara.
Emadazu, Jauna,
benetako askatasuna;
ez nazala aparta zugandik, ez ezerk, ez inork,
eta gauza orotan eta pertsona guztietan
maita eta zerbitza zaitzadala zu.

ZER EGIN DUT KRISTOGATIK

(Gogo Jardunak 53)

*(Jesusek lurreko bizitzan egin duena begi aurrean dudala,
zer egin dut nik berari erantzuteko?)*

Kristo gure Jauna
aurrean eta gurutzean josita iruditurik,
hizketatxo bat egin:
nola etorri den Egile izatetik gizon izatera,
eta betiko bizitzatik aldiko bizitzara,
eta horrela ene bekatuengatik hiltzera.
Beste horrenbeste neroni begira:
zer egin dudan Kristogatik,

zer egiten dudan Kristogatik,
zer egin behar dudan Kristogatik;
eta horrela, gurutzean esekita ikusiz,
pentsatu buruak ematen duen guztia.

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1. Iruñean zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.
2. Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendra igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.

KRISTOREN ARIMA

(Ignazioaren deboziokoa)
(anonimoa, XVI. mendea)

Kristoren arima, santu egin nazazu.
Kristoren gorputza, senda nazazu.
Kristoren odola, birbiztu nazazu.
Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.
Oi Jesus ona, entzun nazazu.
Zeure zaurietan gorde nazazu.
Zugandik alde egiten ez utzi niri.
Infernuko etsaiengandik libra nazazu.
Heriotzako orduan deitu nazazu,
eta joanarazi nazazu zugana,
zure santuekin batean
mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

HAURRENTZAT OTOITZAK

GURE AITAGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parrokia.

Zeruko Aita maitea,
nire aita zaindu eta babes ezazu,
lanpetuta ibiltzen baita
familia aurrera ateratzeko.
Makina bat gauza erakusten dit
eta berarekin ziur sentitzen naiz.
Berarekin jolastea atsegin dut.
Eskerrik asko Lurrean gurekin
aita bat edukitzeagatik.

GURE AMAGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parrokia.

Kaixo, Jesus, eskerrak ematen dizkizut,
eta nire amagatik eskatzen dizut.
Beti ni zaintzen eta onena erakusten aritzen da.
Ahalegin handiz.
Batzuetan ez diot kasurik egiten
edo gaizki hitz egiten diot.
Jauna, damutzen naiz, Amari ere eskatuko diot.
Jarrera hobetuko dut.
Egizu, beti elkarrekin batuta egon gaitezela,
maita gaitezela,
eta elkarri barka diezaiegula. Amen..

AITON-AMONENGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parrokia.

Jainko maitea,
eskerrak ematen dizkizut,
gure aiton-amonengatik,
maite nautelako,
nitaz kezkatu
eta gauza asko erakusten didatelako.
Osasuna izan dezatela,
eta beti zoriontsu izan daitezela eskatzen dizut.
Jakin dezatela zu Jesus,
beti beraiekin zaudela,
eta inoiz ez dituzula utziko.

Agintzen dizut,
zinez maiteko ditudala,
entzungo diedala,
nire kontuak kontatuko dizkiedala,
errespetuz hartuko ditudala,
eta ez ditudala bakarrik edo goibel utziko. Amen.

NIRE LAGUNENGATIK OTOITZA

Haurrentzat otoitzak. Azkoitiako parrokia.

Jaun maitea,
bereziki estimatzen ditudan lagun batzuk ditut.
Berengatik otoitz egiten dizut,
gida eta babes itzazu beti,
Zerurako ziurtasunera iritsi arte. Amen.

GOGOETARAKO

Pedro Casaldáliga testuak

Testigu naiz. Martirien alde

OSCAR ARNULFO ROMERO GOTZAINA

Jaunaren aingeruak bezperaz iragarri zuen ...
El Salvadorko bihotzak adierazten zuen
martxoak 24 eta hil hotsak.
Zu ogia eskaintzen ari zinen
Gorputz bizia
-herri baten gorputz txikitua;
isuritako bere Odol garailea-
zapaldua zegoen zure herri nekazariaren odola.

Eta bizi berria egin zen
gure Eliza zaharrean!

Berriro ere testigutzarako zutik,
Ameriketako San Romero, gure Artzain eta Martiria!
Gerra lur honetan ia ezinezkoa den bakearen Romero.
Kontinente osoaren Itxaropen lotsagabearen egoitzan Romero loretan.
Pazko hegoamerikarraren Romero.

Artzain txiro aintzatsua,
soldata,
dolar,
txanpon truk eraila.
Jesus bezala, inperioaren aginduz.
Artzain txiro aintzatsua,
Zure senide Makuludun eta Mahaikideak
baztertua ...!
(Gotzaindegiek ezin zintuzten ulertu:
ez da ongi eraikitako sinagogarik Kristo ulertuko duenik)

Zure behartsukide taldea, bai, bidelagun zenuen,
ezintasun leialean,
aldi berean, zure einkizun profetikoan, belaze eta artalde.
Herria Santu bilakatu zen.
Zure herriaren orduak “kairos”-en sagaratu zintuen.
Behartsuek Ebanjelioa irakurtzen erakutsi zizuten.
Hainbeste senideen heriotza dela eta,
edozein senide bezala
zauriturik,
zuk bazenekien negar egiten, bakardadean, Baratzean.
Bazenekien beldur izaten, borrokan ari den gizon bezala,
baina bazenekien zure hitza ematen, aske, bere kanpai hotsez!

Eta jakin zenuen
kaliz bikoitza edaten
aldare eta herriaren zerbitzurako
sagaratutako esku bakarrez.

Latinoamerikak jarri zaitu bere Berniniren aintzan
bere itsasoko apar distiratsuan
Ande erneen erretaula zaharrean,
loraldi ororen aireko doselean,
bere bide guztietako,
bere trintxera guztietako,
bere aldare guztietako abestian,
Bere seme bihotz iratzartuen ara ziurrean!

Ameriketako San Romero, gure Artzain eta Martiria:
ez du inork
zure azken hitzaldia
isilduko!

Testigu naiz. Lurraren alde

Eskualdea gurutzatuz eta zuen artean biziz Prelaturako herrietan
zeintzuk ziren zailtasun eta sufrimendu handienak ikusi genuen:

- “posseiros” entzat lur arazoak, enpresa eta lur-jabetza erraldoiekin borrokan.
- lekuko agintarien administrazio okerra eta politikakeria.
- osasun, irakaskuntza eta komunikabideetako erabateko ardura eza.
- merkataritzan, botiketan, eta abarretan ematen zen agintekeria eta zapalkuntza.
- nekazal jabekuntzetako langileen esklabutza.
- Polizia Militarren nahikeriak.

Ezin ginen hura dena ikusi eta ezer egin gabe geratu. Jainkoagan sinesten duenak giza duintasunean ere sinetsi behar du. Aita maite duenak senideak zerbitzatu behar ditu. Ebanjelioa norbanakoaren lasaitasuna erretzen duen sua da. Ezin daiteke kristau izan eta zuzentasun eza ahoa itxirik jasan. Jesusek, Ebanjelioan, azken egunean gure senide behartsu eta zapalduenei egin diogunaz epaituko gaituela dio.

Beharrezkoa zen oihu egitea, ekitea. Norberaren bizi arriskua barne. Eta gure aukeren arabera oihu egiten eta ekiten saiatu ginen.

(...)

Eta hor hasi zen gurekiko jazarpena. Zuek zapalduak zineten, gu zuen zapaltzaileen jazarpena izan genuen.

Eta era guztietako mehatxuak eta kalumniak jaso genituen. Boteretsuen eta aberatsen adiskidetasuna galdu genuen. “Komunista”, “terrorista” eta “iraultzailetzat” hartu gintuzten. Gure biziari prezioa jarri zioten. Preso hartu gintuzten.

Zuek eta guk, gauza bera, herri bera, “sertao” honetan bizi eta lan egiten duen Jainkoaren herria izanez, etsai berdinetatik jazarpen bera jasan genuen.

Eta lurralde honetan beste hainbeste jazarpen jasandakoak, ia denak, lurraren eta pertsona bezala bizitzeko eskubidea defendatzeagatik.

Testigu naiz. Jainkoaren alde

GURE AITA

... zure izena birao izan ez dadin ...

Lehen Munduan zaudeten

gure senideok:

bere Izena biraoka erabilia izan ez dadin;

bere erreinua guregana etor dadin
eta Bere Nahia egina izan dadin
ez zeruan bakarrik
lurrean ere bai.
Errespeta ezazue gure eguneroko ogia,
zuek eguneroko zapalkuntzari uko eginez;
ez zaitezte ahalegindu
guk sortu ez genuen zorra kobratzen
eta gure haurrak, gure gosedunak,
gure hildakoak ordaintzen ari zaizkizuenak;
ez zaitezte berriro dirutzaren,
arrazismoaren, gerraren tentaldian erori;
gu gorrotoaren eta menpekotasunaren
tentaldian ez erortzen saiatuko gara;
eta libra gaitzazu, batak eta besteak, edozein gaitzetatik.
Horrela bakarrik otoiztu ahal izango dugu elkarrekin
Jesus senideak erakutsi zigun familiako otoitza:
“Gure Aita”, gure Ama,
zeruetan zarena eta lurrean zarena.

